

**EUSKO JAURLARITZA**



**GOBIERNO VASCO**

JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE  
SEGURANTZA SAILA  
*Azterlanen eta Araubide  
Judirikoaren Zuzendaritza*

DEPARTAMENTO DE JUSTICIA,  
EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL  
*Dirección de Estudios  
y Régimen Jurídico*

## **BIZTANLERIA AKTIBOAREN KUALIFIKAZIO INKESTA 2007**

### **EMAITZEN TXOSTEN ZEHATZA**

## HITZAURREA

Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) bizi den biztanleria aktiboaren kualifikazio-mailari buruzko datu nagusiak modu ordenatuan aurkezteko asmoz landu dugu txosten hau. Batik bat, 2007. urteko egoera aztertu dugu, emandako datuak Biztanleria Aktiboaren Kualifikazio Inkestan (BAKI) oinarritzen baitira, eta urte hori izan baitzen Inkesta horren aplikazioko azken urtea.

Nahasteak saihestearren, lehenik eta behin honako hau aipatu behar dugu: *ia-langabe* gisa definitutako kolektiboa ere biltzen da BAKlan, *aktibo* kontzeptuarekin. Horrela, LANE eta EUROSTAT erakundeek definitutako landunez eta langabeez gain, aztertutako biztanleria aktiboan jasota geratu dira honako hauek ere: zentzu hertsian, enplegurako prest egon ez arren, hots, 15 eguneko epean lanean hasteko prest, edo langabetutzat jotzeko gutxieneko gestioak egin ez arren, hala ere, lana bilatzen ari direnak<sup>1</sup>. *Aktiboen* kategoria zabal hori BAKlan aktibo potentzial gisa definitzen den kolektibotik bereizten da. Kasu honetan, gaur egun lanik bilatzen ari ez diren eta lan egiten ez dutenak dira, baina haien ezaugarrietara eta eskakizunetara egokitzen den lan-eskaintzarik jasoz gero, produkzio-sisteman sartzeko aukera kontuan izango luketenak. Kolektibo hori 2003ko azterketan hartu zen kontuan BAKlan lehenengo aldiz, eta orduz geroztik tratamendu berezia eman zaio. Biztanleria aktiboari eta aktibo potentzialari buruzko ikerlanari esker, *biztanleria potentzialki aktibo* guztiaren ezagutzari buruzko azterketa zabalago bat egin dezakegu.

2007an, BAKlan kontuan hartutako biztanleria potentzialki aktiboak 1.040.958 lagun biltzen ditu EAEn. *Aktibo potentzialen* kategoria alde batera utzita, guztizko kopurua 1.012.720 lagun aktibora murrizten da. Azken datu horrek erakusten du, 2003ko datuekin alderatzen badugu, 16.302 aktibo berri gehiago dagoela, eta 2003-2007 aldian % 1,6 hazi dela. Nahiz eta lau urtean behineko hazkunde-erritmoa hazi egin den 1999-2003 aldiko % 06rekin alderatuta, 2003.-2007. urteetan finkatu egin da 1995-1999 laurtekoaren ezaugarri izan zen biztanleria aktiboaren goranzko joera handiaren haustura, aldi horretan % 6,6ra iristen baita hazkunde-tasa.

Horretaz gain, 54.389tik 28.238ra jaitsi da hilabete batetik hiru hilabetera bitarteko epean lanean hasteko prest egongo litzatekeen lagunen kopurua, betiere haien ezaugarrietara eta eskakizunetara egokitutako enplegurik eskainiko baliote. Izan ere, BAKlan atzemandako biztanle potentzialki aktiboen guztizko kopurua % 0,9 jaisten da 2003an kalkulaturako 1.050.807 laguneko kopurutik. Hortaz, 2007ko egoerak erakusten du biztanleria aktiboaren eta potentzialki aktiboaren igoerarako muga nabarmenak daudela EAEn.

---

<sup>1</sup> Datu-aurkezpena errazte aldera, ia-langabeen kolektiboa langabeen parekotzat hartuko dugu azterlan honetan.

2007. urtean EAEko biztanleria aktiboaren eta potentzialki aktiboaren kualifikazio-maila baldintzatzen duten hainbat aldagai zehatz-mehatz aztertuko ditugu txosten hau osatzen duten kapituluetan. Ikerlanaren ardatz nagusia landunen eta langabeen kolektiboak badira ere, ez-aktibo potentzialki aktiboaren edo *aktibo potentzialen* kolektiboaren ezaugarri bereizgarriak ere kontuan hartuko dira.

Emaitzak honela aurkeztu ditugu. 1. kapituluan, EAEko biztanleria aktiboaren eta potentzialki aktiboaren oinarritzko prestakuntza-ezaugarriak azalduko ditugu, prestakuntza arautuari dagokionez, lortutako maila handiena aztergai hartuta.

2. kapituluan, aurrekoa gehixeago garatuko dugu, prestakuntzaren aldagai horretatik abiatuta, prestakuntza arautuaren eta lan-merkatuan lortutako sartzeko mailaren arteko lotura aztertuko dugu.

3. kapituluan, biztanleria aktiboaren eta potentzialki aktiboaren kualifikazio-prozesuan eragin handia duen alderdia landuko dugu, lan- eta lanbide-esperientziarekin loturik.

4. kapituluan ikerlanaren xede den biztanleriak egindako prestakuntza-jarduera osagarriak landuko ditugu, arreta berezia eskainiz arautu gabeko prestakuntza-prozesuei (AGP) eta atzerriko hizkuntzen ezagutza-mailari.

5. kapituluan, EAEko biztanle aktiboaren eta potentzialki aktiboaren kualifikazio-mailaren laburpena egingo dugu, ikerlaneko kapituluetan aztertutako kualifikazio-mailak kontuan izanda: prestakuntza arautua, lan-esperientzia eta prestakuntza osagarria (arautu gabeko prestakuntza eta atzerriko hizkuntzak).

6. kapituluan, talde profesionalen eta jarduera-adarraren arabeko kualifikazio moten banaketa aztertuko dugu.

Bukatzeko, 7. kapituluan, biztanleria landunaren kualifikazio-egituraren (hasierako prestakuntza arautuari dagokionez) eta produkzio-sistemaren arteko egokitze-prozesuan izaten diren gorabeheren inguruko datuak agertuko ditugu.

## **I.- IKASKETA ARAUTUAK**

## **EUSKADIKO BIZTANLERIA AKTIBOAREN IKASKETA ARAUTUAK**

Biztanleria aktiboaren kualifikazio-maila aztertzean aintzat hartu beharreko lehenengo alderdia prestakuntza arautuaren maila da. Beraz, kapitulu honetan Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleria aktiboaren eta potentzialki aktiboaren ezaugarri nagusiak aurkeztuko ditugu, ikasketa arautuen maila erabilgarriari dagokionez.

Azterketa horretan, lortutako prestakuntza-maila izango da adierazle nagusia, hau da, Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleria aktiboa eta potentzialki aktiboa osatzen dutenek, inkesta egiteko unean, ordura arte lortutako maila handieneko titulazio ofizial aitortua.

### **1.- ALDERDI OROKORRAK**

Lortutako maila handieneko prestakuntza-mailari begiratuta, EAeko biztanleria aktiboaren banaketa 90eko hamarkadaren eta mende berriaren hasieraren antzekoa da: kolektibo horretan, lehen mailako ikasketak amaituak dituztenak, edo lanbide-heziketako I. mailako titulazioa edo baliokidea dutenak dira nagusi. Guztira, EAeko biztanleria aktiboaren % 34,9 egoera horretan dago.

Bigarren mailako ikasketak amaituak dituztenak ere asko dira, biztanleria aktiboaren % 32,2 hain zuzen; lanbidekoak ez diren bigarren mailako tituludunak % 12,3 dira, eta % 19,9 lanbide-heziketako II. mailako tituludunak.

Hirugarren mailako ikasketak amaitu dituzten aktiboek aztertutako biztanleriaren % 29,1 osatzen dute 2007an, erdi-mailako tituludunak % 11 eta goi-mailako tituludunak % 18,1 izanik.

Oro har, Euskal Autonomia Erkidegoan egiaz kualifikatutzat har ditzakegunak (hirugarren mailako ikasketak edo II. mailako lanbide-ikasketak dituztenak, alegia) biztanleria aktiboaren % 42,4 dira, hots, biztanleria aktiboaren gehiengo kolektiboa da, lehen mailako tituludunen edo LH I-eko tituludunen edo lanbidekoak ez diren bigarren mailako ikasketak dituzten tituludunen % 47,2ren gainetik.

Ikasketarik gabekoei dagokienez (lehen hezkuntzarekin hasi baina amaitu gabe utzitakoak barnean hartuta), EAeko gainerako biztanleria aktiboaren % 3,8 dira.

#### 1.1.a taula

Biztanleria aktiboa, prestakuntza-mailaren arabera  
(Datu absolutuak eta % bertikalak)

Prestakuntza-maila	Abs.	% ber.
--------------------	------	--------

Analfabetoak	1.294	0,1
Ikasketarik gabeak	6.500	0,6
Lehen mailakoak amaitu gabe	30.412	3,0
<b>Lehen mailako ikasketarik gabe</b>	<b>38.205</b>	<b>3,8</b>
Lehen mailako ikasketak	243.644	24,1
Bigarren mailakoak amaitu gabe	21.285	2,1
LH I	88.593	8,7
<b>Lehen mailako ikasketak - LH I</b>	<b>353.522</b>	<b>34,9</b>
Lanbidekoak ez diren bigarren mailako ikasketak	124.915	12,3
LH II	201.137	19,9
<b>Bigarren mailako ikasketak</b>	<b>326.051</b>	<b>32,2</b>
Hirugarren mailako erdi-mailako ikasketak	111.746	11,0
Hirugarren mailako goi-mailako ikasketak	183.196	18,1
<b>Hirugarren mailako ikasketak</b>	<b>294.942</b>	<b>29,1</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>1.012.720</b>	<b>100</b>

Hala ere, biztanleria potentzialki aktiboaren kualifikazio-maila aktiboena baino txikiagoa da: % 48,5ek lehen mailako edo LH I-eko ikasketak ditu gehienez, % 24,2k lanbidekoa ez den bigarren mailako titulua du, eta ikasketak kualifikatuak (hirugarren mailakoak edo LH II) dituztenak % 27,2 dira. Beraz, prestakuntza arautuaren maila txikiagoa duen kolektiboa da.

#### 1.1 b taula

Biztanleria potentzialki aktiboa, prestakuntza-mailaren arabera  
(Datu absolutuak eta % bertikalak)

Prestakuntza-maila	Abs.	% ber.
Analfabetoak	0	0,0
Ikasketarik gabeak	744	2,6
Lehen mailakoak amaitu gabe	2.282	8,1
<b>Lehen mailako ikasketarik gabe</b>	<b>3.025</b>	<b>10,7</b>
Lehen mailako ikasketak	7.870	27,9
Bigarren mailakoak amaitu gabe	1.214	4,3
LH I	1.600	5,7
<b>Lehen mailako ikasketak - LH I</b>	<b>10.683</b>	<b>37,8</b>
Lanbidekoak ez diren bigarren mailako ikasketak	6.844	24,2
LH II	5.385	19,1
<b>Bigarren mailako ikasketak</b>	<b>12.229</b>	<b>43,3</b>
Hirugarren mailako erdi-mailako ikasketak	0	0,0
Hirugarren mailako goi-mailako ikasketak	2.300	8,1

<b>Hirugarren ikasketak</b>	<b>mailako</b>	<b>2.300</b>	<b>8,1</b>
<b>GUZTIRA</b>		<b>28.238</b>	<b>100</b>

Azken aldiko bilakaerak erakusten du biztanleria aktiboaren gero eta kualifikazio-maila handiagoa izateko joera dagoela. Ildo berari jarraiki, 1995.-2007. urteetan bigarren eta hirugarren mailako ikasketak dituen biztanleriaren kopurua nabarmen handitu da (% 33,1 eta % 60,2, hurrenez hurren). Hazkunde handiena, hala ere, LH II-ko tituludunena izan da (% 51,7), baita hirugarren mailako goi-mailako ikasketak egindakoena ere (% 66,4 hazi baita); halaber, erdi-mailako tituludunen artean hazkundera % 50etik gorakoa izan da (% 51). Hazkundera % 6,8ra jaisten da lanbidekoak ez diren bigarren mailako ikasketak dituztenen artean, eta % 6,1era LH I-eko tituludunen artean.

Aitzitik, nabarmen jaisten da ikasketarik gabeko biztanleria aktiboa (% -28), lehen mailako ikasketak amaitu gabe dituztenena (% -65,8) eta bigarren mailako ikasketak amaitu gabe dituztenena (% -53,5). Jaitsiera hain handia ez izan arren, lehen mailako ikasketak dituzten biztanleen kopurua ere jaisten da (% -10,2).

Datu horien multzokatutako azterketa esanguratsuagoa da. 1995-2007 aldian, lehen mailako ikasketarik gabeko biztanleria % 61,5 jaitsi bada ere, lehen mailako ikasketak zentzu hertsian (LH I gabe) egindakoak % 16,4 gutxiago dira; eta LH I-eko tituludunak edo lanbidekoak ez diren bigarren mailako ikasketak egindakoen batura % 6,5 hazi da. Igoera handiena ikasketa kualifikatuak, LH II-ko edo hirugarren mailako ikasketak dituztenen multzoan izan da; kolektibo horretako biztanle aktiboa % 58,9 handitu zen 1995-2007 aldian. Azken batean, honako hau egiaztatu da: alde batetik, ikasketa-mailak gora egin ahala bilakaera ere hobea da; eta bestetik, bigarren eta hirugarren mailako ikasketak egindakoen egoera eta ikasketarik gabekoen edo lehen mailako ikasketak egindakoen (horien biztanle kopurua handitzen ari da) egoera ez datoz bat, bigarren multzo horretakoak gainbehera nabarmena izan baitute.

Joera horien ondorioz, 1995.-2007. urteetan biztanleria aktiboaren banaketa errotik aldatu da. 1995ean, biztanleria aktiboaren % 44,8k gehienez lehen mailako ikasketak (LH I-eko ikasketak edo bigarren mailako lanbide-ikasketak amaitu gabe) egin zituen; % 33,6k ikasketa kualifikatuak zituen; eta gainerako % 21,6ak LH I-eko ikasketak edo bigarren mailako lanbide-ikasketak. 2007. urtean, aldiz, kolektibo handiena ikasketa kualifikatuak dituztenena da (% 49), gehienez lehen mailako ikasketak dituztenen taldea % 29,9ra murriztu da, eta LH I-eko edo bigarren mailako lanbide-ikasketetako erdi-mailako tituludunei eutsi egin zaie (% 21,1).

2003.-2007. urteetan ikusitako bilakaerak honako hau adierazten du: lehen mailako ikasketarik gabeko biztanleria aktiboa jaisten ari da. Biztanleria mota horren beheranzko joera areagotu egiten da urteak igaro ahala; izan ere, 1995.-1999. urteetan % 18,3 jaitsi zen, 1999.-2003. urteetan % 28,8 eta 2003.-2007. urteetan % 33,8. 1999.-2003. urteetan % 4,5 berreskuratu ostean (1995.-1999. urteetan % 11,1 erori zen) lehen mailako ikasketen gehieneko maila duen biztanleria beherantz egiten hasten da berriz ere 2003.-2007. urteetan, biztanleria % 10,1 murrizten baita. 1995.-1999. urteetan % 16,3 hazi ondoren, jaitsiera LH I-eko tituludunek edo lanbidekoak ez diren bigarren mailako ikasketak dituztenek osatzen duten taldera ere hedatzen da (% -5 1999.-2003. urteetan eta % -3,7 2003.-2007. urteetan).

Egia esan, aktiboen hazkunderari ikasketa kualifikatuak (LH II edo hirugarren mailako ikasketak) dituen biztanleriak soilik eusten dio aldi osoan. 1995-1999 aldian erregistratutako hazkunde-maila (% 26,3) lortzen ez bada ere, 2003-2007 laurtekoan erregistratzen den % 17,4ko hazkundeak erakusten du goranzko joera berreskuratzen dela 1999-2003 laurtekoko % 7,1en ondoren.

Biztanleria aktiboaren barne-banaketari erreparatuta, agerian geratzen da kualifikazio-maila handiagoak lortzeko erritmoak izandako indarberritzea nabarmena dela azken lau urteetan. 1995-1999 aldian, batik bat, handitu zen kualifikazio handieneko taldeen (LH II-ko eta hirugarren mailako tituludunak) garrantzi erlatiboa; % 33,6 izatetik % 39,8 izatera igaro baitzen, hots, portzentajezko 6,2 puntu hazi zen. Joera positiboari eutsi bazitzaion ere, 2003an soilik % 42,4ra iristen zen, portzentajezko 2,6 puntu gehiago. 2007an, proportzioa % 49ra handitzen da, 2003an ikusitakoa baino 6,6 puntu gorago. LH I-eko eta lanbidekoak ez diren bigarren mailako ikasketak dituen biztanleriaren garrantziari egonkor samar eusten bazaio ere (% 21-% 23,5 tartean dago) lehen mailako ikasketak dituen biztanleriaren edo ikasketarik gabekoaren garrantzi erlatiboa jaitsi egin da etengabe. 1995.-1999. urteetan % 44,8tik % 36,6ra jaisten da, 8,2 puntuko murrizketarekin, 1999.-2003. urteetan beste 1,3 puntu galtzen ditu, azken urte horretan biztanleria aktiboaren guztizkoaren % 35,4an kokatu zen. 2003.-2007. urteetan kopurua % 29,9raino jaisten da, 2003ko kopurua baino %, 5,4 puntu beherago.

Kolektibo kualifikatuaren hazkunde-erritmoaren areagotzea, 2003-2007 aldikoa, soilik goi-mailako tituludunen kasuan ikusten da, hazkundeak % 25etik % 35era bitartekoak izanik, 1995-2007 aldiko handienak, bestalde. Aitzitik, LH II-ko tituludunen artean, laurteko hazkunderaren erritmoen pixkanakako beheranzko joera egonkortzen da. 1995-1999 aldian % 35,7 hazi bazen ere, erritmoa % 11,8ra jaisten da 1999.-2003. urteetan eta % 3,6ra 2003-2007 aldian. Adierazitako bilakaera desberdinak esan nahi du aldaketa kualitatiboa dagoela LH II-ko tituludunen kasuan. Izan ere, 1995-2003 aldian hirugarren mailako titulazioa duen biztanleriaren oso gaintetik hazi bazen ere, 2003-2007 aldian, tituludun mota horren kopuruaren hazkundera nabarmen jaisten da,



hirugarren mailako ikasketak (erdi-mailakoak nahiz goi-mailakoak) egiten dituztenen kopuruan dauden igoera nabarmenekin kontrastean.

1.2 a taula  
Biztanleria aktiboaren bilakaera, prestakuntza-mailaren arabera  
(Datu absolutuak eta hazkunde-tasak)

Prestakuntza-maila	Datu absolutuak				Hazkunde-tasak			
	1995	1999	2003	2007	% 95-99	% 99-03	% 03-07	% 95-07
Analfabetoak	1.248	1.952	1.854	1.294	56,4	-5,0	-30,2	3,7
Ikasketarik gabeak	9.027	5.107	4.117	6.500	-43,4	-19,4	57,9	-28,0
Lehen mailakoak amaitu gabe	88.902	74.017	51.724	30.412	-16,7	-30,1	-41,2	-65,8
<b>Lehen mailako ikasketarik gabe</b>	<b>99.177</b>	<b>81.076</b>	<b>57.695</b>	<b>38.205</b>	<b>-18,3</b>	<b>-28,8</b>	<b>-33,8</b>	<b>-61,5</b>
Lehen mailako ikasketak	271.230	240.045	256.274	243.644	-11,5	6,8	-4,9	-10,2
Bigarren mailakoak amaitu gabe	45.767	41.788	38.381	21.285	-8,7	-8,2	-44,5	-53,5
LH I	83.509	97.794	89.174	88.593	17,1	-8,8	-0,7	6,1
<b>Lehen mailako ikasketak - LH I</b>	<b>400.506</b>	<b>379.627</b>	<b>383.829</b>	<b>353.522</b>	<b>-5,2</b>	<b>1,1</b>	<b>-7,9</b>	<b>-11,7</b>
Lanbidekoak ez diren bigarren mailakoak	116.979	135.436	132.428	124.915	15,8	-2,2	-5,7	6,8
LH II	128.021	173.777	194.206	201.137	35,7	11,8	3,6	57,1
<b>Bigarren mailako ikasketak</b>	<b>245.000</b>	<b>309.214</b>	<b>326.634</b>	<b>326.051</b>	<b>26,2</b>	<b>5,6</b>	<b>-0,2</b>	<b>33,1</b>
Hirugarren mailako erdi-mailako ikasketak	74.023	88.902	82.455	111.746	20,1	-7,3	35,5	51,0
Hirugarren mailako goi-mailako ikasketak	110.089	131.615	145.805	183.196	19,6	10,8	25,6	66,4
<b>Hirugarren mailako ikasketak</b>	<b>184.112</b>	<b>220.518</b>	<b>228.260</b>	<b>294.942</b>	<b>19,8</b>	<b>3,5</b>	<b>29,2</b>	<b>60,2</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>928.795</b>	<b>990.434</b>	<b>996.418</b>	<b>1.012.720</b>	<b>6,6</b>	<b>0,6</b>	<b>1,6</b>	<b>9,0</b>

1.2 b taula  
Biztanleria aktiboaren bilakaera, prestakuntza-mailaren arabera  
Multzokatutako datuak  
(Datu absolutuak eta hazkunde-tasak)

Prestakuntza-maila	Datu absolutuak				Hazkunde-tasak			
	1995	1999	2003	2007	% 95-99	% 99-03	% 03-07	% 95-07
Lehen mailako ikasketarik gabe	99.177	81.076	57.695	38.205	-18,3	-28,8	-33,8	-61,5
Lehen mailako ikasketak	316.997	281.833	294.654	264.929	-11,1	4,5	-10,1	-16,4
LH I edo lanbidekoak ez diren bigarren mailakoak	200.488	233.230	221.603	213.508	16,3	-5,0	-3,7	6,5
LH II edo hirugarren mailakoak	312.133	394.294	422.466	496.078	26,3	7,1	17,4	58,9
<b>Guztira</b>	<b>928.795</b>	<b>990.434</b>	<b>996.418</b>	<b>1.012.720</b>	<b>6,6</b>	<b>0,6</b>	<b>1,6</b>	<b>9,0</b>

1.3 taula.  
Biztanleria aktiboaren banaketa, prestakuntza-mailaren arabera  
Multzokatutako datuak  
(%-etan)

Prestakuntza-maila	1995	1999	2003	2007
Lehen mailako ikasketarik gabe	10,7	8,2	5,8	3,8
Lehen mailako ikasketak	34,1	28,5	29,6	26,2

LH I edo lanbidekoak ez diren bigarren mailakoak	21,6	23,5	22,2	21,1
LH II edo hirugarren mailakoak	33,6	39,8	42,4	49,0
<b>GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>

Jarraian, aktibo kolektibo bakoitzaren barne-ezaugarriak deskribatuko ditugu txostenean, prestakuntza-maila txikienetik handienerako hurrenkeran.

### **1.1.- Lehen mailako ikasketarik gabeko biztanleria aktiboa**

Lehen mailako ikasketak amaitu gabe dituzten biztanle aktiboen multzoa hiru kolektibok osatzen dute; 2007. urtean kolektibo horietako bakoitzak EAEko biztanleria aktiboaren barruan zuen garrantzia azalduko dugu:

- Alfabetatu gabekoek oso talde txikia osatzen dute: guztira 1.294 lagun, biztanleria aktiboaren % 0,1.
- Alfabetatuak bai, baina inolako ikasketarik gabekoen kolektiboan 6.500 lagun daude (biztanleria aktiboaren % 0,6).
- Multzo horren barruan, kolektibo garrantzitsuena (ikasketarik gabekoen artean, hamarretik zortzi) honako hauek osatzen dute: lehen mailako ikasketak egiten hasi baina amaitzea lortu ez dituztenak. Talde horretan 30.412 lagun hartzen dira barnean, biztanleria aktiboaren % 3, alegia.

Lehen esan dugunez, oro har, lehen mailako ikasketak amaitu ez dituzten biztanle aktiboak 38.205 lagun dira, hots, gure autonomia-erkidegoko biztanleria aktiboaren % 3,8. Proporzio hori nabarmen jaitsi da, 1995ean % 10,7 baitzen.

Lehen mailako ikasketarik gabeko aktibo gehienak gizonak dira (% 59,5); nolana ere, garrantzi hori antzekoa da gainerako biztanleria aktiboaren kasuan (gizonen % 57,4).

Adina, ordea, gainerako kolektibo aktiboetatik bereizten duen elementua da: 45 urtetik gorakoetan % 53,2 lehen mailako ikasketarik gabeko aktiboaren artean, eta gainerako aktiboetan % 34,4 izanik.

1.4 taula.

Lehen mailako ikasketarik gabeko biztanleria aktiboa, sexuaren eta adinaren arabera (% bertikalak)

Sexua	Ikasketarik gabeak	Gainerakoak
Gizonak	59,5	57,4
Emakumeak	40,5	42,6
Adina	Ikasketarik gabeak	Gainerakoak
<25 urte	7,1	6,2
25-29 urte	6,9	13,3
30-34 urte	10,7	16,7
35-39 urte	7,9	13,9
40-44 urte	14,2	15,5
45-49 urte	10,8	12,4
50-54 urte	17,7	11,5
>= 55 urte	24,7	10,5
GUZTIRA	100	100

Sexuaren eta adinaren arabera datuak batera aztertuta, lehen mailako ikasketak amaitu gabe dituen biztanleriaren artean talde handienak 45 urtetik gorako gizonak eta emakumeak osatutakoak dira (% 30,8 eta % 22,3, hurrenez hurren). 45 urtetik beherako gizonak % 28,7 osatzen dute, eta gainerako % 18,2a adin-tarte horretako emakumeak.

1.5.a taula

Lehen mailako ikasketarik gabeko biztanleria aktiboa, sexuaren eta adinaren arabera (% bertikalak)

Sexua eta adina	Ikasketarik gabeak	Gainerakoak
Gizonak < 35	14,1	20,0
Gizonak 35-44	14,5	16,4
Gizonak >= 45	30,8	21,1
Emakumeak < 35	10,6	16,2
Emakumeak 35-44	7,6	13,0
Emakumeak >= 45	22,3	13,3
GUZTIRA	100	100

Prestakuntza-maila horri dagokionez, 45 urtetik gorako emakumeak duten protagonismoa nabarmenagoa geratzen da berriro aktibo potentzialen taldea kontuan hartzen denean. Biztanleria aktibo potentzialaren % 49,3 adin-tarte horretan dago, honela banatuta: % 23,9 45 urtetik beherako emakumeak dira, eta % 26,8 adin horretatik beherako gizonak.

Emakumeen garrantzia zertxobait handiagoa da, bestalde, biztanleria potentzialki aktiboan: % 49,6; biztanleria aktiboan, zentzu hertsian hartuta, aldiz, % 40,5 da.

1.5 b taula.

Lehen mailako ikasketarik gabeko biztanleria potentzial aktiboa, sexuaren eta adinaren arabera (% bertikalak)

Sexua eta adina	Ikasketarik	
	Gabeak	Gainerakoak
Gizonak < 35	20,3	15,7
Gizonak 35-44	6,5	0,8
Gizonak >= 45	23,6	6,8
Emakumeak < 35		27,3
Emakumeak 35-44	23,9	21,7
Emakumeak >= 45	25,7	27,8
<b>GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>

2003an zegoen egoerari dagokionez, 2007ko datuek batez ere erakusten dute 45 urtetik gorako emakumeen garrantzi erlatiboa galdu egin dela lehen mailako ikasketak amaitu gabeko biztanleria aktiboaren barruan, horien garrantzi erlatiboa % 28,1etik % 22,3ra jaitsi baita. Izan ere, emakume kolektibo horren kopurua % 47,3 jaitsi da 2003.-2007. urteetan, batez besteko % 33,8ren gainera. Nolanahi ere, jaitsierak oso handiak dira gainerako sexu- eta adin-talde ia guztietan, normalean % 30etik % 40ra bitarte kokatzen baitira. Salbuespen bakarra lehen mailako ikasketak amaitu gabe dituzten 25 urtetik beherako emakumeena da, talde horretan % 22,7ko igoera gertatzen baita 2003-2007 laurtekoan. Lehen mailako ikasketak amaitu gabe dituztenen garrantzia 2003an % 5,7 izatetik 2007an % 10,6 izatera igarotzen da.

1.6 taula.

Lehen mailako ikasketarik ez duen biztanleria aktiboaren barne-egituraren bilakaera, sexuaren eta adinaren arabera.

Biztanleriaren hazkunde-tasak (%-etan)

Sexua eta adina	2003	2007	Hazkundera 2003/2007 (1)
Gizonak < 35	14,5	14,1	-35,4
Gizonak 35-44	13,9	14,5	-30,8
Gizonak >= 45	29,8	30,8	-31,5
Emakumeak < 35	5,7	10,6	22,7
Emakumeak 35-44	8,0	7,6	-37,1
Emakumeak >= 45	28,1	22,3	-47,3
<b>GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>-33,8</b>

(1) Adierazle hori erreferentziako biztanleria aktiboari dagozkion datu absolutuak oinarri hartuta kalkulatzen da.

## 1.2.- Lehen mailako edo LH I-eko ikasketak dituen biztanleria aktiboa

*Lehen mailako edo LH I-eko ikasketak* izenburupean hiru kolektibo biltzen dira, eta horien garrantzi erlatiboa honako hau da 2007. urtean:

- Lehen mailako ikasketak amaitu dituztenek osatzen dute kolektibo handiena, guztira 243.644 lagun, EAEko biztanleria aktiboaren % 24,1.
- Bigarren mailako ikasketak amaitu gabe dituztenak 21.285 aktibo dira guztira, biztanleria aktiboaren % 2,1, alegia.
- Azkenik, LH I-eko ikasketak edo baliokideak amaitu dituztenak 88.593 lagun dira guztira, biztanleria aktiboaren % 8,7.

Oro har, lehen mailako edo LH I-eko ikasketak dituztenen multzoan 353.55 lagun hartzen dira barnean, EAEko biztanleria aktiboaren % 34,9; 1999. eta 2003. urteetan datuak % 38,5etik hurbil zeuden, eta 1995. urtean % 43,1etik hurbil, beraz, jaitsiera izan da.

Generoaren eta adinaren arabera banaketa eginez gero, lehen mailako ikasketak amaitu gabeko biztanleen antzeko ezaugarriak ikusiko ditugu. Horrela, gainerako biztanle aktiboekin alderatuta, gizonak garrantzi erlatibo handiagoa dute (% 63, eta gainerako biztanleetan % 54,6), baita 45 urtetik gorakoek ere (% 43,9, eta gainerako biztanleetan % 30,4). 45 urtetik gorako lagunen proportzioa ikasketarik gabekoen multzoaren proportzioa baino askoz ere txikiagoa da (% 53,2).

1.7 taula.

Lehen mailako edo LH I-eko ikasketak dituen biztanleria aktiboa, sexuaren eta adinaren arabera (% bertikalak)

Sexua	Lehen mailako	Gainerakoak
Gizonak	63,0	54,6
Emakumeak	37,0	45,4
Adina	Lehen mailako	Gainerakoak
<25 urte	5,8	6,4
25-29 urte	9,0	15,2
30-34 urte	12,7	18,6
35-39 urte	14,3	13,3
40-44 urte	14,4	16,0
45-49 urte	15,8	10,5
50-54 urte	14,5	10,2
>= 55 urte	13,5	9,7
<b>GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>

45 urtetik gorako garrantzia adin-tarte horretako gizonei, batik bat, loturik dago, lehen mailako edo LH I-eko ikasketak dituzten biztanle guztien % 26,4 osatzen baitute, 45 urtetik gorako emakumei dagokienez, aldiz, % 17,5 osatzen dute. Dena dela, prestakuntza-maila mota horretan, 45 urtetik beherako gizonen proportzioa ere garrantzitsua da, % 36,6; izan ere, 35-44 urteko eta 35 urtetik beherako gizonen kopurua % 17,5etik % 19ra bitartekoa da. 45 urtetik beherako emakumeak % 19,5 dira (35 urtetik beherako emakumeen % 8,5 eta 35-44 urteetako % 11,1).

1.8 a taula.

Lehen mailako edo LH I-eko ikasketak dituen biztanleria aktiboa, sexuaren eta adinaren arabera (% bertikalak)

Sexua eta adina	Lehen mailako ikasketak/LH I	Gainerakoak
Gizonak < 35	19,0	20,2
Gizonak 35-44	17,6	15,6
Gizonak >= 45	26,4	18,8
Emakumeak < 35	8,5	20,0
Emakumeak 35-44	11,1	13,7
Emakumeak >= 45	17,5	11,7
<b>GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>

Biztanleria aktibo potentzialaren artean, ordea, 45 urtetik gorako emakumeak dira nagusi. Lagun horiek lehen mailako edo LH I-eko ikasketak dituen kolektiboaren % 53,4 osatzen dute. Emakume gazteagoek % 36,2 osatzen dute, gainerako % 10,5a gizonena izanik.

1.8 b taula.

Lehen mailako edo LH I-eko ikasketak dituen biztanleria aktibo potentziala, sexuaren eta adinaren arabera (% bertikalak)

Sexua eta adina	Lehen mailako ikasketak/LH I	Gainerakoak
Gizonak < 35	3,3	24,0
Gizonak 35-44	1,8	1,1
Gizonak >= 45	5,3	10,6
Emakumeak < 35	8,0	34,3
Emakumeak 35-44	28,2	18,2
Emakumeak >= 45	53,4	11,8
<b>GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>

Emakumeek jarduerarako sarbide handiagoa duten testuinguruan, 45 urtetik gorako emakumeek aktibo potentzialen artean duten garrantziak aurreikusten du lagun mota hori



jarduerara aldatuko dela nabarmen. Izan ere, 2003arekin alderatuta, nabarmena da 45 urtetik gorako emakumeen garrantzi erlatiboak lehen mailako edo LH I-eko ikasketak dituen biztanleria aktiboaren artean izan duen gorakada; izan ere, 2003an % 14,9 osatzen zuten eta 2007an, aldiz, % 17,5. 1999an, kontuan hartutako emakumeak prestakuntza-maila hori zuen biztanleria aktiboaren % 9,9 soilik baitziren.

Lehen mailako edo LH I-eko ikasketak dituen 45 urtetik beherako emakumeen kopurua, ordea, % 20 baino gehiago jaitsi da. Emakume talde horretan 45 urtetik gorako emakumeen taldean azaldutako prozesuaren aurkako prozesua dagoela ikusten baita, emakume horiek aipatutako kolektiboan duten garrantzia 1999ko % 28,5etik 2003ko % 23,5 eta 2007ko % 19,5era jaisten baita.

Jaitsiera ez da hain deigarria gizonezko biztanleriaren kasuan, kopurua % 5,9tik % 9,6ra bitarte kokatzen baita 35 urtetik gorako gizonen kasuan. Lehen mailako edo LH I-eko ikasketak dituen biztanleria aktiboa, ordea, egonkortu egiten da adin horretako gizonen artean. Izan ere, % 17,5etik % 19ra igotzen da 35 urtetik beherako gizonezko biztanleriaren partaidetza lehen mailako edo LH I-eko ikasketak dituzten aktibo guztietan 2003.-2007. urteetan, gainerako gizonezko biztanleriaren ekarpena, ordea, egonkorra da, % 44tik hurbil.

#### 1.9 taula.

Lehen mailako edo LH I-eko ikasketak dituen biztanleria aktiboaren barne-egituraren bilakaera sexuaren eta adinaren arabera  
Biztanleriaren hazkunde-tasak  
(%-etan)

Sexua eta adina	2003	2007	Hazkundera 2003/2007 (1)
Gizonak < 35	17,5	19,0	0,0
Gizonak 35-44	17,3	17,6	-5,9
Gizonak >= 45	26,9	26,4	-9,6
Emakumeak < 35	10,7	8,5	-26,7
Emakumeak 35-44	12,8	11,1	-20,4
Emakumeak >= 45	14,9	17,5	7,8
<b>GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>-7,9</b>

(1) Adierazle hori erreferentziako biztanleria aktiboari dagozkion datu absolutuak oinarri hartuta kalkulatzen da.

### 1.3.- Bigarren mailako ikasketak dituen biztanleria aktiboa

Bigarren mailako ikasketak dituztenen aktibo multzoan honako hauek hartzen dira barnean: II. mailako lanbide-heziketa amaitu dutenak eta lanbidekoak ez diren bigarren mailako ikasketak amaituak dituztenak.

LH II-ko ikasketak egin dituen biztanleria aktiboa da talderik ugariena, 1999.-2003. urteetan bezala, guztira 201.237 lagun baitira, eta biztanleria aktiboaren % 19,9; kopuru hori 2003ko % 19,5etik hurbil dago. Azken egonkortzea gorabehera, kolektibo horrek, ordea, ikusten du bere garrantzi erlatiboa nabarmen igo dela 1999ko % 17,5ekin eta 1995eko % 13,8rekin alderatuta.

Bestalde, lanbidekoak ez diren bigarren mailako ikasketak amaitu dituzten lagun guztiak 124.915 dira, guztizko biztanleria aktiboaren % 12,3, 1995eko % 12,6ren antzekoa, baina 1999ko % 13,7 eta 2003ko % 13,3 baino zertxobait txikiagoa. 1995.-1999. urteetan zertxobait hazi ondoren, kolektibo horrek guztizko biztanleria aktiboak duen garrantzi erlatiboa jaitsi egin da pixkanaka-pixkanaka, BAKIak 2007an hartzen duen aldiaren gutxieneko historikoa lortuz.

Oro har, aintzat hartutako 326.051 lagunek biztanleria aktiboaren % 32,2 osatzen dute, 1995eko % 26,4 eta 1999ko % 31,2 gaindituta, baina 2003ko % 32,8tik zertxobait beherago.

Aurreko urteetan bezalaxe, aktibo multzo horretan gizonak dira nagusi: % 61,6 gainerako aktiboen proportzioa % 55,6 izanik. LH II-ko tituludunen artean gizonek garrantzi handia (% 63,8) dutelako gertatzen da hori, nahiz eta 2007an argi eta garbi gaintitu gainerako biztanleriari dagokion maila lanbidekoak ez diren bigarren mailako tituludunen artean (% 58,2).

Nabarmendu beharreko bigarren ezaugarria kolektiboaren gaztetasuna da: 45 urtetik beherakoak % 70,2 dira, eta 35 urtetik beherakoak % 41,2 (biztanleria aktiboaren gainerakoan % 62,4 eta % 33,2 direnean, hurrenez hurren). Ezaugarri bereizle horrek ere badu zeresanik LH II-ko tituludunen kasuan ere, 45 urtetik beherakoak % 73,6 baitira, eta lanbidekoak ez diren bigarren mailako tituludunak % 64,6.

1.10 taula.  
Bigarren mailako ikasketak dituen biztanleria aktiboa, sexuaren, adinaren eta prestakuntza-mailaren arabera (% bertikalak)

Sexua	Lanbidekoak ez diren 2. mailakoak	LH II	Bigarren mailako ikasketak	Gainerakoak
Gizonak	58,2	63,8	61,6	55,6
Emakumeak	41,8	36,2	38,4	44,4
Adina	Lanbidekoak ez diren 2. mailakoak	LH II	Bigarren mailako ikasketak	Gainerakoak
<25 urte	10,4	7,9	8,9	4,9

25-29 urte	13,0	16,2	15,0	12,2
30-34 urte	16,5	17,9	17,4	16,1
35-39 urte	10,3	14,0	12,6	14,1
40-44 urte	14,4	17,6	16,3	15,0
45-49 urte	12,3	9,4	10,5	13,3
50-54 urte	13,4	8,8	10,5	12,2
>= 55 urte	9,7	8,2	8,8	12,1
<b>GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>

Biztanleria honen artean nagusi den multzoa (sexuaren eta adinaren arabera) 35 urtetik beherako gizonena da, bigarren mailako ikasketak dituzten aktibo guztien % 24,6 osatzen baitute. Adin-tarte horretako emakumeen garrantzia ere esanguratsua da, askoz txikiagoa izan arren (% 16,7). Zertxobait handiagoa da 35-44 urteko edo 45 urtetik gorako gizonen garrantzia, % 17,2 eta % 19,8 baita, hurrenez hurren, eta orotara kolektiboaren % 37 egiten dute (35 urteko edo gehiagoko emakumeen kasuan % 21,7 besterik ez denean). Gainerako biztanleria aktiboarekin alderatzen badugu, ikusten dugu garrantzi handiagoa duela bigarren mailako ikasketak dituzten 35 urtetik beherako tituludunen artean, oro har, baita 35-44 urteko gizonen artean ere. Nolanahi ere, alderik handiena 35 urteko gizonen dagokie (% 24,6, aldiz, gainerako biztanleria aktiboa: % 17,5).

Sexuaren eta adinaren araberako multzo handietan, beste datu hau ere nabarmendu behar dugu: 45 urtetik beherako gizonen garrantzi erlatibo handiagoa dute LH II-ko tituludunen artean (guztizkoaren % 44,7, bigarren mailako gainerako tituludunak, aldiz, % 37,2 dira), eta 45 urteko eta gehiagoko lagunek garrantzi erlatibo handiagoa dute lanbidekoak ez diren bigarren mailako ikasketen kasuan (guztizkoaren % 35,4, eta LH –II-n, aldiz, % 26,4).

1.11 a taula  
Bigarren mailako ikasketak dituen biztanleria aktiboa, sexuaren, adinaren eta prestakuntza-mailaren arabera (% bertikalak)

Sexua eta adina	Lanbidekoak ez diren 2. mailakoak	LH II	Bigarren mailako ikasketak	Gainerakoak
Gizonak < 35	23,4	25,3	24,6	17,5
Gizonak 35-44	13,7	19,4	17,2	15,9
Gizonak >= 45	21,0	19,0	19,8	22,2
Emakumeak < 35	16,5	16,7	16,7	15,7
Emakumeak 35-44	10,9	12,1	11,7	13,3
Emakumeak >= 45	14,4	7,3	10,0	15,4
<b>GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>

Ikasketa-maila txikiagoa dutenetan ez bezala, 35 urtetik beherako gizonen garrantzia nagusitzen da bigarren mailako ikasketak dituen biztanleria aktiboaren potentzialaren kasuan. Izan ere, 35 urtetik beherako kolektiboaren % 75 dira, batik bat emakumeen garrantzia nagusi dela (% 47,8;

gizonak, aldiz, % 27,2 dira). 35 urtetik gorako emakumeek guztizkoaren % 18,2 osatzen dute, ikasketa-maila horretako adin berdineko gizonak % 6,8 besterik egiten ez dutenean, betiere biztanleria aktibo potentzialari dagokionez.

1.11 b taula  
 Bigarren mailako ikasketak dituen biztanleria aktibo potentziala, sexuaren eta adinaren arabera  
 (% bertikalak)

Sexua eta adina	Bigarren mailako ikasketak	Gainerakoak
Gizonak < 35	27,2	7,8
Gizonak 35-44		2,5
Gizonak >= 45	6,8	9,9
Emakumeak < 35	47,8	6,4
Emakumeak 35-44	7,6	33,0
Emakumeak >= 45	10,6	40,5
<b>GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>

Azken bilakaera kontuan hartzen badugu, nabarmentzen da 2003.-2007. urteetan izugarri hazi dela bigarren mailako ikasketak dituzten 45 urteko edo gehiagoko aktiboen kopurua. Emakumeen artean igo da bereziki, % 28,2ko igoerarekin, baina gizonetan ere ez da igoera makala izan (% 17,7). Hortaz, aktiboen bolumenak adin horietan duen igoera handiko prozesuari eusten zaio. 1995ean, 45 urteko edo gehiagoko aktiboek bigarren mailako ikasketak zituzten guztizko aktiboen % 16,6 osatzen zuten, baina proportzioa etengabe hazi da egungo % 29,8ra iritsi arte.

Emakumeen kasuan, 1999.-2003. urteetan argi eta garbi ikusten zen hazkunderako joera 35-44 urteko biztanleriarengana ere hedatu da 2003.-2007. urteetan; izan ere, % 26,4 hazi da emakumeen artean eta % 12,2 gizonen artean. Adin-talde horretako garrantzia hazi egin da 1999.-2003. urteetan % 25etik zertxobait beherago zeuden kopuruetatik egungo % 28,9ra. Aitzitik, 35 urtetik beherakoek kolektibo horretan duten partaidetza 1999.-2003. urteetako % 50etik goragoko kopuruetatik egungo % 41,2ra jaitsi da. Bigarren mailako ikasketak dituzten 35 urtetik beherakoek kopurua ia % 20 jaitsi da gizonen nahiz emakumeen kasuan 2003-2007 laurtekoan; beheranzko joera hori oso deigarria da emakumeen artean 1999.-2003. urteetan.

1.12 taula.  
 Bigarren mailako ikasketak dituen biztanleria aktiboaren barne-egituraren bilakaera,  
 sexuaren eta adinaren arabera  
 Biztanleriaren hazkunde-tasak  
 (%-etan)

Sexua eta adina	2003	2007	Hazkundera %-etan 2003/2007 (1)
Gizonak < 35	30,1	24,6	-18,5
Gizonak 35-44	15,3	17,2	12,2
Gizonak >= 45	16,8	19,8	17,7
Emakumeak < 35	20,7	16,7	-19,8
Emakumeak 35-44	9,2	11,7	26,4
Emakumeak >= 45	7,8	10,0	28,2
<b>GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>-0,2</b>

(1) Adierazle hori erreferentziatzko biztanleria aktiboari dagozkion datu absolutuak oinarri hartuta kalkulatzen da.

#### 1.4.- Hirugarren mailako ikasketak dituen biztanleria aktiboa

Hirugarren mailako ikasketak dituztenen multzoan biltzen dira unibertsitateko erdi-mailako eta goi-mailako tituludunak. Lehendabiziko kolektiboa, 2007an, 111.746 lagunek osatzen dute, biztanleria aktiboaren % 11, kopuru hori 1995.-2003. urteetan erregistratzen diren % 8tik % 9ra bitarteko mailetatik gorago dago argi eta garbi. Goi-mailako tituludunak, bestalde, 183.196 lagun dira, guztizko biztanleria aktiboaren % 18,1, 2003ko % 14,6, 1999ko % 13,3 eta 1995eko % 11,9 gaindituta.

Oro har, aintzat hartutako 294.942 lagunak EAEko guztizko biztanleria aktiboaren % 29,1 dira. Kopuru hori 1999.-2003. urteetako % 22-23 eta 1995eko % 19,8 mailak baino askoz handiagoa da.

Aurreko urteetan bezalaxe, aztertutako multzo guztietatik, honetan bakarrik dira nagusi emakumeak. Hirugarren mailako ikasketak dituzten aktiboen % 53,8 emakumeak dira; 1995arekin alderatzen badugu, proportzio hori igo egin da (% 51,3 urte hartan), baina egonkortzeko joera du; izan ere, 1999tik aurrera, mailak % 54 ingurukoak dira. Emakumeen garrantzi erlatibo handiagoa batik bat erdi-mailako ikasketekin lotzen da, % 60,5 emakumeak baitira; goi-mailako ikasketetako hirugarren mailako tituludunen kasuan, zenbatekoak parekoak dira (% 50,6 emakumeak dira, 1999. urteko % 45,9 gaindituta).

Aktiboen multzo horretan, gazteen garrantzia ere azpimarratu behar da: hirugarren mailako tituludunen % 52,3k 25-39 urte dituzte, eta % 71,8k 45 urte baino gutxiago. % 71tik % 72ra bitarteko kopuruekin, erdi-mailako nahiz goi-mailako tituludunen artean, 45 urtetik beherakoen garrantzia gainerako biztanleria aktiboan ikusitako % 62tik oso gora dago.

1.13 taula.

Hirugarren mailako ikasketak dituen biztanleria aktiboa, sexuaren, adinaren eta prestakuntza-mailaren arabera (% bertikalak)

Sexua	Hirugarren mailako erdi-mailakoak	Hirugarren mailako goi-mailakoak	Hirugarren mailako ikasketak	Gainerakoak
Gizonak	40,8	49,4	46,2	62,2
Emakumeak	59,2	50,6	53,8	37,8
Adina	Hirugarren mailako erdi-mailakoak	Hirugarren mailako goi-mailakoak	Hirugarren mailako ikasketak	Gainerakoak
<25 urte	4,7	3,1	3,7	7,2
25-29 urte	14,0	18,2	16,6	11,6
30-34 urte	23,5	19,3	20,9	14,7
35-39 urte	16,4	13,8	14,8	13,2
40-44 urte	12,5	17,9	15,9	15,3
45-49 urte	10,9	10,3	10,5	13,1
50-54 urte	9,4	8,5	8,8	12,9
>= 55 urte	8,7	8,9	8,8	12,0

GUZTIZKOA	100	100	100	100
-----------	-----	-----	-----	-----

Sexuaren eta adinaren arabera multzoak aintzat hartuta, unibertsitateko tituludunen artean nagusi den kolektiboa 35 urtetik beherako emakumeena da, erreferentziazko kolektibo guztiaren % 25 osatzen baitute. Hirugarren mailako tituludunei egiten zaien ekarpena % 16-17 mailakoa da 35-44 urteko emakumeen eta 35 urtetik beherako edo 45 urtetik gorako gizonen artean. Proporzioa % 13,9ra jaisten da 35-44 urteko gizonen kasuan, eta % 12ra 45 urtetik gorako emakumeen kasuan.

Oro har, gizonak ordezkaritza handiagoa dute goi-mailako tituludunen artean (% 49,4, erdi-mailako tituludunak, aldiz % 40,8), gauza bera gertatzen da 35-44 urteko emakumeen artean (% 17,5, gizonak, aldiz, % 15,5). Kontrakoa gertatzen da 35 urtetik beherako edo 45 urtetik gorako emakumeen kasuan, hirugarren mailako ikasketen erdi-mailako tituludun guztiak % 43,7 baitira, goi-mailako tituludunak, aldiz, % 33.

Nolanahi ere, nabarmentzekoa da 35 urtetik beherako biztanleriak garrantzi izugarria duela hirugarren mailako, nahiz bigarren mailako tituludunen artean; aldiz, bigarren mailako tituludunen kasuan adin-tarte horretako gizonen garrantzia handiagoa da, unibertsitateko tituludunetan ez bezala, azken horietan 35 urtetik beherako emakumeen parte-hartzea erlatiboa baita (% 25, gizonak, aldiz, % 16,1).

#### 1.14 a taula

Hirugarren mailako ikasketak dituen biztanleria aktiboa, sexuaren, adinaren eta prestakuntza-mailaren arabera (% bertikalak)

Sexua eta adina	Hirugarren mailako erdi-mailakoak	Hirugarren mailako goi-mailakoak	Hirugarren mailako ikasketak	Gainerakoak
Gizonak < 35	14,1	17,4	16,1	21,3
Gizonak 35-44	13,5	14,2	13,9	17,3
Gizonak >= 45	13,2	17,9	16,1	23,6
Emakumeak < 35	28,0	23,2	25,0	12,3
Emakumeak 35-44	15,5	17,5	16,8	11,1
Emakumeak >= 45	15,7	9,8	12,0	14,4
GUZTIRA	100	100	100	100

Unibertsitateko titulua duen biztanleriari dagokionez, emakumeak dira nagusi eta hori argiago ikusten da jarduera potentzialaren egoeran dauden eta hirugarren mailako ikasketak dituztenak kontuan hartzen baditugu. Kasu horretan, kolektiboaren % 74,5 emakumeek osatzen dute. 35-44 urteko emakumeak nabarmentzen dira batik bat; talde hori unibertsitateko ikasketak dituen aktibo potentzial guztiaren % 67 da, 35 urtetik beherako emakumeak, aldiz, % 7,6 dira.

Gainerako % 25,5a gizonak dira. % 12,1 35 urtetik beherakoak dira, eta % 13,3 45 urtetik gorakoak.



1.14 b taula  
Hirugarren mailako ikasketak dituen biztanleria aktibo potentziala, sexuaren eta adinaren arabera  
(% bertikalak)

Sexua eta adina	Hirugarren mailako ikasketak	Gainerakoak
Gizonak < 35	12,1	16,5
Gizonak 35-44		1,5
Gizonak >= 45	13,3	8,2
Emakumeak < 35	7,6	25,8
Emakumeak 35-44	67,0	18,0
Emakumeak >= 45		30,0
<b>GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>

Hirugarren mailako ikasketak dituen biztanleria aktiboaren azken bilakaerak agerian jartzen du tituludun aktiboaren kopurua handitu egiten dela pixkanaka, adina aurrera doan heinean. Izan ere, 2003-2007 aldian 35 urtetik beherakoetan ikusten diren % 13-14,5eko igoeren aurrean, kopuruak % 22-25era iristen dira 35-44 urtekoetan, baina 45 urtetik gorako gizonetan % 62,2 da eta adin horretatik gorako emakumeetan % 88,4.

Termino erlatiboetan, aldaketa horiek erakusten dute 45 urtetik gorako zeregina hazi egin dela hirugarren mailako aktiboaren kolektiboan. Izan ere, 1999.-2003. urteetan % 21etik gertu bazeuden ere, kolektibo hori % 28,2 da 2007an; kopuru hori ez dago 35-44 urteetako % 30,7tik oso urrun. Hirugarren mailako titulazioa duen biztanleria aktibo gehiengoak 35 urtetik behera baditu ere (% 41,2), kolektibo horren garrantzia etengabe jaisten ari da 1999an zuen % 50etik abiatuta.

1.15 taula.  
Hirugarren mailako ikasketak dituen biztanleria aktiboaren barne-egituraren bilakaera, sexuaren eta adinaren arabera.

Biztanleriaren hazkunde-tasak  
(%-etan)

Sexua eta adina	2003	2007	Hazkundera %-etan 2003/2007 (1)
Gizonak < 35	18,2	16,1	14,5
Gizonak 35-44	14,7	13,9	21,9
Gizonak >= 45	12,8	16,1	62,2
Emakumeak < 35	28,6	25,0	13,1
Emakumeak 35-44	17,3	16,8	24,9
Emakumeak >= 45	8,3	12,0	88,4
<b>GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>29,2</b>

(1) Adierazle hori erreferentziazko biztanleria aktiboari dagozkion datu absolutuak oinarri hartuta kalkulatzen da.

## 2.- EGITURAZKO JOERAK

BAKiko datuen arabera, 1995.-1999. urteetan, prestakuntza arautuaren maila asko igo zen EAeko biztanleria aktiboaren artean, Prestakuntza Arautuaren Indize Sintetikoa (PAIS) 1995ean 3,30 izatetik 1999an 3,50 izatera igaro baitzen<sup>2</sup>.

Kualifikazio-mailen azterketak 1999-2003 aldian erakusten zuen biztanleria aktiboaren prestakuntza arautuaren mailaren hazkundea zertxobait moteldu dela EAEn. Horrela, PAISa 3,56 mailan egonkortzen zen, 1999. urteko mailaren antzera. 1995.-1999. urteetan PAISa % 6,1 hazi zen, baina 1999-2003 laurtekoan, % 1,7 besterik ez.

Azken bilakaerak, ordez, erakusten du berriz ere hobera egin duela, 2003an 3,56 izatetik 2007an 3,77 izatera igaro baita. Bilakaera horrek esan nahi du PAISaren maila % 6 igo dela 2003.-2007. urteetan, 1995.-1999. urteetan igotako mailaren antzekoa, beraz.

1.16 taula.

Prestakuntza Arautuaren Indize Sintetikoa, adinaren arabera. Biztanleria aktiboa.

Adina	PAIS
<25 urte	3,67
25-29 urte	4,19
30-34 urte	4,09
35-39 urte	3,82
40-44 urte	3,87
45-49 urte	3,51
50-54 urte	3,40
>= 55 urte	3,35

<sup>2</sup> Prestakuntza Arautuaren Indize Sintetikoa honako formula honen arabera kalkulatzen da:

$$(Ax0+IGx1+LBx1,5+Llx2+BMBGx2,5+LHIx3+LHIIx4+LBMx4+ERDx5+GOIx6)/Biztanleria\ aktiboa$$

Azalpena:

A:	Analfabetoak
IG:	Ikasketarik Gabeak
LB:	Lehen mailakoak Bukatu gabe
LI:	Lehen mailako ikasketak
BMBG:	Bigarren mailakoak Bukatu gabe
LHI:	LH I
LHII:	LH II
LBM:	Lanbidekoak ez diren bigarren mailako ikasketak
ERD:	Hirugarren mailako erdi mailakoak
GOI:	Hirugarren mailako goi-mailakoak

---

GUZTIRA	3,77
---------	------

---

## 2.1.- Joerak, adin-taldeen arabera

PAISaren maila adinari loturik dago, argi eta garbi. Aurreko taulan ikus daitekeenez, PAISaren hazkundera etengabea eta jarraitua da adinean behera egin ahala, 55 urtetik gorakoetan 3,35 izanik eta 25-34 urtekoetan 4,19<sup>3</sup>. Kolektibo gazteenaren PAISa 3,67ra jaisten den arren, hori erraz azal daiteke, izan ere, erreferentziazko kolektiboaren zati garrantzitsu bat oraindik ez da lan-merkatuan sartu adin horretan, prestakuntza-garaian daudelako oraindik, hain zuzen ere, bigarren eta hirugarren mailako prestakuntza espezializatua egiten. Lan-merkatuan sartzen direnak, horregatik, nabarmentzen dira beren prestakuntza-maila txikiagoa delako.

Azken urteotako PAISaren adinaren arabera bilakaera aztertzea interesgarria da, 2003-2007 laurtekoan ikusitako gorakadaren jatorria aztertzeko. Horri dagokionez, hainbat alderdi deigarri nabarmentzen dira.

Lehenik eta behin, egiaztatzen da soilik 25 urtetik beherakoetan atzematen dela PAISak okerrera egin duela azken lau urteotan. Etengabe hobetu ostean, 1995eko 3,29tik 2003ko 3,72ra, biztanleria aktibo gazteenaren PAISa 3,67ra jaitsi da 2007an. 25 urtetik aurrera, ordea, lau urteotako PAISaren maila hobetu egin da, baina horretaz gain, 2007an mailarik altuena lortzen du 1995az geroztik.

Nabarmendu behar den bigarren datua honako hau da: PAISaren mailen hazkundera handiagoa da adin aurreratuenetan. Hortaz, PAISaren maila % 3tik % 4ra bitarte handitu da 2003-2007 laurtekoan 25-39 urteko biztanlerian, baina hazkundera % 8,5etik % 9ra bitarte iristen da 40-49 urtekoetan, eta % 10,2ra iristen da 50-54 urtekoetan, eta % 19,2ra 55 urtetik gorako biztanlerian.

1.17 taula.

Prestakuntza Arautuaren Indize Sintetikoaren bilakaera, adinaren arabera. Biztanleria aktiboa

Adina	1995	1999	2003	2007	Hazkunde % 95/99	Hazkund	Hazkund
						e % 99/03	e % 03/07
<25 urte	3,29	3,57	3,72	3,67	8,5	4,2	-1,5
25-29 urte	3,87	3,94	4,07	4,19	1,8	3,3	2,9
30-34 urte	3,54	3,75	3,96	4,09	5,9	5,6	3,4
35-39 urte	3,46	3,70	3,67	3,82	6,9	-0,8	4,0
40-44 urte	3,25	3,40	3,55	3,87	4,6	4,4	9,1
45-49 urte	2,89	3,27	3,24	3,51	13,1	-0,9	8,4
50-54 urte	2,76	3,05	3,09	3,40	10,5	1,3	10,2
>= 55 urte	2,49	2,71	2,81	3,35	8,8	3,7	19,2
<b>GUZTIRA</b>	<b>3,30</b>	<b>3,50</b>	<b>3,56</b>	<b>3,77</b>	<b>6,1</b>	<b>1,7</b>	<b>6,0</b>

<sup>3</sup> Adinak behera egin ahala PAISean gertatzen den hazkundera alde batera utzi gabe, gai honi dagokionez, honako hau ere nabarmendu behar da: 45 urteko mugak jartzen duen haustura, adierazle hori nabarmen hazten baita adin horretatik beherako biztanlerian.

Adinaren araberako prestakuntza-mailen intzidentzia zehatz-mehatz aztertu behar da, aurretik aurkeztutako errealitateen ezagutza sakonki aztertzeko.

Lehenik eta behin lehen mailako ikasketarik gabeko biztanleria aktiboari dagozkion datuak landu ditugunean, aipatu dugu 2003-2007 aldian 33,8 jaitzi dela ikasketa mota hori amaitu ez dutenen kopurua. Aipatutako murrizketak sakonagoa egiten du lehen mailako ikasketak amaituta dituztenen kopuruaren jaitziera handia den lau urteko erritmoak ezaugarri dituen joera; izan ere, 1995-1999 aldian % 18,3 izatetik 1999-2003 aldian % 28,8 izatera jaitzi zen. 2003-2007 laurtekoan izandako jaitziera handia da bereziki, 25-29 urtekoetan, 35-39 urtekoetan eta 55 urtetik gorakoetan % 40tik gorakoa baita, eta 40-49 urtekoetan % 25 baino zertxobait gehiago da, eta 50-54 urtekoetan % 18. Aitzitik, jaitziera oso txikia da 30-34 urtekoetan (% -3,3), eta kopuruak % 22,3 hazi dira 25 urtetik gorakoetan.

Gaur egun, 25-39 urteko biztanleria aktiboa aintzat hartuta, lehen mailako ikasketarik gabeko kolektiboaren garrantzia % 2,5 baino txikiagoa da; proportzio hori % 3,5 ingurukoa da 40-49 urtekoetan. Proportzioa % 5,7ra igotzen da 50-54 urte dituztenen artean, eta % 8,4ra 55-64 urte dituztenetan. Nolanahi ere, epe luzera atzeman da prestakuntza-egoera nabarmen hobetu dela adin guztietan. Esate baterako, ikasketarik gabeko 55 urtetik gorako aktiboen proportzioa % 35,7tik % 8,4ra jaitzi da 1995-2003 aldian. Ikasketarik gabeko lagunen proportzioaren etengabeko jaitziera ikusten ez den adin-talde bakarra 25 urtetik beherako taldea da. 1995-2003 aldian % 7,6tik % 2,5era jaitzi ondoren, ehunekoa % 4,3raino igotzen da 2007an. Mailarik txikienak 2003an izan ziren, eta 25 urtetik beherakoei dagokien proportzioa soilik 2007an gainditzen dute 50 urtetik gorakoek.

1.18 taula.

Lehen mailako ikasketarik gabeko biztanleria aktiboaren bilakaera, adinaren arabera  
(Biztanleria aktiboarekiko intzidentzia eta biztanleriaren hazkunde-tasak, %-etan)

Adina	Intzidentzia				Hazkunde-tasak		
	1995	1999	2003	2007	95/99	99/03	03/07
<25 urte	7,6	3,9	2,5	4,3	-43,4	-59,9	22,3
25-29 urte	4,5	3,4	3,1	2,0	-18,2	-6,9	-49,4
30-34 urte	8,2	5,2	3,2	2,4	-39,2	-43,4	-3,3
35-39 urte	4,8	4,9	3,5	2,2	-0,6	-17,3	-42,5
40-44 urte	6,8	5,8	5,6	3,5	-1,5	-5,9	-26,3
45-49 urte	12,7	8,7	5,1	3,3	-26,5	-33,9	-27,7
50-54 urte	21,7	15,8	7,9	5,7	-17,6	-42,1	-18,0
>= 55 urte	35,7	29,3	18,3	8,4	-5,6	-23,5	-51,5
GUZTIRA	10,7	8,2	5,8	3,8	-18,3	-28,8	-33,8

Aktibo-talde horren barne-ezaugarriak aztertuta, honako hau ikus dezakegu: belaunaldi gazteenetan, lehen mailako ikasketarik gabeko biztanleriaren garrantzia nabarmen jaitzi da, eta

jaitsiera hori loturik dago analfabetismo-egoera eta inolako ikasketarik ez izatearen egoera ia desagertzearekin (% 0,3tik % 0,5era bitarte 25-39 urteko biztanleriaren artean). Hala eta guztiz ere, amaitu gabeko lehen mailako ikasketak dituztenen zenbateko txikiak (% 2 ingurukoak) ere eragiten dute. Analfabetismo-maila ere oso txikia den arren 40-49 urtekoetan, % 3tik % 3,5era bitarte igotzen da ikasketarik gabekoen edo bukatu gabeko lehen mailako ikasketak dituztenen proportzioa; izan ere, proportzio hori % 4,3ra iristen da 25 urtetik beherakoetan.

Bestalde, 50 urtetik gorakoetan, lehen mailako ikasketarik gabekoen intzidentziak gora nabarmen egiten duen arren (50-54 urtekoetan % 5,7, eta 55 urtetik gorakoetan % 8,4), horren arrazoia honako hau da, batik bat: bukatu gabeko ikasketak dituztela, izan ere, analfabetismo-maila eta inolako ikasketarik gabekoen maila oso-oso txikia da (55 urtetik gorako aktiboetan, gehienez % 2,1).

1.19 taula.  
Ikasketarik gabeko biztanleria aktiboaren intzidentzia, adinaren eta prestakuntza-mailaren arabera (%-etan)

Adina	Analfabetoak	Ikasketarik gabe	Lehen mailako amaitu gabe	Lehen mailako ikasketarik gabe
<25 urte		1,3	3,0	4,3
25-29 urte		0,3	1,7	2,0
30-34 urte	0,3	0,0	2,1	2,4
35-39 urte		0,5	1,7	2,2
40-44 urte		0,4	3,1	3,5
45-49 urte	0,2	0,7	2,4	3,3
50-54 urte	0,0	0,9	4,8	5,7
>= 55 urte	0,4	1,6	6,4	8,4
<b>GUZTIRA</b>	<b>0,1</b>	<b>0,6</b>	<b>3,0</b>	<b>3,8</b>

Egiaztatu ahal izan zenez, lehen mailako eta LH I-eko ikasketak dituen biztanleriaren bilakaeraren garrantzi erlatiboa jaitsi egin da biztanleria aktibo osoan 2003-2007 aldian. Prozesu hori, 1995.-1999. urteetan argi eta garbi ikusten dena, etenda gelditzen da 1999.-2003. urteetan; izan ere, laurteko horretan talde horren garrantzi erlatiboari eutsi egiten zaio, 2003an % 38,5 zen; 1995.-1999. urteetan, aldiz, % 43,1etik % 38,3ra jaitsi zen. 2003tik aurrera, ordea, hasierako joerari ekin zaio berriro, proportzioa % 38,5etik % 34,9ra jaitsi baita.

2003-2007 laurtekoan jaisteko joera berpizteak eragiten du ikasketa mota hori duten biztanleen kopuruaren jaitsiera-erritmoa 1995etik aurrera ikusten den handiena izatea: % -7,9 2003.-2007. urteetan, % -5,2 1995.-1999. urteetan, eta % 1,1eko igoera 1999.-2003. urteetan.

2003tik aurrera ikusten den jaitsiera 30 urtetik beherako biztanleriaren artean ikusten da batez ere; biztanleria horri dagokionez, lehen mailako edo LH I-eko ikasketak dituztenen kopurua %

25etik % 27,5era jaisten da gutxi gorabehera. Jaitsiera % 11tik % 13ra jaisten da 35-44 urtekoetan eta % 10,2ra 55 urtetik gorakoetan. Prestakuntza-maila hori duten aktiboen kopurua asko egonkortzen da 45-54 urtekoetan, eta, bestalde, nabarmen hazten da 30-34 urtekoetan (% 21,3).

Termino erlatiboetan, guztizko biztanleria aktiboari dagokionez, lehen mailako edo LH I-eko ikasketak dituztenen proportzioak gutxieneko mailak lortzen ditu 25-34 urtekoetan, 2007an, % 24tik % 27ra bitartekoa baita. Kopuruek, orokorrean, ez dituzte % 32,5eko mailak gainditzen 45 urtetik beherakoetan, salbuespen bakarra, 35-39 urtekoetan dago (% 36,6). 45 urtetik gorakoak, ordea, prestakuntza-egoera mota horren intzidentziagatik nabarmentzen dira, % 43tik % 44,5era bitartekoa baita.

45 urtetik beherakoetan ez-bezala (adin-tarte horretan ikusten da aztertzen ari garen proportzioa 10 puntu inguru edo gehiago jaitsi dela 1995-2007 aldian) jaitsiera txikiagoa da adin horretatik gorakoetan, bereziki 50 urtetik gorakoetan. Hortaz, 1995.-2007. urteetan soilik jaisten da % 46,5etik 43,4ra, 50-54 urtekoei dagokienez, eta % 42tik % 42,7ra igotzen da 55 urtetik gorakoen kasuan. Horren azalpenaren zati handi bat 1999.-2003. urteetan 45 urtetik gorakoetan aztertutako proportzioaren hazkunde handiarekin lotzen da, adin horretatik beherakoetan orokorrean ikusitako jaitsierekin guztiz kontrajarririk. 2003.-2007. urteetan, ordea, lehen mailako eta LH I-eko ikasketak dituztenen proportzioaren jaitsiera-prozesua bereziki handia da 40 urtekoetan edo hortik gorakoetan, eta proportzio hori zertxobait soilik jaisten da 25-39 urtekoetan. 25 urtetik beherakoetan proportzioak gora egiten du, 2003an % 30 izatetik 2007an % 32,4 izatera igarotzen baita.

1.20 taula.

Lehen mailako edo LH I-eko ikasketak dituen biztanleria aktiboa, adinaren arabera  
(Biztanleria aktiboarekiko intzidentzia eta biztanleriaren hazkunde-tasak, %-etan)

Adina	Intzidentzia				Hazkunde-tasak		
	1995	1999	2003	2007	95/99	99/03	03/07
<25 urte	42,8	34,6	30,0	32,4	-11,4	-44,9	-24,7
25-29 urte	33,4	30,6	25,9	24,1	-2,0	-12,4	-27,5
30-34 urte	40,2	36,3	27,9	26,8	-12,4	-29,8	21,3
35-39 urte	45,3	39,3	38,8	36,6	-15,4	14,3	-13,1
40-44 urte	47,9	43,1	43,5	32,5	4,1	-1,6	-11,1
45-49 urte	53,3	44,7	49,4	44,6	-10,5	26,1	0,8
50-54 urte	46,5	42,9	49,9	43,4	4,4	34,4	-1,0
>= 55 urte	42,0	41,6	50,1	42,7	13,8	47,4	-10,2
<b>GUZTIRA</b>	<b>43,1</b>	<b>38,3</b>	<b>38,5</b>	<b>34,9</b>	<b>-5,2</b>	<b>1,1</b>	<b>-7,9</b>

Nolanahi ere, datuek erakusten dute adinaren arabera alde handia dagoela lehen mailako edo LH I-eko ikasketek biztanleria aktiboarengan duten intzidentzian. Izan ere, 1995ean, ikasketa mota horien intzidentzia biztanleriaren % 40tik % 45era bitartekoa zen adin-tarte gehienetan, baina gaur

egun, adin-taldeen arteko aldeak areagotu egin dira. 25-34 urtekoetan, lehen mailako eta LH I-eko tituludunen proportzioa % 25 ingurura murriztu da. Kopuruak % 30etik % 35era bitartekoak dira 35-44 urtekoetan, baita 25 urtetik beherakoetan ere. 45 urtetik gorakoetan soilik ikusten da mailak 1995eko mailen ingurukoak direla, aipatutako adin-talde horietan % 40tik % 45era bitartekoak baitira.

Adinaren arabera aldeaz gain, ikasketa motaren arabera alde ere badago. Ildo horretatik, datuek erakusten dute LH I-eko garrantzi erlatiboak goranzko joera duela adina jaisten den neurrian, eta 50 urtetik beherakoetan etena bereziki handia dela. Aitzitik, adinarekin handitu egiten da, orokorrean, lehen mailako ikasketen, zentzu hertsian, edo bukatu gabeko bigarren mailako ikasketen presentzia. Proportzioa, hortaz, 35 urtetik beherakoetan % 15 ingurukoa izatetik % 25 ingurukoa izatera igarotzen da 35-44 urtekoetan, eta % 35etik gorakoa 45 urtetik gorakoetan.

1.21 taula.  
Lehen mailako edo LH I-eko ikasketak dituen biztanleria aktiboaren intzidentzia, adinaren eta prestakuntza-mailaren arabera (%-etan)

Adina	Lehen mailako ikasketak	Bigarren mailako amaitu gabe	LH I	Lehen mailako ikasketak
<25 urte	14,9	1,7	15,8	32,4
25-29 urte	13,5	1,4	9,2	24,1
30-34 urte	13,9	2,8	10,1	26,8
35-39 urte	24,1	3,3	9,1	36,6
40-44 urte	21,0	2,7	8,9	32,5
45-49 urte	34,4	1,4	8,8	44,6
50-54 urte	35,4	2,6	5,4	43,4
>= 55 urte	37,6	0,0	5,1	42,7
<b>GUZTIRA</b>	<b>24,1</b>	<b>2,1</b>	<b>8,7</b>	<b>34,9</b>

Bestalde, bigarren mailako ikasketak dituen biztanleria aktiboaren bilakaerak erakusten du 1995-2003 aldiko ezaugarria izan zen hazkunderako joera eten egin dela, 2003-2007 aldian % 0,2 jaitsi baita. Jaitsiera hori gertatu da 1999-2003 aldian biztanleria mota horretan ikusitako hazkunderitmoak asko moteldu direlako, % 5,6 hazi baita, 1995-1999 aldian ikusitako kopuruarekin alderatuta (% 26,2), igoera hori oso txikia izan da.

Adinaren arabera datuei buruzko hurbiltze zehatzago batek ahalbidetzen du, ordea, egiaztatzea bilakaera oso desberdinak daudela taldeetan. 30-34 urtekoak kenduta, 40 urtetik beherakoetan ikusten da 2003-2007 aldian nabarmen jaisten dela bigarren mailako ikasketak dituztenen kopurua, gainera, jaitsiera hori areagotu egiten da adina jaisten den neurrian: % -16,4 25-39 urtekoetan, % -25,6 25-29 urtekoetan, eta % -39,3 25 urtetik beherakoetan. Azken kasu horretan, beheranzko joera berri hori atzematen zen 1999.-2003. urteetan, bigarren mailako ikasketak dituzten aktiboen kopurua % 30 jaitsi zen.



Kontraste handian, eta 45-49 urtekoetan izan ezik, 2003.-2007. urteetan, ordea, bigarren mailako tituludun kopuruak gorantz egin du 40 urtetik gorakoetan, % 15etik gora hain zuzen ere. Bilakaera bereziki deigarria da 50 urtetik gorakoetan, kolektibo horretan ikusten da hazkunde-erritmoak positiboak direla, batez bestekotik oso gorakoak beti, 1995.-2007. urteetan.

Bigarren mailako ikasketak dituztenen proportzioa nabarmen handitu da 50 urtetik gorakoetan 1995-2007 aldian: 50-54 urtekoetan % 18,9tik % 29ra igarotzen da, eta % 9,2tik % 25,6ra 55 urtetik gorakoetan. Bigarren mailako tituludunek (% 25etik % 30era bitartekoa) 45 urtetik gorakoetan duten garrantzia 25-44 urtekoetan duena baino txikiagoa da, kasu horretan % 35 ingurukoa baita (salbuespen bakarra, 35-39 urtekoetan dago, talde horretan % 29,7ra jaisten baita). Gehieneko maila (% 46) 25 urtetik beherakoei dagokie.

1.22 taula.  
Bigarren mailako ikasketak dituen biztanleria aktiboa, adinaren arabera  
(Biztanleria aktiboarekiko intzidentzia eta hazkunde-tasak, %-etan)

Adina	Intzidentzia				Hazkunde-tasak		
	1995	1999	2003	2007	95/99	99/03	03/07
<25 urte	38,2	48,0	52,9	46,0	37,7	-30,0	-39,3
25-29 urte	31,7	34,1	38,6	36,9	14,8	17,4	-25,6
30-34 urte	26,7	31,9	39,8	33,9	16,1	13,8	7,6
35-39 urte	26,2	25,1	32,8	29,7	-6,8	51,2	-16,4
40-44 urte	26,9	33,1	23,6	34,0	42,2	-30,3	71,0
45-49 urte	20,4	27,1	29,7	27,4	42,0	25,0	2,8
50-54 urte	18,9	26,3	28,0	29,0	57,7	22,8	18,0
>= 55 urte	9,2	13,2	16,9	25,6	64,5	56,6	59,5
<b>GUZTIRA</b>	<b>26,4</b>	<b>31,2</b>	<b>32,8</b>	<b>32,2</b>	<b>26,2</b>	<b>5,6</b>	<b>-0,2</b>

Biztanleria aktiboaren barruan, bigarren mailako ikasketak dituzten kolektiboaren intzidentzia-mailan dauden aldeak LH II-k duen garrantzia desberdina izatearekin lotzen da funtsean, alderdi horrek nolabaiteko muga ezartzen baitu 45 urteen inguruan. Hortaz, LH II-ren garrantzi erlatiboa % 20tik % 25era bitartekoa da 45 urtetik beherakoetan, adin horretatik gorakoetan, ordea, % 15 inguruko mailalara jaisten da. 25 urtetik beherakoen kasuan izan ezik, (adin-tarte horretan % 20,7k lanbidekoak ez diren bigarren mailako ikasketak dauzka) gainerako kasuetan ikasketen mota horren intzidentzia gutxi gorabehera % 10etik % 15era bitarteko tartean kokatzen da funtsean.

Bestalde, nabarmendu behar da 1999an LH II-ko tituludunen proportzioa txikiagoa zela bigarren mailako tituludunena baino, 40 urtetik aurrera; baina orduan ez bezala, gaur egun LH II-ren garrantzi erlatiboa handiagoa da lanbidekoak ez diren bigarren mailako ikasketena baino, adin-tarte guztietan. LH II-ren aldekoa den aldea bereziki handia da 25-44 urtekoetan, aldiz, askoz txikiagoa da 25 urtetik beherakoetan eta, bereziki, 45 urtetik gorakoetan.

1.23 taula.  
 Bigarren mailako ikasketak dituen biztanleria aktiboaren intzidentzia, adinaren eta prestakuntza-mailaren arabera (%-etan)

Adina	Lanbidekoak ez diren bigarren mailako ikasketak	LH II	Bigarren mailako ikasketak
<25 urte	20,7	25,3	46,0
25-29 urte	12,2	24,7	36,9
30-34 urte	12,3	21,6	33,9
35-39 urte	9,3	20,4	29,7
40-44 urte	11,5	22,6	34,0
45-49 urte	12,3	15,1	27,4
50-54 urte	14,1	14,9	29,0
>= 55 urte	10,9	14,8	25,6
<b>GUZTIRA</b>	<b>12,3</b>	<b>19,9</b>	<b>32,2</b>

Unibertsitate-mailako ikasketak dituen biztanleriaren bilakaerari dagokionez, bilakaera horren ezaugarria da hedatzeko joera handia izan duela azken urteotan. Hortaz, 2003.-2007. urteetan gorantz egiten jarraitu du ikasketa-maila hori duen aktiboaren kopuruak, eta 1995-1999 aldiko hazkundearen erritmoa gainditu du: aldi batean % 29,2 eta beste aldian % 19,8. Nolanahi ere, gogoratu behar da 1999-2003 aldian hazkundera txikiagoa dela (% 3,5)

Unibertsitate-ikasketak dituzten kopuruaren hazkundera azken laurtekoan azkartu izana bereziki nabarmena da 45 urtetik gorakoetan, % 66ko edo hortik gorako mailak lortu baititu, BAKIa egiten denetik handienak. Halaber, hazkundera positiboa da 30-44 urtekoetan, nahiz eta kasu honetan soilik 40-44 urtekoetan esan daitekeen hazkunde-mailak handiak eta segidakoak direla 1999-2007 aldian. Aitzitik, behera egin du hirugarren mailako ikasketak dituzten 30 urtetik beherakoaren kopuruak; nolanahi ere, jaitsiera hori ikusten zen 1999-2003 aldian 25 urtetik beherakoetan.

Hala ere, 25 urtetik beherakoaren egoera adin horietako biztanleriaren beherakada demografiko orokorrekarekin lotuta dago, hirugarren mailako biztanle kopuru erlatiboan goranzko joerari eutsiz: % 11,4 1995ean, % 13,6 1999an eta % 14,6 2003an eta % 17,2 2007an. Hirugarren mailako ikasketak dituen biztanleriaren goranzko bilakaera hori 25-34 urtekoetan ere ikusten da, 2002-2007 aldian bereziki, hirugarren mailako ikasketak dituztenen % 37ko mailak lortzen baitira adin-tarte horietan. Azken hazkunderari esker ere % 30eko mailak gainditzeko dira 35-44 urtekoen kasuan. Azken lau urte hauetan izandako hazkunde handia gorabehera, hirugarren mailako ikasketak dituztenen proportzioa % 22tik % 25era jaisten da 45 urtetik gorako biztanleria aktiboaren kasuan; nolanahi ere, 1995eko % 13tik % 14ra bitarteko kopuruaren gainera.

1.24 taula.  
 Hirugarren mailako ikasketak dituen biztanleria aktiboa, adinaren arabera

(Biztanleria aktiboarekiko intzidentzia eta hazkunde-tasak, %-etan)

Adina	Intzidentzia				Hazkunde-tasak		
	1995	1999	2003	2007	95/99	99/03	03/07
<25 urte	11,4	13,6	14,6	17,2	31,2	-31,9	-17,6
25-29 urte	30,5	31,9	32,4	37,0	11,7	5,3	-11,0
30-34 urte	24,9	26,6	29,2	36,9	3,9	0,3	59,4
35-39 urte	23,6	30,6	24,9	31,5	26,7	-5,9	16,9
40-44 urte	18,4	18,0	27,3	30,0	13,4	47,9	30,4
45-49 urte	13,7	19,5	15,9	24,8	52,2	-7,2	74,6
50-54 urte	12,9	15,0	14,2	22,0	32,4	8,8	76,7
>= 55 urte	13,1	15,8	14,7	23,2	38,4	14,1	66,0
<b>GUZTIRA</b>	<b>19,8</b>	<b>22,3</b>	<b>22,9</b>	<b>29,1</b>	<b>19,8</b>	<b>3,5</b>	<b>29,2</b>

45 urteko mugak, hortaz, erakusten du hirugarren mailako ikasketen intzidentzia txikiagoa dela. Hirugarren mailako goi-mailako ikasketen intzidentzia bereizgarria izan daiteke ezberdintasun horien iturri. Izan ere, prestakuntza-maila hori duten aktiboaren proportzioa % 20-25 da 25-34 urtekoetan, 35-44 urtekoetan % 18-21, eta 45 urtetik gorakoetan % 13-15 (25 urtetik beherakoetan % 8,9).

Gaur egun, ordea, erdi-mailako ikasketetan aldeak handiak dira: 40 urtetik gorakoetan % 8-10 (25 urtetik beherakoetan bezalaxe), 25-34 urtekoetan % 11,8, eta 30-39 urtekoetan % 13-16.

1.25 taula.

Hirugarren mailako ikasketak dituen biztanleria aktiboaren intzidentzia, adinaren eta prestakuntza-mailaren arabera (%-etan)

Adina	Hirugarren mailako erdi-mailakoak	Hirugarren mailako goi-mailakoak	Hirugarren mailako ikasketak
<25 urte	8,3	8,9	17,2
25-29 urte	11,8	25,2	37,0
30-34 urte	15,7	21,2	36,9
35-39 urte	13,3	18,3	31,5
40-44 urte	9,0	21,0	30,0
45-49 urte	9,7	15,1	24,8
50-54 urte	8,8	13,1	22,0
>= 55 urte	8,7	14,5	23,2
<b>GUZTIRA</b>	<b>11,0</b>	<b>18,1</b>	<b>29,1</b>

Prestakuntza arautuari buruzko datuak orokorrean aztertuta, egungo biztanle aktiboaren belaunaldietan, adinaren arabera askotariko prestakuntza-errealitateak bereizten direla ikus dezakegu. 25 urtetik gorako belaunaldiak (prestakuntza arautuaren hasierako aldia ia bukatutzat dutela pentsa daitekeenak) erreferentziatzat hartuta, hiru egoera bereiz ditzakegu:

a) Lehenik, 2007an, 45 urtetik gorako aktiboen artean gehienez ere lehen mailako ikasketak burutu dituztenak dira nagusi oraindik. Oro har, multzo horren proportzioa 45-49 urteko aktiboen % 47,9 da, 50-54 urtekoen % 49,1, eta 55 urtetik gorakoen % 51,2. Kopuru horiek, ordea, erakusten dute 1999-2003 aldiko mailekin alderatuta, jaitsiera handia izan dela, azken data horretan kopuruak honako hauek baitira: % 54,5, % 57,8 eta % 68,4, hurrenez hurren (1999an, ordea, % 53,4, % 58,7 eta % 70,9 ziren). Azken aurrerapena, beraz, erabakigarria da, bereziki 55 urtetik gorakoen kasuan.

Aurrerapen hori, gainera, ikasketa kualifikatuak dituztenen garrantzia nabarmen igotzearekin lotzen da. Izan ere, LH II-ko edo hirugarren mailako titulazioa dutenak, 1999-2007 aldian, % 30,3 izatetik % 39,9 izatera igarotzen dira 45-49 urtekoetan, % 25,5 izatetik % 36,8 izatera 50-54 urtekoetan eta % 22,9 izatetik % 38 izatera 55 urtetik gorakoetan.

b) Bestalde, 35-44 urtekoetan sendotu egiten da ikasketa kualifikatuak, LH II-koak edo hirugarren mailako ikasketak dituztenen protagonismoa. 2007an, lehenengo aldiz, kolektibo hori gehiengoa da adin-tarte horretan, kopuruak % 52-% 52,5 ingurukoak baitira. Aurrerapena bereziki deigarria da 40-44 urtekoen kasuan; izan ere, ikasketa kualifikatuak zituzten titularrak 1999an % 32,1 ziren, gaur egun, ordea, % 52,5 dira. 35-39 urtekoetan igoera % 46,6tik % 51,9ra bitartekoa da. Bi adin-taldeen arteko hurbilpena, gainera, hirugarren mailako titulazioak lortzean oinarritzen da, 35-39 urtekoekin alderatuta, 40-44 urtekoen oraindik ere 1999an eragiten zien alde handia murriztu egin baita.

c) 25-34 urtekoetan, ikasketa kualifikatuen garrantzia % 60tik hurbil edo hortik gora dago 2007an. Nahiz eta egoera hori ikusten zen 1999an 25-29 urtekoetan (% 57, gaur egun, ordea, % 61,7), aurrerapena bereziki deigarria da 30-34 urteko taldean. Hortaz, 1999an % 48,8 izatetik 2007an % 58,4 izatera igaro zen.

Azken batean, egiazta daiteke 25 urtetik gorako biztanleriaren kualifikazioa hobetzeko joera argi eta garbi sendotu dela EAEn 2003.-2007. urteetan, eta, gainera, tituludun kualifikatuen aurrerapenarekin osatu dela 25 urtetik beherakoetan (% 38tik % 42,5era 1999.-2007. urteetan). Oro har, tituludun kualifikatuen garrantzia 1999an % 39,8 izatetik 2003an % 42,4 eta 2007an % 49 izatera igaro da. Adin-taldeen ikusitako prozesuan parte hartzeko joera dute; prozesu horren ezaugarria da 2007an kualifikazioaren gehienekoak lortu zirela.

#### 1.26 a taula

Biztanleria aktiboaren prestakuntza-mailen intzidentzia, adinaren eta prestakuntza-mailaren arabera (%-etan)  
2007

Adina	Lehen mailako	Lehen mailako	Lanbidekoak ez diren	LH II	Hirugarren mailako erdi-	Hirugarren mailako goi-
-------	---------------	---------------	----------------------	-------	--------------------------	-------------------------

	ikasketarik gabe	ikasketak	bigarren mailako ikasketak		mailakoak	mailakoak
<25 urte	4,3	32,4	20,7	25,3	8,3	8,9
25-29 urte	2,0	24,1	12,2	24,7	11,8	25,2
30-34 urte	2,4	26,8	12,3	21,6	15,7	21,2
35-39 urte	2,2	36,6	9,3	20,4	13,3	18,3
40-44 urte	3,5	32,5	11,5	22,6	9,0	21,0
45-49 urte	3,3	44,6	12,3	15,1	9,7	15,1
50-54 urte	5,7	43,4	14,1	14,9	8,8	13,1
>= 55 urte	8,4	42,7	10,9	14,8	8,7	14,5
<b>GUZTIRA</b>	<b>3,8</b>	<b>34,9</b>	<b>12,3</b>	<b>19,9</b>	<b>11,0</b>	<b>18,1</b>

1.26 b taula.

Biztanleria aktiboaren prestakuntza-mailen intzidentzia, adinaren eta prestakuntza-mailaren arabera (%-etan)  
2003

Adina	Lehen mailako ikasketarik gabe	Lehen mailako ikasketak	Lanbidekoak		Hirugarren mailako erdi- mailakoak	Hirugarren mailako goi- mailakoak
			ez diren bigarren mailako ikasketak	LH II		
<25 urte	2,5	30,0	27,6	25,3	6,0	8,6
25-29 urte	3,1	25,9	12,3	26,4	9,2	23,2
30-34 urte	3,2	27,9	14,2	25,5	8,9	20,3
35-39 urte	3,5	38,8	10,7	22,1	10,4	14,5
40-44 urte	5,6	43,5	9,9	13,7	10,4	16,9
45-49 urte	5,1	49,4	15,8	13,9	7,1	8,8
50-54 urte	7,9	49,9	12,5	15,5	5,5	8,7
>= 55 urte	18,3	50,1	7,6	9,3	6,3	8,4
<b>GUZTIRA</b>	<b>5,8</b>	<b>38,5</b>	<b>13,3</b>	<b>19,5</b>	<b>8,3</b>	<b>14,6</b>

1.26 c taula

Biztanleria aktiboaren prestakuntza-mailen intzidentzia, adinaren eta prestakuntza-mailaren arabera (%-etan)  
1999

Adina	Lehen mailako ikasketarik gabe	Lehen mailako ikasketak	Lanbidekoak		Hirugarren mailako erdi- mailakoak	Hirugarren mailako goi- mailakoak
			ez diren bigarren mailakoak	LH II		
<25 urte	3,9	34,6	23,6	24,4	7,2	6,4
25-29 urte	3,4	30,6	9,0	25,1	12,3	19,6
30-34 urte	5,2	36,3	9,7	22,2	7,7	18,9
35-39 urte	4,9	39,3	9,2	15,9	13,8	16,9
40-44 urte	5,8	43,1	19,0	14,1	6,6	11,4
45-49 urte	8,7	44,7	16,3	10,8	9,5	10,0
50-54 urte	15,8	42,9	15,9	10,4	5,9	9,2
>= 55 urte	29,3	41,6	6,1	7,1	7,0	8,8
<b>GUZTIRA</b>	<b>8,2</b>	<b>38,3</b>	<b>13,7</b>	<b>17,5</b>	<b>9,0</b>	<b>13,3</b>

## 2.2.- Generoaren araberako joerak

Genero-ikuspegia kontuan hartuta, Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleria aktiboaren prestakuntza-mailaren hazkundeak izandako azken indarberritzea gizonen nahiz emakumeen kasuan ikusten da PAISaren hazkundeak nabarmen sendotuz 1995.-2007. urteetan. Gizonezko biztanleriari dagokionez, PAISa % 3,17 izatetik % 3,62 izatera igaro da aldi horretan, eta emakumeen kasuan, % 3,48 izatetik % 3,98 izatera igaro da, bilakatzeko joera oso antzekoa izanik generoaren arabera.

2007. urte amaieran, nolana ere, emakumeen batez besteko prestakuntza-maila gizonena baino handiagoa da: batean 3,98 eta bestean 3,62. Emakumearen aldeko gehieneko aldea, gainera, 2007an ikusten da, PAISaren hazkundera askoz ere handiagoa delako emakumeen artean 2003-2007 aldian (% 6,9, gizonen kasuan, ordea, % 5).

1.27 taula.

Prestakuntza Arautuaren Indize Sintetikoaren bilakaera, sexuaren arabera. Biztanleria aktiboa.

Adina	PAIS				Hazkundearen ehunekoa		
	1995	1999	2003	2007	95/99	99/03	03/07
Gizonak	3,17	3,39	3,45	3,62	6,9	1,8	5,0
Emakumeak	3,48	3,65	3,72	3,98	4,9	1,9	6,9
<b>GUZTIRA</b>	<b>3,30</b>	<b>3,50</b>	<b>3,56</b>	<b>3,77</b>	<b>6,1</b>	<b>1,7</b>	<b>6,0</b>

Emakumearen aldeko PAISaren aldea handitu egin da 1999-2007 aldian adin-tarte guztietan 50 urtetik beherako biztanlerian. Hazkundera bereziki deigarria da 25 urtetik beherakoetan eta 30-44 urtekoetan. Ondorioa da 50 urtera bitarte, PAISa askoz ere handiagoa dela emakumeen artean adin-talde guztietan: % 5-% 8 gorago 40-49 urtekoetan, eta % 14-%18 gorago 30-39 urtekoetan, eta % 22 25 urtetik beherakoetan. Egiazta daitekeenez, emakumeen kualifikazioa handitzeko joera areagotu egiten da adinean behera egin ahala. Arau horren salbuespen bakarra 25-29 urtekoei dagokie 2007an, emakumeen PAISa gizonena baino % 11 handiagoa baita.

50 urtetik gorako biztanleriari dagokionez, ordea, PAISa oraindik ere handiagoa da gizonezko biztanlerian. Dena dela, kasu honetan ere argi ikusten da emakumearen kokapena hobetu egin dela azken urte hauetan, eta orain arte zegoen aldea nabarmen murriztu dela. Era horretan, PAISak orekatzeko joera du praktikan 50-54 urtekoen kasuan (3,42 gizonetan, aldiz, 3,38 emakumeetan, 1999an, ordea, 3,09 eta 2,92, hurrenez hurren), 55 urtetik gorakoetan soilik dago gizonaren aldeko distantzia nabarmena.

1.28 taula.

Prestakuntza Arautuaren Indize Sintetikoa, sexuaren eta adinaren arabera. Biztanleria aktiboa.

Adina	Gizonak (A)		Emakumeak (B)		(B/A)	
	1999	2007	1999	2007	1999	2007
<25 urte	3,40	3,36	3,77	4,10	1,11	1,22
25-29 urte	3,75	3,99	4,14	4,44	1,10	1,11
30-34 urte	3,59	3,78	3,95	4,45	1,10	1,18
35-39 urte	3,55	3,59	3,87	4,10	1,09	1,14
40-44 urte	3,42	3,75	3,38	4,04	0,99	1,08
45-49 urte	3,21	3,43	3,35	3,62	1,04	1,05
50-54 urte	3,09	3,42	2,92	3,38	0,94	0,99
>= 55 urte	2,87	3,45	2,34	3,14	0,82	0,91
<b>GUZTIRA</b>	<b>3,39</b>	<b>3,62</b>	<b>3,65</b>	<b>3,98</b>	<b>1,08</b>	<b>1,10</b>

Aurreko azterketa osatzeko, sexuaren eta prestakuntza arautuaren arabera prestakuntza-mailan izandako aldaketei erreparatuko diegu. Ildo horretan egiaztatu da 1999-2007 aldian kopuru orokorren bilakaera desberdin samarra dela aintzat hartutako aldagaien arabera.

Aipatu beharreko lehenengo elementua da hain kualifikatuak ez diren ikasketen mailen kasuan gizonetzkoen biztanleria positiboagoa dela batzuetan. Hortaz, gizonen artean egiaztatzen da, alde batetik, lehenengo mailako ikasketak amaitu gabe dituztenen kopuruari buruzko datuak hobeak direla orokorrean, eta ikasketarik gabekoen kopurua txikiagoa dela, esate baterako, 1999-2007 aldian (% 16, emakumeen kasuan, aldiz, % 43,4), eta analfabeto kopurua jaitsi egin dela, emakumeen artean erregistratutako igoerarekin kontrastean (gizonen kasuan % -60,8, andreen kasuan, aldiz % 45,6). Bestalde, gizonen bilakaera hobea da lanbidekoak ez diren bigarren mailako ikasketen kasuan; izan ere, titulazio hori duten gizonen kopurua % 13 jaisten da, emakumeen kasuan, aldiz, % 0,7 igotzen da. LH II-ko ikasketak dituztenen kopuruaren bilakaera ere positiboagoa da gizonen artean, % 16,5 igo baita, emakumeen kasuan, aldiz, % 14,4. Gauza bera gertatzen da hirugarren mailako erdi-mailako ikasketen kasuan (% 47,7 gizonen kasuan, % 14 emakumeen kasuan).

Emakumezko biztanleriaren bilakaera, ordea, hobea da 1999-2007 aldian, lehen mailako edo LH I-eko ikasketak dituztenei dagokienez. Ildo horretatik, askoz ere gehiago jaisten da amaitu gabeko bigarren mailako ikasketak dituztenen kopurua (% -54,3 gizonen kasuan, aldiz % -47,1) edo LH II-ko ikasketak dituztenena (% -11,3 eta % -7,9). Lehen mailako ikasketak dituztenen kopuruaren jaitsierari kontrajarririk (% 4,3 emakumeei dagokienez) % 5 igotzen da ikasketa maila hori duten gizon aktiboen kopurua.

Baina emakumearen aldeko diferentzial nagusia hirugarren mailako goi-mailako ikasketen bilakaerarekin lotzen da. Ikasketa-maila hori duten emakume aktiboen kopurua % 53,4 hazten da, gizonen kasuan, ordea % 27,1. Emakumeen artean, hirugarren mailako goi-mailako titulazioen

garrantzia % 14,7tik % 21,5era igotzen da 1999.-2007. urteetan, gizonen kasuan gertatutako % 12,3tik % 15,5era bitarteko hazkundearen gaintik argi eta garbi. Bilakaera horrek LH II-ri eta hirugarren mailako erdi-mailako ikasketei dagokien garrantzi erlatiboaren hazkundera gizonen kasuan handiagoa izatea konpentsatzen du (% 24,3tik % 29,8ra bitarteko hazkundera 1999.-2007. urteetan, emakumeen kasuan, aldiz, % 29,6tik % 32,3ra bitartekoa). Oro har, ikasketa kualifikatuen garrantziari dagokionez, emakumearen aldeko diferentzialak behera egin zuen 1999-2003 laurtekoan (7,7 puntutik 4,9 puntura), 2007an emakumearen aldeko 8,5 puntuko gehieneko maila lortzen da. Erabakitzailea da hirugarren mailako goi-mailako titulazioei ekarpen handiagoa egin izana.

Maila txikiagoko ikasketen zeregina, bereziki bigarren mailako ikasketak, lanbidekoak direnak edo ez direnak amaitzea ekartzen ez dutenak, gainera, askoz ere handiagoa da gizonen kasuan. Izan ere, 2007an, gehienez ere lehen mailako ikasketak bermatu dituztenen garrantzi erlatiboa % 33,7 da gizon aktiboen kasuan, emakume aktiboen kasuan, ordea, % 24,9 da. Horretaz gain, egoera mota horren garrantzi erlatiboa 6,1 puntu jaisten da gizonen artean 1999-2007 aldian, emakumeei dagokionez, aldiz, 7,3 jaisten da.

1.29 a taula  
Prestakuntza-mailaren bilakaera, sexuaren arabera. Biztanleria aktiboa.  
Banandutako datuak (% bertikalak eta biztanleriaren hazkunde-tasak %-etan)

Prestakuntza-maila	Gizonak			Emakumeak		
	1999	2007	Hazkunde-tasa (1)	1999	2007	Hazkunde-tasa (1)
Analfabetoak	0,3	0,1	-60,8	0,1	0,2	45,6
Ikasketarik gabe	0,5	0,6	16,0	0,5	0,7	43,4
Lehen mailakoak amaitu gabe	7,9	3,2	-59,2	6,9	2,7	-58,5
Lehen mailako ikasketak	25,8	27,0	5,0	22,0	20,1	-4,3
Bigarren mailakoak amaitu gabe	5,3	2,8	-47,1	2,7	1,2	-54,3
LH I	9,2	8,5	-7,9	10,8	9,1	-11,3
Lanbidekoak ez diren bigarren mailakoak	14,4	12,5	-13,0	12,6	12,1	0,7
LH II	19,0	22,0	16,5	15,5	16,9	14,4
Hirugarren mailako erdi-mailako ikasketak	5,3	7,8	47,7	14,1	15,4	14,0
Hirugarren mailako goi-mailako ikasketak	12,3	15,5	27,1	14,7	21,5	53,4
<b>GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>0,5</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>4,7</b>

(1) Adierazle hori erreferentziazko biztanleria aktiboari dagozkion datu absolutuak oinarri hartuta kalkulatuak da.

Ikuspegi multzokatuago batetik begiratuta, ondorengo taulan ikusten denez, egiazta daiteke emakumearen kualifikazio-mailaren hobekuntza alderatzen badugu, emakumeak izandako aurrerapena honako honekin lotzen dela 1999.-2007. urteetan: alde batetik, lehen mailako



ikasketak amaituta dituzten aktiboen kopurua gehiago murriztu izanarekin (% -9,9, gizonen kasuan, aldiz, % 3,8), bestetik, LH II-ko edo hirugarren mailako ikasketak dituztenen aktiboen kopurua igo izanarekin (% 27,2, gizonen kasuan, aldiz, % 24,6). Ikasketarik gabekoen edo bigarren mailako, FP I-eko edo lanbidekoak ez diren ikasketak dituztenen jaisiera handiagoa izateak lagundu egiten du, ordea, gizonen prestakuntza-egoera hobetzen.

1.29 b taula.

Prestakuntza-mailaren bilakaera, sexuaren arabera. Biztanleria aktiboa.  
Multzokatutako datuak (% bertikalak eta biztanleriaren hazkunde-tasak %-etan)

Prestakuntza-maila	Gizonak			Emakumeak		
	1999	2007	Hazkunde-tasa (1)	1999	2007	Hazkunde-tasa (1)
Ikasketarik gabe	8,7	3,9	-54,7	7,5	3,6	-49,9
Lehen mailako ikasketak	31,1	29,8	-3,8	24,7	21,3	-9,9
LH I edo lanbidekoak ez diren bigarren mailakoak	23,7	21,0	-11,0	23,4	21,3	-4,8
LH II edo hirugarren mailakoak	36,6	45,4	24,6	44,3	53,9	27,2
<b>GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>0,5</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>4,7</b>

(1) Adierazle hori erreferentziazko biztanleria aktiboari dagozkion datu absolutuak oinarri hartuta kalkulatu da.

Ikasketarik gabeko gizonetako biztanleriaren kopuruaren beherakada erlatiboa 1999.-2007. urteetan handiagoa izan arren, lehen mailako ikasketak amaitzea lortu ez dutenen proportzioa zertxobait handiagoa da oraindik ere gizon aktiboetan (batzuen % 3,9, besteena, aldiz, % 3,6). Aldea lehen mailako ikasketak amaitu gabe dituztenen proportzioa handiagoa izatearekin lotzen da (3,2, emakumeen kasuan, aldiz, % 2,7).

1.30 taula.

Lehen mailako ikasketarik gabeko biztanleria aktiboa, sexuaren eta prestakuntza-mailaren arabera  
(Datu absolutuak eta intzidentzia, biztanleria aktiboari dagokionez, %-etan)

Sexua	Datu absolutuak	Analfabetoak	Lehen mailakoak		
			Ikasketarik gabe	amaitu gabe	Ikasketarik gabe
Gizonak	22.728	0,1	0,6	3,2	3,9
Emakumeak	15.477	0,2	0,7	2,7	3,6
<b>GUZTIRA</b>	<b>38.205</b>	<b>0,1</b>	<b>0,6</b>	<b>3,0</b>	<b>3,8</b>

Lehen mailako edo LH I-eko ikasketak dituzten gizonen proportzioa emakumeena baino handiagoa da oraindik (gizonak % 38,2 eta emakumeak % 30,4). Ikasketarik gabeko kolektiboak edo lehen mailako ikasketak dituzten kolektiboak batuta, egoera horiek gizonen % 42,1 osatzen dute, eta emakumeen kasuan % 34, aldea 2003koa baino handiagoa izanik, urte horretan gizonen % 46,7 eta emakumeen % 41 baitzegoen egoera horretan.

Gizonaren kalterako aldea lehen mailako ikasketak dituzten gizon aktiboen presentzia handiagoa izatearekin lotzen da batez ere, gizonen kasuan % 27, emakumeen kasuan, aldiz, % 20,1. Halaber, bigarren mailako ikasketen garapenean izandako porrot-maila ere handiagoa da. Hori horrela izanik, bigarren mailako ikasketak amaitu gabe dituztenen proportzioa % 2,8 da gizonen artean, eta % 1,2 besterik ez emakumeetan, aurreko urteetako joerari jarraiki. Aitzitik, LH I-en pareko ikasketak dituzten emakumeen proportzioa zertxobait handiagoa da: % 9,1 eta gizonen kasuan, % 8,5.

1.31 taula.

Lehen mailako edo LH I-eko ikasketak dituen biztanleria aktiboa, sexuaren eta prestakuntza-mailaren arabera

(Datu absolutuak eta intzidentzia, biztanleria aktiboari dagokionez, %-etan)

Sexua	Datu absolutuak	Lehen mailako ikasketak	Bigarren mailakoak		Lehen mailako ikasketak
			amaitu gabe	LH I	
Gizonak	222.705	27,0	2,8	8,5	38,2
Emakumeak	130.817	20,1	1,2	9,1	30,4
<b>GUZTIRA</b>	<b>353.522</b>	<b>24,1</b>	<b>2,1</b>	<b>8,7</b>	<b>34,9</b>

Aitzitik, gizonak nabarmentzen dira bigarren mailako ikasketak dituen biztanleriaren artean aldea handiagoa delako (% 34,5 gizonak, % 29,1 emakumeak), emakumeena baino 5,4 puntu gehiago (1999an 5,3 puntu eta 2003an 5,7). Egoera hori eragin duena LH II-k gizonen artean duen alde garrantzitsua izan da. Hortaz, emakumeek aurreko urteekin alderatuta zuten garrantzi erlatiboari eutsi egin diote (% 16,9, kopuru hori ez da 1999ko eta 2003ko % 15,5etik hurbil dauden mailak baino askoz ere handiagoa), baina LH II-ko titulazioa duten gizonezko aktiboen garrantzia gutxiago handitu da (1999ko % 19tik % 22,2tik hurbil dauden kopuruetara, bai 2003an, bai 2007an). Lanbidekoak ez diren bigarren mailako tituludunen garrantzia, ordea, hurbilago dago; gizonen artean % 12,5 baita eta emakumeen artean % 12,1.

1.32 taula.

Bigarren mailako ikasketak dituen biztanleria aktiboa, sexuaren eta prestakuntza-mailaren arabera

(Datu absolutuak eta intzidentzia, biztanleria aktiboari dagokionez, %-etan)

Sexua	Datu absolutuak	Lanbidekoak ez diren bigarren mailako		Bigarren mailako ikasketak
		ikasketak	LH II	
Gizonak	200.959	12,5	22,0	34,5
Emakumeak	125.092	12,1	16,9	29,1
<b>GUZTIRA</b>	<b>326.051</b>	<b>12,3</b>	<b>19,9</b>	<b>32,2</b>

Hirugarren mailakoak ez diren ikasketak dituen biztanlerian gizonek garrantzi erlatibo handiagoa dutela ikusita, argi dago emakume aktiboek PAIS handiagoa izatearen arrazoia honako hau dela: emakumeen garrantzi erlatiboa handiagoa da hirugarren mailako ikasketak dituzten biztanleen artean. Izan ere, hirugarren mailako ikasketak dituztenen proportzioa handiagoa da

emakume aktiboetan (% 36,9), gizonetan baino (% 23,4). Aldea handiagoa da erdi-mailako ikasketen kasuan (% 15,4 emakumeak, % 7,8 gizonak), baina goi-mailako ikasketetan ere berdin-berdina gertatzen da (% 21,5 emakumeak, % 15,5 gizonak). Horretaz gain, gainerako ikasketeta-mailetan ez bezala, gizonen gaineko aldeari eutsi egiten zaio, baina baita handitu ere. Gaur egun 13,5 puntukoa da, 2003an, aldiz, 11,5ekoa zen (% 29,6 emakumeak, eta % 18,1 gizonak) eta 11,2koa 1999an (28,8 emakumeak, eta % 17,6 gizonak).

Ikasketa kualifikatuak dituztenak orokorrean aintzat hartuz gero, LH II barnean hartuta, zenbateko horiek adierazten dutena baino gertuago egongo lirateke bi sexuak. Hala eta guztiz ere, azken urteotan proportzio horrek gora egin du. Horrela, 1999an gizonen % 36,6k eta emakumeen % 44,3k ikasketa-maila hori zuen, emakumeen aldeko 7,7 puntuko aldea izanik; 2003. urtean, ordea, egoera antzekoagoa zen: gizonetan % 40,3 eta emakumeetan % 45,3, egungo aldea 5 puntura murriztuta. 2007an, ordea, aldea 8,5 puntukoa da, prestakuntza kualifikatua duten emakumeak % 53,9 izanik, eta gizonak % 45,4.

1.33 taula.  
Hirugarren mailako ikasketak dituen biztanleria aktiboa, sexuaren eta prestakuntza-mailaren arabera  
(Datu absolutuak eta intzidentzia, biztanleria aktiboari dagokionez, %-etan)

Sexua	Datu absolutuak	Hirugarren mailako erdi-mailakoak	Hirugarren mailako goi-mailakoak	Hirugarren mailako ikasketak
Gizonak	136.170	7,8	15,5	23,4
Emakumeak	158.772	15,4	21,5	36,9
<b>GUZTIRA</b>	<b>294.942</b>	<b>11,0</b>	<b>18,1</b>	<b>29,1</b>

Orain arte aurkeztutako datuek erakusten dutenez, biztanleria aktiboaren artean emakumearen aldeko prestakuntza-aldeek gora egin dute 2003-2007 aldian; alderdi hori kualifikazio-maila handiagoak dituzten emakumeak lan-merkatuan gehiago sartu izanarekin lotuta dago, zalantzarik gabe.

Egiaz, emakumearen egoera hobea izatea asko murriztuko litzateke biztanleria aktibo potentziala aintzat hartuz gero, gehien bat emakumeek osatzen dutelako biztanleria aktibo potentziala. Kasu honetan, egia esan, emakumeen PAISa 3,14 besterik ez da murrizten, kopuru hori emakume aktiboan 3,98 baino askoz txikiagoa da. Zenbateko hori txikia bada ere, (3,38 batean eta 3,62 bestean), konbergentzia askoz ere handiagoa da gizonen kasuan.

Hortaz, PAISari dagokionez, emakume aktiboaren aldea hobea izatearen zati bat prestakuntza txikiagoa duten emakumeek jarduerarako joera txikiagoa izatearekin lotzen da..

## **II.- PRESTAKUNTZA ETA LAN MERKATUA**

## **PRESTAKUNTZA ETA LAN MERKATUA**

Lan-merkatuaren funtzionamendua eta banaketa baldintzatzen dituen oinarrizko aldagaietako bat prestakuntza-maila da. Kapitulu honetan, prestakuntza arautuaren eta laneratze-mailaren arteko erlazio mota zehatz-mehatz aztertuko dugu.

### **1.- PRESTAKUNTZA ARAUTUA ETA LANGABEZIA TASAK EDO LAN EGITEN EZ DUTENENA**

Prestakuntza arautuaren eta lan-merkatuan sartzearen arteko erlazioa aztertzeko, ikuspuntu garrantzitsuena, zalantzarik gabe, honako hau da: prestakuntza arautuak zenbateraino baldintzatzen duen laneratze-maila.

A priori, gai horri heltzeko, lan egiten dutenen tasak aintzat hartzea izango litzateke logikoena (termino positiboetan aztertzearen). Nolanahi ere, 70eko hamarkadaren erdialdean eta 80ko hamarkadaren hasieran izandako industria-krisi handiaren ondorengo hainbat urtetan gure autonomia-erkidegoan langabeziak hainbesteko intzidentzia izateak eta lan egiten dutenen tasaren —edo okupazio-tasaren—, langabezia-tasaren edo lan egiten ez dutenen tasaren —edo ez-okupazio tasaren— osagarri den adierazlea gero eta gehiago erabiltzeak eragiten du askoz erabilgarriagoa izatea azken adierazle horren terminoetan lan egitea (termino negatiboan aztertzea, alegia, prestakuntza-mailaren arabera langabeziaren intzidentzia balioetsita)<sup>4</sup>.

2003an, lan egiten ez dutenen tasek edo langabezia-tasek beheranzko joera zuten prestakuntza-mailak gora egiten zuen neurrian. Horrela, lan egiten ez dutenen tasa % 13,2 baldin bazen lehen mailako ikasketarik gabekoetan, bigarren mailako ikasketak dituztenetan % 10,5era murrizten zen, eta % 9,7ra hirugarren mailako ikasketak dituztenetan. Joera horren salbuespen bakarra lehen mailako edo LH I-eko ikasketak dituztenen kasua zen. Prestakuntza-talde horri dagokionez, lan egiten ez dutenen tasa % 7,5 zen, ikasketa-mailaren araberrako kategorietan txikiena, hain zuzen ere, 1999ko egoerarekin erabat kontrajarririk; izan ere, urte hartan lan egiten ez dutenei dagokienez, lehen mailako ikasketak egindakoen tasa handiagoa zen.

---

<sup>4</sup> BAKlan lan egiten ez duena kontzeptua baliatzen dugu gehienbat, nahiz eta langabeziaren edo enplegurik ezaren kontzeptua antzekoa izan. Hortaz, lan egiten ez dutenen tasa langabezia-tasa hedatuaren kontzeptupean biltzen da, eta honako hauek hartzen ditu langabetzat: ia-langabeen kolektiboak; azken horiek LANeren sailkapen estandarrean ez-aktibotzat hartzen dira. Beraz, BAKlan erabili dugun lan egiten ez dutenen tasa ohiko moduan erabiltzen den langabezia-tasa baino zertxobait handiagoa da. Datuak aurkezteko modua errazteko premiari lotutako arrazoiak direla medio, lan egiten ez dutenak eta langabeziaren kontzeptuak bata zein bestea erabiltzen ditugu txostenean, hemen definitutako terminoetan baliokideak izanik.

2007an, ordea, lan egiten ez dutenen kopuru —edo ez-okupazio kopuru— orokorren jaitsiera-prozesuak tasak berdintzeko joerari laguntzen dio. Beraz, 2007an ikusitako egoerari buruzko daturik deigarriena lan egiten ez dutenen tasen konbergentzia da, kasu guztietan zenbatekoak % 5,7tik % 6,2ra bitartekoak baitira.

Generoaren araberako egoerak, ordea, baditu ñabardura batzuk. Gizonen kasuan, konbergentziarako joera nabarmena da ikasketak motaren bat duen biztanleriaren artean. Hortaz, lehen, bigarren edo hirugarren mailako ikasketak amaituta dituztenen kasuan, lan egiten ez dutenen tasa % 4,8tik % 5,5era bitartekoa da. Zenbateko horretatik lehen mailako ikasketak amaiturik ez dituzten gizonak soilik aldentzen dira, paradoxikoa bada ere, kolektibo horrek ditu lan egiten ez dutenen mailarik txikienak: % 1,3.

Emakumeen kasuan, a priori espero zen ereduaren (langabeziaren edo lan egiten ez dutenen maila eta prestakuntza arautuaren maila elkartzen dituena) presentzia handiagoa da oraindik ere. Beraz, lan egiten ez dutenen tasak behera egiten du prestakuntza-maila hobetzen den neurrian: ikasketarik gabeko emakumeetan. % 12,1 izatetik hirugarren mailako ikasketak dituzten emakume tituludunetan % 6,1 izatera; % 8,3, aldiz, bigarren mailako ikasketak dituzten emakume tituludunei dagokie. Emakumeen kasuan, lehen mailako ikasketak dituztenen egoera soilik aldatzen da espero den eskematik, % 6,6 tasarekin. Tasa hori, gainera, unibertsitate-mailako titulazioa duten emakumeei dagokien tasatik oso hurbil dago, eta bigarren mailako ikasketak dituzten emakumeen tasa baino askoz txikiagoa da.

#### 2.1.a taula

Lan egiten ez dutenen tasak, sexuaren, adinaren eta prestakuntza-mailaren arabera. Biztanleria aktiboa. 2007 (%-etan)

Sexua eta adina	Lehen mailako ikasketarik gabe	Lehen mailako ikasketak - LH I	Bigarren mailako ikasketak	Hirugarren mailako ikasketak	Guztira
Gizonak < 35	4,4	8,9	5,4	10,5	7,8
Gizonak 35-44		5,3	6,2	3,1	4,9
Gizonak >= 45	0,4	3,2	3,0	2,1	2,7
Gizonak	1,3	5,5	4,8	5,4	5,1
Emakumeak < 35	21,6	9,0	9,1	7,0	8,4
Emakumeak 35-44	25,4	6,4	6,9	6,2	6,9
Emakumeak >= 45	3,1	5,6	8,6	4,2	5,8
Emakumeak	12,1	6,6	8,3	6,1	7,1
<b>GUZTIRA</b>	<b>5,7</b>	<b>5,9</b>	<b>6,2</b>	<b>5,8</b>	<b>5,9</b>

2.1 b taula

Lan egiten ez dutenen tasak, sexuaren, adinaren eta prestakuntza-mailaren arabera. Biztanleria aktiboa. 2003  
(%-etan)

Sexua eta adina	Lehen mailako ikasketarik gabe	Lehen mailako ikasketak - LH I	Bigarren mailako ikasketak	Hirugarren mailako ikasketak	Guztira
Gizonak < 35	11,8	8,3	13,0	17,3	12,3
Gizonak 35-44	12,5	3,7	4,7	2,5	4,2
Gizonak >= 45	6,8	2,3	3,9	1,2	2,9
Gizonak	9,4	4,4	8,5	8,0	6,8
Emakumeak < 35	38,1	15,8	18,7	17,1	17,8
Emakumeak 35-44	29,5	13,4	9,8	5,2	10,5
Emakumeak >= 45	11,2	9,7	4,9	2,9	7,8
Emakumeak	18,4	12,6	13,7	11,1	12,8
GUZTIRA	13,2	7,5	10,5	9,7	9,3

2.1 c taula

Lan egiten ez dutenen tasak, sexuaren, adinaren eta prestakuntza-mailaren arabera. Biztanleria aktiboa. 1999  
(%-etan)

Sexua eta adina	Lehen mailako ikasketarik gabe	Lehen mailako ikasketak - LH I	Bigarren mailako ikasketak	Hirugarren mailako ikasketak	Guztira
Gizonak < 35	22,2	19,9	17,8	16,4	18,5
Gizonak 35-44	16,1	6,8	5,1	2,6	5,9
Gizonak >= 45	5,4	5,4	3,5	2,8	4,5
Gizonak	11,2	11,3	11,2	8,3	10,7
Emakumeak < 35	34,7	31,9	31,1	25,6	29,7
Emakumeak 35-44	33,4	31,3	23,5	11,7	23,5
Emakumeak >= 45	21,1	23,9	12,0	4,8	17,7
Emakumeak	26,3	29,7	26,5	18,8	25,4
GUZTIRA	17,0	18,3	16,9	14,0	16,8

Ikasketa-mailen eragin positibo diferentziala askoz ere argiagoa da, gainera, potentzialki aktiboa den biztanleria osoa kontuan hartzen badugu. Potentzialki aktiboa den biztanleria osoa (aktiboak eta aktibo potentzialak) kontuan hartzen badugu, egiaztatuko dugu 2007an, lan egiten ez dutenen tasa altuena lehen mailako ikasketarik gabeko biztanleriari dagokiola argi eta garbi: % 12,6. Tasa % 8,7tik % 9,5era jaisten da lehen edo bigarren mailako ikasketak dituztenen artean, %

6,5eko gutxienekoa lortuz hirugarren mailako titulazioaren kasuan. Joera hori gizonen nahiz emakumeen artean ikusten da, nahiz eta, aurreko urteetan gertatzen zen bezala, lehen mailako ikasketak egindakoen gizonen aldeko posizioa nabarmentzen den, lan egiten ez dutenen tasa % 5,9 baita. Tasa hori, gainera, hirugarren mailako tituludunei dagokien % 5,8ko tasarekin soilik aldera daiteke. Lehen mailako ikasketak egindakoen lan egiten ez dutenen tasa, halaber, bigarren mailako tituludunena baino txikiagoa da emakumeen kasuan (lehenak 13 eta bigarrenak % 13,9), nahiz eta kasu honetan unibertsitateko tituludunena baino askoz ere handiagoa den (% 7,1).

Hortaz, datu horiek ikusita esan daiteke ikasketa-maila handien eta lan egiten ez dutenen tasa txikien arteko erlazioa betetzen dela orokorrean, baina haiekin alderatuta, lan egiten dutenei dagokienez, lehen mailako ikasketak dituzten gizonen egoera onak argitzen duela neurri handi batean.

Azterketa zehatzago batek (sexuaren, adinaren eta prestakuntza-mailaren arabera) kontuan izan behar diren ñabardura osagarri batzuk ematen ditu. Alde batetik, begi-bistakoa dirudi lehen mailako titulazio bat lortzeak, orokorrean, bermatzea lan egiten ez dutenen tasak txikiagoak, edo, gutxienez, gainerako kolektiboen antzekoak izan daitezen, betiere prestakuntza-mailaren arabera. Salbuespen bakarra 2007koa da eta gizon gazteenei dagokie. Potentzialki aktiboa den biztanleria osoa kontuan hartzen badugu, lan egiten ez dutenen tasa % 11,1era igotzen da unibertsitate-ikasketak dituzten 35 urtetik beherako gizonen artean, bigarren edo hirugarren mailako ikasketak dituzten tituludunei dagozkien % 9tik % 9,5era bitarteko zenbatekoen gainetik.

Ez da hain garbi ikusten, ordea, unibertsitate-ikasketak amaitzen ez badira, bigarren mailako ikasketak aukeratzeak lehen mailako ikasketetako tituluarekiko aldea hobetuko denik. Gizonen kasuan, lan egiten ez dutenen tasak hamarren batzuk txikiagoak dira bigarren mailako ikasketak dituzten 35 urtetik beherakoetan (% 9,1; lehen mailako edo LH I-eko ikasketak dituztenen kasuan, aldiz, % 9,4), adin horretatik gorakoetan, berriz, gutxi gorabehera puntu-erdi bat handiagoak dira (% 6,2, 35-44 urtekoetan, aldiz, % 5,6; eta % 4,2, 45 urtetik gorakoetan, aldiz, % 3,8). Potentzialki aktiboak diren emakumeen artean, ezegonkortasun-egoera alderatzen badugu, egoera hori bereziki deigarria da bigarren mailako ikasketak dituzten 35 urtetik beherako emakumeetan, lan egiten ez dutenen tasa % 17,9 baita, lehen mailako emakume tituludunen % 11,6ko tasa baino askoz handiagoa. Nolanahi ere, adin horretatik gorako emakumeen artean tasak behera egiten du argi eta garbi bigarren mailako titulazioa lortzen denean (% 9,1, 35-44 urteko lehen mailako emakume tituludunek, aldiz, % 13,1; % 12,1, 45 urtetik gorakoetan, aldiz, % 13,6).

Azkenik, ikasketarik ez izateak lan egiten ez dutenen tasen arteko aldea handitzea dakar orokorrean, baina 2007an arrisku hori gutxienekoa da 35 urtetik gorako gizonen kasuan. Gauza bera gertatzen da 45 urtetik gorako emakumeetan, unibertsitateko emakume tituludunekin alderatuta izan ezik.





2.2 a taula

Lan egiten ez dutenen tasak, sexuaren, adinaren eta prestakuntza-mailaren arabera. 2007  
Biztanleria potentzialki aktiboa (aktiboa eta aktibo potentziala)  
(%-etan)

Sexua eta adina	Lehen mailako ikasketarik gabe	Lehen mailako ikasketak - LH I	Bigarren mailako ikasketak	Hirugarren mailako ikasketak	Guztira
Gizonak < 35	14,2	9,4	9,1	11,1	9,8
Gizonak 35-44	3,4	5,6	6,2	3,1	5,1
Gizonak >= 45	6,1	3,8	4,2	2,7	3,8
Gizonak	7,5	5,9	6,7	5,8	6,2
Emakumeak < 35	21,6	11,6	17,9	7,2	12,2
Emakumeak 35-44	40,2	13,1	9,1	9,1	11,2
Emakumeak >= 45	11,2	13,6	12,1	4,2	10,8
Emakumeak	19,9	13,0	13,9	7,1	11,4
GUZTIRA	12,6	8,7	9,5	6,5	8,5

2.2 b taula

Lan egiten ez dutenen tasak, sexuaren, adinaren eta prestakuntza-mailaren arabera. 2003  
Biztanleria potentzialki aktiboa (aktiboa eta aktibo potentziala)  
(%-etan)

Sexua eta adina	Lehen mailako ikasketarik gabe	Lehen mailako ikasketak - LH I	Bigarren mailako ikasketak	Hirugarren mailako ikasketak	Guztira
Gizonak < 35	14,7	9,0	18,1	18,1	15,2
Gizonak 35-44	13,8	3,7	4,7	2,5	4,3
Gizonak >= 45	9,6	3,2	5,5	1,2	4,1
Gizonak	11,9	5,0	11,5	8,4	8,3
Emakumeak < 35	56,3	23,5	25,7	18,5	23,4
Emakumeak 35-44	41,1	23,1	15,2	8,9	17,6
Emakumeak >= 45	23,1	27,7	15,1	9,1	21,8
Emakumeak	31,9	25,1	21,0	13,9	21,2
GUZTIRA	21,0	13,4	15,2	11,4	14,0

Aurreko urteei dagokienez, nolanahi ere, lan egiten ez dutenen kopuruaren azken bilakaera bereziki ona da. Biztanleria aktiboa soilik kontuan hartuta, ikusi dugu 1999ko % 16,8tik 2003ko % 9,3ra eta 2007ko % 5,9ra jaitsi dela.

2003.-2007. urteetan, jaitsierarik deigarriena ikasketarik gabeko biztanleriari dagokio; izan ere, lan egiten ez dutenen tasa % 13,2tik % 5,7ra jaitsi da. Jaitsiera bereziki handia da gizonen artean, horien tasa % 9,4tik % 1,3ra jaitsi baita. Hala eta guztiz ere, jaitsiera nabarmena da emakumeen artean ere, horien tasa % 18,4tik % 12,1era jaitsi baita. Emakumeen kasuan, ordea, hobekuntza eskasa da 35-44 urteetan, % 29,5etik soilik % 25,4ra jaitsi baita. Horretaz gain, 35 urtetik beherakoetan jaitsiera nabarmena bada ere (% 38,1etik % 21,6ra), lan egiten ez dutenen tasa kasu honetan oso handia da oraindik. Lehen mailako ikasketarik gabeko 45 urtetik beherako emakumeak ikasketak-maila horietan % 5etik gorako lan egiten ez dutenen mailak gainditzen dituzten bakarrak dira, eta, horretaz gain, % 20tik gorako tasetara iristen dira.

Tasen jaitsiera ere garrantzizkoa da bigarren eta hirugarren mailako ikasketak dituztenen kasuan. Bigarren mailako ikasketak dituzten tituludunen artean, lan egiten ez dutenen tasa % 10,5etik % 6,2ra jaisten da 2003.-2007. urteetan, eta % 9,7tik % 5,8ra hirugarren mailako ikasketen kasuan. Halaber, lan egiten ez dutenen tasak ere behera egiten du lehen mailako ikasketak dituztenen artean, % 7,5etik % 5,9ra jaisten baita.

Aintzat hartu ditugun ikasketak motetan, ordea, sexuaren eta adinaren arabera bilakaerak ez du norabide bera beti. Alde positiboan bigarren edo hirugarren mailako ikasketak dituzten gazteen artean izandako beherakada handiak nabarmendu behar dira. 35 urtetik beherako emakumeen kasuan, tasa % 18,7tik % 9,1era jaitsi da bigarren mailako emakume tituludunei dagokienez, eta % 17,1etik % 7ra hirugarren mailako ikasketak dituzten emakume tituludunei dagokienez. Adin horietan, jaitsiera oso deigarria da bigarren mailako ikasketak dituzten gizonen artean ere, tasa % 13 izatetik % 5,4 izatera igarotzen baita. Argi eta garbi behera egiten badu ere, jaitsiera ez da hain handia hirugarren mailako ikasketak dituzten gizonen artean, tasa % 17,3tik % 10,5era jaitsi baita. Bigarren edo hirugarren mailako ikasketak dituen 35 urtetik beherako biztanlerian, hain zuzen ere, hirugarren mailako titulazioa duten gizonen bakarrak gainditzen dute lan egiten ez dutenen % 10eko maila 2007an.

Argi eta garbi aldekoa den bilakaera duen beste kolektibo bat lehen mailako edo LH I-eko ikasketak dituzten emakumeak dira. Kasu horretan, lan egiten ez dutenen tasa % 12,6tik % 6,6ra jaitsi da 2003.-2007. urteetan; horretaz gain, hobekuntza garrantzitsuak izan dira adin guztietan. Emakume aktibo horien taldean, lan egiten ez dutenen tasa % 10etik behera jaitsi da lehenengo aldiz adin guztietan, 35 urtetik gorakoetan gehienekoa % 9 izanik.

Lehen mailako edo LH I-eko ikasketak dituzten gizonen bilakaera, ordea, negatiboa da aldi horretan, lan egiten ez dutenen tasa % 4,4tik % 5,5era igo baita. Eragin handiena jasan duen taldea 35 urtetik beherakoa da; izan ere, % 8,9ko tasa izanik, ikusten da talde horri dagokienez, lan egiten ez dutenen tasa emakumeenaren parekoa dela, nahiz eta 2003an askoz ere beherago zegoen (% 8,3 batean, bestean, aldiz, % 15,8).

Era berean, lan egiten ez dutenen tasek ere okerrera egin dute orokorrean, bigarren eta hirugarren mailako ikasketak dituzten 35 urtetik gorako gizonen eta emakumeen kasuan. Ondoriorik negatiboena da bigarren mailako ikasketak dituzten 35-44 urteko gizonen langabezia-tasa % 5etik gorakoa dela berriz ere. Talde horren tasa 2007an % 6,2 zenez gero, ikasketa-maila hori duten 35-44 urteko emakumeen % 6,9ko tasara hurbiltzen da, talde hori baita 2003.-2007. urteetan adin- eta titulazio-kategoria horietan lan egiten dutenen mailak hobetu dituen bakarrenetako bat. Halaber, nabarmen egin du okerrera bigarren mailako ikasketak dituzten 45 urtetik gorako emakumeen lan egiten ez dutenen tasak: % 4,9tik % 8,6ra.

Azken joerak honelakoak dira: 2007an 35 urtetik gorako gizonen kasuan, horien titulazio-maila edozein izanik ere, lan egiten ez dutenen tasak % 5etik behera edo hortik hurbil samar zeuden; horrek esan nahi du, hortaz, lehen mailako ikasketen titulurik lortu ez dutenei dagokienez, 2003an ikusitako egoera handitu egin dela. Errealitate hori ere hedatzen da, orokorrean, adin horietako emakumeen taldera. Salbuespen deigarri bakarrak bigarren mailako ikasketak dituzten 45 urteko eta hortik gorako emakumeen kasua da, adierazitako % 8,6a baitute, baita ikasketarik gabeko 35-44 urteko emakumeena ere, kasu horretan tasa % 25,4ra igotzen da.

35 urtetik beherako biztanlerian ere badaude hobekuntza nabarmen batzuk, tasak % 5etik hurbil baitaude ikasketarik ez duten edo bigarren mailako ikasketak dituzten gizonetan, unibertsitateko ikasketak dituzten emakumeen artean, ordea, tasa % 7 da. Gainerako kasuetan, aldiz, tasak handiak dira oraindik ere, lehen mailako edo LH I-eko ikasketak dituzten gizonen eta emakumeen kasuan, bigarren mailako ikasketak dituzten emakumeen kasuan eta hirugarren mailako ikasketak dituzten gizonen kasuan mailak % 9tik % 10era bitartekoak baitira. Lehen mailako ikasketarik gabeko 35 urtetik beherako emakumeei dagokienez, % 21,6ko mailak ere lortzen dira.

Gizonen eta emakumeen lan egiten ez dutenen mailak antzekoak izatea lan egiten ez dutenen tasek azken bolada honetan jaisteko duten joeraren aldeko beste alderdi bat da. 1999an 15 puntuko aldea izatetik (emakumeen kasuan % 25,4, gizonen kasuan, aldiz, % 10,7) 2007an 2 puntu ingurukoa izatera igarotzen da (batean % 7,1, bestean, aldiz, % 5,1).

Hala eta guztiz ere, zehaztu egin behar da hobekuntzaren intentsitatea. Biztanleria potentzialki aktibo osoa kontuan hartzen badugu, egungo aldea 5,2 puntukoa da oraindik: potentzialki lan egiten ez duten gizonen % 6,2ri kontrajarririk, proportzioa % 11,4ra igotzen da emakumeen kasuan. Egia esan, lan egiten ez dutenen aukera askoz handiagoa da beti emakumeen artean, salbuespen bakarra goi-mailako ikasketak dituztenena izanik; errealitate hori, gainera, ikasketa mota hori duten 35 urtetik beherako gizonen posizio okerragoari egotz dakiok.

Orain arte esandakoa laburbiltzeko, honako bi ideia hauek azpimarra ditzakegu:

a) Lehenik eta behin, orokorrean egiaztatzen da lotura handia dagoela prestakuntza-maila hobetzearen eta lan egiten ez dutenen mailak txikiagoak izatearen artean. Enplegu betearen egoerarako hurbilpen-unean (2007ko errealitateak erakusten duena bezalakoa) lotura hori, ordea, ikasketarik ez duten edo lehen mailako ikasketak dituzten kolektiboen egoera hobetzearen ondorio gisa zehazten da. Prozesu hori bereziki deigarria da gizonen artean.

b) Bigarrenik, prestakuntzaren eragin diferentziala askoz ere handiagoa da emakumeen artean. Kasu horretan, ikasketa kualifikatuagoak egitea da lan egiten ez dutenen maila txikiagoz baliatzeko berme bakarra; alderdi hori, ordea, hirugarren mailako ikasketak dituzten emakumeen kasuan soilik azaltzen da konponbide gisa, eta benetako emaitzak ditu. Biztanleria potentzialki aktibo osoa kontuan hartzen denean emakume horiek bakarrik kokatzen baitira 2007an adin guztietan lan egiten ez dutenen kopuruaren % 10etik behera. Unibertsitateko emakumeen kolektibo horretan, hortaz, prestakuntzaren eta enplegua lortzeko aukeraren arteko harremana kontuan hartzerakoan eragin diferentziala handiagoa da.

Jarraian, aurreko alderdiak sakon aztertuko ditugu, orain arte aztertutako talde handiak osatzen dituzten prestakuntza-errealitate espezifikoaren egoerari erreparatuta.

### **1.1.- Lehen mailako edo LH I-eko ikasketak dituen biztanleria aktiboa**

2007an, lehen mailako edo LH I-eko ikasketak dituztenen lan egiten ez dutenen tasa EAeko tasa orokorraren mailan dago (% 5,9 bi kasuetan). 1999-2003 aldian ez bezala (aldi horretan kolektibo horren lan egiten ez dutenen tasa gainerako taldeetan baino askoz gehiago murriztu zen), 2003.-2007. urteetan lan egiten ez dutenen tasa gehiago jaitsi da gainerako biztanleria aktiboan.

Aurreko urteekin alderatuta, jaitsierak, ordea, bere horretan jarraitzen du, lan egiten ez dutenen tasa 1999an % 18,3 izatetik 2003an % 7,5 izatera eta 2007an % 5,9 izatera igaro zen. Prestakuntza-kategoriak horretaz baliatzen dira. Izan ere, LH I-eko titulazioa dutenen lan egiten ez dutenen tasa jaitsi egin da, 1999an % 20,4 izatetik 2003an % 9,2 eta 2007an % 7 izatera igaro baita, eta lehen mailako ikasketak dituzten tituludunei dagokienez, 1999an % 16,4 izatetik 2003an % 7,4 eta 2007an % 5,3 izatera jaitsi baita. Bigarren mailako ikasketak amaitu gabe dituztenen kasuan, ordea, lan egiten ez dutenen tasa 1999.-2003. urteetan % 24,6tik % 5era jaitsi ondoren, ikusten da 2007an % 8,2raino igo dela.

Datuen arabera, 1999.-2007. urteetan, sexu- eta adin-talde gehienetan bilakaera positiboa izan da. Hala ere, bilakaera positiboena lehen mailako edo bigarren mailako ikasketak amaitu gabe dituzten 35 urtetik beherako gizonen izan dute, eta, orokorrean, emakumeek. Izan ere, lehen

mailako edo LH I-eko ikasketak dituztenen tasek 2007an gizonen artean, orokorrean, posizio hobea duten arren (% 5,5; emakumeek, aldiz, % 6,6), hurbilpena nabarmena da, bereziki kontuan hartzen badugu prestakuntza-talde horretan emakumeen tasa % 29,7 zela 1999an, gizonen kasuan ikusitako % 11,3 baino hiru aldiz gorago. 35 urtetik gorako emakumeen kasuan, datuak enplegu bete teknikoetik hurbil dauden mailetara hurbiltzen dira, bigarren mailako ikasketak amaitu gabe dituzten 35-44 urteko emakumeek % 7,6ko gehieneko tasa baitute.

Egia esan, 2007an, lehen mailako edo LHko ikasketak dituzten emakume aktiboen egoera alderatzen badugu hainbat zirkunstantzia ikusiko ditugu; izan ere, kolektibo horren tasak gizonen tasak baino txikiagoak dira lehen mailako ikasketak dituzten 45 urtetik beherako gizonen kasuan eta bigarren mailako ikasketak amaitu gabe dituzten 45 urtetik gorako emakumeen kasuan. Hurbilpena nabarmena da, gainera, 35 urtetik beherako LH I-eko tituludunetan. Emakumeen tasak gizonen tasen gainetik daude honako kasu honetan bakarrik: bigarren mailako ikasketak amaitu gabe dituzten 45 urtetik beherakoetan eta 35 urtetik gorako LH I-eko tituludunetan.

Gizonen eta emakumeen arteko aldea, ordea, askoz ere garbiagoa da biztanleria potentzialki aktibo osoa kontuan hartzen badugu, kasu horretan lan egiten ez dutenen tasak bi aldiz handiagoak dira emakumeen artean (% 13, gizonetan, aldiz, % 5,9). Izan ere, lan egiten ez dutenen kopurua soilik % 5,5etik % 5,9ra igotzen da gizonen artean aktibo potentzialak azterketan sartzerakoan, emakumeen kasuan, ordea, % 6,6 izatetik % 13 izatera igarotzen da. Lehen mailako ikasketak dituztenetan aldaketa nabarmena da, emakumeen lan egiten ez dutenen tasa % 5,1etik % 12,2ra igotzen baita (lehen mailako ikasketak zentzu hertsian hartuta), eta amaitu gabeko bigarren mailako ikasketei dagokienez, % 14,5etik % 30,8ra (% 5,4tik % 5,9ra gizonetan lehenengo kasuan, eta % 6,1eko mailetan eusten zaio bigarreanean). Aldiz, LH I mailan tasak antzekoagoak dira: % 9 emakume aktiboetan, eta % 12 aktiboak eta potentzialki aktiboak batuta; gizonen kasuan, % 5,4 eta % 5,9, hurrenez hurren.

Ikasketa motaren araberako lan egiten ez dutenen tasen intzidentzian aldea izateari dagokionez, prestakuntza-maila horretan LH I-en azken urteotako bilakaera positiboa aipatu behar dugu. Horrela, LH I-ek 1999. urtean lehen mailako ikasketekin (zentzu hertsian hartuta) zuen aldea 4 puntukoa bazen (% 20,4 lehen mailakoak, % 16,4 LH I dutenak), 2003an 1,8 puntukoa zen (% 9,2 lehen mailakoak eta % 7,4 LH I dutenak) eta 2007an 1,7koa da (% 7 lehen mailakoak eta % 5,3 LH I dutenak). Bilakaera horren arrazoi nagusia honako hau da: LH I-eko ikasketak dituzten 35 urtetik beherako gizonen lan egiten ez dutenen jaitziera diferentziala; izan ere, 1999an lehen mailako ikasketak zituztenen lan egiten ez dutenen tasa baino handiagoa izatetik (% 22,1, eta lehen mailakoena % 14,2) 2007an askoz ere hurbilago dagoen tasara igaro baitira (% 11, eta lehen mailakoak % 8,5).

35 urtetik beherako gizonekin gertatzen zen bezala, emakumeei dagokienez ere lan egiten ez dutenen tasak handiagoak dira 2007an LH I-eko tituludunen artean lehen mailako ikasketak dituztenen artean baino. Biztanleria potentzialki aktibo osoari dagozkion datuak kontuan hartzen ditugunean, salbuespen bakarra 45 urtetik gorako emakumeak dira.

## 2.3 a taula

Lehen mailako edo LH I-eko ikasketak dituzten aktiboen lan egiten ez dutenen tasak, sexuaren, adinaren eta prestakuntza-mailaren arabera. 2007

(%-etan)

Sexua eta adina	Lehen mailako ikasketak	Bigarren mailakoak amaitu gabe	Lehen mailako ikasketak - LH		
			LH I	I	Guztira
Gizonak < 35	8,5	3,3	11,0	8,9	7,8
Gizonak 35-44	7,3	4,8		5,3	4,9
Gizonak >= 45	2,9	11,9	1,7	3,2	2,7
Gizonak	5,4	6,1	5,4	5,5	5,1
Emakumeak < 35	2,9	31,8	11,3	9,0	8,4
Emakumeak 35-44	5,8	7,6	7,4	6,4	6,9
Emakumeak >= 45	5,2	3,1	7,2	5,6	5,8
Emakumeak	5,1	14,5	9,0	6,6	7,1
GUZTIRA	5,3	8,2	7,0	5,9	5,9

## 2.3 b taula

Lehen mailako edo LH I-eko ikasketak dituzten aktiboen lan egiten ez dutenen tasak, sexuaren, adinaren eta prestakuntza-mailaren arabera. 2003

(%-etan)

Sexua eta adina	Lehen mailako ikasketak	Bigarren mailakoak amaitu gabe	Lehen mailako ikasketak - LH		
			LH I	I	Guztira
Gizonak < 35	10,1	5,8	7,2	8,3	12,3
Gizonak 35-44	4,4		3,7	3,7	4,2
Gizonak >= 45	2,1		4,7	2,3	2,9
Gizonak	4,3	2,6	5,5	4,4	6,8
Emakumeak < 35	13,9	10,6	20,9	15,8	17,8
Emakumeak 35-44	14,3	19,4	10,6	13,4	10,5
Emakumeak >= 45	9,7	12,9	9,7	9,7	7,8
Emakumeak	12,0	13,5	14,2	12,6	12,8
GUZTIRA	7,4	5,0	9,2	7,5	9,3

## 2.3 c taula

Lehen mailako edo LH I-eko ikasketak dituzten aktiboen lan egiten ez dutenen tasak, sexuaren, adinaren eta prestakuntza-mailaren arabera. 1999

(%-etan)



Sexua eta adina	Lehen mailako ikasketak	Bigarren mailakoak amaitu gabe	LH I	Lehen mailako ikasketak - LH	
				I	Guztira
Gizonak < 35	14,2	30,9	22,1	19,9	18,5
Gizonak 35-44	9,7	0,8	2,9	6,8	5,9
Gizonak >= 45	5,3	3,0	7,1	5,4	4,5
Gizonak	9,1	18,2	13,5	11,3	10,7
Emakumeak < 35	30,3	37,1	32,3	31,9	29,7
Emakumeak 35- 44	31,9	62,5	24,1	31,3	23,5
Emakumeak >= 45	23,6	32,6	23,8	23,9	17,7
Emakumeak	28,6	41,8	28,9	29,7	25,4
GUZTIRA	16,4	24,6	20,4	18,3	16,8

Nolanahi ere, lan egiten ez dutenen eragina nabarmen aldatzen da sexuaren, adinaren eta prestakuntza-mailaren arabera. Hortaz, biztanleria potentzialki aktibo osoa kontuan hartzen badugu, ikusiko dugu lan egiten ez dutenen maila kasu batzuetan % 5etik beherakoa dela. Horixe gertatzen da 45 urtetik gorako gizonetan, bai lehen mailako ikasketen kasuan, bai LH I-eko ikasketen kasuan; egoera hori LH I-eko titulua duten 35-44 urteko gizonetara hedatzen da. Aitzitik, LH I-eko ikasketak dituzten 35 urtetik beherako gizonek, titulazio hori duten 45 urtetik beherako emakumeek eta lehen mailako ikasketak dituzten 35 urteko eta gehiagoko emakumeek % 10eko mailak gainditzen dituzte.

Testuinguru horretan honako alderdi hau ere nabarmendu behar da: bigarren mailako ikasketetan porrot egiteak duen garrantzia, bereziki emakumeen kasuan. Kasu horretan, ikusten da biztanleria potentzialki aktiboaren lan egiten ez dutenen mailak % 30,8ra iristen direla, proportzio horrek % 11,9 lortzen du gehienez gizonetan 45 urtetik gorakoak kontuan hartzen direnean. Emakumearen kasuan, bigarren mailako ikasketak egiten hasi eta porrot egiteak ondorioak nabarmendu behar dira, eta horrek lehen mailako edo LH I-eko ikasketak dituztenen kolektiboan langabezia-maila handiagoa eragiten du.

### 2.3 d taula

#### Lan egiten ez dutenen tasak

Lehen mailako edo LH I-eko ikasketak dituen biztanleria potentzialki aktiboa (aktiboa eta aktibo potentziala), sexuaren, adinaren eta prestakuntza-mailaren arabera. 2007 (%-etan)

Sexua eta adina	Lehen mailako ikasketak	Bigarren mailakoak amaitu gabe	Lehen mailako ikasketak - LH		
			LH I	I	Guztira
Gizonak < 35	8,7	3,3	12,1	9,4	9,8
Gizonak 35-44	7,7	4,8		5,6	5,1
Gizonak >= 45	3,6	11,9	1,7	3,8	3,8
Gizonak	5,9	6,1	5,9	5,9	6,2
Emakumeak < 35	7,4	41,7	11,3	11,6	12,2
Emakumeak 35-44	10,3	24,4	15,8	13,1	11,2
Emakumeak >= 45	14,2	33,9	8,8	13,6	10,8
Emakumeak	12,2	30,8	12,0	13,0	11,4
<b>GUZTIRA</b>	<b>8,3</b>	<b>13,1</b>	<b>8,6</b>	<b>8,7</b>	<b>8,5</b>

LH I-en barruan dauden hainbat ikasketa mota kontuan hartzen denean, ikus daiteke industria-arloko adar gehienetan lan egiten ez dutenen mailetan alde handiak daudela, betiere arlo

horretako mailak gainerako sektoreetan ikusitako mailekin alderatuta. Ildo berari jarraiki, industria-arloko adarretan 2007an % 5etik beherako lan egiten ez dutenen mailak dauden bitartean, (Metalaren adarrean izan ezik, % 11,5eko maila baitu) gainerako kasuetan industria-arlokoak ez diren LH I-eko lan egiten ez dutenen mailak % 10etik gorakoak dira. Ile-apainketaren adarrean dago lan egiten ez dutenen tasa handiena (% 17,5), Osasun-adarrean, aldiz, % 10,2 da. Administrazio-adarrean maila % 6,7ra iristen bada ere, % 10,3ra igotzen da biztanleria potentzialki aktiboa kontuan hartzen denean.

Eskura dauden datuek, bestalde, erakusten dute 2003-2007 aldian jarraitu egiten duela LH I-eko adar gehienetako lan egiten ez dutenen tasetan 1999-2003 aldian ikusten den hobekuntzak. Hala eta guztiz ere, deigarria da Metalaren adarrean egoerak nola egin duen okerrera. 1999-2003 aldian lan egiten ez dutenei dagokienez, kopuruak % 10,3tik % 4,5era jaitsi ondoren, adierazleak gora egin du 2007an, eta % 11,5ean kokatu da; aztertzen ari garen aldiko zenbatekorik handiena LH I-eko adar horretan.

#### 2.4 taula.

LH I-eko ikasketak dituztenen lan egiten ez dutenen tasak, LH I motaren arabera.

Biztanleria potentzialki aktiboa  
(%-etan)

LH I mota	2003	2007	2007 (Pot. aktiboa)
Lanbide-ikastuna	3,7	4,1	4,1
LH I, Administrarritza	12,0	6,7	10,3
LH I, Metala	4,5	11,5	11,5
LH I, Elektrizitatea	5,5	2,9	2,9
LH I, Delineazioa	4,7	0,0	0,0
LH I, Automozioa	1,7	0,0	0,0
LH I, Osasungintza	11,1	10,2	10,2
LH I, Ileapainketa-Estetika	32,4	17,5	17,5
Beste LH I eta parekoak	10,4	4,8	7,7
<b>LH I, GUZTIRA</b>	<b>9,2</b>	<b>7,0</b>	<b>8,6</b>

#### 1.2.- Bigarren mailako ikasketak dituen biztanleria aktiboa

Bigarren mailako ikasketak dituen biztanleriaren egoerak 2003-2007 laurtekoan agerian uzten du kolektiboaren posizioa zertxobait hobetu dela. 2003an ikusten zen lan egiten ez dutenen tasa handiagoa zela bigarren mailako ikasketak dituztenen aktiboen artean (% 10,5, EAEko batez bestekoa, aldiz % 9,3); 2007an, ordea, nabarmen jaisten da (% 6,2, guztizko biztanleriari dagokionez, aldiz, % 5,9). Hortaz, 1999ko egoerara itzuli gara. Urte horretan biztanle mota horien lan egiten ez dutenen maila biztanleria guztiaren oso antzekoa zen, nahiz eta mailak askoz handiagoak izan (batean % 16,9, bestean, aldiz, % 16,8). Nolanahi ere, bigarren mailako ikasketak

dituzten aktiboei dagokienez, lan egiten ez dutenen tasek beheranzko joerari eusten diete, 1999ko % 16,9tik 2003ko % 10,5era eta 2007ko % 6,2ra jaitsi baitira.

Bigarren mailako ikasketak dituen biztanleria aktiboaren posizioak hobetu izana emakumeen artean atzemandako bilakaerarekin lotzen da neurri handi batean. Emakumeen tasen jaitsieraren erritmoari (1999.-2003. urteetan % 26,5etik % 13,7ra jaitsi zen) eutsi egiten zaio neurri handi batean ondorengo laurtekoan, 2007an % 8,3ra iritsiz. LH II-ko emakume tituludunetan bilakaera ona bada ere (beheranzko joerari eusten zaio, 1999ko % 21,4tik 2003ko % 9,9ra eta 2007ko % 8,7ra), egia da 2003-2007 laurtekoan prestakuntza mota horretan asko moteldu direla lan egiten ez dutenen jaitsieraren erritmoak. Hobekuntza, hortaz, lanbidekoak ez diren bigarren mailako emakume tituludunen bilakaerarekin lotzen da batik bat. Kasu honetan, lan egiten ez dutenen tasa 2003ko % 18tik 2007ko % 7,7ra jaisten da, eta, horrela, luzatu egiten da 1999ko % 32,8tik izandako jaitsiera handia. 2003ra bitarte, LH II-ko titulua duten emakumeetan ikusitako lan egiten ez dutenen kopuruak argi eta garbi gainditu ondoren, lan egiten ez dutenen tasei dagokienez, lanbidekoak ez diren bigarren mailako ikasketak dituzten emakumeen tasa LH II-ko ikasketak dituzten emakumeei dagokien tasatik behera kokatzen da lehenengo aldiz 2007an (% 7,7, bigarren kasuan, aldiz, % 8,7). Soilik 35 urtetik beherako emakumeen kasuan dira lan egiten ez dutenen tasak txikiagoak LH II-n lanbidekoak ez diren bigarren mailako ikasketetan baino.

Emakumeen artean adin-taldeak kontuan hartuta, datuek erakusten dute lan egiten ez duten tasei dagokienez, azken lau urteotan nabarmen jaitsi direla lanbidekoak ez diren bigarren mailako ikasketak dituzten 45 urtetik beherako emakumeenak; izan ere, 2003.-2007. urteetan % 10,1etik % 6,5era 35-44 urteko emakumeei dagokienez. Hain handia ez bada ere, jaitsiera nabarmena da adin horietan ere LH II-ko emakume tituludunei dagokienez (% 11,2tik % 8,9ra, eta % 9,6tik % 7,1era, hurrenez hurren). Aitzitik, 1999-2003 laurtekoan izandako jaitsiera handien ondoren (45 urtetik beherakoek ere izan dituzte jaitsiera horiek) lan egiten ez dutenen tasek gora egiten dute 45 urtetik gorako emakumeetan, lanbidekoak ez diren ikasketen kasuan % 4,2tik % 6,6ra igaro baitira, eta LH II-ri dagokionez, % 5,8tik % 11,1era. LH II-ko ikasketak dituzten 45 urtetik gorako emakumeen posizio diferentzialik okerreina da, emakume horiek bakarrik gainditzten baitute 2007an % 10eko maila; horregatik, esan daiteke gertakari hori 2003-2007 aldiko lan egiten ez dutenen kopurua nabarmen hazi izanarekin lotuta dagoela neurri handi batean.

Nahiz eta jaitsiera hain handia ez izan, lan egiten ez dutenen mailek ere behera egiten dute bigarren mailako ikasketak dituzten gizonen artean. Tasa 1999ko % 11,2tik 2003ko % 8,5era eta 2007ko % 4,8ra murrizten da; zenbateko hori emakumeek izandako % 8,3 baino askoz ere txikiagoa da. 2003.-2007. urteetan, % 5,8tik % 2,7ra jaisten da LH II-ko tituludunei dagokienez, eta bereziki 35 urtetik beherakoek (tasa % 8,3tik % 3,6ra jaitsi da) eta 45 urtetik gorakoek (tasa % 3,8tik % 1,6ra jaitsi da) baliatu zuten. Lanbidekoak ez diren bigarren mailako tituludunei dagokienez, % 13,1etik % 8,6ra jaisten da. Kasu horretan, 35 urtetik beherakoek soilik baliatzen

dute jaitsiera hori, baina asko baliatzen dute; izan ere, lan egiten ez dutenen tasa % 22,1etik % 8,5era jaitsi da. 35 urtetik gorakoetan, ordea, gora egin dute lan egiten ez dutenen tasek, bereziki 35-44 urteko gizonen dagokienez, eta lan egiten ez dutenen intzidentzia % 8tik % 14,2ra igarotzen da. Talde horren lan egiten ez dutenen maila 2007an nabarmen aldentzen da bigarren mailako ikasketak dituzten gainerako kolektiboetatik.

Azken urteotan emakumearen lan egiten ez dutenen tasaren bilakaera hobea denez gero, gizonezkoen tasetara nabarmen hurbiltzea ahalbidetzen du. Emakumeen posizioa, gainera, askoz hobea da lanbidekoak ez diren bigarren mailako ikasketak dituzten tituludunen artean (lan egiten ez dutenen % 7,7; gizonen kasuan, aldiz, % 8,6), errealitate hori 35-44 urteko gizonen egoerak okerrera egin izanarekin dago lotuta neurri handi batean (lan egiten ez duten gizonen % 14,2; emakumeen kasuan, aldiz, % 6,5). Nolanahi ere, aldea oso handia da oraindik ere LH II-ren kasuan, lan egiten ez duten gizonen tasak % 2,7 baitira; kopuru horiek nabarmen urruntzen dira emakumeen % 8,7tik. Emakumeei dagokienez, lan egiten ez dutenen tasak adin guztietan bi aldiz baino handiagoak diren arren, aldeak 45 urtetik gorakoetan lortzen du mailarik handiena: lan egiten ez duten emakumeen kasuan, % 11,1; gizonen kasuan, aldiz, % 1,6.

Dena dela, daturik deigarriena espezializazioaren aldeko eragina haustea izan da, haustura hori, gainera, 2003ra bitarte 45 urtetik beherako emakumeetan ikusten zen lanbide-heziketarekin dago lotuta. Lanbidekoak ez diren bigarren mailako ikasketei dagokienez, 2007a lan egiten ez dutenen tasak handiagoak dira LH II-n 45 urtetik gorakoetan emakumeetan ez ezik (2003ra bitarte gertatzen zen bezala) 35-44 emakumeetan ere. Horretaz gain, gizonen artean ikusten zenarekin erabat kontrajarririk (lan egiten ez dutenen tasak txikiak dira oraindik ere LH II-n), tasek orekatzeko joera dute 35 urtetik beherako emakumeetan ere (% 8,9 LH II-n, lanbidekoak ez diren bigarren mailako ikasketetan, aldiz, % 9,4).

Testuinguru horretan azpimarratu behar den beste datu bat honako hau da: 2007an, LH II-ko ikasketak dituzten emakumeen lan egiten ez dutenen tasak EAEko batez besteko mailak gainditzen ditu adin guztietan, batik bat 45 urtetik gorako emakumeetan (% 11,1, 45 urtetik gorakoetan, aldiz, % 5,8). LH II-n gizonen lan egiten ez dutenen tasak, ordea, EAEko erreferentziazko neurrietatik behera daude.

#### 2.5 a taula

Lan egiten ez dutenen tasak bigarren mailako ikasketak dituzten aktiboetan, sexuaren, adinaren eta prestakuntza-mailaren arabera. 2007 (%-etan)

Sexua eta adina	Lanbidekoak ez diren bigarren mailako	LH II	Bigarren mailako ikasketak	Guztira

	ikasketak			
Gizonak < 35	8,5	3,6	5,4	7,8
Gizonak 35-44	14,2	2,6	6,2	4,9
Gizonak >= 45	5,0	1,6	3,0	2,7
Gizonak	8,6	2,7	4,8	5,1
Emakumeak < 35	9,4	8,9	9,1	8,4
Emakumeak 35-44	6,5	7,1	6,9	6,9
Emakumeak >= 45	6,6	11,1	8,6	5,8
Emakumeak	7,7	8,7	8,3	7,1
GUZTIRA	8,2	4,9	6,2	5,9

2.5 b taula

Lan egiten ez dutenen tasak bigarren mailako ikasketak dituzten aktiboetan, sexuaren, adinaren eta prestakuntza-mailaren arabera. 2003  
(%-etan)

Sexua eta adina	Lanbidekoak ez diren bigarren mailako ikasketak		Bigarren mailako ikasketak	
	ikasketak	LH II	ikasketak	Guztira
Gizonak < 35	22,1	8,3	13,0	12,3
Gizonak 35-44	8,0	3,0	4,7	4,2
Gizonak >= 45	4,1	3,8	3,9	2,9
Gizonak	13,1	5,8	8,5	6,8
Emakumeak < 35	27,7	11,2	18,7	17,8
Emakumeak 35-44	10,1	9,6	9,8	10,5
Emakumeak >= 45	4,2	5,8	4,9	7,8
Emakumeak	18,0	9,9	13,7	12,8
GUZTIRA	15,3	7,2	10,5	9,3

2.5 c taula

Lan egiten ez dutenen tasak bigarren mailako ikasketak dituzten aktiboetan, sexuaren, adinaren eta prestakuntza-mailaren arabera. 1999  
(%-etan)

Sexua eta adina	Lanbidekoak ez diren bigarren mailako ikasketak		Bigarren mailako ikasketak	
	ikasketak	LH II	ikasketak	Guztira
Gizonak < 35	32,6	9,7	17,8	18,5
Gizonak 35-44	4,7	5,5	5,1	5,9
Gizonak >= 45	2,7	4,3	3,5	4,5
Gizonak	15,8	7,7	11,2	10,7
Emakumeak < 35	45,7	22,0	31,1	29,7
Emakumeak 35-44	24,6	22,7	23,5	23,5
Emakumeak >= 45	11,8	12,6	12,0	17,7
Emakumeak	32,8	21,4	26,5	25,4
GUZTIRA	22,3	12,7	16,9	16,8

Arestian aipatutako bilakaera alde batera utzita, adierazi behar dugu lan egiten ez dutenen eragina oso desberdina dela sexuaren, adinaren eta prestakuntzaren arabera bigarren mailako

ikasketak dituen biztanleriaren artean. Biztanleria potentzialki aktibo osoa erreferentziazat hartuta, egiaztatzen dugu zenbatekoak, orokorrean, txikiak direla, % 5etik hurbil edo hortik behera daude, LH II-ko ikasketak amaituta dituzten gizonen artean. Lanbidekoak diren bigarren mailako ikasketak dituzten 45 urtetik gorako gizonen eta prestakuntza-maila hori duten 35 urtetik gorako emakumeen dagokienez, zenbateko hori zertxobait handiagoa da: % 6,1etik % 7,7ra bitartekoa.

Zenbatekoek, ordea, % 10eko mailak gainditzen dituzte LH II-ko emakume tituludunen kasuan, edozein izanik ere emakume horien adina. Gauza bera gertatzen da lanbidekoak ez diren bigarren mailako ikasketen dagokienez, 35 urtetik beherakoetan, generoa kontuan izan gabe, baita 35-44 urteko gizonen ere. Gehieneko tasa (% 23,8) lanbideak ez diren bigarren mailako ikasketak dituzten 35 urtetik beherako emakumeen dagokie.



## 2.5 d taula

### Lan egiten ez dutenen tasak

Bigarren mailako ikasketak dituen biztanleria potentzialki aktiboa (aktiboa eta aktibo potentziala), sexuaren, adinaren eta prestakuntza-mailaren arabera. 2007 (%-etan)

Sexua eta adina	Lanbidekoak ez diren bigarren mailako ikasketak		Bigarren mailako ikasketak	Guztira
	LH II			
Gizonak < 35	15,5	5,3	9,1	9,8
Gizonak 35-44	14,2	2,6	6,2	5,1
Gizonak >= 45	6,1	2,9	4,2	3,8
Gizonak	11,9	3,8	6,7	6,2
Emakumeak < 35	23,8	13,9	17,9	12,2
Emakumeak 35-44	6,5	10,5	9,1	11,2
Emakumeak >= 45	7,7	17,2	12,1	10,8
Emakumeak	14,4	13,4	13,9	11,4
<b>GUZTIRA</b>	<b>13,0</b>	<b>7,4</b>	<b>9,5</b>	<b>8,5</b>

Lan egiten ez dutenen intzidentzia askotarikoa da LH II-ko titulazioen arabera. Esate baterako, industriako adarretan lan egiten ez dutenen tasak oso txikiak dira: % 3tik beherako mailak daude Metalaren, Elektrizitatearen, Delineazioaren eta Automozioaren adarretan; nolahi ere, Metalean % 4,4raino igotzen dira aktibo potentzialak ere sartzean. Bestalde, ez dago langabeziarik Lanbide Maisutzetan edo Merkataritzako Ingeniaritza Teknikoan.

Gainerako adarretan, 1999tik aurrera ikusten diren hobekuntza ia orokorrak gertatu dira Ileapainketa-Estetikaren adarrean langabezia desagertu egin delako eta Osasungintzaren adarrean edo zerbitzuei lotutako LH II-ko gainerako adarretan % 5etik beherako mailak lortu direlako.

Aurrekoa alde batera utzi gabe, azpian dauden bi arazo aipatu behar dira. Alde batetik, biztanleria potentzialki aktibo osoa kontuan hartzen bada, lan egiten ez dutenen tasa % 11,7raino igotzen da Osasungintzako LH II-ri dagokionez. Beste alde batetik, Administrazioako LH II-ri lotutako arazoak bere horretan jarraitzen du, orokorrean. Lan egiten ez dutenen tasak –1999-2003 aldian % 17tik % 10,7ra jaitsi zen– gora egin du 2007an, % 15,2 izatera iritsi baita. Biztanleria potentzialki aktibo osoa kontuan hartzen badugu, lan egiten ez dutenen tasa % 20,7raino igotzen da, tasa hori

2003an izandako % 14,8tik gora dago. Hortaz, esan daiteke LH II-ren arazoa, 2007an, Osasungintzaren eta Administraritzaren errealitatearekin lotzen dela, funtsean.

2.6 taula.

Lan egiten ez dutenen tasak LH II-ko ikasketak dituztenenetan, LH II motaren arabera.

Biztanleria potentzialki aktiboa  
(%-etan)

LH II mota	2003	2007	2007 (Pot. aktiboa)
Lanbide-maisutza	4,1	0,0	0,0
Merkataritzako ingeniari- teknikoa	12,6	0,0	0,0
LH II, Administrarritza	10,7	15,2	20,7
LH II, Metala	7,4	0,8	4,4
LH II, Elektrizitatea	3,1	2,3	2,3
LH II, Delineazioa	1,1	0,6	0,6
LH II, Automozioa	1,9	0,0	0,0
LH II, Osasungintza	12,4	4,9	11,7
LH II, Ileapainketa-Estetika	14,6	0,0	0,0
Beste LH II eta pareko batzuk	8,7	3,1	5,0
Lanbide artistikoak	0,0	0,0	0,0
<b>LH II, GUZTIRA</b>	<b>7,2</b>	<b>4,9</b>	<b>7,4</b>

### 1.3.- Hirugarren mailako ikasketak dituen biztanleria aktiboa

Hirugarren mailako ikasketak dituen biztanleria aktiboari dagokionez, 2003ko datuek nolabaiteko gainbehera zegoela erakusten zuten. 1995-1999 aldian ikusitakoa ez bezala, urte horretan lan egiten ez dutenen tasa EAeko batez bestekotik gorakoa zela ikusi zen (9,7, EAEn, aldiz % 9,3). Egoerak hobera egiten du, ordea, 2007an, hirugarren mailako ikasketak dituen biztanleria aktiboaren tasa EAeko batez besteko mailetan kokatzen baita (% 5,8, EAEn, aldiz % 5,9).

Unibertsitateko titulua duen biztanleriaren barne-egoera oso desberdina zen, ordea. Bereziki azpimarratzekoa da goi-mailako ikasketak dituzten unibertsitarioen lan egiten ez dutenen tasa handia dela oraindik. Aldi horretan talde horretako lan egiten ez dutenen tasa nabarmen hobetu bada ere (1999an % 15,5 zen eta 2003an % 11,1), 2007an EAeko batez bestekoa baino askoz handiagoa da: % 8. Aldiz, erdi-mailako ikasketak dituztenen langabezia-tasa askoz ere txikiagoa da: % 2. Oso nabarmena da unibertsitateko tituludun talde horren egoerak izandako hobekuntza; izan ere, tasa 2003ko % 7,3tik eta 1999ko % 11,6tik jaitsi egiten da.

Nolanahi ere, adierazi behar da aipatutako datuak zehaztu egin behar direla, enplegurako joera eta prestasuna askoz handiagoa delako hirugarren mailako ikasketak dituzten

unibertsitarioen kasuan. Biztanle potentzialki aktibo guztiak kontuan hartzen baditugu, ikusiko dugu hirugarren mailako ikasketak dituzten tituludunen lan egiten ez dutenen tasa EAeko batez bestekoa baino txikiagoa dela (% 6,5 eta % 8,5, hurrenez hurren). Nolanahi ere, aurreko urteei dagokienez, ikusten da aztertutako kolektiboaren zati baten posizioak zertxobait okerrera egin duela. Izan ere, goi-mailako tituludunen lan egiten ez dutenen tasa EAeko batez bestekoaren gainetik dago lehenengo aldiz (% 9,2). Erdi-mailako tituludunen tasari, ordea, zentzu hertsian biztanleria aktiboaren kasuan aipatutako % 2an eusten zaio.

Sexuaren eta adinaren araberako datuek erakusten dute hirugarren mailako ikasketak dituen biztanleria aktiboak izandako azken bilakaera konplexua dela. Alde batetik, 2003-2007 laurtekoan ikusten da 35 urtetik beherako lan egiten ez dutenen tasek bilakaera ona izan dutela orokorrean. Gizonen kasuan, tasa % 17,3tik % 10,5era jaisten da, eta emakumeen kasuan % 17,1etik % 7ra. Erdi-mailako ikasketek dute bilakaerarik hoberena; izan ere, tasa % 20,5etik % 0,2ra jaisten da gizonen kasuan, eta % 13,4tik % 2,8ra emakumeen kasuan, eta lan egiten ez dutenen eragina ia desagertu egin da. Jaitsiera ez da hain deigarria, baina oraindik ere nabarmena da goi-mailako ikasketak dituzten emakumeen artean, tasa % 18,9 izatetik % 10,1 izatera igarotzen baita. Lan egiten ez dutenen intzidentzia, ordea, egonkortu egiten da gizonen artean, % 16 izatetik % 15,6 izatera igarotzen baita. Azken bilakaera horretan sexuen arabera dagoen alde horrek azaltzen du, hain zuzen ere, unibertsitateko titulazioa duten 35 urtetik beherako emakumeek izandako lan egiten ez dutenen tasaren jaitsiera handiagoa izatea azken lau urteotan. 2007. urtean, lan egiten ez duten emakumeen tasa lan egiten ez duten gizonen tasa baino askoz ere txikiagoa da (emakumeen kasuan, % 7, gizonen kasuan, aldiz, % 10,5).

Bereziki deigarria da 35 urtetik beherako eta hirugarren mailako goi-mailako titulazioa duten gizon aktiboen lan egiten ez dutenen mailen jaitsierarekiko erresistentzia. Talde horren lan egiten ez dutenen maila (% 15,6) gutxi urruntzen da 2003ko % 16tik eta 1999ko % 18,4tik. Errealitate horrek azaltzen du azken zortzi urteotan lan egiten ez dutenei dagokienez, 35 urtetik beherako unibertsitateko tituludunen tasan izandako eraginean aldaketa handia izan dela. Horrela bada, hirugarren mailako ikasketak dituzten 35 urtetik beherako emakumeen lan egiten ez dutenen tasak gizonek 1999an zituzten tasak baino askoz ere handiagoak izatetik (% 25,6 eta gizonek, aldiz, % 16,4) oreka-egoerara igarotzen dira 2003an (emakumeak % 17,1, gizonak, aldiz % 17,3) eta, azkenik, langabezia-tasa askoz ere txikiagoa da 2007an.

Azken bilakaera ere ona da beste adin-talde batzuetan hirugarren mailako erdi-mailako ikasketei dagokienez, lan egiten ez dutenen tasaren kopuruak, orokorrean, 2007ko % 1,5en parekoak edo hortik beherakoak baitira. Salbuespen esanguratsu bakarra 35-44 urteko emakumeei dagokie. 1999.-2003. urteetan % 12tik % 1,8ra jaitsi ondoren, tasak gorantz egiten du 2007an, % 5,5 inguru izanik.

Hirugarren mailako goi-mailako ikasketekin lotutako arazoa –35 urtetik beherako gizonei dagokienez ikusten zena– hedatu egiten da 35 urtetik gorako kolektibo guztietara. 35-44 urteko emakumeen kasuan izan ezik, gainerako kasuetan lan egiten ez dutenen kopuruak hazi egiten dira 2003.-2007. urteetan. Benetan deigarria den igoera bakarra, ordea, 45 urtetik gorako emakumei dagokie, kasu horretan lan egiten ez dutenak % 1,3tik % 7,8ra igoen baita, 1999ko % 6,2a baino zenbateko handiagoa.

Emakumeen adierazleek bilakaera hobea izatearen ondorioz, sexua kontuan hartzen badugu, datuek gaur egun erakusten dute nabarmen hurbildu direla; izan ere, unibertsitateko emakumeen lan egiten ez dutenen tasa % 6,1 da eta gizonena, aldiz, % 5,4. Aldea txikia da hirugarren mailako goi-mailako ikasketen kasuan, zenbatekoak honako hauek baitira: % 8,4 eta % 7,7, hurrenez hurren. Zenbateko orokorrek, ordea, honako hau ezkututzen dute: 35 urtetik beherako gizonen lan egiten ez dutenen eragin diferentziala (% 15,6, emakumeen kasuan, aldiz, % 10,1) eta emakumeen arazoaren areagotzea 45 urtetik gorakoetan (lan egiten ez duten emakumeen kasuan, % 7,8; gizonen kasuan, aldiz, % 2,7). Beraz, argiagoa da hirugarren mailako erdi-mailako ikasketei dagokienez ikusten den berdintasunerako joera, bereziki lan egiten ez dutenen tasen maila txikiak kontuan hartzen badira: % 0,8 gizonen kasuan, eta % 2,9 emakumeen kasuan. Ikasketa mota horretan, sexuaren arabera aldea 35-44 urtekoetan soilik da deigarria (% 1,5 gizonen kasuan, eta % 5,5 emakumeen kasuan), betiere lan egiten ez dutenen mailak % 5etik hurbilekoak edo hortik beherakoak izanik.

#### 2.7.a taula

Lan egiten ez dutenen tasak hirugarren mailako ikasketak dituzten aktiboetan, sexuaren, adinaren eta prestakuntza-mailaren arabera. 2007  
(%-etan)

Sexua eta adina	Hirugarren mailako erdi-mailakoak	Hirugarren mailako goi-mailakoak	Hirugarren mailako ikasketak	Guztira
Gizonak < 35	0,2	15,6	10,5	7,8
Gizonak 35-44	1,5	4,1	3,1	4,9
Gizonak >= 45	0,7	2,7	2,1	2,7
Gizonak	0,8	7,7	5,4	5,1
Emakumeak < 35	2,8	10,1	7,0	8,4
Emakumeak 35-44	5,5	6,6	6,2	6,9
Emakumeak >= 45	0,6	7,8	4,2	5,8
Emakumeak	2,9	8,4	6,1	7,1
<b>GUZTIRA</b>	<b>2,0</b>	<b>8,0</b>	<b>5,8</b>	<b>5,9</b>

2.7 b taula

Lan egiten ez dutenen tasak hirugarren mailako ikasketak dituzten aktiboetan, sexuaren, adinaren eta prestakuntza-mailaren arabera. 2003

(%-etan)

Sexua eta adina	Hirugarren mailako erdi-mailakoak	Hirugarren mailako goi-mailakoak	Hirugarren mailako ikasketak	Guztira
Gizonak < 35	20,5	16,0	17,3	12,3
Gizonak 35-44	0,0	3,7	2,5	4,2
Gizonak >= 45	0,0	1,7	1,2	2,9
Gizonak	7,7	8,1	8,0	6,8
Emakumeak < 35	13,4	18,9	17,1	17,8
Emakumeak 35-44	1,8	8,2	5,2	10,5
Emakumeak >= 45	4,0	1,3	2,9	7,8
Emakumeak	7,0	13,9	11,1	12,8
GUZTIRA	7,3	11,1	9,7	9,3

2.7 c taula

Lan egiten ez dutenen tasak hirugarren mailako ikasketak dituzten aktiboetan, sexuaren, adinaren eta prestakuntza-mailaren arabera. 1999

(%-etan)

Sexua eta adina	Hirugarren mailako erdi-mailakoak	Hirugarren mailako goi-mailakoak	Hirugarren mailako ikasketak	Guztira
Gizonak < 35	11,1	18,4	16,4	18,5
Gizonak 35-44	3,6	2,2	2,6	5,9
Gizonak >= 45	1,4	3,5	2,8	4,5
Gizonak	5,7	9,5	8,3	10,7
Emakumeak < 35	20,2	29,8	25,6	29,7
Emakumeak 35-44	12,0	11,5	11,7	23,5
Emakumeak >= 45	4,1	6,2	4,8	17,7
Emakumeak	14,8	22,7	18,8	25,4
GUZTIRA	11,6	15,5	14,0	16,8

Biztanleria potentzialki aktibo osoa kontuan hartzen badugu, ordea, ikusiko dugu gizonen eta emakumeen arteko aldea biztanleria aktiboari dagozkion zenbatekoak baino zertxobait handiagoa dela, lan egiten ez duten emakumeak % 7,1 baitira, eta lan egiten ez duten gizonak, aldiz, % 5,8. Datuek, bereziki, erakusten dute oraindik ere esanguratsua den aldea dagoela 35 urtetik gorakoei dagokienez, bai erdi-mailako tituludunen kasuan, bai goi-mailako tituludunen kasuan. Hortaz, gizonen kasuan, normalean, tasak % 4tik beherakoak diren arren, lan egiten ez dutenen tasak % 5,5etik %11ra bitartekoak dira emakumeen kasuan, salbuespen bakarra hirugarren mailako erdi-mailako ikasketak dituzten 45 urtetik gorako emakume tituludunak izanik. Hala eta guztiz ere, emakumeen kalterako aldeak benetan esanguratsuak dira hirugarren mailako goi-mailako ikasketak dituzten 35 urtetik gorakoen kasuan. Izan ere, potentzialki aktiboa den emakume biztanleriaren kasuan, lan egiten ez dutenen tasa gizonena baino bi aldiz handiagoa da oraindik.

Azpimarratu behar den beste datu bat da lan egiten ez dutenei dagokienez, hirugarren mailako goi-mailako ikasketak dituztenen intzidentzia erlatiboa EAEko batez besteko orokorrarekin alderatzen badugu, ikusiko dugula intzidentzia hori adinaren egiturak baldintzatzen duela; adin hori askoz ere txikiagoa da erreferentziazko tituludunen artean biztanleria osoan baino. Datuak biztanleria potentzialki aktibo osoaren sexu- eta adin-taldeen arabera aztertzen baditugu, ikusiko dugu hirugarren mailako goi-mailako tituludunen kokapena, lan egiten ez dutenei dagokienez, EAEko batez besteko mailekin alderatuta, normalean ona dela. Salbuespen bakarra 35 urtetik beherako gizonak dira. 2007an, lan egiten ez dutenei dagokienez, arestian aipatu ditugun tasa

(% 16,4) gizonen (potentzialki aktiboa eta 35 urtetik beherakoa) kasuan ikusten den % 9,8a baino askoz handiagoa da.

Nolanahi ere, kolektibo hori ez da lan egiten ez dutenei dagokienez, hirugarren mailako goi-mailako tituludunen artean % 10etik gorako tasek eragiten dioten bakarra. Arazo hori, halaber, potentzialki aktiboak diren 45 urtetik beherako emakumeen ezaugarria ere bada, tasa % 7,8 baita 45 urtetik gorako emakumeetan. Ikasketa mota hori duten 35 urtetik gorako gizonen artean, baita, orokorrean, unibertsitateko erdi-mailako ikasketak dituzten sexu- eta adin-taldeetan ere, tasak % 5etik behera daude ia beti, muga hori 35-44 urteko erdi-mailako ikasketak dituzten emakumeek soilik gainditzen dute zertxobait (% 5,5).

#### 2.7 d taula

##### Lan egiten ez dutenen tasak

Hirugarren mailako ikasketak dituen biztanleria potentzialki aktiboa (aktiboa eta aktibo potentziala), sexuaren, adinaren eta prestakuntza-mailaren arabera. 2007 (%-etan)

Sexua eta adina	Hirugarren mailako erdi-mailakoak	Hirugarren mailako goi-mailakoak	Hirugarren mailako ikasketak	Guztira
Gizonak < 35	0,2	16,4	11,1	9,8
Gizonak 35-44	1,5	4,1	3,1	5,1
Gizonak >= 45	0,7	3,6	2,7	3,8
Gizonak	0,8	8,2	5,8	6,2
Emakumeak < 35	2,8	10,4	7,2	12,2
Emakumeak 35-44	5,5	10,9	9,1	11,2
Emakumeak >= 45	0,6	7,8	4,2	10,8
Emakumeak	2,9	10,1	7,1	11,4
<b>GUZTIRA</b>	2,0	9,2	6,5	8,5

Hirugarren mailako erdi-mailako titulazioak kontuan hartuta, egiaztatzen da lan egiten ez dutenen tasak EAEko batez besteko orokorra baino txikiagoak direla beti. Azken urteotan tasek izandako jaitsiera handia erdi-mailako ikasketa mota guztiei eragiten dien errealitatea da, jaitsieraren garrantzia bereziki 2003-2007 laurtekoan nabarmena da erdi-mailako ingeniariaren eremuan eta erdi-mailako gainerako ikasketetan. Ingeniaritza tekniko industrialean eta erdi-mailako beste ikasketa batzuetan, 2003an, % 10etik gorako mailak gainditzen zituzten zenbatekoei kontrajarririk, lan egiten ez dutenen mailarik handiena ozta-ozta iristen da % 2,9ra 2007an erdi-mailako beste ikasketa batzuetan.



2.8 taula.

Lan egiten ez dutenen tasak hirugarren mailako erdi-mailako ikasketak dituztenetan, ikasketa motaren arabera.

Biztanleria aktiboa

(%-etan)

Erdi-mailako ikasketa mota	2003	2007	2007 (Pot. aktiboa)
Industriako Ingeniaritza Teknikoa	12,8	2,4	2,4
Beste ingeniari tekniko batzuk	6,8	0,0	0,0
OHOko irakasleak	2,2	2,8	2,8
Osasungintzako lanbideak	2,3	0,4	0,4
Erdi-mailako beste ikasketa batzuk	12,2	2,9	2,9
Erdi-mailako ikasketa espezializatuak	0,0	0,0	0,0
Hirugarren mailako erdi-mailakoak, guztira	7,3	2,0	2,0

Goi-mailako tituludunen artean, ordea, nabarmentzekoa da ikasketa mota batzuetan lan egiten ez dutenen tasak handi samarrak izatea. Ildo horretatik, zenbatekoak % 6tik % 8ra bitartekoak dira ingeniarietza mota guztietan eta Informatikaren, Natur Zientzien eta Zientzia Zehatzen adarretan. Lan egiten ez dutenen maila % 2,8tik % 5,8ra igotzen da ingeniarietza ez-industrialetan 2003.-2007. urteetan.

Nolanahi ere, arazoa areagotu egiten da; izan ere, biztanleria potentzialki aktibo osoa kontuan hartzen badugu, lan egiten ez dutenen kopuruak % 10etik gorakoak dira Filosofia eta Letretan (% 11,2), Ekonomia Zientzietan (% 10,6) eta goi-mailako beste ikasketa batzuetan (% 14,5). Filosofia eta Letretan izan ezik, 2003-2007 aldiko joera, gainera, negatiboa da ikasketa-adar horietan.

Aintzat hartutako adarren egoerarekin kontrajarririk, Medikuntza langabezia erabat desagertu egin da, errealitate hori 2003an ere ikusi genuen. Egoera positibo hori, gainera, 2007an goi-mailako ikasketa espezializatu guztietara hedatzen da. Zuzenbidearen adarrean azken bilakaera oso positiboa bada ere, lan egiten ez dutenen tasa % 9tik % 2,9ra jaitsi da 2003.-2007. urteetan, arazoaren eragina zertxobait handiagoa da biztanleria potentzialki aktiboa kontuan hartzen bada, % 5,3ko tasa baitu.

#### 2.9 taula.

Lan egiten ez dutenen tasak hirugarren mailako goi-mailako ikasketak dituztenetan, ikasketa motaren arabera  
Biztanleria aktiboa  
(%-etan)

Goi-mailako ikasketa mota	2003	2007	2007 (Pot. aktiboa)
Industriako Ingeniaritza	12,9	6,4	8,0
Bestelako Ingeniaritzak	2,8	5,8	5,8
Informatika, Natur Zientziak eta Zientzia Zehatzak	12,2	8,2	8,2
Filosofia eta Letrak	16,8	9,9	11,2
Ekonomia	9,3	10,6	10,6
Zuzenbidea	9,0	2,9	5,3
Medikuntza eta parekoak	0,0	0,0	0,0
Goi-mailako bestelako ikasketak	11,4	12,0	14,5
Goi-mailako ikasketa espezializatuak	19,6	0,0	0,0
Hirugarren mailako goi-mailakoak, guztira	11,1	8,0	9,2

## **2.- LANERATZEKO ARAZOAK IKASKETAK AMAITZEAN**

Lan egiten ez dutenen tasak aztertuta, laneratze-mailaren ikuspegia izan dezakegu, batez ere egungo egoera pertsonalaren inguruan, lan-merkatuari dagokionez.

Prestakuntza arautuaren aldia amaitzean, lehenengo lana lortzeko biztanleria aktiboak eta potentzialki aktiboak izan duen zailtasun-maila ere kontuan izan behar da. Azterlanaren atal honetan, gai hori izango dugu aztergai, eta bi aldagairen arabera landuko da:

- a) Alde batetik, ikasketak amaitu osteko langabezialdia (gutxienez 6 hilabetekoa) izatearen esperientzia.
- b) Beste alde batetik, lehenengo lana lortzeko egoerak irautea, aurreneko lan-esperientziarik (edozein motatako esperientzia) ez lortzeak dakarren eragina neurtuta.

### **2.1.- Gutxienez 6 hilabeteko langabezia-egoeraren esperientzia**

Biztanleria aktiboa osatzen dutenek ikasketak amaitzean hartutako bideari buruzko informazioa eskaintzen digu BAKIak. Prestakuntza arautuko aldia amaitzean, herritarrek hartutako hainbat bide aztertzea interesgarria bada ere, ikasketak amaitzean gutxienez sei hilabeteko langabezialdia pairatu behar izan zutenak aztertuko dira azterlan honetan.

Horri dagokionez, azpimarratu beharreko datu garrantzitsuena honako hau da: 2007. urtean eutsi egin zaio ikasketak amaitu ostean 6 hilabete baino gehiagoko langabezialdia izan duen biztanleria aktiboaren proportzioaren murrizketari. Ehuneko hori % 8,6 da gaur egun, 2003ko % 10,5etik hurbil dago, baina 1995eko eta 1999ko % 17,5etik % 18ra bitarteko zenbatekoak baino askoz ere txikiagoa da. Bilakaera horrek erakusten du hobekuntza nabarmena dagoela prestakuntza-prozesua mende berriko lehen urteetan bukatzen duten belaunaldiek produkzio-sisteman azkarrago sartzeko duten aukerei dagokionez. Egia esan, ikusten zen 1995etik aurrera joera positiboa zela, bereziki bigarren eta hirugarren mailako ikasketak dituztenen artean. Aitzitik, 1995.-1999. urteetan, zailtasun-mailak gora egin zuen lehen mailako tituludunen artean, eta zirkunstantzia horrek lagundu zuen adierazle orokorrak gora egin zezan laurteko horretan.

Aurreko urteetan ikusitakoarekin erabat kontrajarririk, 2007an egiaztatu da nolabaiteko aldea dagoela arrisku-mailan ikasketa-mailaren arabera. Izan ere, aurreko urteetan orokorrean antzeko samarrak diren zenbatekoei kontrajarririk, 2007an deigarria da ikasketak amaitzean langabezialdi iraunkorra ezagutzeko aukerari buruzko zenbatekoak jaitea prestakuntza-maila hobetzen den neurrian. Proportzioa % 10,1 da lehen mailako edo LH I-eko ikasketen kasuan, eta % 8ra murrizten da bigarren mailako ikasketen kasuan, eta % 7,7ra hirugarren mailako ikasketetan. Aurreko

urteetan bezala, ordea, arrisku-mailarik txikiena lehen mailako ikasketak amaituta dituen biztanleriari dagokio: % 4,2.

2.10.a taula  
Ikasketak amaitzean langabeziaren (6 hilabete edo gehiago) intzidentziaren bilakaera,  
prestakuntza-mailaren arabera  
Biztanleria aktiboa  
(%-etan)

Prestakuntza-maila	1995	1999	2003	2007	Hazkundera % 2003-2007 (Abs.)
Lehen mailako ikasketarik gabe	10,9	10,0	9,8	4,2	-74,7
Lehen mailako ikasketak - LH I	15,3	18,8	10,5	10,1	-11,3
Bigarren mailako ikasketak	20,9	18,5	10,5	8,0	-23,1
Hirugarren mailako ikasketak	21,5	19,0	10,8	7,7	-7,8
<b>GUZTIRA</b>	<b>17,6</b>	<b>18,1</b>	<b>10,5</b>	<b>8,6</b>	<b>-17,5</b>

Oharra: Analfabetoak eta inolako ikasketarik gabekoak ez dira hartu barnean

Gutzizko biztanleria potentzialki aktiboa kontuan hartzerakoan, eskuragarri dauden adierazleek joera berak erakusten dituzte, mailak honako hauek izanik: % 10 lehen mailako edo LH I-eko ikasketen kasuan, baina maila horiek % 8,4ra eta % 7,6ra jaisten dira bigarren eta hirugarren mailako ikasketen kasuan. Gutxienezkoa (% 3,9) lehen mailako ikasketak amaituak dituen biztanleriari dagokio berriz ere. Zenbateko orokorra berdina da biztanleria aktiboan eta potentzialki aktiboan, % 8,6ri eusten baitio. Izan ere, adierazlea soilik % 10,1era iristen da aktibo potentzialen talde txikian, eta, hortaz, ez dio eragiten proportzio orokorraren mailari.

2.10.b taula  
Ikasketak amaitzean langabeziaren (6 hilabete edo gehiago) intzidentzia, prestakuntza-mailaren arabera.  
Biztanleria potentzialki aktiboa  
(%-etan)

Prestakuntza-maila	Aktiboak	Aktibo potentzialak	Biztanleria pot. aktiboa
Lehen mailako ikasketarik gabe	4,2		3,9
Lehen mailako ikasketak - LH I	10,1	7,3	10,0
Bigarren mailako ikasketak	8,0	16,4	8,4

Hirugarren mailako ikasketak	7,7		7,6
<b>GUZTIRA</b>	<b>8,6</b>	<b>10,1</b>	<b>8,6</b>

Oharra: Analfabetoak eta inolako ikasketarik gabekoak ez dira hartu barnean

Espero zitekeen moduan, sexuaren eta adinaren arabera taldeen arteko aldeak garrantzitsuak dira. Hainbat datu azpimarratu behar ditugu: hasteko, gaur egun 45 urte baino gutxiago dituzten belaunaldiei eragiten die, batik bat, lehenengo lana lortzeko arazoak. Ikasketak amaitzean langabezia-egoera luzea bizi dutenen proportzioak % 10eko mailak gainditzen ditu normalean, bai 35-44 urtekoetan, bai 35 urtetik beherako emakumeetan, eta soilik adin-talde horretako gizonen kasuan kokatzen da maila hori EAeko batez besteko mailetatik behera: % 6,9. Izan ere, gizonen kasuan, ikasketak amaitzean langabezia luzea bizi izateko aukerak, lehen mailako ikasketen titulua edo goragoko titulua dutenen kasuan, pertsona gutxiagori eragiten dio 35 urtetik beherakoetan 35-44 urteko taldean baino. Ez da gauza bera gertatzen emakumeen kasuan, kolektibo horretan ikusten baita ikasketak amaitzean langabezia luzea bizi izan dutenen kopuruak gora egiten duela etengabe adina jaisten den neurrian.

Hala eta guztiz ere, arazoaren eragina askoz handiagoa da 2007an emakumeetan, bereziki 35 urtetik beherako biztanlerian: 35 urtetik beherako emakumeen kasuan % 11,8, gizonen kasuan, aldiz, % 6,9; 35-44 urteko emakumeen kasuan, % 11,7, gizonen kasuan, aldiz, % 10,2. 45 urte baino gehiagokoen artean, eraginpekoen proportzioa nabarmen jaitsi da, % 10en azpitik, baina emakumeetan maila handiagoa da (% 7, gizonena % 5,5 izanik). Oro har, emakume aktiboaren kalterako 3 puntuko aldea dago: % 10,2, gizonen biztanleria aktiboaren kasuan, aldiz, % 7,3. Alde hori 1999an zegoenaren antzekoa den arren (% 20, 1999an, % 16,8) 2003koa baino askoz handiagoa da (batean % 11,5, bestean % 9,8). Gaur egun, goi-mailako emakume tituludunekin lotzen da, % 10,4ko langabezia luzea izateko arriskua baitute; gizonen kasuan, ordea, arrisku hori % 4,6 da. Hala eta guztiz ere, adierazlea askoz handiagoa da ikasketarik gabekoetan (% 7,9, gizonen kasuan, aldiz, % 1,9), baita lehen mailako edo LH I-eko ikasketak dituzten (batean % 17, bestean, aldiz, % 10,6) edo bigarren mailako ikasketak (batean % 10,8, bestean, aldiz, % 5,2) dituzten 35 urtetik beherakoetan ere.

Prestakuntza arautuaren mailaren eta ikasketak bukatzean 6 hilabeteko edo gehiagoko langabezialdiaren intzidentziaren arteko lotura anbiguoagoa dela aipatu behar da datuak sexuaren eta adinaren arabera hartzen baditugu kontuan. Hasiere batean, espero zitekeen joera (hau da, ikasketa-maila jaitsi ahala arazoa handitzea) 45 urtetik beherako gizonetan soilik ikusten da zentzu hertsian, betiere lehen mailako ikasketak amaituak dituen biztanleria kontuan hartzen ez bada. 45 urtetik gorako gizonen eta 45 urtetik beherako emakumeen kasuan, eutsi egiten zaio joera nagusiari, baina aldaketa puntual nabarmenak daude (45 urtetik gorako gizonetan, gehieneko adierazlea bigarren mailako ikasketak dituztenetan ikusten da; bestalde, unibertsitateko titulua dutenen adierazlea bigarren mailako emakume tituludunen adierazlea gainditzen du 45 urtetik beherako emakumeen kasuan). Azkenik, 45 urtetik gorako emakumeetan ikusten da, orokorrean, proportzioak behera egiten duela ikasketa-mailak hobera egiten duen neurrian.

#### 2.11.a taula

Ikasketak amaitzean langabeziaren (6 hilabete edo gehiago) intzidentzia, sexuaren, adinaren eta prestakuntza-mailaren arabera.

Biztanleria aktiboa  
(%-etan)

Sexua eta adina	Lehen mailako ikasketarik gabe	Lehen mailako ikasketak - LH I	Bigarren mailako ikasketak	Hirugarren mailako ikasketak	Guztira
Gizonak < 35	6,4	10,6	5,2	4,6	6,9
Gizonak 35-44		13,6	10,0	6,5	10,2
Gizonak >= 45	0,8	6,1	7,1	3,0	5,5
Gizonak	1,9	9,6	7,2	4,6	7,3
Emakumeak < 35		17,0	10,8	10,9	11,8
Emakumeak 35-44	19,6	15,7	9,0	10,3	11,7
Emakumeak >= 45	7,5	5,2	8,0	9,3	7,0
Emakumeak	7,9	11,0	9,5	10,4	10,2
<b>GUZTIRA</b>	<b>4,2</b>	<b>10,1</b>	<b>8,0</b>	<b>7,7</b>	<b>8,6</b>

Oharra: Analfabetoak eta inolako ikasketarik gabekoak ez dira hartu barnean

Biztanleria potentzialki aktiboa kontuan hartzean, prestakuntza-mailaren eta 6 hilabeteko edo hilabete gehiagoko iraupeneko langabeziaren eraginaren arteko loturak erakusten dute joerak orain arte adierazitako joeren antzekoak direla. Lehen mailako ikasketak amaitu ez dituen kolektiboa alde batera utzita, prestakuntza-maila igotzen den neurrian, orokorrean, ikusten da ikasketak amaitzean langabezia luzearen intzidentzia jaitsi egin dela 35 urtetik beherako biztanlerian, sexua kontuan izan gabe, eta, orokorrean, 35 urtetik gorako gizonetan. 35 urtetik gorako emakumeen kasuan, tasak zertxobait gora egiten du lehen mailako ikasketak dituztenetan 35-44 urtekoei dagokienez, eta soilik 45 urtetik gorako emakumeetan ikusten da hasieran laneratzeko zailtasunen igoera dagoela ikasketa-maila hobetzen den neurrian.

Hortaz, esan daiteke, orokorrean, laneratzeko arazoaren eta ikasketa-maila txikiagoaren arteko lotura nabarmen geratzen dela, eta horrekin, laneratzeko zailtasunak dituztenen proportzioa handitu egiten dela, prestakuntza-mailak behera egiten duen heinean. Testuinguru horretan, lanmerkatuaren azken aldiko bilakaera ikusita, badirudi ikasketa-mailari prima diferentziala erantsi zaiola, aktiboen belaunaldi berrietako hirugarren mailako tituludunei bereziki mesede eginez. Aurreko urteetan ikusitakoaren arabera, ikasketa-maila handienekoen laneratzeko azkarraren aldeko plus diferentzial garbi hori 2003-2007 aldian finkatzen hasten den gauza berria da, nahiz eta 1990-2003 laurtekoan atzematen hasi zen.





2.11. b taula

Ikasketak amaitzean langabeziaren (6 hilabete edo gehiago) intzidentzia, sexuaren, adinaren eta prestakuntza-mailaren arabera.

Biztanleria potentzialki aktiboa

(%-etan)

Sexua eta adina	Lehen mailako ikasketarik gabe	Lehen mailako ikasketak - LH I	Bigarren mailako ikasketak	Hirugarren mailako ikasketak	Guztira
Gizonak < 35	5,6	10,6	5,8	4,5	7,1
Gizonak 35-44		13,6	10,0	6,5	10,2
Gizonak >= 45	0,8	6,1	7,8	3,0	5,7
Gizonak	1,8	9,5	7,6	4,6	7,4
Emakumeak < 35		16,5	11,0	10,8	11,7
Emakumeak 35-44	19,2	15,4	8,7	10,0	11,5
Emakumeak >= 45	6,8	5,4	7,7	9,3	7,0
Emakumeak	7,4	10,8	9,5	10,2	10,1
<b>GUZTIRA</b>	<b>3,9</b>	<b>10,0</b>	<b>8,4</b>	<b>7,6</b>	<b>8,6</b>

Oharra: Analfabetoak eta inolako ikasketarik gabekoak ez dira hartu barnean

Sexuaren eta adinaren aldagaien arabera epe luzera izan den bilakaera kontuan izanda, argi ikusten da honako hau: lehenengo lana lortzeko 6 hilabete baino gehiago itxaron behar izan dutenen proportzioa nabarmen murriztu da 35 urtetik beherakoan artean azken urte hauetan, eta bereziki 1999-2003 laurtekoan. 1995ean % 27,5 zen proportzioa, 1999an % 22,5, 2003an % 11,1, eta 2007an % 6,9 gizonen kasuan. Jaitsieraren erritmoa, hasiera batean, antzekoa da emakumeen artean, 1995ean % 29,9 izatetik 1999an % 23,4 eta 2003an % 13,2 izatera igaro baitzen. 2003-2007 aldian, ordea, zenbatekoak egonkortzeko joera dago, aldi horretan soilik jaitsi baita % 11,8raino.

Gaur egun, 35-44 urte dituztenen belaunaldian ere atzeman da hobekuntza laneratzeari dagokionez, 1999-2007 aldian ikasketak amaitzean 6 hilabeteko edo gehiagoko langabezia pairatutakoaren proportzioa jaitsi egin baita (% 17,5etik % 10,2ra gizonetan, eta % 22,5etik % 11,7ra emakumeetan). Kasu honetan, ordea, ikusitako aldeko bilakaerak 1995eko mailen antzeko mailetan kokatzen du kolektiboa (% 9,7 gizonen kasuan eta % 13,4 emakumeen kasuan). Azken zortzi urte hauetan izandako jaitsiera 1995-1999 aldian 35-44 urteko belaunaldietakoek izandako arazoak nabarmen igo izanaren ondoren gertatu da.

45 urte edo gehiagokoen kasuan ere –1995-1999 aldian atzemandako gainbeheraren joera horri eusten zaio, baina 35-44 urteko taldean baino neurri txikiagoan– zenbatekoak nabarmentzen dira jaitsiera txikiagoa delako azken urteotan. Izan ere, 1999-2007 aldian proportzioa % 8,8 izatetik % 5,5 izatera igarotzen da gizonen kasuan eta % 8,4 izatetik % 7 izatera emakumeen kasuan. 35-44 urtekoetan gertatzen zen bezala, bi generoetan 2007ko zenbatekoak 1995eko zenbatekoetatik hurbil daude.

2.12 taula.

Ikasketak amaitzean langabeziaren (6 hilabete edo gehiago) intzidentziaren bilakaera, sexuaren eta adinaren arabera  
Biztanleria aktiboa  
(%-etan)

Sexua eta adina	1995	1999	2003	2007
Gizonak < 35	27,5	22,5	11,1	6,9
Gizonak 35-44	9,7	17,5	11,6	10,2
Gizonak >= 45	3,4	8,8	7,1	5,5
Gizonak	15,2	16,8	9,8	7,3
Emakumeak < 35	29,9	23,4	13,2	11,8
Emakumeak 35-44	13,4	22,5	12,2	11,7
Emakumeak >= 45	7,5	8,4	8,1	7,0
Emakumeak	21,2	20,0	11,5	10,2
GUZTIRA	17,6	18,1	11,1	8,6

Oharra: Analfabetoak eta inolako ikasketarik gabekoak ez dira hartu barnean

2.1.1.- Lehen mailako ikasketak dituen biztanleria aktiboa

Lehen mailako edo LH I-eko ikasketak dituztenen egoera aintzat hartuta, ikasketa motaren arabera, egiaztatzen da lehen mailako ikasketak dituztenei eragiten diela gutxien langabezia luzearen esperientziak: % 9,4, LH I-eko tituludunen kasuan, aldiz, % 10,1 eta % 18,1 bigarren mailako ikasketak amaitu ez zituztenen kasuan. 2003an, aldekoagoa den posizio hori LH I-eko tituludunei zegokien.

LH I-eko ikasketak dituztenen artean ikusitakoarekin alderatzen badugu, egiaztatzen da lehen mailako ikasketak dituztenak lehenago laneratzen direla, bai gizonetan, bai emakumeetan. Joerak desberdinak dira, ordea, sexuaren eta adinaren arabera. Ikasketak amaitzean langabezian emandako denbora luzearen intzidentzia handiagoa da LH I-en 45 urtetik gorakoetan eta 35 urtetik beherako emakumeetan; lanbide-arloko ikasketa mota horren garapenak bermatu zuen berehalako laneratzea handiagoa izatea, langabezia luzerik izan gabe, 35-44 urteko emakumeen eta 45 urtetik beherako gizonen kasuan.

Laneratzeke zailtasunek (hasiera baten langabezia sei hilabetetik gorakoa zen) lehen mailako edo LH I-eko ikasketak dituzten 45 urtetik beherakoen % 10i baino gehiagori eragiten diote. Proporzioa, orokorrean, maila horretatik hurbil dago gizonen kasuan, nahiz eta dagoeneko % 13,7ra iritsi den lehen mailako ikasketak dituzten 35-44 urteko gizonen kasuan. Emakumeei dagokienez, proporzioa % 15era hurbiltzen da edo hortik gora dago, 35-44 urteko LH I-eko tituludunen kasuan izan ezik, talde horretakoak % 2 baino ez baitira. 45 urtetik gorakoen kasuan,

eragina LH I-eko tituludunen edo lehen mailako ikasketak amaituta dituztenen % 4,5etik % 8,5era bitartekoa da.

Baina laneratzeko zailtasun handienak bigarren mailako ikasketak amaituta ez dituzten emakumeek izan dituzte. Kasu horretan, ikasketak amaitzean sei hilabetetik gorako langabeziaren intzidentzia 35 urtetik beherako emakumeen % 31,8ri eta 35-44 urteko emakumeen % 56,2ri dagokio. Ikasketa-maila hori duten 35-44 urteko gizonen % 20,3k ere badu arazo hori, LH I-en eta lehen mailako ikasketak dituzten tituludunen artean normalean ikusi denaren gainetik, hortaz.

### 2.13 taula

Lehen mailako edo LH I-eko ikasketak dituztenetan, ikasketak amaitzean langabeziaren (6 hilabete edo gehiago) intzidentzia, sexuaren, adinaren eta prestakuntza-mailaren arabera Biztanleria aktiboa (%-etan)

Sexua eta adina	Lehen mailako ikasketak	Bigarren mailakoak		LH I	Lehen mailako ikasketak - LH I	Guztira
		amaitu gabe				
Gizonak < 35	11,3	8,4		10,0	10,6	6,9
Gizonak 35-44	13,7	20,3		11,0	13,6	10,2
Gizonak >= 45	6,2			7,8	6,1	5,5
Gizonak	9,4	10,5		9,8	9,6	7,3
Emakumeak < 35	14,1	31,8		17,6	17,0	11,8
Emakumeak 35-44	17,0	56,2		2,0	15,7	11,7
Emakumeak >= 45	4,5			8,5	5,2	7,0
Emakumeak	9,4	41,8		10,5	11,0	10,2
<b>GUZTIRA</b>	9,4	18,1		10,1	10,1	8,6

LH I-eko adarrak kontuan hartuta, ikusten da ikasketak amaitzean laneratzeko arazo handienak honako adar hauek dituztela: Osasungintzak (taldeko aktiboen % 22,8), Metalak (% 16,5), Elektrizitateak (% 11) eta Ileapainketa-Estetikak (% 10,7). Proporzioa % 8,9ra jaisten da Automozioan eta % 6tik hurbileko zenbatekoetara Administraritzaren eta LH I-eko beste ikasketa batzuetako adarretan. Delineazioaren adarrean, ordea, ez dago arazo horren eraginik.

Hainbat prestakuntza motatan azken joerak aldekoak badira ere, (esaterako, LH I-en laneratze azkarreko potentzialaren epe luzerako hobekuntzari eutsi egiten zaio honako adar hauetan: Administraritzan, Elektrizitatean edo Delineazioan) beste zenbait kasutan ikusten da adierazleek joera negatiboa izan dutela 2003.-2007. urteetan. Hori gertatzen baita, hain zuzen ere, Metalaren, Automozioaren, Osasungintzaren eta Ileapainketa-Estetikaren adarretan. Kasu horietan deigarria da LH I-ek agerian jartzen duen produkzio-sisteman azkar laneratzeko potentzialaren

galera. Adar horiek 2003-2007 aldian LH I-ek laneratzeko duen ahalmenean ikusitako gainbehera baldintzatzen dute; izan ere ikasketak amaitu eta handik sei hilabetera enplegurik gabe geratutako proportzioa % 8,8 izatetik % 10,1 izatera igaro da; azken zenbateko hori, ordea, 1999ko % 19,7a baino txikiagoa da.

## 2.14 taula

LH I-eko tituludunetan, ikasketak amaitzean langabeziaren (6 hilabete edo gehiago) intzidentzia, LH I motaren arabera.

Biztanleria aktiboa

(%-etan)

LH I mota	1999	2003	2007	2007 (Pot. aktiboa)
Lanbide-ikaskuntza	10,6	8,4		
LH I, Administrarritza	18,2	13,8	6,2	7,6
LH I, Metala	11,7	8,2	16,5	16,5
LH I, Elektrizitatea	27,6	13,4	11,0	11,0
LH I, Delineazioa	16,0	17,8		
LH I, Automozioa	22,9	0,0	8,9	8,9
LH I, Osasungintza	25,2	3,7	22,8	22,8
LH I, Ileapainketa-Estetika	25,6	0,0	10,7	10,7
Beste LH I batzuk eta parekoak	22,1	6,7	5,8	5,6
<b>LH I, GUZTIRA</b>	<b>19,7</b>	<b>8,8</b>	<b>10,1</b>	<b>10,3</b>

### 2.1.2.- Bigarren mailako ikasketak dituen biztanleria aktiboa.

Lanbide-heziketako ikasketekin lotutako berehalako laneratzearen zailtasun handiena bigarren mailako ikasketen eremuan ere ikusten da. Lanbidekoak ez diren bigarren mailako tituludunen % 7rekin alderatuta, ikasketak amaitzean lana lortzen denbora asko pasatzen dutenen proportzioa 2007an % 8,7 da LH II-ren kasuan. Hala eta guztiz ere, esan behar da LH II-ko adierazleak nabarmen hobetu direla azken urteotan. Horrela, 1999an LH II-ko tituludunen % 20,1ek sei hilabete baino gehiago behar bazuen ikasketak amaitzean lana lortzeko, proportzioa % 9,8ra jaisten da 2003an, eta dagoeneko aipatu dugun % 8,7ra 2007an.

Lanbidekoak ez diren bigarren mailako ikasketei dagokienez, LH II-k berehala laneratzeko dituen zailtasun handienak adin- eta sexu-talde guztietan ikusten dira, 35 urtetik beherako gizonen kasuan izan ezik. Orokorrean, 2007an aktibo dauden LH II-ko tituludunen % 8-12k 6 hilabete baino gehiago eman zituzten lanik gabe hasierako ikasketak amaitzean; proportzio hori aipatutako gizonen kolektiboan soilik jaisten da % 4,4ra. Lanbidekoak ez diren bigarren mailako ikasketen kasuan, proportzioa % 6tik % 7,5era bitartekoa da gizonen kasuan; ezaugarri hori ikusten da 45 urtetik gorako emakumeetan ere. Proportzioa % 8tik % 9ra bitarteko mailalara igotzen da 45 urtetik beherako emakumeetan.

2.15 taula

Bigarren mailako ikasketak dituztenetan, ikasketak amaitzean langabeziaren (6 hilabete edo gehiago) intzidentzia, sexuaren, adinaren eta prestakuntza-mailaren arabera.

Biztanleria aktiboa  
(%-etan)

Sexua eta adina	Lanbidekoak ez diren bigarren mailako ikasketak		Bigarren mailako ikasketak	Guztira
		LH II		
Gizonak < 35	6,5	4,4	5,2	6,9
Gizonak 35-44	7,6	11,1	10,0	10,2
Gizonak >= 45	5,9	8,0	7,1	5,5
Gizonak	6,5	7,5	7,2	7,3
Emakumeak < 35	9,0	11,8	10,8	11,8
Emakumeak 35-44	8,2	9,4	9,0	11,7
Emakumeak >= 45	6,1	10,4	8,0	7,0
Emakumeak	7,8	10,7	9,5	10,2
<b>GUZTIRA</b>	<b>7,0</b>	<b>8,7</b>	<b>8,0</b>	<b>8,6</b>

LH II-ren hainbat adarretan, ikasketak bukatu eta lana lortzeko sei hilabete baino gehiago behar dutenen proportzioa handia da oraindik ere. % 10eko maila gainditu da honako adar hauetako tituludunen kasuan: Administraritzan (% 10,1), Osasungintzan (% 11,3) eta Elektrizitatean (% 14,4), baita Lanbide Artistikoetan (% 15,3) eta Merkataritzako Ingeniaritza Teknikoan ere (% 15,1). Administraritzaren adarrean izan ezik, horrek esan nahi du aurreko urteetan ikusitakoarekin alderatzen badugu, egoerak okerrera egin duela. Izan ere, LH II-ko prestakuntza-adar gehienetan ikusten da ikasketa mota horrek laneratzeko duen ahalmenari dagokionez, azken aldi honetan okerrera egin duela.

Hala eta guztiz ere, azken bilakaerak sendotu egiten du 1999an zegoen % 20,1eko indize orokorrak egungo % 8,7ra jaistea. Metalaren eta Automozioaren adarren bilakaera funtsezkoa da horri dagokionez.

2.16 taula.

LH II-ko tituludunetan, ikasketak amaitzean langabeziaren (6 hilabete edo gehiago) intzidentzia, LH II motaren arabera.

Biztanleria aktiboa  
(%-etan)

LH II mota	1999	2003	2007	2007 (Pot. aktiboa)
Lanbide-maisutza	10,4	0,0	3,9	3,9
Merkataritzako ingeniari-ritza	16,1	0,0	15,1	15,1

LH II, Administrarritza	24,6	20,4	10,1	10,1
LH II, Metala	17,5	13,2	5,9	8,5
LH II, Elektrizitatea	16,9	10,1	14,4	14,4
LH II, Delineazioa	18,5	5,5	8,7	8,7
LH II, Automozioa	25,2	11,7	2,3	2,3
LH II, Osasungintza	43,9	3,4	11,3	10,5
LH II, Ilepainketa-Estetika	23,3	0,0	4,8	4,8
Beste LH II eta pareko batzuk	20,9	7,6	7,8	7,6
Lanbide artistikoak	18,4	0,0	15,3	15,3
<b>LH II, GUZTIRA</b>	<b>20,1</b>	<b>9,8</b>	<b>8,7</b>	<b>8,8</b>

### 2.1.3.- Hirugarren mailako ikasketak dituen biztanleria aktiboa

2003an ez bezala (urte horretan gizonek arazo handiagoa zuten lehenengo enplegua lortzeari dagokionez), hirugarren mailako goi-mailako ikasketen kasuan, 2007an, emakumeek dituzte laneratzeko zailtasun handienak. Gizonei dagokienez, erdi-mailako ikasketen kasuan, zenbatekoak % 6 dira, eta goi-mailako ikasketen kasuan % 3,9; aitzitik, ikasketak amaitzean 6 hilabetetik gora langabezian eman duten emakumeen % 10etik gorako mailak gainditzen dituzte zenbatekoek, betiere kontuan izan gabe amaitutako unibertsitateko ikasketak erdi-mailakoak edo goi-mailakoak diren.

Dena dela, unibertsitateko tituludunen kasuan ere, aztertutako arazoaren eraginpeko pertsonen proportzioak behera egin du 1999.-2007. urteetan (1999an % 19 izatetik 2003an % 10,8 eta 2007an % 7,7 izatera). 1999. urtean, hirugarren mailako ikasketak zituztenen egoera zertxobait txarragoa zen (% 19, maila orokorra % 18,1 izanik), baina 2003tik aurrera, unibertsitateko tituludunen ikasketak amaitu osteko gutxienez sei hilabeteko langabezia-tasa txikiagoa da biztanleria aktiboaren batez besteko orokorra baino (% 7,7, 2007an, aldiz, % 8,6).

Sexua, adina eta ikasketa-maila kontuan hartuta aztertzen badugu egoera, ikusten da hirugarren mailako ikasketak dituzten 45 urtetik gorako gizonen % 5ek baino gutxiagok denbora luzea eman zuela langabezian, proportzio hori ere ikusten da bitarteko ikasketak dituzten 35-44 urteko gizonen kasuan eta goi-mailako ikasketak dituzten 35 urtetik beherakoetan ere. Erdi-mailako ikasketak dituzten 45 urtetik gorako emakumeen kasuan izan ezik, proportzioa % 10era hurbiltzen da edo hortik gorakoa da hirugarren mailako ikasketak dituzten emakumeen kasuan; errealitate hori, gizonen kasuan, erdi-mailako ikasketak dituzten 35 urtetik beherakoetan soilik ikusten da, eta askoz ere neurri txikiagoan; izan ere, adierazlea soilik % 8,1era iristen da goi-mailako ikasketak dituzten 35-44 urteko gizonen kasuan.

### 2.17 taula.

Hirugarren mailako ikasketak dituztenetan, ikasketak amaitzean langabeziaren (6 hilabete edo gehiago) intzidentzia, sexuaren, adinaren eta prestakuntza-mailaren arabera  
Biztanleria aktiboa  
(%-etan)



Sexua eta adina	Hirugarren mailako erdi-mailako ikasketak	Hirugarren mailako goi-mailako ikasketak	Hirugarren mailako ikasketak	Guztira
Gizonak < 35	11,2	1,3	4,6	6,9
Gizonak 35-44	3,8	8,1	6,5	10,2
Gizonak >= 45	2,8	3,1	3,0	5,5
Gizonak	6,0	3,9	4,6	7,3
Emakumeak < 35	12,3	9,8	10,9	11,8
Emakumeak 35-44	11,6	9,6	10,3	11,7
Emakumeak >= 45	6,2	12,4	9,3	7,0
Emakumeak	10,5	10,2	10,4	10,2
<b>GUZTIRA</b>	<b>8,7</b>	<b>7,1</b>	<b>7,7</b>	<b>8,6</b>

Ikasketa motari dagokionez, erdi-mailako tituludunen kasuan, Merkataritzako Ingeniaritza Teknikoko, OHOkoko Irakaskuntzako eta Osasungintzako lanbideetako ikasketak dituztenen % 7,5etik % 8,5era bitarte ikasketak amaitzean 6 hilabetetik gora langabezian eman dute 2007an; zenbateko horiek, ordea, 1999koak baino txikiagoak dira, eta kasu gehienetan, baita 2003koak baino txikiagoak ere. Gainerako ingeniari teknikoetan edo erdi-mailako ikasketa espezializatuetan ez dago adierazle hori. Aitzitik, erdi-mailako beste ikasketa batzuen kasuan % 13,2ra iristen da, 2003ko % 9,4aren gainera.

#### 2.18 taula.

Hirugarren mailako erdi-mailako ikasketak dituztenetan, ikasketak amaitzean langabeziaren (6 hilabete edo gehiago) intzidentzia, ikasketa motaren arabera.

#### Biztanleria aktiboa (%-etan)

Erdi-mailako ikasketa mota	1999	2003	2007	2007 (Pot. aktiboa)
Industriako Ingeniaritza Teknikoa	11,9	10,9	7,9	7,9
Bestelako Ingeniaritza Teknikoak	13,4	3,1		
OHOkoko irakasleak	23,3	12,2	8,5	8,5
Osasungintzako lanbideak	10,0	6,8	7,6	7,6
Erdi-mailako beste ikasketa batzuk	22,5	9,4	13,2	13,2
Erdi-mailako ikasketa espezializatuak	0,0	31,5		
<b>Hirugarren mailako erdi-mailakoak, guztira</b>	<b>18,8</b>	<b>10,0</b>	<b>8,7</b>	<b>8,7</b>

Goi-mailako tituludunen artean, Informatikako, natur zientzietako eta zientzia zehatzeko lizentziadunek dituzte laneratzeko zailtasun handienak ikasketak amaitzean, langabezian gutxienez 6 hilabete eman dutenak % 17,3 baitira; zenbateko hori 2003ko % 17,5en antzekoa da, eta ez dago 1999ko % 22,1etik oso urrun.

Zenbatekoa oso txikia bada ere, proportzioa % 10era hurbiltzen da goi-mailako beste ikasketa batzuetako lizentziadunen kasuan ere. 2008an kalkulaturako zenbatekoa (% 9,6) ere ez da 2003ko % 10,1etik gehiegi urruntzen; bai, ordea, 1999ko % 19,4tik.

Zenbatekoak askoz ere gehiago jaisten dira bestelako ingeniarietzi, Ekonomiei edo Zuzenbideari buruzko ikasketen kasuan (% 5etik % 6ra bitarte). Filosofia eta Letretako ikasketetan % 5era hurbiltzen dira edo hortik behera jaisten dira, eta % 3ra bitarte Industriako Ingeniaritzari, Medikuntzari eta hirugarren mailako ikasketa espezializatuei dagokienez.

Oro har, ikasketak amaitzean denboran luzaturako langabeziaren intzidentzia asko murriztu da eta ia orokorra da hirugarren mailako goi-mailako ia adar guztietan, informatikako, natur zientzietako eta zientzia zehatzeko lizentziadunen kasuan izan ezik. Izan ere, ikasketak amaitzean 6 hilabetetik gora langabezian ematen duten hirugarren mailako unibertsitateko ikasketak dituzten aktiboen proportzioa 1992ko % 19,2tik 2003ko % 11,2ra eta 2007ko % 7,1era jaisten da.

2.19 taula.

Hirugarren mailako goi-mailako ikasketak dituztenetan, ikasketak amaitzean langabeziaren (6 hilabete edo gehiago) intzidentzia-tasa, ikasketa motaren arabera

Biztanleria aktiboa  
(%-etan)

Goi-mailako ikasketa mota	1999	2003	2007	2007 (Pot. aktiboa)
Industriako Ingeniaritza	10,0	18,2	2,4	2,4
Bestelako ingeniariak	6,0	7,4	5,3	5,3
Informatika, Natur Zientziak eta Zientzia Zehatzak	22,1	17,5	17,3	17,3
Filosofia eta Letrak	26,6	9,3	4,1	4,1
Ekonomia	18,3	6,0	5,4	5,4
Zuzenbidea	19,9	13,9	6,4	6,2
Medikuntza eta parekoak	17,7	10,0	1,6	1,6
Goi-mailako beste ikasketa batzuk	19,4	10,1	9,6	9,3
Goi-mailako ikasketa espezializatuak	0,0	13,8	3,3	3,3
Hirugarren mailako goi-mailakoak, guztira	19,2	11,2	7,1	7,0

## 2.2.- Inolako lan-esperientziarik eza

Aurreko atalean, ikasketak amaitu ostean gutxienez sei hilabeteko langabezialdiaren intzidentzia landu dugu. Atal honetan, aldiz, aurrerago egingo dugu, eta oraindik inolako lan-esperientziarik gabeko aktibo kolektiboen kasuak hartuko ditugu kontuan.

Azpimarratu behar den datu nagusia honako hau da: 1995-2007 aldian jaitsiera handia izan da adierazitako adierazlean. Ildo horretatik, eta biztanleria aktiboari dagokionez, 1995ean % 6,9 izatetik 1999an % 3,7 izatera eta 2007an % 0,6 izatera igarotzen da. 2003-2007 aldian, hortaz, eutsi egiten zaio 90eko hamarkadaren amaieran ikusitako joerari, biztanle aktiboen artean inolako lan-esperientziarik gabekoak pixkanaka desagertzeko joerari, alegia. Jaitsiera-prozesu horrek kolektibo guztiei eragiten die, adierazlea % 1etik behera geratzen baita gutxienez lehen mailako ikasketak dituzten aktiboen kasuan eta gehienez ere % 2,2an lehen mailako ikasketak amaituta dituztenen kasuan.

Biztanle potentzialki aktibo guztien egoera aztertzea interesgarria da testuinguru horretan. Izan ere, lan-esperientziaren inguruko egoeran oso ongi bereizten dira aktiboak eta potentzialki aktiboak. Lehenengo kasuari dagokionez, soilik biztanleriaren % 0,6k ez du lan-esperientziarik; ehunekoa % 27,4ra igotzen da biztanleria potentzialki aktiboan (2003ko % 27,9ren antzeko zenbatekoa). Ikasketarik gabeko edo lehen mailako edo LH I-eko ikasketak dituztenei dagokienez, zenbatekoak % 20tik hurbil egonik, intzidentziak % 41,5eko gehienekoa lortzen du bigarren mailako ikasketak dituztenen kasuan. 2007an, ordea, ez dago intzidentziarik hirugarren mailako ikasketak dituzten aktibo potentzialei dagokienez.

Gutizko biztanleria potentzialki aktiboa aintzat hartzen badugu, egiaztatzen da ikasketen aldaera bereziki garrantzitsua dela inolako lan-esperientziarik ez izatearen adierazlerra hurbiltzeari dagokionez. Hortaz, lan-esperientziarik ez dutenen gehieneko proportzioa ikasketarik gabekoen kasuan gertatzen da (% 3,7) eta gutxienekoa (% 0,4) hirugarren mailako ikasketak dituztenen kasuan. Proportzioa % 1,2 da lehen mailako edo LH I-eko ikasketak dituztenen kasuan, eta % 1,9 bigarren mailako ikasketak dituztenetan.

## 2.20. a taula

Inolako lan-esperientziarik ezaren intzidentzia, prestakuntza-mailaren arabera

Biztanleria aktiboa

(%-etan)

Prestakuntza-maila	1995	1999	2003	2007
Lehen mailako ikasketarik gabe	7,6	2,5	2,0	2,2
Lehen mailako ikasketak - LH I	5,6	3,2	0,7	0,7
Bigarren mailako ikasketak	7,8	4,1	2,4	0,4
Hirugarren mailako ikasketak	7,8	4,3	3,0	0,4
<b>GUZTIRA</b>	<b>6,9</b>	<b>3,7</b>	<b>1,9</b>	<b>0,6</b>

2.20.b taula

Inolako lan-esperientziarik ezaren intzidentziaren bilakaera, prestakuntza-mailaren arabera.

Biztanleria potentzialki aktiboa  
(%-etan)

Prestakuntza-maila	Aktiboak	Aktibo	
		potentzialak	Pot. aktiboak
Lehen mailako ikasketarik gabe	2,2	21,9	3,7
Lehen mailako ikasketak - LH I	0,7	18,7	1,2
Bigarren mailako ikasketak	0,4	41,5	1,9
Hirugarren mailako ikasketak	0,4		0,4
<b>GUZTIRA</b>	<b>0,6</b>	<b>27,4</b>	<b>1,3</b>

Aurreko urteetan bezala, inolako lan-esperientziarik ez izatearekin lotutako arazoak gehiago eragiten dio 35 urtetik beherako biztanleria aktiboari, bereziki emakumeei dagokienez (% 2; gizonak, aldiz, % 0,9). Gainerako adin-taldeetan, gizonetan ez dago horrelako arazorik eta emakumeen artean ere ia ez du intzidentziarik (% 0,5 baino gutxiago).

Oro har, aipatu ditugun faktore horien ondorioz, lan-esperientziarik ez izateak intzidentzia handiagoa du emakumeen kasuan (% 0,9) gizonen kasuan baino (% 0,3). Nolanahi ere, ia ez dago arazoaren intzidentziarik bi generoetan, eta, praktikan, adin- eta sexu-taldeetan, 35 urtetik beherako emakumeen kasuan, % 2 da gehienez ere.

2.21 taula.

Inolako lan-esperientziarik ezaren intzidentziaren bilakaera, sexuaren eta adinaren arabera.

Biztanleria aktiboa  
(%-etan)

Sexua eta adina	1995	1999	2003	2007
Gizonak < 35	10,7	5,9	3,3	0,9
Gizonak 35-44	0,3	0,2	0,0	0,0
Gizonak >= 45	0,1	0,0	0,0	0,0
Gizonak	4,6	2,5	1,2	0,3
Emakumeak < 35	17,3	9,0	5,0	2,0
Emakumeak 35-44	1,7	1,6	1,0	0,3
Emakumeak >= 45	2,5	1,5	1,3	0,1
Emakumeak	10,2	5,4	2,8	0,9
<b>GUZTIRA</b>	<b>6,9</b>	<b>3,7</b>	<b>1,9</b>	<b>0,6</b>

Ikasketa-maila kontuan hartuta, egiaztatzen da biztanleria aktiboan arazo hori mailarik handienara iristen dela lehen mailako ikasketak amaituta dituzten emakumeen artean (% 15,6 35 urtetik beherako emakumeen kasuan, eta % 7,5 35-44 urtekoetan); dena dela, lehen mailako edo LH I-eko ikasketei dagokienez, intzidentzia handia da 35 urtetik beherako emakumeen kasuan (% 3,9). Gainerako kasuetan, arazoaren intzidentzia ez da % 1etik hurbil dauden zenbatekoetatik gorakoa, zenbateko horiek aurreko urteetan ikusitako zenbatekoak baino askoz txikiagoak dira.

Lan-esperientziarik ezak eragindako arazoa nabarmen handitzen da aktibo potentzialen artean. Ildo horretatik, gizon potentzialki aktiboek % 24,1ek orain arte ez du laneratzearen inguruko inolako esperientziarik izan; emakumeen kasuan, ordea, proportzioa % 28,6ra igotzen da.

Aurreko datuen atzean, ordea, lan-esperientziarik ezaren aldagai oso desberdina dago aktibo potentzialen kasuan baldin eta generoa kontuan hartzen badugu. Gizonen kasuan, egoera hori lehen edo bigarren mailako ikasketak dituzten 35 urtetik beherakoek laneratzeko arazo handia izatearekin soilik lotzen da. Hala eta guztiz ere, arazo hori nabarmena da; izan ere, 35 urtetik beherako gizon aktibo potentzialen % 39 nabarmentzen da lan-esperientziarik ez izateagatik; adin horretatik gorako gizonen kasuan ez dago horrelako proportziorik.

Lan-esperientziarik ez izatearekin lotutako arazoak gehiago erakusten du emakume aktibo potentzialen errealitatea. Eragin handiena duten taldeak lehen edo bigarren mailako ikasketak dituzten 35 urtetik beherakoak dira berriz ere (31,5 eta % 57,8, hurrenez hurren; zenbateko horiek 2003koak baino handiagoak dira). Nolanahi ere, arazoa nabarmena da ikasketarik gabeko edo lehen mailako ikasketak dituzten 35-44 urteko emakumeen kasuan (% 91,8 eta % 15,3, hurrenez hurren) eta lehen mailako ikasketak dituzten 45 urtetik gorako emakumeen kasuan (% 20,9). Oro har, 35 urtetik beherako emakume potentzialki aktiboen % 53,1ek ez du ezein lan-esperientziarik izan orain arte. Zenbatekoak honako hauek dira 35-44 urtekoetan eta 45 urtetik gorakoetan: % 18,2 eta % 15,3, hurrenez hurren. Egiazta daitekeenez, gizonen kasuan ez bezala, arazoa gazteenek soilik dute; izan ere, emakume aktibo potentzialen kasuan, lan-esperientziarik ezaren eragina garrantzitsua da adin guztietan.

#### 2.22.a taula

Inolako lan-esperientziarik ezaren intzidentzia, sexuaren, adinaren eta prestakuntza-mailaren arabera  
Biztanleria aktiboa  
(%-etan)

Sexua eta adina	Lehen mailako ikasketarik gabe	Lehen mailako ikasketak - LH I	Bigarren mailako ikasketak	Hirugarren mailako ikasketak	Guztira
Gizonak < 35		1,2	0,8	0,6	0,9
Gizonak 35-44					
Gizonak >= 45				0,0	0,0
Gizonak		0,4	0,3	0,2	0,3
Emakumeak < 35	15,6	3,9	1,2	1,1	2,0
Emakumeak 35-44	7,5	0,5			0,3
Emakumeak >= 45		0,3			0,1
Emakumeak	5,5	1,2	0,5	0,5	0,9
<b>GUZTIRA</b>	<b>2,2</b>	<b>0,7</b>	<b>0,4</b>	<b>0,4</b>	<b>0,6</b>

#### 2.22.b taula

Inolako lan-esperientziarik ezaren intzidentzia, sexuaren, adinaren eta prestakuntza-mailaren arabera  
Aktibo potentzialak  
(%-etan)

Sexua eta adina	Lehen mailako ikasketarik gabe	Lehen mailako ikasketak - LH I	Bigarren mailako ikasketak	Hirugarren mailako ikasketak	Guztira
Gizonak < 35		22,6	51,2		39,0

Gizonak 35-44				
Gizonak >= 45				
Gizonak		7,1	40,9	24,1
Emakumeak < 35		31,5	57,8	53,1
Emakumeak 35-44	91,8	15,3		18,2
Emakumeak >= 45		20,9		15,3
Emakumeak	44,3	20,1	41,9	28,6
GUZTIRA	21,9	18,7	41,5	27,4

## 2.2.1.- Lehen mailako ikasketak dituen biztanleria aktiboa

Lan-esperientziarik ez izatearen arazoaren intzidentzia zehatz-mehatz aztertzeko, prestakuntza-maila bakoitzaren barne-egoerari begiratu behar zaio. Lehen mailako edo LH I-eko tituludunen kasuan, ikasketa-maila guztietan eta adin-kategoria guztietan arazoak oso intzidentzia txikia duela ikus daiteke. Biztanleria aktiboaren batez bestekotik zertxobait urruntzen den talde bakarra LH I ikasitako 35 urtetik beherako emakumeena izan daiteke, baina kasu horretan ere, proportzioa ez da % 5,5 baino handiagoa, 2003ko % 3,4tik zertxobait gorago, ordea.

### 2.23.a taula

Lehen mailako edo LH I-eko ikasketak dituztenetan inolako lan-esperientziarik ezaren intzidentzia, sexuaren, adinaren eta prestakuntza-mailaren arabera.

#### Biztanleria aktiboa (%-etan)

Sexua eta adina	Lehen mailako ikasketak	Bigarren mailakoak		Lehen mailako ikasketak eta	
		amaitu gabe	LH I	LH I	Guztira
Gizonak < 35	1,3		1,3	1,2	0,9
Gizonak 35-44					0,0
Gizonak >= 45					0,0
Gizonak	0,3		0,6	0,4	0,3
Emakumeak < 35	2,1		5,5	3,9	2,0
Emakumeak 35-44	0,7			0,5	0,3
Emakumeak >= 45	0,4			0,3	0,1
Emakumeak	0,7		2,3	1,2	0,9
<b>GUZTIRA</b>	<b>0,5</b>		<b>1,4</b>	<b>0,7</b>	<b>0,6</b>

Prestakuntza-maila horretako datu interesgarrienak aktibo potentzialei dagozkie. Pertsona talde horretan, lehen mailako ikasketak egindako emakumeen artean askok lan-esperientziarik ez dutela atzematen da; izan ere, lehen mailako ikasketak dituzten emakumeen tasak % 17 dira, eta LH I-eko ikasketak dituztenenak % 35; bigarren mailako ikasketak egin baina amaitu ez dituzten emakumeei dagokienez, aldiz, % 22,1 dira. Gizonei dagokienez, adierazitako proportzioa aktibo potentzialen kasuan LH I-eko tituludunetan soilik da handia (% 28,4).

Oro har, LH I-eko ikasketak dituzten aktibo potentzialen % 33,8k ez du inolako lan-esperientziarik, amaitu gabeko bigarren mailako ikasketak dituztenen % 22,1etik eta lehen mailako ikasketak dituzten tituludunen % 15,1etik gora, zentzu hertsian.



2.23.b taula

Lehen mailako edo LH I-eko ikasketak dituztenetan inolako lan-esperientziarik ezaren intzidentzia, sexuaren, adinaren eta prestakuntza-mailaren arabera

Aktibo potentzialak  
(%-etan)

Sexua eta adina	Lehen mailako ikasketak	Bigarren mailakoak amaitu gabe	Lehen mailako ikasketak eta		
			LH I	LH I	Guztira
Gizonak < 35			28,4	22,6	39,0
Gizonak 35-44					
Gizonak >= 45					
Gizonak			28,4	7,1	24,1
Emakumeak < 35		100		31,5	53,1
Emakumeak 35-44			41,6	15,3	18,2
Emakumeak >= 45	22,9			20,9	15,3
Emakumeak	17,0	22,1	35,0	20,1	28,6
GUZTIRA	15,1	22,1	33,8	18,7	27,4

LH I-eko titulazioa duen biztanleria aktiboaren egoeran sakonduz, ikusten da aldearen arazoak iraun egiten duela Administraritzaren adarrean; izan ere, 1999tik aurrera % 4 inguru dago lan-esperientziarik ez dutenen proportzioa. Gainerako kasuetan, adierazlea % 1 inguru edo hortik behera dago 2007an.

Aktibo potentzialei dagokienez, lan-esperientziarik ez izatearen tasa handiak bestelako LH I-ak eta parekoak deitutako kategoriarekin lotzen dira bereziki. Kasu horretan, ikasketa-maila hori duten aktibo potentzialen % 73,1ek adierazi du ez duela inolako lan-esperientziarik izan.

2.24 taula.

LH I-eko tituludunetan inolako lan-esperientziarik ezaren intzidentzia, LH I motaren arabera  
(%-etan)

LH I mota	Aktiboak 1999	Aktiboak 2003	Aktiboak 2007	Aktibo potentzialak 2007
Lanbide-ikaskuntza				
LH I, Administraritzza	3,7	4,0	4,1	
LH I, Metala		2,7		
LH I, Elektrizitatea				
LH I, Delineazioa				
LH I, Automozioa		1,7		
LH I, Osasungintza	6,1			

LH I, Ileapainketa-Estetika				0,8	
Bestelako LH I-ak eta parekoak	2,1	0,9	1,2	73,1	
<b>LH I, GUZTIRA</b>	<b>2,0</b>	<b>1,3</b>	<b>1,4</b>	<b>33,8</b>	

## 2.2.2.- Bigarren mailako ikasketak dituen biztanleria aktiboa

Bigarren mailako ikasketei helduta, honako hau ikus dezakegu berriz ere: 1999-2003 aldiko datuek adierazten zutenari jarraiki, lanbidekoak ez diren ikasketak dituztenek inolako lan-esperientziarik ezaren intzidentzia handiagoa izaten dute. Izan ere, pertsona horien % 1ek ez du oraindik bere lehenengo lan-esperientziarik izan, eta kontrakoa gertatzen da, ordea, LH II-ko tituludunen kasuan, kolektibo horretan ez baitago ia ez-aktibo bakar bat ere egoera horretan. Baina daturik nabarmenena honako hau da: aintzat hartutako arazoak nabarmen jaitsi dira, lanbidekoak ez diren tituludunak % 2ko edo hortik beherako mailetan kokatzen baitira (maila horietan zeuden 1999tik aurrera LH II-ko tituludunak). Lanbidekoak ez diren bigarren mailako tituludunen artean, inolako lan-esperientziarik ez dutenak 1999an % 6,8 izatetik 2003an % 4,5 izatera igarotzen dira, baina zenbatekoa gehiago jaisten da 2007an, gaur egungo % 1ean kokatzen baita.

Nolanahi ere, 35 urtetik beherakoek soilik dute lan-esperientziarik ez izatearen arazoa. Aurreko urteetan ez bezala, ordea, kasu bakar batean ere ez dira % 5eko mailak gainditzen titulazioaren, sexuaren eta adinaren arabera. Zenbatekorik handiena % 3,1 da lanbidekoak ez diren bigarren mailako ikasketak dituzten 35 urtetik beherako emakumeen kasuan, adin eta titulazio bera duten gizonen artean ikusitako % 2,1aren ginetik. Azken aldiko bilakaera oso positiboa izaten ari da: 1999an, lanbidekoak ez diren bigarren mailako ikasketak zituzten 35 urtetik beherako gizonen % 13,1ek ez zuen inolako lan-esperientziarik, eta egoera horretako emakumeen % 16,7k ere ez (% 7,3 eta % 11,5, hurrenez hurren, 2003an).

### 2.25.a taula

Bigarren mailako ikasketak dituztenetan inolako lan-esperientziarik ezaren intzidentzia, sexuaren, adinaren eta prestakuntza-mailaren arabera.

#### Biztanleria aktiboa (%-etan)

Sexua eta adina	Lanbidekoak ez diren bigarren mailako ikasketak		Bigarren mailako ikasketak	
		LH II		Guztira
Gizonak < 35	2,1	0,1	0,8	0,9
Gizonak 35-44				0,0
Gizonak >= 45				0,0
Gizonak	0,9	0,0	0,3	0,3
Emakumeak < 35	3,1		1,2	2,0
Emakumeak 35-44				0,3
Emakumeak >= 45				0,1
Emakumeak	1,2		0,5	0,9
<b>GUZTIRA</b>	<b>1,0</b>	<b>0,0</b>	<b>0,4</b>	<b>0,6</b>



Aktibo potentzialei buruzko datuen azterlana, ordea, bereziki deigarria da gai honetan. Ildo horretatik, ikusten da egoera horretan dagoen bigarren mailako tituludunen % 41,5ek ez duela ezein lan-esperientziarik izan, eta ez da alde handirik ikusten sexuaren arabera (% gizonen % 40,9 eta emakumeen % 41,9).

Aintzat hartutako arazoa igo egiten da argi eta garbi lanbidekoak ez diren bigarren mailako ikasketen kasuan. Aktibo potentzialen biztanleriaren artean, lanbidekoak ez diren bigarren mailako tituludunen % 56,9k ez du lan-esperientziarik, LH II-ko tituludunen kasuan, aldiz, % 22,1 dago egoera horretan. Arazoak 35 urtetik beherakoei bakarrik eragiten diela kontuan hartuta, arazoaren benetako intzidentzia askoz ere handiagoa da biztanle gazteenen artean. Hortaz, proportzioa % 60 ingurukoa da lanbidekoak ez diren bigarren mailako ikasketak dituzten 35 urtetik beherako biztanle aktibo potentzialen kasuan (% 63,5 emakumeen kasuan, eta % 59 gizonen kasuan). LH II-ko ikasketak dituzten 35 urtetik beherako emakumeen kasuan % 46,5 da, eta titulazio hori duten gizon aktibo potentzialen kasuan % 30,7. Oro har, 35 urtetik beherako aktibo potentzialen % 51,2k ez du lan-esperientziarik; proportzio hori % 57,8ra igotzen da emakumeen artean. Zenbateko horiek EAEko adierazle orokorra baino askoz handiagoak dira jarduera potentzialaren egoeran dauden biztanle guztiei dagokienez (% 27,4).

#### 2.25.b taula

Bigarren mailako ikasketak dituztenetan inolako lan-esperientziarik ezaren intzidentzia, sexuaren, adinaren eta prestakuntza-mailaren arabera

#### Aktibo potentzialak (%-etan)

Sexua eta adina	Lanbidekoak ez diren bigarren mailako ikasketak		Bigarren mailako ikasketak	Guztira
		LH II		
Gizonak < 35	59,0	30,7	51,2	39,0
Gizonak 35-44				
Gizonak >= 45				
Gizonak	52,0	19,8	40,9	24,1
Emakumeak < 35	63,5	46,5	57,8	53,1
Emakumeak 35-44				18,2
Emakumeak >= 45				15,3
Emakumeak	60,1	22,9	41,9	28,6
<b>GUZTIRA</b>	<b>56,9</b>	<b>22,1</b>	<b>41,5</b>	<b>27,4</b>

LH I-ekin gertatzen zen bezala, LH II-rekin lotutako lan-esperientziaren maila oso handia da, LH II-ko ikasketa motei buruzko esperientziarik ezaren adierazlearen zenbatekorik ez baitago

biztanleria aktiboaren kasuan behintzat. Hori baliagarria da Ilepainketa-Estetikaren adarrean ere; adar horretan aktiboaren % 12k ez zeukan lan-esperientziarik 2003an.

Hala ere, Administaritzako ikasketen arazoa eta Bestelako LH II-ak eta parekoak deitutako kategoriari eragiten diona aktiboaren zenbatekoak erakusten dutena baino zertxobait garrantzitsuagoa da. Horri jarraiki, ikusten da Administaritzaren adarreko LH II duten aktibo potentzialen % 29,4k eta LH II-ren beste adar batzuetako tituludunen % 24,7k ez dutela inolako lan-esperientziarik.

2.26 taula.

LH II-ko tituludunetan inolako lan-esperientziarik ezaren intzidentzia, LH II motaren arabera (%-etan)

LH II mota	Aktiboak 1999	Aktiboak 2003	Aktiboak 2007	Aktibo potentzialak 2007
Lanbide-maisutza				
Merkataritzako ingeniaria teknikoa	5,7			
LH II, Administaritza	3,2	2,2	0,1	29,4
LH II, Metala		0,4		
LH II, Elektrizitatea	3,2	0,3		
LH II, Delineazioa				
LH II, Automozioa		0,6		
LH II, Osasungintza		2,0		
LH II, Ilepainketa-Estetika		12,0		
Bestelako LH II-ak eta parekoak	3,4	0,3		24,7
Lanbide artistikoak				
LH II, GUZTIRA	2,0	0,9	0,0	22,1

### 2.2.3.- Hirugarren mailako ikasketak dituen biztanleria aktiboa

2007an, marjinala da lan-esperientziarik ezaren eragina hirugarren mailako ikasketak dituen biztanleria aktiboaren artean. Zenbatekoa % 0,4ra jaisten da, erdi-mailako edo goi-mailako tituludunen arteko aldeak gutxienekoak izanik (% 0,3 eta % 0,4, hurrenez hurren). 1999-2003 aldian tasak txikiak ziren erdi-mailako tituludunen kasuan (zenbatekoak % 1,5etik % 2ra bitartekoak ziren), baina hobekuntza nabarmena da hirugarren mailako goi-mailako tituludunen artean, zenbatekoak 1999ko % 6tik 2003ko % 3,8ra jaisten baitira. 2003an ikusitakoa ez bezala (urte horretan zenbatekoak % 5etik gorakoak ziren 35 urtetik beherakoetan); gaur egun, aldiz, lan-

esperientziarik ezaren eragina % 1,4 da hirugarren mailako goi-mailako ikasketak dituzten 35 urtetik beherako emakumeen kasuan.

Lan-esperientziarik eza ez da erabakigarria hirugarren mailako ikasketak dituen biztanleria aktibo potentzialaren kasuan ere. Egoera horretan daudenen % 100ek izan du aurretik lan-esperientziaren bat.

2.27.a taula

Hirugarren mailako ikasketak dituztenetan inolako lan-esperientziarik ezaren intzidentzia, sexuaren, adinaren eta prestakuntza-mailaren arabera Biztanleria aktiboa (%-etan)

Sexua eta adina	Hirugarren mailako			Guztira
	Erdi-mailako ikasketak	Goi-mailako ikasketak	ikasketak	
Gizonak < 35	0,2	0,7	0,6	0,9
Gizonak 35-44				0,0
Gizonak >= 45	0,0		0,0	0,0
Gizonak	0,1	0,3	0,2	0,3
Emakumeak < 35	0,8	1,4	1,1	2,0
Emakumeak 35-44				0,3
Emakumeak >= 45				0,1
Emakumeak	0,4	0,6	0,5	0,9
GUZTIRA	0,3	0,4	0,4	0,6

2.27.b taula

Hirugarren mailako ikasketak dituztenetan inolako lan-esperientziarik ezaren intzidentzia, sexuaren, adinaren eta prestakuntza-mailaren arabera Biztanleria potentzialki aktiboa (%-etan)

Sexua eta adina	Hirugarren mailako			Guztira
	Erdi-mailako ikasketak	Goi-mailako ikasketak	ikasketak	
Gizonak < 35	0,0	0,0	0,0	39,0
Gizonak 35-44	0,0	0,0	0,0	
Gizonak >= 45	0,0	0,0	0,0	
Gizonak	0,0	0,0	0,0	24,1
Emakumeak < 35	0,0	0,0	0,0	53,1
Emakumeak 35-44	0,0	0,0	0,0	18,2
Emakumeak >= 45	0,0	0,0	0,0	15,3
Emakumeak	0,0	0,0	0,0	28,6
GUZTIRA	0,0	0,0	0,0	27,4

Hirugarren mailako ikasketa motak aztertuta, frogatua geratu da lan-esperientziarik ez izateak unibertsitateko tituludunengan eragin mugatua duela, kasu guztietan, biztanleria aktiboari dagokionez nahiz aktibo potentzialei dagokienez. Lan-esperientziarik ezaren % 5eko mailak goi-mailako bestelako ingeniartzen kasuan soilik gainditzen dira (% 5,8). Proporzioa % 1,8ra jaisten da Industriako Ingeniaritza Teknikoaren kasuan, 2003ko % 5,9tik behera. Gainerako ikasketa motei dagokienez, tasa % 0,8 da Zuzenbidean eta hutsala edo ia hutsala gainerako ikasketetan.



2.28 taula.

Hirugarren mailako erdi-mailako ikasketak dituztenetan inolako lan-esperientziarik ezaren intzidentzia, ikasketa motaren arabera

(%-etan)

Erdi-mailako ikasketa mota	Aktiboak 1999	Aktiboak 2003	Aktiboak 2007	Aktibo potenzialak 2007
Industriako Ingeniaritza Teknikoa	0,0	5,9	1,8	0,0
Bestelako Ingeniaritza Teknikoak	0,0	0,0	0,0	0,0
OHOko irakasleak	0,9	0,7	0,0	0,0
Osasungintzako lanbideak	4,3	0,7	0,0	0,0
Erdi-mailako bestelako ikasketak	3,0	1,6	0,0	0,0
Erdi-mailako ikasketa espezializatuak	0,0	0,0	0,0	0,0
Hirugarren mailako erdi-mailakoak, guztira	1,9	1,7	0,3	0,0

2.29 taula.

Hirugarren mailako goi-mailako ikasketak dituztenetan inolako lan-esperientziarik ezaren intzidentzia, ikasketa motaren arabera

(%-etan)

Goi-mailako ikasketa mota	Aktiboak 1999	Aktiboak 2003	Aktiboak 2007	Aktibo potenzialak 2007
Industriako Ingeniaritza	3,4	4,4	0,0	0,0
Bestelako ingeniartzak	6,0	0,9	5,8	0,0
Informatika, Natur Zientziak eta Zientzia Zehatzak	10,2	6,5	0,0	0,0
Filosofia eta Letrak	5,8	6,1	0,0	0,0
Ekonomia	3,1	4,4	0,1	0,0
Zuzenbidea	3,1	2,4	0,8	0,0
Medikuntza eta parekoak	3,5	0,0	0,0	0,0
Goi-mailako bestelako ikasketak	8,8	0,0	0,0	0,0
Goi-mailako ikasketa espezializatuak	0,0	8,3	0,0	0,0
Hirugarren mailako goi-mailakoak, guztira	6,0	3,8	0,4	0,0

### **3.- PRESTAKUNTZA ARAUTUA ETA ENPLEGUAREN EZAUGARRIAK**

Prestakuntza arautuak lana lortzeko edo ez lortzeko aukerak baldintzatzen baditu, logikari jarraiki, produkzio-sisteman sartzeko moduaren ezaugarriak ere baldintzatuko ditu. Gai hori landuko dugu atal honetan, biztanleria landunari dagokionez, bi aldagai kontuan hartuta:

a) Enplegu egonkorra lortzea gaur egun, hau da, enplegu horretan gutxienez segidako hirugarren urtea izatea.

b) Goiko egoera berdina, baina egonkorra ez ezik, teknologia-aldeetik modernoa ere baden enpleguari aplikatuta.

Era berean, lortutako prestakuntza arautuaren mailaren eta lanbide motaren arteko lotura aztertuko dugu.

#### **3.1.- Enplegu egonkorra lortzea**

2007an, egonkortzat jo genezakeen enplegua duten aktiboen proportzioa % 69,4 da; honako honi esaten diogu egonkorra: enplegu horretan segidako hirugarren urtea izatea, gutxienez. Zenbateko hori 1999koa baino askoz ere handiagoa da (% 56,1), baita 1995ekoa baino handiagoa ere, aurrekoa baino zertxobait handiagoa (% 58,3). Hazkundearen erritmoak txikiagoak badira ere, erakusten du 2003ko zenbatekoarekin alderatzen badugu, igotzen jarraitzen duela; izan ere, % 66,2 izanik, aurrerapen nabarmena zegoen aurreko urteekin alderatuta. Hortaz, azken lau urteotan ikusten da lanari dagokionez, 1999-2003 aldian biztanleria aktiboak egonkortze sendoa izan duela.

35 urtetik gorako gizon aktiboetan dago enplegu egonkorra lortzeko mailarik handiena: 45 urtetik gorakoetan % 89,6, eta 35-44 urtekoetan % 79,1. 35 urtetik gorako emakume gehienak ere egoera berdinean daude, tasa zertxobait txikiagoekin bada ere (45 urtetik gorakoetan % 82,3 eta 35-44 urtekoetan % 70,3). Aldiz, 35 urtetik beherakoen erdiak baino gutxiagok du enplegu egonkorra: % 47,4 gizonen kasuan eta % 47,9 emakumeen kasuan.

Nahiz eta, 1995-1999 aldiarekin alderatuta, 2003ko datuek erakusten zuten sexu- eta adin-talde gehienetan, bereziki gazteenen artean, lan egonkorra dutenen mailei zegokienez, hobekuntza nabarmena zegoela, kasu gehienetan 2007ko zenbatekoek erakusten dute 2003an ikusitako egoerarekiko jarraipena direla funtsean. 2003-2007 aldian, 35 urtetik gorako emakumeek dute aurrerapen garrantzitsua, egoera egonkorrean daudenen proportzioa % 37,8tik % 47,9ra igo

baita, eta igoera horrekin berreskuratu egin da adin-talde horretan gizonen kasuan dagoen atzerapena.

Izan ere, 35 urtetik beherako emakumeek izan duten azken bilakaerak lehenengo aldiz kokatzen ditu azken urteotan adin horretako gizon-emakumeak enplegu egonkorra lortzeko antzeko mailetan. 35 urtetik gorakoei dagokienez, aldiz, egonkortasunaren eragina handiagoa da oraindik gizonen kasuan: 79,1, emakumeen kasuan, aldiz, % 70,3 35-44 urtekoetan; 89,6 gizonen kasuan, eta % 82,3 emakumeen kasuan, 45 urtekoetan edo hortik gorakoetan.

Enplegu egonkorra lortzeari dagokionez, 35 urteko gizonen eta emakumeen artean dagoen aldea aurreko zenbatekoek adierazten dutena baino zertxobait handiagoa da. Horrela, gainerako kolektiboetan lan egiten dutenei dagokienez, esperientziaren adierazleek bere horretan irauten badute ere, biztanleria potentzialki aktiboa kontuan hartzean, adin horretako emakumeen kasuan ez da gauza bera gertatzen. Adierazleek erakusten dute emakume potentzialki aktibo guztiak kontuan hartzean kopurua nabarmen jaitsi dela; izan ere, 35-44 urteko emakumeen kasuan % 70,3tik % 67,1era jaitsi da, eta 45 urteko eta hortik gorako emakumeen kasuan % 82,3tik % 77,9ra jaitsi da; horrek esan nahi du gehiago aldendu direla gizonen tasetatik (% 78,9 eta % 88,6, hurrenez hurren).

### 2.30 taula.

3 urteko edo gehiagoko iraupena duen enplegua duten aktiboen proportzioa, sexuaren eta adinaren arabera

(%-etan)

Sexua eta adina	1995	1999	2003	2007	2007 (Pot. aktiboa)
Gizonak < 35	38,0	35,5	47,2	47,4	46,3
Gizonak 35-44	78,3	75,3	79,5	79,1	78,9
Gizonak >= 45	86,9	86,8	89,7	89,6	88,6
Gizonak	64,2	62,4	71,1	72,1	71,2
Emakumeak < 35	33,1	29,1	37,8	47,9	46,0
Emakumeak 35-44	66,1	59,2	68,9	70,3	67,1
Emakumeak >= 45	72,3	74,5	82,1	82,3	77,9
Emakumeak	49,6	47,1	59,5	65,7	62,7
GUZTIRA	58,3	56,1	66,2	69,4	67,5

Interesgarria da azken dinamikan sakontzea ikasketa-mailaren aldagaia sartuta. Puntu honetan, bereziki aipatu behar da 35 urtetik beherako biztanleria aktiboaren kasuan, egonkortasun-mailak asko hazten direla prestakuntza-maila hazten den neurrian. Horrela, 1999-2007 aldian, ikasketarik gabekoen egonkortasun-adierazlea jaitsi egin da (% 49,9tik % 38,5era), baina lehen mailako ikasketen kasuan bederatzi puntu igo da (% 39,3tik % 48,7ra), bigarren mailako ikasketetan hamabi puntutik gora (% 35,3tik % 47,9ra), eta hirugarren mailako tituludunetan hogei puntu baino gehiago (% 23,8tik % 45,5era). Emakume gazteen joera ere antzekoa da: ikasketarik gabekoen kasuan, lan egonkorraren adierazlea jaitsi egin baita (% 48,7tik % 21era biztanleria aktiboaren artean); lehen mailako ikasketak dituztenen kasuan, ordea, adierazlea 17 puntutik gora igo da (% 34,4tik % 51,8ra), bigarren mailako tituludunen kasuan 20 puntu baino gehiago (% 27,7tik % 48,4ra) eta hirugarren mailako tituludunen kasuan hogeita hiru puntu baino gehiago (% 23,8tik % 47,5era).

Bestalde, aurreko datuek erakusten dute 1999-2007 aldian lan egonkorraren proportzioa asko igo dela bigarren eta hirugarren mailako ikasketak dituen 35 urtetik beherako biztanleria aktiboaren artean. Proportzioa, emakumeen kasuan, % 27,7tik % 48,4ra igotzen da bigarren mailako titulazioen kasuan, eta % 23,8tik % 47,5era unibertsitateko titulazioen kasuan. Igoerak, gizonen kasuan, % 35,3tik % 47,9ra bitartekoak dira, eta % 23,8tik % 45,5era bitartekoak, hurrenez hurren.

2003-2007 aldian aldaketak ez dira horren deigarriak. Aldaketa esanguratsuenak 35 urtetik beherako emakume aktiboen kasuan daude, gutxienez lehen mailako titulazioa duten emakumeen lanari dagokionez egonkortasun-mailen igoerak oso deigarriak baitira. Igoera % 35,7tik % 51,8ra bitartekoa da lehen mailako edo LH I-eko emakume tituludunen kasuan, % 36,8tik % 48,4ra bitartekoa bigarren mailako titulazioen kasuan, eta % 39,1etik % 47,5era bitartekoa unibertsitateko titulazioen kasuan.

### 2.31.a taula

3 urteko edo gehiagoko iraupena duen enplegua duten aktiboen proportzioa, sexuaren, adinaren eta prestakuntza-mailaren arabera. 2007

(%-etan)

Sexua eta adina	Ikasketarik gabe	Lehen mailako ikasketak–LH I	Bigarren mailako ikasketak	Hirugarren mailako ikasketak	Guztira
Gizonak < 35	38,5	48,7	47,9	45,5	47,4
Gizonak 35-44	90,6	76,4	82,1	77,6	79,1
Gizonak >= 45	89,5	88,4	89,6	91,8	89,6
Gizonak	77,7	73,1	70,9	71,3	72,1
Emakumeak < 35	21,0	51,8	48,4	47,5	47,9
Emakumeak 35-44	41,9	59,7	71,6	79,4	70,3
Emakumeak >= 45	88,3	80,3	76,5	89,5	82,3

Emakumeak	62,1	67,6	62,8	66,8	65,7
GUZTIRA	71,3	71,1	67,8	68,9	69,4

## 2.31.b taula

3 urteko edo gehiagoko iraupena duen enplegua duten aktiboen proportzioa, sexuaren, adinaren eta prestakuntza-mailaren arabera. 2003

(%-etan)

Sexua eta adina	Ikasketarik gabe	Lehen mailako ikasketak–LH I	Bigarren mailako ikasketak	Hirugarren mailako ikasketak	Guztira
Gizonak < 35	48,1	45,4	49,6	44,2	47,2
Gizonak 35-44	70,7	78,8	79,3	83,5	79,5
Gizonak >= 45	89,3	88,2	89,2	96,4	89,7
Gizonak	74,5	73,4	67,6	71,5	71,1
Emakumeak < 35	61,9	35,7	36,8	39,1	37,8
Emakumeak 35-44	40,5	62,6	66,7	81,9	68,9
Emakumeak >= 45	76,4	80,3	84,0	89,7	82,1
Emakumeak	67,6	62,0	53,9	60,5	59,5
GUZTIRA	71,6	69,0	62,4	65,5	66,2

## 2.31.c taula

3 urteko edo gehiagoko iraupena duen enplegua duten aktiboen proportzioa, sexuaren, adinaren eta prestakuntza-mailaren arabera. 1999

(%-etan)

Sexua eta adina	Ikasketarik gabe	Lehen mailako ikasketak–LH I	Bigarren mailako ikasketak	Hirugarren mailako ikasketak	Guztira
Gizonak < 35	49,9	39,3	35,3	23,8	35,5
Gizonak 35-44	55,8	78,1	74,8	75,0	75,3
Gizonak >= 45	85,3	86,3	85,8	90,9	86,8
Gizonak	71,9	66,3	57,2	58,8	62,4
Emakumeak < 35	48,7	34,4	27,7	23,8	29,1
Emakumeak 35-44	43,9	45,2	64,0	76,3	59,2
Emakumeak >= 45	71,7	64,5	81,8	93,9	74,5
Emakumeak	61,4	45,4	44,2	48,4	47,1
GUZTIRA	67,9	58,3	52,3	53,2	56,1

Testuinguru horretan, bigarren eta hirugarren mailako ikasketak dituen biztanleriari dagokionez, 1999-2007 aldian lan egonkorren maila handitzeak eragindako aldea ere nabarmendu behar dugu; aurrerapen-prozesu hori neurri txikiagoan partekatzen du gainerako biztanleria aktiboak. Bigarren eta hirugarren mailako ikasketei dagokienez, enplegu egonkorra dutenen proportzioa 15,5 puntu inguru igotzen da; izan ere, 52,3 izatetik % 67,8 izatera igarotzen da bigarren mailako tituludunen kasuan, eta % 53,2 izatetik % 68,9 izatera hirugarren mailako tituludunen kasuan. Igoera 12,8 puntukoa da lehen mailako ikasketak dituztenen kasuan, % 58,3

izatetik % 71,1 izatera igarotzen baita. Adierazlearen goranzko bilakaera ez da horren handia izan ikasketarik gabekoetan, 1999. urtetik aurrera, 3,4 puntu baino ez baita igo, hots, % 67,9 izatetik % 1,3 izatera igaro da.

1995-1999 aldian lan egonkorra zuten biztanleen proportzioa gutxitu egin zen, eta gutxitze horren ondoren izan da bigarren eta hirugarren mailako tituludunen bilakaera positiboa. BAKIak kontuan hartzen duen aldi osoa –1995. urtetik 2007. urtera bitartekoa– aintzat hartzen badugu, ikusiko dugu egonkortasun-indizean dauden hobekuntzek behera egiteko joera dutela ikasketamailla hobetzen den neurrian: 13,5 puntu lehen mailako tituludunen kasuan, 11,3 bigarren mailakoetan eta 9,7 hirugarren mailakoetan. Lehen mailako ikasketak dituztenentzat kalkulatu den 7,3 puntuko hobekuntza soilik dago zenbateko horien azpitik. Egia esan, lehen mailako ikasketak dituztenen edo ikasketarik ez dutenen kasuan soilik esan daiteke lanari dagokionez, egonkortasun-adierazleek etengabeko hobekuntza dutela.

2.32 taula.  
3 urteko edo gehiagoko iraupena duen enplegua duten aktiboen proportzioaren bilakaera, prestakuntza-mailaren arabera (%-etan)

Prestakuntza-maila	1995	1999	2003	2007
Lehen mailako ikasketarik gabe	64,0	67,9	71,6	71,3
Lehen mailako ikasketak - LH I	57,6	58,3	69,0	71,1
Bigarren mailako ikasketak	56,5	52,3	62,4	67,8
Hirugarren mailako ikasketak	59,2	53,2	65,5	68,9
<b>GUZTIRA</b>	<b>58,3</b>	<b>56,1</b>	<b>66,2</b>	<b>69,4</b>

Aurreko datuak kontuan hartuta, enplegu-egonkortasunaren mailen eta prestakuntza-mailaren artean harremanik ba ote dagoen galde diezaiokegu gure buruari; komenigarria da alderdi hori balioestea biztanleria potentzialki aktibo osoa kontuan hartuta. Kolektibo horrek 2007an duen egoera aztertzerakoan, a priori nabarmendu behar da ikasketamaillaren eta lanari dagokionez, egonkortasun-mailaren artean lotura positibo hertsia dagoela hainbat sexu- eta adin-taldetan. 35-44 urteko emakumeen kasuan, esaterako, lan egonkorren adierazleak gora egiten du, biztanleria potentzialki aktibo osoaren prestakuntza-maila hobetzen den neurrian: % 33,6 ikasketarik gabekoen kasuan, % 55,4 lehen mailako edo LH I-eko titulazioaren kasuan, % 69,9 bigarren mailako titulazioari dagokionez, eta, azkenik, % 77 hirugarren mailako ikasketari dagokienez. Gauza bera gertatzen da 45 urteko eta hortik gorako gizonen kasuan, nahiz eta kasu horretan zenbatekoak askoz ere homogeenagoak diren, ikasketarik gabekoen % 84,4tik hirugarren mailako tituludunen % 91,2ra bitartekoak baitira.

Eredu hori 45 urtetik gorako emakumeei ere aplikatu dakieke, lehenengo edo bigarren mailako ikasketak dituztenen % 73,5 ingurutik hirugarren mailako tituludunen % 89,5era igarotzen baitira zenbatekoak, nahiz eta enplegu egonkorra lortzeko adierazlea % 81era iristen den ikasketarik gabekoei dagokienez. Halaber, 35 urtetik beherako emakumeen kasura ere egokitzen da neurri handi batean, ikasketarik gabekoen % 21eko egonkortasun-maila % 43,7ra igotzen da bigarren mailako tituludunen kasuan eta % 47,4ra hirugarren mailako tituludunen kasuan. Kasu horretan, aldiz, egonkortasun-indize handiena lehen mailako ikasketak dituztenei dagokie: % 50,4.

Bestalde, 35-44 urteko gizonen kasuan, ikusten da enplegu-egonkortasunaren gehieneko zenbatekoa dagoela ikasketarik gabekoen artean: % 87,5. Anomalia horrek adierazlearen erorketarekin bat egiten du bigarren mailako ikasketak dituzten biztanleengan % 82,1eraino eta hirugarren mailako ikasketak dituztenengan % 77,6raino. Gutxieneko maila, % 76,2, lehen mailako ikasketak dituztenei badagokie ere, erreferentziazko eredu ezin zaio sexu eta adin horretako taldeari aplikatu. Talde horretan, prestakuntza gehiago eta lanpostuko egonkortasun-mailaren arteko erlazio negatiboa ikusi da gehienbat.

Eredua ez da aplikagarria 35 urte baino gutxiagoko gizonen kasuan ere. Sexu- eta adin-talde horretan, egiaz globalki oso antzeko egonkortasun-maila ikusten da lehen, bigarren eta hirugarren mailako ikasketak dituzten pertsonen artean, nahiz eta joera beheranzkoa izan ikasketak mailak gora egiten duen heinean. Hori kontuan izanik, potentzialki aktibo diren biztanle guztien artean hirugarren mailako ikasketak dituztenen kasuan % 45,3ko gutxienekoa ikusi da eta % 48,5eko gehienekoa lehen mailako edo LH I-eko ikasketak dituztenen kasuan. Gutxieneko orokorra, % 34,6rekin, ikasketarik ez duten pertsonen dagokie.

45 urte baino gutxiagoan ikusitakoa gorabehera, 2007ko datuek okupazioan egonkortasunaren hazkundera nagusitzeko joera erakusten dute potentzialki aktibo diren biztanleen prestakuntza-maila hazten den heinean, emakumeengan bereziki, adierazle orokorrak eta sexuaren arabera aztertzen gehiegi nabari ez den errealitatea hura. Biztanle aktiboentzako aurretiaz aintzat hartutako dinamikak, bigarren eta hirugarren mailako ikasketak dituztenentzako bereziki mesedegarria denak, baieztatzen du betetako lanpostua sendotzeko prestakuntza-mailak daukan garrantzi hazkorra.

### 2.33 taula

3 urte edo gehiagoko iraupena duen enplegua duten pertsonen proportzioa, sexuaren, adinaren eta prestakuntza-mailaren arabera. 2007  
Biztanleria potentzialki aktiboa  
(%-etan)

Sexua eta adina	Ikasketarik	Lehen mailako	Bigarren	Hirugarren	Guztira
-----------------	-------------	---------------	----------	------------	---------



	gabe	ikasketak LH I	mailako ikasketak	mailako ikasketak	
Gizonak < 35	34,6	48,5	46,0	45,3	46,3
Gizonak 35-44	87,5	76,2	82,1	77,6	78,9
Gizonak >= 45	84,4	87,8	88,5	91,2	88,6
Gizonak	72,8	72,7	69,4	71,0	71,2
Emak. < 35	21,0	50,4	43,7	47,4	46,0
Emak. 35-44	33,6	55,4	69,9	77,0	67,1
Emak. >= 45	81,0	73,5	73,6	89,5	77,9
Emakumeak	56,6	63,0	59,0	66,1	62,7
GUZTIRA	66,1	69,0	65,3	68,4	67,5

### 3.1.1.- Lehen mailako ikasketak dituen biztanleria aktiboa

2007. urtean, lehen mailako ikasketak dituen biztanleriaren hainbat kategoriatako okupazio egonkorren eraginari erreparatuta, lehen mailako ikasketak soilik dituztenek okupazioaren egonkortasun-maila handiagoa izateko joera dutela ikusi da. Izan ere, kolektibo horren okupazio egonkorren adierazle orokorra % 74,4 izanik, LH I-en kasuan % 63ra murrizten da (bigarren mailako ikasketak amaitu gabe dituztenen % 66,9 baino maila txikiagoa).

Aurreko datu horiek gizonen artean ikusitakoari zor zaizkio neurri handi batean. Kasu horretan berriro egiaztatu da LH I-eko tituludunen artean okupazio egonkor gutxiago dagoela: % 63,9; bigarren mailako ikasketak bukatu ez dituztenen artean % 71,2 eta lehen mailako ikasketak soilik dituztenen artean % 76,2. Emakumeen artean, okupazio egonkorren adierazle txikiagoa bukatu gabeko bigarren mailako ikasketei dagokie, % 53,7. Hala ere, berriro ikusten da LH I-eko tituludunen egonkortasun txikiagoa: % 61,8; lehen mailako ikasketei huts-hutsik dagokien % 71,1en aldean.

Sexuaren eta adinaren arabera azterketa zehatzagoa eginez gero, lehenago adierazitako aldea gehiago zehaztuko dugu. Hortaz, bigarren mailako ikasketak bukatu gabe dituzten emakumeen artean okupazio egonkorren adierazle baxuek egoera hori 35 urte baino gutxiagoko emakumei lotuta dagoela egiaztatu dute (% 27,1, 2003ko % 31,9ren azpitik ere), 35-44 urteko emakumeen kasuan batez bestekoaren azpitik badaude ere (% 60,1). Prestakuntza-maila hori duten 45 urte baino gehiagoko emakumeen artean aldiz, okupazio egonkorreko ehuneko oso altua da, % 90,3 ere.

LH I-ekiko lehen mailako ikasketak soilik egindako pertsonen okupazioaren adierazle nagusiei dagokienez, sexuaren eta adinaren arabera azterketaren aldeak ez dira datu orokorrek

erakusten duten bezain deigarriak. Egia esan, LH I-en egonkortasun-maila lehen mailako ikasketak dituzten tituludunen gainetik dago 45 urte baino gutxiagoko emakumeen artean eta 35-44 urteko gizonen artean ere. Enplegu egonkorra duten pertsonen proportzioa lehen mailako tituludunen artean bakarrik urruntzen da nabarmen 35 urte baino gutxiagoko gizonen kasuan (% 53, baina LH I-en kasuan % 39,2) eta 45 urte baino gehiagoko emakumeen artean (% 82 besteen % 72,7ren aldean).

EAEko batez besteko orokorrekiko, adinaren eta sexuaren arabeko talde bakoitzarentzako ezegonkortasun-egoera handiagoa dutela aipatu behar da. Errealitate horrek 35 urte baino gutxiagoko talde batzuk hartzen ditu eraginpean, LH I-eko titulua duten gizonak gehienbat (% 39,2, baina EAEko adierazle orokorra % 47,4 da 35 urte baino gehiagoko pertsonentzako), eta bigarren mailako ikasketak bukatu gabe dauzkaten emakumeak (% 27,1 % 47,9ren aldean). Aipatzekoa da ere egonkortasun-maila txikiagoa dela LH I-eko titulua duten 45 urte baino gehiagoko pertsonengan, bai gizonen artean (% 85,3 % 89,6ren aldean), bai emakumeen artean (% 72,7 % 82,3ren aldean).

Dena dela, datu esanguratsuen 35-44 urteko pertsonen egoera orokorrean besteena baino okerragoa izatea da, lortutako lehen mailako ikasketa edo LH I maila edozein dela ere, salbuespen bakar batekin, gizonena LH I-ean alegia. Kasu horretan, adierazleak erreferentziazko batez bestekotik 5-6 puntu inguru urruntzen dira lehen mailako edo bukatu gabeko bigarren mailako ikasketak dituzten gizonen kasuan, eta 10 puntu inguru ikasketa-maila horrekin 35-44 urteko emakumeen kasuan. Ehunekoa 8 puntu ingurukoa da LH I-eko ikasketak dituzten eta adin-talde horretakoak diren emakumeei dagokienez (% 62 % 70,3ren aldean).

Zehaztu beharrekoa da aurkeztutako ondorio asko jarduera-mailak baldintzatua daudela eta, beraz, ñabartu behar da potentzialki aktibo diren biztanle guztiak aintzat hartuz. Kasu horretan, LH I-en irudi negatiboa era esanguratsuan gutxitzen da, lehen mailako ikasketen egonkortasun-adierazle altuenak baieztatzen direnean ere 35 urte baino gutxiago eta, orokorrean, 45 urte baino gehiago duten pertsonen artean.

Aldiz, areagotu egiten da bigarren mailako ikasketak bukatu gabe dituzten emakumeen egoera diferentzial negatiboaren aldaketa. Kasu horretan, enplegu egonkorra duten pertsonen proportzioa biztanleria aktiboan % 53,7tik % 43,4ra erortzen da potentzialki aktiboa den biztanleria osoa aintzat hartzean. Egiaztatu egiten da, 35 urte baino gutxiagoko gizonak salbu, gainerako sexu- eta adin-taldeetan bukatu gabeko bigarren mailako ikasketak dituzten pertsonen enpleguko egonkortasun-adierazleak LH I-ekoak eta lehen mailako ikasketakoak baino gutxiago direla beti.

3 urte edo gehiagoko iraupena duen enplegua eta lehen mailako edo LH I-eko ikasketak dituzten aktiboen proportzioa, sexuaren, adinaren eta prestakuntza-mailaren arabera (%-etan)

Sexua eta adina	Lehen mailako ikasketak	Bigarren	LH I	Lehen mailako	Guztira
		mailakoak amaitu gabe		ikasketak - LH I	
Gizonak < 35	53,0	57,2	39,2	48,7	47,4
Gizonak 35-44	74,2	73,2	83,6	76,4	79,1
Gizonak >= 45	88,9	88,1	85,3	88,4	89,6
Gizonak	76,2	71,2	63,9	73,1	72,1
Emak. < 35	51,8	27,1	54,2	51,8	47,9
Emak. 35-44	58,6	60,1	62,0	59,7	70,3
Emak. >= 45	82,0	90,3	72,7	80,3	82,3
Emakumeak	71,1	53,7	61,8	67,6	65,7
<b>GUZTIRA</b>	<b>74,4</b>	<b>66,9</b>	<b>63,0</b>	<b>71,1</b>	<b>69,4</b>

2.34.b taula

3 urte edo gehiagoko iraupena duen enplegua eta lehen mailako edo LH I-eko ikasketak dituztenen proportzioa, sexuaren, adinaren eta prestakuntza-mailaren arabera.

Biztanleria potentzialki aktiboa  
(%-etan)

Sexua eta adina	Lehen mailako ikasketak	Bigarren	Lehen mailako		
		mailakoak amaitu gabe	LH I	I	Guztira
Gizonak < 35	52,9	57,2	38,7	48,5	46,3
Gizonak 35-44	73,8	73,2	83,6	76,2	78,9
Gizonak >= 45	88,2	88,1	85,3	87,8	88,6
Gizonak	75,8	71,2	63,5	72,7	71,2
Emak. < 35	49,4	23,1	54,2	50,4	46,0
Emak. 35-44	55,8	49,2	56,4	55,4	67,1
Emak. >= 45	74,2	61,6	71,4	73,5	77,9
Emakumeak	65,7	43,4	59,8	63,0	62,7
GUZTIRA	72,1	63,3	61,8	69,0	67,5

LH I-eko ikasketak dituztenen egoera aztertuta, okupazio-egonkortasunaren mailan alde handiak daudela ikus daiteke.

Kasu batzuetan egonkortasun-maila LH I-en batez bestekoa baino askoz handiagoa da. Hori gertatzen da Delineazioko adarrean (% 88,3) eta, neurri txikiagoan, Elektrizitatean (% 78,3), Metalean (% 70,7) eta Administratiboan (% 70,5), Automozioaren batez bestekoetara hurbilduz (% 62,3). Automozioa salbu (2003ko % 85etik erorketa garrantzitsua detektatu zaio), aintzat hartutako adarretako lanpostuetan egonkortasun-mailaren hazkunde nabarmena detektatzen da 2003-2007 aldian.

Ileapainketa-Estetikaren salbuespenarekin (egonkortasun-mailak nabarmen igor ziren lehen aldiz 2003tik 2007ra bitartean), azken bilakaeraren ezaugarri da, aldiz, okupazio egonkor baterako sarrera-mailen egonkortzea 2007an % 50-55eko egonkortasun-mailak islatzen dituzten zenbait adarretan. Jadanik aipaturikoaz gainera, ezaugarri horiek ere Osasungintzako adarretan, LH I-eko Beste adarren eta pareko ikasketen berezkoak dira.

Potentzialki aktiboa den biztanleria osoarekiko datuak aintzat hartzeak ez du berrikuntza aipagarririk ekartzen jadanik eginiko gogoetetan. LH I-eko ikasketetan okupazioaren egonkortasun-maila baxuen atzean adar batzuen errealitate negatiboa estaltzen da, izan ere Osasungintzako adarrean, Ileapainketa-estetika adarrean eta LH I-eko garrantzi gutxiagoko beste adarretan.

2.35 taula.  
3 urte edo gehiagoko iraupena duen enplegua eta LH I-eko ikasketak dituzten aktiboen  
proportzioa, LH I motaren arabera  
(%-etan)

LH I mota	Aktiboak 1999	Aktiboak 2003	Aktiboak 2007	2007 (Pot. aktiboak)
Lanbide-ikaskuntza	84,5	87,1	76,5	76,5
LH I, Administrarritza	38,8	63,9	70,5	67,8
LH I, Metala	79,9	64,9	70,7	70,7
LH I, Elektrizitatea	53,3	54,2	78,3	78,3
LH I, Delineazioa	45,0	65,7	88,3	88,3
LH I, Automozioa	68,2	85,8	62,3	62,3
LH I, Osasungintza	41,3	53,8	54,3	54,3
LH I, Ileapainketa-estetika	34,6	37,5	52,1	52,1
Beste LH I eta parekoak	36,1	50,6	52,0	50,4
<b>LH I, GUZTIRA</b>	<b>52,4</b>	<b>60,9</b>	<b>63,0</b>	<b>61,8</b>

### 3.1.2.- Bigarren mailako ikasketak dituen biztanleria aktiboa

Bigarren mailako ikasketak dituzten pertsonen kasuan, argiagoa da ikasketa-maila handiagoaren eta enplegu egonkorra lortzeko aukeren arteko lotura. Datuek adierazten dutenez, zentzu horretan, LH II-an eragin handiagoa du okupazioaren egonkortasun-egoerak. % 69,1 bigarren mailako ikasketa ez-profesionalen % 65,7ren aldean.

Adierazitako diferentziala berriz, gizonen kasuan bakarrik azaltzen da era orokorrean. 45 urte baino gehiagoko gizonen artean ez da hain agerikoa, 3,4 puntu eskaseko aldea baitu (% 91 % 87,6ren aldean) baina 8 puntura iritsi edo handik gora egiten du 35-44 urteko gizonengan (% 84,7 %76,3ren aldean) baita adin horren azpitik daudenengan ere (% 50,8 % 42,8ren aldean).

Emakumeen kasuan, LH II-n enplegu egonkor baterako sarrera-maila handiagoa 35 urte baino gutxiagokoengan ematen da bakarrik, hori bai, argiago: % 54,7 bigarren mailako ikasketa ez-profesionalen % 38,2ren aldean. 35 urte baino gehiagoko emakumeengan, berriz, bigarren mailako ikasketa ez-profesionala duten aktiboen kasuan lan egonkorrera sarbidea izateko aukera askoz handiagoa da (% 79,4 35-44 urteko emakumeen % 67,3ren aldean; % 81,8 45 urte baino gehiagoko emakumeen 70,1en aldean), eta 2003-2007 aldian errealitate hori sendotzen da. Erakutsitako irudia ez da gehiegi aldatzen biztanleria potentzialki aktiboa osotasunean aintzat hartzen, funtsean adierazitako oinarritzko ezaugarriak gordetzen baitira.

Bigarren mailako ikasketa ez-profesionala duten adin gehieneko emakumeen artean enplegu egonkorra sartzeko ikusitako bultzada indartsuaz gain, LH II-ko titulua duten 35 urte baino gehiagoko emakumeen artean enplegu egonkorreko 2007an ikusi den joera txikiago hori berdin lotzen da sexu-, adin- eta titulazio-talde horretako adierazleen narriadura alderatuarekin. Izan ere, 2007an, 35 urte baino gehiagoko LH II-ko tituludunak dira LH II-ko EAeko kopuru orokorren azpitik —potenzialki aktibo den biztanleriaren talde bakoitzarentzako sexu-, adin- eta prestakuntza-mailaren arabera—, enplegu egonkorra sartzeko maila txarragoak dituzten bakarrak. Aitzitik, bigarren mailako ikasketa ez-profesionalekin potentzialki aktibo dauden pertsonen artean okupazio egonkorreko maila euskal batez bestekoaren gainetik daukan kasu bakarra —erreferentziako sexu-, adin- eta titulazio-taldeetan— titulazio mota hori duten 35 urte eta gehiagoko emakumeei dagokie. Hortaz, argia dirudi 35 urte baino gehiagoko emakumezko biztanleen artean, bigarren mailako ikasketa ez-profesionala duten emakumeek LH II-ko tituludunekin arrakastaz lehiatzen dutela produkzio-sisteman eskura dauden enplegu egonkorretara sartzeko aukeran.

2.36.a taula

3 urte edo gehiagoko iraupena duen enplegua eta bigarren mailako ikasketak dituzten aktiboen proportzioa, sexuaren, adinaren eta prestakuntza-mailaren arabera.  
(%-etan)

Sexua eta adina	bigarren mailako ikasketa ez-profesionalak		Lehen mailako ikasketak	
	LH II	Guztira	LH II	Guztira
Gizonak < 35	42,8	50,8	47,9	47,4
Gizonak 35-44	76,3	84,7	82,1	79,1
Gizonak >= 45	87,6	91,0	89,6	89,6
Gizonak	66,9	73,1	70,9	72,1
Emak. < 35	38,2	54,7	48,4	47,9
Emak. 35-44	79,4	67,3	71,6	70,3
Emak. >= 45	81,8	70,1	76,5	82,3
Emakumeak	63,9	62,1	62,8	65,7
GUZTIRA	65,7	69,1	67,8	69,4

2.36.b taula

3 urte edo gehiagoko iraupena duen enplegua eta bigarren mailako ikasketak dituztenen proportzioa, sexuaren, adinaren eta prestakuntza-mailaren arabera.  
Biztanleria potentzialki aktiboa  
(%-etan)

Sexua eta adina	bigarren mailako ikasketak ez-		Bigarren mailako ikasketak	
	LH II	Guztira	LH II	Guztira

	profesionalak			
Gizonak < 35	39,6	49,9	46,0	46,3
Gizonak 35-44	76,3	84,7	82,1	78,9
Gizonak >= 45	86,6	89,8	88,5	88,6
Gizonak	64,5	72,3	69,4	71,2
Emak. < 35	32,1	51,7	43,7	46,0
Emak. 35-44	79,4	64,8	69,9	67,1
Emak. >= 45	80,8	65,3	73,6	77,9
Emakumeak	59,3	58,9	59,0	62,7
GUZTIRA	62,3	67,3	65,3	67,5

LH II-ko espezialitateen arloan, aktibo landun egonkorren proportzioa askoz handiagoa da batez besteko orokorra baino eta LH II-ko batez bestekoa baino Lanbide Artistikoetan (% 100), Merkataritza Peritutzan (% 100), Lanbide Maisutzan (% 93,9), Automozioan (% 90,5) eta Elektrizitatearen adarrean (% 80,2). Maila handia da, halaber, % 70era hurbilduta edo baita maila hori gaindituta ere, Metalaren, Delineazioaren eta Ileapainketa-Estetikaren adarretan.

Oro har, adar horietan guztietan nabarmen handitu da lanpostu egonkorra duten aktiboen proportzioa, 2003-2007 aldian. Batzuetan hazkundera esanguratsua da, zenbait adarretan gertatzen den bezala, esaterako Lanbide Artistikoetan (% 56,3tik 100era), Merkataritza Peritutzan (% 82tik 100era), Automozioan (%66,7tik 90,5era) edo Ileapainketa-Estetika (% 51,6tik 70,8ra).

Landun egonkorren proportzioa askoz gutxiago da, aldiz, LH II-ko beste adarretan. Ildo horretan, % 55-60 tartean kokatzen dira Administrazio eta Osasungintzako adarrak, LH II-ko Beste adarrak eta parekoak. Joera gainera beherakorra da 2003-2007 aldian aipaturiko lehen bi adarretan. Adar horietan –Administrazioa eta Osasungintza–, adierazleek okerrera egiten dutela egiaztatzen da biztanleria potentzialki aktiboa osotasunean aintzat hartuz, indize horiek 4 puntu inguru erortzen baitira.

#### 2.37 taula.

3 urte edo gehiagoko iraupena duen enplegua duten aktiboen proportzioa, sexuaren eta adinaren arabera  
LH II mota  
(%-etan)

LH II mota	Aktiboak			
	1999	Aktiboak 2003	Aktiboak 2007	2007 (Pot. aktiboak)
Lanbide-maisutza	88,8	89,6	93,9	93,9
Merkataritza-peritutz	73,9	82,0	100	100
LH II, Administraritz	51,7	67,5	58,8	55,0
LH II, Metala	37,1	65,8	73,6	70,9
LH II, Elektrizitatea	46,9	74,8	80,2	80,2
LH II, Delineazioa	48,9	65,7	68,8	68,8
LH II, Automozioa	50,5	66,7	90,5	90,5
LH II, Osasungintza	51,4	60,6	55,9	51,9
LH II, Ileapainketa-Estetika	50,2	51,6	70,8	70,8
Bestelako LH II-ak eta parekoak	40,2	54,3	59,8	58,7
Lanbide artistikoak	100	56,3	100	100
<b>LH II, GUZTIRA</b>	<b>53,3</b>	<b>66,5</b>	<b>69,1</b>	<b>67,3</b>



### 3.1.3.- Hirugarren mailako ikasketak dituen biztanleria aktiboa

Unibertsitateko ikasketen esparruan, 2007an enplegu egonkor baterako sarreraren erdi-mailako hirugarren mailako ikasketen eragin handiago baterako joera sendotzen da. Zentzu horretan, enplegu egonkorra duten goi-mailako tituludunen % 64,6ren aldean, erdi-mailako hirugarren mailako ikasketak dituztenen proportzioa % 75,9ra igotzen da. Erdi-mailako ikasketen aldeko ezberdintasun hori bai gizonengan (% 79,6 % 67,2ren aldean), bai emakumeengan (% 73,4 % 62,2ren aldean) ikusten da.

Erdi-mailako ikasketen aldeko eragina sexu- eta adin-talde guztietako ezaugarri komuna da; 35 urte baino gutxiagokoen artean gertatzen diren ezberdintasun nabarmenak aipagarriak dira (% 62,3 % 37,2ren aldean gizonen artean; % 59,2 % 38,9ren aldean emakumeen artean). Sexuaren eta adinaren arabera zenbait taldek, hala ere, goi-mailako ikasketetarako sarreraren aldeko eragin handiagoa daukate. Horrela gertatzen da 45 urte baino gehiagoko gizonen artean (% 92,8 % 89,5en aldean erdi-mailako ikasketen kasuan) eta, emakumeen artean, 35-44 urteko pertsonen dagokionez (% 81,3 % 76ren aldean).

Orokorrean, erdi-mailako hirugarren mailako ikasketak dituzten pertsonen kokapenak normala dena baino askoz okupazio-egonkortasunaren maila handiagoa ekartzen du (sexuaren eta adinaren arabera talde berdinetan), biztanlerian oro har. Gaur egun ez da berdina gertatzen goi-mailako hirugarren mailako ikasketen kasuan, 35-44 urteko emakumeen kasuan izan ezik (% 81,3 % 70,3ren aldean EAE guztirako erreferentziako sexu- eta adin-taldeetan), goi-mailako hirugarren mailako ikasketetara sarrerak enpleguan 45 urte baino gehiagokoen kasuaren erreferentziaren batez bestekoaren antzeko edo gainerako egonkortasuna bermatzen duenean ere.

Goi-mailako hirugarren mailako ikasketak dituzten eraginpean gehien hartutako taldeak 35 urte baino gutxiagoak eta 35-44 urteko gizonak dira. Kasu horietan, enplegu egonkor baterako sarreraren proportzioa askoz gutxiago da, sexu- eta adin-talde bakoitzean, erdi-mailako hirugarren mailako talde bakoitzerako dagokiona baino, eta EAEko batez besteko orokorra baino ere bai. Azalpenaren arrazoi garrantzitsu bat 2003-2007 aldian hirugarren mailako unibertsitateko ikasketekin 45 urte baino gutxiagoko gizonen artean erregistratzen den egonkortasun-mailaren erorketa garrantzitsua izan daiteke. Enplegu egonkorra duten pertsonen proportzioa % 47,4tik % 37,2ra erortzen da 35 urte baino gutxiagokoen artean eta % 84,9tik % 71,6ra 35-44 urteko gizonen artean.

Orain arte adierazitako joeretatik batek ere ez du zentzua aldatzen biztanleria potentzialki aktiboari osotasunean begiratuz gero. Dena dela, analisisan aktibo potentzialak barne hartu direnez, goi-mailako unibertsitateko tituludunen aldeko ezberdintasuna nabarmen jaisten da 35-44 urteko emakumeen artean, % 77,6ra eta % 76 erdi-mailako hirugarren mailako tituludunen artean.

2.38.a taula

3 urte edo gehiagoko iraupena duen enplegua eta hirugarren mailako ikasketak dituzten aktiboen proportzioa, sexuaren, adinaren eta prestakuntza-mailaren arabera.

(%-etan)

Sexua eta adina	Hirugarren mailako			Guztira
	Erdi-mailako ikasketak	Goi-mailako ikasketak	mailako ikasketak	
Gizonak < 35	62,3	37,2	45,5	47,4
Gizonak 35-44	87,9	71,6	77,6	79,1
Gizonak >= 45	89,5	92,8	91,8	89,6
Gizonak	79,6	67,2	71,3	72,1
Emak. < 35	59,2	38,9	47,5	47,9
Emak. 35-44	76,0	81,3	79,4	70,3
Emak. >= 45	96,2	83,0	89,5	82,3
Emakumeak	73,4	62,2	66,8	65,7
GUZTIRA	75,9	64,6	68,9	69,4

2.38.b taula

3 urte edo gehiagoko iraupena duen enplegua eta hirugarren mailako ikasketak dituztenen proportzioa, sexuaren, adinaren eta prestakuntza-mailaren arabera.

Biztanleria potentzialki aktiboa

(%-etan)

Sexua eta adina	Hirugarren mailako			Guztira
	Erdi-mailako ikasketak	Goi-mailako ikasketak	mailako ikasketak	
Gizonak < 35	62,3	36,9	45,3	46,3
Gizonak 35-44	87,9	71,6	77,6	78,9
Gizonak >= 45	89,5	91,9	91,2	88,6
Gizonak	79,6	66,7	71,0	71,2
Emak. < 35	59,2	38,7	47,4	46,0
Emak. 35-44	76,0	77,6	77,0	67,1
Emak. >= 45	96,2	83,0	89,5	77,9
Emakumeak	73,4	61,0	66,1	62,7
GUZTIRA	75,9	63,8	68,4	67,5

Erdi-mailako unibertsitate-ikasketa mota ezberdinak aintzat hartuz, % 75 eta 80 artean dauden ehunekoekin, euskal biztanleria aktiboaren batez besteko orokorra baino askoz egonkortasun gehiagoko enpleguetara barneratze-maila ikusten da Industriako Ingeniaritza Teknikoko (% 80,5), OHOkoko irakasleen (% 76) eta osasungintzako lanbideetako (% 80,5) adarretan. Adierazleak % 70eko maila ere gainditzen du gainerako Ingeniaritza Teknikoetan (%

70,9) eta Beste erdi-mailako ikasketetan (% 73,2). 2003rekiko, erdi-mailako ikasketa horietan ematen den aurrerakuntza sendoa da hain zuzen aipagarria, ingeniartzekin batera ematen den prozesua, adierazlearen hazkondeek 10 puntu inguru edo gehiago erakusten baitute eta, Industriako Ingeniaritza Teknikoaren kasuan ia 20 puntura iristen da. Ingeniaritzako adar horretan, indizea aldatu egiten da 1999an eta 2003an % 58 eta 62 izatetik gaur egun % 80,5 izatera.

Nahiz eta enpleguaren egonkortasun-adierazleen gorako joera 1999 eta 2007 artean ikusten den ezaugarria izan erdi-mailako hirugarren mailako adar gehienetan, ezin da orokortu. Hori horrela, adierazgarria da enplegu egonkorretara sartzeko mailan 2003-2007 aldiko oreka OHoko Irakasleen artean (% 77,7tik 76ra) eta, oso bereziki, adierazlean erregistratutako erorketa gogorra Osasungintzako Lanbideetan (% 88,2tik 80,5era).

2.39 taula.

3 urte edo gehiagoko iraupena duen enplegua eta erdi-mailako hirugarren mailako ikasketak dituzten aktiboen proportzioa, ikasketa motaren arabera (%-etan)

Erdi-mailako ikasketa mota	Aktiboak 1999	Aktiboak 2003	Aktiboak 2007	2007 (Pot. aktiboak)
Industriako Ingeniaritza Teknikoa	58,0	61,9	80,5	80,5
Beste Ingeniaritza Teknikoak	49,6	57,0	70,9	70,9
OHoko irakasleak	74,7	77,7	76,0	76,0
Osasungintzako lanbideak	79,2	88,2	80,5	80,5
Erdi-mailako beste batzuk	31,7	66,1	73,2	73,2
Erdi-mailako ikasketa espezializatuak	100	84,8	62,2	62,2
Hirugarren mailako erdi-mailakoak, guztira	56,0	71,5	75,9	75,9

Okupazioaren egonkortasun-mailan orokorrean positiboa den joera ere ikusten da 2003-2007 aldian goi-mailako hirugarren mailako ikasketen adar batzuetan. Hobekuntza bereziki adierazgarria da Zuzenbidearen kasuan, enpleguan orekaren adierazlea handituz % 65,8tik 79,2ra. Adierazgarria da ere 2003ko % 50-60 arteko mailatik 2007ko % 65 ingururako hazkundera, Filosofia eta Letren eta Goi-mailako beste ikasketen kasuan. Industriako Ingeniaritzak eta Ekonomiak enplegu egonkorreko sarrera-mailari, aldiz, eutsi egin diote 2003-2007 aldian, baina gainerako Ingeniaritza Teknikoak (% 62,7tik 57,8ra), Informatika, Natur Zientziak eta Zientzia Zehatzak (% 68tik 56,2ra) eta Medikuntza (% 89,5etik 71,8ra) behera erori dira nabarmen. Industriako Ingeniaritzaren kasuan, ikusitako egonkortasun-egoerak ezin du 1999-2003 aldian erregistratutako erorketa gogorra ahaztarazi. Izan ere, Medikuntzaren adarrarekin batera Industriako Ingeniaritza da enplegu egonkorretara laneratze-maila 2007an 1999an baino txikiagoa duen beste adar garrantzitsua.

Erdi-mailako hirugarren mailako ikasketetan ez-bezala, gutxi dira biztanleria aktiboaren artean lan egonkor batera sartzeko EAeko batez besteko orokorra gainditzen duten goi-mailako unibertsitate-ikasketak. Izan ere, Zuzenbidearen eta Medikuntzaren kasuetan bakarrik gainditzen

dira erdi-mailako hirugarren mailako ikasketen esparruan ohizkoa den % 70eko maila. Gainerako kasuetan, adierazlea euskal batez bestekoaren azpitik erortzen da, % 65 inguruan kokatzen delarik Filosofia eta Letretan, Ekonomian eta goi-mailako beste motako ikasketetan.

Kopuruak aldiz, % 55-60ko mailara erortzen dira goi-mailako ingeniarietzi, informatikari, natur zientziei eta zientzia zehatzei lotutako esparruetan.

2.40 taula.

3 urte edo gehiagoko iraupena duen enplegua eta goi-mailako hirugarren mailako ikasketak dituzten aktiboaren proportzioa, ikasketa motaren arabera

Goi-mailako ikasketa mota	Aktiboak 1999	Aktiboak 2003	Aktiboak 2007	2007 (Pot. aktiboak)
Industriako Ingeniaritza	69,7	58,2	58,7	57,7
Beste Ingeniaritza Teknikoak	23,9	62,7	57,8	57,8
Informatika, Natur Zientziak eta Zientzia Zehatzak	51,6	68,0	56,2	56,2
Filosofia eta Letrak	46,6	51,7	65,3	64,4
Ekonomia	48,1	63,0	64,0	64,0
Zuzenbidea	62,1	65,8	79,2	77,2
Medikuntza eta parekoak	72,5	89,5	71,8	71,8
Goi-mailako bestelako ikasketak	41,7	57,9	64,4	62,6
Goi-mailako ikasketa espezializatuak	73,1	51,3	63,0	63,0
Hirugarren mailako goi-mailakoak, guztira	51,3	62,1	64,6	63,8

### 3.2.- Enplegu egonkorra eta teknologikoki modernoa lortzea

Aurreko idatz-zatian egonkortzat hartutako enplegua izateaz gain, teknologia edo lan-bitarteko modernoekin garatzen den enplegua duen biztanleriaren proportzioa izugarri murrizten da. 2007an, proportzio hori EAEko biztanleria aktiboaren % 44,4an kokatzen da. Aipaturiko adierazleak, hala ere, azkeneko urteetan mota horretako lanpostuek duten zabaltzeko joera garrantzitsua erakusten dute. 2003an jadanik hazkunde esanguratsua detektatu bazen ere, adierazleak % 35 ematen zuenean –oso nabarmen 1995eko % 27ren eta 1999ko % 29,5en gainetik-, hazkunde-erritmoak azeleratzeko joera dauka 2003-2007 laurtekoan adierazleak 9,4 puntu gora egin baitu, 1999-2003 aldian 5,5 puntu eta 1995-1999 aldian 2,5 puntu gora egin ondoren.

Aurreikus zitekeenez, kasu horretan enplegu egonkorrera laneratze mota hori eta prestakuntza-mailaren arteko lotura dago zalantzarik gabe. Hortaz, adierazlea lehen mailako

ikasketarik gabeko pertsona aktiboan % 26,3tik unibertsitateko tituludunen artean % 59,6 izatera aldatzen da.

1999. eta 2003. urteetan bezalaxe, gaur egun ere etena ikus daiteke oraindik lehen mailako eta bigarren mailako ikasketak dituztenen artean, izan ere, lehen mailako tituludunetan adierazlea % 34,1 baita, eta bigarren mailako tituludunetan, aldiz, % 43,8. Baina aurreko urteetan bigarren eta hirugarren mailako tituluduneren artean jadanik ikusten zen desberdintasuna are zabalagoa da 2007an (% 43,8 % 59,6ren aldean).

Horrela, azken urteetan hirugarren mailako ikasketak egindakoetan lanpostu egonkor eta teknologikoki modernoek izan duten gorakada deigarria izan da. Haien rolak % 40 inguru gora egiten du 1995ean eta 1999an, % 51,1 2003an eta % 59,6 2007an. Adierazlearen maila bigarren mailako titulazioa dutenen artean ere hazi den arren (1995-2007 aldian % 31,3tik % 43,8ra), unibertsitateko tituluduneren artean erregistratutako hazkundera baino txikiagoa da, kuantitatiboki.

Kualifikazio gutxienerako ikasketen kasuan aintzat hartutako adierazlearen zabaltzeko joerak berriro suspertzeko joera du, hala ere. Horrela, 2003an lehen mailako ikasketak zituzten pertsonen nolabaiteko egonkortzea eman bazen ere (% 25,7 % 23,7ren aldean 1999an), ikasketarik gabeko pertsonen artean baita erori ere (% 21,9tik % 20,8ra), 2003-2007 laurtekoan hazkunde garrantzitsua izan zuen kolektibo horien adierazleak % 26,3an kokatu arte ikasketarik gabeko aktiboan kasuan eta % 34,1 arte lehen mailako ikasketak edo LH I daukaten aktiboan kasuan.

Hortaz, 1995-1999 aldiko paradoxetako bat (prestakuntza-mailaren eta enplegu egonkor eta teknologikoki modernoa dutenen proportzio-igoeraren artean korrelazio negatiboa izatea) berriro gertatu da. Ikuspegi erlatiboan 2003-2007 aldian, trinko hazten da enplegu egonkor eta teknologikoki modernoetara sarrera duten pertsonen proportzioa, ikasketarik ez duten edo lehen mailako ikasketak dituzten pertsonen artean. Horrek aldaketa ekartzen du 1999-2003 aldiarekiko, titulu garrantzitsuagoa duten pertsonen adierazlearen hazkunde sendoa ezaugarri baitu, baita ikasketarik gabeko edo lehen mailako edo LH II-ko ikasketak dituzten pertsonen egonkortzea ere.

Biztanleria potentzialki aktiboak osoki kontuan hartuta ez da askorik aldatzen azterketa, biztanleria aktiboan, oro har, dauden proportzioei bere horretan eutsiz: % 24,3 ikasketarik gabekoetan, % 33,1 lehen mailako tituludunetan, % 42,3 bigarren mailakoetan, eta % 59,2 unibertsitarioetan. Gehienez ere, enplegu teknologikoki modernoa modu egonkorrean lortzean, unibertsitate-tituluduneren eta gainerako guztien arteko aldea pixka bat handiago egin dela aipa daiteke.

#### 2.41 taula.

3 urte edo gehiagoko iraupena duen enplegu modernoa duten aktiboen proportzioaren bilakaera, prestakuntza-mailaren arabera (%-etan)

Prestakuntza-maila	1995	1999	2003	2007	2007 (Pot. aktiboa)
Lehen mailako ikasketarik gabe	16,1	21,9	20,8	26,3	24,3
Lehen mailako ikasketak - LH I	20,1	23,7	25,7	34,1	33,1
Bigarren mailako ikasketak	31,3	31,9	37,3	43,8	42,3
Hirugarren mailako ikasketak	42,2	39,0	51,1	59,6	59,2
<b>GUZTIRA</b>	<b>27,0</b>	<b>29,5</b>	<b>35,0</b>	<b>44,4</b>	<b>43,2</b>

Datuak prestakuntza-mailaren, sexuaren eta adinaren arabera aintzat hartuz, 2007an okupazio egonkor eta teknologikoki modernoaren maila altuenak bigarren edo hirugarren mailako ikasketak eta 35 urte baino gehiago dituzten pertsonak dituztela egiaztatzen da. Kasu horietan, aintzat hartutakoetatik gehienak lan-egoera horretan daude, eta hirugarren mailako ikasketak dituzten 45 urtetik gorako gizonetan gehieneko maila lortzen da (% 82). Hala ere, bigarren mailako ikasketak dituzten 35-44 urteko pertsonen kasuan, zenbatekoak % 50etik behera gutxitzen dira (% 46,6 emakumeen kasuan, eta % 43,8 gizonen kasuan). 2003an ez bezala, azken kasu horretan enplegu egonkor eta teknologikoki modernoetako laneratze-datuak txikiagoak dira gizonen kasuan, 2003-2007 laurtekoaren adierazlean erorketaren ondorioz (% 47,5etik % 43,8ra), horrelako beherakada ez da beste inolako taldeetan gertatzen 35 urte baino gehiagoko bigarren edo hirugarren mailako tituludunen artean.

Gainerako biztanleria aktiboan, enplegu egonkor eta teknologikoki modernoetako laneratze-mailak txikiagoak dira, betiere EAEko batez bestekoaren azpitik kokatzen dira, eta hori dute ere ezaugarri 35 urte baino gutxiago eta bigarren edo hirugarren mailako ikasketak dituzten pertsonen artean. Hala ere, enplegu egonkor eta teknologikoki modernoaren proportzioa % 40 inguruan kokatzen da kolektibo batzuetan. Horrela gertatzen da 35 urte baino gutxiago eta hirugarren mailako ikasketak dituztenei dagokionez, bai gizonen, bai emakumeen kasuan (% 37,5 eta % 39,5, hurrenez hurren). Lehen mailako hezkuntza edo LH I, eta 35-44 urteko gizonen kasuan ere % 39ra heltzen da. Adierazleak % 40 ere gainditzen du lehen mailako baita ikasketarik gabeko 45 urte baino gehiagoko gizonen kasuan ere (% 41,4 eta 43,6, hurrenez hurren).

Ehunekoak 30 inguruko mailara jaisten dira lehen edo bigarren mailako ikasketak dituzten 35 urte baino gutxiagoko gizonen artean, eta lehen mailako ikasketak edo LH I duten 35 urte baino gutxiagoko edo 45 urte baino gehiagoko emakumeen artean ere ematen den egoera da hori.

Adierazlea % 30 azpitik kokatzen da gainerako sexuaren, adinaren eta prestakuntza-mailaren araberrako taldeetan, eta horrek barnean hartzen ditu ikasketarik gabeko pertsona gehienak —45 urte baino gehiagoko gizonak salbu—, lehen mailako ikasketak dituzten 35-44 urteko emakumeak, baita bigarren mailako ikasketak dituzten 35 urte baino gutxiagoko emakumeak ere.

Bestalde, prestakuntza-mailaren, sexuaren eta adinaren araberrako adierazleek adierazten dute enplegu egonkor eta teknologikoki modernoak dituzten pertsonen proportzioa adinarekin bat gorako joera dutela. Biztanleria aktibo osoak —sexu bakoitzean-, % 32tik 33ra gora egiten du 35 urte baino gutxiagokoengan, % 46tik 47,5era 35-44 urtekoengan eta % 50 inguru edo gehiago 45 urte baino gehiagokoengan. Joera orokor hori prestakuntza-maila bakoitzean errepikatzen da, bigarren edo hirugarren mailako ikasketak dituzten emakumeengan salbu. Kasu horretan, EAEkoa baino askoz batez besteko txikiagoa izateaz gainera, enplegu egonkor eta teknologikoki modernoak dauzkaten pertsonen proportzioek eusteko joera dute adina handitzen den heinean.

Eskura dauden datuek ere erakusten dute, 2007an orokorrean, eutsi egiten zaiola 35 urteko mugari lan egonkor eta teknologikoki modernoak lortzeko aukera handitzeko; baita ere baieztatzen da 45 urte baino gehiagoko pertsonen artean adierazleek hazkunde esanguratsua dutela aintzat hartutako prestakuntza-maila bakoitzerako. Igoera hori bereziki deigarria da bigarren eta hirugarren mailako ikasketak dituzten pertsonen kasuan, prozesu diferentzialaren gehieneko eragina baitu unibertsitateko ikasketak dituzten emakumeen artean adinari lotuta.

Generoaren araberrako adierazleak eragiten duen aldea aztertuz gero, oro har, enplegu egonkor eta teknologikoki modernoak lortzen duten emakumeen sarrera-maila gizonena baino txikiagoa da. Diferentziala berriz, nabarmen gutxitu egiten da 2003an gizonen aldeko ehuneko zortzi puntu baino gehiagotik (% 38,5 emakumeen arteko % 30,2ren aldean) 2007ko 3,6ra (% 45,9 % 42,3ren aldean).

Testuinguru horretan, bereziki adierazgarria da hirugarren mailako tituludunen kasuan diferentziala gutxitzea (12,9 puntutik 5,7ra 2003-2007 aldian), enplegu teknologikoki modernoetako unibertsitate-ikasketak dituzten emakumeen egonkortze sendoari esker: % 45,2tik % 57ra 2003-2007 aldian eta gizonen artean % 58,1etik % 62,7ra. Adierazlearen hazkundera bereziki aipagarria da emakume unibertsitario gazteenen artean (% 29,2tik % 39,5era 35 urte baino gutxiagokoengan artean) eta zaharreneen artean (% 67,7tik % 80,6ra 45 urte baino gehiagokoengan artean).

Nahiz eta indar gutxiagorekin, emakumeen artean laneratze-mailaren hazkunde diferentziala handitzeko joera 2003-2007 aldian ikusten den errealitatea da, baita unibertsitateko ikasketak ez dituzten pertsonen artean ere. Horrela, hirugarren mailako ikasketak dituzten aktiboaren arteko diferentziala gizon eta emakumeen artean, enplegu egonkor eta teknologikoki modernoetako laneratze-maila 12,9 puntutik 5,7 puntura gutxitzen da, bigarren mailako ikasketen kasuan 6,6



puntutik 4,2 puntura gutxitzen da, 11,8tik 9,3ra lehenengo mailako tituludunei dagokionez eta 18,9tik 14,7ra ikasketarik gabekoen kasuan. Datu horiek gizonen eta emakumeen arteko diferentzialaren joera beherakorra islatzen jarraitzen dute ikasketa-mailak gora egin ahala. Nahiz eta hirugarren mailako ikasketak dituztenek bigarren mailako ikasketak dituztenen aldean diferentziala handiagoa izateko anomalia daukatela ikusten jarraitzen dugun, hori nabarmen gutxitzen da 2003-2007 aldiaren neurri handian hurbiltzen da bigarren mailako ikasketak dituen biztanleria aktiboan ikusten denera.

2.42.a taula

3 urte edo gehiagoko iraupena duen enplegu modernoa duten aktiboen proportzioa, sexuaren, adinaren eta prestakuntza-mailaren arabera 2007

(%-etan)

Sexua eta adina	Lehen mailako ikasketarik gabe	Lehen mailako ikasketak - LH I	Bigarren mailako ikasketak	Hirugarren mailako ikasketak	Guztira
Gizonak < 35	11,9	30,7	31,1	37,5	32,0
Gizonak 35-44	28,0	39,0	43,8	68,7	47,6
Gizonak >= 45	43,6	41,4	64,7	82,7	57,5
Gizonak	32,2	37,5	45,4	62,7	45,9
Emak. < 35		30,7	26,9	39,5	32,7
Emak. 35-44	25,6	22,2	46,6	66,1	46,2
Emak. >= 45	23,0	30,9	58,8	80,6	49,7
Emakumeak	17,5	28,2	41,3	57,0	42,3
GUZTIRA	26,3	34,1	43,8	59,6	44,4

2.42.b taula

3 urte edo gehiagoko iraupena duen enplegu modernoa duten aktiboen proportzioa, sexuaren, adinaren eta prestakuntza-mailaren arabera 2003

(%-etan)

Sexua eta adina	Lehen mailako ikasketarik gabe	Lehen mailako ikasketak - LH I	Bigarren mailako ikasketak	Hirugarren mailako ikasketak	Guztira
Gizonak < 35	15,3	21,7	28,6	33,1	26,8
Gizonak 35-44	24,6	34,3	47,5	68,1	45,2
Gizonak >= 45	37,2	33,2	52,8	82,0	45,8
Gizonak	28,7	30,3	39,8	58,1	38,5
Emak. < 35		15,1	21,3	29,2	22,4
Emak. 35-44	6,5	24,6	40,0	61,0	39,4
Emak. >= 45	12,7	15,6	56,6	67,7	32,4
Emakumeak	9,8	18,5	33,2	45,2	30,2
GUZTIRA	20,8	25,7	37,3	51,1	35,0

2.42 c taula

3 urte edo gehiagoko iraupena duen enplegu modernoa duten aktiboen proportzioa, sexuaren, adinaren eta prestakuntza-mailaren arabera 1999

(%-etan)

Sexua eta adina	Lehen mailako ikasketarik gabe	Lehen mailako ikasketak - LH I	Bigaren mailako ikasketak	Hirugarren mailako ikasketak	Guztira
Gizonak < 35	16,4	15,3	17,8	17,7	16,8
Gizonak 35-44	25,6	35,3	50,6	62,8	45,2

Gizonak >= 45	26,1	40,3	52,6	71,8	46,2
Gizonak	23,6	29,5	34,3	47,0	33,7
Emak. < 35	9,4	9,2	18,1	16,4	14,6
Emak. 35-44	16,8	17,4	37,9	50,4	32,5
Emak. >= 45	23,3	19,6	52,6	59,8	33,8
Emakumeak	19,1	14,4	27,9	32,1	23,6
GUZTIRA	21,9	23,7	31,9	39,0	29,5

Guztira, enplegu egonkor eta teknologikoki moderno batera sartzeko aukerak gehiago dira oraindik ere gizonengan adin eta prestakuntza-maila guztietarako, bereziki potentzialki aktibo den biztanleria osoa aintzat hartzen bada. 2007an, hala ere, bi egoera ikusten dira enplegu egonkor eta teknologikoki modernotako emakumezkoen laneratze-maila handiak dituztenak: hirugarren mailako ikasketak dituzten 35 urte baino gutxiagoko pertsonak (gizonen % 37,3 emakumezkoen % 39,5en aldean) eta bigarren mailako ikasketak dituzten 35-44 urteko pertsonena (% 43,8 % 45,5en aldean).

#### 2.43 taula

3 urte edo gehiagoko iraupena duen enplegu modernoa dutenen proportzioa, sexuaren, adinaren eta prestakuntza-mailaren arabera. 2007

Biztanleria potentzialki aktiboa  
(%-etan)

Sexua eta adina	Lehen mailako ikasketarik gabe	Lehen mailako ikasketak - LH I	Bigarren mailako ikasketak	Hirugarren mailako ikasketak	Guztira
Gizonak < 35	10,7	30,6	29,9	37,3	31,3
Gizonak 35-44	27,0	38,9	43,8	68,7	47,5
Gizonak >= 45	41,1	41,2	63,9	82,2	56,9
Gizonak	30,2	37,3	44,5	62,4	45,4
Emak. < 35		29,8	24,3	39,5	31,4
Emak. 35-44	20,5	20,6	45,5	64,1	44,1
Emak. >= 45	21,1	28,2	56,6	80,6	47,1
Emakumeak	16,0	26,3	38,8	56,4	40,3
<b>GUZTIRA</b>	24,3	33,1	42,3	59,2	43,2

Gaur egun aintzat hartutako adierazlearekiko generoen artean dagoen distantzia baldintzatzen duten mugimenduek gizon eta emakumeen artean bilakaera-denbora ezberdina islatzen dute. Alde batetik, 1995-2003 aldian gizonen arteko adierazlearen hazkunde handiagorako joera islatzen du, bereziki 35 urte baino gutxiagokoei eta 45 urte baino gehiagokoei dagokionez. Horrela, 1995-2003 aldian, 35 urtetik beherakoetan enplegu egonkor eta teknologikoki modernoa duten gizonen proportzioa 9,2 puntu hazi bada (% 17,6tik % 26,8ra), emakumeetan 4,9 puntu besterik ez, % 17,5etik % 22,4ra. Beste horrenbeste gertatzen da 45 urte edo gehiagokoetan ere: gizonetan 8,7 puntu hazi da adierazlea (% 37,1etik % 45,8ra), baina emakumeetan 5,4 puntu besterik ez (% 27tik % 32,4ra).

35-44 urteko pertsonen kasuan, aipaturiko joera ere egia bihurtzen zen 1995-1999 aldian. Horrela, % 32 eta 32,5 artean emakumeen proportzioa orekatzen zen, eta aldi berean gizonen adierazlea % 39,1etik 45,2ra igotzen zen. 1999-2003 aldian jadanik, hala ere, adin-talde horretan

emakumeen artean hazkunde pixka bat handiagoa ikusi zen, emakumeen okupazio-tasa egonkor eta teknologikoki modernoa handituz % 32,5etik 39,4ra gizonen proportzioa % 45,2an egonkortzearekin batera.

2003-2007 aldian emakumeen arteko adierazlearen joera aldekoena sendotu zen, adin-talde guztietara zabalduz. Era horretan, enplegu egonkor eta teknologikoki modernoetako laneratze-tasa 10,3 puntu handitzen da 35 urte baino gutxiagoko emakumeen artean (% 22,4tik 32,7ra) adin-talde horretan gizonen artean 5,2 handitzen den artean (% 26,8tik 32ra); 35-44 urteko dagokionez hazkundera 6,8 puntukoa da (% 39,4tik 46,2ra) besteen 2,4ren aldean (% 45,2tik 47,6ra); 45 urte baino gehiagokoengan 17,3 puntura iristen da (% 32,4tik 49,7ra) gizonen 11,7ren aldean (% 45,8tik 57,5era). Nahiz eta gizonen laneratze-maila askoz handiagoa den azkeneko adin-talde horretako aktiboen kasuan (% 57,5 gizonen artean eta % 49,7 emakumeen artean), egoera praktikan orekatu egiten da 35-44 urteko pertsonen artean (% 47,6 % 46,2ren aldean), gazteen artean zentzua ere aldatzen delarik (% 32 enplegu egonkor eta teknologikoki modernoa daukaten gizonen kasuan, emakumeen % 32,7ren aldean).

#### 2.44 taula.

3 urte edo gehiagoko iraupena duen enplegu modernoa duten aktiboen proportzioaren bilakaera, sexuaren eta adinaren arabera (%-etan)

Sexua eta adina	1995	1999	2003	2007
<= 35 urteko gizonak	17,6	16,8	26,8	32,0
35-44 urteko gizonak	39,1	45,2	45,2	47,6
>= 45 urteko gizonak	37,1	46,2	45,8	57,5
<b>GIZONAK</b>	<b>29,5</b>	<b>33,7</b>	<b>38,5</b>	<b>45,9</b>
<= 35 urteko emakumeak	17,5	14,6	22,4	32,7
35-44 urteko emakumeak	32,1	32,5	39,4	46,2
>= 45 urteko emakumeak	27,0	33,8	32,4	49,7
<b>EMAKUMEAK</b>	<b>23,3</b>	<b>23,6</b>	<b>30,2</b>	<b>42,3</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>27,0</b>	<b>29,5</b>	<b>35,0</b>	<b>44,4</b>

#### 3.2.1.- Lehen mailako ikasketak dituen biztanleria aktiboa

Prestakuntza-mailaren eta enplegu egonkor eta modernoaren eraginaren arteko lotura kontuan izanda, ez da harritzekoa LH I-eko tituludunek okupazio mota horretan sartzeko erraztasun handiagoa izatea, lehen mailako ikasketak dituztenak baino. % 39,3 % 31,8ren aldean zentzu hertsian, lehen mailako ikasketak dituzten pertsona aktiboen artean.

2007an, hala ere, diferentziala emakumeen biztanlerian bakarrik gertatzen da aipagarria, LH I-ean enplegu egonkor eta teknologikoki modernoak daukaten emakume aktiboen % 41,6 baita lehen mailako ikasketak dituztenen % 22,8ren aldean. Gizonengan berriz, ehunekoek orekatzera jotzen dute: % 37,5 % 36,7ren aldean. Errealitate hori adinaren arabera gizonen posizio ezberdinaren ondorioa da. Hori kontuan izanik, 35-44 urteen artean LH I-ean laneratze-tasak askoz handiagoak diren heinean (% 58,5 % 31ren aldean), kontrako gertatzen da 35 urte baino gutxiago edo 45 urte baino gehiago dituzten gizonen kasuan, laneratze-tasak handiagoak izanik lehen mailako ikasketak dituzten tituludunen artean (% 31,3 % 24,7ren aldean eta % 42,5 % 34,7ren aldean, hurrenez hurren). Emakumeen artean LH I-en alde ikusitako diferentzial sendoa, bestalde, 35 urte baino gehiagokoen ezaugarri da bakarrik (% 43,7 % 13,6ren aldean 35-44 urte artean eta % 52,3 % 26,1en aldean 45 urte baino gehiagokoengan). Ehunekoak parekoagoak dira adin hori baino gutxiagokoengan: % 32,9 LH I-en kasuan % 28,5en aldean lehen mailako ikasketak dituztenen kasuan.

Bestalde, aipatzekoa da, enplegu egonkor eta teknologikoki modernoetako laneratze-maila normalki txikia dela lehen mailako ikasketak edo LH I-eko ikasketak dituztenengan. Sexu- eta adin-talde bakoitzarentzako EAeko adierazle orokorrari dagokionez, ezberdintasuna esanguratsua da orokorrean lehen mailako tituludunen artean, salbu eta 35 urte baino gutxiagoko gizonen kasuan. LH I-eko tituludunen artean, emakumeen kasuan ehunekoak EAeko mailatik gertu kokatzen dira, aldiz, nabarmen maila haren azpitik kokatzen dira 35 urte baino gutxiago eta 45 urte baino gehiago dituzten gizonak. Laneratze-maila berriz, nabarmen altuagoa da (% 58,5 % 47,6ren aldean) 35-44 urteko gizonen artean.

Idatz-zati honetan aipatu beharreko beste ikuspegia da lehen mailako ikasketak dituzten emakumeen artean enplegu egonkor eta teknologikoki modernoetako laneratze-tasak oso txikiak izatea (% 22,8 lehen mailako ikasketen kasuan eta % 17,2 bukatu gabeko bigarren mailakoak dituztenen kasuan). Maila horiek gizonenak baino askoz ere txikiagoak direnez, lehen mailako eta LH I-eko ikasketetan gizonen eta emakumeen artean, oro har, dagoen alde handia nabarmenagoa da (% 36,7 batzuk, % 45,3 besteak). Laneratze-maila, izan ere, handiagoa da emakumearen kasuan LH I-i dagokionez (% 41,6 % 37,5en aldean).

Azpimarratu beharreko beste datua okupazio egonkor eta teknologikoki modernoko adierazlearen bilakaera positiboa da LH I-ean azkeneko urteetan. Horrela 1999an % 27,5etik 2003an % 31,1era handitzen da eta 2007an % 37,5era gizonen artean eta emakumeen artean % 18,6tik % 30,9ra eta % 41,6ra. Emakumearen azken bilakaera aldekoagoa da enplegu egonkorrek eta teknologikoki modernoetara sartzeko gaitasunean gizonak gainditzea ahalbidetzen duena, LH I-eko tituluen bidez. Inguruabar hori lehen aldiz 2007an gertatu da, nahiz eta 2003an adierazlea

jadanik oso antzekoa izan. Enplegu egonkor eta teknologikoki modernoak dituzten pertsonen proportzioa aldiz, gizonen artean 9 puntu handiagoa zen 1999an.

1999-2003 aldian geratu ondoren (% 30etik 30,3ra gizonen artean eta % 13,2tik 13,6ra emakumeen artean), azken garaiko bilakaerak diferentzialaren hobekuntza islatzen du lehen mailako ikasketak dituzten emakumeen laneratze-mailan lehen mailako ikasketen kasuan, 2007an % 36,7ra iritsiz gizonen artean eta % 22,8ra emakumeen artean. Enplegu egonkor eta teknologikoki modernoetako emakumeen laneratzeko zailtasunak gertakari aipagarria dira prestakuntza-maila horretan, ez bakarrik emakumeen artean ikusitako maila txikiarengatik, baita ere 2003-2007 aldian erregistratu den % 20,6tik % 17,2ra erorketarengatik bukatu gabeko bigarren mailako ikasketak dituzten emakumeei dagokionez. Proportzioa % 13,9ra ere jaisten da hasitako bigarren mailako ikasketak bukatu ez dituzten emakume potentzialki aktiboak guztira aintzat hartuz.

2.45.a taula

3 urte edo gehiagoko iraupena duen enplegu modernoa eta lehen mailako edo LH I-eko ikasketak dituzten aktiboen proportzioa, sexuaren, adinaren eta ikasketa-mailaren arabera. 2007 (%-etan)

Sexua eta adina	Lehen mailako ikasketak	Bigarren mailakoak	LH I	Lehen mailako ikasketak - LH	
		amaitu gabe		I	Guztira
Gizonak < 35	31,3	49,6	24,7	30,7	32,0
Gizonak 35-44	31,0	44,7	58,5	39,0	47,6
Gizonak >= 45	42,5	40,1	34,7	41,4	57,5
Gizonak	36,7	45,3	37,5	37,5	45,9
Emak. < 35	28,5	23,2	32,9	30,7	32,7
Emak. 35-44	13,6	13,3	43,7	22,2	46,2
Emak. >= 45	26,1	19,9	52,3	30,9	49,7
Emakumeak	22,8	17,2	41,6	28,2	42,3
<b>GUZTIRA</b>	<b>31,8</b>	<b>38,5</b>	<b>39,3</b>	<b>34,1</b>	<b>44,4</b>

2.45.b taula

3 urte edo gehiagoko iraupena duen enplegu modernoa eta lehen mailako edo LH I-eko ikasketak dituzten aktiboen proportzioa, sexuaren, adinaren eta ikasketa-mailaren arabera. 2003 (%-etan)

Sexua eta adina	Lehen mailako ikasketak	Bigarren mailakoak	LH I	Lehen mailako ikasketak - LH	
		amaitu gabe		I	Guztira
Gizonak < 35	18,3	21,6	26,5	21,7	26,8
Gizonak 35-44	38,7	28,1	26,5	34,3	45,2
Gizonak >= 45	30,7	40,7	44,9	33,2	45,8

Gizonak	30,3	28,6	31,1	30,3	38,5
Emak. < 35	12,1	17,0	19,2	15,1	22,4
Emak. 35-44	16,2	33,6	40,1	24,6	39,4
Emak. >= 45	12,6		33,3	15,6	32,4
Emakumeak	13,6	20,6	30,9	18,5	30,2
GUZTIRA	23,7	26,8	31,0	25,7	35,0

2.45 c taula

3 urte edo gehiagoko iraupena duen enplegu modernoa eta lehen mailako edo LH I-eko ikasketak dituzten aktiboen proportzioa, sexuaren, adinaren eta ikasketa-mailaren arabera. 1999 (%-etan)

Sexua eta adina	Lehen mailako ikasketak	Bigarren	LH I	Lehen mailako	Guztira
		mailakoak amaitu gabe		ikasketak - LH I	
Gizonak < 35	13,5	13,7	19,0	15,3	16,8
Gizonak 35-44	31,3	56,6	34,1	35,3	45,2
Gizonak >= 45	40,1	45,3	39,5	40,3	46,2
Gizonak	30,0	30,5	27,5	29,5	33,7
Emak. < 35	9,4	2,3	11,0	9,2	14,6
Emak. 35-44	11,6	19,5	30,7	17,4	32,5
Emak. >= 45	18,5	13,1	26,9	19,6	33,8
Emakumeak	13,2	7,0	18,6	14,4	23,6
GUZTIRA	23,7	24,2	23,5	23,7	29,5



2.46 taula

3 urte edo gehiagoko iraupena duen enplegu modernoa eta lehen mailako edo LH I-eko ikasketak dituztenen proportzioa, sexuaren, adinaren eta prestakuntza-mailaren arabera.

Biztanleria potentzialki aktiboa. 2007

(%-etan)

Sexua eta adina	Lehen mailako ikasketak	Bigarren	Lehen mailako ikasketak - LH		
		mailakoak amaitu gabe	LH I	I	Guztira
Gizonak < 35	31,3	49,6	24,4	30,6	31,3
Gizonak 35-44	30,8	44,7	58,5	38,9	47,5
Gizonak >= 45	42,2	40,1	34,7	41,2	56,9
Gizonak	36,5	45,3	37,3	37,3	45,4
Emak. < 35	27,2	19,8	32,9	29,8	31,4
Emak. 35-44	12,9	10,9	39,7	20,6	44,1
Emak. >= 45	23,6	13,6	51,3	28,2	47,1
Emakumeak	21,1	13,9	40,3	26,3	40,3
GUZTIRA	30,8	36,4	38,6	33,1	43,2

Nahiz eta lehen mailako ikasketekiko LH I-erako sarrerek enplegu egonkor eta teknologikoki modernoetara sartzeko gaitasun gehiago ekartzen duen orokorrean, laneratze-maila ikerketa horiek aztergai hartzen dituen adarrari baldintzatua dago.

Kasu batzuetan, LH I-en laneratze-gaitasuna handia da gaur egun. Horrela gertatzen da Administrazioaren (% 51,3) eta Elektrizitatearen (% 54,9) adarretan, Metaleko egoera EAEko batez besteko orokorraren mailatik gertu kokatzen delarik, % 42,3rekin. Beste adarretan, hala ere, laneratze-maila nabarmen jaisten da, % 30 eta 35eko ehunekoekin Automozioan, Ileapainketa-Estetikan eta LH I-eko gainerako adarretan. Maila % 30etik ere jaisten da LH I-en kasuan Osasungintzako LH I-en kasuan (% 28,6). Adar horretan, Automozioan bezala, enplegu egonkor eta teknologikoki modernoetako laneratze-mailaren narriadura adierazgarria ikusten da 2003-2007 aldian, laurteko horretan erregistratzen den aldeko bilakaera orokorrarekin kontraste handia eginez gainerako LH I-eko adar guztietan.

2.47 taula.

3 urte edo gehiagoko iraupena duen enplegua eta LH I-eko ikasketak dituzten aktiboaren proportzioa, LH I motaren arabera

(%-etan)

LH I mota	Aktiboak 1999	Aktiboak 2003	Aktiboak 2007	2007 (Pot. aktiboak)
Lanbide-ikaskuntza	37,2	45,9	15,2	15,2

LH I, Administrarritza	21,6	36,9	51,3	49,3
LH I, Metala	35,0	31,2	42,3	42,3
LH I, Elektrizitatea	23,5	21,4	54,9	54,9
LH I, Delineazioa	30,4	14,6		
LH I, Automozioa	29,9	77,9	32,2	32,2
LH I, Osasungintza	20,7	34,2	28,6	28,6
LH I, Ilepainketa- Estetika	8,7	12,3	35,8	35,8
Beste LH I eta parekoak	10,7	21,5	33,1	32,1
<b>LH I, GUZTIRA</b>	<b>23,5</b>	<b>31,0</b>	<b>39,3</b>	<b>38,6</b>

### 3.2.2.- Bigarren mailako ikasketak dituen biztanleria aktiboa

2003an ikusitakoarekin kontraste handia eginez, enplegu egonkor eta teknologikoki modernoetarako sarrera ahalbidetzeari dagokionez bigarren mailako irakaskuntzaren errealitateak ez du ezaugarri LH II-ko eragin positibo orokorra. Bigarren mailako ikasketak dituen biztanleria aktiboaren artean LH II-k laneratze-maila handiagoa 2007an bakarrik bermatzen du 35 urte baino gutxiagoko biztanleengan, % 34,2ri eraginez eta % 25,6 ikasketa ez-profesionalak dituzten gizonen kasuan; emakumeen kasuan berriz % 37,9ri eta % 9ri hurrenez hurren. Gainerako sexu- eta adin-taldeetan laneratze-tasak handiagoak dira bigarren mailako tituludun ez-profesionalen artean.

Hori horrela izanda ere, gazteak nagusi diren demografiaren barne-egitura dela-eta, 2007an oraindik ere LH II-ren laneratze-maila handiagoa da bigarren mailako ikasketa ez-profesionalak baino, azken horiek osorik hartuta: % 44,6 eta beste aldean % 42,6. Errealitate hori garbiago bereizten da emakumeen artean (% 43,6 % 38ren aldean), benetan, gizonen artean zentzuz aldatzen delarik (% 45,2 % 45,8ren aldean bigarren mailako tituludun ez-profesionalen artean). Datu horrek emakumeen arteko LH II-ren eragin diferentzial askoz argiagorako joera historikoa baieztatzen du, laneratze-maila beti izanik bigarren mailako ikasketa ez-profesionala baino askoz handiagoa 1999-2007 aldian; baldintza hori gizonengan 2003an bakarrik nabari da.

Esan beharra dago, hala ere, potentzialki aktibo diren gizon guztiak aintzat hartzen badira ere, 2007an LH II-ko laneratze-maila handiagoak aipagarri izango zirela % 44,7 proportzioarekin LH II-ko titulua daukaten gizonen artean eta % 44,2 bigarren mailako titulu ez-profesionala dutenen artean. Izan ere, benetan gertatzen dena, nahiz eta LH II-ko titulu mota batzuk dauzkaten laneratze-maila era deigarrian erortzen den -zehazki 45 urte baino gehiagoko emakumeen artean eta 35-44 urteko gizonen artean-, 2007an ikusitako egoeraren hondatze alderatua ez da LH II-ko laneratze-mailaren erorketak eragindakoa, baizik eta bigarren mailako ikasketa ez-profesionalak dituen biztanleria aktiboaren enplegu egonkor eta teknologikoki modernoetarako sarrera askoz erritmo biziagoan gertatzea.

Bigarren mailako ikasketa ez-profesionalak dituen biztanleria aktiboaren adierazleen hobekuntza bereziki nabaria da 45 urte baino gehiagoko pertsonen kasuan, emakumeetan % 50,8tik % 64,6ra igotzen baita eta % 42,2tik % 67ra gizonen artean, baina adierazgarria da ere 35-44 urteko emakumeen artean (% 35,9tik % 47ra hazkundearekin enplegu egonkor eta teknologikoki modernoetarako laneratze-mailari dagokionez). Aldeko joera horren salbuespena bigarren mailako tituludun ez-profesionalen artean 35 urte baino gutxiagoko emakumeak dira, 2003an jadanik txikia zen ehunekoa, % 15,8, are beherago erortzen baita, % 9ra alegia.

Aurrera egin bada ere, bigarren mailako ikasketa ez-profesionalek ezaugarri dute oraindik ere enplegu egonkor eta teknologikoki modernoetarako laneratze-maila ez izatea EAEko adierazle orokorrak baino hobeak argi eta garbi sexu- eta adin-taldeen arabera, ez behintzat 45 urte baino gutxiagoko biztanlerian.

35 urte baino gutxiagokoen artean, tasak nabarmen urruntzen dira EAEko ehunekoetatik, bereziki emakumeen artean. 45 urte baino gehiagokoengan, berriz, handitu egiten dira laneratze-mailak EAEko erreferentzia kopuruekiko 2007an.

Nahiz eta intentsitate gutxiagorekin, 45 urte baino gehiagokoen laneratze-tasak EAEko erreferentziazko adierazleen ginetik daude LH II-ri dagokionez. Hala ere LH II-ko berezko ezaugarria da, mota honetako azterlanak enplegu egonkor eta teknologikoki modernoetarako laneratze-ehunekoak aintzat hartutako sexu- eta adin-talde bakoitzarentzako EAEko biztanleria aktiboarenak osorik baino handiagoak izanagatik aipagarri izatea, 35-44 urteko gizonen artean salbu.

#### 2.48 a taula

3 urte edo gehiagoko iraupena duen enplegu modernoa eta bigarren mailako ikasketak dituzten aktiboen proportzioa, sexuaren, adinaren eta prestakuntza-mailaren arabera 2007 (%-etan)

Sexua eta adina	Lanbide- arlokoak ez diren bigarren mailako		Bigarren mailako	
	ikasketak	LH II	ikasketak	Guztira
Gizonak < 35	25,6	34,2	31,1	32,0
Gizonak 35-44	47,7	42,0	43,8	47,6
Gizonak >= 45	67,0	63,1	64,7	57,5
Gizonak	45,8	45,2	45,4	45,9
Emak. < 35	9,0	37,9	26,9	32,7
Emak. 35-44	47,0	46,4	46,6	46,2
Emak. >= 45	64,6	51,8	58,8	49,7
Emakumeak	38,0	43,6	41,3	42,3

GUZTIRA	42,6	44,6	43,8	44,4
---------	------	------	------	------

2.48 b taula

3 urte edo gehiagoko iraupena duen enplegu modernoa eta bigarren mailako ikasketak dituzten aktiboen proportzioa, sexuaren, adinaren eta prestakuntza-mailaren arabera 2003 (%-etan)

Sexua eta adina	Lanbide- arlokoak ez diren bigarren mailako		Bigarren mailako ikasketak	Guztira
	ikasketak	LH II		
Gizonak < 35	19,3	33,4	28,6	26,8
Gizonak 35-44	45,2	48,7	47,5	45,2
Gizonak >= 45	42,2	61,0	52,8	45,8
Gizonak	32,6	44,0	39,8	38,5
Emak. < 35	15,8	25,8	21,3	22,4
Emak. 35-44	35,9	42,7	40,0	39,4
Emak. >= 45	50,8	64,8	56,6	32,4
Emakumeak	29,0	36,8	33,2	30,2
GUZTIRA	31,0	41,6	37,3	35,0

2.48 c taula

3 urte edo gehiagoko iraupena duen enplegu modernoa eta bigarren mailako ikasketak dituzten aktiboen proportzioa, sexuaren, adinaren eta prestakuntza-mailaren arabera 1999 (%-etan)

Sexua eta adina	Lanbide-arlokoak ez diren bigarren mailako ikasketak		Bigarren mailako ikasketak	
		LH II		Guztira
Gizonak < 35	13,1	20,3	17,8	16,8
Gizonak 35-44	49,8	51,5	50,6	45,2
Gizonak >= 45	54,4	50,7	52,6	46,2
Gizonak	35,8	33,2	34,3	33,7
Emak. < 35	9,8	23,3	18,1	14,6
Emak. 35-44	35,8	39,7	37,9	32,5
Emak. >= 45	50,1	59,1	52,6	33,8
Emakumeak	25,4	29,9	27,9	23,6
GUZTIRA	31,8	32,0	31,9	29,5

2.49 taula

3 urte edo gehiagoko iraupena duen enplegu modernoa eta bigarren mailako ikasketak dituztenen proportzioa, sexuaren, adinaren eta prestakuntza-mailaren arabera. Biztanleria potentzialki aktiboa. 2007 (%-etan)

Sexua eta adina	Lanbide-arlokoak ez diren bigarren mailako ikasketak		Bigarren mailako ikasketak	
		LH II		Guztira
Gizonak < 35	23,7	33,6	29,9	31,3
Gizonak 35-44	47,7	42,0	43,8	47,5
Gizonak >= 45	66,2	62,3	63,9	56,9
Gizonak	44,2	44,7	44,5	45,4
Emak. < 35	7,6	35,8	24,3	31,4
Emak. 35-44	47,0	44,7	45,5	44,1
Emak. >= 45	63,8	48,3	56,6	47,1
Emakumeak	35,3	41,3	38,8	40,3
GUZTIRA	40,4	43,5	42,3	43,2

LH I-en bezala, lan egonkorraren eta teknologikoki modernoaren eragin erlatiboa oso bestelakoa da LH II-ko adarraren arabera. Kasu batzuetan, adibidez, eragina erlatiboki txikia da. Horixe gertatzen da honako adar hauetan: Elektrizitatean (% 35,9), Osasun-arloan (% 37,6) eta

beste LH II eta parekoetan (% 36,4). Beste adar hauetan berriz, EAEko adierazle orokorraren inguruan edo azpitik daude: Administrazioan (% 44,8), Metalaren adarrean (% 41,6), Delineazioan (% 44) eta Lanbide Artistikoetan (% 41,9). Ia salbuespenik gabe, 2003. urtearekin alderatuz, laneratze-mailek egonkortzeko edo jaisteko joera dute adar horietan.

Dena den, zifrek nabarmen gainditzen dute laneratze-adierazle orokorra EAEko enplegu moderno eta teknologikoki modernoetan, hala nola Lanbide Maisutza (% 76,6), Merkataritza Peritutzan (% 72,4), Automozioan (% 63,9) eta Ileapainketa-Estetikan (% 60,5). 2003-2007 laurtekoan, Merkataritza Peritutzan izan ezik, kasu horretan beherakada txikia gertatzen baita, gainerako kasuetan laneratze-mailak gora egiten duela ikus daiteke, eta bereziki Ileapainketa-Estetikaren adarrean eta Automozioaren adarrean (2003. urtean zenbatekoak % 30etik beherakoak ziren). Aipaturiko emaitza horiek guztiak ez dira aldatzen biztanleria potentzialki aktiboa kontuan hartuta, nahiz hartu gabe.

Aztertutako zenbait adarretan ikusitako joerak positiboak izan arren, 2003-2007 aldian LH II-ko potentzialaren laneratze-mailak beherakada handia izan duela adierazten dute aztertutako datuek. Beherakada horrek lotura dauka azken lau urteotan LH I-eko adar gehienek lana aurkitzeko izan duten geldialdiarekin edo gaitasunik ezarekin. 2003. urtean LH I-eko adar gehienetan laneratze-mailak EAEko adierazlearen gainetik bazeuden, gaur egun egoera hori prestakuntza-adar jakin batzuetan baino ez da gertatzen.

#### 2.50 taula

3 urte edo gehiagoko iraupena duen enplegu modernoa eta LH II-ko ikasketak dituzten aktiboen proportzioa, LH II motaren arabera 2007 (%-etan)

LH II mota	Aktiboak 1999	Aktiboak 2003	Aktiboak 2003	2007 (Pot. aktiboak)
Lanbide-maisutza	54,1	59,1	76,6	76,6
Merkataritza-peritutza	51,7	75,8	72,4	72,4
LH II, Administrazioa	40,3	45,7	44,8	41,9
LH II, Metala	16,2	40,8	41,6	40,1
LH II, Elektrizitatea	19,0	39,2	35,9	35,9
LH II, Delineazioa	34,8	55,4	44,0	44,0
LH II, Automozioa	32,9	20,6	63,9	63,9
LH II, Osasun-arloa	20,6	38,3	37,6	34,9
LH II, Ileapainketa-Estetika	14,5	27,1	60,5	60,5
Bestelako LH II-ak eta parekoak	22,4	33,2	36,4	35,7
Lanbide artistikoak	53,5	56,3	41,9	41,9

LH II, GUZTIRA	32,0	41,6	44,6	43,5
----------------	------	------	------	------

### 3.2.3.- Hirugarren mailako ikasketak dituen biztanleria aktiboa

Hirugarren mailako ikasketen eremuan, 2007. urtean ez dago 2003. urtean izandako anbigutasunik edo konplexutasunik (2003. urtean egonkorak eta teknologikoki modernoak ziren enpleguen proportzioek ez zuten argi adierazten biztanleria aktiboan unibertsitateko erdi-mailako edo goi-mailako ikasketek izan zezaketen eraginik). 2007. urtean argi dago erdi-mailako ikasketek laneratze-ahalmen handia dutela: enplegu egonkorretan eta teknologikoki modernoetan hirugarren mailako goi-mailako tituludunak % 56,8 dira, eta hirugarren mailako erdi-mailakoak % 64,3. Generoaren arabera diferentzialak kasu guztietan ere joera orokorrari jarraitzen dio, baina emaitza zertxobait handiagoa da gizonen artean: erdi-mailako ikasketak dituztenen artean % 68,9 gizonen dagokie eta % 61,2 emakumeen, goi-mailako ikasketak dituztenen artean berriz, % 59,6 gizonen eta % 54 emakumeen. 2007. urtean, 35-44 urteko emakumeen artean aztertzen ari garen enplegu motaren integrazio-maila handiagoa da goi-mailako ikasketak dituzten unibertsitateko tituludunen artean.

2003-2007 laurtekoan izandako bilakaerak asko baldintzatu ditu emaitza horiek: laurteko horretan erdi-mailako tituludunen laneratze-mailak orokorrean gora egin du, 35-44 urteko emakumeen artean izan ezik. Goi-mailako tituludunen artean laneratze-mailak gora egin badu ere, 45 urtetik beherako gizonen artean izan ezik, igoera ez da erdi-mailako tituludunena bezain handia izan. Aztertutako bilakaerak 1999. urtetik 2003. urtera ikusitako joera bat sendotzen du. Enplegu moderno eta teknologikoki modernoaren okupazio-tasen igoera askoz ere handiagoa zen erdi-mailako ikasketak zituzten pertsonen artean laurteko horretan ere, 35 urteko gizonen artean izan ezik.

1999-2007 aldian ikusitako aldaketak beraz, erdi-mailako ikasketen aldekoak dira, oro har. Horrela, 1999. urtean ikasketa mota horiek dituen biztanleria aktiboaren % 37,4k enplegu egonkorra eta teknologikoki modernoa bazuen, 2003. urtean % 53,8ra igo zen enplegu mota hori zutenen kopurua eta 2007. urtean berriz, % 64,3ra. Goi-mailako ikasketak dituen biztanleriari dagokionez, 1999. urtean laneratze-tasa % 40,1 bazen, 2003. urtean zenbateko hori % 49,6ra igo zen eta 2007. urtean berriz, igoera areagotu egin zen, % 56,8ra. 2007. urtean, lehen aldiz, erdi-mailako tituludunen artean laneratze-tasa handiagoa da bai gizonetan, bai emakumeetan. 1999. urtetik erdi-mailako tituludunetan emakumeen laneratze-tasa orokorra handiagoa bada ere, 2003. urtean goi-mailako tituludunen gizonen laneratze-tasa handiagoa zen.

Enplegu egonkorra eta teknologikoki modernoa duten emakumeen proportzioa oso handia da, oro har, unibertsitateko tituludunetan; alabaina, adinaren eta ikasketa-mailaren arabera

zenbatekoak alderatuz gero, zifrak ez dira betiere emakumearen aldekoak. Izan ere, biztanleria unibertsitarioak enplegu egonkorra eta teknologikoki modernoetan duen laneratze-maila oraindik ere nahiko handia da 2007. urtean gizonen artean (% 62,7, emakumeetan % 57 izanik). Dena dela, ezin aipatu gabe utzi aldaketa berri batzuk.

Oro har, hirugarren mailako goi-mailako ikasketei dagokienez, emakumeak produkzio-sisteman sartzeko eta aurrera egiteko izan duen gaitasuna (egonkorrak eta teknologikoki modernoak diren enpleguetan) erabakigarria da 2003-2007 aldian. Laneratze-tasa % 40,6tik % 54ra igo da mota horretako ikasketak dituzten emakumeen artean, eta gizonen artean, aldiz, bere horretan jarraitu du (% 58,9tik % 59,6ra baino ez da igo aldi horretan). Goi-mailako unibertsitarioak diren 45 urtez azpiko emakumeen artean igoerak nabarmenak dira, baina aztergai ditugun gizonen artean, laneratze-tasek behera egin dute azken laurtekoan. Goi-mailako unibertsitate-ikasketei dagokienez, enplegu egonkor eta teknologikoki modernoetako laneratze-adierazlea handiagoa da emakumeetan 2007an, 45 urtetik gorakoetan izan ezik. 1999. eta 2003. urteetan adin guztietan ere gizonen laneratze-tasa nabarmen nagusi zen, eta beraz, aldaketa handia da.

Hirugarren mailako erdi-mailako ikasketak dituzten emakumeen artean laneratze-tasak gora egin badu ere, % 52,1etik % 61,2ra, igoera ez da goi-mailako ikasketetan bezain handia, % 56,3tik % 68,9ra (erdi-mailako unibertsitate-titulua duten gizonena baino askoz txikiagoa). 45 urtez azpiko gizonen laneratze-mailaren igoera handiari, 35-44 urteko emakumeen beherakada gehitu behar zaio. Dena dela, 2007. urtean 35-44 urtekoetan bakarrik ikusten da erdi-mailako titulua duten gizonen artean laneratze-maila handiagoa. Izan ere, goi-mailako unibertsitate-ikasketak dituztenetan ez bezala, 1999. urtean eta 2003. urtean hirugarren mailako erdi-mailako ikasketak dituzten emakumeen integrazio-adierazleak gizonen adierazleen mailetatik oso hurbil zeuden.

Bestalde, sexuaren eta adinaren arabera EAEko talde bakoitzeko batez besteko datuekin alderatuta, enplegu egonkor eta teknologikoki modernoetako laneratze-maila handiena unibertsitateko tituludunek dute, adina eta ikasketa mota edozein delarik ere. Alderik nabarmenena 35 urte edo gehiago dituztenetan gertatzen da, edozein motatako unibertsitateko tituludunen arteko laneratze-maila % 60 inguru edo hortik gorakoa delarik. 35 urtez azpikoetan, erdi-mailako ikasketak dituztenen kasuan unibertsitarioen aldeko diferentziak ez du aldaketarik izan eta % 47 eta % 48 inguru dago (oinarrizko tasa). 35 urtez azpikoetan goi-mailako tituludunen laneratze-maila adin-talde horri dagokion EAEko batez bestekoarekin bat dator, bi kasuetan % 32-34 inguru.

#### 2.51 a taula

3 urte edo gehiagoko iraupena duen enplegu moderno eta hirugarren mailako ikasketak dituzten aktiboen proportzioa, sexuaren, adinaren eta prestakuntza-mailaren arabera 2007 (%-etan)

Sexua eta adina	Erdi-mailako	Goi-mailako	Hirugarren	Guztira
-----------------	--------------	-------------	------------	---------



	ikasketak	ikasketak	mailako ikasketak	
Gizonak < 35	48,2	32,3	37,5	32,0
Gizonak 35-44	74,5	65,3	68,7	47,6
Gizonak >= 45	85,3	81,6	82,7	57,5
Gizonak	68,9	59,6	62,7	45,9
Emak. < 35	46,7	34,3	39,5	32,7
Emak. 35-44	59,8	69,5	66,1	46,2
Emak. >= 45	88,2	73,1	80,6	49,7
Emakumeak	61,2	54,0	57,0	42,3
GUZTIRA	64,3	56,8	59,6	44,4

2.51 b taula

3 urte edo gehiagoko iraupena duen enplegu modernoa eta hirugarren mailako ikasketak dituzten aktiboen proportzioa, sexuaren, adinaren eta prestakuntza-mailaren arabera 2003 (%-etan)

Sexua eta adina	Erdi-mailako ikasketak	Goi-mailako ikasketak	Hirugarren mailako ikasketak	Guztira
Gizonak < 35	25,5	36,3	33,1	26,8
Gizonak 35-44	64,4	69,9	68,1	45,2
Gizonak >= 45	87,2	79,5	82,0	45,8
Gizonak	56,3	58,9	58,1	38,5
Emak. < 35	33,1	27,4	29,2	22,4
Emak. 35-44	64,8	57,6	61,0	39,4
Emak. >= 45	66,2	69,8	67,7	32,4
Emakumeak	52,1	40,6	45,2	30,2
GUZTIRA	53,8	49,6	51,1	35,0

2.51 c taula

3 urte edo gehiagoko iraupena duen enplegu modernoa eta hirugarren mailako ikasketak dituzten aktiboen proportzioa, sexuaren, adinaren eta prestakuntza-mailaren arabera 1999 (%-etan)

Sexua eta adina	Erdi-mailako ikasketak	Goi-mailako ikasketak	Hirugarren mailako ikasketak	Guztira
Gizonak < 35	24,4	15,2	17,7	16,8
Gizonak 35-44	50,9	68,0	62,8	45,2
Gizonak >= 45	57,3	79,2	71,8	46,2
Gizonak	43,1	48,7	47,0	33,7
Emak. < 35	17,7	15,4	16,4	14,6
Emak. 35-44	48,2	52,7	50,4	32,5
Emak. >= 45	58,2	63,1	59,8	33,8
Emakumeak	34,3	29,9	32,1	23,6
GUZTIRA	37,4	40,1	39,0	29,5

2.52 taula

3 urte edo gehiagoko iraupena duen enplegu modernoa eta hirugarren mailako ikasketak dituztenen proportzioa, sexuaren, adinaren eta prestakuntza-mailaren arabera.

Biztanleria potentzialki aktiboa

(%-etan)

2007

Sexua eta adina	Erdi-mailako ikasketak	Goi-mailako ikasketak	Hirugarren mailako ikasketak	Guztira
-----------------	------------------------	-----------------------	------------------------------	---------

Gizonak < 35	48,2	32,0	37,3	31,3
Gizonak 35-44	74,5	65,3	68,7	47,5
Gizonak >= 45	85,3	80,8	82,2	56,9
Gizonak	68,9	59,2	62,4	45,4
Emak. < 35	46,7	34,1	39,5	31,4
Emak. 35-44	59,8	66,3	64,1	44,1
Emak. >= 45	88,2	73,1	80,6	47,1
Emakumeak	61,2	53,0	56,4	40,3
GUZTIRA	64,3	56,1	59,2	43,2

Hirugarren mailako erdi-mailako ikasketa motak aintzat hartuta, enplegu egonkorra eta teknologikoki modernoa lortzeko maila handiena dutenak Osasun-arloko lanbideak dira berriz ere, % 77,9. Industria Ingeniaritza Teknikoan ere zenbatekoak oso handiak dira % 70,5, eta gainerako adarretan adierazlea % 60 inguru da. Nolanahi ere, 1999-2007 aldian erdi-mailako tituludunen laneratze-adierazleak nabarmen hobetu izanak, adar guztiei eragiten die onera.

2.53 taula

3 urte edo gehiagoko iraupena duen enplegu modernoa eta hirugarren mailako erdi-mailako ikasketak dituzten aktiboen proportzioa, ikasketa motaren arabera (%-etan)

Erdi-mailako ikasketa mota	Aktiboak 1999	Aktiboak 2003	Aktiboak 2007	2007 (Pot. aktiboak)
Industriako Ingeniaritza Teknikoa	45,1	50,0	70,5	70,5
Beste Ingeniaritza Teknikoak	31,2	50,1	60,4	60,4
OHOko irakasleak	45,5	55,0	59,1	59,1
Osasun-arloko lanbideak	53,4	68,9	77,9	77,9
Erdi-mailako beste batzuk	21,7	49,3	59,7	59,7
Erdi-mailako ikasketa espezializatuak	100	55,0	62,2	62,2
Hirugarren mailako erdi- mailakoak, guztira	37,4	53,8	64,3	64,3

Goi-mailako unibertsitate-ikasketei dagokienez, adar guztietan lanpostu egonkor eta teknologikoki modernoak lortzeko adierazlearen % 50eko maila gainditu egin da.

Ingeniaritzetan (Industria Ingeniaritzan % 52,5 eta gainerako goi-mailako Ingeniaritzetan % 51,6), Informatikan, Natur Zientzietan eta Zientzia Zehatzetan (% 51,4), Ekonomian (% 54,2) eta hirugarren mailako beste ikasketetan (% 54,8), eta beraz, maila % 50 eta % 55 artekoa da. Filosofia eta Letren kasuan proportzioa % 59,5era igotzen da. 2007. urtean ere, maila handiena Medikuntzari dagokio, horrelako enplegu egonkor eta teknologikoki modernoetan lan egiten duten aktiboen % 67,1 bertan ari baita, eta Zuzenbideari berriz, % 66,8 dagokio.

Azken bilakaera desberdina da adarraren arabera. Alde batetik, nabarmentzekoa da 2003. urtean % 50 baino goragoko maila zutenek ez dutela bilakaera positiborik izan. Horrela, 2003-2007 aldian goi-mailako Ingeniaritzetan, Informatikan, Natur Zientzietan eta Zientzia Zehatzetan, eta Medikuntzan zifrek jaisteko joera dute (Medikuntzaren adierazlea % 74,6tik % 67,1era jaisten da, adibidez), bere horretan eusten diote edo oso gutxi egiten dute gora. Gora egiten duten adar

bakarrak Ekonomiarenak (% 50,8tik % 54,2ra) eta batez ere, Zuzenbidearenak (% 58,5etik % 66,8ra) dira.

2003. urtean laneratze-maila txikiagoa izan duten adarretan ordea, 2007. urtean hobekuntza garrantzitsuak ikus daitezke. Horrela, 2003-2007 aldian enplegu egonkor eta teknologikoki modernoetan goi-mailako unibertsitateko tituludunen proportzioa % 37tik % 54,8ra igotzen da hirugarren mailako beste ikasketak dituztenen kasuan, eta Filosofia eta Letrei dagokien kasuan berriz, % 37,3tik % 59,5era.

2.54 taula

3 urte edo gehiagoko iraupena duen enplegu modernoa eta hirugarren mailako goi-mailako ikasketak dituzten aktiboaren proportzioa, ikasketa motaren arabera (%-etan)

Goi-mailako ikasketa mota	1999	2003	2007	2007 (Pot. aktiboak)
Industriako Ingeniaritza	66,0	51,9	52,5	51,6
Bestelako ingeniariak	17,3	54,3	51,6	51,6
Informatika, Natur Zientziak eta Zientzia Zehatzak	38,5	51,5	51,4	51,4
Filosofia eta letrak	33,0	37,3	59,5	58,7
Ekonomia	43,6	50,8	54,2	54,2
Zuzenbidea	53,4	58,5	66,8	65,1
Medikuntza eta parekoak	65,1	74,6	67,1	67,1
Hirugarren mailako beste ikasketak batzuk	24,0	37,0	54,8	53,3
Goi-mailako ikasketak espezializatuak	45,3	48,7	58,8	58,8
Hirugarren mailako goi-mailakoak, guztira	40,1	49,6	56,8	56,1

### 3.3.- Prestakuntza arautua eta enplegu mota, lanbidearen arabera

Gure lan-merkatuan oso garbi atzematen da prestakuntza arautuak enplegua baldintzatzen duela, aldagai soziologiko horrek produkzio-lanaren zatiketa guztiz baldintzatzen baitu. Esandakoa egiaztatzeko, biztanleria aktiboaren lanbide-okupazioaren eremuak aztertzea nahikoa dugu, prestakuntza arautuaren mailaren arabera.

Horrekin lotuta, lehen mailako ikasketarik gabeko biztanleria aktiboa kualifikazio txikieneko industriako eta zerbitzuetako lanbideetara bideratzen dela ikus dezakegu. Talde horretan gehienak, % 86,7 (2003. urteko % 80,7 baino gehiago), industriako, eraikuntzako, eta lehen sektoreko lanbide kualifikatuen artean daude (% 28,3), zerbitzu-sektoreko lan kualifikatuetan (% 17,8), makinagintzari loturiko hainbat lanbidetan (% 18,3) eta kualifikatu gabeko lanetan (% 22,3).

Lehen mailako edo LH I-eko ikasketak dituen biztanleriaren lanbide-banaketa begiratuta, aurreko lau lanbide-sektore handietan metatzen direla ikusiko dugu. 2007. urtean sektore horietako aktiboen proportzioa (% 78,8) 2003. urtekoa baino txikiagoa da (% 81,3). Gaur egun, kolektiboaren barne-banaketa makineriako operadoreen kasuan (% 19,1) eta zerbitzu-sektoreko langile kualifikatuaren kasuan (% 16,5) ikasketarik gabeko langileen antzekoa da, kualifikatu gabeko langileen kasutik hurbil (% 19,9). Industriako, eraikuntzako eta lehen sektoreko lanbide kualifikatuaren garrantzi erlatiboak, aldiz, behera egiten du (% 23,3). Lehen mailako ikasketarik ez dutenekin alderatuta, lehen mailako ikasketak edo LH I-eko ikasketak dituztenen artean teknikarien eta enplegatu administrariaren garrantzi erlatiboa handitu egiten da (% 11, % 3,3ren aldean).

Bigarren mailako ikasketak dituztenen artean, teknikariek eta enplegatu administrariak garrantzi erlatibo handia dute, egoera horretako aktiboen % 30,6 ordezkatzeko dituzten talde profesionalak izanik. Zenbatekoa 2003. urteko % 32,2 baino txikiagoa bada ere, lehen mailako ikasketak dituzten aktiboen % 11 eta lehen mailako ikasketarik ez duten aktiboen % 3,3 baino askoz handiagoa da. Bigarren mailako tituludunetan garrantzia duten beste talde profesionalak honako hauek dira: alde batetik, lehen sektoreko, industriako edo eraikuntzako edo makineria operazioetako lanbide kualifikatuak, kolektiboaren % 33,2 lanbide horietan metatuz (lehen mailako edo LH I-eko ikasketak dituzten aktiboen artean % 42,4 eta ikasketarik gabeko aktiboetan % 46,6); bestetik, zerbitzuetako lan kualifikatuekin lotutako lanbideak, kolektiboko aktiboen % 18 direla (lehen mailako ikasketak dituztenen % 16,5eko eta ikasketarik gabeko biztanleria aktiboaren % 17,8ko proportzioaren antzeko mailan).

Azkenik, goi-mailako ikasketak dituztenetan, teknikariak eta zuzendariak dira nagusi, aztertutako aktiboen % 69,9 izanik (bigarren mailako tituludunetan % 23,5 eta gainerako biztanleria aktiboan % 10etik behera).

Aipatu dugun bezala eta aktiboak bakarrik kontuan hartzen baditugu, lan egiten ez dutenen intzidentzia antzekoa da prestakuntza-maila edozein delarik ere, % 5,7 eta % 6,2 artekoa. Biztanleria potentzialki aktiboa kontuan hartzen badugu, ordea, prestakuntza-mailarekin lotura handiagoa dagoela ikusten da: ikasketarik ez duten artean lan egiten ez dutenen tasa % 12,6 bada, lehen mailako eta bigarren mailako ikasketak dituztenen artean lan egiten ez dutenen tasa % 8,5-9,5 da, eta unibertsitarioena, berriz, % 6,5.

1999-2007 aldian ikusitako zenbait aldaketa aztertu ondoren, biztanleria aktiboari dagozkion hainbat alderdi deigarri aipatu behar dira:

- \* 2003-2007 aldian teknikariek eta zuzendariak izan duten garrantzi erlatiboaren gorakada, % 25,7tik % 31,5era, eta hori kontrastean dago 1999-2003 laurtekoan izan zuen beherakada txikiarekin (1999. urtean % 26,7 zen).
- \* Aitzitik, enplegatu administrariak eta zerbitzuetako langile kualifikatuak garrantzi erlatiboa handitzea (% 18,7tik % 23ra 1999-2007 aldian). Handitze hori batez ere 1999-2003 aldian izan zen.
- \* Kualifikatu gabeko langileen gorakada (1999. urtean % 9,1 eta 2007. urtean % 10,6. Hala ere, 2003. urteko % 11tik beheranzko joeran).
- \* Zerbitzu-sektorekoak ez diren langile kualifikatuak proportzioaren beherakada (1999. urteko % 16,9tik 2007. urteko % 15,8ra, 2003. urtean % 18,5 izan ondoren). 1999tik 2007ra, makineriako operadoreak, berriz, % 11,8tik % 13ra egin dute gora.
- \* Lanik egiten ez duen biztanleriaren beherakada nabarmena (1999. urtean biztanleria aktiboaren % 16,8 izatetik, 2003. urteko % 9,3 eta 2007. urteko % 5,9 izatera).

## 2.55 taula

Biztanleria aktiboaren banaketa, lanbidearen eta prestakuntza-mailaren arabera (% bertikalak)

Lanbidea	Lehen	Lehen mailako	Bigarren	Hirugarren	Guztira	Guztira	Guztira
	mailako	Lehen mailako	mailako	mailako			
	ikasketarik	ikasketak - LH	mailako	mailako	2007	2003	1999
	gabe	I	ikasketak	ikasketak			
Indar Armatuak	0,0	0,3	0,0	0,1	0,1	0,1	
Zuzendariak	4,2	4,1	5,5	8,6	5,9	4,0	5,8
Teknikariak	2,2	5,3	18,0	61,3	25,6	21,7	20,9
Enplegatu							
administrariak	1,1	5,7	12,6	10,8	9,2	8,5	7,7
Zerbitzuetako tekn. kualif.	17,8	16,5	18,0	5,4	13,8	14,4	11,0
Nekaz.-Arrantzako tekn. kualif.	3,1	2,9	0,5	0,6	1,4	0,7	1,4
Eraikun.-Industriako tekn. kualif.	25,2	20,4	17,3	2,6	14,4	17,8	15,5
Makineta operad. Zerbitzuetako kualif. gabeko tekn.	18,3	19,1	15,4	2,5	13,0	12,4	11,8
Nekaz.-Arrantzako kualif. gabeko tekn.	12,8	12,6	4,5	1,6	6,8	7,0	6,2
Eraikun.-Industriako kualif. gabeko tekn.	0,0	0,3	0,0	0,0	0,1	0,2	0,1
Eraikun.-Industriako	8,8	5,0	1,2	0,3	2,6	2,6	1,9



kualif. gabeko tekn.							
Garraio.-desk. kualif. gabeko tekn.	0,7	2,0	0,9	0,3	1,1	1,2	0,9
Lan egiten ez dutenak (Aktiboak)	5,7	5,9	6,2	5,8	5,9	9,3	16,8
Lan egiten ez dutenak (Pot. Aktiboak)	12,6	8,7	9,5	6,5	8,5	14,0	Daturik Ez
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100

### 3.3.1.- Lehen mailako ikasketarik gabeko biztanleria aktiboa

Egindako ikasketa arautuen mota espezifikoaren arabera, goiko datuak sakonago aztertuz gero honako hau ikus daiteke: adinaren eta, batik bat, sexuaren aldagaiak nabarmen baldintzatzen dute biztanleria aktiboaren lanbidearen araberrako banaketa (dagokionean, ez-okupazioaren aldagaia ere barnean hartuta).

Lehen mailako ikasketarik gabekoekin hasiko dugu azterketa; lehen sektoreko, industriako eta eraikuntzako lan kualifikatuek eta operazioekin, instalazioekin eta makineria-operadoreek eragin diferentziala dutela atzematen da gizonetan (35 urtetik beherakoetan % 75,9, 35-44 urtekoetan % 51,1, eta 45 urtetik gorakoetan % 70,2). Mota horretako enpleguak biztanle gazteenengan duen intzidentzia handitzen ari dela erakusten dute datu horiek, 1995. urtean % 37,1eko eragina zuten eta. 45 urte eta gehiagokoetan, 1995. urteko % 61,9 ere gainditu da, baina aipatzekoa da 2003an eta 2007an erregistratutako intzidentzia ez dela 1999ko % 73,9ra iritsi. 35-44 urtekoetan, horrelako enpleguen intzidentzia indartu egin zen 1999-2003 aldian (% 51,2tik % 59,2ra igo zen), baina 2007an berriz ere jaitsi zen (% 51,1), 1995. urteko % 60,1eko proportzioaren azpitik nabarmen.

Aipatutako lanbideen garrantzia % 10-12 baino ez da izan 35 urtetik beherako eta 45 urtetik gorako emakumeen artean, 35-44 urtekoen artean, aldiz, % 41,9ra iritsi da. Lehen mailako ikasketarik gabeko emakumeen artean, ordea, kualifikatu gabeko eremuetan egindako lanaren garrantzia nabari da, 35 urtetik beherako eta 45 urtetik gorako emakumeen artean bereziki (% 27,7 eta % 34,4, hurrenez hurren). Kolektibo hori azken erreserba da laneskuari dagokionez, eta hori argi geratu da kualifikatu gabeko laneskuek eta lan egiten ez duen biztanleriak duten proportzio handia egiaztatzean: % 49,3 35 urtetik beherako emakumeen artean, % 37,5 45 urtetik gorakoen artean eta % 25,4 35-44 urtekoen artean, hurrenez hurren.

Lehen mailako ikasketarik gabeko emakumea bigarren maila batean dago, beraz, eta datu hori funtsezkoa eta kontuan hartzekoa da; gainera, emakumeentzat laneratzea gero eta zailagoa dela hartu behar da aintzat. Gizonen kasuan hori ez da hain deigarria. Hala, kualifikazio txikieneko lanetan lanik ez duten edo lana duten emakumeak % 38,3 dira; gizonen artean, aldiz, proportzioa % 20,8 baino ez da (% 19,5 2003an).

Ez-okupazioaren eta kualifikaziorik gabeko lanen proportzioa nabarmen txikiagoa da 2003an emakumeen artean erregistratutakoa baino (% 61,6), baina esan beharra dago ehuneko horiek are handiagoak izango liritekeela baldin eta aktibo potentzialen kolektiboa kontuan hartuko balitz. Horren haritik, biztanleria potentzialki aktibo osoa aintzat hartzen badugu, lan egiten ez dutenen tasa % 1,3tik % 7,5era igo da lehen mailako ikasketarik ez duten gizonen artean; ikasketa-maila hori duten emakumeen artean, aldiz, % 12,1etik % 19,9ra igo da tasa. Biztanleria potentzialki aktibo osoa kontuan hartzen badugu, desokupazio-maila 35-44 urteko emakumeen artean nabari

da bereziki (% 40,2). 35 urtetik beherakoen artean, berriz, % 21,6 izan da, eta, 45 urtetik gorakoen artean, % 11,2. Gizonezkoen artean, ordea, 35 urtetik beherakoen ehunekoak bakarrik hurbildu dira maila horietara (% 14,2). 45 urtetik gorako gizonen artean, aldiz, lan egiten ez dutenen tasa % 6,1 baino ez da izan, eta % 3,4 bakarrik 35-44 urtekoetan.

#### 2.56 taula

Lehen mailako ikasketarik gabeko biztanleria aktiboaren banaketa, lanbidearen, sexuaren eta adinaren arabera  
(% bertikalak)

Lanbidea	Gizona <35	Gizona 35-44	Gizona ≥ 45	Gizonak guztira	Emaku- mea <35	Emaku- mea 35-44	Emaku- mea ≥ 45	Emak. guztira	Lehen mailako ikasketarik gabe
Zuzendariak eta teknikariak			5,3	2,7	8,5		17,6	11,9	6,4
Administrariak	2,5	3,0	0,7	1,7			0,5	0,3	1,1
Zerbitzuetako kualif.	6,4	11,2	7,0	7,9	31,6	32,7	32,7	32,4	17,8
Bestelako kualifikatuak	75,9	51,1	70,2	66,9	10,6	41,9	11,8	17,1	46,7
Kualifikazio gabekoak	10,8	34,7	16,4	19,6	27,7		34,4	26,2	22,2
Lan egiten ez dutenak	4,4		0,4	1,3	21,6	25,4	3,1	12,1	5,7
Lan egiten ez dutenak (pot. akt. barnean hartuta)	14,2	3,4	6,1	7,5	21,6	40,2	11,2	19,9	12,6
<b>GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>

#### 3.3.2.- Lehen mailako edo LH I-eko ikasketak dituen biztanleria aktiboa

Ikasketarik gabekoetan bezalaxe, lehen mailako edo LH I-eko ikasketak dituztenen taldean, gizonezkoen ohiko joera lehen mailako, industriako eta eraikuntzako lanbide kualifikatueta jotzea izan da, baita makineriaren operazioko, instalazioko eta muntatzeko lanetara jotzea ere, adin guztietan. 35 urtetik beherakoetan, joera hori % 54,9k izan du, 35-44 urtekoetan % 58,6k, eta 45 urtetik gorakoetan % 65,5ek. Oro har, horrelako lanbideek gora egin dute 1995. eta 1999. urteen aldean (1995eko % 40,8tik gaur egungo % 54,9ra 35 urtetik beherakoen artean, % 53,6tik % 58,6ra 35-44 urteko gizonen artean, eta % 60,8tik % 65,5ra 45 urtetik gorakoen artean). Nolanahi ere, ehunekoek aditzera ematen dutenez, beherakada nabari da 2003. urtearen aldean, urte horretan ehunekoak % 63,5, % 60,8 eta % 74,8 izan baitziren, hurrenez hurren. 45 urtetik gorakoen artean, 1999tik 2003ra bitarteko aldirako nabaria zen proportzio-jaisiera hori.

Lanbide kualifikatuak goranzko joera izan dute 1995ean ikusitakoaren aldean, eta horren arrazoia honako hau izan daiteke: industriako eta zerbitzuetako kualifikaziorik gabeko lanen intzidentziaren beherakada, eta are garbiago, ez-okupazioa. Bide beretik, gizon potentzialki

aktiboen artean, 1999an lehen mailako ikasketak zituzten 35 urtetik beherakoen % 19,9ek ez zuen lan egiten, eta gaur egun horien kopurua nabarmen txikiagoa da (% 9,4); 35-44 urtekoetan, % 6,8tik % 5,6ra murriztu da tasa, eta, 45 urtetik gorakoetan, % 5,4tik % 3,8ra. Nolanahi ere, aipatzekoa da 2003tik 2007ra bitarte ez-okupazioaren eta kualifikatu gabeko lanaren garrantziaren intzidentziak gora egin dutela lehen mailako edo LH I-eko ikasketak dituen biztanleria aktiboan, erreferentziazko gizonetzkoen kolektiboan: 35 urtetik beherakoetan % 22,8tik 28,4ra, 35-44 urtekoetan % 14,6tik 18,6ra, eta 45 urtetik gorakoetan % 8,8tik 11,8ra.

Emakumeetan, kualifikaziorik gabeko lanek eta ez-okupazioak are garrantzi handiagoa dute, lehen mailako edo LH I-eko ikasketak dituzten emakume aktiboen % 37,8 hartzen dutelako eraginpean (gizonetan, % 18,7 bakarrik dago egoera horretan). Eragin hori 35 urtetik gorako emakumeen artean nabari da bereziki, % 40ko maila gainditu baita. 45 urtetik gorakoetan egoerak okerrera egin du, 2003tik 2007ra % 37,7tik % 40,9ra igo baita. 35-44 urteko emakumeetan, aldiz, hobekuntza txikia nabari da, tasa % 46,3tik % 43,7ra jaitsi baita aldi horretan. Hobekuntza deigarriagoa da 35 urtetik azpikoaren artean (% 35,9tik % 23,7ra jaitsi da ehuneko), eta ez-okupazioak eta kualifikazio txikieneko lanek eragin txikiagoa dute adin-talde eta ikasketa-maila bereko gizonen artean baino (% 28,4).

Lehen mailako edo LH I-eko ikasketak dituzten 45 urtetik beherakoen artean nabari den hobekuntzari esker, epe luzerako joera bermatu da, % 49,9eko eta % 57,9ko ehunekoekin, hurrenez hurren, 35 urtetik beherako emakumeentzat eta 35-44 urtekoentzat (1995). Gora egin badu ere, lanik ez dutenek eta lana dutenek kualifikazio gabeko lanetan duten garrantzia ere 1995eko % 48,4 baino txikiagoa da 45 urtetik gorako emakumeen artean. Gainera, potentzialki aktiboa den biztanleria osoa aintzat hartzen badugu, 2003-2007 laurtekoan desokupazio-mailek hobera egin dute oro har, ez-okupazioaren tasa % 23,5etik % 11,6ra jaitsi delako 35 urtetik beherako emakumeen artean, % 23,1etik 13,1era 35-44 urtekoen artean eta % 27,7tik % 13,6ra 45 urtetik gorakoaren artean.

Hobekuntza horren adierazgarri, lehen mailako eta LH I-eko ikasketak dituzten emakume aktibo gehiagok lortu dituzte lan kualifikatuagoak 2007an. Joera hori 35 urtetik beherakoen artean nabari da bereziki (% 76,3k lan kualifikatuak, administratiboak, teknikoak edo zuzendaritzakoak lortu ditu; 35-44 urtekoen artean, aldiz, % 56,3 lortu ditu horrelako lanak, eta % 59,1ek 45 urtetik gorakoaren artean). 1999aren aldean, adierazle horiek guztiek gorakada handia ematen dute aditzera, eta gainera joera hori finka daiteke 2003-2007 aldian.

Beste datu positibo bat: 2007an, ez-okupazioaren intzidentzia ez da handiagoa izan lehen mailako edo LH I-eko ikasketak dituzten emakume aktiboen artean. Izan ere, % 6,6ko batezbestekoa ez dago gizonetzkoen % 5,5tik oso urruti, eta gainera 45 urtetik beherakoen artean adierazleak nabarmen hurbildu dira elkarren artean. 2003ko kopuruen aldean nabarmen murriztu

bada ere (desokupazio-tasa % 25,1 izan zen emakumeen artean, eta % 5 baino ez gizonen artean), diferentziala oso deigarria da oraindik ere, baldin eta potentzialki aktiboa den biztanleria osoa kontuan hartzen badugu: emakumeen % 13k eta gizonen % 5,9k ez du lan egiten, hurrenez hurren. Kasu horretan, emakumezkoen tasak gizonezkoenen bikoitza dira betiere, eta 35 urtetik beherako biztanleria da salbuespen bakarra: % 11,6 emakumeen artean eta % 9,4 gizonen artean.

#### 2.57 taula

Lehen mailako edo LH I-eko ikasketak dituen biztanleria aktiboaren banaketa, lanbidearen, sexuaren eta adinaren arabera (% bertikalak)

Lanbidea	Gizona <35	Gizona 35-44	Gizona ≥ 45	Gizonak Guztira	Emaku- mea <35	Emaku- mea 35-44	Emaku- mea ≥ 45	Emak. Guztira	Lehen mailako ikasketak
Zuzendariak eta teknikariak	8,7	9,5	8,6	8,9	12,2	9,9	11,0	11,0	9,7
Administrariak	2,0	5,1	4,1	3,7	15,1	4,7	9,1	9,1	5,7
Zerbitzuetako kualif.	6,0	8,1	10,1	8,3	36,5	32,6	26,4	30,6	16,5
Bestelako kualifikatuak	54,9	58,6	65,5	60,4	12,6	9,1	12,5	11,5	42,3
Kualifikazio gabekoak	19,5	13,3	8,6	13,2	14,7	37,3	35,4	31,2	19,9
Lan egiten ez dutenak	8,9	5,3	3,2	5,5	9,0	6,4	5,6	6,6	5,9
Lan egiten ez dutenak (pot.akt. barnean hartuta)	9,4	5,6	3,8	5,9	11,6	13,1	13,6	13,0	8,7
<b>GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>

Lehen mailako ikasketak dituztenen kolektiboa zehatz-mehatz aztertuta, eta egindako ikasketekin loturiko aldeei erreparatuta, honako interesgune hauek nabarmenduko ditugu:

a) LH I-eko Administrazioaren adarreko titulua duten aktiboaren % 31,8k baino ez du administrari gisa jarduten (% 24,4k 1999an eta % 30ek 2003an). Nolanahi ere, % 20,9k jarduten du teknikari edo zuzendari gisa, 1999ko % 7,5ren eta 2003ko % 14,1en gainera nabarmen. Zerbitzuen sektoreko lan kualifikatuek eskaintzen dute garrantzi handiko beste lan-irtenbide bat, 1999tik 2003ra bitarteko % 20-21en azpitik badaude ere.

Adar horretako tituludunen artean, lanik ez dutenen tasa % 6,7ra jaitsi da 2007an, % 10,3ra potentzialki aktiboak direnak kontuan hartzen baditugu. Kopuruak % 50 jaitsi dira gutxi gorabehera, 2003an erregistratutako % 12ren eta 20ren aldean. Kualifikaziorik ez duten langileen proportzioa ere jaitsi da, % 19,3tik 9,6ra. Oro har, bi egoera horiek LH I-ko Administrazioaren adarreko titulazioa duen biztanleria aktiboaren artean duten intzidentzia nabarmen murriztu da epe luzean: % 16,3 2007an, % 31,3 2003an, % 44,3 1999an eta % 42,3 1995ean, hurrenez hurren.

b) LH I-eko Elektrizitatearen eta Elektronikaren adarretan, eta Metalean, Delineazioan eta Automozioan, prestakuntzaren eta lanbidearen arteko adospena oso handia da. Horrela, Elektrizitatea eta Elektronikako adarreko tituludunen % 46,8 industriako eta zerbitzuetako lanbide kualifikatuetan, edo makineriaren operadore, instalatzaile edo muntatzaile gisa ari da; Metalaren, Delineazioaren edo Automozioaren adarretan, proportzioa % 71,7 da. LH I-eko Bestelako adarretan, proportzioa % 57,4 da.

2007an, teknikari eta zuzendariak garrantzi handia izan dute adar horietako batzuetan, Elektrizitatearen eta Elektronikaren eremuan bereziki, eta LH I-ko ikasketa mota horiek dituzten aktibo guztien % 25,8 dira.

Hala eta guztiz ere, LH I-eko adar horietan, lan egiten ez dutenen edo kualifikaziorik gabeko langileen proportzioak gora egin du. 2003ko aktiboen % 10etik gertuko edo beheragoko kopuruei dagokienez, % 17,4 izan dira Elektrizitatean eta Elektronikatan, % 19,4 Metalean, Delineazioan edo Automozioan, eta % 24,2 LH I-eko gainerako adarretan.

c) I. mailako gainerako lanbide-ikasketetan, zerbitzuetatik kanpoko langile kualifikatuek osatzen dute talde nagusia (% 72,5); teknikari edo zuzendarien taldea, berriz, % 19,7 da. Talde horretan, lan egiten ez dutenen eta kualifikaziorik ez duten langileen garrantzia nabarmen jaitsi da (% 6,9).

d) Alabaina, lanbidekoak ez diren lehen mailako ikasketak dituztenen kolektiboan, lan egiten ez dutenen eta kualifikaziorik ez duten langileen garrantzia nabari da. Erreferentziazko aktiboen % 27,5 egoera horretan dago, 2003ko % 25,8ren gainetik baina oraindik 1999ko % 33,6ren azpitik. Nolanahi ere, zerbitzuetakoak ez diren sektoreetako lanbide kualifikatuak dituztenek osatzen dute talde nagusia, eta % 44,8 dira, 2003ko % 47,9ren azpitik baina 1999ko % 42,3 gainetik.

Ezbairik gabe, datu horiek aditzera ematen dute lanbideari dagokionez alde handia dagoela erreferentziazko prestakuntza-mailaren arabera, lehen mailako edo LH I-eko ikasketak dituzten herritarren artean. Hala, LH I-eko Administrazioaren adarreko tituludunen artean, zuzendarien, teknikarien, administrarien edo zerbitzuen sektoreko langile kualifikatuen garrantzia nabari da (% 69,2); Metalaren, Automozioaren eta Delineazioaren adarretan, aldiz, zerbitzuetakoak ez diren sektoreetako langile kualifikatuen garrantzia nabari da bereziki (% 65,2). Elektrizitatearen eta Elektronikaren adarrak bitartean ageri dira (% 43 zerbitzuen sektoreko maila handien eta lan kualifikatuen eremuan, eta % 39,6 zerbitzuetatik kanpoko eremu kualifikatuan), baita LH I-eko bestelako adarrak ere (% 40,9 eta % 35, hurrenez hurren). Lanbidekoak ez diren lehen mailako ikasketak dituzten tituludunen egoera bitarteko taldearen egoeraren antzekoa da, baina zerbitzuen sektoreko eremu kualifikatuaren eta lanbide-eskalako maila gorenen garrantzi erlatiboa %

27,8raino jaitsi da; aldi berean, langile kualifikatuei dagokien zatia % 44,8ra igo da zerbitzuetakoak ez diren sektoreetan.

Lanbidekoak ez diren lehen mailako ikasketetan (% 27,5) ikusi dugunari dagokionez oro har txikiagoa bada ere, LH I-ean ere ez-okupazioaren eta kualifikatu gabeko lanen intzidentzia handia da, eta biztanleria aktiboaren % 16,3tik (Administrazioaren adarrean) % 24,2ra doa (LH I-en bestelako adarrak). Nolanahi ere, esan beharra dago arazo horrek LH I-eko Administrazioaren adarrean duen inpaktua handiagoa dela aurreko zenbakik aditzera ematen dutena baino; izan ere, lan egiten ez dutenen tasa % 6,7tik % 10,3ra igo da, potentzialki aktiboa den biztanleria osoa kontuan hartuta.

2.58 taula

Lehen mailako edo LH I-eko ikasketak dituen biztanleria aktiboaren banaketa, lanbidearen eta ikasketamotaren arabera (% bertikalak)

Lanbidea	Administraria	Elektrizitatea/ Elektronika	Metala/ Delineazioa/ Automozioa	LH I-eko bestelako motak	Bestelako lanbideak I	Lanbidekoak ez diren lehen mailako ikasketak
Zuzendariak eta teknikariak	20,9	25,8	8,9	14,6	19,7	7,3
Administrariak	31,8	10,0		3,8		4,1
Zerbitzuetako kualifikatuak	16,5	7,2	6,5	22,5	0,9	16,3
Bestelako kualifikatuak	14,5	39,6	65,2	35,0	72,5	44,8
Kualifikazio gabekoak	9,6	14,5	7,9	17,2	2,8	21,9
Lan egiten ez dutenak	6,7	2,9	11,5	7,0	4,1	5,5
Lan egiten ez dutenak (pot.akt. barnean hartuta)	10,3	2,9	11,5	8,4	4,1	8,7
<b>GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>

### 3.3.3- Bigarren mailako ikasketak dituen biztanleria aktiboa

Bigarren mailako ikasketak dituen biztanlerian ere, batik bat, sexu-faktoreak baldintzatzen ditu lanbide motak, baina adinaren aldagaiak ere intzidentzia handia du.

Gizonen kasuan, bigarren mailako ikasketak dituzten aktibo asko administraritzako lanpostuekin, lanpostu teknikoekin edo zuzendaritzako lanpostuekin loturiko lanbideetara bideratzen da (% 31,6). Proporzio hori handitu egiten da adinarekin batera: 35 urtetik beherakoetan % 21,7, 35-44 urtekoetan % 26,7, eta 45 urtetik gorakoetan % 48,2. Azken adin-tarte horretan, lanbide-kategoria horiek garrantzi handiagoa dute lehen mailako sektoreko, industriako eta eraikuntzako lanbide kualifikatuek baino (45 urtetik gorako aktiboek % 39,5). 45 urtetik beherakoetan, ordea, egoera kontrakoa da, bai 35 urtetik beherakoetan (% 57,6k jarduten du

horrelako lanbideetan, administrariak, teknikariak eta zuzendariak % 21,7 izanik), bai 35-44 urtekoetan (% 48,9 eta % 26,7, hurrenez hurren).

Bigarren mailako ikasketak dituzten aktiboek zerbitzuen sektoretik kanpoko lanbide kualifikatueta jarduten dute bereziki: zehazkiago, erreferentziazko aktibo guztien % 49,4k jarduten du horrelako lanetan. Hein handi batean, azken urteotan zuzendarien, teknikarien edo administrarien biztanleriak garrantzi erlatiboa galdu duela adierazten du horrek, betiere bigarren mailako ikasketak egindako gizonei dagokienez. Hori bereziki deigarria da 35-44 urtekoen artean, zerbitzuetakoak ez diren sektoreetako lanbide kualifikatuak nagusi izan baitira talde horretan 2003. urtean (% 48, administrari, teknikari eta zuzendarien % 35,5en aldean), 1999an oraindik nagusi zen (% 41,2, zerbitzuetatik kanpoko sektoreetako langile kualifikatuen % 40,4ren aldean) administrari, teknikari eta zuzendarien kaltetan. 45 urtetik beherakoan artean, 2003tik 2007ra bitarte atzemandako bilakaerak finkatu egiten du joera-aldaketa hori.

Edonola ere, gizonetan, goian aipatu ditugun bi lanbide-kategoria horietan metatzen dira biztanleria aktiboaren hiru laurdenak edo gehiago: 35 urtetik beherakoetan % 79,2, 35-44 urtekoetan % 75,6, eta 45 urtetik gorakoetan % 87,7.

Emakumeen kasuan, gaur egun, zuzendarien eta teknikarien lanbideetako okupazioa da nagusi, zerbitzuen sektoreko lanbide kualifikatuekin batera. Lehen kasuan, intzidentzia % 17 ingurutik % 34ra ibili da, 45 urtetik beherako emakumeen eta 35 urtetik gorakoan artean, hurrenez hurren. Zerbitzu-sektoreko lanbide kualifikatuei dagokienez, adinean behera egin ahala eragina handiagoa da, gazteenetan eragin handiena duela (% 36,8, 35-44 urtekoetan % 30,5 eta 45 urtetik gorakoetan % 24,4 izanik, hurrenez hurren). Horrelako lanbideetan, 1995. eta 1999. urteetatik hazkundera izan da, batez ere 45 urtetik beherako biztanlerian. 2003tik 2007ra bitarte, ordea, kopuruak egonkortu dira.

Bigarren mailako ikasketak dituzten emakumeen artean, administrarien protagonismoa ere nabari da, azken urteetan garrantzi erlatiboa galdu badute ere. Hala, % 17,8 dira 35 urtetik beherakoetan eta % 21,7 45 urtetik gorakoetan; gehienezko proportzioa 35-44 urtekoetan lortu dute, % 28,1 baitira.

Oro har, adinaren arabera hainbat emakume kategoriatan, % 71,5 eta % 80 bitarte zuzendari, teknikari, administrari edo zerbitzuen sektoreko langile kualifikatu gisa okupatua dago, 45 urtetik gorako gizonetan gehienez ere % 54,1 izanik.

Lanbide-egoera txarrak ere eragin handia du bigarren mailako ikasketak egindakoan artean. Horrelako ikasketak dituzten emakume aktiboan % 17,9k ez du lanik edo kualifikaziorik gabeko lanbideetan dihardu. Proportzioa % 19,9 da 35 urtetik beherakoetan, eta txikixeagoa 35-44



urtekoetan eta 45 urtetik gorakoetan, % 16,8 eta % 15,7, hurrenez hurren, kopuru horiek guztiak 2003koak baino handixeagoak badira ere. Gizonetan, proportzioa % 9,6 da, eta 35-44 urtekoetan jaso da ehunekorik handiena: % 13,6 (% 9,4 gazteenen artean, eta % 6,4 45 urtetik gorakoetan, hurrenez hurren).

Bigarren mailako ikasketak dituztenei dagokienez, nabarmentzekoa da jarduera potentzialak eragin diferentziala duela hemen aztertzen ari garen puntuan. Izan ere, jarduera potentzialki aktiboak kontuan hartzen badugu, aktiboak eta aktibo potentzialak barnean hartuta, lan egiten ez dutenen tasa % 8,3tik % 13,9 igotzen da emakumeen artean, eta % 4,8tik % 6,7ra gizonen artean. Igoera deigarriagoa da emakumeen artean eta 35 urtetik beherakoen artean. Azken kasu horretan, tasa % 5,4tik % 9,1era igo da gizonetan, eta % 9,1etik % 17,9ra emakumeetan.

2.59 taula

Bigarren mailako ikasketak dituen biztanleria aktiboaren banaketa, lanbidearen, sexuaren eta adinaren arabera (% bertikalak)

Lanbidea	Gizona				Emaku-				Bigarren mailako ikasketak
	<35	35-44	≥ 45	Guztira	mea <35	mea 35-44	mea ≥ 45	Emak. Guztira	
Zuzendariak eta teknikariak	16,2	22,5	37,6	24,9	17,0	16,8	34,0	21,4	23,5
Administrariak	5,5	4,1	10,6	6,7	17,8	28,1	21,7	21,9	12,6
Zerbitzuetako kualif. Bestelako	11,3	10,8	5,9	9,4	36,8	30,5	24,4	31,6	18,0
kualifikatuak	57,6	48,9	39,5	49,4	8,5	7,8	4,2	7,2	33,2
Kualifikazio gabekoak	4,1	7,5	3,4	4,8	10,8	9,9	7,0	9,6	6,6
Lan egiten ez dutenak	5,4	6,2	3,0	4,8	9,1	6,9	8,6	8,3	6,2
Lan egiten ez dutenak (pot.akt. barnean hartuta)	9,1	6,2	4,2	6,7	17,9	9,1	12,1	13,9	9,5
<b>GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>

LH II-ko edo lanbidekoak ez diren bigarren mailako ikasketak dituen kolektiboari begiratuta, honako datu hauek azpimarratu behar ditugu:

a) LH II-ko Administrazioaren adarreko tituludunen % 29 baino ez da ari administrari-lanetan. Kategoria guztiak kontuan hartzen baditugu (administraziokoak, teknikoak eta zuzendaritzakoak), ordea, proportzioa % 51,9 da, eta ehuneko hori askoz ere handiagoa da 1995eko % 38,2 baino, baina 1999ko % 60,1 eta 2003ko % 62,3 baino nabarmen txikiagoa. Neurri handi batean, bigarren mailako lanbide-heziketako tituludun horien okupazioak administrazio-espezializazio txikiagoa izateak (% 29, 2003ko % 41en aldean) zerikusia du beherakada berri horretan.

Bestetik, aipatzekoa da talde horretan joera bat apurtu dela, hain zuzen ere lan egiten ez dutenen proportzioaren etengabeko beheranzko joera: 1995ean % 33 izan zen, 1999an % 17 eta 2003an % 10,7, hurrenez hurren. 2003tik 2007ra bitarte, aldiz, tasa hori % 10,7tik % 15,2ra igo da, % 14,8tik % 20,7ra biztanleria potentzialki aktibo osoa kontuan hartzen badugu.

b) LH II-ko Elektrizitatearen eta Elektronikaren adarretako tituludunen % 72,5 lehen sektoreko, industriako edo eraikuntzako langile kualifikatu gisa ari da lanean, eta % 16,1 administrari, teknikari edo zuzendari gisa. Kopuru horiek aditzera ematen dutenez, kolektibo horren barnean gero eta gehiago dira zerbitzuetakoak ez diren sektoreetako langile kualifikatu gisa jarduten dutenak, 1995ean % 56,9 izatetik 2003an % 67,1 izatera igaro baitira, administrazioko eta zuzendaritzako lanbideen eta lanbide teknikoan 2003. urtetik aurrera. 1995etik 2003ra bitarte % 17,5etik % 24,1era igo ondoren, lanbide horien garrantzi erlatiboa % 16,1era jaitsi da 2007an.

Antzeko joera nabari da LH II-ko Metalaren, Delineazioaren eta Automozioren adarretan, baina kasu horretan langile kualifikatuen garrantzi erlatiboa are handiagoa da: % 80,2, administrari, teknikari eta zuzendarien % 8,2ren aldean (2003an, proportzioa % 70 eta % 19,1 izan zen, hurrenez hurren).

c) LH II-ren pareko beste lanbide-ikasketen eremuan, lanbide-maisuen eta merkataritza-perituen multzoak nagusi dira; bi multzo horien kasuan, administrarien, teknikarien edo zuzendarien kolektiboa % 38,3ra hazi da, nahiz eta multzo nagusia honako hau den oraindik ere: lehen sektoreko, industriako eta eraikuntzako lanbide kualifikatuak (% 48,3).

d) LH II-ko gainerako adarretan, biztanleria aktiboaren lanbide-banaketa oso heterogeneoa da: zerbitzuetakoak ez diren sektoretako langile kualifikatuak % 32,4 dira, zerbitzu-sektoreko langile kualifikatuak % 21,9, eta teknikariak eta zuzendariak % 28,6; ezbairik gabe, azken horien proportzioa oso handia da, LH II-ren eremuan izateko.

e) Lanbidekoak ez diren bigarren mailako ikasketak ere azpimarragarriak dira, lanbide-banaketa heterogeneoa izateagatik; esate baterako, % 22,9 teknikariak edo zuzendariak dira, eta % 13,5 administrariak, baina % 17,3k ez du lan egiten edo kualifikaziorik gabeko lanetan jarduten du. Dena den, lan kualifikatuek osatzen dute multzo nagusia, ikasketak-maila hori duten aktiboaren % 46,6 metatuta (% 21,3 zerbitzu-sektoreari loturik daude, eta % 25 gainerako sektoreei).

Azpimarratzekoa da ez-okupazioak lanbidekoa ez den bigarren mailako titulazioa dutenen artean duen garrantzia. % 8,2ko eragina du benetako aktiboaren artean, baina potentzialki aktibo den biztanleria (zentzu zabalean) kontuan izanda, eragin hori % 13ra hazten da. Kopuru horiek

nabarmen txikiagoak dira 2003koak eta 1999koak baino (% 15,3 eta % 23,5, hurrenez hurren), baina askoz ere handiagoak bigarren mailako beste ikasketa batzuetan atzeman direnak baino, LH II-ko Administrazioaren adarraren salbuespen bakarrarekin.

Aurreko datu horiek oro har azterturik, zera ikusten dugu, zuzendarien, teknikarien, administrarien eta zerbitzuetako langile kualifikatuak kolektiboak nagusi direla LH II-ko Administrazioaren adarrean (% 68,8), II. mailako lanbide-heziketako gainerako adarretan eta II. mailako gainerako lanbide-adarretan (% 59,3 eta % 51,7, hurrenez hurren), baita lanbidekoak ez diren bigarren mailako ikasketetan ere (% 57,7). Alabaina, zerbitzuetakoak ez diren sektoreetako langile kualifikatuak nagusi dira Elektrizitatearen eta Elektronikaren adarretan eta Metalaren, Delineazioaren eta Automozioaren adarretan (% 72,5 eta % 80,2, hurrenez hurren).

Lanbide-kategoria kalteberenen —kualifikatu gabeak eta lan egiten ez dutenak— eragina nulua da II. mailako bestelako lanbide-ikasketen eremuan, eta % 5-6 Elektrizitatearen eta Metalaren adarretan. LH II-ko gainerako adarretan ere txikia da: % 8,4. Aitzitik, nabarmentzekoa da horrelako egoeren intzidentzia oraindik ere oso handia dela LH II-ko Administrazioaren adarrean (% 22,4), eta lanbidekoak ez diren bigarren mailako titulazioa dutenen artean ere handia dela (% 17,3). Eta proportzio horiek ere handiagoak lirateke baldin eta biztanleria potentzialki aktiboa kontuan hartuko bagenu. Izan ere, aktiboak eta aktibo potentzialak batera hartuta, lan egiten ez dutenen tasa % 15,2tik 20,7ra igotzen da LH II-ko Administrazioaren adarrean, eta % 8,2tik 13ra lanbidekoak ez diren bigarren mailako ikasketetan.

#### 2.60 taula

Bigarren mailako ikasketak dituen biztanleria aktiboaren banaketa, lanbidearen eta ikasketa motaren arabera (% bertikalak)

Lanbidea	Administrazioa	Elektrizitatea/ Elektronika	Metal/ Delineazioa/ Automozioa	LH II-ko bestelako motak	II. mailako bestelako lanbide- adarrak	Lanbidekoak ez diren 2. mailakoak
Zuzendariak eta teknikariak	22,9	9,5	7,1	28,6	38,3	22,9
Administrariak	29,0	6,7	1,1	8,7	5,9	13,5
Zerbitzuetako kualifikatuak	16,9	5,3	6,9	21,9	7,5	21,3
Bestelako kualifikatuak	8,8	72,5	80,2	32,4	48,3	25,0
Kualifikazio gabekoak	7,2	3,7	3,9	5,9	0,0	9,1
Lan egiten ez dutenak	15,2	2,3	0,8	2,4	0,0	8,2
Lan egiten ez dutenak (pot. aktiboak barnean hartuta)	20,7	2,3	4,4	4,2	0,0	13,0
<b>GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>

#### 3.3.4.- Hirugarren mailako ikasketak dituen biztanleria aktiboa

Hirugarren mailako ikasketak dituzten biztanle aktiboetan, teknikarien eta zuzendarien proportzioa oso handia dela nabarmendu behar dugu. Gizonetan proportzioa honako hau da: 45 urtetik gorakoetan % 81,9, eta 35-44 urtekoetan % 72,8. 35 urtetik beherakoetan, proportzioak nabarmen egiten du behera, baina oraindik ere handia da (% 63,5). Adin-talde horretan ez-okupazioak garrantzi handia (% 10,5) izatearekin lotzen da gainbehera hori, gainerako kasuetan % 3tik behera izaten baita. Alabaina, 1995. eta 1999. urteen artean teknikarien eta zuzendarien proportzioa nabarmen handitu bazen (% 53,7tik % 63ra gazteenetan, % 74tik % 81,1 eta tarteko adinetan, eta % 80,8tik % 90,7ra 45 urtetik gorakoetan), 1999tik aurrera indizeek behera egin dute etengabe, 35 urtetik gorako gizonen artean behintzat.

Emakumeetan ere, unibertsitateko tituludun gehienek zuzendaritzako lanbideetan edo lanbide teknikoetan jarduten dute. Gainera, 35 urtetik beherakoen eta 45 urtetik gorakoen artean, proportzioa gizonenaren antzekoa da (% 62,7 eta % 80), eta 35-44 urtekoen artean bakarrik eutsi diote nolabaiteko desorekari (% 66 eta % 72,8 —adin-tarte horretako gizonen artean—). Horren haritik, adin-tarte horretako emakumeen artean, teknikari- eta zuzendari-lanpostuen beherakada handia nabari da azken urteetan, proportzioa 1999ko eta 2003ko % 75etik gorakotik egungo % 66ra jaitsi delako. 45 urtetik gorako emakumeei dagozkien kopuruak egonkortzen ari diren honetan, emakume gazteenek bakarrik eutsi diote horrelako lanbideen goranzko joerari. 1999an, teknikari eta zuzendarien proportzioa % 47,2 izan zen; 2003an, aldiz, % 51,4 izan zen, eta, 2007an, % 62,7.

Lanbideari dagokionez, ezaugarri bat nabarmendu behar dugu: aintzat hartutako aktiboen zati handi bat administrazioaren inguruko enpleguen eremuan kokatzen da. Egoera hori are deigarriagoa da emakumeen artean: % 15etik gora 45 urtetik beherakoen artean eta % 9,8 adin horretatik gorakoen artean. Nolanahi ere, oraindik ere kontuan hartzeko moduko intzidentzia du 35-44 urteko gizonen artean (9,8%).

Okupaziorik ezaren eta kualifikatu gabeko lanen eraginari dagokionez, % 10 da 35 urtetik beherakoen artean (% 14,1 gizonen artean eta % 10,1 emakumeen artean). 35-44 urtekoen artean, kopurua % 8,7 da, eta aipatzekoa da talde horretan ez-okupazioaren intzidentzia % 6,2tik 9,1era igoko litzatekeela baldin eta emakume aktibo potentzialak kontuan hartuko bagenu. Lan egiten ez dutenen eta kualifikaziorik gabeko langileen proportzioa, ordea, % 5 edo txikiagoa da, 45 urtetik gorako emakumeen eta 35 urtetik gorako gizonen artean.

Aurrekoa alde batera utzi gabe, azpimarratzekoa da azken urteetan ez-okupazioak eta kualifikaziorik gabeko okupazioak beherakada handia izan dutela arrisku handieneko taldeetan, hau da, 35 urtetik beherakoetan. Proportzioaren beherakada hori emakumeen artean nabari da

bereziki, % 21,3 izatetik % 10,1 izatera igaro baita (% 22,2 izatetik % 14,1 izatera, gizonen kasuan). Alabaina, 35-44 urteko emakumeei dagokien ehunekoa % 8,5tik gertu mantendu da.

2. 61 taula

Hirugarren mailako ikasketak dituen biztanleria aktiboaren banaketa, lanbidearen, sexuaren eta adinaren arabera  
(% bertikalak)

Lanbidea	Gizona				Emakumea				Hirugarren mailako ikasketak
	<35	35-44	≥ 45	guztira	<35	35-44	≥ 45	guztira	
Zuzendariak eta teknikariak	63,5	72,8	81,9	72,7	62,7	66,0	80,0	67,6	70,0
Administrariak	6,8	9,8	3,8	6,7	15,9	15,6	9,7	14,4	10,8
Zerbitzuetako kualif. Bestelako	1,5	5,8	1,8	2,9	9,2	7,8	3,8	7,6	5,4
kualifikatuak	14,0	7,7	9,7	10,6	2,1	2,0	0,0	1,6	5,7
Kualifikazio gabekoak	3,6	0,8	0,6	1,7	3,1	2,5	2,3	2,7	2,3
Lan egiten ez dutenak	10,5	3,1	2,1	5,4	7,0	6,2	4,2	6,1	5,8
Lan egiten ez dutenak (pot.akt. barnean hartuta)	11,1	3,1	2,7	5,8	7,2	9,1	4,2	7,1	6,5
GUZTIRA	100	100	100	100	100	100	100	100	100

Erdi-mailako unibertsitate-tituludunetan, zuzendarien edo teknikarien lanbideetan eragin handiena duten ikasketak osasungintzako lanbideko ikasketak dira, batez ere OLTak; une honetan, % 96,1 dira talde profesional horietan jarduten dutenak (% 85,7 1999an eta % 95,3 2007an, hurrenez hurren). Proporzioa % 73,5 da ingeniaritza teknikoetan, eta % 67,9 OHoko irakasleen artean, 2003ko % 78,2ren azpitik.

Erdi-mailako bestelako ikasketen multzoa osatzen duten adarretan, proporzioa nabarmen txikiagoa da, eta % 43,4 baino ez da (igoera txikia nabari da, dena den, 1999ko % 37,9ren eta 2003ko % 41,7ren aldean). Kasu horretan, administrariaren eta zerbitzu-sektoreko langile kualifikatuen garrantziak gora egin du (% 38,5), baita lan egiten ez dutenen edo langile ez-kualifikatuen garrantziak ere (% 10,8, 1999ko % 19,9 eta 2003ko % 14,2 baino askoz ere gutxiago, nolana ere). OHoko irakasleen artean ere proporzioa handia da (% 9,8), eta 2003. urteaz geroztik (% 7,6) gora egin du etengabe.

2.62 taula.

Erdi-mailako hirugarren mailako ikasketak dituen biztanleria aktiboaren banaketa, lanbidearen eta ikasketen motaren arabera  
(% bertikalak)

Lanbidea	Ingeniaritza Teknikoa	OHoko Irakasleak	Osasungintz. lanb.	Erdi-mailako bestelako	Erdi-mailako espezial.	Erdi-mailako hirugarren

				ikasketak		mailakoak
Zuzendariak eta teknikariak	73,5	67,9	96,1	43,4	100	67,5
Administrariak	4,1	11,7		24,5		11,4
Zerbitzuetako kualifikatuak		10,6	3,5	14,0		7,7
Bestelako kualifikatuak	20,2			7,3		7,0
Kualifikazio gabekoak	0,7	7,0		8,0		4,5
Lan egiten ez dutenak	1,4	2,8	0,4	2,9		2,0
Lan egiten ez dutenak (pot.akt. barnean hartuta)	1,4	2,8	0,4	2,9		2,0
<b>GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>

Unibertsitateko goi-mailako ikasketak dituzten aktiboetan, teknikarien edo zuzendarien proportzio handiena eragiten duen titulazioa Medikuntza da (% 94,4); horren atzetik, Goi-mailako Ingeniaritzak (% 86,2), Filosofia eta Letrak (% 71,2) eta Zuzenbidea (% 70,1) Gainerako adarretan, adierazle orokorra % 65 da, gutxi gorabehera. Oro har, teknikari edo zuzendari gisa diharduten hirugarren mailako goi-tituludunak % 71,5 dira, 1999an eta 2003an erregistratutako % 71-72ko proportzioaren ildo beretik. Aitzitik, erdi-mailako titulazioetan igoera handiagoa nabari da, 1999ko % 62,8tik 2007ko % 67,5era igo direlako (hori bai, igoera hori 1999tik 2003ra bitarte nabari da bereziki).

Desokupazioaren edo kualifikaziorik gabeko lanen indizea oraindik ere garrantzitsua da zenbait karreratan, eta goi-mailako ikasketak dituzten unibertsitate-tituludun guztien % 9 da, erdi-mailako tituludunen % 6,5ren gaineratik. Proportzioa % 10 edo handiagoa da Informatikan, Natura Zientzietan eta Zehatzetan (% 13,2), Ekonomia Zientzietan (% 10,6), Filosofia eta Letretan (% 9,9) eta Hirugarren mailako bestelako ikasketetan (% 13,2). Goi-mailako ingeniarietan ere % 5eko maila gainditzen du (% 6,2). Zuzenbidean, aldiz, % 3,4 baino ez da, eta Medikuntzan ia ezerezean geratu da. Nolanahi ere, ehuneko horiek handiagoak izaten dira batzuetan, lan egiten ez dutenen kopurua handia delako aktibo potentzialen artean, Zuzenbidean, Filosofia eta Letretan eta Hirugarren mailako bestelako ikasketetan bereziki.

#### 2.63 taula.

Goi-mailako ikasketak dituen biztanleria aktiboaren banaketa, lanbidearen eta ikasketa motaren arabera  
(% bertikalak)

Lanbidea	Goi-mailako ingeniarietak	Natura Zientziak eta		Filosofia eta Letrak	Ekonomia	Zuzenbidea	Medikuntza	3. mailako beste batzuk	Goi-mailako espezial. l.	Goi-mailako hirugarren mailakoak
		Zientzia Zehatzak								
Zuzendariak eta teknikariak	86,2	66,7	71,2	62,3	70,1	94,4	64,5	91,6	71,5	

Administrariak		6,8	6,4	19,4	15,6		15,1	8,4	10,5
Zerbitzuetako kualif.		6,4	6,3	4,7	1,2	2,4	6,0		4,1
Bestelako kualifikatuak	7,6	6,9	6,2	3,1	9,7	3,1	1,1		5,0
Kualifikazio gabekoak		5,1			0,5		1,3		0,9
Lan egiten ez dutenak	6,2	8,2	9,9	10,6	2,9		12,0		8,0
Lan egiten ez dutenak (pot.akt. barnean hartuta)	7,2	8,2	11,2	10,6	5,3		14,5		9,2
<b>GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>



### **III.- LANBIDE ESPERIENTZIA**

## **LANBIDE ESPERIENTZIA**

2007. urtean, EAEn lan-merkaturako prest dauden 1.012.720 biztanle aktiboetatik 60.120 okupaziorik gabe daude. Ehuneko horren arabera (ia langabe direnak barnean hartuta, BJA eta LMEan ez-aktibo gisa sailkatu direnak), biztanleria aktibo osoaren % 5,9 langabezia-egoeran dago, azterlan honetarako zehaztutako zentzu zabalean. Hala ere, proportzio hori 2003koa baino nabarmen txikiagoa da, orduan % 9,3 baitzen, eta 1999koa eta 1995koa baino askoz ere txikiagoa, urte haietan % 16,8 eta % 24,3 izanik.

Bilakaera positiboa izan bada ere, EAEn lanbide-ahalmena oraindik ere kontuan hartzekoa da. Aztertu ditugun landunen % 5,9 horri biztanleria potentzialki aktiboaren ehuneko gehitu behar zaio, hau da, gaur egun lanean hasteko prest egon gabe, egoera jakin batean produkzio-sistemara bil daitezkeen ehuneko. Ikuspegi horretatik abiatuta, lan egiten ez dutenak 88.358 dira une honetan, aktibo eta aktibo potentzial guztien % 8,5 alegia.

Hortaz, datu horien argitara, nabaria da sektore eta okupazio jakinetan arazoak izan daitezkeela laneskua lortzeko, baina egia esan behar bada, EAEn, oro har, lan-indarraren eskaintzak handiagoa izaten jarraitzen du (betiere kopuruari begira), enpresek egindako eskariak baino. Nolanahi ere, kopurua askoz ere txikiagoa da 2003koa baino (147.295 pertsona), eta aipatzekoa da kopuru hori biztanleria potentzialki aktibo osoaren % 14 izan zela urte hartan.

3.1.a taula

Biztanleria aktiboa, jarduerarekiko loturaren arabera

Jarduerarekiko lotura	Datu	
	absolutuak	% bertikalak
Landunak	952.600	94,1
Lan egiten ez dutenak	60.120	5,9
<b>GUZTIRA</b>	<b>1.012.720</b>	<b>100</b>

3.1.b taula

Biztanleria potentzialki aktiboa, jarduerarekiko loturaren arabera

Jarduerarekiko lotura	Datu	
	absolutuak	% bertikalak
Landunak	952.600	91,5
Lan egiten ez dutenak	88.358	8,5
<b>GUZTIRA</b>	<b>1.040.958</b>	<b>100</b>



Kapitulu honetan, EA Eren biztanleria aktiboaren eta potentzialki aktiboaren ezaugarriak aztertuko ditugu zehatz-mehatz, benetako okupazio-esperientziari erreparatuta. Biztanleria aktiboaren kualifikaziorako elementu nagusia esperientzia hori izango da, abiapuntuko prestakuntza arautuarekin batera.

Okupazio-esperientziaren azterketara hurbiltzeko, honako bi alderdi hauek aztertu behar ditugu:

1. Egungo okupazioaren ezaugarriak, landunen kasuan.
2. 2002. urteaz geroztik izandako lan-esperientzia nagusia, egun lan egiten ez dutenetan.

Hala ere, alderdi horietan sakontzen hasi aurretik, aztertu behar dugun kolektiboa kokatu egingo dugu, mundu aktiboan eta produkzio-sisteman sartzeko hainbat adierazle orokorri dagokienez.

Ilido berari jarraiki, honako hau adierazi behar dugu: mundu aktiboan berriki sartu den biztanleria, gehien bat, izango dugu aztergai. Horrela, 1993. urteaz geroztik lan-munduan lehenengo aldiz sartu da benetako aktiboen % 37,4%, hau da, orain dela 15 urte baino gutxiago. % 37,4 lehenago hasi zen jardueran, hain zuzen ere 1979tik 1993ra doan aldian, eta 15-29 urte daramatzate jarduera-egoeran. Azkenik, egungo aktiboen % 25,2 orain 30 urte baino lehenago hasi zen jardueran.

Aktibo potentzialek antzeko ezaugarriak dituzte, jardueran orain 30 urte baino lehenago hasi zirenen proportzioari dagokionez (% 25,3). Alabaina, konparazioa eginez, lan-merkatuan orain 15 urte baino lehenago sartu zirenen proportzioak behera egin du (% 52,7, aktiboen % 62,6ren aldean). Hortaz, 2007an aktiboen proportzioa gainditu dute, orain 15 urte baino gutxiago lan-merkatuan sartu zirenen garrantziari dagokionez (47,3, benetako aktiboen % 37,4ren aldean).

Epe luzean, datu deigarriena honako hau da: lan-merkatuan berriki sartu diren aktiboen proportzioak behera egin du etengabe, eta horrek aditzera ematen du aztertutako kolektiboak denbora gehiago irauten duela lan-merkatuan. Horrela, merkatu horretan 15 urte baino gutxiago daramatenen proportzioa gutxitu egin dela ikus dezakegu: % 37,4. 2003an, aldiz, % 44,1 izan zen, eta, 1999an, % 49,2.

3.2 taula.  
 Jardueran hasiz gero igarotako urte kopurua  
 Biztanleria potentzialki aktiboa  
 (% bertikalak)

Urte kopurua	Aktiboen %	Aktibo potentziale	
		n %	guztien %
35 urte edo gehiago	16,5	14,6	16,4
30-34 urte	8,8	10,7	8,8
25-29 urte	10,5	4,7	10,3
20-24 urte	12,5	14,9	12,6
15-19 urte	14,4	7,8	14,2
10-14 urte	15,2	9,0	15,1
5-9 urte	13,2	10,6	13,2
5 urtetik beherakoak	8,9	27,7	9,4
Guztira	100	100	100

Funtsean, biztanleria aktiboari dagokionez, adierazi dugun egitura horrek lehenengo egiazko lanpostua lortzea jasotzen du; horrela, duela 30 urte baino gehiago produkzio-sisteman lehen aldiz sartutakoak % 24,5 dira, duela 15 eta 29 urte artean sartutakoak % 35,5, eta 15 urte baino gutxiagotik gaur arte sartutakoak % 39,5; % 0,6 lehen enplegua lortzeko zain dago oraindik. Jardueran eta enpleguan aurreneko aldiz sartzean atzematen den adospen horrek erakusten duenez, automatismorako joera nabarmena dago jardueran eta okupazioan sartzean.

Jardueran sartzean bezala, enpleguan sartzean antzinatasun-maila handiagoa nabari da okupazioan 2007. urtean. Lan-jardueran azken 15 urteetan lehen aldiz sartu zirenen proportzioa % 48,4 izan zen 1999an; 2003an, aldiz, proportzioa txikiagoa izan zen (biztanleria aktiboaren % 44,3), eta are txikiagoa 2007an (% 39,5). Aurreko kapituluetan adierazi dugun bezala, nabarmentzekoa da lehen enpleguaren zain daudenen proportzioak behera egin duela: 1999an % 3,7 izan zen, 2003an % 1,9 eta 2007an % 0,6, hurrenez hurren.

Ildo horretatik aipatzekoa da, halaber, jarduera potentzialaren egoeran dagoen biztanleria lehentxeago hasten dela lanean biztanleria aktiboa baino. Hala, esperientziarik gabekoak alde batera utzita, proportzioa % 36,8ra jaitsi da azken 15 urteetan lehen enplegua lortu zutenei dagokienez, eta % 39,7 izan da benetako aktiboen artean. Jardueran orain 30 urte baino lehenago hasi zirenen artean ageri da alderik deigarriena (% 35,3 aktibo potentzialen artean eta % 24,6 benetako aktiboen artean).

Neurri handi batean, datu horiek zera ematen dute aditzera, aktibo potentzialen bereizgarriek zerikusia dutela edo lan-esperientziaren erabateko ezarekin (guztizkoaren % 27,6, benetako

aktiboen % 0,6ren aldean) edo laneko esperientzia-denbora handiarekin, 15 urtetik gorakoa. Lan-esperientzia duten aktibo potentzialen % 63,2 egoera horretan dago, benetako aktiboen proportzioaren (% 60,3) pixka bat gainerik.

3.3 taula.  
Lan-jardueran hasiz gero igarotako urte kopurua.  
Biztanleria potentzialki aktiboa  
(% bertikalak)

Urte kopurua	Aktiboen %	Aktibo potentzialen %	
		len %	guztien %
35 urte edo gehiago	16,0	14,2	16,0
30-34 urte	8,5	11,4	8,6
25-29 urte	9,5	1,9	9,3
20-24 urte	12,1	11,5	12,0
15-19 urte	13,9	6,7	13,7
10-14 urte	15,0	6,4	14,7
5-9 urte	15,0	11,5	14,9
5 urtetik beherakoak	9,5	8,7	9,5
Oraindik ez da hasi	0,6	27,6	1,3
<b>Guztira</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>

Gaur egun lanean ari direnak aztertuta, egun lanean ari diren enpresan sartzeko igarotako aldia ez dator bat jardueran hasteko aldiarekin. Horrela, % 10,3 soilik sartu da egun dagoen enpresan duela 30 urte baino gehiago; % 24 duela 15-29 urte sartu da, eta gainerako % 65,7a duela 15 urtetik hona. Egia esateko, egun lanean ari diren biztanle gehienak (% 52,8) azken 10 urteotan sartu dira aurreneko aldiz egun dauden enpresan, eta % 28,9 azken 5 urteotan.

Hala ere, datu horiek aditzera ematen dutenez, jendeak denbora gehiago ematen du enpresan 1999. eta 2003. urteetan baino. Hala, egungo enpresan orain 15 urte baino gehiago sartu diren landunen proportzioa igo da (% 30,3tik 34,3ra), baita enpresan 5-14 urte daramatenen proportzioa ere (% 30,5etik % 36,8ra). Egungo enpresan 5 urte baino gutxiago daramatenen proportzioak, aldiz, behera egin du, % 39,2tik 28,9ra. Azken batean, 2007ko datuek aditzera ematen dute, batetik, biztanleriak urte gehiago daramatzala lan-merkatuan eta produkzio-sisteman oro har, eta, bestetik, landunek, batez beste, denbora gehiago ematen dutela enpresan aurreko urteetan baino, produkzio-sisteman askoz ere hobeto integratzen diren adierazgarri.

Enpresan sartzeari dagokionez adierazitako egitura hori gaur egungo okupazioaren banaketan errepikatzen da neurri handi batean, bien arteko aldeak oso txikiak baitira, enpresen

barruko barne-mugigarritasuna txikia den adierazgarri, okupazio mota aldatzea dakarren mugigarritasunari dagokionez behintzat.

### 3.4 taula.

Biztanleria landuna, egungo enpresan eta okupazioan sartuz gero igarotako urte kopuruaren arabera

(Datu absolutuak eta % bertikalak)

Urte kopurua	Egungo enpresan sartzea		Egungo okupazioan sartzea	
	Abs.	% bertikalak	Abs.	% bertikalak
35 urte edo gehiago	53.013	5,6	45.361	4,8
30-34 urte	45.068	4,7	42.817	4,5
25-29 urte	52.245	5,5	48.103	5,1
20-24 urte	76.459	8,0	70.467	7,4
15-19 urte	100.215	10,5	99.859	10,5
10-14 urte	122.280	12,8	121.030	12,7
5-9 urte	227.948	23,9	225.461	23,7
5 urtetik beherakoak	275.192	28,9	299.321	31,4
<b>Guztira</b>	<b>952.419</b>	<b>100</b>	<b>952.419</b>	<b>100</b>

Oharra: ED/EE ez dira kontuan hartu

## 1-. EGUNGO OKUPAZIOAN EMANDAKO ESPERIENTZIA URTEAK

Biztanleria aktiboaren lanbide-esperientzia balioesteko garaian, elementu erabakigarrietako bat egungo okupazioan emandako esperientzialdia da, zalantzarik gabe.

Aldagai hori kontuan izanda, EAEren biztanleria aktiboa honako talde nagusi hauetan bana daiteke:

a) Okupazio berean 10 urte edo gehiago daraman biztanleriaren kolektiboa biztanleria aktibo osoaren % 39,9 eta biztanleria landunaren % 42,4 da, hurrenez hurren. Biztanleria aktiboari dagokionez, proportzio hori nabarmen igo da aurreko urteen aldean. Izan ere, 1999an % 33,4 izan zen, 2003an % 36,5 eta gaur egun % 39,9. Hazkundera txikixeagoa da biztanleria landuna kontuan hartzen badugu: 1999an eta 2003an % 40 inguru izan zen, eta gaur egun, aldiz, % 42,4.

b) Okupazio berean 5-9 urte daramatzatzen kolektiboan ageri diren aldaketek aditzera ematen dutenez, azken urteetako lan-dinamikak eragin positiboa izan zuen 2007ra arte, ez soilik EAEren biztanleria aktiboaren esperientzia-mailan, baita biztanleria horrek okupazioan izandako egonkortasun-mailan ere. Horren ildotik, 5-9 urteko esperientzia dutenen kolektiboa % 17,3tik % 19,5era igo da 2003tik 2007ra bitarte biztanleria aktiboari dagokionez, eta % 19,1etik % 20,7ra bitarte biztanleria potentzialki aktiboari dagokionez.





c) Dinamika horren eraginez, egungo jardueran eta okupazioan 5 urtetik beherako esperientzia dutenen garrantzi erlatiboa murriztu da. Hala, biztanleria aktiboari dagokionez, egoera horien garrantziak behera egin du 2003tik 2007ra bitarte (% 36,9 eta 34,6, hurrenez hurren); bestetik, biztanleria landunari dagokionak ere behera egin du, % 40,7 izatetik % 36,8 izatera igaro baita.

d) Ildo beretik, une honetan lanik ez dutenen taldeari dagokionez (biztanleria aktiboaren % 5,9 dira gaur egun), beste atal batzuetan aipatutako beherakada nabarmena finkatu da (2003an % 9,3 izan zen, eta 1999an, berriz, % 16,8).

### 3.5 taula.

Egungo okupazioan emandako esperientzia urteak.  
Biztanleria aktiboa eta landuna  
(% bertikalak)

Esperientzia-urteak	Biztanleria aktiboa % ber.	Biztanleria landuna % ber.
3 urte baino gutxiago	24,7	26,2
3-4 urte	10,0	10,6
5-9 urte	19,5	20,7
10-14 urte	11,4	12,1
15-19 urte	9,5	10,1
20-24 urte	6,4	6,8
25-29 urte	4,7	5,0
30 urte edo gehiago	7,9	8,4
Lan egiten ez dutenak	5,9	0,0
<b>GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>

1995-2007 aldiko datuan azterketa eginda, epe luzera, datu nagusia honako hau da: gaur egungo okupazioan gutxienez 3 urteko esperientzia duten biztanleen kopurua handitu egin da. Biztanleria aktiboan, egoera horretan dauden proportzioa igo egin da 1995etik 2003ra bitarte, % 58,3 izatetik % 69,7 izatera igaro baita.

1999tik aurrera, 1995-1999 aldian sortutako lanpostuak finkatu egin dira, eta horrek zerikusi handia izan du igoera horretan. Hala, desokupazioaren beherakada handiarekin batera, 1999tik 2003ra bitarte behera egin du egungo okupazioan 3 urte baino gutxiagoko esperientzia dutenen proportzioak (% 27,1 eta % 24,5, hurrenez hurren), eta 3 urteko edo gehiagoko esperientzia dutenak, aldiz, gora (1999an % 56,1era jaitsi zen, baina 2003an biztanleria aktiboaren % 66,2 izan zen). 1995etik 1999ra bitarte % 35,1etik % 33,4ra jaitsi ondoren, mende berriko lehen urteetan

honako bilakaera hau ikusi da: enplegu batean 10 urte baino gehiago ematen duten aktiboen kopurua igo egin da pixkanaka. Proportzioa % 36,5era igo da 2003an, eta 2007an % 39,9 izan da.

Aintzat hartutako kolektiboen bolumenean gertatu diren aldaketek bermatu egiten dute aipatutako bilakaeraren norabidea. Hala, okupazioan 3 urteko edo gehiagoko esperientzia duten aktiboen kopurua izugarri igo da 1999tik 2003ra bitarte: 1995-1999 aldiko % 4,4tik % 31,6ra 1999-2003 aldian 3-9 urteko esperientzia dutenei dagokienez, eta % 1,3tik 10era 10 urteko edo gehiagoko esperientzia dutenei dagokienez, hurrenez hurren. Hazkundera gelditu egin da (% 0,8) 2003tik 2007ra bitarte 3-9 urteko antzintasuna duten enpleguei dagokienez; 10 urtetik gorako landunek, aldiz, erritmo bizian igotzeari eutsi diote, % 11,2 igo baitira azken laurtekoan.

Aldi berean, 1995etik 1999ra bitarte % 60,5 igo bazen ere, 3 urte baino gutxiagoko esperientzia dutenen bolumena % 9,2 jaitsi da 1999tik 2003ra bitarte. Hala eta guztiz ere, 2003-2007 aldian horrelako okupazioek goranzko joera (% 2,5) berreskuratu dutela baliatuz neurri handi batean, egungo okupazioan 3 urte baino gutxiago daramatenen proportzioa oraindik ere askoz ere handiagoa da 2007an 1995ean baino (% 24,7 eta 18%, hurrenez hurren, 1999an lortutako % 27,1eko gehienekoaren azpitik, nolana ere).

Logikoa denez, biztanleria landunaren bolumena igotzeak lanean ari ez diren aktiboen bolumena jaitea dakar berekin. 1995etik 1999ra bitarte % 24,3ra jaitsi ondoren, 1999-2003 laurtekoan gutxienekora jaitsi zen horien proportzioa (% 44,2), eta 2003tik 2007ra bitarte ere oso goitik ibili zen (% 35,3). 1995ean, lan egiten ez zutenak % 23,7 ziren; 2007an, aldiz, % 5,9 izan dira.

### 3.6 taula.

Egungo okupazioan emandako esperientzia-urteen bilakaera.

Biztanleria aktiboa

(egoera bakoitzeko biztanleriaren % bertikalak eta hazkunde-tasak, %-etan)

Esperientzia-urteak	1995	1999	2003	2007	Hazkun-	Hazkun-	Hazkun-
					dea %-etan	dea %-etan	dea %-etan
					1995-1999	1999-2003	2003-2007
3 urte baino gutxiago	18,0	27,1	24,5	24,7	60,5	-9,2	2,5
3-9 urte	23,2	22,7	29,7	29,5	4,4	31,6	0,8
10 urte edo gehiago	35,1	33,4	36,5	39,9	1,3	10,0	11,2
Lan egiten ez dutenak	23,7	16,8	9,3	5,9	-24,3	-44,2	-35,3
<b>GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>6,6</b>	<b>0,6</b>	<b>1,6</b>

Dinamika horri jarraiki, biztanleria aktiboaren batez besteko esperientzia hazi egin da: 1999an 8,28 urtekoa izan zen, 2003an 9,48 urtekoa eta 2007an 10,20 urtekoa, hurrenez hurren<sup>5</sup>. Bilakaera horrek 1995-1999 aldiko joera aldatu egin dela erakusten du, izan ere, aldi horretan batez besteko esperientziak behera egin baitzuen, 1995eko 8,44 urteko kopurutik abiatuta.

Biztanleria aktibo osoaren okupazioaren batez besteko urte kopuruan izandako hazkunde handia desokupazioaren gainbeherarekin loturik dago, hein handi batean. Biztanleria landunaren esperientzia-urteen batez bestekoa zorrotz aztertzen badugu, zera ikusten dugu, 90eko hamarkadan nabari zen joerak (jende askok enplegu berri bat eskuratu zuen) gaur egun ere indarrean jarraitzen duela. 2007an esperientzia-mailak biztanleria landunaren artean gora egin badu ere (2003ko % 10,46 baino handiagoa izan da), batez besteko esperientzia-maila oraindik txikiagoa da 1995ean erregistratutakoa baino: 10,84 urte eta 11,06 urte, hurrenez hurren; horrek 1999ko beherakada handiarekin du zerikusi handia (urte horretan, adierazlea 9,95 urte izan zen).

### **1.1.- Lan-esperientzia, ezaugarri soziodemografikoen arabera**

Egungo okupazioan izandako esperientzia-denbora sexuarekin eta adinarekin loturik dago, argi eta garbi. Horrela, biztanleria aktiboari dagokionez, egungo okupazioaren batez besteko esperientzia-zenbatekoetan alde handiak daude sexuaren arabera, gizonen aldeko 2,80 urteko batez besteko esperientziarekin (11,38 urte gizonetan eta 8,59 urte emakumeetan, hurrenez hurren). Bilakaerari begiratuta, 1999tik 2003ra bitarte, batez besteko esperientziaren hazkundera argiagoa izan da gizonetan (9,63tik 10,88ra, 1,25 puntuko igoerarekin) emakumeetan baino (6,38tik 7,54ra, 1,16 puntuko igoerarekin). Hala ere, 2003-2007 aldian bilakaera emakumeen aldekoa izan da, haien batez besteko esperientzia 1,05 puntu igo baita (gizonena, aldiz, 0,50 puntu bakarrik). Hortaz, 2003ko 3,34 puntuko aldea murriztu egin da, 2007an 2,80 puntuko aldea izan delako alde hori.

Adinean aurrera egin ahala, logikoa denez, esperientzia-urteak areagotu egiten dira: 25 urtetik beherako aktiboek 1,15 urteko batez besteko esperientzia dute, eta 55 urtetik gorako aktiboek, aldiz, 22,29 urtekoa. Adinarekin jarraituz, 40 urtetik gorako eta adin horretatik beherako aktiboen artean gertatzen den haustura azpimarratu behar dugu: 40 urtetik gora, EAEn batez besteko esperientzia-maila baino handiagoa izaten da, baina 40 urtetik beherakoetan, batez besteko horren oso azpitik geratzen da. Okupazioan batez beste emandako urte kopuruan nabari den haustura hori kontuan hartzeko da 35-39 urteko aktiboetan (7,32 urte) eta 40-44 urtekoetan (10,53 urte), eta igoera handiak nabari dira aintzat hartutako taldearen adin-tarteak gora egin ahala.

---

<sup>5</sup> Batez besteko esperientzia kalkulatzeko, biztanleria landunak enpleguan emandako urte kopurua hartzen da kontuan (lan egiten ez duen biztanleriari zero maila esleitzen zaio).

Eten hori 35 urterekin gertatzen zen 1995. urtean; beraz, belaunaldi berrietan okupazioaren mugigarritasuna handitu egin dela esan daiteke. Errealitate hori oso garbi ikusiko dugu honako datu hauek begiratuta: 1995. urtean, 35-39 urteko aktiboek 9,9 urteko batez besteko esperientzia zuten euren lanpostuetan; 1999. urtean, 6,69 urtera murriztu zen proportzioa, eta 2003an eta 2007an zertxobait igo da (7,17 eta 7,32, hurrenez hurren).

Bestetik, 1999tik 2007ra bitarte lanpostuan emandako urte kopuruen batez bestekoak pixka bat gora egin badu ere, batez besteko hori txiki samarra da oro har, eta gainera behera egin du 40-49 urteko adin-taldeetan. 50 urtetik gorakoei dagokienez, aldiz, igoera nabaria izan du 2003. urtetik aurrera. Igoera horren eraginez, eta ez-okupazioaren beherakadaren eta 40 urtetik beherakoetan erregistratutako aurrerapen txikien ondorioz, EAEren biztanleria aktiboak egungo okupazioan emandako urte kopurua igo egin da oro har.

Okupazioan izandako batez besteko esperientzia-mailei dagokienez, aktiboek eta potentzialki aktiboek osatzen duten osotasunaren eta aktiboen artean dauden aldeei erreparatuta, emakumeen kasuan batez besteko maila nabarmen jaitsi dela ohartzen gara (8,59tik 8,19ra, gizonetan 11,38tik 11,24ra jaitsita). Biztanleria potentzialki aktiboan, esperientziaren batez bestekoetan ageri den jaitsierak eragin diferentziala du adinaren arabera. Izan ere, 0,10eko edo gutxiagoko aldeak nabari dira 40 urtetik beherakoetan; adin horretatik aurrera biztanleria zahartu ala, ordea, alde hori handitu egiten da pixkanaka. 40-49 urtekoetan 0,35etik behera dabil alde hori; 50-54 urtekoetan, aldiz, aldea 0,43 puntukoa da, eta 0,80 puntukoa (gehienekoa) 55 urtetik gorakoetan.

### 3.7 taula.

Egungo okupazioan emandako esperientzia-urteei dagozkien adierazle orokorrak, sexuaren eta adinaren arabera.

			Egungo okupazioan emandako batez besteko urteak (1) 2007	Egungo okupazioan emandako batez besteko urteak (2) 2007	Egungo okupazioan emandako batez besteko urteak (2) 2003	Egungo okupazioan emandako batez besteko urteak (3) 2007
	Landunak	Lan egiten ez dutenak %- etan (2)				
<b>Sexua</b>						
Gizona	553.100	5,1	11,99	11,38	10,88	11,24
Emakumea	399.500	7,1	9,25	8,59	7,54	8,19
<b>Adina</b>						
25 urtetik beherakoak	54.800	12,7	1,32	1,15	1,20	1,05
25-29 urte	118.187	10,8	3,09	2,76	2,61	2,70
30-34 urte	160.213	4,2	5,21	4,99	4,27	4,92
35-39 urte	130.638	5,4	7,74	7,32	7,17	7,24

40-44 urte	146.962	6,1	11,21	10,53	11,39	10,20
45-49 urte	120.445	3,9	14,41	13,86	15,14	13,51
50-54 urte	111.555	5,8	19,38	18,26	17,68	17,83
>= 55 urte	109.800	2,0	22,74	22,29	20,85	21,48
<b>GUZTIRA</b>	<b>952.600</b>	<b>5,9</b>	<b>10,84</b>	<b>10,20</b>	<b>9,48</b>	<b>9,92</b>

(1) *Egun lanean ari den biztanleria*

(2) *Biztanleria aktiboa*

(3) *Biztanleria potentzialki aktibo osoa*

Sexuaren eta adinaren arabera azterketa eginez gero, zera ikusten dugu, 35 urtetik beherakoetan, biztanleria aktiboak okupazioan emandako esperientzia-urteen batez besteko zenbatekoa EAEren batez bestekoa baino txikiagoa dela, bai gizonetan bai emakumeetan (3,55 eta 3,46 urte, hurrenez hurren). Dena den, 35-44 urtetik beherakoetan ere EAEren batez bestekoaren azpitik dabil, emakumeetan bereziki: 8,27 urte (9,62 urte, gizonen kasuan). 45 urtetik gorakoetan artean, aldiz, batez bestekoa nabarmen handiagoa da: 19,95 urte (emakumeetan, aldiz, 14,89 urtekoa da). Adinean gora egitearekin batera, esperientzia-urteen kopuruan dagoen aldea ere handitu egiten da, gizonen alde. Horrela, 35 urtetik beherakoetan aldea 0,09 puntukoa besterik ez bada, 35-44 urtekoetan jada 1,36 puntukoa da, eta 45 urtetik gora 5,05era igotzen da.

Alabaina, sexuaren arabera aldea handia da, baina ez espero zitekeen bezainbestekoa: gizonen eta emakumeen artean, okupazioan izandako esperientzia-mailak oso antzekoak dira, eta are gehiago, egun lanean ari den biztanleria soilik aintzat hartuta. Izan ere, maila horretako alde handiena 45 urtetik gorako gizonen eta emakumeen artean gertatzen da: 20,50 urte gizonetan eta 15,81 urte emakumeetan, eta hala ere, ez da alde handia. Lehen aipatu ditugun alde handi horiek azaltzen laguntzen digu datu horrek, emakumeen artean ez-okupazioak duen intzidentzia diferentzialak, alegia. Bide berari jarraituz, benetan lanean ari den biztanlerian, sexuaren arabera esperientzia-mailan gorabehera handiak izateaz gain, biztanleria aktiboan lan egiten ez dutenen proportzioak ere maila berean eragiten du, betiere proportzio hori emakumeetan askoz handiagoa izanik. Faktore hori honako hauei gehitzen zaie: emakumearen egoera txarragoa da gizonaren egoeraren aldean, eta horretaz gain, lehen lan-jarduerarik ez izateko joera zuten emakumeek lanerako prestasun handiagoa dute une honetan .

Eta nola ez, ez-okupazioa elementu erabakigarria izanik, aldea nabarmenagoa da aktiboak aintzat hartzean, landunen kaltetan; eta aktiboan kaltetan, aktiboak eta potentzialki aktiboak batera aintzat hartuz gero. Gainera, kasu horretan nabari da gehien gizonen eta emakumeen ateko aldea. Eta alde hori adinarekin batera handitzen ari da. Hori horrela izanda, landunen artean, 35 urtetik beherakoetan batez beste 0,07 urteko aldea badago gizonen alde, eta aktiboak eta potentzialki aktiboak batera hartuz gero, 0,15ekoa baino ez da alde hori. 35-44 urtekoetan, 1,23tik 1,71ra igotzen da aldea. Baina alde handiena 45 urte eta gehiagokoetan artean ikusten da, 4,70 puntutik

5,63 puntura. Batez besteko zenbatekoen beherakadan jarduera potentzialak duen eragina 35 urtetik gorako emakumeetan atzematen da batik bat.

Azkenik, atal honetan beste datu bat aipatu behar da: biztanleria aktiboan, bi kolektibo espezifikok 2003tik 2007ra bitarte okupazioan batez beste emandako urteen kopurua. 35-44 urteko gizonak osatzen dute lehen kolektiboa: 2003an batez bestekoa 10,37 urte izan da, eta 2007an, berriz, 9,62 urte. Horrek azaltzen du, neurri handi batean, okupazioan batez beste emandako urte kopurua gutxiago igo izana gizonen artean emakumeen artean baino. 45 urtetik gorako emakumeen artean ere nabari da beherakada hori, neurri apalagoan izan bada ere: 2003ko 15,13 urtetik 2007ko 14,89 urtera.

### 3.8 taula.

Egungo okupazioan emandako esperientzia-urteei dagozkien adierazle orokorrak, sexuaren eta adinaren arabera

	Landunak	Lan egiten ez dutenak % etan	Egungo okupazioan emandako batez besteko urteak (1) 2007	Egungo okupazioan emandako batez besteko urteak (2) 2007	Egungo okupazioan emandako batez besteko urteak (2) 2003	Egungo okupazioan emandako batez besteko urteak (3) 2007
Gizonak < 35	184.700	7,8	3,85	3,55	3,16	3,47
Gizonak 35-44	157.100	4,9	10,11	9,62	10,37	9,60
Gizonak >= 45	211.300	2,7	20,50	19,95	19,41	19,73
Gizonak	553.100	5,1	11,99	11,38	10,88	11,24
Emak. < 35	148.500	8,4	3,78	3,46	2,47	3,32
Emak. 35-44	120.500	6,9	8,88	8,27	7,58	7,89
Emak. >= 45	130.500	5,8	15,81	14,89	15,13	14,10
Emakumeak	399.500	7,1	9,25	8,59	7,54	8,19
GUZTIRA	952.600	5,9	10,84	10,20	9,48	9,92

(1) *Egun lanean ari direnak*

(2) *Biztanleria aktiboa*

(3) *Biztanleria potentzialki aktibo osoa*

## 1.2.- Egungo okupazioan lan-esperientzia, okupazio motaren, enpresa motaren eta kontratu bidezko loturaren arabera

Aurreko atalean egungo okupazioan izandako esperientziaren ezaugarri soziodemografikoak aztertu ondoren, produkzio-sisteman sartzen diren biztanleen lan-esperientziaren mailen eta egindako okupazioaren ezaugarrien arteko loturarekin zerikusi handiena duten gaiak aztertuko ditugu jarraian.

*Lanbidea* aldagaiarekin hasiko gara: zerbitzuetakoak ez diren sektoretako eremu espezializatuekin lotura zuzenagoa duten lanbideetan, administrarietan eta zuzendarien eta teknikarien artean atzematen dira lan-esperientziako mailarik handienak.

Lehen sektoreko, industriako eta eraikuntzako langile kualifikatuen kasuan, egungo okupazioan emandako batez besteko denbora 12,52 urte dira, 1999. urteko 11,37 urteak eta 2003ko 12,38 urteak gaindituta. Lanbide-mota horietako okupazio-eremu askotan, gainera, maila hori erraz gainditzen da. Lehen sektorearekin zerikusia duten lanbideetan atzematen da hori, 15 urtetik gorako esperientziarekin, batez beste; baita zenbait arduradun motatan, hala nola metal-arloan dihardutenak (17,13 urte) edo makineria finkoarekin eragiketak egiten dituztenak (15,34 urte); baita doitasun-langile eta artisauen (17,19), manufaktura-industriako langileen (15,81) edo instalazio industrial finkoen operadoreen artean ere (15,06 urte). Horrelako lanbideetan, ordea, egungo okupazioan emandako batez besteko urte kopurua oso handia izaten da beti, gehienetan EAEren batez bestekoa gaindituta. Lehen sektoreari, industriari eta eraikuntzari lotutako lanbideetan, eraikuntzako langileen kategoria jakin batzuetan (sektoreko egiturazko lanekin zerikusia duten arduradun eta langileak) bakarrik jaisten da 10 urteren azpitik batez besteko urte kopurua.

Zuzendarien eta teknikarien kasuan, halaber, esperientzia maila handiagoa da (11,67 urte) EAEren batez bestekoa baino. 1999tik 2003ra bitarte beherakada txikia nabari zen (10,42 urtetik 10,37 urtera), eta jarraian (2003-2007 laurtekoan), beraz, kolektibo hori bere lanpostuan finkatu zen. Zerbitzuetakoak ez diren adarretako lanbide jakin batzuetan lortutako goreneko mailalara sektore publikoko zuzendariak bakarrik iritsi badira ere (21 urteko esperientzia lortu dute, batez beste), 2007an teknikari- eta zuzendari-kategoria batzuek 12-15 urteko esperientzia-mailak lortu dituzte batez beste, hortaz, EAEren batez besteko orokorraren ginetik nabarmen. Esate baterako, enpresa pribatuetako gerenteak (13,18 urte), teknikariak eta hainbat sektoretako erdi-mailako edo goi-mailako tituludunak, hala nola, osasungintzakoak, irakaskuntzakoak edo zuzenbidekoak (batez besteko 12-14 urteko esperientziarekin), idazle eta artistak (13,48) administrari-laguntzako teknikariak (12,73).

Hala ere, teknikarien beste kategoriatan askoz esperientzia-maila txikiagoak dituzte, EAEren batez bestekoaren azpitik nabarmen. Adibidez, Indar Armatuak (6,11 urte), ingeniari teknikoak eta goi-mailakoak (7,71 eta 7,58 urte, hurrenez hurren) eta erdi-mailako bestelako tituludunak (4,39) edo teknikari laguntzaileak (6,94). Batez beste 10 urteko esperientziaren azpitik badaude ere, ingeniari teknikoek eta teknikari laguntzaileek 9-10 urteko esperientzia lortu dute osasungintzarekin, natura-zientziekin eta irakaskuntzarekin zerikusia duten eremuetan.



Talde profesional horietan ez bezala, 2003-2007 laurtekoan behera egin du administrarien artean okupazioan izandako esperientzia-urteen batez besteko kopuruak. 1999tik 2003ra bitarte gora egin ondoren (11,27 urtetik 12,13 urtera igaro zen), 2007an kopuruak behera egin zuen (10,26 urte), adierazlea EAEren batez besteko zenbatekoa baino txikixeagoa izanik. Nolanahi ere, alde handiak nabarmendu dira lanbide mota horren barnean. Hala, finantza-jarduerekin eta produkzioarekin zerikusia duten administrariak (12,14) eta posta-zerbitzuetako langileak (16,44) nabarmen gainditu dute EAEren batez bestekoa, eta jendaurreko zuzeneko arretan jarduten ez duten gainerako administrari laguntzaileak bitarteko maila batean geratu dira (10,87). Aldiz, okupazioaren batez bestekoa % 9,26ra jaitsi da jendaurreko zuzeneko arretan diharduten gainerako administrari laguntzaileen artean. Kutxazainen (7,14) eta harreragileen (3,22) kasuan kopuruak nabarmen murriztu dira.

Bestetik, esperientzia-urteen batez besteko kopuruak behera egin du nabarmen zerbitzu-sektoreko gainerako langileen artean (ostalaritzako, merkataritzako, jatetxeetako, zerbitzu-pertsonaletako lanbideak eta abar), baita euskal ekonomiaren kualifikatu gabeko lanbide-eremuetan ere. Batez besteko hori 7,67 urte da kualifikatu gabeko lanetan, eta 8,22 urte zerbitzu-sektoreko langile kualifikatuen artean. Hala eta guztiz ere, azkenaldian talde horietan okupazio-urteen batez bestekoa handitzen ari dela ikusi dugu: zerbitzu-sektoreko langile kualifikatuetan, 6,43, 7,86 eta 8,22 izan da 1999an, 2003an eta 2007an, hurrenez hurren; eta 7,29, 7,34 eta 7,67, hurrenez hurren, kualifikatu gabeko langileei dagokienez.

Zerbitzuetako langile kualifikatuen artean, zenbatekoek EAEren batez besteko orokorretik beherako okupazio-mailak erakusten dituzte normalean, segurtasun-zerbitzuetako langileen salbuespen bakarrarekin (11,28 urteko esperientzia batez beste okupazioan, gainera 1999ko 9,64ren gainetik nabarmen). Merkataritzako saltzaileen kasuan, kopuru hori ez da asko jaitsi 10 urteren azpitik (8,88). Aldiz, batez besteko esperientzia-maila 7,76 urtera jaitsi da zerbitzu-pertsonaletan, eta 5,95 urtera ostalaritzarekin edo jatetxeekin zerikusia duten zerbitzuetan.

Kualifikatu gabeko langileei dagokienez, aipatzekoa da lanbide-kategoria batzuetan EAEren batez bestekoa gainditzen dela, hala nola zerbitzuetako kualifikatu gabeko bestelako langileen taldean (11,49) edo manufaktura-industriako peoietan (10,45). Alabaina, kualifikatu gabeko gainerako lanetan zenbatekoak askoz ere txikiagoak dira, hain zuzen ere 7-8 urteko esperientzia batez beste etxeko eta garbiketako langileei, etxezainei eta garraioko peoiei dagokienez. Okupazioaren batez bestekoa 4-5 urtera ere jaitsi da merkataritzako kualifikatu gabeko langileen eta eraikuntzako peoien eremuan, eta 2 urteren azpitik ere ibili da nekazaritzako peoien kasuan.

Nabarmenezkoa da 2007an zuzendari, teknikari eta administrariak egungo biztanleria landunari dagozkion lan-urte guztien % 45,4 metatu dutela, eta lehen sektoreko, industriako eta eraikuntzako talde kualifikatuen edo erdikualifikatuen % 35,5 gainditu dutela. Gainerako %19,1a

zerbitzu-sektoreko langile kualifikatuei eta erdikualifikatuei (% 11,1) eta kualifikatu gabeko langileei (% 8) dagokie, zenbateko hori 1999koa baino handiagoa (% 16,6), baina 2003koa baino txikiagoa (% 20,5) izanik.

Oro har, datuek aditzera ematen dute enpleguaren okupazio-esperientziari dagokionez 1999an atzemandako egitura metatua itzuli egin dela, okupazio jarraituko zuzendari, teknikari eta administrarien nagusitasunean oinarritua. 2003an atzemandako egoeraren ondoren (% 40,4 zerbitzuetakoak ez diren sektoreetako langileei dagokie, eta % 39,1, berriz, zuzendari, teknikari eta administrariei), 1999koaren antzeko egoera itzuli da, urte horretan lehen aldiz BAKIak okupazio-urteetako garrantzi erlatibo handiena erregistratu baitzuen zuzendari, teknikari eta administrarien artean: % 44,1 (zerbitzuetakoak ez diren sektoreetako langileen % 39,3ren aldean). Dena den, 1999ko egoerara itzuli bagara ere, esan beharra dago 2007an biztanleria landunaren bolumena askoz ere handiagoa izan dela.

### 3.9 taula

Egungo okupazioan emandako esperientzia-urteei dagozkien adierazle orokorrak, lanbidearen arabera  
Biztanleria landuna

Lanbidea	Datu absolutuak	Egungo okupazioan emandako batez besteko	Egungo okupazioan emandako urteak,
Indar Armatuak	1085	6,11	6626
Sektore publikoko zuzendariak	54	21,00	1127
Enpresa pribatuetako zuzendari/gerenteak	59525	13,18	784343
Ingeniariak	23057	7,58	174887
Osasun-ar. eta N. Zient. goi-mail. titulua	8716	13,73	119667
Irakaskuntzako goi-mailako titulua	30092	14,04	422354
Zuzenbideko goi-mailako titulua	12782	12,90	164872
Gizarte-zientzien goi-mailako titulua	11021	11,40	125679
Idazleak, artistak	7975	13,48	107532
Ingeniari teknikoak	13838	7,71	106667
Osasun-ar. eta N. Zient. erdi-mail. titulua	20205	14,07	284235
Erdi-mailako titulua. Irakaskuntza	27155	12,79	347354
Erdi-mailako beste titulu batzuk	3281	4,39	14387
Ingeniari teknikoak	27647	9,54	263698
Osasun ar. eta N. zient. teknikariak	6114	8,92	54565
Irakaskuntzako teknikariak	1648	9,94	16380
Finantza- eta merkataritza-laguntzako teknikariak	29075	11,11	322882
Administrazio-laguntzako teknikariak	27977	12,73	356047
Beste zenbait laguntza-teknikari	8409	6,94	58365
<b>Zuzendariak eta teknikariak</b>	<b>319654</b>	<b>11,67</b>	<b>3731665</b>
Administrazio- eta finantza- enplegatua	27760	12,14	336983
Posta-zerb. administrariak eta parekoak	7239	16,44	119043
Bulegoko makineta operadoreak			
Jendaurreko zereginik gabeko beste adm.	17575	10,87	191003

Jendurreko zereginak dituzten beste adm.	23081	9,26	213744
Harreragileak	7152	3,22	23017
Kutzazainak	10862	7,14	77509
<b>Administrariak</b>	<b>93669</b>	<b>10,26</b>	<b>961297</b>
Ostalaritzako eta jatetxeetako langileak	32559	5,95	193792
Zerbitzu pertsonaletako langileak	35964	7,76	279105
Segurtasun-zerbitzuetako langileak	18219	11,28	205504
Merkataritza-saltzaileak	53055	8,88	471304
<b>Zerbitzuetako kualifikatuak</b>	<b>139798</b>	<b>8,22</b>	<b>1149705</b>

## 3.9 taula

Egungo okupazioan emandako esperientzia-urteei dagozkien adierazle orokorrak, lanbidearen arabera

Biztanleria landuna  
(Jarraipena)

Lanbidea	Datu absolutuak	Egungo okupazioan emandako batez besteko urteak	Egungo okupazioan emandako urteak, guztira
Nekazaritza-jardueretako langileak	10525	15,78	166054
Abeltzaintza-jardueretako langileak	1455	19,31	28105
Nekazaritzako beste jard. lang.	823	34,92	28748
Arrantzaleak	1690	11,79	19918
Eraikuntzako arduradunak	5859	9,49	55606
Eraikuntzako egit. obretako langileak	30502	9,07	276618
Eraikuntza-akaberako langileak	27604	11,19	308768
Metal-arloko arduradunak	6630	17,13	113603
Erauzketako ind. lang.			
Soldatzaileak, txapistak	29114	13,78	401303
Mekanikari doitzzaileak	30230	13,32	402621
Doitasuneko lang. eta artisauak	6365	17,19	109423
Elikagai-arloko langileak	3709	10,12	37514
Manufaktura-industriako langileak	5822	15,81	92050
Indus. instal. finkoetako arduradunak	4844	12,43	60205
Indus. instal. finkoetako operadoreak	17746	15,06	267172
Makina finkoetako operadoreen arduradunak	4229	15,34	64850
Makina finkoetako operadoreak	47614	11,70	557222
Muntatzaileak	17298	11,99	207385
Makina mugikorretako operadoreak	12229	11,14	136242
Gidariak	28188	11,67	329067
<b>Beste kualifikatuak</b>	<b>292477</b>	<b>12,52</b>	<b>3662472</b>
Kualifikatu gabeko langileak. Merkataritza	274	4,31	1180
Etxeko enplegatuak/garbitzaileak	52958	7,26	384541
Etxezainak	9906	7,95	78730
Zerbitzuetako kualifikatu gabeko best. langileak	5563	11,49	63940
Nekazaritzako peoiak	1281	1,96	2507
Eraikuntzako peoiak	10586	4,74	50160
Manufakturako ind. peoiak	15250	10,45	159345
Garraioko peoiak	11184	7,22	80768
<b>Kualifikatu gabekoak</b>	<b>107002</b>	<b>7,67</b>	<b>821171</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>952600</b>	<b>10,84</b>	<b>10326311</b>

*Lanbide-kategoriaren* aldagaia kontuan hartzen badugu, zera ikusten dugu, zuzendariak (15,02 urte) eta erdi-mailako arduradun eta kargudunak (13,17 urte) dituztela esperientzia-maila handienak egungo okupazioan, eta langileak eta langile kualifikatuak ere batez bestekoaren gainetik nabarmentzen direla (12,53 urte). Teknikarien esperientzia-maila, aldiz, batez bestekoaren parean dago (10,84 urte), eta kualifikatu gabeko langileen artean ageri da esperientzia-maila txikiena okupazioan (8 urte).

Deigarria egin zaigu 1995-2003 aldian etengabe izan den goranzko joera, zuzendariak eta teknikariak egungo lanpostuan daramaten urte kopuruaren batez bestekoari dagokionez. Lehenengo kasuan, urteen batez bestekoa 11,46tik 15,02ra aldatu da 1995. urtetik 2007. urtera; bigarrenetan, aldiz, 9,69tik 10,84ra. Gainerako lanbide-kategorietan, 1999-2007 aldiko bilakaerak erakusten duenez, 1995-1999ko beherakadaren joera aldatu egin da, eta nabarmen, gainera, zenbait kasutan. Igoera egon den arren, okupazioaren batez besteko urte kopurua 1995ekoa baino txikiagoa da oraindik kualifikaziorik gabeko langileetan (8,00 urte, 1995ean 9,13 urte izanik), langile kualifikatuetan (12,53 urte, eta lehen 13,03 izanik) eta erdi-mailako kargudunetan (13,17 urte, lehen 13,57 izanik).

Era berean, honako hau ere aipatu behar dugu: egungo lanpostuan metaturiko okupazio-urteetatik % 62 langileei dagokie, kualifikatuak ala kualifikaziorik gabeak izanda ere. Dena den, 2003ko % 68,4ren azpitik dago proportzioa. 2003-2007 aldian, aldiz, teknikari eta zuzendariak dagokien ehunekoak gora egin du, % 21,4tik % 27,1era.

### 3.10 taula

Egungo okupazioan emandako esperientzia-urteei dagozkien adierazle orokorrak, lanbide-kategoriaren arabera  
Biztanleria landuna

Lanbide Kategoria	Datu absolutuak	Egungo okupazioan emandako batez besteko	Egungo okupazioan emandako batez besteko	Egungo okupazioan emandako batez besteko	Egungo okupazioan emandako batez besteko	Egungo okupazioan emandako
		urteak 2007	urteak 2003	urteak 1999	urteak 1995	urteak, guztira 2007
Kualifikatu gabea	317.582	8,00	7,46	7,31	9,13	2.540.757
Kualifikatua	308.029	12,53	12,07	11,50	13,03	3.861.131
Erdi-mailako arduradun eta kargudunak	85.525	13,17	12,84	12,53	13,57	1.126.069
Teknikariak	198.125	10,84	10,37	9,71	9,69	2.147.398
Zuzendariak	43.339	15,02	13,77	12,19	11,46	650.956
<b>GUZTIRA</b>	<b>952.600</b>	<b>10,84</b>	<b>10,46</b>	<b>9,95</b>	<b>11,06</b>	<b>10.326.311</b>

Lanbidea aztertu dugun atalean emandako datuekin koherente izanik, jarduera-sektorearen araberako datuek berresten dutenez, batez besteko esperientzialdiak luzeagoak izaten dira zerbitzuetakoak ez diren sektoreetan. Lehen sektorean eta industrian lortu du adierazleak maila gorena, 14,59 eta 12,46 urte hurrenez hurren, eta batez bestekoaren azpitik geratu da zerbitzuetan (10,30). Nolanahi ere, eraikuntzak lortu du maila txikiena (8,79).

Lehen sektorean, ordea, alde handiak ageri dira nekazaritzaren —batez besteko okupazio-maila oso handiak (16,86)— eta arrantzaren artean. 2007an, jarduera-adar horren okupazio-maila askoz ere txikiagoa izan da (6,78) EAEren batez bestekoa baino.

Industrian, zenbait adarretan zenbateko handiak ageri dira. Esate baterako, kautxu-industriak (13,29), metalurgiak (12,76), makineria-eraikuntzak (14,44) eta askotariko manufaktura-industriek (14,55) 12,50 urteko esperientzia gainditu dute batez beste. Gainerako adarretan, enpleguan batez beste emandako urte kopurua 10 urte eta 11,50 urte bitarte izaten da. Erauzketa-industrian, material elektrikoaren industrian eta energia-produkzioan, aldiz, 10 urtetik beherako mailak atzeman dira, okupazioan batez beste emandako esperientzia 8,5 urte eta 10 urte bitarte izan baita. Eraikuntzan ere egoera horretan daude, batez besteko esperientzia 8,79 urte delako.

Zerbitzuen sektorean bertan gorabehera handiak atzeman dira, jarduera-adarraren arabera. Zenbait adarretan, okupazioko urte kopuruak EAEren batez bestekoa gainditu du nabarmen, esate baterako, finantza-sektorean (14,65 urte), administrazio publikoan (13,49) eta hezkuntzan (13,21). Merkataritzan, garraio eta komunikazioetan eta osasunaren eta gizarte-zerbitzuen arloan, halaber, zenbatekoak handi samarrak izan dira, zehazkiago, 10,50-11,50 urtekoak. Gainerako merkataritza-zerbitzuetan (8,87), enpresentzako zerbitzuetan (7,67), ostalaritzan (6,45) eta etxeko zerbitzuan (5,17), aldiz, adierazlea nabarmen jaitsi da.

Azkenaldiko bilakaerari dagokionez, nabarmentzekoa da zerbitzuetakoak ez diren adarretan batez besteko okupazio-mailek behera egin dutela 2003tik 2007ra bitarte. Ildo horretatik, eta salbuespen gutxi batzuk gorabehera —askotariko manufaktura-industriei dagokiena, funtsean— azkenaldiko bilakaerak erakusten duenez, industrian emandako okupazio-urteen batez besteko kopuruan 1999tik 2003ra bitarte atzemandako goranzko joera hautsi egin da. Hala, esperientzia-urteen batez besteko kopurua 13,04tik 12,46ra jaitsi da 2003tik 2007ra, 1999ko zenbatekoaren gainetik nolnahi ere (11,98 urteko esperientzia okupazioan, batez beste). Nekazaritzak mailari eutsi zion 1999tik 2003ra bitarte, baina 18,38tik 14,59ra jaitsi zen 2007an, neurri handi batean adierazleak arrantzan beherakada handia izan zuelako. Azkenik, eraikuntzan, azkenaldiko bilakaerak erakusten duenez, 1999tik 2003ra bitarte atzemandako jaitsiera finkatu da: 1999an 8,94 urte izan zen, 2003an 8,87 urte eta 2007an 8,79 urte, hurrenez hurren.

2003tik 2007ra bitarte, zerbitzuen eremuan bakarrik eutsi diote goranzko joerari enpleguko esperientzia-zenbatekoei dagokienez. Kasu horretan, okupazioan batez beste emandako urte kopuruak gora egin du 1999tik 2007ra bitarte (1999an 8,87 urte izan zen, 2003an 9,38 urte eta 2007an 10,30 urte, hurrenez hurren), eta esan beharra dago azken kopuru hori txikiagoa dela EAEren batez besteko mailak baino, aldeaz aurretik ikusi ahal izan dugunez. Zerbitzu-sektorean, etxeko zerbitzuan eta garraio eta komunikazioen adarrean bakarrik egin du behera adierazleak 2003-2007 laurtekoan; finantza-erakundeen, hezkuntzaren eta bestelako merkataritza-zerbitzuen adarretan, aldiz, gora egin du nabarmen.

## 3.11 taula

Egungo okupazioan emandako esperientzia-urteei dagozkien adierazle orokorrak, jardueraren arabera

## Biztanleria landuna

Jarduera	Datu absolutuak	Egungo okupazioan emandako batez besteko urteak	Egungo okupazioan emandako urteak, guztira
Nekazaritza.	13.490	16,86	227.452
Arrantza	3.921	6,78	26.582
<b>Nekazaritza eta arrantza</b>	<b>17.411</b>	<b>14,59</b>	<b>254.034</b>
Erauzketa-industria	749	9,11	6.828
Elikagai-industria	11.841	11,30	133.762
Paper-industria	11.652	11,06	128.867
Industria petrokimikoa	13.232	10,53	139.278
Kautxu-industria	13.399	13,29	178.039
Bestelako gai ez-metalikoen industria	7.853	10,23	80.345
Metalurgia	72.618	12,76	926.694
Makineriaren eraikuntza	52.400	14,44	756.745
Material elektrikoa	17.885	8,79	157.256
Garraio-materiala	32.701	11,62	379.862
Askotariko manufaktura-industriak	22.094	14,55	321.574
Energia-produkzioa	4.648	9,55	44.387
<b>Industria</b>	<b>261.072</b>	<b>12,46</b>	<b>3.253.637</b>
<b>Eraikuntza</b>	<b>83.351</b>	<b>8,79</b>	<b>732.429</b>
Merkataritza	128.496	10,76	1.383.204
Ostalaritza	38.208	6,45	246.519
Garraioak eta komunikazioak	55.284	11,08	612.815
Finantza-erakundeak	18.212	14,65	266.828
Enpresetarako zerbitzuak	105.830	7,67	811.396
Administrazio Publikoa	53.669	13,49	723.864
Hezkuntza	63.308	13,21	836.084
Osasuna/gizarte-zerbitzuak	66.533	11,34	754.504
Bestelako merkataritza-zerbitzuak	36.293	8,87	322.065
Etxeko zerbitzua	24.933	5,17	128.934
<b>Zerbitzuak</b>	<b>590.766</b>	<b>10,30</b>	<b>6.086.212</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>952.600</b>	<b>10,84</b>	<b>10.326.311</b>



Establezimenduaren barne-ezaugarriei dagokienez, establezimenduaren tamaina zenbat eta handiagoa izan, egungo okupazioaren esperientzia-urteen kopurua ere orduan eta handiagoa da, 3 enpleguko edo gehiagoko establezimenduetan behintzat. Horrela, 3 eta 19 enplegu artean dituzten establezimenduetan, enpleguan emandako batez besteko urte kopurua 9-9,5 da, eta zenbateko hori progresiboki handitzen da 500 langile edo gehiago dituzten establezimenduetaraino (13,34 urte). Salbuespen bakarra dago: langile 1 edo 2 dituzten establezimenduak; horietan, egungo enpleguan 11,13 urteko okupazioko batez bestekoa dute, 100 langile edo gehiagoko establezimenduek soilik gainditzen dutena.

Zentroen tamaina handitzearekin batera okupazioko batez bestekoak handitzen diren arren, batez ere 100 langile edo gehiagoko establezimenduetan ikusten dira bereziki egungo okupazioan esperientzia-maila handienak, 12-13,5 urteko zenbatekoekin.

Oro har, tamaina talde bakoitzean, okupazioan batez besteko emandako urte kopuruak gora egin du 1999-2003 alditik 2007ra bitarte. Nolanahi ere, esan beharra dago igoera neurritzkoa izan dela oro har, eta gainera nolabaiteko joera-aldaketa nabarmendu dela zentro handietan. Hala, okupazioan batez beste emandako urte kopuruak egonkortzera egin du 2003tik 2007ra bitarte 100-499 langileko zentroetan, 12,36 urtetik 10,89 urtera jaitsi da 50-99 enpleguko establezimenduetan eta 14 urtetik 13,34 urtera 500 langile baino gehiago dituztenetan. Nolanahi ere, adierazlea 1999koa baino handiagoa da aintzat hartutako establezimendu mota guztietan.

Nolanahi ere, 1999-2007 aldiko joerak ez datoz bat 1995-1999 laurtekoan atzemandakoarekin, azken aldi horretan okupazioan batez beste emandako urte kopuruak beherakada handia izan baitzuen. 1999tik aurrera berriz ere goranzko joera nabari da, eta, horren ildotik, zenbatekoak 1995ekoak baino handixeagoak izan dira 1-2 langileko establezimenduetan, eta urte horretako zenbatekoen nahiko antzekoak 3-49 langile dituztenetan. 50 langile edo gehiago dituzten establezimenduetan, aldiz, egungo zenbatekoak oraindik ere puntu bat txikiagoak dira, gutxi gorabehera, 1995. urtekoak baino.

### 3.12 taula

Egungo okupazioan emandako esperientzia-urteei dagozkien adierazle orokorrak, establezimenduaren tamainaren arabera  
Biztanleria landuna

Establezimenduar en tamaina	Datu absolutuak	Egungo	Egungo	Egungo	Batez besteko urteak okupazioan 1995	Egungo okupazioan emandako urteak, guztira 2007
		okupazioan emandako batez besteko urteak 2007	okupazioan emandako batez besteko urteak 2003	okupazioan emandako batez besteko urteak 1999		
1-2 urte	154.441	11,13	10,92	9,96	10,27	1.718.617

3-9	155.700	9,03	8,52	8,48	9,07	1.406.243
10-19	103.600	9,31	8,40	8,54	9,17	964.021
20-49	166.674	10,10	8,91	9,83	10,21	1.683.863
50-99	106.210	10,89	12,36	9,95	11,93	1.156.510
100-499	166.397	12,43	12,26	12,03	13,38	2.068.450
500 eta hortik gora	99.578	13,34	14,00	13,04	14,36	1.328.607
<b>GUZTIRA</b>	<b>952.600</b>	<b>10,84</b>	<b>10,46</b>	<b>9,95</b>	<b>11,06</b>	<b>10.326.311</b>

Enpresarekiko lotura motari dagokionez, oro har, egungo okupazioan emandako esperientzia-maila handienak enpresaburuetan, autonomoetan eta kooperatibistetan atzeman dira, baita Administrazio Publikoko soldatapeko finkoetan ere. Kasu horietan, 3 soldatapeko baino gutxiago dituzten enpresaburu txikien salbuespen bakarrarekin (10,60 urteko okupazioa, batez beste, lanpostuan), egungo enpleguan batez beste emandako esperientzia-urteak 14-18 dira. Kopurua nabarmen txikiagoa da, baina oraindik batez bestekoa baino nabarmen handiagoa, enpresa pribatuko soldatapeko finkoen artean (11,76 urte).

Aipatutako taldeetan, lanpostuaren okupazio-mailari dagokionez azpimarratzekoa da 2007an 1995ean baino nabarmen handiagoa izan dela, bi salbuespenekin, nolahi ere: 3 soldatapeko baino gutxiago dituzten enpresaburuak eta enpresa pribatuko soldatapeko mugagabeak. Azken kasu horretan, enpleguan emandako urteen batez bestekoak behera egin du etengabe epe luzera. Hala, 1995ean 14,97 urte zen, 1999an 12,25 urte, 2003an 12 urte eta 2007an 11,76 urte, hurrenez hurren.

Bestalde, egungo okupazioan esperientzia-maila txikienak (EAEren batez bestekoaren azpitik, nabarmen), Administrazio Publikoko aldi baterako soldatapeko langileei (4,52 urte) eta enpresa pribatuetako soldatapeko langile ez-mugagabeei (5,71 urte kontraturik gabekoetan, 3,05 obrako kontratua duten soldatapekoetan, 3,54 bestelako kontratu-egoeretan, eta maila txikietan txikiena, 1,42 urte, aldi baterako kontratua duten langileetan) dagozkie.

Horrela, argi eta garbi atzematen da egungo enpleguko esperientzia-maila oso txikia izaten dutela enpresarekiko harremanak baldintza txarretan dituztenek edo aldi baterako lotura dutenek. Nolanahi ere, aldi baterako kontratuei bakarrik erreparatzen badiegu, nabarmenezkoa da alde handia dagoela Administrazio Publikoaren eta enpresa pribatuaren artean lanpostuari eusten zaion urte kopuruan (4,52 eta 1,42 urte, hurrenez hurren). Paradoxikoki, enpresa pribatuan, egoera ezohikoenek, obra-kontratuekin eta kontratuekoak ez diren lanekin zerikusia dutenek bereziki, okupazio-egonkortasun handiagoa sorrarazten dute epe luzera.

Egungo okupazioan emandako esperientzia-urteei dagozkien adierazle orokorrak, lanbide-egoeraren arabera

Biztanleria landuna

Enpresarekiko egoera	Datu absolutuak	Egungo	Egungo	Egungo	Egungo	Egungo
		okupazioan emandako batez besteko urteak	okupazioan emandako batez besteko urteak	okupazioan emandako batez besteko urteak	okupazioan emandako batez besteko urteak	okupazioan emandako urteak, guztira
		2007	2003	1999	1995	2007
<3 soldatapeko dituen enpresaburua	14.388	10,60	17,48	11,69	13,70	152.530
>=3 soldatapeko dituen enpresaburua	19.395	14,80	14,06	15,31	12,89	287.047
Enpresako bertako soldatapekoa	18.320	15,27	10,85	12,84	9,65	279.730
Autonomia	93.068	14,19	12,73	12,70	12,27	1.320.375
Familia-laguntza	2.501	18,18	11,30	8,97	8,63	45.451
Kooperatibista	24.952	14,79	14,78	13,17	12,62	369.048
Administrazio Publikoko soldatapeko finkoa	100.530	16,73	15,75	14,38	12,69	1.681.644
Adm. Pub. aldi baterako soldatap.	38.144	4,52	3,40	3,85	4,28	172.341
Enp. pribatuko soldatap. finkoa	477.034	11,76	12,00	12,25	14,97	5.609.445
Enp. pribatuko aldi baterako soldatap.	88.675	1,42	1,72	1,11	2,43	125.710
Enp. pribatuko obra-kontratua	47.386	3,05	2,37	2,70	2,44	144.307
Enp. pribatuan kontraturik gabe	15.458	5,71	5,13	4,91	5,12	88.260
Beste egoera bat enpresa pribatuan	5.940	3,54	2,20	6,89	4,63	21.013
Beste egoera bat	6.809	4,32	3,37	9,41	11,49	29.412
<b>GUZTIRA</b>	<b>952.600</b>	<b>10,84</b>	<b>10,46</b>	<b>9,95</b>	<b>11,06</b>	<b>10.326.311</b>

Nolanahi ere, kontratuari dagokionez enpresarekin ezarritako harremana funtsezkoa da okupazioaren esperientzian. Horren haritik, egungo okupazioan batez beste emandako urte kopurua 12,62 urte da kontratu mugagabea duten pertsonetan, eta 14,22 urte besteren kontura lan egiten dutenei dagokienez. Kontraturik ez dutenen zenbatekoa nabarmen txikiagoa da: 5,71 urte, eta 4,38 urte bestelako kontratu-egoeraren batean daudenen artean. Aldi baterako kontratua dutenek edo obrako kontratua dutenek izaten dituzte maila txikiak, 2,21 eta 3,04 urteko esperientziarekin, hurrenez hurren.

Epe luzera begira, batez besteko esperientziari dagokionez nabarmentzekoa da beheranzko joera ageri dela soldatuko mugagabeen artean (14,41 urtetik 12,62 urtera jaitsi da 1995etik 2007ra bitarte), baita, oro har, aldi baterako kontratua duten soldatapekoen artean ere (2,70 urtetik 2,21 urtera denboraldi horretan). Besteren kontura lan egiten dutenen eremuan, aldiz, enpleguaren okupazio-esperientziak gora egin du, 11,89 urtetik 14,22 urtera.

Oro har, joera horiek positiboak direla esan dezakegu, izan ere, soldatapeko mugagabeen kolektiboa berritzen ari dela adierazten baitu landun berriak egoera horretan sartu izanak, aldi baterako lanak egoeraren araberakoak bihurtuta, dagokien moduan. Baieztapen horren haritik, kontuan hartzekoa da, nolana ere, okupazio berean emandako batez besteko urte kopuruan igoera nabari dela 1999. urtetik aurrera, 1999tik 2007ra bitarte 1,58 urte izatetik 2,21 urte izatera igaro baita, 1995eko 2,70etik beherakada handia izan ondoren. Bilakaera horren haritik litekeena da neurri batean aldi baterako kontratuak erabiltzeko joera itzuli izana, egiturazko jarduerak egiteko. Testuinguru horretan, obra-kontratuen bilakaera are deigarriagoa dela esan dezakegu. 1995etik 2003ra bitarte maila egonkorretan egon zen, 2,50 urteren inguruan, baina 2007an 3,04 urtera igo zen.

Horri guztiari erantsi behar diogu kontratu batean oinarritzen ez diren egoerak finkatu egin direla. Hala, 1995etik 1999ra bitarte 5,21 urtetik 4,91 urtera jaitsi ondoren, okupazioan batez beste emandako urte kopurua 5,71 urtera igo zen 2007an.

### 3.14 taula

Egungo okupazioan emandako esperientzia-urteei dagozkien adierazle orokorrak, enpresarekiko kontratu bidezko harreman motaren arabera

#### Biztanleria landuna

Kontratu bidezko harremana	Datu absolutuak	Egungo okupazioan emandako batez besteko urteak 2007	Egungo okupazioan emandako batez besteko urteak 2003	Egungo okupazioan emandako batez besteko urteak 1999	Egungo okupazioan emandako batez besteko urteak 1995	Egungo okupazioan emandako urteak, guztira 2007
Mugagabea	577.565	12,62	12,65	12,68	14,41	7.291.089
Aldi baterakoa	117.344	2,21	2,09	1,58	2,70	259.328
Obrakoa	53.365	3,04	2,42	2,65	2,57	162.355
Kontraturik gabekoa	15.458	5,71	5,07	4,91	5,21	88.260
Bestelako egoeraren bat	16.246	4,38	2,86	7,57	4,56	71.099
Norbere kontura	172.623	14,22	13,34	12,83	11,89	2.454.181
<b>GUZTIRA</b>	<b>952.600</b>	<b>10,84</b>	<b>10,46</b>	<b>9,95</b>	<b>11,06</b>	<b>10.326.311</b>

### 1.3. Lan-esperientzia, erabilitako teknologia motaren arabera

Lan-esperientziari dagokionez, faktore erabakigarria da erabilitako teknologia mota, zalantzarik gabe. Gai horri heltzerakoan, zera ikusten dugu, batez besteko esperientziak produkzio-jarduera orokorretan lortzen duela maila gorena, teknologia tradizionaletan zenbatekoa handixeagoa izanik: 13,30 urte, produkzio automatizatuaren 12,53 urteren aldean. Teknologia modernoa duten gainerako jardueretan ere, zenbatekoek gainditu egiten dute EAEren batez besteko maila (11,40 urte).

Adierazlea batez bestekoaren azpitik dabil administrari-lanetan, nola jarduera informatizatuetan (10,10) hala konbentzionaletan (9,92). Gainerako ohiko teknologiak zerbitzu-sektoreko kualifikazio txikiko lanetan erabiltzen dira normalean, eta okupazio-esperientziaren zenbatekoei dagokienez (8,73 urte) askoz ere kopuru txikiagoak izaten dituzte.

Bilakaera-datuek aditzera ematen dutenez, 2003tik 2007ra bitarte okupazio-esperientziak egonkortzera egin du teknologia modernoan oinarritutako produkzio-jardueretan; lana teknologia konbentzionaletan oinarritzen denean, aldiz, adierazlea 12,72tik 13,30era igo da. Teknologia modernoetan oinarritutako gainerako jardueretan, okupazioko urte kopuruak gora egin du aldi horretan, 10,06 urtetik 11,40 urtera; gainerako egoeretan, ordea, okupazioan izandako batez

besteko esperientzia-mailak beheranzko joera erakutsi du, eta administrazio-eremuan nabarmendu da gehien beherakada hori. Teknologia konbentzionalean oinarritutako administrazio-lanetan gertatu da beherakada handiena, enpleguaren okupazioan batez beste emandako urte kopurua 12,43 urte izatetik 9,92 izatera igaro baita.

Epe luzera begira, adierazleak egonkortzeko edo behera egiteko erakutsitako joera finkatu egiten da kasu guztietan. 1995etik 2007ra bitarte jarduera ekonomikoaren eremu bakar batean atzeman da gorakada epe luzera begira lanpostuan izandako esperientzia-mailei dagokienez, hain zuzen ere administraziokoak ez diren lanetan eta salgaien produkziara propio bideratzen ez direnetan, teknologia modernoko euskarrian oinarrituta garatzen direnak. Kasu horretan, adierazleak pixka bat gora egin du 1995etik 2003ra bitarte, 9,75 urtetik 10,06 urtera, baina areago 2003tik 2007ra bitarte, 10,06 urtetik 11,40 urtera, hurrenez hurren.

### 3.15 taula

Egungo okupazioan emandako esperientzia-urteei dagozkien adierazle orokorrak, erabilitako teknologiaren arabera  
Biztanleria landuna

	Datu absolutuak	Egungo	Egungo	Egungo	Egungo	Egungo
		okupazioan emandako batez besteko urteak	okupazioan emandako batez besteko urteak	okupazioan emandako batez besteko urteak	okupazioan emandako batez besteko urteak	okupazioan emandako urteak, guztira
Erabilitako teknologia		2007	2003	1999	1995	2007
Prod. automatizatuko tekn. modernoak	114.569	12,53	12,60	12,02	13,36	1.436.103
Tekn. administratibo informatizatua	166.831	10,10	10,65	10,08	11,33	1.684.844
Beste tekn. modernoak	313.773	11,40	10,06	9,79	9,75	3.577.772
Produktzio-ekipo konben.	106.692	13,30	12,72	10,80	14,17	1.418.629
Tekn. administratibo konben.	16.850	9,92	12,43	12,21	9,63	167.207
Bestelako teknologia konben.	233.884	8,73	8,93	8,94	9,91	2.041.756
<b>GUZTIRA</b>	<b>952.600</b>	<b>10,84</b>	<b>10,46</b>	<b>9,95</b>	<b>11,06</b>	<b>10.326.311</b>

Aurreko datuak ikusirik, aldagai teknologikoa aintzat hartzea funtsezkoa da okupazioan emandako esperientzia aztertzerakoan. Hortaz, oso garrantzitsua da egungo okupazioa zehatz-mehatz nola banatzen den kontuan hartzea, aldagai horren arabera. Biztanleria landunari dagokionez gai horretara hurbiltzen bagara, zenbait datu interesgarri aurkitzen ditugu. Azpimarratzeko lehenengo datua: tresna tradizionalekin egiten diren lanak jada ez dira nagusi EAeren produktzio-sisteman; gaur egun biztanleria landunaren % 37,5 soilik aritzen da horrelako lanetan, 1999. urtean % 49, eta 1995ean % 54,4 izanik, hurrenez hurren.

Teknologia tradizionalen garrantziaren beherazko joera 1995-2007 aldi osoan nabarmendu bada ere, 2003-2007 laurtekoan nabarmendu da bereziki. Oinarri teknologiko modernoa izaki administraziokoak eta produkziokoak ez diren jarduerak funtsezkoak dira, eta 2003an okupazioaren % 25,4 izatetik 2007an % 32,9 izatera igaro dira. Produkzioko edo administrazioko jarduerak, 2003an antzeko protagonismoa izan zutenak ( % 25,6), % 29,5ean geratu dira 2007an, eta, benetako garrantzian gorakada handia erakutsi badute ere, askoz ere gutxiago nabarmendu dira oinarri teknologiko modernoa duten gainerako jarduerari dagokiena baino.

3.16 taula  
Biztanleria landuna, erabilitako teknologiaren arabera  
(Datu absolutuak eta % bertikalak)

Erabilitako teknologia	Datu absolutuak	% ber. 2007	% ber. 2003	% ber. 1999	% ber. 1995
Produktzio automatizatuko tekn. modernoa	114.569	12,0	10,0	10,1	8,8
Tekn. administratibo informatizatua	166.831	17,5	15,6	18,7	13,8
Bestelako tekn. modernoak	313.773	32,9	25,4	21,9	23,0
Produktzio-ekipo konben.	106.692	11,2	14,1	12,6	16,3
Tekn. administratibo konben.	16.850	1,8	1,9	2,0	2,9
Bestelako teknologia konben.	233.884	24,6	32,9	34,6	35,2
<b>GUZTIRA</b>	<b>952.600</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>

Teknologia modernoa duten enpleguen garrantzi erlatiboa igotzen ari da, bi faktore nagusien eraginez bereziki. Lehenik eta behin, enplegu konbentzionalak erabateko beherakada izan dute. Administrazio-jardueren eremuan nabarmendu da bereziki beherakada hori, okupazioa % 16,9 jaitsi baita 1995etik 2007ra bitarte, baina adierazgarria da (% 6-8), halaber, teknologia konbentzionala duten gainerako jardueretan.

1995-1999 aldian, enplegu-galera administrazio-okupazioetan nabarmendu da bereziki; 2003-2007 laurtekoan, aldiz, oinarri konbentzionala duten gainerako okupazioetan nabarmendu da gehiago. Produktzio-jardueretan, 1995etik 1999ra bitarte % 10,2ko beherakada gertatu bada ere, 1999-2003 laurtekoan okupazioak % 23 igo izanak konpentsatu egin du hori, eta, hala, 2003tik 2007ra bitarte okupazioak % 16,5 galdu izana funtsezkoa izan da epe luzera atzemandako beherakadan. Oinarri teknologiko konbentzionala duten gainerako jardueretan, 1995etik 2003ra bitarte okupazioak etengabe gora egin bazuen ere, jarduera horietan aritutako pertsona kopurua % 21,2 jaitsi da 2003tik 2007ra bitarte.

Bestetik, kontuan hartzekoa da aintzat hartutako aldiari oinarri teknologiko modernoak duten okupazioei eman zaien bultzada handia. Hala, 1995etik 2007ra bitarte, okupazio-zenbatekoak % 70etik % 90era igo dira teknologia modernoari esker garatutako jardueren guztietan. Ehuneko txikiena (% 71,1) administrazio-okupazioei dagokie; produkzio-jardueretan, berriz, % 82,7 da, eta % 92,4 gainerako zereginetan.

Produktzio- eta administrazio- jardueretan, okupazioak gora egin du etengabe 1995. urtetik (% 10,6 1995etik 1999ra bitarte, % 27,3 1999tik 2003ra bitarte, eta % 36,5 2003tik 2007ra bitarte, hurrenez hurren). Produkzio-jardueren automatizatuak eta administrazio informatizatuaren eremuan, berriz, azkenaldiko bilakaerak hazkunde handiaren itzulera erakusten digu, 1999tik 2003ra bitarte behera egin bazuen ere (administrazio-eremuan, desagertze-bidean zegoela zirudien). Hala eta guztiz ere, hazkunde-zenbatekoak txikiagoak dira 1995-1999 aldiari erregistratutakoak baino, administrazio-okupazioen eremuan bereziki (% 18 2003tik 2007ra bitarte eta % 58,1 1999tik 2003ra bitarte, hurrenez hurren; eta % 26,2 eta % 33,1 produkzio-jardueren automatizatuak dagokienez).

Bilakaera horrek berretsi egiten du, beraz, oinarri teknologiko modernoak izaki produktzio- eta administrazio- jarduerak funtsezkoak direla epe luzearako okupazio-hazkundearen prozesuetan. Izan ere, 1995-1999 aldiari jardueren horien okupazioaren % 22-23 izan zuten, eta 2007an, aldiz, okupazio osoaren % 32,9. Oinarri teknologiko modernoak izaki produktzio- eta administrazio- jardueren garrantziak ere gora egin izanagatik ere, gorakada txikiagoa izan da, 1995ean okupazio osoaren % 22,6 izatetik 2007an % 29,5 izatera igaro baita.

3.17 taula  
Biztanleria landunaren bilakaera, erabilitako teknologiaren arabera  
(Datu absolutuak eta hazkunde-tasak, %-etan)

Erabilitako teknologia	1995	1999	2003	2007	Hazkundera	Hazkundera	Hazkundera	Hazkundera
					%-etan	%-etan	%-etan	%-etan
					1999-1995	2003-1999	2007-2003	2007-1995
Prod. automatizatuko tekn. modernoa	62.716	83.498	90.786	114.569	33,1	8,7	26,2	82,7
Tekn. administratibo informatizatua	97.516	154.156	141.377	166.831	58,1	-8,3	18,0	71,1
Bestelako tekn. modernoak	163.126	180.474	229.808	313.773	10,6	27,3	36,5	92,4
Produkzio-ekipo konben.	115.775	103.955	127.820	106.692	-10,2	23,0	-16,5	-7,8
Tekn. administratibo konben.	20.266	16.734	16.850	16.850	-17,4	0,7	0,0	-16,9
Bestelako teknologia konben.	249.571	285.137	296.872	233.884	14,3	4,1	-21,2	-6,3
<b>GUZTIRA</b>	<b>708.970</b>	<b>823.953</b>	<b>903.512</b>	<b>952.600</b>	<b>16,2</b>	<b>9,7</b>	<b>5,4</b>	<b>34,4</b>



Erabilitako teknologia motarekin zerikusia duten datuak egungo okupazioan emandako esperientzia-urtekoen aldean jartzen baditugu, sakonagotik aztertuko dugu teknologia modernoa duen lan-esperientziak zenbaterainoko eragina duen EA Eren egungo egitura ekonomikoan.

Horrela landunen talde nagusiak mugatuko ditugu, erabilitako teknologia motaren arabera eta okupazioan duten esperientzia-mailaren arabera:

a) 1999. eta 2003. urteetan jada atzeman zitekeenez, multzo nagusia honako hau da: lan-tresna modernoekin aritzen diren landunak izanik, enplegu horretan 3 urte baino gehiago daramatenak. Talde hori landunen % 47,1 izan da 2007an; 2003an, % 38,7 izan zen, eta 1995ean eta 1999an % 35,5, gutxi gorabehera.

b) Biztanleria landunaren % 26,7 aurreko multzoaren egoera berdinean dago, baina lan-tresna konbentzionalak erabilia. 1999tik 2003ra bitarte landunen garrantzi erlatiboak gora egin bazuen ere (% 31,9tik % 34,3ra), 2003tik 2007ra bitarte beherakada nabaria izan du talde horrek, 1995etik 1999ra bitarte atzeman zen beheranzko joera handira itzuliz. Oro har, okupazio konbentzional batean 3 urteko edo gehiagoko esperientzia duten landunek okupazioan duten garrantzi erlatiboak behera egin du 1995etik 2007ra bitarte, % 41 izatetik % 26,7 izatera.

c) Biztanleria landunaren % 15,4k, berriz, 3 urte baino gutxiago daramatza teknologia modernoa darabilen okupazio batean, eta kopuru hori askoz ere handiagoa da 1995eko % 10,2ren eta 2003ko % 12,5en aldean, baina 1999ko zenbatekoaren antzekoa (% 15,3).

d) Azkenik, gainerako % 10,9ak 3 urte baino gutxiagoko esperientzia du okupazioan, eta teknologia konbentzionala erabiliz garatzen du okupazio hori. Kolektibo horren garrantziak behera egin du etengabe 1999an lortu zuen gorenekotik (% 17,3), eta 2007an lortu zuen mailarik txikiena 1995-2007 aldian.

Datu horiek aditzera ematen dutenez, 2003-2007 laurtekoan jauzi kualitatibo bat gertatu da teknologia modernoa darabilten enpleguen finkatze-prozesuan, eta, gainera, enplegu mota horiek egonkortasun luzea erakutsi dute okupazioan, lanpostuan 3 okupazio-urte edo gehiago, zehazkiago. 10 urteko edo gehiagoko okupazioa duten enpleguetan nabarmendu da bereziki prozesu hori, eta, kasu horretan, kopuru egonkor samarretatik (% 21ren inguruan, 1995etik 2003ra bitarte) egungo % 27,5era igaro da. Horrekin batera jarduera konbentzionalen garrantzia jaisten ari da, eta hori nabarmenagoa da okupazioan emandako urte kopuruak gora egin ahala. Hala, 10 urte baino gehiagok okupatuak enplegu konbentzionalen garrantziak behera egin du, 1995eko % 25etik egungo % 15era behera egin ere..

## 3.18 taula.

Egungo enpleguan emandako esperientzia-urteak (erabilitako teknologiaren arabera)

Biztanleria landuna

(Datu absolutuak eta % bertikalak)

Esperientzia-urteak erabilitako teknologia	eta Datu absolutuak	% ber. 2007	% ber. 2003	% ber. 1999	% ber. 1995
<3 urte tekn. modernoa	146.311	15,4	12,5	15,3	10,2
3-9 urte tekn. modernoa	187.241	19,7	17,2	13,9	14,4
>= 10 urte tekn. modernoa	261.621	27,5	21,5	21,6	21,0
<3 urte ohiko tekn.	103.477	10,9	14,5	17,3	13,4
3-9 urte ohiko tekn.	111.321	11,7	15,6	13,4	16,0
<10 urte ohiko tekn.	142.629	15,0	18,7	18,5	25,0
<b>GUZTIRA</b>	<b>952.600</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>

Lehen esandakoa gorabehera, 1995. urtetik 2007. urtera, hiru urte baino gutxiagoz betetako enpleguen gorakada handia izan da, datuen arabera. Enplegu mota horiek teknologia modernoan eremuan izandako hazkunde handia islatzen dute (% 101,9). Hala ere, ohiko teknologia erabiliz garatutako jardueren esparruan 1995. urteko zenbatekoak baino handiagoak ematen dituen bakarra da (% 9,1). Teknologikoki modernoak diren lanetan, 2003-2007 aldia 1999-2003 laurtekoan norabidez aldatzera zihoala zirudien hazkundearen bultzada izan da eta 1995-2007 aldian izandako enplegu-hobekuntzak (ohiko teknologiarekin egindako jarduera-esparruak), lotura dauka 1995-1999 aldian izandako hazkunde handiarekin. Orduetik aurrera lanpostu horiek gutxitu egin dira eta horrek, denboran, enplegu garbi berrien sendotzea islatzen du. Horren guztiaren ondorioz, 1999-2003 aldian 3-9 urte betetako enpleguaren gorakada nabarmena izan da, bai enplegu modernoetan, bai ohikoetan.

1995. urtetik 2007. urtera, 3 urtez baino gehiagoz betetako teknologia modernoko enpleguak ugaritu egin dira, 3-9 urte beteriko enpleguen kasuan % 83 eta 10 urtez baino gehiagoz enplegaturiko kasuan, % 76,1. Lan bolumenak goranzko joera duela kontuan izanik, 1999-2003 aldian 3-9 urteko enpleguek hazkunde handia izan bazuten, 2003-2007 aldian 10 urtez baino gehiagoko enpleguak sendotu egin dira (% 34,8ko igoera du, 1999-2003 laurteko % 9,1 eta 1995-1999 aldiko % 19,7 gaituz). Zenbatekoak, 1995-1999 aldian teknologikoki modernoak diren enplegu berrien sendotze progresiboaren irudiarekin koherenteak dira.

Orain arte esandakoarekin kontrastean, 3 urtez baino gehiagoz betetako ohiko enpleguek garrantzia galtzen dute termino absolutuetan. 3-9 urtez landuna izan den biztanleriak 1999. urtetik 2007. urtera % 1,7ko beherakada izan du, eta 10 urtez baino gehiagoko biztanleriaren kasuan, berriz, beherakada askoz handiagoa izan da, % 19,6. Beherakada batez ere 2003-2007 aldian gertatzen bada ere, 1995-1999 aldian ere gutxienez 10 urtez betetako ohiko enpleguen kasuan garbi ikus zitekeen.

Hortaz, teknologikoki modernoak diren enpleguen hazkunde erlatiboa ikus dezakegu (gaur egun denbora gutxiagoz betetzen diren lanpostuak dira), eta horrek, teknologikoki modernoak diren enpleguetan 1995-1999 eta 2003-2007 aldietan lanpostu asko sortu direla adierazten digu. Hurrengo urteetan, enplegu horiek sendotu egin dira, eta aldi berean, 3 urtez baino gehiagoz betetako teknologia modernoaren eremuko enplegu modernoak ugaitu.

Epe ertainean eta luzean ohiko teknologiako enpleguek izandako beherakadak, aztergai dugun prozesuaren beste aldea adierazten digu. Horrela, aipatzekoa da 2003-2007 aldian 3 urtez baino gehiagoz betetako ohiko teknologiako enplegu bolumenak izandako beherakada.

### 3.19 taula.

Egungo enpleguan emandako esperientzia-urteen bilakaera (erabilitako teknologiaren arabera)

Biztanleria landuna

(Datu absolutuak eta hazkunde-tasak, %-etan)

Esperientzia-urteak eta erabilitako teknologia					Hazkun- de %	Hazkun- de %	Hazkun- de %	Hazkun- de %
	1995	1999	2003	2007	1999- 1995	2003- 1999	2007- 2003	2007- 1995
<3 urte tekn. modernoa	72.464	125.817	112.762	146.311	73,6	-10,4	29,8	101,9
3-9 urte tekn. modernoa	102.293	114.406	155.108	187.241	11,8	35,6	20,7	83,0
>= 10 urte tekn. modernoa	148.601	177.905	194.100	261.621	19,7	9,1	34,8	76,1
<3 urte ohiko tekn.	94.850	142.659	131.019	103.477	50,4	-8,2	-21,0	9,1
3-9 urte ohiko tekn.	113.261	110.736	141.137	111.321	-2,2	27,5	-21,1	-1,7
>= 10 urte ohiko tekn.	177.501	152.431	169.386	142.629	-14,1	11,1	-15,8	-19,6
<b>GUZTIRA</b>	<b>708.970</b>	<b>823.953</b>	<b>903.512</b>	<b>952.600</b>	<b>16,2</b>	<b>9,7</b>	<b>5,4</b>	<b>34,4</b>

#### 1.3.1. Teknologia modernoak erabiltzen izandako esperientzia

Oro har, 2007. urtean, biztanleria aktiboaren % 44,3k lortu du enplegu bat lortzea eta epe ertainean eta luzean horri eustea (segidako hiru urtez gutxienez), teknologia modernoan erabilerarekin uztartuta. Proporzio horrek gora egin du (1995. urtean % 27, 1999. urtean % 29,5 eta 2003. urtean % 35), EAEn enplegu egonkor eta teknologikoki modernoak lortu duen egonkortze-prozesuaren adierazle izanik. Dena den, 1995-2003 aldian baino gehiago hazi da 2003-2007 aldian (9,3 puntu 8ren aldean).

Lan teknologikoki modernoetan egonkortasunak duen intzidentzia zertxobait handiagoa da gizonetan emakumeetan baino (% 45,8 gizonak, % 42,3 emakumeak). Alde horren arrazoi nagusia 1995-1999 laurtekoan izandako bilakaera da: urte horietan, enplegu egonkorra eta modernoa zuten gizonen proportzioa nabarmen handitu zen (1995ean % 29,5, eta 1999an % 33,7), baina emakumeen kasuan, zenbatekoak ez ziren asko aldatu (% 23,3tik % 23,6ra). 1999. urtetik aurrera aldiz, emakumeetan bilakaera positiboagoa atzematen ari gara, eta mota horretako enpleguaren garrantzia handitzen doa laurteko bakoitzean. Horrela beraz, 1999ko gizonen aldeko 10,1 puntuko diferentziala, 2003ko 8,3 eta 2007an 3,6ko diferentziala bihurtu da.

Enplegu egonkor eta teknologikoki modernoari dagokienez, gizonen eta emakumeen arteko alde nabarmenenak 10 urte eta gehiagoko iraupena duten enpleguetan izaten dira (% 28,7 gizonetan, % 21,9 emakumeetan). 3 urtetik 9 urtera bitarteko enpleguen kasuan, emakumeen garrantzi erlatiboa handiagoa da (% 36, gizonetan % 30,6). Enplegu teknologikoki modernoetan generoaren araberako eraginaren aldaketa 1999-2003 aldian sortu zen, 3 urte baino gutxiagoz beteriko teknologia modernoko enpleguetan emakumeen garrantzia handitu egin baita.

Gizonaren mesederako aldeak areagotu egiten dira biztanleria aktiboa eta potentzialki aktiboa batera hartuta; kolektibo horretan, enplegu egonkor eta teknologikoki modernoaren eragina % 43,1 murrizten da, biztanleria aktiboan % 44,3 izanik. Horren arrazoia honako hau da: gizonen kasuan bere horretan eusten bazaio enplegu egonkor eta teknologikoki modernoa dutenen proportzioari (% 45,3, aktiboekin soilik % 45,8 izanik), emakumeen kasuan jaitsi egiten da (% 40,3, aktiboekin soilik % 42,3 izanik). Desberdintasunak ez dira, hala ere, 2003. urtean bezain garbiak (gizonaren aldeko diferentziala 10,6tik 2007. urteko 5 puntura jaitsi zen). 10 urtez baino gutxiagoz lanpostu teknologikoki modernoa duten emakumeen proportzioak berriz, bere horretan dirau. 10 urtez baino gehiagoz beteriko enpleguetan gizonaren presentzia handiagoa denez, diferentziala gizonen aldekoa da.

### 3.20 a taula

Teknologia modernoko enpleguetan landunen proportzioa, sexuaren eta enpleguan emandako esperientzia-urteen arabera.

#### Biztanleria aktiboa

(%-etan, erreferentziako biztanleriari dagokionez)

Sexua	3 urtez azpikoak	3-9 urte	>= 10 urte	>= 3 urte 2007	>= 3 urte 2003	>= 3 urte 1999	>= 3 urte 1995
Gizonak	13,5	17,1	28,7	45,8	38,5	33,7	29,5
Emakumeak	15,7	20,4	21,9	42,3	30,2	23,6	23,3
GUZTIRA	14,4	18,5	25,8	44,3	35,0	29,5	27,0

### 3.20 b taula

Teknologia modernoko enpleguetako landunen proportzioa, sexuaren eta enpleguan emandako esperientzia-urteen arabera.

#### Biztanleria potentzialki aktiboa

(%-etan, erreferentziako biztanleriari dagokionez)

Sexua	3 urtez azpikoak	3-9 urte	>= 10 urte	>= 3 urte 2007
Gizonak	13,4	16,9	28,4	45,3
Emakumeak	14,9	19,4	20,9	40,3
GUZTIRA	14,1	18,0	25,1	43,1

Lan teknologikoki moderno batean, adinean gora egitearekin batera handitzen dira egonkortasun-egoerak. Mailarik altuenak 55 urtez gorako landun biztanleriari dagozkio: 3 urtez baino gehiagoz teknologia modernoko enpleguetan ari direnen % 59. Adinean behera egin ahala beheranzko joera nagusi den arren, 45-54 urtekoen artean % 50etik gora daude zenbatekoak eta 30-44 urtekoen artean % 45-48 artean, beti EAEko adierazlearen gainetik. Intzidentzia-maila horren azpitik 25-29 urtekoak (% 25,5) eta 25 urtetik beherakoak (% 9,4) daude soilik, nabarmen azpitik badaude ere. Gazteen artean, teknologia modernoarekiko lotura badago –teknologia

mota hori erabiltzea eskatzen duen enpleguan hiru urte baino gutxiagoko esperientzia dutenen intzidentzia handiak erakusten duenez, baina, oraingoz, horrek ez du enplegu egonkorrik sortu.

Biztanleria potentzialki aktiboa aztertzean, adinaren arabera egoeraren deskribapenak ez du aldaketarik. Baina argi eta garbi ikusten da enplegu egonkor eta teknologikoki modernoa duten landunen proportzioa gehiago murrizten dela 40 urtetik gorakoetan.

3.21 a taula

Teknologia modernoko enplegetako landunen proportzioa, adinaren eta enpleguan emandako esperientzia-urteen arabera.

Biztanleria aktiboa  
(%-etan, erreferentziako biztanleriari dagokionez)

Adina	3 urtez			>= 3 urte 2007
	azpikoak	3-9 urte	>= 10 urte	
25 urtez azpikoak	45,6	9,4		9,4
25-29 urte	27,8	22,9	2,5	25,5
30-34 urte	22,8	37,1	9,2	46,3
35-39 urte	8,9	21,5	23,6	45,2
40-44 urte	10,2	16,1	32,2	48,3
45-49 urte	5,2	13,9	38,9	52,9
50-54 urte	4,8	7,2	44,7	51,9
>= 55 urte	2,1	7,0	52,0	59,0
<b>GUZTIRA</b>	<b>14,4</b>	<b>18,5</b>	<b>25,8</b>	<b>44,3</b>

3.21 b taula

Teknologia modernoko enplegetako landunen proportzioa, adinaren eta enpleguan emandako esperientzia-urteen arabera.

Biztanleria potentzialki aktiboa  
(%-etan, erreferentziako biztanleriari dagokionez)

Adina	3 urtez			>= 3 urte 2007
	azpikoak	3-9 urte	>= 10 urte	
25 urtez azpikoak	41,6	8,6		8,6
25-29 urte	27,1	22,4	2,5	24,9
30-34 urte	22,5	36,6	9,1	45,7
35-39 urte	8,8	21,3	23,4	44,7
40-44 urte	9,9	15,6	31,2	46,8
45-49 urte	5,1	13,6	38,0	51,5
50-54 urte	4,7	7,1	43,6	50,7
>= 55 urte	2,0	6,8	50,1	56,9
<b>GUZTIRA</b>	<b>14,1</b>	<b>18,0</b>	<b>25,1</b>	<b>43,1</b>

Ez da soilik adinaren eta egonkorra eta teknologia modernoko enplegua izateko joeraren arteko lotura positiboa ikusten. Azken bilakaerak, enplegu egonkor eta teknologikoki modernoak dituzten lagunen proportzioak gora egin duela adierazten du eta 1995. urtetik 2007. urtera, adinean gora egin ahala, gora egiten du joera horrek. 35-39 urtekoak joera horretatik at geratzen dira, baina positiboki. Aztertutako enpleguetan adin-talde horrek duen garrantzia oso handia da (bereziki 2003-2007 aldian) eta 55 urtez gorakoak bakarrik daude horien gainetik.

Adierazitako errealitateak lotura du 1995-1999 eta 2003-2007 aldietan ikusitako prozesuekin: bi aldi horietako hazkundera, enplegu egonkor eta teknologikoki modernoak dituzten lagunen proportzioarekin gehitzen badugu, honako datu hauek ikusiko ditugu: 30 urtez azpikoen zenbatekoa puntu bat inguru jaitsi egiten da; 30-44 urtekoen artean 5-10 puntu artean gora egiten du; 45-54 urtekoetan 17 puntu baino gehiago igotzen da; eta 55 urtez gorakoetan 30,1 puntu igotzen da. 1999. urtetik 2003. urterako alde handiak aztergai dugun enplegu motak 40 urtez azpikoetan izandako garrantzi erlatiboaren hazkunde handiarekin eta 45-54 urtekoetan izandako beherakadarekin konpentsatzen ziren.

### 3.22 taula.

Teknologia modernoko enpleguetan 3 urte edo gehiagoz lanean aritu direnen proportzioaren bilakaera, adinaren arabera.

#### Biztanleria aktiboa

(%-etan, erreferentziako biztanleriari dagokionez)

Adina	1995	1999	2003	2007
16-24 urte	4,4	2,9	8,5	9,4
25-29 urte	16,9	15,1	24,5	25,5
30-34 urte	29,6	29,1	36,3	46,3
35-39 urte	35,3	33,7	38,1	45,2
40-44 urte	37,3	45,5	47,8	48,3
45-49 urte	38,5	45,7	42,2	52,9
50-54 urte	35,6	42,3	41,0	51,9
>= 55 urte	27,7	38,2	39,4	59,0
<b>GUZTIRA</b>	<b>27,0</b>	<b>29,5</b>	<b>35,0</b>	<b>44,3</b>

Sexuaren eta adinaren aldagaiak uztartuta, lan teknologikoki moderno bati dagozkion egonkortasun-mailarik handiena 45 urtetik gorako gizonetan ikusten da, % 57,5etik gora. Zenbatekoak % 45etik % 50era bitartekoak dira bai 35-44 urteko gizonetan, bai 35 urtetik gorako emakumeetan. 35 urtetik beherakoetan proportzioa % 32tik % 33ra jaisten da. Aktiboen eta potentzialki aktiboen kolektiboa kontuan hartuz, aurreko deskribapenak ez du aldaketa handirik.

Enplegu egonkor eta teknologikoki modernoak lortzeko garaian maila txikienetan egon arren, gazteek gero eta aukera handiagoa dute lan mota hori lortzeko. Horrela, 1995-1999 aldian beherakada izan ondoren, 1999. urtetik 2007. urtera proportzioak % 16,8tik % 32ra gora egiten du gizonetan, eta % 14,6tik % 32,7ra emakumeetan. 1999-2007 aldian, 35-44 urteko emakumeen intentsitatea eta hazkunde tempoa antzekoak dira, % 32,5etik % 46,2ra (1995-1999 aldia berriz, erabat egonkorra izan zen). Adin horretako gizonek izandako gorakada laurteko horri dagokio, % 39,1etik % 45,2ra igoz (1999. urtetik 2007. urtera % 47,3ra baino ez zen igo).

Gorakadarik nabarmenena 45 urtetik gorakoei dagokie. Kasu horretan, bi aurrerapen-une handi daude. Lehena, 1995-1999 aldian gertatu zen eta, enplegu egonkor eta teknologikoki modernoak diren lanpostuak lortzeko proportzioa % 37,2tik % 46,2ra igo zen gizonetan eta % 27tik % 33,8ra emakumeetan. 1999. urtetik 2003. urtera beherakada txikiak izan ostean, 2003-2007 laurtekoan proportzioak gora egiten du: gizonetan % 45,8tik % 57,5era, eta emakumeetan % 32,4tik % 49,7ra.

2007an, teknologia modernoarekin garatutako enplegua egonkorragoa da gizonetan, eta adinean aurrera egiten den heinean, generoaren arabera aldea nabarmenagoa da. Horrela, 35 urtez azpikoen artean oreka egotetik, 35-44 urtekoetan gizonen aldeko 1,1 puntuko diferentziala izatera igoz da eta 45 urtez gorakoetan 7,8koa. Gizonen mesederako aldeak argiago ikus daitezke biztanleria potentzialki aktiboa kontuan hartzen badugu. Kasu horretan, 35 urtez azpikoen artean egoera antzekoa bada ere, 35-44 urtekoetan gizonen mesederako 3,1 puntuko aldea dago eta 45 urtetik gorakoetan berriz, 9,8 puntukoa. Dena dela, azken talde hori aztertuko bagenu ere, 45 urtez azpikoen artean sexuaren arabera aldea txikitu egiten dira. 2007. urtean, 45 urtez gorakoetan bakarrik gertatzen da gizonen aldeko genero-diferentziala, lanpostu egonkor eta teknologikoki modernoak diren lanpostuak lortzeko garaian.

Testuinguru horretan, lanpostu teknologikoki modernoetan hiru urtez baino gutxiagoz lanean ari diren emakumeen intzidentzia handiagoa dela erantsi behar da, aktiboak eta potentzialki aktiboak barnean hartuta (% 29, gizonetan % 26,6 izanik). Datu hori honako joera honen adierazle izan daiteke: datozen belaunaldietan berdinketarako joera egotea; baina aldi berean, teknologia garatua erabiltzen duten enplegu horietan, emakumeari aldizkako kontratuak egiteko joera ere erakuts dezake.



### 3.23 a taula

Teknologia modernoko enpleguetan dihardutenen proportzioa, sexuaren, adinaren eta enpleguan emandako esperientzia-urteen arabera.

#### Biztanleria aktiboa

(%-etan, erreferentziako biztanleriari dagokionez)

Sexua eta adina	3 urtez azpikoak	3-9 urte	>= 10 urte	>= 3 urte 2007	>= 3 urte 2003	>= 3 urte 1999	>= 3 urte 1995
Gizonak < 35	27,2	25,8	6,2	32,0	26,8	16,8	17,6
Gizonak 35-44	9,5	18,6	28,7	47,3	45,2	45,2	39,1
Gizonak >= 45	4,0	7,9	49,6	57,5	45,8	46,2	37,2
Gizonak	13,5	17,1	28,7	45,8	38,5	33,7	29,5
Emak. < 35	30,3	28,8	3,9	32,7	22,4	14,6	17,5
Emak. 35-44	9,6	18,7	27,6	46,2	39,4	32,5	32,1
Emak. >= 45	4,3	12,0	37,7	49,7	32,4	33,8	27,0
Emakumeak	15,7	20,4	21,9	42,3	30,2	23,6	23,3
GUZTIRA	14,4	18,5	25,8	44,3	35,0	29,5	27,0

### 3.23 b taula

Teknologia modernoko enpleguetan dihardutenen proportzioa, sexuaren, adinaren eta enpleguan emandako esperientzia-urteen arabera.

#### Biztanleria potentzialki aktiboa

(%-etan, erreferentziako biztanleriari dagokionez)

Sexua eta adina	3 urtez azpikoak	3-9 urte	>= 10 urte	>= 3 urte 2007
Gizonak < 35	26,6	25,2	6,1	31,3
Gizonak 35-44	9,5	18,6	28,6	47,2
Gizonak >= 45	4,0	7,8	49,0	56,9
Gizonak	13,4	16,9	28,4	45,3
Emak. < 35	29,0	27,7	3,7	31,4
Emak. 35-44	9,2	17,8	26,3	44,1
Emak. >= 45	4,0	11,4	35,7	47,1
Emakumeak	14,9	19,4	20,9	40,3
GUZTIRA	14,1	18,0	25,1	43,1

Hemendik aurrera, biztanleria landuna soilik izango dugu aztergai eta teknologia modernoaz baliatzen den lanpostuaren egonkortasunaren eragina zehatzago aztertzen saiatuko gara, lanpostuari berari loturiko hainbat aldagaien arabera. Arestian aipatu dugunez, EAEko biztanleria landunaren % 47,1 ezaugarri horiek dituzten postuetan 3 urtez baino gutxiagoz ari da lanean, aurreko urteetan ikusitakoa baino askoz gehiago (1995. eta 1999. urteetan % 35,5 inguru eta 2003an % 38,7).

Lanbidearen aldagaiarekin hasiko gara; teknologia modernoko lanpostuetan, egonkortasun-maila handienak honako lanbide hauetan ikus daitezke: enplegatu administrarietan (% 64,9) eta teknikarien eta zuzendarien kolektiboan (% 64,3).

Lanbide mota horietan, administrazioko lanbideetan eta teknikarien lanbideetan barnegorabehera handiak daude, baina ia kasu guztietan EAEko batez bestekoaren intzidentzia-maila gainditzen dute. Eraginik handiena honako lanbide hauei dagokie (egonkorrak eta teknologikoki modernoak diren lanpostuen % 70 ingurukoa edo gehiagokoa): indar armatuko profesionalei, goi-mailako titulazioa duten teknikariei, eta idazleei eta artistei. Egoera horretan daude honako hauek ere: erdi-mailako teknikari talde batzuk (osasun arlokoak eta giza zientzia arlokoak, kasu), irakaskuntza-teknikariak eta administrazio-laguntzako zerbitzuak. Administrazio-eremuko lanei dagokienez, enplegatu administrariei, kutxazainei eta jendaurreko zereginik gabeko administrari laguntzaile gisa dihardutenei ere eragiten die egoera horrek.

Teknikarien eta administrazio enplegatuen taldeetako kategoria batzuetan berriz, deigarria da jarduera egonkor eta teknologikoki modernoaren intzidentzia oso txikia izatea. Harreragileez, osasun arloko eta giza zientzietako teknikariez, eta gainerako erdi-mailako teknikariez gain, eraginik handiena ingeniariengan du. Adierazleak batzuetan EAEko batez bestekoa baino handiagoak badira ere (% 54,2 goi-mailako ingeniarien kasuan eta % 48,9 teknikari ingeniarien kasuan), gainerako teknikariena eta administrariena baino txikiagoak dira (baita ingeniari teknikoaren kasuan ere, % 38,5, EAEko batez bestekoaren azpitik baitago).

Gainerako talde profesional handietan, enplegu teknologikoki modernoaren egonkortasun-maila EAEko landunen kolektiboaren batez bestekoa baino txikiagoa izaten da, beti; egoera hori argi ikusten da hala zerbitzuetakoa ez den sektoreko lanbide kualifikatuetan (% 39,1), nola, are garbiago, zerbitzuetako lanbide kualifikatuetan (% 29,6) eta kualifikatu gabekoetan (% 24,9).

Hala ere, enplegu egonkorren eta modernoaren intzidentziari dagokionez, talde profesional horietako hainbat adarretan gainditzen da EAEko biztanleria landunaren batez bestekoa, % 50eko mailara iritsiz eta batzuetan, argi eta garbi, gaindituz. Horrek lehen sektoreko profesionalei, manufaktura-industriako langileei eta, salbuespenak salbuespen, makineriako operadoreei eta arduradunei eragiten die.

3.24 taula

Teknologia modernoko enpleguetan aritutakoen proportzioa, lanbidearen eta enpleguan emandako esperientzia-urteen arabera.

Biztanleria landuna  
(%-etan, erreferentziako biztanleriari dagokionez)

Lanbidea	Datu absolutuak	<3 urte	3-9 urte	>= 10 urte	>3 urte
Indar Armatuak	1.085	17,9	82,1		82,1
Sektore publikoko zuzendariak	54				0,0
Enpresa pribatuetakoko zuzendari/gerenteak	59.525	14,2	18,6	45,1	63,7
Ingeniariak	23.057	35,7	31,0	23,2	54,2
Osasun ar. eta N. Zient. goi-mail. titulua	8.716	24,9	10,9	57,5	68,5
Irakaskuntzako goi-mailako titulua	30.092	9,1	23,6	50,8	74,4
Zuzenbideko goi-mailako titulua	12.782	10,2	25,2	51,8	76,9
Gizarte zientzietan goi-mailako titulua	11.021	12,2	37,0	46,2	83,2
Idazleak, artistak	7.975	14,0	16,5	56,8	73,3
Ingeniari teknikoak	13.838	53,8	13,2	25,3	38,5
Osasun ar. eta N. zient. erdi-mail. titulua	20.205	17,4	29,0	51,1	80,1
Irakaskuntzako erdi-mailako titulua	27.155	7,8	22,5	41,3	63,9
Erdi-mailako beste titulu batzuk	3.281	24,6	19,2		19,2
Ingeniari teknikoak	27.647	31,2	19,6	29,4	48,9
Osasun ar. eta N. zient. teknikariak	6.114	37,2	31,4	22,5	53,9
Irakaskuntzako teknikariak	1.648		29,5	46,0	75,5
Finantza eta merkataritza laguntzako teknikariak	29.075	18,4	27,5	37,1	64,6
Administrazio laguntzako teknikariak	27.977	21,4	24,3	46,5	70,8
Laguntzako beste teknikari batzuk	8.409	19,0	37,0	22,6	59,6
<b>Zuzendariak eta Teknikariak</b>	<b>319.654</b>	<b>19,8</b>	<b>23,7</b>	<b>40,6</b>	<b>64,3</b>
Administrazioa eta finantza enplegatua	27.760	12,7	34,3	37,6	71,9
Posta-administrariak eta parekoak	7.239	7,2	15,0	59,7	74,8
Bulegoko makinetakoko operadoreak					0,0
Jendaurreko zereginik gabeko beste adm. lag.	17.575	21,9	30,9	40,4	71,2
Jendaurreko zereginak dituzten beste adm. lag.	23.081	27,9	26,8	34,3	61,1
Harreragileak	7.152	80,8	9,5	3,2	12,8
Kutxazainak	10.862	21,6	43,9	28,2	72,0
<b>Administrariak</b>	<b>93.669</b>	<b>24,0</b>	<b>29,5</b>	<b>35,3</b>	<b>64,9</b>
Ostalaritzako eta jatetxe-arloko langileak	32.559	15,1	16,0	4,3	20,2
Zerbitzu pertsonaletako langileak	35.964	11,1	12,3	17,2	29,6
Segurtasun-zerbitzuetako langileak	18.219	7,3	5,8	31,8	37,6
Merkataritza-saltzaileak	53.055	11,0	20,0	12,7	32,7
<b>Zerbitzuetako kualifikatuak</b>	<b>139.798</b>	<b>11,5</b>	<b>15,2</b>	<b>14,4</b>	<b>29,6</b>
Nekazaritza-jardueretako langileak	10.525	7,7	14,4	33,5	47,9
Abeltzaintza-jardueretako langileak	1.455			62,8	62,8
Nekazaritzako beste jard. lang.	823			57,2	57,2
Arrantzaleak	1.690			75,5	75,5
Eraikuntzako arduradunak	5.859	29,3	10,2	28,2	38,3
Eraikuntzako egit. obretako langileak	30.502	15,1	12,2	10,3	22,5

Eraikuntza-akaberako langileak	27.604	8,3	12,0	17,9	29,9
Metal-arloko arduradunak	6.630	3,9	24,1	41,0	65,1
Erauzketako ind. lang.					0,0
Soldatzaileak, txapistak	29.114	7,2	10,4	19,8	30,3
Mekanikari doitzzaileak	30.230	12,7	20,8	21,2	42,0
Doitasuneko lang., artisauak	6.365	6,5	3,9	14,3	18,2
Elikagai-arloko langileak	3.709	1,5	27,4	15,4	42,8
Manufaktura-industriako langileak	5.822		20,0	37,9	57,9
Indus. instal. finkoetako arduradunak	4.844	30,4	17,0	41,3	58,3
Indus. instal. finkoetako operadoreak	17.746	6,7	22,0	27,8	49,8
Makina finkoetako operadoreen arduradunak	4.229	10,4	0,4	43,1	43,4
Makina finkoetako operadoreak	47.614	14,2	18,4	26,6	45,0
Muntatzaileak	17.298	12,3	14,3	20,0	34,3
Makina mugikorretako operadoreak	12.229	15,6	20,0	37,0	57,0
Gidariak	28.188	14,6	15,0	19,0	33,9
Beste kualifikatuak	292.477	11,6	15,4	23,7	39,1

3.24 taula

Teknologia modernoko enpleguetan dihardutenen proportzioa, lanbidearen eta enpleguan emandako esperientzia-urteen arabera.

Biztanleria landuna

(%-etan, erreferentziako biztanleriari dagokionez) (Jarraipena)

Lanbidea	Datu absolutuak	<3 urte	3-9 urte	>= 10 urte	>3 urte
Langile kualif. gabea Merkataritza	274	42,3			0,0
Etxeko enpleguak/Garbitzaileak	52.958	3,6	12,3	5,1	17,5
Atezainak	9.906	17,7	9,8	10,0	19,8
Zerbitzuetako beste ez-kualif. Zerbitzuak	5.563	6,6	27,5	12,5	39,9
Nekazaritzako peoiak	1.281	45,3	9,0	10,3	19,3
Eraikuntzako peoiak	10.586	27,8	15,5	12,6	28,1
Manufakturako ind. peoiak	15.250	12,0	18,4	13,7	32,0
Garraioko peoiak	11.184	8,6	32,7	13,2	45,9
Kualif. gabeak	107.002	9,8	16,1	8,8	24,9
GUZTIRA	952.600	15,4	19,7	27,5	47,1

Aurreko datuekin bat etorrita, lanbide-kategoriaren arabeko datuak aztertzean ikus daitekeenez, enplegu teknologikoki modernoetan ohikoagoak dira egonkortasun-egoerak zuzendaritzako langileen artean (% 69,7), teknikarien artean (% 64,9) eta arduradunen artean (% 57,5); eta langile kualifikatuaren kasuan ere, batez bestekoa gainditzen da (% 48,3). Aldiz, lan-egoera horien intzidentzia nabarmen murrizten da (% 29) kualifikaziorik gabeko langileen kasuan; kasu horretan soilik gertatzen da enplegu modernoetan egonkortasun-maila txikia eta enpleguan emandako esperientzia-urteetan ere batez besteko txikia.

Hala ere, azken aldiko bilakaerari erreparatuta, konturatuko gara teknologia modernoaz baliatzen den lanpostu egonkorraren proportzioa, oro har, handitzen ari dela. Zuzendarien kasuan

igoera nabarmena da (% 45,3tik % 69,3ra 1999-2007 aldian) eta baita teknikarien kolektiboaren kasuan ere (% 52,3tik % 64,9ra). Dena dela, aurrerapen handienak 1999-2003 aldiari dagozkio.

1999-2003 laurtekoan oreka badago ere (1999. urtean % 38,1 eta % 18,7), biztanleria langilearen artean aztertzen ari garen lanpostuak lortzea errazagoa da. Horrela, 2003-2007 aldian, langile kualifikatuen artean lanpostu egonkor eta teknologikoki modernoetan ari direnen proportzioak % 39,0tik % 48,3ra gora egiten du, eta kualifikatu gabeko langileen artean % 20,6tik % 29ra.

Eraginik txikiena arduradunengan du. Langile horien artean ere, igo egin dira lanpostu egonkor eta teknologikoki modernoak lortzeko aukerak (% 44,9tik % 57,5era). Dena dela, 1999. urteko maila handiak berreskuratzea baino ez da egin, orduan adierazlea % 53,3 baitzen (urte hartako lanbide-kategoriari dagokionez, handiena).

### 3.25 taula

Teknologia modernoko enpleguetan dihardutenen proportzioa, lanbide-kategoriaren eta enpleguan emandako esperientzia-urteen arabera.

#### Biztanleria landuna

(%-etan, erreferentziako biztanleriari dagokionez)

Lanbide-kategoria	Datu				>= 3 urte 2007	>= 3 urte 2003	>= 3 urte 1999
	absolutua k	3 urtez azpikoak	3-9 urte	>= 10 urte			
Kualif. gabea	317.582	16,3	16,1	12,9	29,0	20,6	18,7
Kualifikatua	308.029	12,5	19,5	28,8	48,3	39,0	38,1
Arduradunak	85.525	13,4	19,1	38,5	57,5	44,9	53,3
Langile teknikariak	198.125	21,2	26,3	38,6	64,9	62,7	52,3
Zuzendaritzako langileak	43.339	6,1	17,3	52,3	69,7		
						67,3	45,3
<b>GUZTIRA</b>	<b>952.600</b>	<b>15,4</b>	<b>19,7</b>	<b>27,5</b>	<b>47,1</b>	<b>38,7</b>	<b>35,5</b>

1999-2003 aldian ikusitako zerbitzuetako sektorearen bilakaera, 2007. urtean sendotu egiten da, lanpostu egonkor eta teknologikoki modernoan % 49,2 lortuz. 2003ko % 38,9ren eta 1999ko % 34,5en aldean, igoera nabarmena da, baina kontuan izan behar da 2003. urteko maila 1995. urteko % 38 baino pixka bat handiagoa besterik ez dela. Beraz, 2003-2007 aldian izan du enplegu mota horrek indarrak gehiena zerbitzuetan.

Bestalde, 1995. urtetik hona, industrian eta eraikuntzan mota horretako enpleguetan hazkundera gertatu zen, eta egun, joera hori sendotzen ari da: 1995. urtean % 34,7 zen, 1999. urtean % 40,2, 2003. urtean % 42,1 eta gaur egun % 46,6, industriaren sektorean. Eraikuntzan, aldiz, % 17,1, % 25,1, % 26,8 eta % 31,8, hurrenez hurren. Zenbateko horiek zerbitzu-

sektorekoekin alderatzen baditugu, eta enplegu mota horien bultzadari esker (1995-1999 aldia barnean hartuta), hazkundera nabarmen handiago da. 1995. urtetik 2007. urtera bitarte zerbitzu-sektorean adierazlea 9,1 puntu igo bada, industrian 11,9 igo da eta eraikuntzan 14,7.

Hala ere, hazkunderik handiena lehen sektoreari dagokio. Lehenengo sektorean, teknologia modernoko enplegu egonkoraren intzidentzia-maila gutxitu ondoren (1999. urtean % 42 eta 2003. urtean % 39,9), 2007an adierazleak sektoreko mailarik handiena adierazten du. 1995. urteko % 32,3 baino 20 puntu gorago dago.

Baina adarren araberako azterketa eginda, jardueraren intzidentzia hobeto ikusiko dugu. Zerbitzuetakoak ez diren adarren eremuan, enplegu teknologikoki modernoetan oreka ikus daiteke: nekazaritzan % 60,8, paper-industrian % 58, petrokimikan % 58,9, kautxu-industrian % 57,9, metala ez den beste produktuen produkzioan % 57,6 eta energia-produkzioan % 54,7, guztiak ere % 50en gaineratik. Gainerako adarretan, zenbatekoak EAEko adierazle nagusiaren inguruan edo pixka bat beherago daude, baina honako hauetan % 40ren azpitik daude: arrantzan (% 37,6), elikagai-industrian (% 31,8), material elektrikoaren produkzioan (% 28,5) eta eraikuntzan (% 31,8).

Zerbitzuei dagokienez, enplegu teknologikoki modernoetan, egonkortasun-maila handia ikus daiteke honako adar hauetan: finantza-erakundeetan (% 81,7), Administrazio Publikoan (% 65,4), hezkuntzan (% 65,3) eta osasunean eta gizarte-zerbitzuetan (% 54,8). Merkataritzan, garraioen eta komunikazioen adarrean, enpresetarako zerbitzuetan eta gainerako merkataritza-zerbitzuetan, adierazlea EAEko batez bestekoaren inguruan dago, % 43 eta % 48 artean. Aitzitik, EAEko batez bestekoa baino maila txikiagoa dute ostalaritzan (% 26,6) eta etxeko zerbitzuan (% 8,8).

### 3.26 taula

Teknologia modernoko enpleguetan dihardutenen proportzioa, jardueraren eta enpleguan emandako esperientzia-urteen arabera.

#### Biztanleria landuna

(%-etan, erreferentziako biztanleriari dagokionez)

Jarduera	Datu absolutuak	3 urtez azpikoak	3-9 urte	>= 10 urte	>= 3 urte 2007	>= 3 urte 2003	>= 3 urte 1999
Nekazaritza	13.490	8,1	21,4	39,4	60,8	31,9	45,7
Arrantza	3.921	16,1	10,1	27,6	37,6	56,0	25,2
Nekazaritza eta arrantza	17.411	9,9	18,8	36,7	55,6	39,9	42,0
Erauzketa-industria	749	16,9	18,5	24,2	42,6	65,8	34,0
Elikagai-industria	11.841	20,0	14,4	17,4	31,8	37,7	37,3
Paper-industria	11.652	15,8	22,2	35,8	58,0	49,6	51,5
Industria petrokimikoa	13.232	11,2	30,7	28,3	58,9	53,2	59,1
Kautxu-industria	13.399	4,4	10,5	47,4	57,9	50,9	56,0
Metala ez den beste ind.	7.853	4,9	29,4	28,2	57,6	44,5	38,0

Metalurgia	72.618	17,0	19,8	27,5	47,2	36,9	37,4
Makinagintza	52.400	11,6	20,0	26,8	46,9	48,2	41,7
Material elektrikoa	17.885	25,5	11,4	17,1	28,5	55,7	26,9
Garraio-materiala	32.701	11,4	17,7	25,6	43,3	41,4	43,2
Ask. manufaktura ind.	22.094	9,3	20,0	26,1	46,1	20,9	21,7
Energia-produkzioa	4.648	29,6	19,4	35,3	54,7	69,4	57,8
<b>Industria</b>	<b>261.072</b>	<b>14,1</b>	<b>19,2</b>	<b>27,4</b>	<b>46,6</b>	<b>42,1</b>	<b>40,2</b>
<b>Eraikuntza</b>	<b>83.351</b>	<b>21,0</b>	<b>14,2</b>	<b>17,7</b>	<b>31,8</b>	<b>26,8</b>	<b>25,1</b>
Merkataritza	128.496	12,6	24,0	24,3	48,3	30,2	25,6
Ostalaritza	38.208	14,2	18,1	8,5	26,6	14,9	9,2
Garraioak eta komunikazioak	55.284	16,0	21,5	27,0	48,5	41,8	36,6
Finantza-erakundeak	18.212	17,6	26,5	55,2	81,7	69,7	72,0
Enpresentzako zerbitzuak	105.830	23,7	21,3	21,8	43,0	43,6	41,0
Administrazio Publikoa	53.669	9,5	20,6	44,7	65,4	64,9	61,6
Hezkuntza	63.308	7,6	20,2	45,1	65,3	50,2	41,4
Osasung./Gizarte-zerb.	66.533	19,8	20,8	33,9	54,8	47,7	45,4
Beste merkataritza-zerb.	36.293	20,6	15,4	29,9	45,3	28,8	22,0
Etxeko zerbitzuak	24.933	3,2	6,9	1,9	8,8	6,5	3,3
<b>Zerbitzuak</b>	<b>590.766</b>	<b>15,3</b>	<b>20,6</b>	<b>28,6</b>	<b>49,2</b>	<b>38,9</b>	<b>34,5</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>952.600</b>	<b>15,4</b>	<b>19,7</b>	<b>27,5</b>	<b>47,1</b>	<b>38,7</b>	<b>35,5</b>

Bestalde, establezimenduaren tamainak ere badu eraginik teknologia modernoa erabiltzen duen enpleguaren egonkortasunean. Ildo berari jarraiki, teknologia modernoko lanpostu egonkorren proportzioa etengabe hazi egiten da, zentroaren tamainarekin batera: langile 1 edo 2 dituzten mikro-establezimenduetan % 36,8 dute, eta 500 langile baino gehiagoko establezimenduetan % 57,2.

Hala ere, deigarria da 1999. urtetik 2007. urtera bitarte 50 langile edo gehiagoko establezimenduetan adierazleak hazkunde txikia izana. Horren ondorioz, 2007. urtean, establezimenduaren tamaina handitu ahala, lanpostu teknologikoki modernoetan egonkortasun-maila handitzeko joerak egonkortzera egiten du, eta egoera horri aurreko urteetan eman ez zaion garrantzia eman behar zaio. Horrela, 50-99 langileko zentroetan % 46,3 bada, 10-19 eta 20-49 enpleguko zentroetako % 48,2 eta % 52,5 baino txikiagoa da. 100-499 enpleguko zentroetan adierazlea % 51,1era igotzen bada ere, 20-49 enpleguko establezimenduen % 52,5 baino txikiagoa da. Dena dela, 10 langiletik aurrerako zentroetan, zenbatekoak EAEko batez bestekoaren ingurukoak edo zertxobait handiagoak dira.

### 3.27 taula

Teknologia modernoko enpleguetan dihardutenen proportzioa, establezimenduaren tamainaren eta enpleguan emandako esperientzia-urteen arabera.

Biztanleria landuna

(%-etan, erreferentziako biztanleriari dagokionez)

Establezimenduaren tamaina	Datu absolutuak	3 urtez			>= 3 urte	>= 3 urte	>= 3 urte
		azpikoak	3-9 urte	>= 10 urte	2007	2003	1999
1etik 2ra	154.441	7,9	15,4	21,4	36,8	26,3	21,6
3tik 9ra	155.700	17,9	17,8	22,9	40,7	33,1	32,6
10etik 19ra	103.600	18,6	25,2	23,0	48,2	41,9	31,6
20tik 49ra	166.674	16,6	24,3	28,2	52,5	38,2	37,5
50etik 99ra	106.210	17,1	20,7	25,6	46,3	44,6	40,6
100etik 499ra	166.397	15,8	18,5	32,6	51,1	46,4	46,6
500 eta hortik gora	99.578	15,0	16,3	40,8	57,2	51,4	51,5
<b>GUZTIRA</b>	<b>952.600</b>	<b>15,4</b>	<b>19,7</b>	<b>27,5</b>	<b>47,1</b>	<b>38,7</b>	<b>35,5</b>

Interesgarria da aztertutako egoeren intzidentzia aztertzea, biztanleria landunak enpresarekin duen kontratu bidezko loturaren arabera. Aldagai hori aintzat hartuta, ikusi dugu enplegu egonkor eta teknologikoki modernoak duten landunen talde handienak honako hauek direla: enpresaburuak, (soldatapeko kopuruaren arabera % 67 eta % 70 artean), kooperatibistak (% 64,9) eta Administrazioeko soldatapeko finakoak (% 71,4). Enpresako soldatapekoen kasuan (% 52,8) eta enpresa pribatuko soldatapeko finakoaren kasuan ere (% 53,1), zenbatekoek % 50eko maila gainditzen dute. Talde horietan guztietan, lanpostu egonkor eta teknologikoki modernoak proportzioak gora egiten du 1999. edo 2003. urteko adierazleekin alderatuta.

Teknologia modernoak baliatzen diren enplegu egonkorren proportzioa euskal batez bestekoa baino txikiagoa da autonomoen kasuan (% 45,2) eta Administrazio Publikoko aldi baterako soldatapekoetan (% 42,2), baina 2003. urtetik igo egin da (% 33,1 eta % 34,2, hurrenez hurren).



Hainbat kolektiboren proportzioak EAEko adierazle nagusia baino txikiagoak dira: kontraturik ez dutenak (% 6,5), sektore pribatuko aldi baterako soldatapekoak (% 7,8), eta obrako eta zerbitzuko kontratua dutenak (% 11,6). 2003. urtean ikusitakoarekin alderatuz, zenbateko horiek guztiek egonkortzeko joera dute.

### 3.28 taula

Teknologia modernoko enplegetan dihardutenen proportzioa, lanbide-egoeraren eta enpleguan emandako esperientzia-urteen arabera.

Biztanleria landuna

(%-etan, erreferentziako biztanleriari dagokionez)

Egoera profesionala	Datu absolutu ak	3 urtez azpiko- ak	3-9 urte	>= 10 urte	>=3 urte 2007	>=3 urte 2003	>=3 urte 1999
< 3 soldatapeko dituen enpresaburua	14.388	5,7	35,6	31,4	67,0	39,0	37,4
>= 3 soldatapeko dituen enpresaburua	19.395	1,9	9,1	61,1	70,2	55,2	65,6
Enpresa bertako soldatapekoa	18.320	4,3	14,1	38,7	52,8	36,0	37,8
Autonomoa	93.068	5,6	13,2	32,0	45,2	33,1	31,4
Familia laguntza	2.501	18,6	2,0	16,3	18,3	17,7	13,8
Kooperatibista	24.952	8,8	27,0	38,0	64,9	47,4	54,7
Adm. Publ. soldatapeko finkoa	100.530	5,5	16,7	54,7	71,4	67,0	64,2
Aldi baterako Adm. Publ. soldatapeko	38.144	32,1	27,6	14,7	42,2	34,2	33,1
Enpresa pribatuko soldatapeko langile finkoa	477.034	11,3	25,0	28,1	53,1	46,4	43,8
Enp. pribatuko aldi baterako soldatap.	88.675	46,0	6,7	1,1	7,8	8,2	4,1
Enpresa pribatuko obra-kontratua	47.386	40,4	8,8	2,9	11,6	11,6	9,2
Enpresa pribatuan kontraturik gabe	15.458	14,9	3,4	3,0	6,5	6,7	3,3
Beste egoera bat enpresa pribatuan	5.940	32,7	15,6	3,7	19,3	25,5	19,6
Bestelako egoeraren bat	6.809	8,0	6,9	12,2	19,0	5,6	0,0
<b>GUZTIRA</b>	<b>952.600</b>	<b>15,4</b>	<b>19,7</b>	<b>27,5</b>	<b>47,1</b>	<b>38,7</b>	<b>35,5</b>

Kontratu motari dagokionez, kontratu mugagabea duten landunen % 56,3k enplegu teknologikoki modernoan enpleguan lan egiten du, duela hiru urte edo gehiago; proportzio hori 1995. urtekoaren oso antzekoa da (% 49,6) baina 1999. eta 2003. urtekoa baino zertxobait handiagoa (% 47,9 eta % 50 hurrenez hurren).

Norbere kontura ari direnen adierazleak berriz, 1999. urtetik 2003. urtera bitarte izandako beherakadaren ondoren (% 39,4tik % 37,1era), 1995. urtetik, eta bereziki 2003-2007 alditik hazkunde handia izan du (1995. urtean % 25,7 ,egun % 53,1). Soldata gabekoen taldea enplegu egonkor eta teknologikoki modernoak diren lanpostuetan egonkortu egin da eta hori, azken lau urteetan ikusitako aldaketak ikusiz, kontuan izan behar da.

Gainerako kasuetan adierazleak nabarmen egiten du behera eta % 20ren azpitik kokatzen da: aldi baterako kontratua dutenen artean % 17,0, obra kontratua dutenetan % 13,7 edo kontraturik gabekoetan % 6,5. Kontraturik gabe lanean ari direnen kasuan izan ezik, zenbateko horiek, halere, 1999. eta 2003. urtekoak baino handiagoak dira.

### 3.29 taula

Teknologia modernoko enpleguetan dihardutenen proportzioa, enpresarekiko kontratu bidezko loturaren eta enpleguan emandako esperientzia-urteen arabera.

#### Biztanleria landuna

(%-etan, erreferentziako biztanleriari dagokionez)

Kontratu bidezko lotura	Datu absolutuak	3 urtez azpikoak	3-9 urte	>= 10 urte	>=3 urte 2007	>=3 urte 2003	>=3 urte 1999
Mugagabea	577.565	10,3	23,6	32,7	56,3	50,0	47,9
Aldi batekoa	117.344	41,9	12,9	4,1	17,0	13,6	9,0
Obrakoa	53.365	40,4	9,8	4,0	13,7	12,8	10,3
Kontraturik gabekoa	15.458	14,9	3,4	3,0	6,5	7,9	3,3
Bestelako							
egoeraren bat	16.246	24,2	10,2	12,3	22,5	11,9	17,4
Norbere kontura	172.623	5,7	16,5	36,5	53,1	37,1	39,4
<b>GUZTIRA</b>	<b>952.600</b>	<b>15,4</b>	<b>19,7</b>	<b>27,5</b>	<b>47,1</b>	<b>38,7</b>	<b>35,5</b>

#### 1.3.2. Ohiko teknologia erabiltzen izandako esperientzia

Aurreko atalean, epe ertain eta luzerako (gutxienez segidako hiru urte) enpleguari eusten dioten eta teknologia modernoaz baliatzen diren enpleguen intzidentzia aztertu dugu.

Teknologia modernoaren erabileran oinarritzen ez diren arren, badira hainbat egoera enpleguaren egonkortasun-maila adierazten dutenak, eta lan-esperientzia maila balioesteko garrantzitsuak dira. Testuinguru horretan, egungo biztanleria aktiboaren % 25,1ek hiru urte baino gehiago darama ohiko teknologiako lanpostu batean; enplegu horretan 10 urte baino gehiago daramatenak, aldiz, % 14,1 dira. Ohiko teknologiako lanpostuetan 3 urtez baino gehiagoz ari direnen kopurua asko jaitsi da azken urteetan, 2003. urteko % 31,2tik, 1999. urteko % 26,6ren azpitik baitago gaur egun.

3 urtez edo gehiagoz ohiko teknologiaz baliatzen diren enpleguen egonkortasunak (guk eman diogun zentzuan hartuta) eragin handiagoa du gizonengan: % 26,2 gizonetan eta % 23,5 emakumeetan. Hala ere, alde horren arrazoia honako hau izan daiteke: enpleguan egonkortasun-maila handia duten aktiboak gizonak direla, gizonen % 17k 10 urte baino gehiago baitarama enplegu berean, eta emakumeetan, aldiz, % 10,2k besterik ez. Gainerako egoeretan, emakumeek garrantzi handiagoa dute: ohiko teknologiako enpleguan 3-9 urteko antzintasuna dutenetan % 13,3 emakumeak dira, eta % 9,3 gizonak; eta 3 urte baino gutxiagoko antzintasunarekin, emakumeak % 11,4 dira, eta gizonak % 9,3.

Egungo egoera 1999. urtekoarekin alderatzen badugu, generoen arabera bilakaera desberdina ikus daiteke (1999. urtean eta 2007. urtean ohiko teknologiako enplegu egonkorren garrantzia antzekoa da). Emakumeen adierazleak % 23,5i eusten dion bitartean, % 28,8tik % 26,2ra jaisten da gizonetan.

3.30 taula

Ohiko teknologiako enpleguetan dihardutenen proportzioa, sexuaren eta enpleguan emandako esperientzia-urteen arabera.

Biztanleria aktiboa

(%-etan, erreferentziako biztanleria aktiboari dagokionez)

Sexua	3 urtez azpikoak	3-9 urte	>= 10 urte	>= 3 urte 2007	>= 3 urte 2003	>= 3 urte 1999
Gizonak	9,3	9,3	17,0	26,2	32,5	28,8
Emakumeak	11,4	13,3	10,2	23,5	29,3	23,5
<b>GUZTIRA</b>	<b>10,2</b>	<b>11,0</b>	<b>14,1</b>	<b>25,1</b>	<b>31,2</b>	<b>26,6</b>

Espero zitekeenez, kasu horretan bereziki, adinaren eta mota horretako enpleguen intzidentziaren arteko lotura handia da, 25 urtetik beherakoetan % 5,2 izatetik, 55 urtetik gorakoetan % 34,2 izatera heldu baita.

Baina ohiko teknologiako enplegu mota horren proportzioa handitzean bada hausturirik. Horrela, 25 urtetik beherakoetan, aktibo guztien % 10 baino txikiagoa da intzidentzia, eta 25-34 urtekoetan, % 15 eta % 20 artekoa. 35-49 urte bitartekoetan, eragina % 28 eta % 30 artekoa da, eta 50 urtetik gorakoetan % 30 gainditzen da (50-54 urtekoetan % 32,8, eta 55 urtetik gorakoetan % 34,2).

Orokorrean, enplegu egonkorra eta ohiko teknologia dutenen eragina murriztu egin da. 1999. eta 2003. urteko zenbatekoekin alderatuz, bereziki zaharrenei eragiten die. 45 urtetik gorakoetan

oso nabaria da. 2003. urtean % 40-50ean egon ondoren, 2007. urtean adierazlea % 30-35era jaisten da. 30-34 urtekoen artean ere beherakada nabaria da, 1999. urteko % 27tik, egungo % 19ra jaisten baita. Azken laurtekoan izandako beheranzko joera hori, 1999-2003 aldiaren eman zen kasu bakar horretan.

3.31 taula  
Ohiko teknologiako enpleguetan dihardutenen proportzioa, adinaren eta enpleguan emandako esperientzia-urteen arabera.

Biztanleria aktiboa

(%-etan, erreferentziako biztanleria aktiboari dagokionez)

Adina	3 urtez azpikoak	3-9 urte	>= 10 urte	>= 3 urte		
				2007	>= 3 urte 2003	>= 3 urte 1999
25 urtez azpikoak	27,1	5,2		5,2	11,5	6,3
25-29 urte	20,5	14,6	0,9	15,5	18,0	16,7
30-34 urte	7,7	12,9	6,1	19,0	22,9	27,0
35-39 urte	12,6	16,0	12,0	27,9	30,6	28,7
40-44 urte	6,6	8,9	20,0	28,9	34,2	28,6
45-49 urte	8,2	9,8	20,1	29,9	41,4	33,5
50-54 urte	4,6	8,9	23,9	32,8	46,2	39,4
>= 55 urte	2,6	7,4	26,8	34,2	50,7	50,1
<b>GUZTIRA</b>	<b>10,2</b>	<b>11,0</b>	<b>14,1</b>	<b>25,1</b>	<b>31,2</b>	<b>26,6</b>

Sexuaren eta adinaren arabera datuei begiratuta, honako hau ikusi dugu: ohiko teknologiako enpleguetan egonkortasun-egoeren intzidentzia handitu egiten da, adinean gora egin ahala; eta hori gizonetan nahiz emakumeetan gertatzen da. Gizonen kasuan ez bezala, non 35 urtez gorakoak eta 35 urtez azpikoak artean alde handia dagoen (lehenengo kasuan % 30 baino gehiago eta bigarrenetan % 15,4), emakumeen kasuan pixkanaka handitu da (35 urtez azpikoetan % 15,2, 35-44koetan % 24,1 eta 45 urtetik gorakoetan % 32,5).

Aipatu beharreko beste ezaugarri bat, gaur egun, egoera horrek bereziki 35-44 urteko gizonetan duela eraginik handiena da, % 31,8 gizonetan eta % 24,1 emakumeetan. Gainerako adin-taldeetan, enplegu egonkor eta teknologikoki ohikoen intzidentzia antzekoa da gizonetan eta emakumeetan.

Bilakaerari erreparatuta, 2007. eta 1999. urteko zenbatekoak alderatzen baditugu, aztertzen ari garen enplegu motaren garrantziaren beherakadak 45 urtez azpikoak artean mugimendu jakin batzuk ezkututzen dituela ikus dezakegu. 2003-2007 laurtekoan aldiz, 45 urtez gorakoak artean izandako beherakadak oso nabariak dira (1999. urteko adierazlearen azpitik jarriz). Adierazlea beraz, 1999. urtetik 2007. urtera bitarte % 40,6tik % 32,1era jaitsi da gizonetan, eta % 40,8tik % 32,5era emakumeetan.

### 3.32 taula

Ohiko teknologiatik enplegetan dihardutenen proportzioa, sexuaren, adinaren eta enpleguan emandako esperientzia-urteen arabera.

#### Biztanleria aktiboa

(%-etan, erreferentziako biztanleria aktiboari dagokionez)

Sexua eta adina	3 urtez			>= 3 urte	>= 3 urte	>= 3 urte
	azpikoak	3-9 urte	>= 10 urte	2007	2003	1999
Gizonak < 35	17,7	11,7	3,6	15,4	20,4	18,7
Gizonak 35-44	6,5	12,6	19,3	31,8	34,4	30,1
Gizonak >= 45	3,7	4,6	27,5	32,1	43,9	40,6
Gizonak	9,3	9,3	17,0	26,2	32,5	28,8
Emak. < 35	13,3	12,8	2,5	15,2	15,5	14,5
Emak. 35-44	13,1	11,8	12,4	24,1	29,6	26,7
Emak. >= 45	7,6	15,3	17,2	32,5	49,7	40,8
Emakumeak	11,4	13,3	10,2	23,5	29,3	23,5
GUZTIRA	10,2	11,0	14,1	25,1	31,2	26,6

Ohiko teknologiaz baliatuta garatzen diren enpleguen ezaugarri nagusietako bat honako hau da: kualifikazio txikieneko enpleguekin lotura handia izatea; eta lotura hori egiazta dezakegu enplegu mota hori biztanleria landunean aztertzean, egungo lanbidearen arabera.

Landunen kolektibo horrek kualifikatu gabeko langileen % 43,1 osatzen du, zerbitzu-sektorekoak ez diren sektoreetako langile kualifikatuen % 37,4, eta zerbitzu-sektoreko langile kualifikatuen % 38,5. Aldiz, zuzendarien eta teknikarien artean, horrelako enpleguen garrantzi erlatiboa % 11,7 inguruko zenbatekoetara murrizten da, eta administrazioko enplegatuen artean % 7,5era besterik ez. Orokorrean, biztanleria landunaren % 26,7k egonkorra eta ohiko teknologia duten enplegetan dihardu, 2003. urteko % 34,4ren azpitik. Beherakada orokorra da, zerbitzu-sektoreko langile kualifikatuen kasuan izan ezik (2003. urteko % 39,9ri eusten diote).

Langileen artean, kualifikatuak edo kualifikatu gabeak, oso lanbide gutxitan urruntzen dira zenbatekoak EAEko adierazle nagusitik. % 25eko mailatik behera honako hauek daude: nekazaritzako, eraikuntzako eta garraioetako peoiak, arrantzaleak, industria instalazio finkoetako arduradunak eta makineria mugikorreko operadoreak. Aldiz, administrariaren, teknikariaren eta zuzendariaren artean % 20ko maila lanbide gutxitan gaintzen da: zuzendari-kategoria batzuetan, osasunaren eta natur zientziaren arloarekin loturarik ez duten erdi-mailako tituludunetan, eta irakaskuntzako teknikarietan.

3.33 taula  
 Ohiko teknologiko enpleguetan dihardutenen proportzioa, lanbidearen eta enpleguan emandako  
 esperientzia-urteen arabera. Biztanleria landuna  
 (%-etan, erreferentziako biztanleriari dagokionez)

Lanbidea	Datu	3 urtez			
	absolutuak	azpikoak	3-9 urte	>= 10 urte	>3 urte
Indar Armatuak	1.085				0,0
Sektore publikoko zuzendariak	54			100,0	100,0
Enpresa pribatuak zuzendari/gerenteak	59.525	1,8	6,7	13,6	20,3
Ingeniariak	23.057	2,9	3,3	3,9	7,2
Osasun ar. eta N. Zient. goi-mail. titulua	8.716			6,6	6,6
Irakaskuntzako goi-mailako titulua	30.092	3,8	3,0	9,8	12,8
Zuzenbideko goi-mailako titulua	12.782		3,7	9,1	12,8
Gizarte zientzietan goi-mailako titulua	11.021	3,0		1,6	1,6
Idazleak, artistak	7.975	3,7	7,5	1,4	8,9
Ingeniari teknikoak	13.838		3,1	4,7	7,7
Osasun ar. eta N. zient. erdi-mail. titulua	20.205	2,6			0,0
Erdi mailako titulua Irakaskuntza	27.155	8,1	7,6	12,6	20,2
Erdi-mailako beste titulu batzuk	3.281	32,5	18,9	4,8	23,7
Ingeniari teknikoak	27.647	4,5	8,5	6,9	15,4
Osasun ar. eta N. zient. teknikariak	6.114			8,9	8,9
Irakaskuntzako teknikariak	1.648		24,5		24,5
Finantza eta merkataritza laguntzako teknikariak	29.075	9,6	1,3	6,1	7,4
Administrazioko laguntzako teknikariak	27.977	4,1		3,7	3,7
Laguntzako beste teknikari batzuk	8.409	9,6	7,4	4,4	11,8
<b>Zuzendariak eta Teknikariak</b>	<b>319.654</b>	<b>4,2</b>	<b>4,3</b>	<b>7,5</b>	<b>11,7</b>
Administrazioa eta finantza, eta produkzio enplegatua	27.760	5,4	1,6	8,4	10,0
Posta-administrariak eta parekoak	7.239			18,0	18,0
Bulegoko makinetako operadoreak					0,0
Jendaurreko zereginik gabeko beste adm. lag.	17.575	1,3	4,2	1,4	5,6
Jendaurreko zereginak dituzten beste adm. lag.	23.081	5,0	1,1	4,9	6,0
Harreragileak	7.152	1,8		4,6	4,6
Kutxazainak	10.862	3,9	2,5		2,5
<b>Administrariak</b>	<b>93.669</b>	<b>3,7</b>	<b>1,8</b>	<b>5,7</b>	<b>7,5</b>
Ostalaritzako eta jatetxe-arloko langileak	32.559	24,2	25,9	14,5	40,5
Zerbitzu pertsonaletako langileak	35.964	28,9	18,7	11,7	30,4
Segurtasun-zerbitzuetako langileak	18.219	16,6	16,3	22,2	38,4
Merkataritza-saltzaileak	53.055	13,6	26,1	16,6	42,7
Zerbitzuetako kualifikatuak	139.798	20,4	22,9	15,6	38,5

Ohiko teknologiako enpleguetan dihardutenen proportzioa, lanbidearen eta enpleguan emandako esperientzia-urteen arabera. Biztanleria landuna (%-etan, erreferentziako biztanleriari dagokionez)

(Jarraipena)

Lanbidea	Datu 3 urtez				
	absolutuak	azpikoak	3-9 urte	>= 10 urte	>3 urte
Nekazaritza-jardueretako langileak	10.525	17,0	5,3	22,1	27,3
Abeltzaintza-jardueretako langileak	1.455			37,2	37,2
Nekazaritzako beste jard. lang.	823			42,8	42,8
Arrantzaleak	1.690	24,5			0,0
Eraikuntzako arduradunak	5.859	4,8	14,9	12,7	27,6
Eraikuntzako egit. obretako langileak	30.502	19,3	20,1	23,0	43,1
Eraikuntza-akaberako langileak	27.604	9,4	23,5	28,9	52,3
Metal-arloko arduradunak	6.630	4,8		26,2	26,2
Erauzketako ind. lang.					0,0
Soldatzaileak, txapistak	29.114	18,3	9,2	35,0	44,2
Mekanikari doitzzaileak	30.230	13,0	7,1	25,2	32,3
Doitasuneko lang., artisauak	6.365	2,9	12,3	60,0	72,4
Janarien arloko langileak	3.709	21,6	22,7	11,5	34,1
Manufaktura-industriako langileak	5.822	0,7	18,7	22,7	41,4
Indus. instal. finkoetako arduradunak	4.844			11,3	11,3
Indus. instal. finkoetako operadoreak	17.746	12,9	3,1	27,6	30,7
Makina finkoetako operadoreen arduradunak	4.229	2,5	29,7	13,9	43,6
Makina finkoetako operadoreak	47.614	6,3	13,0	21,5	34,4
Muntatzaileak	17.298	16,7	20,1	16,6	36,7
Makina mugikorretako operadoreak	12.229	13,8	2,3	11,3	13,6
Gidariak	28.188	10,4	14,4	26,7	41,1
<b>Beste kualifikatuak</b>	<b>292.477</b>	<b>11,8</b>	<b>12,8</b>	<b>24,7</b>	<b>37,4</b>
Langile kualif. gabeak Merkataritza	274		57,7		57,7
Etxeko enplegatuak/garbitzaileak	52.958	27,0	31,3	20,6	51,9
Atezainak	9.906	8,3	33,7	20,6	54,2
Zerbitzuetako beste ez-kualif. Zerbitzuak	5.563	8,2	10,7	34,5	45,3
Nekazaritzako peoiak	1.281	35,4			0,0
Eraikuntzako peoiak	10.586	20,7	20,8	2,6	23,4
Manufakturako ind. peoiak	15.250	17,4	18,2	20,4	38,6
Garraioko peoiak	11.184	25,4	8,9	11,3	20,2
<b>Kualif. gabeak</b>	<b>107.002</b>	<b>22,2</b>	<b>24,9</b>	<b>18,2</b>	<b>43,1</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>952.600</b>	<b>10,9</b>	<b>11,7</b>	<b>15,0</b>	<b>26,7</b>

Lanbide-kategorien arabera, enplegu egonkorren eta ohiko teknologia erabiltzen dutenen intzidentzia batez bestekoa baino askoz handiagoa da, langile kualifikatuen eta kualifikatu gabeen artean (% 30,4 eta % 34,9 hurrenez hurren). Arduradunen artean % 20-25 da, zuzendarien artean % 21,9 eta teknikarien artean berriz, beherakada nabaria dago, % 9,4ra jaitsiz.



Azken urteotan, lanbide-kategoriaren arteko aldea areagotu egin da. Arrazoia, 1999. urtearekin alderatuz, teknikariengan eta zuzendariengan adierazlearen eragina askoz txikiagoa dela da, zuzendarien artean 8,6 puntuko beharakada baitago eta teknikarien artean berriz, 15,3koa. Beharakada horiek etenik gabeak diren arren, 2003. urtetik 2007. urtera bitarte gorakada txikia eman zen zuzendarien artean.

Arduradunen eta langile kualifikatuen kasuan murrizketa 4 puntu ingurukoa da. Kualifikatu gabeko langileen kasuan berriz, murrizketa 0,6 puntukoa baino ez da. Murrizketa txiki horrek lotura dauka 1999-2003 aldian, egonkorra eta ohiko teknologia duten enpleguetan lanean ari diren arduradunen eta langileen kopuruak (kualifikatuak eta kualifikatu gabek) gorakada handia izatearekin. Aurreko joerei aurre egiteko nahikoa ez bada ere, mota horretako enpleguek beharakada handia izan dute kategoria profesional horietan 2003-2007 laurtekoan.

### 3.34 taula

Ohiko teknologiko enpleguetan dihardutenen proportzioa, lanbide-kategoriaren eta enpleguan emandako esperientzia-urteen arabera. Biztanleria landuna (%-etan, erreferentziako biztanleriari dagokionez)

Lanbide-kategoria	Datu absolutuak				>= 3 urte	>= 3 urte	>= 3 urte
	3 urtez azpikoak	3-9 urte	>= 10 urte	2007	2003	1999	
Kualifikatu gabea	317.582	19,8	18,9	16,0	34,9	40,8	35,5
Kualifikatua	308.029	8,8	11,1	19,3	30,4	38,6	34,3
Arduradunak, erdi-mailako kargudunak	85.525	4,1	6,9	18,0	24,9	36,8	29,1
Langile teknikariak	198.125	4,4	3,9	5,5	9,4	14,0	18,0
Zuzendaritzako langileak	43.339	2,4	7,7	14,1	21,9	19,8	37,2
<b>GUZTIRA</b>	<b>952.600</b>	<b>10,9</b>	<b>11,7</b>	<b>15,0</b>	<b>26,7</b>	<b>34,4</b>	<b>31,9</b>

Lehenengo sektorean eta zerbitzuetan, txikia da enplegu egonkor eta teknologikoki ohikoen intzidentzia (% 21,3 eta % 24,2, hurrenez hurren). Industrian (% 30,8) eta eraikuntzan (% 32,2), aldiz, gora egiten du.

Jarduera-adarren arabera, zerbitzuetakoak ez diren enpleguetan eragin handiena (% 35etik gora guztietan ere) erauzketa-industrian (% 40,5), elikadura-industrian (% 37,7), garraioko materialaren fabrikazioan (% 40,5) eta askotariko manufaktura-industrietan (% 44,2) atzematen da. % 30eko maila honako hauetan ere gaintzen da: eraikuntzan, kautxuaren manipulazioarekin lotutako industrietan, metala ez den beste produktuen produkzioan, makinagintzan eta material elektrikoaren fabrikazioan.

Zerbitzuetan, merkataritzan eta ostalaritzan % 30eko mailatik gora daude (% 30,6 eta % 35,2 hurrenez hurren). Adierazlea gehieneko % 58,8ra heltzen da etxeko zerbitzuan.

## 3.35 taula

Ohiko teknologiako enpleguetan dihardutenen proportzioa, jardueraren eta enpleguan emandako esperientzia-urteen arabera.

Biztanleria landuna  
(%-etan, erreferentziako biztanleriari dagokionez)

Jarduera	Datu	3 urtez			
	absolutuak	azpikoak	3-9 urte	>= 10 urte	>= 3 urte
Nekazaritza	13.490	5,2	6,1	19,8	25,9
Arrantza	3.921	40,7		5,6	5,6
Nekazaritza eta arrantza	17.411	13,2	4,7	16,6	21,3
Erauzketa-industria	749			40,5	40,5
Elikagai-industria	11.841	10,6	20,5	17,2	37,7
Paper-industria	11.652	3,4	12,7	10,1	22,8
Industria petrokimikoa	13.232	11,3	4,9	13,8	18,6
Kautxu-industria	13.399	6,4	23,2	8,1	31,3
Metala ez den beste ind.	7.853	7,4	10,8	19,3	30,1
Metalurgia	72.618	9,6	6,8	19,4	26,2
Makinagintza	52.400	11,0	6,9	23,5	30,5
Material elektrikoa	17.885	13,0	16,8	16,2	33,0
Garraio-materiala	32.701	4,8	14,0	26,5	40,5
Ask. manufaktura ind.	22.094	0,5	12,5	31,7	44,2
Energia-produkzioa	4.648	15,8			0,0
Industria	261.072	8,4	10,5	20,3	30,8
Eraikuntza	83.351	14,9	15,3	16,9	32,2
Merkataritza	128.496	8,6	14,3	16,2	30,6
Ostalaritza	38.208	24,0	24,2	11,0	35,2
Garraioak eta komunikazioak	55.284	10,2	5,8	19,5	25,3
Finantza-erakundeak	18.212	0,5		0,2	0,2
Enpresentzako zerbitzuak	105.830	11,2	12,0	10,1	22,1
Administrazio Publikoa	53.669	6,0	8,5	10,7	19,2
Hezkuntza	63.308	8,4	6,4	12,4	18,8
Osasung./Gizarte-zerb.	66.533	10,6	6,1	8,7	14,8
Beste merkataritza-zerb.	36.293	16,6	8,7	8,7	17,4
Etxeko zerbitzuak	24.933	29,5	44,0	14,5	58,5
Zerbitzuak	590.766	11,3	11,9	12,3	24,2
GUZTIRA	952.600	10,9	11,7	15,0	26,7

Establezimendu txikienetan, ohiko teknologiako enplegu egonkorrek duten eragin handia nabarmendu behar dugu. Horrela, 3-9 langileko zentroetako lanpostuen % 27 osatzen dute mota horretako enpleguek, eta langile 1 eta 2 dituzten establezimenduetan % 42,8. Aldiz, 10 enplegutik gorakoetan, erreferentziako landunen kolektiboaren garrantzi erlatiboa batez bestekoa baino txikiagoa da, % 20-25 inguruko zenbatekoetan. 10-49 enpleguko establezimenduetan % 22 baino

txikiagoa da, baina 50-499 langilekoetan mailak gora egiten du eta % 24,5etik % 25era bitarte dago.

Azken aldiko bilakaeraren ondorio izan daitezke alde horiek. 1999-2003 aldian, 10-49 enpleguko zentroetan ohiko teknologiako enpleguetan ari diren landunen proportzioak ez du gorakada nabarmenik izan, eta horrek lotura dauka 2007. urtean mota horretako zentroetan izandako adierazleen maila txikiekin.

### 3.36 taula

Ohiko teknologiako enpleguetan dihardutenen proportzioa, establezimenduaren tamainaren eta enpleguan emandako esperientzia-urteen arabera.

Biztanleria landuna

(%-etan, erreferentziako biztanleriari dagokionez)

Establezimenduaren tamaina	Datu						
	absolutua k	3 urtez azpikoak	3-9 urte	>= 10 urte	>=3 urte 2007	>=3 urte 2003	>=3 urte 1999
1etik 2ra	154.441	12,6	18,8	24,0	42,8	50,6	48,2
3tik 9ra	155.700	14,5	14,5	12,5	27,0	36,0	29,1
10etik 19ra	103.600	11,2	11,0	10,9	21,9	27,4	27,3
20tik 49ra	166.674	10,8	8,5	11,6	20,1	29,8	31,7
50etik 99ra	106.210	12,0	10,6	14,0	24,6	31,4	27,1
100etik 499ra	166.397	8,2	8,6	16,3	24,9	28,6	26,4
500 eta hortik gora	99.578	5,6	8,7	13,6	22,3	29,4	26,2
<b>GUZTIRA</b>	<b>952.600</b>	<b>10,9</b>	<b>11,7</b>	<b>15,0</b>	<b>26,7</b>	<b>34,4</b>	<b>31,9</b>

Enpresaren egoeraren arabera, ohiko teknologiako enplegu egonkorren intzidentziari erreparatuta, soldatarik gabeko biztanleriaren kategorietan intzidentzia EAEko adierazlearen berdina edo handiagoa dela konturatuko gara, 3 langile baino gutxiagoko enpresaburuen eta kooperatibisten kasuan izan ezik. Enpresaren beraren soldatapekoen eta autonomoen kasuetan ere, zenbatekoak oso handiak dira, % 37,2 eta % 42,3. Alabaina, soldatapekoen artean batez bestekoa baino proportzio txikiagoa izan ohi dute, enpresa pribatuko soldatapeko finkoek (% 29,9%) eta kontraturik gabekoek (% 49,6) izan ezik.

Datuek beraz, ohiko teknologiako enplegu egonkorren eragina soldatapekoen artean eta soldatarik gabekoek artean desberdina dela adierazten dute. Aldi berean, soldatapekoen multzoan, enpresa pribatuko soldatapeko finkoetan horrelako enpleguen intzidentzia handia baldin bada (soldatarik gabeko biztanlerian gertatzen den bezalaxe), soldatapeko gainerako biztanleria landun ia guztietan kontrakoa gertatzen da.

## 3.37 taula

Ohiko teknologiako enpleguetan dihardutenen proportzioa, lanbide-egoeraren eta enpleguan emandako esperientzia-urteen arabera.

## Biztanleria landuna

(%-etan, erreferentziako biztanleria landunari dagokionez)

Egoera profesionala	Datu						
	absolutu- ak	3 urtez azpikoak	3-9 urte	>= 10 urte	>=3 urte 2007	>=3 urte 2003	>=3 urte 1999
< 3 soldatapeko dituen enpresaburua	14.388	9,2	4,3	13,8	18,1	48,6	49,4
>= 3 soldatapeko dituen enpresaburua	19.395		13,5	14,4	27,9	40,2	22,1
Enpresa bertako soldatapekoa	18.320	5,8	11,3	25,9	37,2	42,0	47,1
Autonomia	93.068	6,9	11,7	30,6	42,3	51,1	50,5
Familia laguntza	2.501	18,8	25,1	19,3	44,4	50,6	57,0
Kooperatibista	24.952	1,8	6,7	17,8	24,5	49,8	29,6
Adm. Publ. soldatapeko finkoa	100.530	2,9	4,8	15,4	20,2	27,3	30,8
Adm. Publ. aldi baterako soldatapekoa	38.144	15,0	10,7		10,7	9,1	16,8
Enpresa pribatuko soldatapeko langile finkoa	477.034	5,7	13,7	16,2	29,9	37,1	35,4
Enp. pribatuko aldi baterako soldatap.	88.675	38,5	6,9	0,9	7,7	13,3	9,7
Enpresa pribatuko obra-kontratua	47.386	32,5	11,0	4,4	15,4	17,3	20,7
Enpresa pribatuan kontraturik gabe	15.458	29,0	30,5	19,2	49,6	46,4	39,1
Beste egoera bat enpresa pribatuan	5.940	15,9	21,7	10,4	32,1	23,1	30,2
Bestelako egoeraren bat	6.809	45,4	20,6	6,9	27,6	34,5	37,9
<b>GUZTIRA</b>	<b>952.600</b>	<b>10,9</b>	<b>11,7</b>	<b>15,0</b>	<b>26,7</b>	<b>34,4</b>	<b>31,9</b>

Lehen atara ditugun ondorioak berretsi egiten dira enpresarekiko kontratu bidezko lotura motak aztertzean. Hori horrela izanik, ohiko enplegu egonkorren intzidentzia bereziki handia da norbere kontura aritzen direnen artean (% 35,6) eta soldatapeko mugagabeetan ere, intzidentzia batez bestekoa baino handiagoa baita (% 28,2); kontraturik ez dutenen artean berriz, aipatzekoa da etxeko zerbitzuan duen eragin handia (% 49,6). 1999-2003 aldian, talde horietan guztietan ohiko enplegu egonkorren intzidentzia handitu egin bazen ere, azken urteotako joera eragin hori txikitzea da (hala ere, kontraturik gabekoen artean enplegu mota horrek gora egiten jarraitzen du).

Ohiko teknologiako enplegu egonkorren eragina % 13,9ra murrizten da obra-kontratuetan eta % 9ra aldi baterako kontratuetan. Obra-kontratuetan enplegu mota horren eraginak epe luzerako beheranzko joera adierazten badu ere (1999. urtetik 2007. urtera bitarte % 19,6tik % 13,9ra), aldi baterako enpleguetan 1999-2003 aldian gorakada ikus daiteke (% 11tik % 12,8ra). Hurrengo laurtekoan ordea, eraginak berriro ere behera egingo du egungo % 9ra jaitsiz.

3.38 taula  
Ohiko teknologiako enpleguetan dihardutenen proportzioa, enpresarekiko kontratu bidezko loturaren eta enpleguan emandako esperientzia-urteen arabera.

Biztanleria landuna  
(%-etan, erreferentziako biztanleria landunari dagokionez)

Kontratu bidezko lotura	Datu				>= 3	>= 3	>= 3
	absolutu- ak	3 urtez azpikoak	3-9 urte	>= 10 urte	urte 2007	urte 2003	urte 1999
Mugagabea	577.565	5,2	12,1	16,1	28,2	35,4	34,4
Aldi batekoa	117.344	32,0	8,4	0,7	9,0	12,8	11,0
Obrakoa	53.365	32,0	10,0	3,9	13,9	16,4	19,6
Kontraturik gabekoa	15.458	29,0	30,5	19,2	49,6	45,3	39,1
Bestelako egoeraren bat	16.246	28,7	17,9	6,7	24,6	29,0	31,4
Norbere kontura	172.623	5,6	10,7	24,9	35,6	49,2	43,8
<b>GUZTIRA</b>	<b>952.600</b>	<b>10,9</b>	<b>11,7</b>	<b>15,0</b>	<b>26,7</b>	<b>34,4</b>	<b>31,9</b>

## 2.- LAN EGITEN EZ DUEN BIZTANLERIA AKTIBOAREN LAN ESPERIENTZIA

Aurreko atalean, biztanleria aktiboaren lan-egoera izan dugu aztergai, biztanleria landunaren lan-esperientziari arreta berezia eskainita. Era berean, egun lan egiten ez duen biztanleria aktiboaren eta jarduera potentzialaren egoeran dagoen biztanleriaren (potentzialki aktiboak) azken aldiko lan-esperientzia ere aztertu behar dira. Azterketa honetan, lan egiten ez duen biztanleriaren azken aldiko lan-esperientziak izango ditugu aztergai, azken bost urteotako lanpostuei soilik erreparatuta. Hortaz, BAKlan lan-esperientziaren kontzeptu mugatua erabiliko dugu.

Gaur egun, azken bost urteotan lan-esperientziaren bat izan duten eta lan egiten ez duten aktiboak 42.833 dira, aurreko urteotako zenbatekoa baino askoz txikiagoa (2003. urtean 63.331, 1999. urtean 103.740 eta 1995. urtean 125.043). Azken bost urteotan lan-esperientzia izan duen biztanleria potentzialki aktiboaren zenbatekoa askoz ere txikiagoa da: 13.228.

Biztanleria potentzialki aktiboaren ezaugarrietako bat, azken aldi lanarekin izan duen erlazio txikia da, azken bost urteotan % 46,8k baino ez baitu lan-esperientziaren bat izan. Zenbateko hori, argi eta garbi, lan egiten ez duen biztanleria aktiboaren % 71,2ren azpitik dago. Oro har, lan-esperientzia izanik lan egiten ez duen biztanleria potentzialki aktiboa 56.061 lagunek osatzen dute, lan egiten ez duen biztanleria guztizkoaren % 63,4k.

Oro har, lan-esperientzia lortzeko aukera handiagoa izaten dute gizonek: % 81,4 gizonek eta % 61,4 emakumeek biztanleria aktiboaren kasuan; % 63,5 gizonek eta % 40,9 emakumeek biztanleria potentzialki aktiboaren kasuan. Dena den, langabeziak emakumeengan eragin handiagoa duenez, lan-esperientzia izanik lan egiten ez duen multzoaren % 48,8 emakumeak dira.

Aktiboen artean eragina txikiagoa da (% 44), baina lan-esperientziaren bat duten potentzialki aktiboetan, emakumearen garrantzia askoz handiagoa da. Kasu horretan, emakumeak guztizkoaren % 64,6 dira.

Lan-esperientzia izanik lan egiten ez duen biztanlerian emakumeak izan duen garrantzia gutxitu egin da azken urteetan. Biztanleria aktiboan 2003. urteko % 53,3tik 2007. urteko % 44ra jaitsi da; biztanleria aktiboki potentzian % 80,1etik % 64,6ra; eta biztanleria potentzialki aktiboan % 58,8tik % 48,8ra. Bilakaera horrek 2003-2007 laurtekoan izandako beherakadarekin lotura handia dauka: lan-esperientzia izanik lan egiten ez duten emakume aktiboen edo emakume aktibo potentzialen bolumena 46.922tik 27.376ra jaitsi da, gizonetan emandako beherakada baino askoz handiagoa (32.848tik 28.685era).

### 3.39 a taula

Azken bost urteotan lan-esperientzia izanik, lan egiten ez duen biztanleria, sexuaren arabera  
Biztanleria potentzialki aktiboa  
(Datu absolutuak eta % bertikalak)

Sexua	Aktiboak	% 2007	% 2003	% 1999	% 1995	Pot. aktiboak	% 2007	GUZTIRA	% 2007
Gizonak	23.996	56,0	46,7	42,7	48,8	4.689	35,4	28.685	51,2
Emakumeak	18.837	44,0	53,3	57,3	51,2	8.539	64,6	27.376	48,8
GUZTIRA	42.833	100	100	100	100	13.228	100	56.061	100

### 3.39 b taula

Azken bost urteotan lan-esperientzia izanik, lan egiten ez duen biztanleriaren proportzioa,  
sexuaren arabera  
Biztanleria potentzialki aktiboa  
(%-etan)

Sexua	Aktiboak	Pot. aktiboak	GUZTIRA
Gizonak	81,4	63,5	77,9
Emakumeak	61,4	40,9	53,1
GUZTIRA	71,2	46,8	63,4

Lan-esperientzia izanik lan egiten ez duten aktiboen ezaugarri bat gaztetasuna da: % 48,1 35 urtetik beherakoa da. 1995. urteko % 71,3 proportzioa jaitsi eta jaitsi ari da (1999. urtean % 66,3 eta 2003an % 63,6), hala ere, 2003-2007 aldiko beherakada nabarmena izan da. Elementu deigarriena berriz, honako hau da: lan-esperientzia izanik lan egiten ez duten 25 urtetik beherakoetan izandako beherakada handia (1995. eta 1999. urteetan % 30 eskas izatetik, gaur egun % 12,5era izatera igaro baita). 30-34 artekoen artean ere beherakada nabaria da, batez ere 2003-2007 aldian (% 20,4tik % 13,4ra).



35 urtetik beherako potentzialki aktiboen proportzioa ere nabarmena da (guztizkoaren % 42,4). Baina kasu horretan, 35 urtetik gorakoek garrantzi handiagoa dute kolektiboaren banaketan.

### 3.40 a taula

Azken bost urteotan lan-esperientzia izanik, lan egiten ez duen biztanleria, adinaren arabera  
Biztanleria potentzialki aktiboa  
(Datu absolutuak eta % bertikalak)

Adina	Aktiboak	% 2007	% 2003	% 1999	% 1995	Potentzialki aktiboak	% 2007	GUZTIRA	% 2007
25 urtez									
azpikoak	5.340	12,5	17,0	29,5	28,2	2.660	20,1	8.000	14,3
25-29 urte	9.535	22,3	26,2	22,3	23,2	1.694	12,8	11.229	20,0
30-34 urte	5.733	13,4	20,4	14,6	19,9	1.250	9,4	6.983	12,5
35-39 urte	6.697	15,6	11,3	11,9	8,9	225	1,7	6.922	12,3
40-44 urte	7.170	16,7	10,1	8,2	8,1	2.934	22,2	10.104	18,0
45-49 urte	2.068	4,8	6,2	5,1	4,6	1.889	14,3	3.957	7,1
50-54 urte	5.158	12,0	4,4	4,9	4,2	247	1,9	5.405	9,6
>= 55 urte	1.131	2,6	4,4	3,6	3,0	2.330	17,6	3.461	6,2
<b>GUZTIRA</b>	<b>42.833</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>13.228</b>	<b>100</b>	<b>56.061</b>	<b>100</b>

Termino erlatiboetan, lan egiten ez duten 30-44 eta 50-54 urteko aktiboetan, lan-esperientziaren maila % 75etik gorakoa da, eta 30 urtetik beherakoetan % 65-70ekoa. 55 urtetik gorakoetan proportzioa % 50,4ra jaisten da, lan egiten ez duen 45-49 urteko biztanleriaren artean gutxieneko % 42,9 izan delarik.

Jarduera potentzialaren egoeran dagoen biztanleriaren kasuan, zenbatekoak % 50 eta % 60 artean daude, 25 urtetik beherakoetan % 44ra jaisten direlarik. Zenbatekoak oso txikiak dira ordea, adin-talde batzuetan. 35-39 edo 50-54 urteko aktibo potentzialetan % 15 baino txikiagoak dira.

Ikuspuntu zabalago batetik aztertuta, potentzialki aktiboa den biztanleriaren kasuan lan-esperientziaren adierazlerik altuenak (% 75etik zertxobait gorago) 30-39 urteko lan egiten ez dutenei dagozkiela ikus daiteke. 25-29 eta 40-44 urtekoetan maila % 65-70 da. Beraz, % 65 inguruko edo hortik gorako lan-esperientzia maila duten 25-44 urteko ardatz nagusi bat dagoela ikus daiteke.

25 urtetik beherakoetan zenbatekoa % 57ra jaisten da, eta 45 urtez gorakoetan % 50-55era. 45-49 urtekoetan berriz, gutxieneko % 49,3ra jaisten da. Gaur egun lanik gabe dagoen biztanleria potentzialki aktiboaren artean, adin-talde horretan du eraginik handiena lan-esperientziarik ez

izateak. Azken bost urteotan erreferentziako biztanleria potentzialki aktiboa kontuan hartuta, lan egiten ez dutenen artean lan-esperientziaren bat lortzen ez duen kasu bakarra da.

### 3.40 b taula

Azken bost urteotan lan-esperientzia izanik, lan egiten ez duen biztanleriaren proportzioa, adinaren arabera

Biztanleria potentzialki aktiboa  
(%-etan)

Adina	Aktiboak	Pot. aktiboak	GUZTIRA
25 urtez azpikoak	66,8	44,0	57,0
25-29 urte	66,9	54,8	64,8
30-34 urte	82,5	54,2	75,4
35-39 urte	89,4	14,3	76,4
40-44 urte	75,5	58,4	69,6
45-49 urte	42,9	59,1	49,3
50-54 urte	75,0	8,7	55,7
>= 55 urte	50,4	55,7	53,9
<b>GUZTIRA</b>	<b>71,2</b>	<b>46,8</b>	<b>63,4</b>

Sexuaren eta adinaren araberako datuak uztartua, lan-esperientzia duten eta lan egiten ez duten aktiboetan nagusi diren taldeak 35 urtetik beherako emakumeak eta gizonak dira (% 20,9 eta % 27,2, hurrenez hurren). Hala ere, bi talde horien garrantzi erlatiboa asko jaitsi da 1995. urtetik (% 37,7 eta % 33,5, hurrenez hurren); gizonezkoen kasuan, beherakada nagusia 1995-1999 aldian izan zen, eta emakumeen kasuan, aldiz, azken lau urteotan.

35 urtetik gorako gizonezkoek aztertutako kolektiboaren % 28,8 osatzen dute, eta gainerako % 23,1 adin horretatik aurrerako emakumeei dagokie. Bi kasu horietan, 1995. urteko proportzioaren alboan igoera izan da, baina nabarmenagoa emakumeen artean (1995. urtean % 13,5, eta gizonetan % 15,2). Emakumeen gorakada 1995-1999 eta 2003-2007 aldietan ikus badaiteke ere, gizonena azken laurtekoan izan da.

Sexuaren eta adinaren araberako ezaugarri horiek oso bestelakoak dira potentzialki aktiboetan. Kasu horretan, 35 urtetik beherako emakumeen garrantzi erlatiboa soilik da antzekoa (% 23,4), baina emakume talde nagusia 35 urtetik gorakoena da (% 41,1). Gizonen garrantzia askoz txikiagoa da, 35 urtetik beherakoena % 19 eta 35 urtetik gorakoena % 16,5. Bi kasuetan, hala ere, 2003. urteko egoerarekin alderatuz, igoera handia eman da.

### 3.41 a taula

Azken bost urteotan lan-esperientzia izanik, egun lan egiten ez duen biztanleria, sexuaren eta adinaren arabera

Biztanleria potentzialki aktiboa  
(Datu absolutuak eta % bertikalak)

Sexua eta adina	Aktiboak	% 2007	% 2003	% 1999	% 1995	Pot. aktiboak	% 2007	GUZTIRA	% 2007
Gizonak < 35	11.658	27,2	29,9	28,2	33,5	2.508	19,0	14.166	25,3
Gizonak 35-44	8.032	18,8	7,9	7,4	8,5	393	3,0	8.425	15,0
Gizonak >= 45	4.306	10,1	8,9	7,1	6,7	1.787	13,5	6.094	10,9
Gizonak	23.996	56,0	46,7	42,7	48,8	4.689	35,4	28.685	51,2
Emak. < 35	8.950	20,9	33,7	38,1	37,7	3.096	23,4	12.045	21,5
Emak. 35-44	5.836	13,6	13,4	12,7	8,4	2.765	20,9	8.601	15,3
Emak. >= 45	4.051	9,5	6,1	6,5	5,1	2.678	20,2	6.730	12,0
Emakumeak	18.837	44,0	53,3	57,3	51,2	8.539	64,6	27.376	48,8
GUZTIRA	42.833	100	100	100	100	13.228	100	56.061	100

Lan egiten ez duten aktiboen artean, lan-esperientziaren intzidentzia % 70etik gorakoa da gizonetan (adina edozein delarik ere), eta % 65era jaisten da 45 urtetik beherako emakumeen artean. Mailarik txikiena (% 50,4) 45 urtetik gorako emakumeei dagokie. Azken bost urteotan lan-esperientzia lortzeko lan egiten ez duten aktiboen proportzioa txikiagoa da 45 urtetik gorakoetan, bai gizonetan, bai emakumeetan.

Aktibo potentzialen artean, 35 urtetik gorako gizonetan lan-esperientziaren maila % 70 edo goragora iristen da, eta 35 urtetik beherakoetan berriz, % 54,9ra. 45 urtetik beherako emakumeetan proportzioa % 45era jaisten da, eta 45 urte edo gorakoetan berriz, gutxieneko berri batera iristen da, % 34,4ra. Aktibo potentzialetan lan-esperientziaren mailak izan duen murrizketarako joera oso nabaria izan da 45 urtetik gorako emakumeetan.

Lan-esperientziaren intzidentziari dagokionez, sexuaren eta adinaren arabeko talde guztietan, alde handia dago aktiboen eta potentzialki aktiboen artean. Horrela beraz, ia kasu guztietan 15 puntu gainditzen dira, 35 urtetik gorako gizonetan izan ezik, talde horretan antzekoak baitira. Horregatik, komenigarria da potentzialki aktiboa den biztanleriaren egoera osotasunean aztertzea.

Potentzialki aktiboa den biztanleriaren barne, hurbilpen horrek agerian uzten du azken urteotan lan-esperientziaren bat lortzeko gizonen eta emakumeen artean dauden alde handiak. Lan egiten ez duten potentzialki aktiboen artean zenbatekoek % 70 gainditzen dute gizonetan, 35-

44 urtekoetan % 100era heltzen delarik; proportzioa % 57-58,5 da 45 urtetik beherako emakumeetan, eta 45 urtetik gorakoetan berriz, gutxieneko % 42,6ra heltzen da.

### 3.41 b taula

Azken bost urteotan lan-esperientzia izanik lan egiten ez duen biztanleriaren proportzioa, sexuaren eta adinaren arabera

#### Biztanleria potentzialki aktiboa (%-etan)

Sexua eta adina	Aktiboak	Pot. aktiboak	GUZTIRA
Gizonak < 35	75,1	54,9	70,5
Gizonak 35-44	100	100	100
Gizonak >= 45	72,9	73,7	73,1
Gizonak	81,4	63,5	77,9
Emak. < 35	65,4	45,0	58,6
Emak. 35-44	65,2	44,6	56,8
Emak. >= 45	50,4	34,4	42,6
Emakumeak	61,4	40,9	53,1
GUZTIRA	71,2	46,8	63,4

Lan egiten ez duen biztanlerian lan-esperientziak dituen ezaugarriak eta intzidentzia sexuaren eta adinaren aldagai demografikoen arabera aztertzea bezain esanguratsua izan daiteke azken bost urteotako lan-esperientzia izan duen biztanleria aktiboaren langabezia edo lan egiten ez dutenen tasak aztertzea, lanaren aldagai garrantzitsuenen arabera. Egiatzko langabezia- eta desokupazio-maila adierazten ditu tasa horrek, lan-merkatuan eta produkzio-sisteman inoiz sartu den biztanleriari aplikatuta. Zentzu zabalean, azken bost urteotan lan-esperientzia izan duten aktiboaren langabezia- edo desokupazio-tasa moduan azter daiteke.

2007. urtean, azken bost urteotan egiazko lan-esperientziarik izan duen biztanleria aktiboaren % 4,3 lanik egin gabe dago. Datu horiek 1999. eta 1995. urteetako % 11,2ko eta % 15eko datuekin alderatuz, beherakada handia adierazten dute (hala ere, 2003. urteko % 6,6 baino gutxiago). 90eko hamarkadatik aurrera izandako langabezia mota horren gainbehera historikoa azken lau urteotan sendotzen da, baina batik bat, 1999-2003 aldiko beherakadan. Azken bost urteotan lan-esperientzia izan duen biztanleria potentzialki aktiboa kontuan hartuko bagenu, langabezia-tasa edo lan egiten ez dutenen tasa % 5,6n kokatuko litzateke 2007. urtean (2003. urteko % 8,1eko adierazlea baino beherago).

Langabezia- edo desokupazio-tasek adierazten dutenez, lanbidearen arabera zenbait kolektiboren egoera askoz hobea da besteena baino. Lehenengo kasuan honako hauek daude: teknikariak eta zuzendariak, eta zerbitzu-sektorekoak ez diren sektoretako langile kualifikatuak, %

5etik beherako langabezia-tasarekin (% 3 eta % 3,6, hurrenez hurren). Bi kasuetan, tasa aurreko urteetako baina txikiagoa da eta luzera begira, beherakadaren intentsitatea antzekoa da (aztergai ditugun talde kualifikatuetan % 7,6 eta zuzendarien eta teknikarien artean % 7,1).

Gainerako lanbideetan, batez besteko orokorra baina handiagoa da langabezia- edo desokupazio-tasa. Zerbitzu-sektoreko langile kualifikatuen langabezia-maila % 5,9 da eta administrazioko langileena % 7,1. Hala ere, 1999. urtetik 2007. urtera bitarte jaitsiera handia izan dute langabezia-tasa horiek: % 15,5etik % 7,1era administrazioko langileetan, eta % 18,3tik % 5,9ra zerbitzu-sektoreko langile kualifikatuetan. Langabezia-mailan murrizketa handiena kualifikaziorik txikiena duten langileei dagokie % 19,4tik % 5,4ra da, 2007. urtean zerbitzu-sektoreko langile kualifikatuei eta administrazioko enplegatuei dagokien maila baina txikiagoa.

Lanbide motak barrutik aztertuta, ikus dezakegu zuzendarien eta teknikarien zenbatekoak % 5 azpitik kokatzen direla eta gizarte-zientzietako goi-mailako tituludunek eta beste zenbait laguntza-teknikarik zenbateko hori gainditu egiten dutela (% 19,2 eta % 8,3 hurrenez hurren). Zerbitzu-sektoretakoak ez diren langile kualifikatuen artean berriz, doitasun-langileetan eta artisauetan % 14,1 eta muntatzaileetan % 11,2 (% 5etik oso urrun, beraz).

Zerbitzu-sektoreko langile kualifikatuen eta administrarien lanbide-kolektiboetan, aldiz, alde handiak daude barne-mailan. Zenbait kasutan, zenbatekoak % 5 ingurukoak edo hortik beherakoak dira, hala nola, jendaurreko zereginik ez duten gainerako administrari laguntzaileetan, kutxazainetan, segurtasun-zerbitzuetako langileetan eta merkataritzako dendarietan. Zenbatekoak % 10etik gora daude berriz, posta-administrariak eta parekoetan (% 13,4) eta ostalaritzako eta jatetxe-arloko langileetan (% 10,1). Bitarteko egoeran aurki ditzakegu, % 7,5 eta % 8 inguru, finantza-erakundeekin eta produkzioarekin lotutako administrazio enplegatuak, jendeari arreta ematen dioten gainerako administrazio-laguntzaileak eta harreragileak.

Kualifikatu gabeko langileen kasuan, gaur egun langabezia-tasak % 5 ingurukoak edo gutxiagokoak dira, baina merkataritzako eta garraioko peoien artean, kualifikatu gabeko langileen langabezia-tasak % 10etik gorakoak dira.

## 3.42 a taula

Azken bost urteotan lan-esperientzia izan duten aktiboen langabezia-tasak, lanbidearen arabera (%-etan, erreferentziako biztanleria aktiboari dagokionez)

Lanbidea	Lan egiten ez dutenak	Tasa
Indar Armatuak	0	0,0
Sektore publikoko zuzendariak	0	0,0
Enpresa pribatuetako zuzendari/gerenteak	0	0,0
Ingeniariak	0	0,0
Osasun ar. eta N. Zient. goi-mail. titulua	0	0,0
Irakaskuntzako goi-mailako titulua	1.923	6,0
Zuzenbideko goi-mailako titulua	0	0,0
Gizarte zientzietan goi-mailako titulua	2.624	19,2
Idazleak, artistak	0	0,0
Ingeniari teknikoak	417	2,9
Osasun ar. eta N. zient. erdi-mail. titulua	72	0,4
Erdi mailako titulua Irakaskuntza	981	3,5
Erdi-mailako beste titulu batzuk	0	0,0
Ingeniari teknikoak	1.126	3,9
Osasun ar. eta N. zient. teknikariak	53	0,9
Irakaskuntzako teknikariak	0	0,0
Finantza eta merkataritza laguntzako teknikariak	610	2,1
Administrazio-laguntzako teknikariak	1.287	4,4
Laguntzako beste teknikari batzuk	764	8,3
<b>Zuzendariak eta Teknikariak</b>	<b>9.856</b>	<b>3,0</b>
Administrazioa eta finantza, eta produkzio enplegatua	2.476	8,2
Posta-administrariak eta parekoak	1.121	13,4
Bulegoko makinetako operadoreak	0	0,0
Jendaur. zereginik gabeko best. adm. lag.	462	2,6
Jendaur. zereginak dituzten best. adm. lag.	1.911	7,6
Harreragileak	612	7,9
Kutzazainak	528	4,6
<b>Administrariak</b>	<b>7.111</b>	<b>7,1</b>
Ostalaritzako eta jatetxe-arloko langileak	3.663	10,1
Zerbitzu pertsonaletako langileak	1.768	4,7
Segurtasun-zerbitzuetako langileak	0	0,0
Merkataritza-saltzaileak	3.364	6,0
<b>Zerbitzuetako kualifikatuak</b>	<b>8.796</b>	<b>5,9</b>

Azken bost urteotan lan-esperientzia izan duten aktiboen langabezia-tasak  
(%-etan, erreferentziako biztanleria aktiboari dagokionez)

Lanbidea	Lan egiten ez dutenak	Tasa
Nekazaritza-jardueretako langileak	661	5,9
Abeltzaintza-jardueretako langileak	0	0,0
Nekazaritzako beste jard. lang.	0	0,0
Arrantzaleak	0	0,0
Eraikuntzako arduradunak	0	0,0
Eraikuntzako egit. obretako langileak	766	2,5
Eraikuntza-akaberako langileak	1.530	5,3
Metal-arloko arduradunak	400	5,7
Erauzketa-ind. langileak	0	0,0
Soldatzaileak, txapistak	685	2,3
Mekanikari doitzailak	496	1,6
Doitasuneko lang., artisauek	1.042	14,1
Janarien arloko langileak	0	0,0
Manufaktura-industriako langileak	314	5,1
Indus. instal. finkoetako arduradunak	358	6,9
Indus. instal. finkoetako operadoreak	132	0,7
Makina finkoetako operadoreen arduradunak	0	0,0
Makina finkoetako operadoreak	11	0,0
Muntatzaileak	2.185	11,2
Makina mugikorretako operadoreak	845	6,5
Gidariak	1.527	5,1
<b>Beste kualifikatuak</b>	<b>10.951</b>	<b>3,6</b>
Langile kualifikatu gabeak/Merkataritza	224	45,0
Etxeko enplegatuak/garbitzaileak	2.130	3,9
Atezainak	225	2,2
Beste kualifikatu gabeak.Zerbitzuak	0	0,0
Nekazaritzako peoiak	0	0,0
Eraikuntzako peoiak	622	5,6
Manufakturako ind. peoiak	1.242	7,5
Garraioko peoiak	1.676	13,0
<b>Kualifikatu gabeak</b>	<b>6.119</b>	<b>5,4</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>42.833</b>	<b>4,3</b>

Datu horien balorazioa egiterakoan, aintzat hartu behar da potentzialki aktiboa den biztanleria. Datuek adierazten dutenez, maila horretan, garrantzi diferentzial handiagoa dute kualifikatu gabeko langileek eta zerbitzuetako langile kualifikatuek, betiere multzo horren barruan. Lanbide horiek biztanleria aktibo guztiaren % 26,3 osatzen badute, aktibo potentzialekin proportzioa % 43,7ra igotzen da. Baina aipatu behar da, baita ere, talde horretan zuzendariak eta teknikariak duten garrantzia: guztizkoaren % 28,6 gainerako langile kualifikatuei dagokion % 21,1en gainera eta enplegatu administrarien % 6,6ren gainera dago.

3.42 b taula

Azken bost urteotan lan-esperientzia izan duen biztanleria potentzialki aktiboa, lanbidearen arabera (talde profesional handiak)  
(Datu absolutuak eta % bertikalak)

Lanbidea	Datu		% ber.
	absolutuak	% ber.	(aktiboak)
Zuzendaritzakoak eta teknikariak	3.787	28,6	33,1
Administrariak	871	6,6	10,1
Zerbitzuetako kualifikatuak	3.127	23,6	14,9
Beste kualifikatuak	2.788	21,1	30,5
Kualifikatu gabeak	2.655	20,1	11,4
<b>Guztia</b>	<b>13.228</b>	<b>100</b>	<b>100</b>

Lanbide-kategoriaren araberrako datuei erreparatuta, desokupazio-mailarik handiena kualifikatu gabeko kolektiboek dute, zalantzarik gabe: lan-esperientzia duten aktiboen langabezia-tasa % 5,8koa dute, handietan handiena. Gainerako kasuetan, zenbatekoa % 5 inguru edo hortik beherakoa izaten da. Langile kualifikatuen zenbatekoak (% 4,1) eta arduradunen arteko zenbatekoak (% 3,7) % 4 ingurukoak dira. Gutxienerako mailak berriz, teknikarien (% 3) eta zuzendaritzakoen (% 2) artean daude.

Datu bat nabarmendu behar dugu: kasu guztietan, 1995. urteko egoerak hobera egin du, gehien bat, langile kualifikatuen kasuan (% 23tik % 5,8ra) eta maila txikiagoan, langile kualifikatuen eta teknikarien kasuan (% 11,8tik % 4,1era, eta % 9,8tik % 3ra, hurrenez hurren). Murrizketa ez da hain deigarria izan zuzendaritzako langileen artean, 1995. urtean langabezia-tasa % 5,1eko besterik ez zelako. Arduradunen kasuan berriz, 1999-2003 aldian ikusitako aldeko egoera gelditu egiten da eta garai horretako % 2,1etik 2007. urteko 3,7ra igo da desokupazio-tasa.

Alabaina, biztanleria potentzialki aktiboarekin, langabezia potentziala egiaz handiagoa da kualifikatu gabeko biztanleetan (% 7,7). Langile kualifikatuen egoera eta arduradunena ez da hobetu, % 5-5,2ra igo baita langabezia-maila. Gainerako kategoria profesionaletan aldaketak ematen badira ere, zenbatekoak % 5en azpitik daude (teknikarien artean % 3,5 eta zuzendaritzako langileen artean % 2,8).



### 3.43 taula

Azken bost urteotan lan-esperientzia izan duten aktiboen langabezia-tasak, lanbide-kategoriaren arabera

(%-etan, erreferentziako biztanleria aktiboari dagokionez)

Lanbide-kategoria	Datu absolutuak	Tasa 2007	Tasa 2003	Tasa 1999	Tasa 1995	Tasa pot. aktiboekin 2007
Kualif. gabea	19.537	5,8	10,8	19,5	23,0	7,7
Kualifikatua	13.053	4,1	4,5	7,1	11,8	5,0
Arduradunak, erdi-mailako kargudunak	3.259	3,7	2,1	2,1	7,9	5,2
Langile teknikariak	6.097	3,0	5,9	7,8	9,8	3,5
Zuzendaritzako langileak	887	2,0	2,9	3,9	5,1	2,8
<b>GUZTIRA</b>	<b>42.833</b>	<b>4,3</b>	<b>6,6</b>	<b>11,2</b>	<b>15,0</b>	<b>5,6</b>

Teknologiari dagokionez, 2007ko egoeraren ezaugarrietako bat honako hau da: lanean erabilitako teknologia motaren arabera langabeziaren edo desokupazioaren intzidentzian aldeak asko gutxitu direla. Teknologia modernoaz baliatzen diren langile-kolektiboen langabezia- edo desokupazio-tasa % 1,7-4,9 baldin bada, ohiko teknologiakoetan % 2,6 eta % 5,7 artekoa da. Egia esan, administrazio edo produkzio jardueretan, teknologia modernoetan zein ohiko teknologietan, desokupazio-tasa % 3,5 ingurukoa edo gutxiagokoa da. Teknologia modernoko beste jarduera mota batzuetan zenbatekoa % 4,9ra heltzen da eta ohiko teknologiaz baliatuz egiten baldin bada jarduera mota hori, proportzioa % 5,7raino heltzen da.

Errealitate hori ez dator bat 1995. eta 1999. urteetako errealitatearekin, izan ere, lehen, teknologia modernoko enpleguekin alderatuta, ohiko teknologiako enpleguetan lan-esperientzia zuten lagunetan langabezia-tasa bi aldiz handiagoa edo gehiago zen. 1999. urtean, administrazio zereginekin lotura handiena zuten eremuetan ikus zitekeen alderik handiena (% 7,3 teknologia modernoetan, eta % 21,3 ohiko teknologian). Baina alde hori guztiz desagertu da 2007. urtean eta ohiko teknologiako enpleguetan langabezia-tasa txikiagoak ere lortu dira (% 2,6, informatizatutako enplegu administratiboetan % 3,5 izanik). Hala ere, 2003. urtean aurreikus zitekeen egoera hori (% 5,1, % 6,3ren aurrean).

Dena den, langabezia-tasaren azken aldiko bilakaeraren arabera, administrazioko jarduerekin loturiko langabezia-errealitateak izugarri gutxitzen ari dira. Gainbehera handia da informatizazio-prozesuarekin loturiko enpleguetan (% 13,7tik % 3,5era 1995-2007 aldian), baina are handiagoa oraindik, ohiko teknologiarekin loturikoetan (% 26,9tik % 2,6ra); baina murrizte izugarri horren atzean honako hau ezkututzen da: enplegu mota hori pixkanaka desagertzen ari da. Gainerako zereginetan, joera berdina ez ezik, langabezia-tasak gutxitzeko erritmo berdina ere ikus daiteke, hala teknologia modernoetan, nola ohikoetan.

Azken urteotan, ordea, bilakaera positibo hori ere deigarria da produkzio-jardueretan. Automatizatutako produkzio-jardueren kasuan, langabezia 1995. urteko % 5,3tik 1999-2003 aldiko % 4-4,5era jaisten da, eta 2007. urtean berriz, % 1,7ra. Ohiko produkzio-jardueran, langabezia-maila % 10,1 zen 1995. urtean, teknologia mota horretako mailarik txikiena, alde handiaz; baina 1999an % 9,8ra, 2003an % 6,4ra eta 2007an % 3,7ra jaitsi da.

Hala eta guztiz ere, aktibo potentzialak kontuan izanda, lan egiten ez dutenen tasak gora egiten du, batik bat, eremu teknologiko ohikoenetan: aktibo potentzialen % 58k lehendik esperientzia du, hain justu, ohiko teknologiekin loturiko lanetan.

Biztanleria potentzialki aktiboa aintzat hartuta, produkzio-jarduerekin loturarik ez duten eremuetan langabezia-tasak gora egiten du, hala nola oinarri modernoko edo ohiko oinarriko administrazio-jardueretan (% 4,5). Teknologia modernoko gainerako jardueretan % 5,8ra igotzen da eta % 8,2ra jarduera horiek ohiko teknologietan oinarritzen badira. Ohiko ekipoaz baliatuz egindako produkzio-jardueretan tasak % 4,2 ingurukoak dira, eta produkzio-jarduera horiek automatizatuta daudenean gutxieneko % 1,9ra heltzen dira.

#### 3.44 taula

Azken bost urteotan lan-esperientzia izan duten aktiboen langabezia-tasak, erabilitako teknologiaren arabera  
(%-etan, erreferentziako biztanleria aktiboari dagokionez)

Erabilitako teknologia	Datu absolutuak	Tasa 2007	Tasa 2003	Tasa 1999	Tasa 1995	Tasa pot. aktiboekin 2007
Ekoiz. automatizatuko tekn. modernoa	1.980	1,7	4,1	4,4	5,3	1,9
Tekn. administratibo informatizatua	6.136	3,5	6,3	7,3	13,7	4,7
Beste tekn. modernoa	16.120	4,9	5,3	9,4	11,7	5,8
Ohiko produkzio-ekipoa	4.087	3,7	6,4	9,8	10,1	4,2
Ohiko tekn. administratiboa	457	2,6	5,1	21,3	26,9	4,5
Beste ohiko teknologia	14.052	5,7	8,5	15,7	20,4	8,2
<b>GUZTIRA</b>	<b>42.833</b>	<b>4,3</b>	<b>6,6</b>	<b>11,2</b>	<b>15,0</b>	<b>5,6</b>

Sektore-eremuan, 2007. urtean, lan-esperientzia duten aktiboen langabezia-mailarik handiena zerbitzu-sektorean dago (% 4,9). Tasa % 3,5era jaisten da industrian eta eraikuntzan, eta lehen sektorean % 0,5en baino ez dago.

2007. urtera arte ikusitako bilakaera eraikuntzaren aldekoa izan da bereziki, tasa 1995. urteko % 20,6tik, 1999. urteko % 12,2ra, 2003. urteko % 7,3ra eta 2007. urteko % 3,5era jaitsi delarik. Zerbitzu-sektorean berriz, 1995. urteko % 18,3ko tasatik 1999. urteko % 13ra, 2003. urteko % 6,9ra eta 2007. urteko % 4,9ra jaitsi da. Horrek agerian utzi du azken laurtekoan murrizketa moteldu egin dela baina epe luzera beherakada handia izaten ari dela. 1999. urtetik 2003. urtera bitarte jaitsiera-erritmoa nabarmen mantsotu zen arren, % 7tik % 5,5era (1995. urtean % 13,7 izan zen), 2003-2007 aldian berriro ere % 3,5era jaitsi da. Azkenik, esperientzia duten lehen sektoreko biztanleen artean langabezia- eta desokupazio-maila egonkorra bada ere (betiere beheranzko joera orokorrari eutsita: % 10,1 1995. urtean, % 8,5 1999an eta % 7,4 2003an), 2007. urtean ia erabat desagertu egiten da.

Adarren araberrako azterketa egiten badugu, sektorekako azterketan baino alde handiagoak ikusiko ditugu. Zentzu horretan, eta biztanleria potentzialki aktibo osoa kontuan hartuta, zenbait adarrek % 5eko maila inguruko edo hortik beherako langabezia-tasak dituzte. Egoera hori, orokorrean, honako hauetan ematen da: lehen sektoreko adarretan, zenbait industria-adarretan (elikagaiak, kautxua, metalurgia, makinagintza, garraio-materialaren produkzioa eta energia-produkzioa), eraikuntzan, eta zerbitzu-sektorean berriz, enpresetarako zerbitzuetako adarrean, administrazioan, hezkuntzan, osasungintzan eta gizarte-zerbitzuetan. Beste adar batzuetan, hala nola, gai ez-metalikoen fabrikazioan, material elektrikoan, askotariko manufaktura-industrietan, merkataritzan, finantza-erakundeetan eta etxeko zerbitzuan, langabezia-tasa % 5,5 eta % 7 artean dago. Erauzketa-industrian, paper-industrian, petrokimikan, eta zerbitzu-sektoreko ostalaritzan, garraio eta komunikazioan eta gainerako merkataritza zerbitzuetan berriz, langabezia-tasa % 9-10 ingurukoa edo hortik gorakoa da.

Azpimarratzeko moduko datu bat: azkeneko bost urteetan lan-esperientzia izan duten aktibo potentzial gehienek (% 79,5ek) zerbitzu-sektorean izan zuen azkeneko lana. Hori horrela izanik, biztanleria potentzialki aktiboaren langabezia-tasa (aktibo potentzialak barnean hartuta) % 4,9tik % 6,5era igotzen da, langabeziak eragin handiena izan duen sektorea izanik. Eraikuntzan ere nabarmen egin du gora (% 5,3) eta industriako (% 3,9) eta lehen sektoreko langabezia-tasak nabarmen gainditu ditu (% 0,5). Azken bi sektore horiek, oro har, biztanleria aktiboari dagozkion zenbatekoek adierazten duten langabezia- edo desokupazio-mailari eutsi egien diote.

3.45 taula

Azken bost urteotan lan-esperientzia izan duten aktiboen langabezia-tasak, jardueraren arabera (%-etan, erreferentziako biztanleria aktiboari dagokionez)

Jarduera	Datu absolutuak	Tasa	Tasa pot. aktiboekin
Nekazaritza	0	0,0	0,0
Arrantza	87	2,2	2,2
Nekazaritza eta arrantza	87	0,5	0,5
Erauzketa-industria	282	27,4	27,4
Elikagai-industria	225	1,9	5,4
Paper-industria	1.388	10,6	10,6
Industria petrokimikoa	1.520	10,3	10,3
Kautxu-industria	247	1,8	1,8
Bestelako gai ez-metalikoen industria	620	7,3	7,3
Metalurgia	1.912	2,6	3,0
Makinagintza	841	1,6	1,6
Material elektrikoa	936	5,0	6,6
Garraio-materiala	81	0,2	0,2
Askotariko manufaktura-industriak	1.336	5,7	5,7
Energia-produkzioa	0	0,0	0,0
Industria	9.389	3,5	3,9
Eraikuntza	3.007	3,5	5,3
Merkataritza	6.764	5,0	7,0
Ostalaritza	3.639	8,7	9,6
Garraioak eta komunikazioak	5.195	8,6	9,2
Finantza-erakundeak	865	4,5	6,3
Enpresetarako zerbitzuak	3.212	2,9	4,4
Administrazio Publikoa	3.109	5,5	5,5
Hezkuntza	2.545	3,9	4,6
Osasuna/Gizarte-zerbitzuak	1.974	2,9	4,6
Bestelako merkataritza-zerbitzuak	2.417	6,2	10,6
Etxeko zerbitzuak	628	2,5	6,7
Zerbitzuak	30.349	4,9	6,5
GUZTIRA	42.833	4,3	5,6

Lan-esperientzia duten pertsona aktiboetako desokupazio-tasa jaitsi egiten da establezimenduaren tamaina handitzen den heinean; 50 langile bitarteko zentroetan % 3,5 eta % 4 inguruko tasa dute, 100 langile edo gehiagokoetan % 2 ingurukoak edo hortik beherakoak. Hala ere, bi puntu berezi nabarmendu behar dira, 3-9 langileko establezimenduak eta 50-99 langilekoak, horietan % 7,5 ingurukoa baita desokupazio-tasa.

Biztanleria potentzialki aktiboa osotasunen aintzat hartuta, aldeek nabarmenago adierazten dute beheranzko joera. Potentzialki aktiboen kolektiboen errealitatea ikusita, argi dago lotura handia dagoela enpleguan izandako esperientziaren eta establezimendu txikiaren artean. Horrela, potentzialki aktiboen % 48,5en azkeneko enplegu nagusia 10 langile baino gutxiagoko establezimenduetan izan zen, eta % 37,8 10-99 langileko zentroetan aritu zen.

Lan-esperientzia duten aktibo potentzialak enpresa txiki edo ertainetan biltzen direnez, desokupazio-tasa igo egiten da mota horretako zentroetan, eta lan egiten ez dutenen tasaren arteko eta establezimenduaren arteko lotura argiago azaltzen da. Biztanleria potentzialki aktiboan, 1-2 langileko zentroetan % 6ko tasak daude; 10-49 langilekoetan % 4,5-5ekoak; eta 100 langile edo gehiagokoetan % 2-2,5ekoak besterik ez. 50-99 langileko zentroetan lan egiten ez dutenen tasa % 8,7 da, eta 3-9 langilekoetan % 9,4, beraz, lehen aipaturiko bi puntu bereziak berriro ere azaldu egin dira.

Bi puntu berezi horiek 2003-2007 aldian ikusitakoarekin loturik daude. 1995. urtetik 2007. urtera bitarteko bilakaerak langabezia-tasen beherakada handia ekarri du establezimendu mota edozein dela ere, baina 2003-2007 aldian desokupazio-mailarik handienak dituzten bi taldeetan, langabezia-tasak egonkortzera jo du.

Dena dela, talde horien arteko konparazio-egoera okerrera aurreragokoa dela esan behar da. Horrela, 3-9 langileko zentroetan biztanleria aktiboaren langabezia-tasa % 22,1era iritsi zen 1995. urtean, beste zentro mota batzuei zegokiena baino 5 puntu gehiago. 50-99 langileko zentroetan berriz, arazoa 1999-2003 aldikoa baino lehenagokoa da, beste establezimendu motetan ematen den langabezia-tasak baino askoz txikiagoak ematen baitira.

### 3.46 taula

Azken bost urteotan lan-esperientzia izan duten aktiboaren langabezia-tasak, establezimenduaren tamainaren arabera  
(%-etan, erreferentziako biztanleria aktiboari dagokionez)

Establezimenduaren tamaina	Datu		Tasa			Tasa pot.
	absolutu- ak	Tasa 2007	Tasa 2003	Tasa 1999	Tasa 1995	aktiboekin 2007
1etik 2ra	6.446	4,0	4,7	12,5	13,5	6,0
3tik 9ra	13.054	7,7	8,8	15,5	22,1	9,4
10etik 19ra	3.693	3,4	9,4	11,1	16,8	4,4
20tik 49ra	6.850	3,9	5,5	10,0	14,4	5,2
50etik 99ra	8.497	7,4	7,2	8,9	14,3	8,7
100etik 499ra	2.240	1,3	5,9	8,3	12,7	2,2
500 eta hortik gora	2.052	2,0	3,3	5,6	8,7	2,4
<b>GUZTIRA</b>	<b>42.833</b>	<b>4,3</b>	<b>6,6</b>	<b>11,2</b>	<b>15,0</b>	<b>5,6</b>

Enpresarekiko erlazio mota aztertzean, azpimarratu behar den datu nagusia honako hau da: ia ez dago langabeziarik edo desokupaziorik norbere kontura edo kontratu mugagabeekin aritu

direnetan (% 1,8 eta % 2,2, hurrenez hurren). Erreferentziako taldeetan, autonomoei dagokie langabezia-tasarik handiena, lan egiten ez dutenen % 3,4 (aktibo potentzialak kontuan hartzen baditugu, % 4,4).

Aldiz, obra-kontratua (% 11,9), aldi baterako kontratua (% 11,5) edo kontraturik ez dutenen artean (% 8), euskal batez bestekoa baino bi edo hiru aldiz handiagoak dira lan-esperientzia duten aktiboen langabezia-tasak. Enpleguan esperientzia duten aktibo potentzialen % 75,2k horrelako lotura izan zuenez enpresarekin, biztanleria potentzialki aktiboa kontuan hartuta lan egiten ez dutenen tasa are handiagoa da: % 15 aldi baterako kontratua dutenetan, % 15,1 kontraturik ez dutenetan, eta % 16,1 obra-kontratueta. Kontratu mugagabea edo norbere kontura ari direnen artean berriz, lan egiten ez dutenen tasa % 3ra ez da heltzen. Beraz, argi dago bi kolektibo horiek lan-merkatuan egonkortasun-maila handiagoa dutela besteek baino.

Arrisku gehiagoko taldeetan ordea, 1995. urtetik langabeziaren bilakaera positiboa ikus daiteke eta 1999. urtetik 2007. urtera bitarte bilakaera hori sendotu egiten da. Horrela, obra-kontratua duten aktiboen artean langabezia-tasa % 29,9tik % 11,9ra jaisten da eta kontraturik gabeko aktiboen artean % 42,5etik % 8ra.

### 3.47 taula

Azken bost urteotan lan-esperientzia izan duten aktiboen langabezia-tasak, lanbide-egoeraren arabera

(%-etan, erreferentziako biztanleria aktiboari dagokionez)

Egoera profesionala	Datu absolutuak	Tasa 2007	Tasa 2003	Tasa 1999	Tasa 1995	Tasa pot. aktiboekin
< 3 soldatapeko dituen enpresaburua	0	0,0	0,0	0,0	2,8	0,0
>= 3 soldatapeko dituen enpresaburua	0	0,0	2,3	1,3	1,4	0,7
Enpresa bertako soldatapekoa	0	0,0	2,3	1,6	2,2	0,0
Autonomia	3.250	3,4	2,4	5,6	6,0	4,4
Familia laguntza	0	0,0	16,0	18,3	13,1	0,0
Kooperatibista	0	0,0	0,5	0,0	2,4	0,8
Adm. Publ. soldatapeko finkoa	238	0,2	1,4	0,2	1,1	0,2
Adm. Publ. aldi baterako soldatapekoa	3.359	8,1	15,3	32,3	44,2	9,3
Enpresa pribatuko soldatapeko langile finkoa	12.627	2,6	2,2	3,6	6,0	2,9
Enp. pribatuko aldi baterako soldatap.	12.930	12,7	21,7	28,0	33,5	17,2
Enpresa pribatuko obra-kontratua	7.218	13,2	15,8	22,2	27,0	17,0
Enpresa pribatuan kontraturik gabe	1.349	8,0	16,6	28,4	42,0	15,1
Beste egoera bat enpresa pribatuan	1.324	18,2	15,1	9,7	28,4	18,2

Bestelako egoeraren bat	537	7,3	19,4	28,5	30,9	10,0
<b>GUZTIRA</b>	<b>42.833</b>	<b>4,3</b>	<b>6,6</b>	<b>11,2</b>	<b>15,0</b>	<b>5,6</b>

3.48 taula

Azken bost urteotan lan-esperientzia izan duten aktiboen langabezia-tasak, enpresarekin kontratu bidezko loturaren arabera

(%-etan, erreferentziako biztanleria aktiboari dagokionez)

Kontratu bidezko lotura	Datu		Tasa 2003	Tasa 1999	Tasa 1995	Tasa pot. aktiboekin 2007
	absolutua	Tasa 2007				
Mugagabea	12.865	2,2	2,1	2,9	4,6	2,5
Aldi batekoa	15.247	11,5	20,4	28,9	35,0	15,0
Obrakoa	7.218	11,9	15,8	23,1	29,9	16,1
Kontraturik gabekoa	1.349	8,0	16,2	28,4	42,5	15,1
Bestelako egoeraren bat	2.904	15,2	18,7	15,6	29,4	16,1
Norbere kontura	3.250	1,8	2,5	3,9	7,9	2,6
<b>GUZTIRA</b>	<b>42.833</b>	<b>4,3</b>	<b>6,6</b>	<b>11,2</b>	<b>15,0</b>	<b>5,6</b>

Langabezia egoeran egonik, azkeneko bost urteotan lanbide-esperientzia izan duten aktibo gehienak azkeneko bi urteetan galdu du enplegua (% 57,4, azkeneko lau urteetan galdu dutenak % 81,1). Esperientzia duten aktibo potentzialen egoera ez da oso bestelakoa, aurreko egoera horretan % 56,3 baitaude (% 79,5 azkeneko lau urteetan).

3.49 taula

Azken bost urteotan lan egiten ez dutenak eta lan-esperientzia dutenak, enpleguan utzitako urtearen arabera

Biztanleria potentzialki aktiboa  
(Datu absolutuak eta % bertikalak)

Enplegua utzitako urtea	Aktiboak		Akt. potentzialak	
	Abs.	% bertikalak	Abs.	% bertikalak
2007	15.808	36,9	4.340	32,8
2006	8.765	20,5	3.111	23,5
2005	8.576	20,0	938	7,1
2004	4.599	10,7	2.123	16,1
2003	4.070	9,5	1.330	10,1
2002	1.014	2,4	1.386	10,5
<b>GUZTIRA</b>	<b>42.833</b>	<b>100</b>	<b>13.228</b>	<b>100</b>

Lan-esperientzia duten aktiboetan, enplegua galtzearen arrazoi nagusia kontratua amaitzea da (% 44,5), baina borondatezko lanpostu-uztea ere deigarria da (% 26,4). Kaleratzeak (krisi-espedientearekin edo gabe), gaur egun lan egiten ez duen % 14,8ri eragiten dio, 2003. urteko % 6,1eko proportzioa baino askoz gehiago.



Azken bost urteetan lan-esperientzia izan duten aktibo potentzialetan lana galtzearen arrazoietakoa bat kontratu-amaiera da eta egoera horrek aurreko lana utzi zuen % 66,6ri eragiten dio. Borondatezko lanpostu-uztea % 8,1 da eta kanporatzeak ez du inongo eraginik.

### 3.50 taula

Azken bost urteotan lan-esperientzia izanik lan egiten ez dutenak, enplegua uzteko arrazoiaren arabera

Biztanleria potentzialki aktiboa  
(Datu absolutuak eta % bertikalak)

Enplegua uzteko arrazoiak	Aktiboak		Pot. aktiboak	
	Abs.	% bertikalak	Abs.	% bertikalak
Kontratua amaitzea	19.045	44,5	8.816	66,6
Lana nork bere borondatez uztea	11.309	26,4	1.074	8,1
Krisi-espedienterik gabe kaleratua	2.597	6,1	0	0,0
Krisi-espedientearekin kaleratua	3.762	8,8	0	0,0
Birmoldaketa				
Eszedentzia	432	1,0	876	6,6
Lanerako ezintasuna	1.701	4,0	507	3,8
Beste enpresa batean enplegu berdina edo beste bat izatea	1.359	3,2	156	1,2
Besterik	2.628	6,1	1.799	13,6
<b>GUZTIRA</b>	<b>42.833</b>	<b>100</b>	<b>13.228</b>	<b>100</b>

Lan egiten ez duen biztanleriari dagokionez, kontuan izan beharreko alderdi interesgarrietako bat hau da: orain arte aztertu ditugun esperientzia-maila handiko egoerek duten intzidentzia. Hasiara batean, hiru urtetik gorako esperientziak hartu ditugu kontuan lanpostu teknologikoki modernoetan, eta zentzu hertsia goan, hamar urtetik gorako esperientziak, ohiko teknologiaz baliatutako lanpostuen kasuan.

Horren inguruan, funtsezko datu bat: lan-esperientzia duten aktibo langabetuen EAEko kolektiboak ez die esperientzia-maila garrantzitsurik eskaintzen lan-indarra eskatzen dutenei. Izan ere, lan egiten ez duten 10.183 aktibok soilik (% 16,9k) izan du teknologia modernoko enpleguren bat denboraldi esanguratsuan, hau da, 3 urtez edo gehiagoz. Beste % 4 hamar urtez edo gehiagoz aritu zen ohiko teknologiako lanposturen batean, baina esperientzia hori gaur egun zaharkitua izan daiteke.

Lan-esperientziaren bat duten langabetuen % 20,9ren aurrean, egia esateko, lan egiten ez duten aktibo gehienek (% 50,3) oso esperientzia txikia dute azken 5 urteotan, edo bestela, ez dute inolako esperientziarik izan edo esperientzia azken 5 urteotakoa baino lehenagokoa izan da (% 28,8).

Dena dela, aurreko urteetako egoerak zertxobait hobera egin duela esatea beharrezkoa da, teknologia modernoetan esperientzia esanguratsua dutenen proportzioak gora egin baitu (2007. urtean % 16,9, 2003. urtean % 9,2 eta 1995. eta 1999. urteetan % 7 inguru). Inolako lan-esperientziarik ez duten edo azken bost urteen aurretik esperientzia duten langabetuen garrantzi erlatiboan gainbehera izan da: 2007. urtean % 28,8, 2003an % 31,8, 1999an % 37,5, eta 1995ean % 43,1.

Jarduera potentzialean dagoen biztanleriaren egoera beraz, lan-esperientzia esanguratsua izatetik oso urrun dago. Ildo berari jarraiki, azkeneko bost urteotan esperientzia izan dutenen proportzioak behera egin du nabarmen (% 46,8, aktibo langabetuetan % 71,2 izanik). Gainera, teknologia modernoekin lan-esperientzia esanguratsuren bat dutenak % 7,2 dira, eta ohiko teknologiaz baliatutako lanpostuan hamar urte baino gehiagoko esperientzia dutenak % 0,4 besterik ez. Kolektibo horren beste ezaugarri berezi bat lan-esperientziarik ez dutenen garrantzi erlatiboa da, % 27,4 osatzen baitute, lan egiten ez duten aktiboen ondoan, hiru aldiz gehiago.

Dena dela, kasu horretan ere, aurreko urteekin alderatuz, adierazleek aurrerapena adierazten dute lan-esperientzia mailan. Zentzu horretan, azken bost urteotan lan-esperientzia izan dutenen proportzioa % 30,2tik % 46,8ra igo da, eta teknologia modernoekin nolabaiteko lotura esanguratsua izan duten aktibo potentzialen proportzioa % 1etik % 7,2ra.

### 3.51 taula

Lan egiten ez duen biztanleria aktiboa, lan-esperientzia mailaren arabera  
(Datu absolutuak eta % bertikalak)

Esperientzia-maila	Aktiboak	% ber.	% ber.	% ber.	% ber.	Pot.aktiboak	% ber.
	Abs.	2007	2003	1999	1995	Abs.	2007
>= 3 urteko esp. teknologia modernoarekin	10.183	16,9	9,2	7,2	7,0	2.022	7,2
>= 10 urteko esp. bestelako teknologiarekin	2.408	4,0	5,7	5,5	3,9	117	0,4
Besteak, azken 5 urtetan esp.	30.242	50,3	53,3	49,8	46,0	11.090	39,3
Besteak, azken 5 urt. baino lehen. esp.	11.652	19,4	11,7	15,6	14,2	7.263	25,7
Lan egiten ez duen esp. gabekoa	5.635	9,4	20,2	21,9	28,9	7.746	27,4
<b>GUZTIRA</b>	<b>60.120</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>28.238</b>	<b>100</b>

Lan-esperientziak eta esperientzia motak garrantzi handia dute lan-merkatuan. Horrela, teknologia modernoarekin epe luzeko (hiru urte edo gehiago) enpleguan esperientzia dutenen langabezia-maila oso txikia da, % 2,1 besterik ez (% 2,5, aktibo potentzialak barnean hartuta).

Nahiz eta berrikuntza teknologikorik ez izan, epe luzeko enplegu-faktoreak ere badu bere garrantzia, 10 urtez baino gehiagoz ohiko teknologiaz baliatuz betetako enpleguen langabezia-tasa % 1,6 baita (% 1,7 aktibo potentzialak barnean hartuta).

Zenbateko horien aurrean (% 2,5 ingurukoak edo hortik beherakoak), azken bost urteotan esanguratsua ez den nolabaiteko lan-esperientzia izan duen biztanleria aktiboaren artean, desokupazio-tasa oraindik ere oso handia da 2007. urtean. Kasu horretan, tasa % 8,5era heltzen da, (% 11,2ra aktibo potentzialak barnean hartuta). Azken bilakaeran ordea, hobekuntza ikus daiteke kasu horietan, lan-esperientzia esanguratsurik ez dutenen aktiboaren artean desokupazio-tasak 1999. urteko % 19,5etik, 2003. urteko % 12,4ra egin baitu.

### 3.52 taula

Azken bost urteotan lan-esperientzia izan duten aktiboaren langabezia-tasak, esperientzia-mailaren arabera

(%-etan, erreferentziako biztanleria aktiboari dagokionez)

Esperientzia-maila	Datu absolutuak	Tasa 2007	Tasa 2003	Tasa 1999	Tasa pot. aktiboekin 2007
>= 3 urteko esp. teknologia modernoarekin	10.183	2,1	2,2	3,6	2,5
>= 10 urteko esp. bestelako teknologiarekin	2.408	1,6	2,9	5,1	1,7
Besteak, azken 5 urtetan esp.	30.242	8,5	12,4	19,5	11,2
<b>GUZTIRA</b>	<b>42.833</b>	<b>4,3</b>	<b>6,6</b>	<b>11,2</b>	<b>5,6</b>

Gaur egun lan egiten ez dutenen artean, esperientzia-maila esanguratsua duen kolektibo aktiboaren (2003. urtez geroztik gutxienez 3 urtez teknologia modernoko lanpostu batean aritu diren 10.183 lagunak) hainbat ezaugarri adieraziko ditugu.

Hasteko, 45 urtetik beherako emakumeen garrantzia nabarmendu behar dugu, aztertutako guztien % 41,7 osatzen baitute. Beste talde garrantzitsu bat 45 urtetik beherako gizonena da, % 28,2rekin. 45 urtetik gorako gizonek garrantzizko beste talde bat osatzen dute, kolektiboaren % 24,6, gainerako % 5,5 45 urtetik gorako emakumeek osatzen dutelarik.

3.53 taula

Azken bost urteotan teknologia modernoarekin lan-esperientzia izanik, lan egiten ez dutenak, sexuaren eta adinaren arabera.

Biztanleria aktiboa

(Datu absolutuak eta % bertikalak)

Sexua eta adina	Datu absolutuak	% bertikalak
Gizonak < 35	1.259	12,4
Gizonak 35-44	1.613	15,8
Gizonak >= 45	2.504	24,6
Gizonak	5.376	52,8
Emak. < 35	1.265	12,4
Emak. 35-44	2.981	29,3
Emak. >= 45	562	5,5
Emakumeak	4.807	47,2
GUZTIRA	10.183	100

Langabetu mota horretan, multzo nagusia zuzendariek eta teknikariek osatzen dute gaur egun (% 43,2), baina administrazioko enplegatuen presentzia ere handia da (% 23,9). Bien artean aztertzen ari garen kolektiboaren % 67 osatzen dute. Zerbitzu-sektoreko langile kualifikatuen garrantzia ere aipatzekoa da (% 18,8).

3.54 taula

Azken bost urtetan, teknologia modernoan lan-esperientzia izanik, lan egiten ez dutenak, aurreko lanbidearen arabera.

Biztanleria aktiboa

(Datu absolutuak eta % bertikalak)

Lanbidea	Datu absolutuak	% bertikalak
Zuzendaritzakoak eta		
teknikariak	4.396	43,2
Administrariak	2.431	23,9
Zerbitzuetako kualif.	1.917	18,8
Beste kualifikatuak	896	8,8
Kualif. gabeak	544	5,3
GUZTIRA	10.183	100

Langabetu horien egiazko lanbide-kategorian kualifikazio-maila txikiagoa dute, *lanbidea* aldagaiak adierazten duena baino. Zentzu horretan, azken lan esanguratsua teknikari- edo zuzendari-kategorian egin duten aktiboen proportzioa % 37,3ra jaitsi da, eta horiei arduradunak

edo erdi-mailako kargudunak diren landunen % 12,5 eransten badiegu, erreferentziako kolektiboaren % 49,8 osatzen dute. Langile kualifikatuen garrantzia % 25,4koa da eta kualifikatu gabeena % 24,7koa.

Azken bilakaerak, 1999. urteko egoerari erreparatuz batez ere, teknikari lanetan aurreko lan-esperientziaren bat duen biztanleriaren garrantzia erlatiboa agerian uzten du. Lanbide-kategoria horren garrantzia handitzen doa, 1999. urtean % 17,3 eta gaur egun % 28,6.

3.55 taula

Azken bost urteotan teknologia modernoarekin lan-esperientzia izanik, lan egiten ez dutenak, aurreko lanbide-kategoriaren arabera.

Biztanleria aktiboa

(Datu absolutuak eta % bertikalak)

Lanbide-kategoria	Datu absolutuak	%	%	%
		bertikalak 2007	bertikalak 2003	bertikalak 1999
Kualifikatu gabea	2.518	24,7	27,2	28,4
Kualifikatua	2.590	25,4	41,5	22,4
Arduradunak, erdi-mailako kargudunak	1.273	12,5	0,7	22,8
Langile teknikariak	2.915	28,6	24,2	17,3
Zuzendaritzako langileak	887	8,7	6,5	9,1
<b>GUZTIRA</b>	<b>10.183</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>

Bukatzeko, beste datu bat azpimarratu behar dugu: zerbitzu-sektorean esperientzia mota horrek duen garrantzia. Sektorre horretan barne hartzen dira aztertutako esperientzia-egoeren % 74,7; aldiz, industrian % 18,4 eta eraikuntzan % 6,9.

2007. urtean, zerbitzu-sektorea da teknologia modernoko eremuetan lan-esperientzia esanguratsua dutenak kanporatzen nagusi den sektorea. 1999-2003 aldirian zerbitzu-sektorean % 83,9tik % 65,2ra jaitsi zen; eraikuntzan igoera dago, 1999. urteko % 2,1etik, 2003. urteko % 4ra eta 2007ko % 6,9ra; industrian % 18,4n kokatzen da 2007. urtean, 1999ko % 14ren gainetik (2003. urtean desokupazio-egoeren % 30,7 industrian zegoela kontuan izan behar da).

3.56 taula

Azken bost urtetan, teknologia modernoan lan-esperientzia izanik, lan egiten ez dutenak, jarduera-sektorearen arabera.

Biztanleria aktiboa

(Datu absolutuak eta % bertikalak)

Jarduera-sektorea	Datu	%	%	%
-------------------	------	---	---	---

	absolutuak	bertikalak 2007	bertikalak 2003	bertikalak 1999
Industria	1.873	18,4	30,7	14,0
Eraikuntza	701	6,9	4,0	2,1
Zerbitzuak	7.609	74,7	65,2	83,9
<b>GUZTIRA</b>	<b>10.183</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>

## **IV.- PRESTAKUNTZA OSAGARRIA**

## **PRESTAKUNTZA OSAGARRIA**

Kualifikazio-maila baldintzatzen duten elementu nagusiak prestakuntza arautua eta lan-esperientzia izanik, zalantzarik gabe, prestakuntza osagarriko eta birziklatzeko jarduerak esanguratsuak dira, halaber, biztanleria aktiboa kualifikatzeko prozesuan. Kapitulu honetan, biztanleria aktiboak egindako prestakuntza osagarriko jarduerak izango ditugu aztergai, arautu gabeko prestakuntza-jarduerei (AGP) eta atzerriko hizkuntzak ikasteari arreta berezia eskainita.

### **1. ARAUTU GABEKO PRESTAKUNTZA GAUR EGUNGO EAEko BIZTANLERIA AKTIBOAN**

#### **1.1.- Alderdi orokorrak**

Oro har, Euskal Autonomia Erkidegoko aktiboen % 37,9k adierazi duenez, hasierako prestakuntza arautua osatzeko, arautu gabeko prestakuntzako ekintzaren bat egin dute. 2003an izandako erorketaren ondoren, % 31,2ko kopurura jaitsi zen, kontraste nabarmenean 1999. urteko % 38,5eko kopuruarekin, baita 1995. urteko % 33,9ko kopuruarekin ere, 2007ko kopuruak susperraldia erakusten du, 1999an Euskal Autonomia Erkidegoan biztanleria aktiboak izandako prestakuntza-erritmoetara hurbilduz berriro ere.

Aktiboen % 22,4k 2002. urteaz geroztik garatu du prestakuntza hori, eta beste % 15,5ek urte hori baino lehen. Azken bost urteetan egindako prestakuntzari dagokion datuak 2003ko % 20,7rekiko susperraldia islatzen du; dena dela, azkeneko urteetan biztanleria aktiboak garatutako arautu gabeko prestakuntzaren erorketa nabarmena agerian jartzen du, baina oraindik ere 1999an izan zen % 28,9ko kopurua baino askoz gutxiago da. Duela bost urte baino gehiago emandako prestakuntzaren inpaktua epe luzera hazten doa, 1999an % 9,6 izatetik, 2003an % 10,6 eta 2007an % 15,5 izatera. Horrela, 2007an 1999rekiko ikusi zen AGParen intzidentzia kuantitatibo txikiagoa prestakuntzarako azken sarrerarekiko eragin kualitatibo gutxiagori lotuta dagoela egiaztatzen da.

Prestakuntza berriki (2002. urteaz geroztik) jaso dutenak soilik aztertuta, konturatuko gara prestakuntza hori enplegua lortzearekin edo okupazioaren bat garatzearekin loturik egon den, zuzenean edo zeharka. Kategoria horretan, hiru kolektibo mota barnean hartuko ditugu:

a) Arautu gabeko prestakuntza enpresak bultzatuta egin dutenak (hasierako gabeziak estaltzearen, edo teknologian edo antolaketan aldaketak izan direlako, lanbidean edo espezializazioan garatzearen, eta abar).



b) Arautu gabeko prestakuntzaren ondorioz enplegu, lanpostu edo eginkizun berria lortzen dutenak.

c) Bukatzeko, aurreko bi egoeren arteko ezeinetan ere egon gabe, ikasitako prestakuntza-jarduera egin baino lehenagoko enpleguren edo lanen batean aplikatzeko aukera izan dutenak.

Kategoria horretan 193.622 lagun biltzen dira guztira, biztanleria aktiboaren % 19,1. Nahiz eta kopuru hori 1999koa baino gutxiago izan berriro ere, adierazlea % 20,5en zegoenean, bai 1995ean, bai 2003an izan ziren % 15,5etatik gertu zeuden kopuruak gainditzen dira. Era horretan, nahiz eta prestakuntzaren inpaktu kuantitatiboa eta kualitatiboa 2007an 1999an baino txikiagoa izan, ezberdintasuna txikia da AGParen dimentsio oinarrizkoenerako, laneratzearekin zuzenean lotuta dagoenerako. Beste aldetik egiazta daitekeenez, nahiz eta ez iritsi 1999ko mailara, 2007an hausten da 2003an lan-hitzarmenetan detektatzen zen arautu gabeko prestakuntzan eraginaren erorketa-prozesua.

Prozesu positibo hori jarduera potentzialaren egoeran dauden biztanleen kasuan ere ikus daiteke, 2003tik 2007ra igoz % 15,5etik 35,7ra arautu gabeko prestakuntzara sartzeko adierazleak, azken kopuru hori kolektibo aktiboaren antzekoa da gaur egun (% 37,9 kasu horretan). Aktibo potentzialen arteko AGParen goranzko joera berriki egindako prestakuntzan ere nabari daiteke % 9,5etik 21,2ra hazi baita, eta intzidentzia positiboa izan du, halaber, laneratzeari edo okupazio-eremuetan ezagutzak erabiltzeari gagozkiela. Kasu horretan, onuradunak 2003tik 2007ra bitartean % 1etik 12ra hazten dira eta, hala ere, azken kasu horretan egungo aktiboaren kolektiboan ikusitako % 19,1 baino nahiko beherago.

#### 4.1 taula.

Biztanleria aktiboa, arautu gabeko prestakuntzako jarduera motaren arabera  
(Datu absolutuak, % bertikalak eta biztanleriaren hazkunde-tasak, %-etan)

	Datu	% bertikalak	% bertikalak	% bertikalak	% hazkundera	% hazkundera	% ber.
AGPko jarduera motak	absolutuak	2007	2003	1999	2003-2007	1999-2003	2007. Aktibo potentzialak
Enpleguan							
intzidentzia							
duen AGP	193.622	19,1	15,4	20,5	26,0	-24,4	12,0
Beste AGP >=2002	33.080	3,3	5,3	8,4	-36,9	-37,0	9,2
Beste AGP <= 2002	157.366	15,5	10,6	9,6	49,6	10,5	14,5
AGP bai	384.069	37,9	31,2	38,5	23,4	-18,5	35,7
AGP ez	628.652	62,1	68,8	61,5	-8,3	12,5	64,3
GUZTIRA	1.012.720	100	100	100	1,6	0,6	100

Zeintzuk dira, funtsean, EAEko biztanleria aktiboak garatutako arautu gabeko prestakuntzako ekintzak?

Azterketari ekiteko, okupazioan edo lana lortzean eragina izan duen prestakuntza-jardueraren bat egin duten aktiboei erreparatuko diegu lehen-lehenik; ikus daitekeenez, aurreko urteetan bezalaxe, garatutako jarduera gehienak prestakuntza-jarduera horizontalak dira, hau da, zuzendaritza eta kudeaketa, erabiltzaile-informatika, hizkuntzak eta bestelako ekintza orokorrak (mantentze-laneko edo ingurumeneko programei lotutakoak). Prestakuntza-eremu horietan barne hartzen dira egindako jarduera nagusien % 52; beste % 20,2 zerbitzu-sektoreari loturikoak dira, eta % 16,3 ekonomiako beste sektoretako jarduera espezifikoak. Jardueren % 11,4k informatika teknikoarekin zerikusia duen prestakuntzari dagokio.

Era bereziagoan, jarduera horizontalen artean zuzendaritza- eta kudeaketa-jardueren pisua agerikoa da, enpleguarengan eragina duten jarduera nagusien % 22,7 dagokiolarik. Horien artean aipagarriak dira, administrazioari lotutako jarduerak (% 6,8) eta laneko segurtasuna eta osasunari lotutakoak (% 11,4). Erabiltzaileentzako informatikarekin lotutako prestakuntza ere da aipagarria, %16,6 baita. Informatika teknikoarekin batera -enpleguan eragina duten jardueren % 11,4 jasotzen du-, prestakuntza informatikoarekin lotutako jarduerak okupazioan AGParen eragina duten jarduera nagusi guztien % 28 dira.

Zerbitzu publiko handien (hala nola prestakuntza eta hezkuntza, edo osasungintza eta gizarte-zerbitzuak) prestakuntza-eremuak ere badu garrantzia, aztertutako ekintzen % 14,9 jasotzen baitute. Enpleguan eragina duten beste adar garrantzitsuak honako hauek dira: hizkuntzak (% 6,9), mantentze- eta produkzioarako zerbitzu-programak (% 4,9), fabrikazio mekanikoa (% 4,1), eta eraikuntza eta obra zibila (% 3,5).

Enpleguan inolako eragin positiborik ez izatea nabaritzen zaien pertsona aktiboen prestakuntza-jardueraren banaketari erreparatuz, gaur egun interes ezberdina nabari zaie lanean eragina daukaten ikastaroekiko. Ezberdintasun nagusia ekintza orokorren garrantzi erlatiboari dagokio (zuzendaritza, kudeaketa, informatika orokorra, hizkuntza, eta abar). Horrelakoak okupazioan intzidentzia duten jardueren % 52 badira ere, laneratzean eraginik gabeko ikastaroetan proportzioa % 45,6ra murrizten da. Dena dela, egiteko denborari lotuta ezberdintasun garrantzitsuak ikusten dira, 2002 baino lehenagoko ikasturteetan arlo horiek prestakuntzaren % 41, eta urte horren ondorengo ikastaroetan % 67 izan baitziren.

Alabaina, ikastaro sektorialek –zerbitzuetan edo bestelako jarduera-sektoreetan– eragin erlatibo txikiagoa dute lanean eragina duten ikastaroetan –% 36,6 eta enpleguan edo okupazioan eraginik izan ez dutenetan % 48,2–. Ezberdintasun batzuk ikusten dira, ordea, horrelako ikastaroen proportzioan, azkeneko bost urteetan edo lehenago egin izanaren arabera. Hortaz, proportzioa oso handia da 2002 baino lehenago egindako ikastaroak aintzat hartuta (azkeneko 5 urteetan egindakoei dagokionez % 52 % 30,1en aldean).

Lanean eraginik gabeko ikastaroetan 2002. urtearen aurretik eta ondoren ikusitako ezberdintasunak, berriki egindako ikastaroak eskusiboki aintzat hartzeko interesa erakusten du, zehazki, 2002az geroztikoak. Kasu horretan ezberdintasun garrantzitsuenak lotutako ikastaroei dagokie, alde batetik zuzendaritzari eta kudeaketari eta bestetik, zerbitzuen sektoreari. Prestakuntza-jarduera mota horiek lanean eraginaren bat izan dutenen % 43 badira, azken urteetan egin diren ikastaroetatik laneratzean eraginik izan ez dutenen % 27,9 bakarrik biltzen dituzte.

Kontrako muturrean geratzen dira erabiltzaile-informatikako eta hizkuntzen inguruko jarduerak. Lanean eragina duten prestakuntzako esku-hartze guztien % 23,5 osatzen dute, baina okupazioa hobetzean edo laneratzean intzidentziarik izan ez zutenetik % 48,5. Joera hori bera ikus daiteke mantentzearekin eta produkzioarekin zerbitzuekin edo ingurumenarekin erlazionatutako AGParen jarduera orokorreari dagokienez, enpleguan eragina duten jarduera guztien garrantziaren % 5,8 izanik eta azkeneko bost urteetan egindako prestakuntzaren gainerako jardueren % 7,3.

Adierazitako joera horiek orokorrean koherenteak dira aurreko urteetan, BAKIaren aplikazioko urteetan, jadanik ikusitakoekin, esaterako 1999-2003 aldian. Dena dela, nabarmentzekoa da 2007an enpleguan eragina izan zuten prestakuntzen artean ezberdina dela zerbitzukoak ez diren produkzio-jardueretan eta informatika teknikoan prestakuntza duten pertsonen proportzioa. Aintzat hartutako jarduerak lanean eragin arrakastatsua duten AGParen esku-hartzeen % 27,7 dira alde batetik, baina bestetik proportzioa % 16,3 da bakarrik eraginik izan ez duten haiengan.

## 4.2 taula.

Arautu gabeko prestakuntzako jarduera nagusiaren edukia, AGP jarduera motaren arabera.

## Biztanleria aktiboa

(% bertikalak)

AGPren edukia	Enpleguan intzidentzia duen AGP	Beste AGP >=2002	Beste AGP < 2002	Enpleguan intzidentziari k gabeko AGP
Administrazioa	6,8	2,7	11,1	9,7
Kalitatea	2,1	2,7	1,6	1,8
Helbidea	1,7	1,2	0,9	1,0
Giza baliabideak	0,7	0,0	0,4	0,4
Laneko Segurtasuna eta Osasuna	11,4	4,6	2,8	3,1
<b>Zuzendaritza eta kudeaketa</b>	<b>22,7</b>	<b>11,2</b>	<b>16,9</b>	<b>15,9</b>
<b>Erabiltzaile-informatika</b>	<b>16,6</b>	<b>27,8</b>	<b>10,8</b>	<b>13,8</b>
<b>Hizkuntzak</b>	<b>6,9</b>	<b>20,7</b>	<b>6,8</b>	<b>9,2</b>
Ingurumena	0,8	4,6	1,2	1,8
Mantentzea eta produkzioarako zerbitzuak	4,9	2,7	5,3	4,9
<b>Beste orokorrak</b>	<b>5,8</b>	<b>7,3</b>	<b>6,6</b>	<b>6,7</b>
<b>Informatika teknikoa</b>	<b>11,4</b>	<b>2,9</b>	<b>6,9</b>	<b>6,2</b>
Jarduera fisikoak eta kirolekoak	0,9	0,4	0,8	0,7
Merkataritza, kontsumoa eta garraioak	1,9	1,3	4,5	3,9
Prestakuntza eta hezkuntza	4,1	0,9	3,7	3,2
Ostalaritza eta turismoa	1,1	1,3	2,1	2,0
Osasuna	9,9	9,7	8,2	8,5
Zerbitzu soziokulturalak, komunitateari emandakoak eta aisia	0,9	3,1	2,9	2,9
Zerbitzuak eta irudi pertsonala	1,4	0,0	3,2	2,6
<b>Zerbitzuak</b>	<b>20,2</b>	<b>16,8</b>	<b>25,3</b>	<b>23,8</b>
Nekazaritza eta abeltzaintza jarduerak	0,6	0,3	1,0	0,9
Itsaso eta arrantza jarduerak	0,0	0,0	1,1	0,9
Arte grafikoak	0,6	0,0	1,3	1,1
Komunikazioa, irudia eta soinua	0,4	1,9	1,4	1,5
Elektrizitatea, elektronika eta telekomunikazioak	2,7	7,3	5,7	6,0
Eraikuntza eta obra zibilak	3,5	2,3	7,0	6,2
Fabrikazio mekanikoa	4,1	0,0	4,7	3,9
Prestakuntza ez-transferigarria	0,5	0,0	0,7	0,6
Elikagai-industriak.	0,7	0,9	0,1	0,2
Zura eta altzariak	0,5	0,0	0,4	0,3
Kimika	0,4	0,0	0,3	0,2
Ehungintza, jantzigintza, larrua	0,1	0,6	1,5	1,4
Ibilgailu autopropultsatuak	1,9	0,0	0,8	0,6
Beste batzuk.	0,2	0,0	0,7	0,6
<b>Beste sektoreak</b>	<b>16,3</b>	<b>13,3</b>	<b>26,7</b>	<b>24,4</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>

Oharra: Egindako AGPko jarduera nagusia kontuan hartuta.

Komeni da aurreko datuetan sakontzea AGPan esperientzia duten biztanle aktiboek egindako AGParen jarduera nagusiaren inpaktu diferentziala, edo horren arrakasta-maila, zehazki neurtuz, enpleguan intzidentzia positiboa duen ikuspegitik.

A priori, arautu gabeko prestakuntza-jarduerak enpleguan duten eragina garrantzitsua dela esan behar dugu, oro har. Hortaz, kasuen % 50,4an, ikastaro nagusiak eragin positiboa izan zuen okupazioari dagokionez. Kopuru hori 1995ean ikusitakoaren % 46,2 baino handiagoa da eta 2003an ikusitakoaren % 49,4 baino; nahiz eta 1999rako estimatutakoaren % 53,3 baino zertxobait gutxiago den.

Aztertutako prestakuntzaren edukiaren arabera, eragin positiboena informatika teknikoarekin lotutako prestakuntza-jarduerari dagokie, % 65ek prestakuntzaren arrakasta izan dutelarik; jarraian zuzendaritzako eta kudeaketako prestakuntza-jarduerak daude, enpleguan eragin positiboa izan duten ikastaroen % 59,3 direla. Onuradunen gehiengo batek ere, % 55,1ek, enplegurako eragin positiboa du ezaugarri erabiltzaile-informatikako ikastaroen kasuan. Prestakuntza-edukiaren gainerako taldeetan, arrakasta-maila batez besteko orokorra baino txikiagoa da. Gainerako gai orokorretako ikastaroen, proportzioa % 46,7ra gutxitzen da; zerbitzu-sektoreari loturiko jardueretan, % 46,4ra; hizkuntzen eremuan, % 40,6ra, eta zerbitzutakoak ez diren sektoreekin zerikusia dutenetan, % 40,6ra.

Prestakuntzaren eduki bakoitzaren banakako analisiak erakusten du gaika zenbait arlo daudela zeinetan arrakasta-mailak % 60 gainditu duen edo ehuneko horretara hurbildu den. Administrazioarekin eta Kalitate-kudeaketarekin erlazionatua daudenak izan ezik, horrelako arrakasta-maila dugu zuzendaritza eta kudeaketaren, eta informatika teknikoaren prestakuntzako eduki ia guztiekin; sektoreetako prestakuntza-arlo batzuetako berezko ezaugarria ere bada, elikagaien, zuraren eta altzarien, kimikaren eta ibilgailu autopropultsatuen industrietan, esaterako.

Kontrako harian, prestakuntza horizontaleko adarretan, neurtutakoa ingurumenari lotutako prestakuntza-jardueretan bakarrik da % 40 baino gutxiago (% 31,6), administrazio eta hizkuntzetako jarduerak % 40-45 dira eta Kalitate-kudeaketa, erabiltzaile-informatika eta mantentze- eta produkzioarako zerbitzu-jarduerak % 50- 55.

Arrakasta-maila % 40 baino gutxiago izatea zerbitzuetara lotutako jardueren eremuan nahiko arrunta da ordea, merkataritza, kontsumoa eta garraioekin (% 33,1), ostalaritza eta turismoarekin (36,7%), zerbitzu soziokulturalekin (24,9%) edo irudi pertsonalerako zerbitzuekin (34,5%) gertatzen den bezalaxe. Berdina gertatzen da ere, zerbitzuetakoak ez diren jarduerekin lotutako eremuetan, arte grafikoekin ingurukoekin (% 37,7), komunikazioa, irudia eta soinuarekin (% 22), elektrizitatearekin, elektronikarekin eta telekomunikazioekin (% 31,7), eraikuntza eta obra zibilarekin (% 36,6), ehungintza, jantzigintza eta larruarekin (% 5,5) zerbitzuetakoak ez diren

sektoreetako beste adarrekin (% 30,3). Arrakasta-maila altua dela-eta nabarmentzen direnez gain - bere garaian aipatu ditugunak-, sektoreko prestakuntza-eremu horietan mailak % 40 gainditzen du nekazaritza eta abeltzaintzako jarduerak eta % 50 jarduera fisikoak eta kirolekoak, prestakuntza eta hezkuntzak, osasunak eta fabrikazio mekanikoak.

#### 4.3 taula.

Arautu gabeko prestakuntzaren arrakasta-maila, egindako prestakuntzaren edukiaren arabera.  
Biztanleria aktiboak. (%-etan)

AGParen edukia	Eraginpeko aktiboak	Arrakasta-maila 2007
Administrazioa	13.243	41,8
Kalitatea	4.013	54,2
Helbidea	3.286	64,3
Giza baliabideak	1.413	67,1
Laneko Segurtasuna eta Osasuna	22.059	78,9
<b>Zuzendaritza eta kudeaketa</b>	<b>44.015</b>	<b>59,3</b>
<b>Erabiltzaile-informatika</b>	<b>32.230</b>	<b>55,1</b>
<b>Hizkuntzak</b>	<b>13.296</b>	<b>43,0</b>
Ingurumena	1.606	31,6
Produkzio-zerbitzua eta mantenimendua:	9.583	50,8
<b>Beste orokorrak</b>	<b>11.189</b>	<b>46,8</b>
<b>Informatika teknikoa</b>	<b>22.058</b>	<b>65,0</b>
Jarduera fisikoak eta kirolekoak	1.794	57,1
Merkataritza, kontsumoa eta garraioak	3.690	33,1
Prestakuntza eta hezkuntza	7.976	56,6
Ostalaritza eta turismoa	2.161	36,7
Osasuna	19.101	54,2
Zerbitzu soziokulturalak, komunitateari emandakoak eta aisia	1.838	24,9
Zerbitzuak eta irudi pertsonala	2.624	34,5
<b>Zerbitzuetan</b>	<b>39.184</b>	<b>46,4</b>
Nekazaritza eta abeltzaintza jarduerak	1.257	42,5
Itsaso- eta arrantza-jarduerak		
Arte grafikoak	1.234	37,7
Komunikazioa, irudia eta soinua	820	22,0
Elektrizitatea, elektronika eta telekomunikazioak	5.256	31,7
Eraikuntza eta obra zibilak	6.753	36,6
Fabrikazio mekanikoa	8.000	51,7
Prestakuntza ez transferigarria	990	46,2
Elikagai-industriak.	1.417	77,8
Zura eta altzariak	956	59,4
Kimika.	684	60,6
Ehungintza, jantzigintza, larrua	154	5,5
Ibilgailu autopropulsatuak	3.674	75,2
Beste batzuk.	457	30,3
<b>Beste sektoreak</b>	<b>31.652</b>	<b>40,6</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>384.069</b>	<b>50,4</b>

Oharra: AGPko eduki bakoitzerako eta egindako AGPko ikastaro nagusiari dagokionez, arrakasta-maila honako era honetara neurtzen da: enpleguan eraginarekin jarduerak egin dituzten pertsonen proportzioa, AGPko jarduerak egin dituzten pertsona guztien artean.

AGPak biztanleria aktiboan duen eragina mugatuta, eta egindako jardueren edukia zehaztuta, jarduera horien banaketari eta eraginari buruzko hainbat datu eman behar dira, oinarrizko zenbait aldagai demografikoren arabera, prestakuntzaren protagonista diren aktiboen ezaugarriak aztertze aldera.

Generoaren ikuspuntutik begiratuta, emakumeek askoz ere AGPko jarduera gehiago egin dituzte. Emakumezko biztanle aktiboen % 41,4k AGPko jardueraren bat egin du gizonezkoen % 35,3ren aldean. Nahiz eta pixka bat txikiagoak izan, kopuru horiek 1999ko kopuruetatik nahiko gertu daude (% 42,4 eta 35,8 hurrenez hurren), bai 1995ekoak (% 38,9 eta 30,4), bai 2003koak (% 34,2 eta 29) gaindituz, azken horiek oso nabarmen.

1999tik aurrera prestakuntzarako sarbidean ikusten den generoen arteko hurbilketa deigarria da enpleguan AGParen eragina neurtzen, baita arrakasta-mailei dagokionez ere, adierazleak % 50,4 erakusten duelarik 2007an, bai gizonen, bai emakumeen artean. Horrela 2003an ikusi zen oreka-egoera sendotzen da, bi generoen arteko arrakasta-mailak jadanik oso antzekoak zirenean, % 49,5 inguruan. 2003ko eta 2007ko errealitateak aurreko urteetan ikusitakoarekin nabarmen kontrastatzen du, gizonezkoen arteko AGParen inpaktu positiboa ezaugarri baitzen. 2003tik aurrera ikusten den erabateko oreka-egoeraren aurrean, 1995. eta 1999. urteetan gizonezkoen aldeko ezberdintasuna 9,7 eta 11 zen hurrenez hurren.

Adierazitako aldaketa, funtsean, gizonen arrakasta-mailaren erorketari lotuta dago. Emakumeengan arrakasta-maila zertxobait hazten bada ere -1995eko % 40tik eta 1999ko % 48tik 2007an % 50,4ko gorenera heltzen baita-, gizonekin ez da berdina gertatzen. Gizonezko biztanle aktiboengan, 2003ko % 49,3 zertxobait gainditzen bada ere, 2007an arrakasta-maila 1999an eta 1995ean baino txikiagoa da (% 50,4 lehenengo kasuan eta % 57,7 eta 51 besteetan hurrenez hurren).

Bestalde, arautu gabeko prestakuntzako ekintzak egitea adinarekin erlazionaturik dago, gizonetan nahiz emakumeetan, 45 urtetik beherakoetan zenbatekoak askoz handiagoak baitira. Dena dela, 1999an ez bezala (urte horretan, tasa antzekoak zituzten 35 urtetik beherakoek eta 35-44 urtekoek), azken aldiko bilakaerak erakusten duenez, AGPak eragin txikiagoa du 35 urtetik beherakoetan 35-44 urtekoetan baino, eta hori 2003an jadanik nabari zen. Gizonezkoen kasuan, 35 urte baino gutxiagokoek % 35,7k horrelako jarduerak egin dituzte, 35-44 urtekoen artean ordea, % 39,5ek. Emakumeen kasuan, 35 urtetik beherakoetan % 41,3k eta 35-44 urtekoetan % 45,4k.

2003an ez bezala, gaur egun, 45 urte baino gehiagokoen sarrera prestakuntzara handiagoa da. Gizonezkoen kasuan 2007an % 31,9 izatera dator, 2003ko % 22,5 baino gehiago. Emakumeen kasuan % 37,9 da kopurua, 2003ko % 23,9 baino gehiago. Izan ere, AGPrako sarrera-mailan hazkuntza handienak -2003-2007 laurtekoan- 45 urte baino gehiagokoei dagokie, eta haien artean emakumeei bereziki.

Aurreko urteen aldean, 2003-2007 laurtekoaren bilakaerak biztanle gazteenentzako joera aldaketa oso nabarmena ekartzen du aurreko laurtekoan jasotako parte-hartzearen erorketarekiko. Gauzak horrela, 35 urte baino gutxiagokoen artean, AGPko parte-hartzearen tasa % 35,7ra heltzen da 1999-2003 laurtekoan % 39,4tik 30,5era erori ondoren; adin-talde horretako emakumeen artean, % 41,3ra heltzen da % 47,5etik 35,6ra erori ondoren aipatutako laurtekoan. Bi kasuetan, AGPra sarrera-maila 1999an baino askoz txikiagoa izaten jarraitzen du.

35 urte baino gehiagokoen kasuan, 2003an ikusitako atzerapenaren suspertzea oso agerikoa da. Modu horretan, ehunekoak 1999koetara hurbiltzen dira 35-44 urteko gizonezkoen kasuan (% 39,5, % 40,4ren aldean) eta 45 urte baino gehiagoko gizonezkoek eta 35 urte baino gehiagoko emakumezkoek argi gainditzen dute.

Lanean intzidentzia positiboa duten AGPko datuak aztertuz, 2007an gehieneko tasak lehen aldiz orekatu ziren -gizonezkoen kasuan- 35 urte baino gutxiagokoen eta 35-44 urtekoen artean, bi kasuetan % 20 inguruko kopuruekin. Kopuru horiek 2003rekiko hazkuntza dakarte baina oraindik ere 1999koak baino txikiagoak dira (% 21,5 35 urte baino gutxiagokoen artean eta % 26,3 35-44 urtekoen artean). 2003an bezala, erreferentziazko adinetan emakumezkoen ehunekoek gizonezkoenak gainditzen dituzte, % 22,1 izanik 35 urte baino gutxiagokoen artean, eta % 24,6 35-44 urtekoen artean. Gainera kasu horretan, tarteko adin-taldeko emakumeei dagokionez beregainki, eragin-maila 2003ko % 18-19 baino gehiago da, baita 1999ko % 22 baino zertxobait gutxiago ere.

Maila txikienak -gizonezkoen % 14,4 eta emakumeen % 15,9-, 45 urte baino gehiagokoei dagokie, 1999koen antzeko ehunekoekin (% 14,9 eta 15,4 hurrenez hurren) baina nabarmen 2003koen gainetik (% 11,7 eta 12,4).

Laneratzea eta okupazioan hobekuntza bultzatzeko AGPko jardueren arrakasta-mailak aztertuz, aurreko urteekiko aldaketa garrantzitsua ikusten da. Zentzu horretan, datuen artean adin-taldea zaharragoa den neurrian maila horiek igotzeko joera nagusia agortzen dela ikus daiteke. Egiaz aurkakoa gertatzen da 2007an, gizonezko biztanleen kasuan beregainki. 35 urtetik beherakoetan, arrakastaren zenbatekoak % 56,1 dira, 35-44 urtekoetan % 49,8, eta 45 urtetik gorakoetan % 45,2. Emakumezko biztanleen artean, 35-44 urtekoen arrakasta-maila are



handiagoa da (% 54,2 adin hori baino gazteagoen % 53,5en aldean) baina % 42,1 da bakarrik 45 urte baino gehiagokoen artean.

1999. eta 2003. urteekiko, hobekuntza arina erakusten dute 45 urte baino gutxiagoko emakumeen eta 35 urte baino gutxiagoko gizonezkoen arrakasta-mailan, hala ere, orokorrean ezin da funtsezko hazkuntza jarraiturik ikusi aintzat hartutako laurtekoetan. Gainerakoetan aldiz, arrakasta-maila gogor erortzea da joera, eta errealitate hori bereiziki adierazgarria da 45 urte baino gehiagoko gizonezkoengan 1999. urtetik jarraian mailari eutsi baitzion. Adin hori baino gehiagoko emakumeengan, erorketa 2003-2007 aldiari egozten zaio huts-hutsik, 1999-2003 aldian bilduz 35-44 urteko gizonezkoen dagokionez.

1999. urtean betiere gizonezkoen aldekoak ziren ezberdintasunak arrakasta-mailan gutxitu egin ziren orokorrean 1999. eta 2007. urteen artean. Hori guztia bereiziki argi ikusten da pertsona gazteen artean, egoera aldatu ere egiten baita 35-44 urteko pertsonen artean, emakumeek arrakasta-maila handiagoa daukatelarik 2007. urtean (% 54,2 gizonezkoen % 49,8ren aldean).

#### 4.4 taula.

Arautu gabeko prestakuntzako jarduerak egindako pertsonen proportzioa, sexuaren, adinaren eta arautu gabeko prestakuntzako jardura motaren arabera. AGParen arrakasta-maila.

#### Biztanleria aktiboa (%-etan)

Sexua eta adina	Enpleguan		Enpleguan intzi-				
	intzi- dentzia duen AGP	Beste AGP >=2002	Beste AGP < 2002	dentziarik gabeko AGP	Arrakasta- maila 2007	Arrakasta- maila 2003	Arrakasta- maila 1999
Gizonak < 35	20,0	4,1	11,5	15,7	56,1	47,2	54,6
Gizonak 35-44	19,7	3,2	16,6	19,8	49,8	49,6	65,2
Gizonak >= 45	14,4	0,9	16,6	17,5	45,2	51,9	54,4
<b>Gizonak</b>	<b>17,8</b>	<b>2,7</b>	<b>14,8</b>	<b>17,5</b>	<b>50,4</b>	<b>49,3</b>	<b>57,7</b>
Emak. < 35	22,1	5,1	14,1	19,2	53,5	53,1	45,7
Emak. 35-44	24,6	2,8	18,0	20,8	54,2	43,6	50,9
Emak. >= 45	15,9	4,0	17,9	21,9	42,1	52,0	51,7
<b>Emakumeak</b>	<b>20,9</b>	<b>4,1</b>	<b>16,5</b>	<b>20,6</b>	<b>50,4</b>	<b>49,5</b>	<b>48,0</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>19,1</b>	<b>3,3</b>	<b>15,5</b>	<b>18,8</b>	<b>50,4</b>	<b>49,4</b>	<b>53,3</b>

Sexuaren eta adinaren arabera, arautu gabeko hainbat prestakuntza motaren arrakasta-maila xeheki aztertzea interesgarria da.

35 urte baino gutxiagokoen artean, arrakasta-maila handienak -% 65 baino gehiagokoak- zuzendaritza eta kudeaketaren, hizkuntzen, gainerako prestakuntza orokorren eta informatika teknikoaren eremuan garatutako jarduerekin lotzen dira; eremu horietan aintzat hartutako gizonezkoek adin bereko emakumeen aldean askoz arrakasta-maila handiagoa dute nabarmenki. Aldiz, 35 urte baino gutxiagoko emakumeen arrakasta-maila handiagoa da erabiltzaile-informatikan (% 59,3) eta produkzio-jarduera espezifikoei lotutako prestakuntzan, baita beste sektoreetako zerbitzuetan ere (% 48,8 eta 66,5, hurrenez hurren). Nahiz eta gizonezkoen azpitik egon, arrakasta-adierazleak emakume aktibo gazteenen artean ere dira nabarmenki handiak, zuzendaritza eta kudeaketarekin lotutako jardueretan, hizkuntzetan edo informatika teknikoan mailak % 55 gainditzen duelarik.

45 urte baino gehiagoko biztanle gizonezkoen artean, gizonen aldeko ezberdintasuna zuzendaritza eta kudeaketarekin, eta hizkuntzekin lotzen da berriro, kasu horretan eta alderatuz, arrakastatsua goa direlarik zerbitzuen ez diren jardueren prestakuntza eta erabiltzaile-informatika. 45 urte baino gehiagoko emakumeek ikusitako ezberdintasuna informatika teknikoarekin eta dimentsio horizontaleko gainerako programekin lotutako arrakasta-maila handiagoekin konpentsatzen dute. Adin horietan arrakasta-maila beti da % 50 baino gehiagokoa informatikarekin –teknikoarekin eta erabiltzaile-arlokoarekin- lotutako jardueretan, generoa edozein dela ere. Informatikaren jardueretatik at, gizonezko biztanleek egindako zuzendaritza eta kudeaketa jarduerekin bakarrik gainditzen dira maila horiek.

35-44 urte arteko emakumeen posizio erlatibo hobea, alde horretatik, arrakasta-maila handiagoekin lotzen da hizkuntzekin, dimentsio horizontaleko beste programa orokorrekin eta zerbitzuetakoak ez diren sektoreei lotutako prestakuntza espezifikoei erlazioatutako prestakuntza-jardueretan. Gainerako arloetan emaitza gizonezkoen aldekoagoa da. Gai-bloke handi guztietan emakumeek tarteko adin-talde horretan % 50eko arrakasta-maila gainditzen duten arren, gizonezkoak % 40 azpitik daude hizkuntzekin, dimentsio horizontaleko programa orokorrekin eta zerbitzuak ez diren sektoreekin erlazioatutako programekin lotuta dauden ikastaroei dagokionez.

Aurkezten diren datuek ez dute nabarmena egiten genero baten aldeko arrakastarako joera, prestakuntza motaren arabera eta biztanle aktibo guztientzako. Horrela izanik ere, eragina gizonentzako aldekoagoa izateko joera daukala esan daiteke zuzendaritza eta kudeaketa programetan (gizonezkoen % 64,8ko arrakasta eta emakumeen % 59,3), baita adin-talde batzuen salbuespenarekin ere, informatika teknikoan (% 70 % 65en aldean) eta erabiltzaile-informatika (% 57,3 % 55,1en aldean).

Biztanle aktibo guztien artean, hizkuntzei dagokionez bakarrik dauka emakumeak arrakasta-maila nabarmen hobea (% 43ko arrakasta gizonezkoen % 37ren aldean). Baina egoera hori

jarduera horiek 35-44 urteko emakumeen artean daukaten eragin diferentzialari egotzi dakioke bakarrik (arrakasta-maila % 55,6 adin horretako gizonetzkoek % 19,6 eskas duten artean).

Egiaztatu daitekeen bezala, edozein kasutan, prestakuntza-jardueran arrakastaren adierazle orokorrek erakusten duten generoen arteko berdintasun egoerak gizon eta emakumeen arteko egoera funtsean ezberdinak ezkututzen ditu adinaren eta prestakuntzaren edukiaren arabera.

#### 4.5 taula.

Arautu gabeko prestakuntzaren arrakasta-maila, arautu gabeko prestakuntzaren edukiaren, sexuaren eta adinaren arabera.

#### Biztanleria aktiboa (%-etan)

AGParen edukia	Sexua eta adina								GUZTIRA
	Gizonak < 35	Gizonak 35-44	Gizonak ≥ 45	Guztira Gizonak	Emak. < 35	Emak. 35-44	Emak. ≥ 45	Guztira Emaku- meak	
Zuzendaritza eta kudeaketa	66,3	69,1	58,7	64,8	56,5	59,4	38,6	53,4	59,3
Erabiltzailearen informatika	50,8	55,7	61,5	57,3	59,3	50,6	51,9	53,6	55,1
Hizkuntzak	74,5	19,6	26,8	37,0	56,1	55,6	21,2	47,5	43,0
Beste orokorrak	65,2	34,9	27,5	47,9	37,1	65,2	39,1	42,4	46,8
Informatika teknikoa	74,7	85,3	57,2	70,0	55,0	55,1	81,4	60,4	65,0
Zerbitzuetan	42,8	53,1	39,1	45,6	48,8	50,3	40,9	46,7	46,4
Beste sektoreak	46,6	38,6	33,7	40,4	66,5	60,1	24,2	41,6	40,6
<b>GUZTIRA</b>	<b>56,1</b>	<b>49,8</b>	<b>45,2</b>	<b>50,4</b>	<b>53,5</b>	<b>54,2</b>	<b>42,1</b>	<b>50,4</b>	<b>50,4</b>

### 1.2.- Arautu gabeko prestakuntzarekin loturiko laneratze-eremuak

Gaur egun landunak diren guztira 362.205 pertsonen uneren batean, arautu gabeko prestakuntza-jardueraren bat egin dute, eta horrek biztanle landun guztien % 38 esan nahi du, izan ere, biztanle aktibo guztien artean ikusten denaren antzeko proportzioa (% 37,9). Biztanle aktiboekin gertatzen zen bezala, kasu horretan ere 2003an ikusitakoaren aldean AGPan esperientzia duten biztanleen igoera jasotzen da (% 31), 1999an bazegoen mailaren antzekoa berreskuratuz (% 38,1). Okupazioa nabarmen hazi bada ere, prozesu hori AGP duten landunen kopuru osoaren hazkuntza nabarmenarekin lotzen da. Horrela, prestakuntza esperientziarekin landun diren pertsonen kopurua % 15,3 hazten da 1999-2007 aldian, AGPko esperientzia ez duten landunen hazkuntzari lotutako % 15,8 baino zertxobait gutxiago.

Datu orokorrek ezkutatu egiten dute AGP duten landun kopuruaren igotzeko joera beren prestakuntza-jarduerak bost baino urte gehiago lehenago egin zituzten landunen kolektiboari

dagokiola praktikan, 1999. urtearekiko % 85 hazten den kolektiboari alegia. Aldiz, enpleguan eragina izanik gabe prestakuntza azkeneko bost urteetan egin duten landunen kopurua % 45,7 erori da. Beren aldetik egonkor eusten dio, % 0,7ko hazkuntza eskasarekin, enpleguan eragina edukita azkeneko bost urteetan prestakuntza-esperientzia izan duten landun kopuruak.

#### 4.6 taula.

Biztanle landunak, arautu gabeko prestakuntzako jarduera motaren arabera  
(Datu absolutuak, % bertikalak eta biztanleriaren hazkunde-tasak, ehunekoetan)

	Datu absolutuak	% bertikalak 2007	% bertikalak 2003	% bertikalak 1999	% hazkundera 1999-2007
AGPko jarduera motak					
Enpleguan intzidentzia duen					
AGP	185.548	19,5	15,9	22,4	0,7
Beste AGP >=2002	26.437	2,8	4,0	5,9	-45,7
Beste AGP < 2002	150.220	15,8	11,0	9,9	85,0
AGP bai	362.205	38,0	31,0	38,1	15,3
AGP ez	590.395	62,0	69,0	61,9	15,8
GUZTIRA	952.600	100	100	100	15,6

Lana duten biztanleek arautu gabeko prestakuntzan duten esperientzia aztertuta, AGPak enpleguan duen eraginari buruzko informazio osagarria lortuko dugu. Gai horri dagokionez, datu garrantzitsu bat honako hau da: arautu gabeko prestakuntza-jarduerak egin eta horrekin zuzenean lotuta okupazio-hobekuntza izan duten edo lanpostu berria lortu duten landunak % 6,8 dira, ez gehiago. Enpleguan eragin positiboa izandako gainerako kasuetan, biztanle landun guztien % 19,5 ere, enpresak berak bultzatutako prestakuntza-prozesu egokitzalea egiten dute lanpostu berean irautearren, edo egungo enpleguan prestakuntzari loturiko ezagutza berriak jasotzeko aplikazioa, baina enpleguan hobekuntzarik edo aldaketarik eragin gabe.

Laneratze- edo enplegu-hobekuntzan AGParen eragin positiboei zuzenki lotuta ikusten zaien landunen proportzioa % 8,4 da 1999an eta % 6,5 baino pixka bat gehiago 2003an, 1999tik aurrera AGPak enpleguan duen eraginaren irudi ezkorragoa islatuz, 2003-2007 laurtekoan funtsean jarraitzen duen errealitatea alegia.

Jarraian, arautu gabeko prestakuntzaren eta laneratzearen arteko lotura erraztu duten produkzio-sistemako alderdien tratamendua xehetasun gehiagorekin aztertzea komeni da, betiere erlazio hori okupazioari loturiko aldagai nagusien ikuspegitik aztertuz.

Horretarako, aztertu beharreko aldagai bakoitzean hiru adierazleri erreparatuko diegu, batik batik:

a) Zentzu zabalean, okupazioari dagokionez, AGPko ekintzaren bat egiteagatik onurak izan dituen kolektiboaren barne-banaketa.

b) Lana duten biztanleentzako oro har, AGPko ekintza positiboen intzidentzia enpleguan - zentzu zabalean hartuta-.

c) Aurreko adierazlea, baina soil-soilik eta zentzu hertsian hartuta, egindako AGPko ekintzen eragin positiboak okupazio-egoera hobetzea edo enplegu berria lortzea ekarri duen egoeretan aplikatuta.

Azpimarratu beharreko lehenengo alderdia zera da, prestakuntzak enpleguan eragin positiboa izan duela nabari duten landun gehienak teknikari-kolektiboarekin loturik daudela (% 38,9). Aipagai dugun landunen kolektiboan, administrazioko enplegatuek ere garrantzi erlatibo handia dute (% 14,3), baita industriako eta eraikuntzako langile kualifikatuek ere (% 12,7); berdintsu dabilta, % 10 gainera, zerbitzuetako langile kualifikatuak (% 10,5) eta makineriako operadoreak (% 11,2).

Teknikoen kolektiboa da hain zuzen arautu gabeko prestakuntza egiteak okupazioan eragin positibo handia ezaugarri duen kolektiboetako bat. Zentzu zabalean hartuta, datuek erakusten dute langile teknikoek egindako AGPko jarduera nagusien % 26,9k enpleguaren aldeko eragina izan dutela, zuzendarien kasuan ere antzeko kopurua erakusten dute (% 25,8), baita administrazioko enplegatuen kasuan ere, azken kolektibo hori % 27,4rekin AGParen jarduerak mesede gehien egin dioten lanbideen lehen lekuan dagoelarik. Kopuruak era esanguratsuan erortzen dira, jadanik batez bestekoaren azpitik kokatuz, gainerako talde profesionaletan. Adierazlea % 15-16 artean kokatzen da lehen sektoreko langileen, industriako eta eraikuntzako langile kualifikatuen, eta makineria-langileen artean, % 13,5era jaitsiz zerbitzuetako langile kualifikatuen artean eta % 11,3ra kualifikatu gabeko langileen artean.

AGParen ondorioz laneratzean edo enplegua hobetzean eragin zuzena duten biztanleei dagokienez, zuzendarien, teknikarien eta administrarien artean ehunekoek berriro ere batez bestekoa gaitzen dute. Maximoa administrazioko enplegatuei dagokie berriz % 10,5ekin, teknikarien eta zuzendarien gainera, nahiko hurbil (% 9). Gainerako talde profesional gehienetan, prestakuntzaren eragina % 4-6 izaten da, betiere EAEko batez bestekoaren azpitik. Dena den, kualifikatu gabeko langileen artean maila % 3,2ra jaisten da % 2ra lehen sektoreko langile kualifikatuen artean.

4.7 taula.

Enpleguan intzidentzia izan duen AGP egindako biztanleria landunak, lanbidearen arabera (% bertikalak eta intzidentzia-maila biztanleria landun guztiari dagokionez, ehunekoetan)

Lanbidea	%	Intzidentzia	
		-maila (Zabala)	-maila (Hertsia)
Indar Armatuak	0,0	0,0	0,0
Zuzendariak	8,6	25,8	9,2
Teknikariak	38,9	26,9	8,9
Administrazioko enpleguak	14,3	27,4	10,5
Zerbitzuetako tekn. kualif.	10,5	13,5	4,1
Nekazaritzako/arrantzako lang. kualif.	1,3	16,4	2,0
Eraikuntzako/industriako lang. kualif.	12,7	15,6	5,6
Makineriako operadoreak	11,2	15,2	6,1
Kualifikatu gabeak	2,4	11,3	3,2
<b>GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>19,5</b>	<b>6,8</b>

Lanbide-kategoria zentzu espezifikoan hartuta (landunak betetzen duen lanbideari erreparatu gabe), arautu gabeko prestakuntzaren eta enpleguaren arteko lotura positiboa erakusten duten aktibo landun gehienak teknikariak (% 32,1) edo langile kualifikatuak (% 30,7) dira. Dena dela, enpleguan eragin positiboa izan duten jardueren % 22,3 kualifikatu gabeko langileei dagokie.

Zuzendariak salbuespen izanik, lanbide-kategoriaren eta enpleguan intzidentzia positiboa duen arautu gabeko prestakuntzaren arteko lotura estua frogatua geratu da. Horrela, enpleguan orokorki eragin positiboa izan duten AGPko ekintzaren bat egin duten landunen proportzioa kualifikatu gabeko langileen artean % 13 izatetik, langile kualifikatuen artean % 18,5 izatera heltzen da, % 22,5 erdi-mailako kargudunen artean eta % 30,1 teknikarien artean. Zuzendarien % 19,8 EAEko landunen erdiko mailetan dago, arduradunen mailatik oso hurbil, baina teknikariei dagokien mailaren azpitik, nabarmen.

AGPari lotutako lana hobetzearen edo lortzearen intzidentzia aintzat hartuta, zentzu hertsian, kopuruak teknikarien aldekoak dira, berriro ere: teknikari guztien % 9k lanpostua hobetu du prestakuntza mota hori dela-eta. Maila horiek EAEko batez bestekoa gainditzen dute zuzendarien artean (% 8,5), eta langile kualifikatuen artean (% 7,6), baina maila horren azpitik geratu dira arduradunak (% 5,1) eta kualifikatu gabeko langileak (% 5).

2003ri dagokionez, deigarria gertatzen da teknikoan kategorian ikusten den joera negatiboa, AGParen eragina lanean % 10,8tik gaur egungo % 9ra erortzen baita, eta arduradunengan eta erdi-mailako kargudunengan ere ikusten da joera berdina (% 6,1etik 5,1era jaitsiz). Arduradunen

kasuan berriz, eragina zentzu zabalean hartuta joera aldekoagoa da (% 17,1etik 22,5era igoz), teknikarien artean aitzitik zabaldutako adierazlea erori egiten da (% 31,5etik 30,1era).

#### 4.8 taula.

Enpleguan intzidentzia izan duen AGP egindako biztanleria landuna, lanbide-kategoriaren arabera (% bertikalak eta intzidentzia-maila biztanleria landun guztiari dagokionez, ehunekoetan)

Lanbide-kategoria	%	Intzidentzia	
		-maila (Zabala)	-maila (Hertsia)
Kualifikatu gabea	22,3	13,0	5,0
Kualifikatua	30,7	18,5	7,6
Arduradunak, erdi-mailako kargudunak	10,4	22,5	5,1
Langile teknikariak	32,1	30,1	9,0
Zuzendariak	4,6	19,8	8,5
<b>GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>19,5</b>	<b>6,8</b>

Aurreikus zitekeenez, AGPren eta enpleguaren artean lotura positiboa erakusten duten biztanle landun gehienak (% 75,3) teknologia modernoaz baliatzen dira beren zereginetan.

Beraz, ez da harrizkoa teknologia modernoaren erabilerarekin loturiko enpleguetan lana egiten duen biztanleria izatea arautu gabeko prestakuntzaren intzidentzia handiena duena enpleguan; intzidentzia positibo hori, zentzu zabalean hartuta, duten jarduerak % 18-30 bitartekoak dira, eta enpleguan eragin mugatua (enplegu berria edo hobea lortzea) dutenak % 7-12,5 bitartean. Zenbatekoek behera egiten dute nabarmen ohiko teknologiako enpleguen kasuan, batik bat, produkzio-jardueretan eta gainerako ohiko jardueretan (eragina, zentzu zabalean hartuta, % 11-14 inguru izanik, eta % 3-4 zentzu hertsian hartuta). Hala ere, ehunekoak maila altuenentzako ohiko administrazio sektoreetako landunen kasuan (% 28,6 eta 10,2, hurrenez hurren).

Benetan, datu adierazgarriena prestakuntzaren eragin positiboa administrazioko jarduerekin lotuta egotea da, bere izaera moderno edo ohikoagoa alde batera utzita. AGPren % 12,6k gaur egun administrazio-zeregin informatizatueta lana duten pertsonen enpleguan eragin zuzena dauka, eta % 10,2 ohiko zereginetan. Zabaldutako eraginaren adierazleari buruzko proportzioak % 29,7 eta 28,6 dira. Kopuruak % 7 eta 20ra jaisten dira hurrenez hurren teknologikoki modernoak diren jarduera ez-administratiboetan lana dutenen kasuan, eta proportzio hori % 3-4 eta 11-14 da ohiko teknologia erabiltzen duten jardueretan.



4.9 taula.

Enpleguan intzidentzia izan duen AGP egindako biztanleria landuna, erabilitako teknologiaren arabera

(% bertikalak eta intzidentzia-maila biztanleria landun guztiari dagokionez, ehunekoetan)

Erabilitako teknologia	% Bertikala	Intzidentzia	Intzidentzia
		-maila (Zabala)	-maila (Hertsia)
Ekoiz. automatizatuko tekn. modernoa	11,2	18,2	7,4
Tekn. administratibo informatizatua	26,7	29,7	12,6
Beste tekn. modernoa	37,4	22,1	7,0
Ohiko produkzio-ekipoa	8,0	13,9	4,2
Ohiko tekn. administratiboa	2,6	28,6	10,2
Beste ohiko teknologia	14,1	11,2	3,1
<b>GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>19,5</b>	<b>6,8</b>

Arautu gabeko prestakuntzaren eta enpleguaren arteko lotura positiboa erakusten duten landun gehienak zerbitzu-sektorean ari dira gaur egun (% 61,3). Hala ere, proportzio hori denborak aurrera egin ahala behera doa, 1995ean ikusitako % 71,2tik 1999ko % 66,3ra aldatuz eta gero 2003ko % 64,6ra; gainerako sektoreetan –oraindik gutxiengoa dena, argi- era hazkorrean eragiten duten prozesu bati jarraiki.

Zerbitzu-sektorearen nagusitasuna prestakuntza osagarriak sektore horretako enpleguan eragin erlatibo handiagoa izatearekin lotzen zen 2003. urtera arte. 2007an aldiz, zabalduetako eraginari dagokionez sektorean jasotako % 19,2ak eraikuntzako % 18,3 bakarrik gainditzen du, eta industriako % 20,3 eta lehen sektoreko % 21,5 gaineratik daude.

Nahiz eta 2003ko % 16,9tik suspertzen ari den, azkeneko urteetan zerbitzuen sektorean ikusten den erorketa gogorra aipatu behar da, 1999ko % 24,4tik eta 1995eko % 21,5etik. 2003 arte, aipatutako prozesua industrian ere ikusten zen, nahiz eta ez izan hain adierazgarria; 2003an % 15,8ko intzidentzia zuen eta hori 1999ko % 21,3 baino nabarmen gutxiago bada ere 1995eko % 13,9 baino gehiago da. Azken garaiko joerak, aldiz, 1999ko mailara hurbiltzea ekartzen du, % 20,3ra. Hobekuntza eraikuntzan eta lehen sektorean are deigarriagoa da, bere intzidentzia-maila 2007ko maximoak heltzen dituztelarik.

Bestalde, laneratzearen edo enplegu-hobekuntzaren ikuspegitik AGParen intzidentzia industrian zerbitzuetan baino garrantzitsuagoa da. Nahiz eta 1995eko % 6,1 baino gehiago izan, industrian % 7,2ko intzidentzia 2003ko % 7,3ren antzekoa da eta 1999ko % 8,8 baino gutxiago.

Hala ere zerbitzuetan posizioak galtzea da –hirugarren lekuan orain– adierazgarriena. Gaur egungo % 6,6, 2003ko % 6,5en eta 1995eko % 6,7ren ildoan egonik, argi geratzen da 1999ko % 8,4ren azpian. Eraikuntzak gora egiten du AGParen laneratzearen edo lan-hobekuntzaren intzidentzia-maila 1995ean % 7,9ra, 1999an % 7,2ra eta 2003an % 4,6ra jaitsi eta gero. 2007ko % 8,1 BAKIak ezagutu duen aldiko maximoa da. Lehen sektorean aldeko intzidentzia bere aldetik, 2003an bezala, % 1 baino gutxiago izaten jarraitzen du.

#### 4.10 taula.

Enpleguan intzidentzia izan duen AGP egindako biztanleria landuna, lanbidearen arabera jarduera sektorearen arabera

(% bertikalak eta intzidentzia-maila biztanleria landun guztiari dagokionez, ehunekoetan)

Jarduera-sektorea	%	Intzidentzia	
		-maila (Zabala)	-maila (Hertsia)
Nekazaritza eta arrantza	2,0	21,5	0,8
Industria	28,5	20,3	7,2
Eraikuntza	8,2	18,3	8,1
Zerbitzuetan	61,3	19,2	6,6
<b>GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>19,5</b>	<b>6,8</b>

Enplegu berria edo hobea lortzea eragin duten prestakuntza-ekintzen barruan, prestakuntza-jardueren nondik norakoak aintzat hartu ditugu sektoreka, eta konturatu gara aztertutako egoera positibo gehienak sektore-jardueran espezializatzeko ikastaroei loturik daudela, zerbitzutakoak ez diren sektoreetan (% 39,8; zuzendaritza eta kudeaketari loturiko arloetan % 17,2 eta informatikari loturikoetan % 19,6 soilik). Dena dela, aipagarria da, aurreko urteekin alderatuta bereziki, izaera horizontaleko beste ekintzen rola, % 15ekin.

Alabaina, zerbitzu-sektorean, enpleguan zuzenean eragiten duten AGPko ikastaro sektorialen garrantzia askoz ere txikiagoa da, aintzat hartutako laneratzen kasuen % 26,7tan soilik baita erabakigarria. Aldi berean, zuzendaritza eta kudeaketarekin loturiko ikastaroen garrantzi diferentzialak gora egin du (ikastaro guztien % 29,9), baita informatikoarekin loturikoenak ere (% 24,9). Banaketa hori lehenagoko BAKIaren operazioetan ikusitakoaren oso antzekoa da.

#### 4.11 taula.

Enplegu berria edo hobea lortzeko AGPak izandako intzidentzia egiaztatzen duen biztanleria landuna, arautu gabeko prestakuntzaren edukiaren eta jardueraren arabera

(% bertikalak)

AGParen edukia	Zerbitzuak	Beste sektoreak
Zuzendaritza eta kudeaketa	29,9	17,2

Informatika	8,5	9,6
Hizkuntzak	6,9	5,2
Beste orokorrak	2,3	15,0
Informatika teknikoa	16,4	10,0
Zerbitzuak	26,7	3,2
Beste sektoreak	9,3	39,8
<b>GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>

Establezimenduaren tamainari dagokionez, datu esanguratsuen 2007an ikusten den aldaketa da, 50 langile edo gehiagoko establezimenduetan, enpleguan aldeko eragina duten AGParen kasu-metaketa handiagoarekin: % 45,8 eta horren aldean 3-49 langile dituztenetan % 42,9 (2003an % 40,6 eta 51,6%). Igo egiten da, halaber, % 7,8tik 11,3ra igo ere, langile gutxiagoko zentroen rola.

Arautu gabeko prestakuntzak enpleguan duen intzidentzia zentzu zabalean hartzen badugu, establezimenduaren tamainarekin batera eragina handitzen doan joerari eusten zaio orokorrean. Horrela, 1etik 20ra langile dauzkaten establezimenduetan kopuruak txikiagoak dira eta handiagoak orokorrean kopuru horien gainetik. Maila handiena 20-49 langileko establezimenduei dagokie (% 22) eta 100 baino gehiagokoei (% 23,3 100-499 langilekoei eta % 25,9 500 langile baino gehiagokoei).

AGParen eragina zentzu hertsian aintzat hartuz, laneratzearekin edo enplegu hobekuntzarekin, datuek homogeneizatzeko handiagora jotzen dute. Zentzu horretan, nahiz eta intzidentzia handiagoa izan 20 enplegu edo gehiagoko establezimenduetan, % 7,5-8 inguruan kokatuz, 10 langile baino gutxiagoko zentroetan kopurua % 6ra heltzen da. Era adierazgarrian jaisten den adierazle bakarria 10-19 langileko zentroen eragina da, % 4,9rekin.

10-19 langileko zentroen leku txarra besteekin alderatuta ez da zoriaren arabera, adierazlea etengabe erortzen baita 1999tik. Nahiz eta establezimendu mota horietan erorketa handiagoa izan, antzeko prozesuak ikusten dira 3-49 langileko zentroetan, 2,5 eta 3,5 arteko erorketak jasaten baitituzte 1999an jasotako enpleguan AGParen eraginarekiko zentzu hertsian. Erorketak, ordea, txikiagoak dira 50 langile baino gehiagoko establezimenduetan.

Aintzat hartutako adierazlearen arabera, epe luzera prozesu benetan positibo bakarria 3 langile baino gutxiagoko zentroi dagokiena da. 1999. eta 2003. urteetan % 3 azpitik eutsi ondoren, % 6ra handitzen da laneratzean edo enplegu hobekuntzan AGParen eragina zentzu hertsian.

4.12 taula.

Enpleguan intzidentzia izan duen AGP egindako biztanleria landuna, establezimenduaren tamainaren arabera

(% bertikalak eta intzidentzia-maila erreferentziazko biztanleria landunari dagokionez, ehunekoetan)

Establezimenduaren tamaina	% bertikalak	Intzidentzia	Intzidentzia	Intzidentzia	
		-maila (Zabala)	-maila (Hertsia) 2007	-maila (Hertsia) 2003	-maila (Hertsia) 1999
1etik 2ra	11,3	13,6	6,0	1,8	2,8
3tik 9ra	15,2	18,2	6,0	6,4	8,4
10etik 19ra	7,9	14,1	4,9	8,9	11,0
20tik 49ra	19,7	22,0	7,5	7,4	11,1
50etik 99ra	11,0	19,2	7,6	6,7	9,4
100etik 499ra	20,9	23,3	7,8	7,6	8,6
500 eta hortik gora	13,9	25,9	7,7	9,0	9,0
<b>GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>19,5</b>	<b>6,8</b>	<b>6,5</b>	<b>8,4</b>

Arautu gabeko prestakuntza egitean enpleguan eragin positiboa izan zuten landunen % 66,9k hiru urte baino gehiago darama egungo okupazioan. Proportzio hori 1999an jasotako % 63,2 baino gehiago da, baina 1995ean jasotako % 73,1 baino gutxiago eta 2003an jasotako % 70,4 baino gutxiago ere.

Hala ere, arautu gabeko prestakuntzak enpleguan duen intzidentzia handitu egiten da enpleguan izandako esperientzia-mailak behera egiten duen heinean, eta batez ere, eragin hori laneratzeari edo enplegu hobea lortzeari dagokionez aztertzen badugu. Horrela, egungo enpleguan 3 urte baino gutxiago daramaten landunen % 10,6k, enplegu berria edo hobea lortzarekin lotzen dute arautu gabeko prestakuntza; 3-9 urteko esperientzia dutenen artean, % 6,1ek, eta 10 urte baino gehiagoko esperientzia dutenen artean, % 5ek. Alabaina, azkeneko kasu horretan soilik eusten zaio 2007an 1999ko intzidentzia-mailari; gainerako kasuetan 1999-2007 aldiko adierazlearen beherakada izan da.

4.13 taula.

Enpleguan intzidentzia izan duen AGP egindako biztanleria landuna, egungo okupazioan emandako urte kopuruaren arabera

(% bertikalak eta intzidentzia-maila erreferentziazko biztanleria landunari dagokionez, ehunekoetan)

Urteak egungo okupazioan	% bertikalak	Intzidentzia	Intzidentzia	Intzidentzia	Intzidentzia
		-maila (Zabala)	-maila (Hertsia)	-maila (Hertsia)	-maila (Hertsia)

			2007	2003	1999
3 urte baino gutxiagokoak	33,1	24,6	10,6	8,3	11,3
3-9 urte	27,7	17,2	6,1	6,8	9,1
10 urte edo gehiago	39,1	18,0	5,0	5,0	5,4
<b>GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>19,5</b>	<b>6,8</b>	<b>6,5</b>	<b>8,4</b>

Benetan, adierazle horrek oso ongi adierazten du arautu gabeko prestakuntzak eragin handiagoa izateko joera dagoela kolektibo gazteenen artean. Sexuaren eta adinaren arabera datuei begiratuz gero, aurreko joera hori berretsi egingo dugu: AGParen eta enpleguaren arteko lotura badagoela dioten landunen % 38,8k 35 urte baino gutxiago ditu, eta 45 urtetik beherakoak % 72 dira. Sexuaren arabera, gizonezkoetan proportzio handiagoa ikusten da emakumeetan baino (% 54,9 eta % 45,1 hurrenez hurren).

Eraginari dagokionez, gizonezkoetan zein emakumeetan, 45 urtetik beherako kolektiboetan, arautu gabeko prestakuntzak enpleguan duen eragin handiagoa baieztatu egiten da. Hala ere, enpleguan (zentzu zabalean hartuta) AGParen intzidentzia handiena 35-44 urtekoei dagokie emakumeen kasuan (% 24,6 baitagokie, 35 urtetik beherakoei berriz % 22,5 eta hortik goragokoei % 15,9); gizonezkoen kasuan, 35 urtetik beherakoei dagokie da egoera hori (% 20,9 baitagokie, 35-44 urtekoei % 20,3 eta 45 urtetik goragokoei % 14,8).

Laneratzeari edo enplegu hobekuntzari dagokionez, biztanle gazteak alderatuta kokapen hobea dutela ikusten da gizonen artean, % 9,3 baitute, 35-44 urtekoen % 5,5en aldean eta 45 urte baino gehiagokoen % 5,1en aldean ere. Emakumezkoetan berriz, berriro da aipagarriena 35-44 urteko taldea -% 9,3ekin- 35 urte baino gutxiagokoen gainetik –horiek % 7,4 dute-, eta 45 urte baino gehiagokoen gainetik ere –azken horiek % 4,9 dute-.

2003an ikusitakoa ez bezala, prestakuntzak emakumezko biztanle landunen enpleguan duen eragin orokor positiboena, AGParen eraginaren zentzu hertsian bakarrik eusten dio 2007an 35-44 urteko taldeari dagokionez (% 9,3, eta gizonen artean % 5,5). 45 urte baino gehiagokoen artean, bi sexuen arteko kopuruak % 5 inguruan parean jartzen dira, baina AGParen eragina handiagoa da gizonen kasuan 35 urte baino gutxiagokoen artean (% 9,3 eta emakumeen artean % 7,4). Adierazlea zentzu zabalean hartuz gero, adin-tarte guztietan jasotzen dira emakumearen aldeko ezberdintasunak AGParen enplegurako eraginean.

#### 4.14 taula.

Enpleguan intzidentzia izan duen AGP egindako biztanleria landuna, sexuaren eta adinaren arabera

(% bertikalak eta intzidentzia-maila erreferentziazko biztanleria landunari dagokionez, ehunekoetan)

Sexua eta adina	%	Intzidentzia	
		-maila (Zabala)	-maila (Hertsia)
Gizonak < 35	20,8	20,9	9,3
Gizonak 35-44	17,2	20,3	5,5
Gizonak >= 45	16,8	14,8	5,1
Gizonak	54,9	18,4	6,6
Emak. < 35	18,0	22,5	7,4
Emak. 35-44	16,0	24,6	9,3
Emak. >= 45	11,2	15,9	4,9
Emakumeak	45,1	21,0	7,1
GUZTIRA	100,0	19,5	6,8

### 1.3.- Arautu gabeko prestakuntza lan egiten ez duen biztanlerian

Gaur egun, lan egiten ez duen biztanleria aktiboaren % 36,4k jaso du arautu gabeko prestakuntza, biztanleria landunaren % 38ren zertxobait azpitik. Nahiz eta adierazleak erakusten dituen datuak berriki suspertu diren, 2003ko % 33,2tik gora eginez, berriro ikusten da 1999rekiko erorketa. Urte horretan, lan egiten ez duten biztanle aktiboaren % 40,5ek arautu gabeko prestakuntzaren jardueraren bat egin izana aitortzen zuen.

Dena dela, igo egiten da lan-bizitzan inoiz enpleguan eragin positiboa izan duen prestakuntza-jarduera bat egin izana aitortzen duen egungo lan egiten ez dutenen proportzioa. Erreferentziazko biztanleen % 13,4k egoera hori aipatzen du, 2003ko % 10,3 eta 1999ko % 11,4 baino gehiagok. Lan egiten ez duten biztanle aktiboaren artean, kopuru horiek epe luzerako joera baieztatzen dute laneratzerako edo lan-hobekuntzarako erraztasuna emateko gaitasuna duten AGParen arrakasta handiago bat ezaugarri duena, nahiz eta eragin positibo horrek ez ahalbidetu eraginpeko enplegua epe luzera finkatzen (2007an % 36,9; 2003an % 30,9 eta 1999an % 28,2).

AGParen intzidentzia positiboa enpleguan, aldiz, landunena baino nabarmen gutxiago da (19,5%). Horrek guztiak agerian uzten du gaur egungo lan egiten ez duten biztanleek egindako AGParen arrakasta-maila askoz txikiagoa dela laneratzean eragin positiboa edukitzeko (% 36,9 landunen arteko % 51,2ren aldean).





Jarduera potentzialeko egoeran dauden biztanleen egoera aintzat hartuz, lan egiten ez duten aktiboek dagokienarekin nolabaiteko konbergentzia dagoela egiaztatzen da, AGPko esperientziaren % 35,7 dutelarik (lan egiten ez duten aktiboen % 36,4) eta enpleguaren gaineko eragin positiboko % 12ko zifrak (% 13,4 alderatutako taldean). % 33,6rekin, AGParen arrakasta-maila ere hurbiltzen da lan egiten ez duten aktiboen % 36,9ra.

4.15 taula.

Lan egiten ez duen biztanleria, arautu gabeko prestakuntzako jardueraren arabera  
(Datu absolutuak eta % bertikalak)

AGPko jardueraren motak	Aktiboak	% bertikalak	Pot. aktiboak	% bertikalak
Enpleguan intzidentzia duen				
AGP	8.074	13,4	3.389	12,0
Beste AGP >=2002	6.644	11,1	2.599	9,2
Beste AGP < 2002	7.146	11,9	4.099	14,5
AGP bai	21.864	36,4	10.088	35,7
AGP ez	38.256	63,6	18.150	64,3
<b>GUZTIRA</b>	<b>60.120</b>	<b>100</b>	<b>28.238</b>	<b>100</b>

Gaur egun lan egiten ez duten biztanle aktiboen artean, arautu gabeko prestakuntza egin duten pertsonen proportzioak gora egiten du 35-44 urteko pertsonen artean, % 45etik gorako kopuruekin (% 46,8 gizonen artean eta % 45,3 emakumeen artean). Maximoa berriz 45 urte baino gehiagoko emakumeek dagokie % 52rekin. Proportzioak behera egiten du -baina % 40ri eutsiz-, 45 urte baino gehiagoko gizonen artean (% 40,7). Gutxieneko kopuruak 35 urte baino gutxiagokoei dagozkie, % 31,7rekin emakumeen artean eta % 20,2rekin gizonen artean.

Sexuaren araberako datuek AGParen intzidentzia lan egiten ez duten emakume aktiboen artean handiagoa dela erakusten dute orokorrean, 35-44 urtekoen artean izan ezik, prestakuntza-jardueretarako joera orekatuagoa baitute. Zirkunstantzia horrek AGParen intzidentzia orokorra askoz handiagoa izatea ekartzen du lan egiten ez duten emakumeen artean (% 41 besteen % 31,6ren aldean). Nahiz eta nabarmen izan 2003koa baino handiagoa (% 33,7), adierazitako kopuru hori emakumeen artean 1999koaren zertxobait azpitik kokatzen da (% 43,6). AGPak lana ez duten biztanleen artean etengabe garrantzia galtzea, aldiz, gizonen berezko ezaugarria da. Hori kontuan izanik, gizonen artean, AGPan esperientzia duten lan egiten ez duten pertsonen proportzioa modu jarraituan erortzen da 1999ko % 43,5etik, 2003ko % 32,5era eta 2007ko % 31,6ra.

Potentzialki aktibo diren biztanleak osoki hartuz gero, lan egiten ez duten emakumezko biztanleen joera handiagoa mantentzen da AGPko jarduerak egiteko (% 39,3 eta gizonen %

31,7). Datu horien arrazoia da, 2003an ez bezala, lan egiten ez duten aktiboen eta aktibo potentzialen ezaugarriak gaur egun oso antzekoak direla AGPrako sarbideari dagokionez.

4.16 taula.

Arautu gabeko prestakuntza-ekintzak dauzkaten lan egiten ez duten pertsonen proportzioa lana egiten ez duen biztanleria osoarekiko, sexuaren eta adinaren arabera

Biztanleria aktiboa eta potentzialki aktiboa  
(%-etan)

Sexua eta adina	Biztanleria potentzialki	
	Biztanleria aktiboa	aktiboa
Gizonak < 35	20,2	23,5
Gizonak 35-44	46,8	46,9
Gizonak >= 45	40,7	36,3
Gizonak	31,6	31,7
Emak. < 35	31,7	28,2
Emak. 35-44	45,3	47,6
Emak. >= 45	52,0	45,9
Emakumeak	41,0	39,3
GUZTIRA	36,4	36,2

Arautu gabeko prestakuntzako esperientziari eta laneratze-esperientziari dagozkion datuak batera aztertuta, konturatuko gara lan egiten ez duten pertsona aktibo gehienek (% 54,8) ez dutela inolako esperientziarik izan arautu gabeko prestakuntzarekin, baina bai lan-esperientziaren bat, eta kopuru hori 1999koa baino handiagoa da (% 43), baita 2003ko % 50,1 baino handiagoa ere. Aurreko taldeari egindako AGPko jarduera nagusiari lotutako lan-esperientzia izan zuen % 22,4 erantsi dakioke (% 24,8 1999an eta % 20,3 2003an).

Bestalde, % 0,6 eskasaren ezaugarri da arautu gabeko prestakuntza izatea, baina inolako lan-esperientziarik gabe, 2003ko % 2,6 eta 1999ko % 7 baino askoz gutxiago izan ere. Joera beherakor nabarmena ere dauka 2003ko % 16,7rekiko eta 1999ko % 13,4rekiko, eta % 8,8k ez du bi esperientzia mota horien arteko ezein izan, ez AGPrak ezta enplegu baterako sarbiderik.

Azkenik, arautu gabeko prestakuntzako alde aurreko jarduera batekin zuzenean lotutako lanerako esperientzia izan duen % 13,4 geratzen da, 2003ko % 10,3 zein 1999ko % 11,8 gainditzen dituen kopurua.

Aktibo potentzialen kasuan nabarmen hazten da lan-esperientzia ez duten pertsonen proportzioa, bai AGPko jardueraren bat egin badute (% 3,3 aktiboen % 0,6 eskasaren aldean) edo horrelakorik egin ezean (% 24,1 % 8,8ren aldean). Aldiz, jaitsi egiten da AGPrak gabe lana aurkitzen dutenen proportzioa (% 40,1 aktiboen % 54,8ren aldean). Dena dela, aipatzeko datua,

2003ko egoerarekin alderatuta ikusten bada bereziki, aldeko kopuruak oso parekoak izatea da, AGPari lotutako enplegua zain zuten pertsonei dagozkienak (zentzu hertsian biztanle aktiboen % 12 % 13,4ren aldean). Izan ere, ikuspegi horretatik ere, aktibo potentzialen kolektiboko barne-ezaugarriak 2007an gehiago hurbiltzen dira 2003an ikusten ziren aktiboenetara.

#### 4.17 taula.

Lan egiten ez duen biztanleria, AGPko esperientzia motaren eta laneratzearen arabera  
(Datu absolutuak eta % bertikalak)

AGP esperientzia mota eta laneratzea	Aktiboak	% bertikalak	Pot. aktiboak	% bertikalak
AGPari loturiko enplegua izandakoak	8.074	13,4	3.389	12,0
AGParekin loturarik gabeko enplegua izandakoak	13.447	22,4	5.769	20,4
AGP bai, lan-esperientziarik ez	343	0,6	930	3,3
Lan-esperientzia bai, AGPrik ez	32.964	54,8	11.333	40,1
Ez AGP, ez lan-esperientziarik	5.293	8,8	6.817	24,1
<b>GUZTIRA</b>	<b>60.120</b>	<b>100</b>	<b>28.238</b>	<b>100</b>

Oharra: Esperientzia mota oro aintzat hartu da, noiz izan den kontuan izan gabe

Aurreko datuetan sakonduz zenbait oinarritzko adierazle lor daitezke. Lehenik, egiaztatzen denez, gaur egun lan egiten ez duten eta arautu gabeko prestakuntza duten 21.864 pertsonetatik % 98,4k lan-esperientziaren bat izan dute. Proporzio hori gaur egun lan egiten ez dutenen eta arautu gabeko prestakuntzako jardueretan aurreko esperientziarik gabekoen okupazio-esperientziaren % 82,2 baino gehiago da. Arautu gabeko prestakuntza egiteak edo ez egiteak, nahiz eta ez duen diskriminazio drastikorik sortzen, lan egiten ez duten biztanleen lan-esperientziaren mailan aldeko eragina badauka, aldiz. Gainera, esan behar da ikusitako 12,2 puntuko aldeak epe luzera handitzeko joera daukala, 1999an 8,3 puntuko aldea baitzeukan eta 1995ean, aldiz, puntu eskas batena. Nahiz eta 2003ko 17,3 puntuen azpitik egon, datuek mende berriko lehenengo urteetan prestakuntzako esperientziaren intzidentzia diferentziala nabarmen handiagoa dela agerian uzten dute.

Adierazitako joera aktibo potentzialetan ere ikusten da, AGPko esperientzia duten pertsonen % 90,8k lan-esperientzia baitu eta prestakuntza mota horretan esperientziarik ez duten aktibo potentzialei, aldiz, % 62,4 dagokie. Gainera, 2003an ikusitakoarekiko AGPko esperientziaren aldeko diferentziala nabarmen handitzen da (kopuruak % 77,3 eta 71,1 ziren hurrenez hurren duela lau urte).

Nabarmendu beharreko beste datu bat ere zera da, noizbait lan-esperientziaren bat izanik, arautu gabeko prestakuntza-jarduerak egin dituzten eta egun lan egiten ez duten 21.521

lagunetatik % 37,5ek lana lortzea aurreko prestakuntzarekin lotu zutela egiaztatzen dela. Proportzio hori haziz doa etengabe 1995eko % 27,1ekiko, 1999ko % 32,3rekiko eta 2003ko % 33,5ekiko. Horregatik, AGPak zeharka laneratzea bultzatzen badu ere, zuzenki bere eragina – oraindik ere lan egiten ez dutenen gutxiengo bat eraginpean hartuta bada ere- handiagoa da epe luzera.

Aktibo potentzialen artean, AGPko jarduerak aurretik lan-esperientzia egiteari lotura ikusten dioten pertsonen proportzioa % 37 da, 2007an zentzu hertsian biztanle aktiboentzako aurreikusten denaren antzeko kopurua. Adierazleak 2003ko % 8,3rekiko aurrerakuntza nabarmena islatzen du.

Lan egiten ez duten biztanle aktiboek egindako arautu gabeko prestakuntzaren edukiari dagokionez, informatikarekin, bai orokorrekarekin, bai erabiltzaile-arlokoarekin, lotutako jarduerak nagusitzen dira aintzat hartutako pertsona guztien % 35 barnean hartuz. Sektoreetako jardueretara lotutako prestakuntza-jarduerak bigarren lekuan azaltzen dira, % 14,9 zerbitzuen sektoreari dagokiolarik eta % 17,9 beste sektoreei. Hizkuntzak ere erabakigarriak dira, aintzat hartutako biztanleen % 24,5 mota horretako prestakuntza-jarduerak egiten baititu.

Kopuruak antzekoak dira aktibo potentzialen artean, pertsonen % 35,4k AGPko jarduera nagusiak informatikaren inguruan egin dituelarik. Kasu horretan aldiz, hazi egin da zerbitzuen adarrari lotutako ikastaroak egin dituzten pertsonen proportzioa, (% 28,6 eta beste adarretakoak % 6,3 eskas), paraleloki hizkuntzekin lotutako jardueren garrantzia gutxitzen den heinean (% 8,9).

4.18 taula.

Lan egiten ez duen biztanleria, arautu gabeko prestakuntzaren edukiaren arabera (% bertikalak)

AGParen edukia	Aktiboan %	Pot. Aktiboan %
Zuzendaritza eta kudeaketa	6,6	18,8
Informatika	26,0	35,4
Hizkuntzak	24,5	8,9
Beste orokorrak	0,9	1,9
Informatika teknikoa	9,3	
Zerbitzuak	14,9	28,6
Beste sektoreak	17,9	6,3
<b>GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>

## 2.- ATZERRIKO HIZKUNTZAK JAKITEA

Biztanleria aktiboaren prestakuntza osagarria aztertzeko, ezinbestekoa da atzerriko hizkuntzen ezagutza-maila kontuan hartzea. Atal honetan, EAEko biztanleria aktiboa kokatuko

dugu, prestakuntzaren alde horri begiratuta. Horretarako, hizkuntzen ezagutza-mailari buruzko datu orokorrak aurkeztuko ditugu lehenik, eta aurrerago, ezagutza horrek produkzio-sisteman sartzeko mailan duen eragin diferentziala zehaztuko dugu. Prestakuntza-dimentsio horretan biztanle langabeen egoera espezifikoa buruzko datuak ere ekartzen ditugu.

## 2.1.- Biztanleria aktiboaren hizkuntzen ezagutza-mailari buruzko datu orokorrak

EAEko 253.083 pertsona aktibok hizkuntza atzeritarren bat ongi edo oso ongi ezagutzen duela aitortzen du. Kopuru hori biztanle aktiboen % 25 da, eta 2003ko % 21etik, 1999ko % 19,0tik eta 1995eko % 17,2tik gora etengabe hazten ari da. Beste % 27,1ek erdi-mailako ezagutza duela esaten du (% 25,7 2003an, % 27,1 1999an eta % 23,1 1995ean). Beraz, % 47,9 geratzen da inolako ezagutzarekin edo hizkuntza horietan nahikoa ez den kontrol-mailarekin, eta hala ere, kopuru hori jarraian jaisten ari da azken urteetan (% 53,2 2003an, % 53,9 1999an eta % 59,6 1995ean). Hortaz, datuek osorik epe luzera bilakaera positiboa islatzen dute hizkuntzen ezagutza-mailan, atzerriko hizkuntza bat ongi edo oso ongi erabiltzen duten aktiboen proportzioa haziz batez ere.

Alde nabarmenak ikusten dira hizkuntzen ezagutza-mailan jarduera potentzialeko egoeran dauden biztanleen artean, pertsonen % 19,3k hizkuntza atzeritarren baten ezagutza-maila ona edo oso ona daukalarik eta % 22,1ek erdi-mailakoa. Oro har, multzo horretan, % 41,5ek ezagutza-maila nahikoa du, biztanleria aktiboan ikusitakoaren % 52,1 baino nabarmenki gutxiago.

4.19 taula.

Biztanleria aktiboa, atzerriko hizkuntzen ezagutza-mailaren arabera  
(Datu absolutuak eta % bertikalak)

Atzerriko hizkuntzak jakitea	Datu absolutuak	Aktiboak % ber. 2003	Aktiboak % ber. 2003	Aktiboak % ber. 1999	Aktiboak % ber. 1995	Pot. aktiboak % ber. 2007
Hizkuntzaren bat ongi edo oso ongi	253.083	25,0	21,0	19,0	17,2	19,3
Hizkuntzaren bat hola-hala	274.339	27,1	25,7	27,1	23,1	22,1
Gutxi edo ezer ez	485.298	47,9	53,2	53,9	59,6	58,5
<b>GUZTIRA</b>	<b>1.012.720</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>

Biztanleria aktiboan, hizkuntzen ezagutza-maila handitu egiten da adinean behera egin ahala. Esaterako, 45 urtetik gorako gizonen % 18,4k esaten du ongi edo oso ongi dakiela atzerriko hizkuntzaren bat; 35-44 urtekoetan, proportzioa % 20,4ra igotzen da, eta 35 urtetik beherakoetan % 28,7ra. Aldiz, emakumeetan, proportzioa % 15,4 da 45 urtetik gora eta 35-44 urtekoetan % 27,7; mailarik handiena 35 urtetik beherakoek dute, % 40rekin.

Ikus daitekeen bezala, hizkuntzen ezagutza duten emakumeen proportzioa gizonezkoena baino askoz handiagoa da 45 urte baino gutxiagokoen artean, eta zerbait gutxiago 45 urte baino gehiagoko gizonen aldean.

Adierazleen gorako joera adin eta sexu talde guztietan egiaztatzen da, orokorrean 5 puntutik gorako hobekuntzarekin 1999. eta 2007. urteen artean. Salbuespen bakarra 45 urte baino gehiagoko emakumeei dagokie, 1,9 puntuko hobekuntza txikiarengatik.

Aktibo potentzialei dagozkien datuek kolektibo aktiboena baino hizkuntzen ezagutza-maila askoz txikiagoa erakusten dute. Salbuespen bakarra 35 urte baino gutxiagoko gizonak dira, haien artean aktibo potentzialen % 64,4k hizkuntza atzerritarren bat ongi edo oso ongi ezagutzen duela esaten baitu.

4.20 taula.

Atzerriko hizkuntzaren bat ongi edo oso ongi dakiten aktiboen proportzioa, sexuaren eta adinaren arabera (%-etan)

Sexua eta adina	Ezagutza 2007	Ezagutza 2003	Ezagutza 1999	Aktibo potentzialak 2007
Gizonak < 35	28,7	25,8	20,0	64,4
Gizonak 35-44	20,4	18,2	14,7	
Gizonak >= 45	18,4	12,2	9,6	12,7
Gizonak	22,5	18,9	15,3	44,0
Emak. < 35	40,0	35,7	31,4	21,1
Emak. 35-44	27,7	18,4	19,1	8,9
Emak. >= 45	15,4	12,1	13,5	2,7
Emakumeak	28,4	24,0	24,2	10,6
<b>GUZTIRA</b>	<b>25,0</b>	<b>21,0</b>	<b>19,0</b>	<b>19,3</b>

Hizkuntza atzerritarren bat ongi edo oso ongi ezagutzen dutela esaten dutenek ezagutzen duten hizkuntzari dagokionez, ingelesa da nagusi. Hizkuntzaren bat ongi edo oso ongi dakien biztanleria aktiboaren % 80,7k badaki ingelesa. Horrek esan nahi du, egungo biztanleria aktibo guztiaren % 19,5ek esan duela ingelesa behar bezala dakiela, 2003ko % 17ren, 1999ko % 14,4ren eta 1995eko % 11ren gainetik oso argi.

Gure biztanle aktiboen artean halako ezagutza-maila duen beste hizkuntza frantsesa da. Hizkuntzaren bat ongi edo oso ongi dakiela esaten duten biztanleen % 32,5ek badaki, eta horrek

biztanle aktibo guztien % 8,1 esan nahi du. Datu horrek frantsesaren garrantziaren erorketarako joera gelditzen dela erakusten du, 1995 eta 2003 artean % 7,6tik 6,7ra jaitsi baitzen.

Garrantzian hirugarren hizkuntza alemana da, hizkuntzaren bat ongi edo oso ongi hitz egiten dutenen % 4,5ek bakarrik daki, biztanle aktibo guztien % 1,1 eskasak. Hala ere, ehuneko hori 1999ko % 0,4 baino handiagoa da eta 1995eko eta 2003ko % 0,8-0,9 baino handiagoa ere bai.

Hizkuntza atzerritarren bat ongi edo oso ongi dakitela esaten duten pertsonen % 15,2k beste hizkuntzaren bat ere ondo badakiela esaten du. Biztanle aktiboek % 3,8k besterik ez, 2003ko % 1,8 eta 1999ko % 0,9 baino askoz gehiago. Immigrazio berriaren eragina oso erabakigarria da puntu horretan zalantzarik gabe.

Egiazta daitekeen bezala, 2007an hizkuntza askotariko ezagutza-maila handienak islatzen dira 1995ean BAKI hasi zenetik, oso gorakada azpimarragarriekin ingelesaren ezagutza-mailan eta frantsesa edo alemana ez beste hizkuntzetan.

#### 4.21 taula.

Atzerriko hizkuntzaren bat ongi edo oso ongi dakiten aktiboek dakiten hizkuntza mota  
(Datu absolutuak eta % bertikalak, hizkuntza dakitenei eta biztanleria aktiboari dagokienez)

	Datu	% ber. Ezagutzen dutenekiko	% ber. aktiboekiko 2007	% ber. aktiboekiko 2003	% ber. aktiboekiko 1999
Atzerriko hizkuntza	absolutuak				
Ingelesa	197.636	78,1	19,5	17,0	14,4
Frantsesa	82.148	32,5	8,1	6,7	7,0
Alemana	11.284	4,5	1,1	0,9	0,4
Besteak	38.578	15,2	3,8	1,8	0,9

## 2.2.- Hizkuntzak dakizkiten pertsonen laneratzea

Jarraian, okupazio-sisteman atzerriko hizkuntzaren bat ongi edo oso ongi dakiten biztanleen laneratze-maila aztertuko dugu, produkzio-sistemaren ezaugarriei loturiko aldagai nagusiei erreparatuta.

Oro har, biztanle landunen % 24,8k dio atzerriko hizkuntzaren bat ongi edo oso ongi dakiela duela; proportzio hori antzekoa da biztanle aktiboek artean, % 25. Azken horretan bezala, adierazlearen hazkuntza jarraitua ikusten da 1995eko % 16,1etik, 1999ko % 17,7tik eta 2003ko % 20tik aurrera.

Lanbideari begiratuta, atzerriko hizkuntzak ongi dakizkiten gehienak teknikariak dira, % 45,1 hain zuzen. Administrazioen enplegatuek eta zerbitzu-sektoreko langile kualifikatuek ere garrantzia

dute (% 14,5 eta % 10,6, hurrenez hurren), baita zuzendariak ere (% 9,2). Oro har, atzerriko hizkuntzak ongi dakizkiten landun guztien % 79,4 hiru lanbide mota horietan barne hartzen da.

Lanbide mota bakoitzeko hizkuntza atzerritarren baten ezagutza ona duten landunen proportzioa aintzat hartuz, proportzio horrek ere hartzen du maila altuena aipatutako lau talde profesionaletan. Ehuneko handiena teknikoen kolektiboarena da, % 41,1, zuzendariei eta administrazioko enplegatuei dagokien % 36,5en aldean. Proportzioa zerbitzuen sektoreko langile kualifikatuen artean askoz txikiagoa da, % 17,9 inguru. Azkeneko urteetan zuzendarien artean, administrazioko enplegatuen artean eta neurri txikiagoan zerbitzuen sektoreko langile kualifikatuen artean joera hori zabal hedatzekoa izan bada, ez da berdina gertatzen teknikoekin, ez behintzat 2003-2007 laurtekoan. Hizkuntza atzerritarren bat ongi edo oso ongi dakiten landunen proportzioa % 43,5etik 41,1era erortzen da aldi horretan.

Gainerako talde profesionaletan hizkuntzen ezagutzaren intzidentzia % 10era hurbildu edo ehuneko horren azpitik erortzeko joera dauka, hala ere maila hori gainditzen dute makineriako langileak (% 12,8) eta zerbitzuetako eta garraioko edo deskargako kualifikatu gabeko langileak (% 14 eta 26,1, hurrenez hurren). Kualifikazio gutxieneko biztanleen egoera erlatiboa horrelako lanetan immigrazioaren presentzia desberdinarekin lotuta dago zalantzarik gabe.

#### 4.22 taula.

Atzerriko hizkuntzaren bat ongi edo oso ongi dakien biztanleria landuna, lanbidearen arabera (% bertikalak eta intzidentzia-maila erreferentziazko biztanleria landunari dagokionez, ehunekoetan)

Lanbidea	% bertikalak	Intzidentzia -maila 2007	Intzidentzia -maila 2003	Intzidentzia -maila 1999
Indar Armatuak	0,1	17,9	0,0	0,0
Zuzendariak	9,2	36,5	26,3	19,8
Teknikariak	45,1	41,1	43,5	38,7
Administrazioko enpleguak	14,5	36,5	22,9	24,9
Zerbitzuetako tekn. kualif.	10,6	17,9	17,2	14,7
Nekazaritzako/arrantzako tekn. kualif.	0,6	10,4	0,8	4,0
Eraikuntzako/industriako tekn. kualif.	6,4	10,3	7,4	4,6
Makineriako operadoreak	7,2	12,8	7,9	4,8
Zerbitzuetako tekn. Kualif. gabea	4,1	14,0	6,1	6,7
Nekazaritzako/arrantzako lang. Kualif gabea.	0,0	0,0	0,0	0,0
Eraikuntzako/industriako tekn. Kualif gabea.	1,0	9,0	13,8	7,4



Garraioko/zamalanetako lang.				
Kualif gabea.	1,2	26,1	12,0	9,1
<b>GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>24,8</b>	<b>20,0</b>	<b>17,7</b>

Atzerriko hizkuntzen ezagutza-maila handiagoa da kualifikazio-maila handitu ahala, zalantzarik gabe: kualifikatu gabeetan % 15,1etik teknikari-kategorian landunen % 48,3ra arte. Oro har, hainbat langile soileko kategoriatan, batez bestekoa baino txikiagoa da ezagutza-maila: langile kualifikatuetan % 17,8; aldiz, arduradunek eta erdi-mailako kargudunek batez bestekoaren maila baino pixka bat gehiago dute % 26,6rekin. Lehen ikusi dugunez, batez bestekoa oso erraz gainditzen dute teknikariek nahiz zuzendariak (% 33,8).

Hizkuntzen ezagutza-maila handia dutenen banaketan, hala ere, deigarria egin zaigu atzerriko hizkuntzaren bat badakiten % 53,2 erdi-mailako kargudunen, langile kualifikatuak eta kualifikatu gabeko langileen kolektiboetan barne hartzea, teknikarien % 40,6 eta zuzendarien % 6,2 gaindituta.

Bilakaera aztertuz gero, ia kategoria guztietan ikusten da hizkuntzen ezagutza-mailak jasandako bultzada. Hobekuntza txikiak, paradoxikoki, teknikoaren artean daude, haien maila 2003koaren oso antzekoa baita eta 1999ko % 46,2 baino pixka bat handiagoa. Teknikoaren ezagutza-mailaren egonkortasun erlatiboarekin kontrastean, adierazgarria da arduradunen eta bitarteko arduradunen arteko adierazlearen hazkuntza (1999ko % 14,3tik 2007ko % 26,6ra) eta zuzendarien artean (% 21,7tik 33,8ra).

#### 4.23 taula.

Atzerriko hizkuntzaren bat ongi edo oso ongi dakien biztanleria landuna, lanbide-kategoriaren arabera  
(% bertikalak eta intzidentzia-maila erreferentziatzko biztanleria landunari dagokionez, ehunekoetan)

Lanbide-kategoria	%	Intzidentzia		
		Intzidentzia bertikalak	Intzidentzia -maila 2007	Intzidentzia -maila 2003
kualifikatu gabea	20,3	15,1	11,4	10,7
Kualifikatua	23,2	17,8	13,6	11,6
Arduradunak, erdi-mailako kargudunak	9,7	26,6	20,4	14,3
Langile teknikariak	40,6	48,3	48,6	46,2
Zuzendariak	6,2	33,8	33,6	21,7
<b>GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>24,8</b>	<b>20,0</b>	<b>17,7</b>

Hizkuntzak ongi edo oso ongi dakizkiten biztanle landun gehienak teknologia modernoak baliatuz lan egiten duten postuetara lotuta daude (% 76,1), batez ere, prozesu administratiboetan ekipo informatikoak erabiltzeari (% 30,1) edo produkzioarekin zuzenean lotuta ez dauden teknologia modernoaren beste modu batzuk erabiltzeari (% 36) dagokienez.

Hizkuntzen ezagutza ona duten landunen proportzio handiena aipatutako bi jarduera motetan ikus daitezke. Proportzio handiena, % 42,5ekin, jarduera administratiboak teknologia modernoarekin garatzen dituzten pertsoneri dagokie, % 27an kokatuz teknologikoki modernoak diren beste jardueratan daudenak, produktioetik kanpo. Hala ere, lan administratiboetan ohiko formetara lotutako pertsonen artean hizkuntzen ezagutza egokia duten landunen presentzia deigarria da (% 27,2), eta horrek jardun administratiboetan hizkuntzak aldagai gisa duten garrantzia islatzen du.

Hizkuntzen ezagutza egokia dezente txikiagoa da produkzioko jardueretan, nahiz eta hazi egiten den produkzioko prozesu automatizatuak langileen kasuan: % 20,7 produkzioko prozedura tradizionalak ikusitako % 11,3ren aldean. Produkzioko ohiko jardueretan biztanle landunen artean hizkuntzen ezagutzaren adierazleak gutxienez maila jotzen du jarduera teknologikoaren arabera, ohiko teknologietan oinarritutako gainerako jardueretan izandako % 17k gaituta.

Eboluzio-ikuspegi batetik, biztanle landunen artean hizkuntza atzeritarren ezagutza egokiaren eraginaren hazkuntza ikusten da. Nahiz eta teknologia modernoan oinarritutako jardueretan ere izan adierazgarria (% 35,3tik % 42,5ra), 1999-2007 aldian, igoerak bereziki deigarriak dira produkzioko jardueren esparruan: teknologia modernoarekin automatizatuak produkzio-prozesuetan lan egiten duten pertsonak, % 4,4tik 20,7ra; ohiko produkzio-prozesuetan % 4,3tik 11,3ra. Datu horiek erakusten dute esparru teknologiko bakoitzeko hizkuntzen ezagutza-maila txikiena edukita ere, produkzioarekin lotutako okupazioek azkeneko urteetan biziki aurrera egiten ari direla.

#### 4.24 taula.

Atzerriko hizkuntzaren bat ongi edo oso ongi dakien biztanleria landuna, erabilitako teknologiaren arabera

(% bertikalak eta intzidentzia-maila erreferentziarako biztanleria landunari dagokionez, ehunekoetan)

Erabilitako teknologia	% bertikalak	Intzidentzia -maila 2007	Intzidentzia -maila 2003	Intzidentzia -maila 1999
Produkzio automatizatu modernoak	10,0	20,7	12,6	4,4
Administrazio informatizatua	30,1	42,5	40,7	35,3
Beste tekn. modernoak	36,0	27,0	24,7	23,8
Ohiko produkzio-ekipoa	5,1	11,3	7,3	4,3

Ohiko tekn. administratiboa	1,9	27,2	24,6	21,9
Beste ohiko teknologia	16,9	17,0	14,0	12,8
<b>GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>24,8</b>	<b>20,0</b>	<b>17,7</b>

Jarduera-sektorea ere garrantzitsua da, izan ere, hizkuntzak dakizkitenen % 72,8 zerbitzuetan landun baita. Intzidentziari dagokionez, alde nabarmenak daude: zerbitzu-sektorean lana dutenen % 29,1ek hizkuntza atzerritarren bat ongi daki du, nekazaritzan % 19,6k, industrian % 18,8k, eta eraikuntzan % 13,9k.

Zerbitzuen sektorean gaur egun lana dutenen posizioa neurri batean atzerriko hizkuntzarako sarbidearen hazkuntzarako joerari lotzen zaio, sektorean hizkuntzak ondo dakizkiten landunen proportzioa 1995ean % 20,5 izatetik 1999an % 22,3, 2003an % 24,3 eta gaur egun % 29,1 izatera igaro baita. Zabaltzeko joera hori industrian ere deigarria da (1995ean % 9,5 izatetik, 1999an % 11,8, 2003an % 13,7 eta gaur egun % 18,8 izatera igaro da).

Adierazlearen hazkuntza-erritmoa eraikuntzan, ordea, mantsoagoa da. 1999-2003 laurteko hazkuntzaren ondoren % 7,6tik 12,6ra, adierazlea % 13,9 eskasean kokatzen da 2007an, 1995ean baino 5,3 puntu eskas gehiago (% 7,6\*). Immigrazioaren eragina, aldiz, argi nabari da lehen sektorean, 2007an % 19,6ra iritsiz, 1999ko % 5,1 eta 2003ko % 8,7 baino askoz gehiago.

#### 4.25 taula.

Atzerriko hizkuntzaren bat ongi edo oso ongi dakien biztanleria landuna, jarduera-sektorearen arabera

(% bertikalak eta intzidentzia-maila erreferentziako biztanleria landunari dagokionez, ehunekoetan)

Jarduera-sektorea	% bertikalak	Intzidentzia -maila 2007	Intzidentzia -maila 2003	Intzidentzia -maila 1999
Nekazaritza eta arrantza	1,4	19,6	8,7	5,1
Industria	20,8	18,8	13,7	11,8
Eraikuntza	4,9	13,9	12,6	7,6
Zerbitzuak	72,8	29,1	24,3	22,3
<b>GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>24,8</b>	<b>20,0</b>	<b>17,7</b>

Aurrera eginez, azpimarratu beharreko beste alderdi bat da hizkuntzak ongi dakizkitenen proportzioak intzidentzia handiagoa duela okupazioan urte gutxiagoko esperientzia duten landunen kolektiboetan. Hiru urte baino gutxiagoko esperientzia dutenen adierazlea % 32 da, 3-9 urteko esperientzia dutenetan % 25,5, eta egungo enpleguan 10 urte baino gehiago daramatenetan % 19,8.

Azkenaldiko eboluzioak, ordea, zenbait joera ezberdin erakusten ditu. Hori horrela, 2007an beren enpleguan 3-9 urte zeramatenen % 25,5eko kopurua 1999ko % 26ren antzekoa da, 2003an izandako erorketak baldintzatuta dagoela ikusten dugularik (22,6%). Epe luzean beren enpleguan 3 urte baino gutxiago daramaten pertsonen artean ezagutza-maila nabarmen handitzen da (1999-2007 aldian % 17,4tik 32ra), baita beren okupazioan 10 urte baino gehiago daramaten pertsonen artean ere (% 7,6tik 19,8ra).

Antza, hizkuntzak hobeto jakiteak lan berria lortzen edo lanean epe luzean irauten laguntzen du, datu horien argitara. Izan ere, 1999an hizkuntzak ongi zekizkien biztanleriaren % 1,1ek hamar urte baino gehiago zeramatzen enpleguan, baina gaur egun, proportzio hori % 33,9ra igo da. Datu honek agerian uzten du atzerriko hizkuntzak ondo ezagutzea oso epe luzera enpleguan egonkortasuna lortzeko osagaia dela.

#### 4.26 taula.

Atzerriko hizkuntzaren bat ongi edo oso ongi dakien biztanleria landuna, egungo okupazioan emandako urteen arabera  
(% bertikalak eta intzidentzia-maila erreferentziazko biztanleria landunari dagokionez, ehunekoetan)

Urteak egungo okupazioan	% bertikalak	Intzidentzia -maila 2007	Intzidentzia -maila 2003	Intzidentzia -maila 1999
3 urte baino gutxiagokoak	33,9	32,0	26,9	17,4
3-9 urte	32,2	25,5	22,6	26,0
10 urte edo gehiagokoak	33,9	19,8	13,3	7,6
<b>GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>24,8</b>	<b>20,0</b>	<b>17,7</b>

Atzerriko hizkuntzaren bat behar bezainbeste dakiten landun gehienak gazteak dira. % 48,3k 35 urte baino gutxiago ditu, eta % 27,4k 35-44 urte.

Izan ere, atzerriko hizkuntzen ezagutza-mailarik handiena landun gazteenetan ikusten da, eta batik bat, emakumeen kasuan, % 39,7ra helduta (% 29,8 gizonetan). Kopurua ere altua da 35-44 urteko emakumeen artean, % 27,8, eta % 18tik 20ra bitartean 35 urte baino gehiagoko gizonen artean. Gutxieneko maila (% 14,7) 45 urte baino gehiagoko emakumeei dagokie.

Egiazta daitekeen bezala, gehieneko adineko pertsonen landunen taldean izan ezik, gainerako kasuetan hizkuntzen ezagutza-maila 8 eta 10 puntu artean igotzen da emakumeen artean. Oro har, emakumeen % 27,9k badaki hizkuntzaren bat, maila egokian, eta gizonetan, aldiz, % 22,5 dira.

1999-2007 aldian bilakaera oso positiboa da gizonen adin-talde guztietan, gorakada nabarmenekin 35 urte baino gutxiagokoen eta 45 urte baino gehiagokoen artean (% 19tik 29,8ra eta % 9,4tik 18ra, hurrenez hurren). Aurrerakuntza ere oso nabarmena da 45 urte baino gutxiagoko emakumeen artean, 35-44 urtekoek 1999-2003 aldiko erorketatik gora egiten dute berriz (% 20,1etik 18,1era lehen, % 27,8ra igotzeko berriz 2007an); 35 urte baino gutxiagokoek beren goranzko joera jarraituari eusten diote (% 28,9tik 39,7ra 1999-2007 aldian).

Adierazitako testuinguruan, 45 urte baino gehiagoko emakumeak salbuespen dira. Kasu horretan 1999-2003 aldian izandako erorketa % 15,1etik 11,6ra ez du azken urteotan ahalbidetzen 1999ko maila erabat berreskuratzea, adierazlea 2007an % 14,7n kokatzen baita.

#### 4.27 taula.

Atzerriko hizkuntzaren bat ongi edo oso ongi dakien biztanleria landuna, sexuaren eta adinaren arabera

(% bertikalak eta intzidentzia-maila erreferentziazko biztanleria landunari dagokionez, ehunekoetan)

Sexua eta adina	% bertikalak	Intzidentzia -maila 2007	Intzidentzia -maila 2003	Intzidentzia -maila 1999
Gizonak < 35	23,3	29,8	24,9	19,0
Gizonak 35-44	13,2	19,9	17,9	14,7
Gizonak >= 45	16,2	18,0	12,2	9,4
Gizonak	52,7	22,5	18,3	14,5
Emak. < 35	25,0	39,7	34,2	28,9
Emak. 35-44	14,2	27,8	18,1	20,1
Emak. >= 45	8,1	14,7	11,6	15,1
Emakumeak	47,3	27,9	22,6	23,2
GUZTIRA	100	24,8	20,0	17,7

### 2.3.- Lan egiten ez duen biztanleriaren hizkuntzen ezagutza-maila

Hizkuntzen ezagutza duten pertsonen proportzioa handiagoa da lan egiten ez duten biztanle aktiboaren artean landunen artean baino, ezagutza hori % 28,7 izanik, 1999ko % 25,1 baino gehiago. Erreferentziazko proportzioa landunena baino handiagoa izaten jarraitzen du potentzialki aktibo diren biztanleak osoki hartuta ere, kolektibo horretan % 25,7ra iritsita.

Lan egiten ez duten aktiboaren artean berriro ikusten da adinak behera egin ahala hizkuntzen ezagutzaren intzidentziak gora egiteko joera, eta 35 urte baino gutxiagokoen % 48,2k hizkuntza atzeritarren bat ondo badaki, proportzioa % 76,5era heltzen da 45 urte baino gutxiagokoen artean.

Erlatiboki, ezagutza-maila handiak berriro ere 35 urte baino gutxiagokoen artean ematen dira, eta lan egiten ez dutenen % 42,9k hizkuntza atzeritarren bat ongi edo oso ongi daki. Gainerako adin- eta sexu-taldeetan antzeko maila ikusten da, % 27 eta % 30 artiko maila, hain zuzen ere. Salbuespen bakarra 35 urte baino gutxiagoko lan egiten ez duten gizonei dagokie, % 15,7 eskasak baitauka ezagutza-maila ona. Gainera kasu bakarra da, pertsona langabeen artean, hizkuntzak dakizkiten pertsonengan maila txikiagoa ikusten zaiena 2007an 1999an baino. Egoera horren jatorria azkeneko lau urteetan ikusitako erorketa indartsuan datza: 1999-2003 aldirian % 24,4tik 31,8ra igo ondoren, adierazlea zakar erortzen da gaur eguneko % 15,7raino.

Aurreko urteetan bezala, hizkuntzak dakizkiten lan egiten ez duten emakumeen proportzioa gizonena baino askoz handiagoa izaten jarraitzen du (% 34,3 % 22,7ren aldean). 1999-2003 aldiaren aldean, gizonetikiko distantzia handitzen da 2003-2007 aldian.

Hizkuntzen ezagutza ona duten lan egiten ez duten emakumeen proportzioa azken laurtekoan % 33,3tik 34,3ra hazi bada, 35 urte baino gutxiagoko gizonengan ikusten den erorketa lan egiten ez duten gizonezko biztanleen adierazlearen erorketa bihurtu da (2003ko % 27,3tik 2007ko % 22,7ra).

Lan egiten ez duten aktiboen eta aktibo potentzialen multzoari dagozkion datuak, dena den, desberdinak dira oraindik ere zentzu hertsian lan egiten ez duen biztanleriari dagozkionekin alderatuta. Biztanle aktibo potentzialak osotasunean aintzat hartzean, hain zuzen, emakumeen artean hizkuntzen ezagutzaren intzidentzia txikiagoa ikusten da (% 24,7 gizonezkoen % 27ren aldean); horrek erakusten du praktikan lan-merkatutik kanpo geratzeko prestakuntza-maila txikiagoa duten emakumeen joera handiagoak arlo horretako emakumearen kualifikazio ezberdinaren errealitatea puztu dezakeela. Izan ere, gizonezko aktibo potentzialen % 44k hizkuntzen ezagutza ona daukate, eta proportzioa, aldiz, % 10,6 eskasa da jarduera potentzialeko egoeran dauden emakumeen artean.

2003. urtean bezala, potentzialki aktibo dauden biztanleen multzoa osorik aintzat hartuta, 35 urte baino gutxiagoko artean bakarrik aipa daiteke lan egin gabe, aktibo edo potentzialki aktibo dauden emakumeen artean hizkuntzen ezagutza-maila handiagoa dela. Gainerako kasuetan, hizkuntzen ezagutza-maila gizonezkoen aldean 10 puntu gehiagokoa da gutxi gorabehera.

#### 4.28 taula

Atzerriko hizkuntzaren bat ongi edo oso ongi dakien biztanleria landuna, sexuaren eta adinaren arabera

#### Biztanleria aktiboa eta potentzialki aktiboa (%-etan)

Sexua eta adina	% bertikalak	Intzidentzia -maila 2007	Intzidentzia -maila 2003	Intzidentzia -maila 1999	Intzidentzia-maila 2007 Pot. aktiboak
Gizonak < 35	14,2	15,7	31,8	24,4	26,8
Gizonak 35-44	14,3	30,6	23,4	14,4	29,2
Gizonak >= 45	10,4	30,4	12,0	15,0	25,2
Gizonak	38,9	22,7	27,3	21,7	27,0
Emak. < 35	34,0	42,9	42,5	37,2	35,6
Emak. 35-44	14,0	27,0	20,9	16,0	19,6
Emak. >= 45	13,1	28,0	18,8	6,0	15,6
Emakumeak	61,1	34,3	33,3	27,2	24,7
GUZTIRA	100	28,7	30,8	25,1	25,7

**V. EAEko BIZTANLERIA AKTIBOAREN TIPOLOGIA,  
KUALIFIKAZIO MAILAREN ARABERA**



## **EAEko BIZTANLERIA AKTIBOAREN TIPOLOGIA, KUALIFIKAZIO MAILAREN ARABERA**

Biztanleria aktiboaren egiazko kualifikazio-maila baldintzatzen duten elementuak aztertu ditugunez, kolektibo horren kualifikazioaren balorazio sintetikoa egiteko moduan gaude orain. Horretarako, 1995. urteko BAKlan ezarritako tipologiaz baliatuko gara, oinarrizko hiru alderdi kontuan izanik: lan-esperientzia, ikasketa kualifikatuak izatea edo ez izatea, eta arautu gabeko prestakuntza-jarduera esanguratsuak burutu izana.

Tipologia hori lortzeko, honako oinarrizko printzipio hauetatik abiatuko gara:

1. Azterlan honetan aztergai izan ditugun lan-esperientziako hainbat egoerari dagokionez, lan-esperientzia esanguratsutzat hartu ditugu honako bi egoera hauek, gaur egungo produkzio-sistemaren baitan:

a) Teknologia modernoko lanpostu batean segidako gutxienez hiru urtez aritzea, gaur egun lanpostu horretan aritu ala ez aritu.

b) Teknologia modernorik gabeko lanpostu batean gutxienez hamar urtez aritzea, egun oraindik lanpostu horretan ari direnentzat.

2. Bestalde, ikasketa kualifikatutzat jotzen dira prestakuntza teknikoa eta lanbide-espezializazio esanguratsua ematen duten ikasketak, unibertsitateko ikasketak eta bigarren mailako lanbide-heziketa barnean hartuta.

3. Azkenik, heziketa osagarritzat hartzen da hizkuntzaren bat ongi edo oso ongi jakitea, baita arautu gabeko prestakuntza-ekintzak egin izana ere, betiere enpleguarengan intzidentzia frogatu badute (lanpostu bat lortzeko edo egungo lanpostuan aurrera egiteko balio izan badute).

Lanbidekoak ez diren bigarren mailako ikasketak edo lanbide heziketa I. mailako ikasketak amaitu dituztenak laneko esperientzia esanguratsurik ez dutenen multzoan barne hartzen dira.

Aurreko tipologia aplikatzeari dagozkion datuak 5.1 taulan jaso ditugu.

### 5.1 taula.

Biztanleria aktiboa kualifikazio-maila orokorraren arabera  
(Datu absolutuak, % bertikalak eta biztanleriaren hazkunde-tasak, %-etan)

Kualifikazio-maila orokorra	Datu		Datu		% hazkundera 2003/2007	% ber. Potenzialki aktiboak 2007
	absolutuak 2007	% ber. 2007	absolutuak 2003	% ber. 2003		
Ikasketa kualifikatuak eta lan-esp. esanguratsua	331.891	32,8	246.899	24,8	34,4	1,6
Lan-esp. esang., hezik. osagarri esanguratsurekin	42.864	4,2	32.002	3,2	33,9	3,1
Lan-esp. esang., ikasketa kualif. gabe	256.399	25,3	272.321	27,3	-5,8	2,4
Ikasketa kualifikatuak lan-esp. esanguratsurik gabe	164.187	16,2	175.567	17,6	-6,5	25,6
Prestak. osagarri esang., lan-esp. esanguratsurik gabe	108.864	10,7	128.896	12,9	-15,5	25,2
Ez lan-esp. esang., ez ikasketa kualifikaturik	108.516	10,7	140.733	14,1	-22,9	42,1
<b>GUZTIRA</b>	<b>1.012.720</b>	<b>100</b>	<b>996.418</b>	<b>100</b>	<b>1,6</b>	<b>100</b>

Aurreko taulan ikus daitekeenez, aztertu ditugun lan-esperientzia esanguratsua mailak EAEko biztanleria aktiboaren erdiari baino gehiagori eragiten dio 2003. urtean, hain justu, % 62,3ri. % 32,8k prestakuntza arautu kualifikatuarekin lotzen du lan-esperientzia, eta % 4,2k arautu gabeko prestakuntza osagarriarekin, enpleguan eragina duena eta/edo atzerriko hizkuntzaren bat ongi edo oso ongi jakitearekin loturik dagoena. Batez ere lan-esperientziatik nabarmentzen direnek (prestakuntza arauturen bat edo arautu gabeko prestakuntza osagarriaren bat ez dutenak) biztanleria aktiboaren % 25,3 osatzen dute.

Bilakaerari begiratuta, lan-esperientzia esanguratsua duten kolektiboek dagokien zatia handitu egin da. Gaur egun % 62,3 bada ere, 2003. urtean adierazle hori % 55,3 zen eta, 1995. urtetik 1999. urtera bitarte berriz, % 49,7tik % 48,5era jaitsi zen. 1999. urtetik 2007. urtera bitarte ikusitako gorakada bezain garrantzitsua, gorakada hori lan-esperientzia esanguratsua izateaz gain, prestakuntza kualifikatuak dituztenei dagokiena dela da. Talde horrek biztanleriaren % 17,9 osatzen zuen 1995. urtean, 1999. urtean % 19,5, 2003. urtean % 24,8 eta 2007. urtean % 32,8. Goranzko bilakaera hori biztanleria aktiboa kuantitatiboki handitzen den garaian gertatuenez, eragindako lagunen bolumena izugarri handitu da (166.483 lagun 1995. urtean, 192.732 lagun 1999. urtean, 246.899 lagun 2003. urtean eta 331.891 lagun 2007. urtean), 2003-2007 aldian % 34,4ko igoera izanik (1999-2003 aldiko % 28,1 handitu eta sendotu egiten du).

Aitzitik, lan-esperientzia eta prestakuntza osagarri esanguratsua dutenen garrantzia 1995. urtekoa baino txikiagoa da oraindik ere, termino erlatiboetan (% 4,2 eta % 5,4) nahiz kuantitatibotan (42.864 gaur egun, eta 1995. urtean 50.365 lagun). Dena dela, kolektibo horren garrantzi erlatiboa eta bolumen absolutua izugarri suspertu da azken urteetan. 1999-2003 aldian erreferentzia-biztanleria, termino erlatiboetan, % 15,1 handitu zen, eta 2003-2007 aldian % 33,9. 1999. urtetik aurrera beraz, lana lortzeko orduan AGParen edo hizkuntzen eragina gero eta handiagoa da.

Esperientzia bai baina araututako edo arautu gabeko prestakuntza esanguratsurik gabekoen kolektiboaren garrantzi erlatiboa zertxobait jaitsi egin da. 1999-2003 aldian % 26,2tik % 27,3ra eta 1995. urtean % 26,4ra igo ondoren, 2007. urtean kolektibo horren eragina biztanleria aktiboan % 25,3ra jaitsi da. Termino kuantitatiboetan, beherakada ez da hain handia izan. 2003. urtera bitarte biztanleria aktiboen bolumena handitu egin da: 1995. urtean 245.122 lagun, 1999. urtean 259.727 eta 2003. urtean 272.321. 2003-2007 laurtekoan izan du bolumenik txikiena 256.399 lagunekin. 2003-2007 aldian izandako % 5,8ko beherakadak kontrastea egiten du lan-esperientzia esanguratsua duten aktibo motek izan duten % 34 inguruko igoerarekin.

Lan-esperientzia esanguratsurik ez dutenak biztanleria aktiboaren % 37,7 dira (1995. urteko % 50,2, 1999. urteko % 51,5 eta 2003. urteko % 44,7 baino gutxiago). Maila handiko araututako prestakuntza kualifikatua dutenak % 16,2 dira; % 10,7k prestakuntza osagarriren bat jaso du (lanbidekoak ez diren bigarren mailako ikasketak, I. mailako lanbide-heziketa, arautu gabeko prestakuntza osagarri esanguratsuren bat, edo atzerriko hizkuntzaren bat ongi jakitea).

Bi kasuetan, eta 1999. urteko datuekin alderatuta, garrantzi erlatiboaren beherakada ikusten da biztanleria aktiboan. Prestakuntza kualifikatua dutenei dagokienez, 1995. urteko % 15,7tik handitu ondoren, proportzioa jaitsi egiten da 1999. urtean eman zen gehienezko % 20,4tik 2003. urtean emandako % 17,6ra eta 2007. urteko % 16,2ra, azken hau 1995. urteko zenbatekoaren antzekoa. Biztanleria bolumenari dagokionez, 2003-2007 aldian % 6,5eko biztanleriaren beherakada ikus daiteke eta horrek handitu egiten du 1999-2003 aldian emandako % 12,9ko beherakada. Hala ere, ikasketa kualifikatuak dituztenen egungo aktibo bolumena 1995. urtekoa baino handiagoa da (164.187 lagun, 1995. urtean 145.650 eta 1999. urtean 201.564 lagun, gehienezko maila.).

Bestelako prestakuntza esanguratsua duen biztanleria aktiboak berriz behera egin du, 1999. urteko % 14,8tik, 2003. urteko % 12,9ra eta 2007. urteko % 10,7ra. Aurreko taldean ez bezala, biztanleria bolumena murrizteko erritmoa handitu egiten da 2003-2007 aldian (% 15,5), eta horrek areagotu egiten du 1999-2003 aldian izandako % 12ko beherakada. Oro har, BAKI egin zenean, bestelako prestakuntza esanguratsuren bolumenik txikiena 2007. urtean izan zen, 108.964 lagunekin. 2003. urtean 128.896 lagun ziren, 1995. urtean 129.418 eta 1999. urtean gehienezko 146.485 lagun izan ziren.

Aurreko datu horiei erreparatuta, EAeko biztanleria aktiboaren % 89,3k badu faktore esanguratsuren bat kualifikazioari dagokionez, bai prestakuntza arautu kualifikatua, bai lan-esperientzia esanguratsua, bai enpleguan eragina frogatu duen arautu gabeko prestakuntza osagarria, edo lan-esperientziarik ez dutenen kasuan, gutxieneko hezkuntza-maila bat

(lanbidekoak ez diren bigarren mailako ikasketak, edo I. mailako lanbide-prestakuntza). Proporzio hori pixkanaka handituz doa 1995eko % 79,4tik.

Ondorioz, gure Autonomia Erkidegoko aktiboen % 10,7k soilik ez du aztertutako ezaugarri kualifikatzaile horietako bat bera ere betetzen. Ehunekoak 1995. urteko % 20,6, 1999. urteko % 16,4 eta 2003. urteko % 14,1 baino nabarmen txikiagoa da. Termino absolutuetan, 1995. urtean egoera horretan zeuden 191.757 lagunetatik 2007. urteko 108.516 lagunetara igarotzea dakar.

2003-2007 aldiko ezaugarri bereizgarriena honako hau da: ikasketak eta lan-esperientzia esanguratsua dutenen garrantzi absolutua eta erlatiboa handitu egin da; horrekin batera, ikasketa esanguratsuak bai, baina lan-esperientziarik ez dutenen bolumenak behera egin du 1999. urtetik 2003. urtera bitarte nabarmena zen joerari eutsiz. Horrela, 1995. urtetik 1999. urtera izugarri handitzen ari zen biztanleria aktiboa genuen, baina lan-esperientzia esanguratsurik gabeko taldeen garrantzia deigarria zen; aldiz, 1999. urtetik 2007. urtera bitarte, lan-esperientzia esanguratsua lortu duten aktibo-kolektiboak egonkortu egin dira, eta horien barruan, prestakuntzari dagokionez, kualifikazio handiena dutenak.

Bestalde, egungo biztanleria aktiboaren eta kolektibo potentzialki aktiboen egituran alde nabarmena dagoela aipatu behar dugu. Bide berari helduta, aktibo potentzialen artean, lan-esperientzia esanguratsurik ez dutenak nabarmentzen dira, % 92,8 baitira (aktiboen artean % 37,7 izanik). Inolako kualifikaziorik (ez prestakuntza-aldetik, ezta lan-esperientziarekin lotutakorik ere) ez duen lagun multzoa ere handi samarra izatea da beste ezaugarri aipagarrietako bat. Potentzialki aktiboen % 42,1 sartzen da multzo horretan (aktiboetan % 10,7).

Hurrengo puntuan, talde bakoitza zehatz-mehatz aztertuko dugu, ezaugarri soziodemografikoen arabera, talde profesional eta lanbide-kategorien arabera, jarduera-adarren arabera, eta kontratu motaren arabera. Biztanleria aktiboa da aztertuko duguna baina potentzialki aktiboen kolektiboaren datu osagarri batzuk ere emango ditugu.

## **1.- IKASKETA KUALIFIKATUAK ETA LAN ESPERIENTZIA ESANGURATSUA DITUEN BIZTANLERIA**

Prestakuntza arautu kualifikatua (hirugarren mailakoak edo II. mailako bigarren mailako lanbidekoak) ez ezik, egungo produkzio-sisteman lan-esperientzia esanguratsua ere baduten —edo lanbide-ibilbidean inoiz izan duten— aktiboek osatzen dute Gure Autonomia Erkidegoko multzorik kualifikatuena.

Gaur egun, 331.891 lagun barne hartzen dira multzo horretan, biztanleria aktiboaren % 32,8, alegia (1999. urteko % 19,5 eta 2003. urteko % 24,8 gaindituta). 2003-2007 aldian, kolektibo horrek biztanleria aktiboan duen garrantzi erlatiboa % 34,4 hazi da, 1999-2003 laurtekoarekin alderatuz, multzoaren guztizko bolumenak % 28,1 gora egin baitu. Bilakaera hori dela-eta, Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleria aktiboaren eragin erlatiboa asko handitu da.

Oro har, aktibo mota hori oso sakabanatua dago adinaren eta sexuaren araberako taldeetan, eta garrantzia aldakorra da (% 13 eta % 16,5 artekoa) 35 urtetik beherako taldeetan eta 35 urtetik gorako emakumeen taldeetan. 33-44 urteko gizonetan proportzioa % 19,1era igotzen da eta 45 urtetik gorako emakumeetan % 23,5era. Azterturiko aktibo gehienak multzo horretan daude, 35 urtetik gorako gizonen multzoan, alegia (% 42,7), 2003. urteko zenbatekoaren antzekoa (% 42,9).

2003-2007 aldiko bilakaerak erakusten duenez, gero eta emakume gehiago dira lanpostu egonkorra eta ikasketa kualifikatuak dituztenak, gizonen % 26,5eko igoeraren aurrean, % 45,9ko igoerarekin. 35 urtez azpiko emakumeetan (% 46,6) eta 45 urtez gorako emakumeetan gertatzen da igoerarik adierazgarriena (% 65,5). 35-44 urteko emakumeetan % 33,3ra murrizten da, 45 urtez gorako gizonen % 40 baino erregistro txikiagoa. 35-44 urteko gizonetan maila % 26,4ra jaisten da, eta 35 urtez azpikoetan % 8ra. Egiazta daitekeenez, zenbateko horiek hazkunde-erritmo handiagoa adierazten dute adinak gora egin ahala, dela gizonetan, dela emakumeetan, 35 urtez azpiko emakumeen kasuan izan ezik. Hori aldaketa handia da 1999-2003 aldian izandako bilakaerarekin alderatzen badugu, izan ere, orduan hazkundea handiagoa zen adinean behera egin ahala.

2003-2007 aldian emakumeek izandako bilakaera positiboa bada ere, aztergai dugun kolektibo horretan gizonen proportzioa emakumeena baino zertxobait altuagoa da, % 55,8. 2003-2007 aldian aldiz, emakumeen partaidetza % 40,7tik % 44,2ra igo egiten da. 2003. urtean ez bezala, orain ikasketa kualifikatuak eta lan-esperientzia esanguratsua duten 35 urtez azpiko emakumeen kopurua handiagoa da (emakumeak % 15 eta gizonak % 13,2). 35 urtez gorako kasuetan gizonaren aldeko aldea nabarmena da, eta bereziki adierazgarria da 45 urtez gorako

lagunetan (adin horietan, gizonak % 23,5 eta emakumeak % 12,7; 35 eta 44 urtekoetan berriz, gizonak % 19,1 eta emakumeak % 16,5).

#### 5.2 taula.

Ikasketa kualifikatuak eta lan-esperientzia esanguratsua dituen biztanleria aktiboa, sexuaren eta adinaren arabera.

(Datu absolutuak, % bertikalak eta biztanleriaren hazkunde-tasak, %-etan)

Sexua eta adina	Datu absolutuak	% bertikalak	% hazkundera 2003/2007
Gizonak < 35	43.698	13,2	8,0
Gizonak 35-44	63.487	19,1	26,4
Gizonak >= 45	78.159	23,5	40,0
Gizonak	185.344	55,8	26,5
Emak. < 35	49.838	15,0	46,6
Emak. 35-44	54.665	16,5	33,3
Emak. >= 45	42.045	12,7	65,5
Emakumeak	146.547	44,2	45,9
<b>GUZTIRA</b>	<b>331.891</b>	<b>100</b>	<b>34,4</b>

Aktibo horietan lan egiten ez dutenen tasa oso txikia da. Ikasketa kualifikatuak eta lan-esperientzia esanguratsua dituzten aktiboen % 2,3 soilik dago gaur egun lanik egin gabe. Datu horrek adierazten duenez, lan-merkatuko parte-hartzea sendotzeari begira, prestakuntza kualifikatua lortzea eta gutxieneko lan-esperientzialdia lortzeko aukera izatea oso garrantzitsua da.

Halere, desokupazioak zertxobait gora egin duela esan behar da. 1995. urtetik 2003. urtera bitarte % 3,2tik % 1,7ra jaitsi ostean, kopurua igo egin da % 2,3ra, eta 1999. urtean izan zen % 2,3tik oso hurbil dago. Nolanahi ere, aldaketa txikia da (1995. urtetik 2007. urtera bitarteko zenbatekoak % 1,7 eta % 3,2 artekoak dira) eta aktibo talde horretan gutxieneko desokupazio-maila dagoela adierazten dute.

#### 5.3 taula.

Ikasketa kualifikatuak eta lan-esperientzia esanguratsua dituen biztanleria aktiboa, jarduerarekiko loturaren arabera.

(Datu absolutuak eta % bertikalak)

Jarduerarekiko lotura	Datu absolutuak	% bertikalak
Landuna	324.243	97,7
Lanik egiten ez duena esperientziarekin	7.649	2,3
<b>GUZTIRA</b>	<b>331.891</b>	<b>100</b>



Sexuaren eta adinaren arabera langabezia-tasa espezifikoak oso txikiak izaten dira beti aktibo-kolektibo horretan, % 3tik beherakoak. 2007. urtean langabezia-tasa handiena 35-44 urteko emakumeei dagokie (% 4,2), baina EAEko lan-merkatuaren gaur egungo egoera ikusita, tasa handiena ere oso txikia da, modu erlatiboan. Adin-talde hori da 1995. urtetik 2007. urtera bitarte izandako langabezia-tasen beherakadari eutsi dion bakarra (1995. urtean % 2,6, 1999. urtean % 4,9, 2003. urtean % 3,2ra jaitsi zen eta 2007. urtean berriz, 4,2ra igo zen), beraz, 1995. urteko tasa baino askoz handiagoa. 2003-2007 aldian, adinaren arabera gizonen taldeetan tasek gora egiten badute ere eta 1995. urteko mailan edo goragokoan jartzen badira ere, 2003. urtean ez dago inolaz ere % 2,5eko maila baino handiagorik.

Azkenaldian izandako bilakaera adierazgarria dela-eta, emakumeen langabezia-tasak gizonen tasen antzekoak edo zerbait txikiagoak dira, 35-44 urteko emakumeen kasuan izan ezik (% 4,2, adin-tarte horretako gizonekoena % 3,7 izanik).

#### 5.4 taula.

Ikasketa kualifikatuak eta lan-esperientzia esanguratsua izanik, lan egiten ez dutenen tasak, sexuaren eta adinaren arabera.

#### Biztanleria aktiboa (%-etan)

Sexua eta adina	2007	2003	1999	1995
Gizonak < 35	2,3	2,1	1,8	2,3
Gizonak 35-44	2,1	0,3	0,8	1,8
Gizonak >= 45	2,0	0,6	1,5	2,0
Emak. < 35	2,4	4,2	4,9	7,9
Emak. 35-44	4,2	3,2	4,9	2,6
Emak. >= 45	0,5	1,0	1,3	2,4
<b>GUZTIRA</b>	<b>2,3</b>	<b>1,7</b>	<b>2,5</b>	<b>3,2</b>

Talde horretan barne hartzen diren 324.243 langileak soilik aintzat hartuta, horietatik gehienak lanbide-eskalaren goiko aldean kokatzen direla ikus daiteke. Horrela, % 58,4 teknikarien postuetan eta zuzendaritzako eta gerentziako postuetan kokatzen dira, baina proportzio hori egindako BAKI guztietan agertzen den baxuena da. Ildo beretik, 1999. urtean izandako % 69,4 gehieneko historikoa baino baxuagoa, eta 2003. urteko % 60,6 baino baxuagoa da. Adierazlea beraz, 1995. urteko mailetara itzuli da gutxi gorabehera (% 58,6). Aldaketa horren arrazoia honako hau izan daiteke: administrazioko enplegatuen garrantzi erlatiboa handitu egin da, 1999. urtean % 10,4 izatetik gaur egun % 13,6 izatera igaro baita; halaber, makineriako operadoreek ere nabarmen egin dute gora (% 4,3tik % 8,1era).



Landunen banaketa horretan, industriako eta eraikuntzako langile kualifikatuei dagokien zatia ere esanguratsua da: % 10, 1999. urteko % 9,3 gaindituta. Gainerako langile kualifikatuek kolektiboaren % 7,7 osatzen dute, % 2,2 kualifikatu gabeko lanpostuetan ari delarik lanean.

Aztertzen ari garen egoera horrek biztanleria landunean, oro har, duen intzidentzia aztertuta, ikasketa kualifikatuak eta lan-esperientzia esanguratsua dutenen eragin handiena lanbide-eskalako goiko postuetan gertatzen dela ikusiko dugu. Eragin handiena teknikariengan du, % 61,4 talde horretan baitago. Intzidentzia-maila oso handiarekin, honako hauek daude: zuzendaritzako langileak (% 51) eta, administrazioko enpleguak (% 47,1, 2003. urteko % 38,1etik eta 1999. urteko % 25,6tik oso urruti).

Gainerako kasuetan EAEko biztanleri landun guztiaren batez besteko orokorraren mailaren inguruan edo azpitik (% 34) daude zenbatekoak. Eraikuntzako eta industriako langile kualifikatuen, eta makineriako operadoreen % 20ra iristen dira (% 26,4 eta % 34,7 hurrenez hurren). Zerbitzuetako langile kualifikatuen kasuan berriz, % 16,8ra jaisten da. Lehen sektoreko langile kualifikatuetan eta kualifikatu gabeko langileetan % 10en inguruko edo beheragoko maila atzematen da.

#### 5.5 taula.

Ikasketa kualifikatuak eta lan-esperientzia esanguratsua dituen biztanleria landuna, lanbidearen arabera

(% bertikalak eta intzidentzia-mailak, erreferentziako biztanleria landunari dagokionez, %-etan)

Lanbidea	% ber.	Intzidentzia		
		2007	2003	1999
Indar Armatuak	0,0	0,0	0,0	0,0
Zuzendariak	9,4	51,0	33,6	31,0
Teknikariak	49,0	61,4	61,9	54,4
Administrazioko enpleguak	13,6	47,1	38,1	25,6
Zerbitzuetako tekn. kualif.	7,2	16,8	9,7	8,2
Nekazaritzako/arrantzako tekn. kualif.	0,5	11,2	9,0	9,1
Eraikuntzako/industriako tekn. kualif.	10,0	22,2	13,5	11,4
Makineriako operadoreak	8,1	19,8	14,6	7,0
Zerbitzuetako lang. ez-kualif.	1,6	7,8	4,2	2,5
Nekazaritzako/arrantzako lang. ez-kualif.	0,0	10,3	0,0	22,5
Eraikuntzako/industriako tekn. ez-kualif.	0,2	2,6	10,9	3,0
Garraioko/zamalanetako lang. ez-kualif.	0,3	9,6	6,9	0,0

GUZTIRA	100	34,0	26,8	22,8
---------	-----	------	------	------

Aurreko datuekin bat etorrira, lanbide-kategoriaren araberrako azterketa egitean, kolektiboaren % 48,3 teknikarien eta zuzendarien eginkizunetan ari dela ikusiko dugu. Banaketan garrantzia duen beste talde bat langile kualifikatuena da, guztizkoaren % 28,8rekin. Kualifikatu gabeko lanpostuetan ari direnak % 13,2 dira gaur egun, eta % 9,8 arduradunak edo erdi-mailako kargudunak dira.

Aldiz, 1999. urtearekin alderatuta, deigarria da teknikarien eta zuzendarien garrantzi erlatiboak izandako gainbehera. Katgoria profesional horiek dituzten proportzioak behera egin du (% 54,8tik % 48,3ra), eta langile kualifikatuena edo kualifikatu gabeko kolektiboak aldiz, gora (% 39,3tik % 41,9ra). Arduradunen eta erdi-mailako kargudunen taldeei dagokienez, gora egin dute (% 5,9tik % 9,8ra) baina 2003. urteko %10,5 azpitik daude. Zuzendarien eta teknikarien beherakada honekin batera, 1999. urtetik 2007. urtera bitarte langileen kolektiboak izandako barne bilakaera kontuan izan behar da. Horrela, kualifikatu gabeko langileen garrantzia handitzen ari den bitartean (% 8,3tik % 13,2ra), langile kualifikatuena txikitzen ari da (% 31,1tik % 28,8ra). Azken aldaketa hori bereziki 2003. urtetik 2007. urtera bitarte suma daiteke, baina teknikarien, zuzendarien eta arduradunen aldaketa 1999-2003 aldian izan zen.

Zenbateko erlatiboari erreparatuta, egun teknikari-kategorian diharduen % 70,1 kolektibo horretan barne hartzen da, lan-esperientzia eta prestakuntza kualifikatua dutenen kolektiboan, hain zuzen. Dagoeneko txikiagoak badira ere, zuzendarien zenbatekoak ere oso handiak dira (landunen % 40,8 kolektibo horretan barne hartuta), baita erdi-mailako kargudunenak ere (% 37,1). Alabaina, honako kasu hauetan murrizketa gertatu da: langile kualifikatuena kasuan (% 30,3) eta, kualifikatu gabeko langileetan (% 13,4).

1999. urteko egoerari dagokionez, nabarmentzekoa da ikasketa kualifikatuak eta lan-esperientzia esanguratsua duten pertsona gutxiago dagoela zuzendaritza postuetan. 1999. urteko % 32,3tik gorakadan badago ere, 2003-2007 aldian intzidentzia jaitsi egiten da % 49,6tik % 40,8ra. Bilakaera hori kontrastean dago teknikari taldeari dagokion gorako joerarekin, eta erreferentziako kolektiboaren garrantzia 1999. urteko % 64,5 izatetik, oraingo % 70,1 izatera igaro da. Baina gorako joera hori gainerako katgoria profesionaletan ere agertzen da, indar handiagoz gainera. 1999. urtetik 2007. urtera bitarte arduradunen eta erdi-mailako kargudunen artean ikasketa kualifikatuak eta lan-esperientzia esanguratsua dutenen garrantzia handitu egin da % 22,6tik % 37ra. Langile kualifikatuena artean % 18,2tik % 30,3rako igoera eman da. Kualifikatu gabeko langileetan gertatzen den igoera ere oso deigarria da. Azken kasu horretan, 1999. urtetik 2003. urtera bitartean % 5,8tik % 7,8ra igo da, eta 2007an berriz, % 13,4ra.

1999. urtean arduradunen edo langileen kategoria zuten kolektiboetan zati txikiena izatetik, 2007. urtean arduradunen eta langile kualifikatuen % 30 baino gehiago prestakuntza kualifikatua eta lan-esperientzia dituztenak izatera igaro dira. Kualifikatu gabeko langileen kasuan, 2007. urtean lagun horien partaidetza % 15 ingurukoa da.

5.6 taula.

Ikasketa kualifikatuak eta lan-esperientzia esanguratsua dituen biztanleria landuna, lanbide-kategoriaren arabera

(% bertikalak eta intzidentzia-mailak, erreferentziako biztanleria landunari dagokionez, %-etan)

Lanbide-kategoria	% ber.	Intzidentzia		
		2007	2003	1999
Kualifikatu gabea	13,2	13,4	7,8	5,8
Kualifikatua	28,8	30,3	21,5	18,2
Arduradunak, erdi-mailako kargudunak	9,8	37,0	33,8	22,6
Langile teknikariak	42,9	70,1	67,5	64,5
Zuzendaritzako langileak	5,5	40,8	49,6	32,3
<b>GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>34,0</b>	<b>26,8</b>	<b>22,8</b>

Sektoreen araberrako azterketa eginez gero, lan-esperientzia eta ikasketa kualifikatuak dituzten landun gehienak zerbitzu-sektorekoak dira (% 68,8, 1999. urteko % 66,7 baino zertxobait gehiago). Zerbitzu-sektore horretan, honako adar hauek dira garrantzitsuenak: hezkuntza, osasungintza eta Administrazio Publikoa, multzo horretako landun guztien % 31,4 osatuz (1999. urtean % 36,5); finantza-bitartekotza eta enpresetarako zerbitzuak (% 15,8, 1999. urteko %17,8 baino zertxobait gutxiago); eta merkataritza (%11, 1999. urteko % 8ren gainetik).

Zerbitzuak alde batera utzita, industriari dagokionez, aztergai dugun multzoko landunen % 26,2 soilik barne hartzen da sektore horretan, 1999. urteko % 25,6 gainditzen du baina ez 2003. urteko % 28. Landunen % 4 eraikuntzan ari da, eta beste % 1 lehenengo sektorean (2003. urtean % 4,6 eta % 0,7 hurrenez hurren). Zerbitzuetakoak ez diren sektore horietan, prestakuntza kualifikatua eta lan-esperientzia esanguratsua duten pertsonen presentzia handiena metalaren sektorean dago: metalurgian eta makinagintzan eta gainerako material elektrikoan edo garraio-materialean. Adar horiek erreferentziako taldearen % 17,7 hartzen dute, 1999. urteko % 16,4ren gainetik, baina 2003. urteko % 19,6ren azpitik.

Biztanleria landun guztiaren gaineko intzidentziari dagokionez, zerbitzu-sektorearen eta industriaren arteko aldeak ez dira banaketarenak bezain handiak. Hori horrela izanik, ikasketa kualifikatuak eta lan-esperientzia esanguratsua dituen biztanleria, batik bat, zerbitzuetan metatzen den bitartean (% 37,8), industrian % 32,5era igo da eragina. Zenbatekoak askoz ere txikiagoak dira lehenengo sektorean eta eraikuntzan (% 19 eta % 15,7 hurrenez hurren). Sektore guztietan hobekuntzak nabarmenak dira (1999. urtekoak baino hobeak eta gehienetan, baita 2003. urtekoak baino hobeak ere).

Adarren arabera, kualifikazio handiko eta lan-esperientzia esanguratsuko kolektiboak zerbitzu-esparruan eragiten du gehien. Zenbatekorik handienak, % 50 inguru edo gehiago, finantza-erakundeei, Administrazio Publikoari, hezkuntzari, osasunari edo gizarte-zerbitzuei dagokie. Enpresetarako zerbitzuak ere nabarmendu egiten dira, zenbatekoak batez bestekotik gorakoak direlako, 2007. urtean % 38,9. Industrian berriz, erauzketa-industrian, industria petrokimikoan, metala ez den beste produktuen produkzioan, garraiorako materialen fabrikazioan eta energia-produkzioan, maila % 40 ingurukoa da (baina ez % 50 baino goragokoa).

Gainerako adar gehienetan, zenbatekoak % 30-35 bitartekoak dira, metalurgian eta merkataritzan adibidez, % 28 ingurukoak. Zenbateko horrek behera egiten du beste adar batzuetan: nekazaritzan eta arrantzan, paper-industrian, elikadura-industrian, zerbitzu-esparruan (ostalaritza eta etxeke zerbitzuan).

#### 5.7 taula.

Ikasketa kualifikatuak eta lan-esperientzia esanguratsua dituen biztanleria landuna, jardueraren arabera

(% bertikalak eta intzidentzia-mailak, erreferentziako biztanleria landunari dagokionez, %-etan)

Jarduera	% ber.	Intzidentzia
Nekazaritza	1,0	24,5
Arrantza	0,0	0,0
<b>Nekazaritza eta arrantza</b>	<b>1,0</b>	<b>19,0</b>
Erauzketa-industria	0,1	59,0
Elikagai-industria	0,6	16,8
Paper-industria	0,9	25,7
Industria petrokimikoa	1,6	39,9
Kautxu-industria	1,3	30,8
Bestelako gai ez-metalikoen industria	0,9	38,9
Metalurgia.	6,3	28,0
Makinagintza	5,5	34,0
Material elektrikoa	1,9	33,8
Garraio-materiala	4,1	40,7
Askotariko manufaktura-industrietan	2,4	35,1
Energia-produkzioa	0,5	37,2
<b>Industria</b>	<b>26,2</b>	<b>32,5</b>
<b>Eraikuntza</b>	<b>4,0</b>	<b>15,7</b>
Merkataritza	11,0	27,7
Ostalaritza	1,2	10,0
Garraioak eta komunikazioak	5,8	33,9
Finantza-erakundeak	3,0	54,3
Enpresetarako zerbitzuak	12,7	38,9
Administrazio Publikoa	8,0	48,5

Hezkuntza	13,6	69,8
Osasuna/Gizarte-zerbitzuak	9,8	47,6
Bestelako merkataritza-zerbitzuak	3,4	30,3
Etxeko zerbitzuak	0,3	3,6
<b>Zerbitzuak</b>	<b>68,8</b>	<b>37,8</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>34,0</b>

Aztertutako aktibo-kolektiboko % 90,1 norbere kontura edo kontratu mugagabearekin ari da (1999. urtean % 90,3 eta 2003. urtean % 91,8). Aktibo-kolektibo horretan, aldi baterako kontratuen intzidentzia % 6,3 da, obra-kontratuena % 2 eta bestelakoena (kontraturik eza, adibidez) % 1.

Intzidentzia erlatiboa aztertuta, kontratu mugagabea dutenen % 40,5 multzo horretan barne hartzen dira eta % 33,8 norbere kontura ari dira. Zenbatekoak ordea jaitsi egiten dira beste kasu hauetan: aldi baterako kontratudunetan % 17,5, obra-kontratu dutenetan % 12,1 eta kontraturik gabekoetan % 7,5. 1999. urteko datuekin alderatuta intzidentzia handitu egin da kasu guztietan, eta bereziki deigarria da aldi baterako kontratu dutenek edo kontraturik gabeko landunek izan duten gorakada (1999. urtean % 8,4tik % 17,5era eta 2007. urtean % 1,1etik % 7,5era).

#### 5.8 taula.

Ikasketa kualifikatuak eta lan-esperientzia esanguratsua dituen biztanleria landuna, enpresarekiko kontratu bidezko lotura motaren arabera

(% bertikalak eta intzidentzia-mailak, erreferentziako biztanleria landunari dagokionez, %-etan)

Kontratu bidezko lotura	% ber.	Intzidentzia		
		2007	2003	1999
Mugagabea	72,1	40,5	34,7	31,2
Denbora-eremua	6,3	17,5	11,2	8,4
Obrakoa	2,0	12,1	9,9	10,6
Kontraturik gabe	0,4	7,5	3,5	1,1
Bestelako egoeraren bat	1,2	24,8	4,5	22,9
Norbere kontura	18,0	33,8	24,9	20,6
<b>GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>34,0</b>	<b>26,8</b>	<b>22,8</b>

## 2.- IKASKETA KUALIFIKATURIK EZ, BAINA LAN ESPERIENTZIA ESANGURATSUA ETA PRESTAKUNTZA OSAGARRIA DITUEN BIZTANLERIA

Atal honetan aztertuko dugun kolektiboak eta aurreko kolektiboak badute ezaugarri bat komunean: lan-esperientziaren maila. Bi kolektiboak bereizten dituen ezaugarriak ere badira, hala nola orain aztertuko dugunak prestakuntza arautu kualifikaturik ez izatea (esate baterako, bigarren

mailako lanbide-ikasketak, edo hirugarren mailako ikasketak), baina bai prestakuntza osagarri esanguratsua. Prestakuntza hori, enpleguan eragina duten arautu gabeko heziketa-jarduerekin edo atzerriko hizkuntzen ezagutza-maila handiarekin loturik dago.

Aztergai dugun kolektiboa % 33,9 hazi egin da: 2003. urtean 32.002 aktibok osatzen zuen, eta 2007. urtean 42.864 dira. Alabaina, aktibo horiek guztiek biztanleria aktibo guztiaren % 4,2 soilik osatzen dute.

Kolektibo horretan gizonetzkoak dira gehienak. Kolektibo horretako aktiboen % 68,4 gizonetzkoak dira, emakumezkoak % 31,6 izanik; 1999. urteko aldea areagotu egin da (% 63,2 gizonak, % 36,8 emakumeak), eta 2003. urteko datuetan ere alde hori nabarmena zen. Gizonetako talde horren barne, gehienak 35 urtez gorakoak direla ikusiko dugu, aintzat hartutako aktibo guztien % 48,4 (1999. urtean % 45,6).

45 urtetik gorako gizonetako kasuan (atal horretako aktiboen % 32,5), azken aldiko enpleguak egonkortzeko prestakuntza mota horrek izan duen garrantzia azpimarratu behar dugu. Egoera horretan eta adin horretan dauden gizonen kopuruak gora egin du (1999-2003 aldian % 75,1 eta 2003-2007 aldian % 63,3). 1999-2003 laurtekoan hazkundera batez bestekoa baino txikiagoa izan zen (% 6,9), eta 2003-2007 laurtekoan berriz, % 18,2 behera egin zuen aztergai dugun biztanleria taldeak. 1999-2003 laurtekoan izandako % 12,4ko igoera eta 2003-2007 laurtekoan izandako % 55,5ekoa, deigarriagoa da 35 urtez azpiko gizonetan. 1999-2003 aldian ez bezala, 2007. urtean, prestakuntza osagarria eta lan-esperientzia esanguratsua dituzten 35 urtez azpiko gizonen garrantzia handiagoa da 35-44 urtekoena baino (lehen % 20, orain % 15,9).

Aktibo talde horren barruan, 35-44 urteko gizonen artean biztanleriak behera egin duela ikusten da eta joera horrek emakumeengan ere badu eraginik. Beherakadak 1999-2003 aldian kolektibo osoan eragina izan ondoren, 2003-2007 laurtekoan 35 urtez azpiko emakumeetan izango du eraginik handiena (% -7,5). 35-44 urteko emakumeetan eta 45 urtez gorako emakumeetan ez da halako beherakadarik izango (% 22,7 lehenengo kasuan eta % 75,7 bigarreanean). Halere, aktibo talde horretan 45 urtez azpiko emakumeen proportzioak behera egiten jarraitzen du (1999. urtean % 20,1, 2003. urtean % 15,7 eta 2007. urtean % 12,7). 1999. urtetik 2007. urtera bitarte 45 urtez gorako emakumeen garrantziak gora egiten du aztergai dugun talde horretan (% 16,7tik % 18,9ra, 2003. urtean % 14,4 behera egin ondoren).



5.9 taula.

Ikasketa kualifikaturik ez, baina lan-esperientzia esanguratsua eta prestakuntza osagarria dituen biztanleria aktiboa, sexuaren eta adinaren arabera

(Datu absolutuak, % bertikalak eta biztanleriaren hazkunde-tasak, %-etan)

Sexua eta adina	Datu absolutuak	% bertikalak	%
			hazkundera 2003/2007
Gizonak < 35	8.558	20,0	55,5
Gizonak 35-44	6.821	15,9	-18,2
Gizonak >= 45	13.931	32,5	63,3
Gizonak	29.311	68,4	31,0
Emak. < 35	2.191	5,1	-7,5
Emak. 35-44	3.241	7,6	22,7
Emak. >= 45	8.121	18,9	75,7
Emakumeak	13.553	31,6	40,7
GUZTIRA	42.864	100	33,9

Lan-esperientzia eta ikasketa-maila kualifikatua dituztenetan bezalaxe, langabeziaren intzidentzia oso txikia da aztergai dugun multzoan (% 1,2), kualifikazio-maila handieneko aktiboen kolektiboan baino txikiagoa.

1999. urteko % 5,2ren ondoan, adierazleak izan duen beherakada bereziki deigarria da lan-esperientzia esanguratsua eta prestakuntza osagarria dutenengan. Hortaz, multzo horretan, AGPak enpleguan izan duen eragin positiboa nabarmendu egin behar da. Oso maila txikian badago ere, ikasketa kualifikatuak dituzten kolektiboan gertatzen den bezalaxe, desokupazio-tasak gora egin du azken lau urteetan, % 0,8tik % 1,2ra.

5.10 taula.

Ikasketa kualifikaturik ez, baina lan-esperientzia esanguratsua eta prestakuntza osagarria dituen biztanleria aktiboa, jarduerarekiko loturaren arabera

(Datu absolutuak eta % bertikalak)

Jarduerarekiko lotura	Datu	%
	absolutuak	bertikalak
Landuna	42.356	98,8
Lan egiten ez duena esperientziarekin	507	1,2
GUZTIRA	42.864	100

Aztergai dugun kolektiboan, sexuaren eta adinaren arabeko talde ia gehienetan desokupaziorik ez dagoela azpimarratu behar dugu. Salbuespen bakarra 45 urtetik gorako gizonetan gertatzen da, % 3,6ko langabezia baitago. 2007. urtean 35 urtez azpiko gizonen desokupazioa desagertu egiten da (2003. urtean % 5 inguru zen).

### 5.11 taula.

Ikasketa kualifikaturik ez, baina lan-esperientzia esanguratsua eta prestakuntza osagarria izanik, lan egiten ez dutenen tasak, sexuaren eta adinaren arabera.

#### Biztanleria aktiboa (%-etan)

Sexua eta adina	2007	2003
Gizonak < 35	0,0	4,8
Gizonak 35-44	0,0	0,0
Gizonak >= 45	3,6	0,0
Gizonak	1,7	1,2
Emak. < 35	0,0	0,0
Emak. 35-44	0,0	0,0
Emak. >= 45	0,0	0,0
Emakumeak	0,0	0,0
<b>GUZTIRA</b>	<b>1,2</b>	<b>0,8</b>

Talde horretan barne hartutako 42.356 lagun gaur egun lanean ari dira, Autonomia Erkidegoko landun guztien % 4,4 osatuz (1999. urteko % 3,2ren eta 2003. urteko % 3,5en gainetik). Horien artetik eta lanbidearen arabera, teknikarien eta administrazioko enplegatu taldeak nabarmentzen dira (% 15,6 eta % 16,9, hurrenez hurren), baita eraikuntzako eta industriako langile kualifikatuak ere (% 12 eta % 32, makineriako operadoreak barnean hartuta). Zerbitzuetako langile kualifikatuek kolektiboaren % 13 osatzen dute. Oro har, langile kualifikatuek guztizkoaren % 46,6 osatzen dute, esperientzia eta prestakuntza osagarria duten landunen multzo nagusia izanik, eta zuzendarien, teknikarien eta administrariaren % 42,4 gaindituta.

Biztanleria landun guztiaren gaineko intzidentziari dagokionez, ordea, landun talde horrek garrantzi handia du, batik bat, administrazioko eta zuzendaritzako enplegatuetan (% 7,6 eta % 7, hurrenez hurren), eta makineriako langileetan (% 6,4).

Langile kualifikatuen gainerako kolektiboetan intzidentziak behera egiten du nabarmen, % 3,5 eta % 4,5 artean kokatuz. Kualifikatu gabeko langileen kolektiboetako dagokien maila da (batzuetan beheragokoa): zerbitzuetan, industrian eta eraikuntzan % 4 inguru eta garraio eta zamaletan % 6.

Nolanahi ere, gutxieneko mailak teknikariei dagozkie, lanbide-maila hori duten biztanleria landunaren % 2,5eko intzidentzia besterik ez.

5.12 taula.

Ikasketa kualifikaturik ez, baina lan-esperientzia esanguratsua eta prestakuntza osagarria dituzten landunak, lanbidearen arabera

(% bertikalak eta intzidentzia-mailak, erreferentziako biztanleria landunari dagokionez, %-etan)

Lanbidea	% ber.	Intzidentzia		
		2007	2003	1999
Indar Armatuak	0,0	0,0		0,0
Zuzendariak	9,9	7,0	7,0	3,4
Teknikariak	15,6	2,5	2,7	2,0
Administrazioko enplegatuak	16,9	7,6	7,5	9,4
Zerbitzuetako tekn. kualif.	13,0	3,9	3,2	2,6
Nekazaritzako/arrantzako lang. kualif.	1,5	4,5	0,8	4,9
Eraikuntzako/industriako lang. kualif.	12,0	3,5	4,7	3,3
Makineriako operadoreak	20,1	6,4	2,1	1,9
Zerbitzuetako lang. ez-kualif.	6,8	4,2	1,1	3,2
Nekazaritzako/arrantzako lang. ez-kualif.	0,0	0,0		0,0
Eraikuntzako/industriako lang. ez-kualif.	2,6	4,3	1,7	1,8
Garraioko/zamalanetako lang. ez-kualif.	1,6	6,0		0,0
<b>GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>4,4</b>	<b>3,5</b>	<b>3,2</b>

Landunen kolektibo horretan % 25,6 kualifikatu gabeko langileak diren arren, egia esan behar bada, langile kualifikatuak, eta arduradunak eta erdi-mailako kargudunak dira nagusi, guztizkoaren % 60,3. Langile kualifikatuak soilik kontuan izanik, % 45,4 osatzen dute.

Landunen mota horrek bi kategoria horietan duen intzidentzia batez bestekoa baino askoz ere handiagoa da: % 6,2 langile kualifikatuen kasuan eta % 7,4 arduradunen eta erdi-mailako kargudunen kasuan. Bi kategoria profesional horiek bilakaera desberdina izan dute azken urteetan. Lan-esperientzia esanguratsua eta prestakuntza osagarria dituzten langile kualifikatuen artean goranzko joera dagoen bitartean (1999. urtean % 3,8), arduradunen eta erdi-mailako kargudunen artean beherakada handia izan da (1999. urtean % 8,8).

Aurrekoa alde batera utzi gabe, 2007. urtean zuzendarien artean du intzidentziarik handiena aztertzen ari garen langile motak, adierazlea % 11,7ra iritsi baita. Horrek hazkunderako joera handia adierazten du, 1999. urteko % 2,4tik 2003. urteko % 6,4ra.

Zuzendariekin, arduradunekin eta langile kualifikatuekin alderatuta, kualifikatu gabeko langileen maila (% 3,4) eta tekniko kategoria duen biztanleria landunaren maila batez bestekoaren azpitik murriztu egiten dira (% 0,5).

### 5.13 taula.

Ikasketa kualifikaturik ez, baina lan-esperientzia esanguratsua eta prestakuntza osagarria dituzten landunak, lanbide-kategoriaren arabera

(% bertikalak eta intzidentzia-mailak, erreferentziako biztanleria landunari dagokionez, %-etan)

Lanbide-kategoria	% ber.	Intzidentzia		
		2007	2003	1999
Kualifikatu gabea	25,6	3,4	2,2	2,8
Kualifikatua	45,4	6,2	4,9	3,8
Arduradunak, erdi-mailako kargudunak	14,9	7,4	4,8	8,8
Langile teknikariak	2,2	0,5	1,4	0,9
Zuzendaritzako langileak	12,0	11,7	6,4	2,4
<b>GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>4,4</b>	<b>3,5</b>	<b>3,2</b>

Aurreko atalean aztertutako kolektiboan (lan-esperientzia esanguratsua duten langile kualifikatuak) bezalaxe, enplegu gehiena zerbitzuetan metatzen da hemen ere (% 58,9, % 26,4 industrian, % 13 eraikuntzan eta % 1,7 nekazaritzan izanik). Baina aurreko kolektiboan ez bezala, adarren arabera banaketa oso zabala da, nahiz eta gaur egun, hainbat adarretan kolektiboaren % 10 baino gehixeago metatzen den. Horrela gertatzen da merkataritza-adarrekin (% 20,5) eta garraio-eta komunikazio-adarrekin (% 11,2).

Adar edo sektore bakoitzeko biztanleria landun guztiari dagokionez, termino erlatiboetan, sektoreen arabera intzidentzia antzekoa dela ikusten da (lehen sektorean, industrian eta zerbitzuetan % 4,2 eta % 4,3 artean). Intzidentzia handiagoa da ordea, eraikuntzan, % 6,6.

Adarka aztertzen badugu, aztertutako egoeren eragina goranzkoa da honako hauetan: arrantzan % 14,8, erauzketa-industrietan % 24,2 eta finantza-erakundeetan % 15. Eraikuntzaz gain, zerbitzuetakoak ez diren sektoreko adar batzuetan maila batez bestekoa baino zertxobait gorago dago, % 5 eta % 10 artean. Hori horrela gertatzen da elikadura-industrian (% 6,3), paper-industrian (% 8,5), kautxu-industrian (% 7,5), askotariko manufaktura-industrietan (% 5,8) eta makinagintzan (% 4,9). Zerbitzu-eremuan, egoera hori merkataritzaren adarrean (% 6,8), garraio eta komunikazioetan (% 8,6) eta Administrazio Publikoan ere gertatzen da.

Euskal ekonomiaren gainerako adarretan, ikasketa kualifikaturik gabe baina lan-esperientzia esanguratsua duten biztanleen kopurua % 3,5 inguru edo txikiagoa da

5.14 taula.

Ikasketa kualifikaturik ez, baina lan-esperientzia esanguratsua eta prestakuntza osagarria dituzten landunak, jardueraren arabera

(% bertikalak eta intzidentzia-mailak, erreferentziako biztanleria landunari dagokionez, %-etan)

Jarduera	% ber.	Intzidentzia
Nekazaritza	0,3	1,1
Arrantza	1,4	14,8
<b>Nekazaritza eta arrantza</b>	<b>1,7</b>	<b>4,2</b>
Erauzketa-industria	0,4	24,2
Elikagai-industria	1,8	6,3
Paper-industria	2,3	8,5
Industria petrokimikoa	0,9	2,7
Kautxu-industria	2,4	7,5
Bestelako gai ez-metalikoen industria	0,6	3,3
Metalurgia	5,3	3,1
Makinagintza	6,0	4,9
Material elektrikoa	1,1	2,6
Garraio-materiala	2,2	2,8
Askotariko manufaktura-industriak	3,0	5,8
Energia-produkzioa	0,4	3,7
<b>Industria</b>	<b>26,4</b>	<b>4,3</b>
Eraikuntza	13,0	6,6
Merkataritza	20,5	6,8
Ostalaritza	1,1	1,2
Garraioak eta komunikazioak	11,2	8,6
Finantza-erakundeak	6,5	15,0
Enpresetarako zerbitzuak	5,0	2,0
Administrazio Publikoa	7,3	5,8
Hezkuntza	1,3	0,9
Osasuna/Gizarte-zerbitzuak	2,8	1,8
Bestelako merkataritza-zerbitzuak	2,3	2,7
Etxeko zerbitzuak	0,8	1,4
<b>Zerbitzuak</b>	<b>58,9</b>	<b>4,2</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>4,4</b>

Kontratu motaren araberako azterketa eginda, landun horietatik % 94,4 norbere kontura edo kontratu mugagabearekin ari dira lanean (1999. urtean % 88,6 eta 2003. urtean % 95,9) eta norbere kontura lan egiten dutenen kopuruak indar erlatibo handiagoa duela aipatu behar da (% 31,8). Langile mota hori da aztergai dugun biztanleria landunean intzidentziarik handiena duena: % 7,8, eta % 4,6, aldiz, biztanleria zehaztu gabearen kasuan, . 1999. urtetik 2007. urtera bitarte kontratu mugagabea duten pertsonen kopurua ez da asko aldatu, % 4,5 inguru, baina norbere

kontura lan egiten duten pertsonen bilakaerak gora egin du. Lan-esperientzia esanguratsua eta prestakuntza osagarria izanik norbere kontura lan egiten dutenak 1999. urtean % 2,8 ziren, 2003. urtean % 4,1 eta 2007. urtean % 7,8.

Kontratazio ez-mugagabea dutenen kasuan bestalde, aztertu dugun langile motaren intzidentzia oso txikia da, % 1etik % 2ra (maila horrek gainera ez du aldaketa handirik izango epe luzera).

Beraz, azken urteotan prestakuntza osagarriak mesede handiagoa egin die norbere konturako jardunean hastera animatu direnei.

5.15 taula.

Ikasketa kualifikaturik ez, baina lan-esperientzia esanguratsua eta prestakuntza osagarria dituzten landunak, enpresarekiko kontratu bidezko lotura motaren arabera (% bertikalak eta intzidentzia-mailak, erreferentziako biztanleria landunari dagokionez, %-etan)

Kontratu bidezko lotura	% ber.	Intzidentzia 2007	Intzidentzia 2003	Intzidentzia 1999
Mugagabea	62,6	4,6	4,5	4,3
Denbora-eremua	3,6	1,3	0,2	0,8
Obrakoa	1,2	1,0	1,4	2,3
Kontraturik gabe	0,8	2,2	0,9	2,1
Norbere kontura	31,8	7,8	4,1	2,8
<b>GUZTIRA</b>	<b>100,0</b>	<b>4,4</b>	<b>3,5</b>	<b>3,2</b>

### 3.- IKASKETA KUALIFIKATURIK EZ, BAINA LAN ESPERIENTZIA ESANGURATSUA DUEN BIZTANLERIA

Lan-esperientzia esanguratsua duen azkeneko biztanle mota bat geratzen zaigu: inolako ikasketa kualifikaturik ez duena, ezta prestakuntza osagarriko ekintza esanguratsurik ere. Talde honetan 256.399 lagun barne hartzen dira, Autonomia Erkidegoko aktibo guztien % 25,3.

Datu demografikoei dagokienez, lan-esperientzia esanguratsua bai, baina ikasketa kualifikaturik ez, eta prestakuntza osagarrikerik ere ez dutenen taldea, aurrekoen oso antzekoa da, gizonezkoak nagusi direla (% 67,2, emakumeak % 32,8 izanik) eta, zehazkiago, 35 urtetik gorako gizonezkoek kolektibo guztiaren % 56,5 osatzen dute.

Aztertutako aktibo-kolektiboak indarra galdu du azken urteotan % 5,8ko beherakada izan baitu, baina datu orokor horrek taldearen barruan askotariko bilakaerak izan ditu. Alde batetik, 45 urtetik gorako pertsonen kopuruak nabarmen egin du behera (% 10 gizonetan eta % 7



emakumeetan). Bestalde, 35 urtetik beherako artean aztertutako aktiboen gorako joera ikus daiteke, % 5,6 gizonetan eta % 26,9 emakumeetan. 1999-2003 aldiaren berriz, 35 urtetik beherako bolumenak behera egin zuen eta aztergai dugun kolektiboan ez zuen indar handirik. Horregatik, beste adin-taldeetan ere beherakada egon arren, egungo biztanleriaren igoera txikia izan da, 2003. urteko % 13,5etik 2007. urteko % 16,1era.

5.16 taula.

Ikasketa kualifikaturik ez, baina lan-esperientzia esanguratsua duen biztanleria aktiboa, sexuaren eta adinaren arabera.

(Datu absolutuak, % bertikalak eta biztanleriaren hazkunde-tasak, %-etan)

Sexua eta adina	Datu absolutuak	% bertikalak	% hazkundera 2003/2007
Gizonak < 35	27.502	10,7	6,0
Gizonak 35-44	47.897	18,7	-9,8
Gizonak >= 45	97.017	37,8	-9,4
Gizonak	172.416	67,2	-7,4
Emak. < 35	13.770	5,4	26,9
Emak. 35-44	24.065	9,4	-7,1
Emak. >= 45	46.148	18,0	-6,7
Emakumeak	83.983	32,8	-2,6
<b>GUZTIRA</b>	<b>256.399</b>	<b>100</b>	<b>-5,8</b>

Esperientzia esanguratsua baina ikasketa kualifikaturik eta prestakuntza osagarririk gabekoen desokupazio-tasa oso txikia da, % 0,8 baino ez. Lan-esperientzia esanguratsua duten kolektiboen artean, egun, desokupazio-tasa txikiena duen taldea da. 2007. urtean desokupazio-tasak behera egin duen kolektibo bakarra da (1999. urtean % 2,2 eta 2003. urtean % 1,4).

5.17 taula.

Ikasketa kualifikaturik ez, baina lan-esperientzia esanguratsua duen biztanleria aktiboa, jarduerarekiko loturaren arabera.

(Datu absolutuak eta % bertikalak)

Jarduerarekiko lotura	Datu absolutuak	% bertikalak
Landuna	254.371	99,2
Lan egiten ez duena esperientziarekin	2.027	0,8
<b>GUZTIRA</b>	<b>256.399</b>	<b>100</b>

Sexuaren eta adinaren arabera azterketa eginda, langabezia-mailak oso txikiak dira, oro har % 1en azpitik daude. 35-44 urteko emakumeak dira maila horren gainetik daudenak, baina oso zenbateko txikian, % 2,8an.

2003. urtearekin alderatuta, 35 urtetik beherako emakumeen hobekuntza nabaria da, desokupazio-tasa % 6,9tik % 0,4ra jaitsi delarik.

#### 5.18 taula.

Ikasketa kualifikaturik ez, baina lan-esperientzia esanguratsua izanik, lan egiten ez dutenen tasak, sexuaren eta adinaren arabera.

#### Biztanleria aktiboa (%-etan)

Sexua eta adina	2007	2003
Gizonak < 35	0,9	2,8
Gizonak 35-44	0,6	0,9
Gizonak >= 45	0,4	0,7
Gizonak	0,5	1,1
Emak. < 35	0,4	6,9
Emak. 35-44	2,8	3,4
Emak. >= 45	0,8	0,6
Emakumeak	1,3	2,3
<b>GUZTIRA</b>	<b>0,8</b>	<b>1,4</b>

Talde horretan barne hartutako landun gehienak eremu kualifikatueta edo erdi-kualifikatueta banatzen dira, betiere zerbitzuetakoak ez diren sektoreei loturik. Hori horrela izanik, industriako eta eraikuntzako langileak (% 21,8) eta makineriako operadoreak (% 21,4) dira nagusi. Zerbitzu-sektoreko langile kualifikatuena garrantzia ere aipatzekoa da (% 15,2). Oro har, aztertutako kolektiboaren % 61,9 langile kualifikatuak osatzen dute (1999. urtean gertatzen zen moduan, baina 2003. urteko % 68,2ren azpitik). Hori horrela da azken urteetan teknikarien taldeak eragin handia izan duelako (2003. urtean % 4,6 eta 2007. urtean % 10,4).

Aztergai dugun biztanleria landunean intzidentzia horiek duten eraginari dagokionez, aztertutako kolektiboak industrian eta eraikuntzan eragin handia duela ikusi dugu (% 38 langile kualifikatuena kasuan eta % 36,6 kualifikatu gabekoen kasuan). Mailarik handienak, halere, makineriako operadoreei (% 40ren gainetik), garraio eta zabalanteko kualifikatu gabeko langileei (% 45,8) eta nekazaritza eta arrantzako langile kualifikatuerei (% 61,8) dagozkie.

Zerbitzuetan proportzioa jaitsi egiten da oraindik batez bestekoaren gainetik egon arren: % 27,6 langile kualifikatuena kasuan eta % 30 kualifikatu gabekoen kasuan. Eta batez bestekoaren

azpitik, zuzendarien artean % 24,2 eta administrazioko enplegatuen artean % 21,4, oraindik ere % 20aren gainetik, beraz. Teknikarien kasuan, egoera horiek nabarmen gutxitu dira eta ez da % 10,2 baino gehiago. Zenbateko hori txikiagoa da lehen sektoreko kualifikatu gabeko langileetan, % 9. Epe luzera, talde profesional horietan guztietan lan-esperientzia esanguratsua dutenen presentzia gero eta txikiagoa izango da.

5.19 taula.

Ikasketa kualifikaturik ez, baina lan-esperientzia esanguratsua duten landunak, talde profesionalaren arabera  
(% bertikalak eta intzidentzia-mailak, erreferentziako biztanleria landunari dagokionez, %-etan)

Talde profesionalak	% ber.	Intzidentzia		
		2007	2003	1999
Indar Armatuak	0,4	82,1	22,3	0,0
Zuzendariak	5,7	24,2	36,8	40,1
Teknikariak	10,4	10,2	5,7	10,6
Administrazioko enpleguak	7,9	21,4	27,2	33,5
Zerbitzuetako tekn. kualif.	15,2	27,6	32,4	24,4
Nekazaritzako/arrantzako lang. kualif.	3,5	61,8	69,0	61,6
Eraikuntzako/industriako lang. kualif.	21,8	38,0	39,3	38,9
Makineriako operadoreak	21,4	41,2	49,8	49,6
Zerbitzuetako lang. ez-kualif.	8,1	30,0	32,6	34,8
Nekazaritzako/arrantzako lang. ez-kualif.	0,0	9,0	72,8	28,7
Eraikuntzako/industriako lang. ez-kualif.	3,7	36,6	32,3	28,5
Garraioko/zamalanetako lang. ez-kualif.	2,0	45,8	21,8	42,2
<b>GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>26,7</b>	<b>29,7</b>	<b>30,8</b>

Lanbide-kategoriari erreparatuta, konturatuko gara kolektiboko aktibo gehienak (% 41,2) langile kualifikatuen kategorian aritzen direla. Halere, landunen mota horren banaketan, lanbidearen arabeko sailkapenak adierazten duena baino handiagoa da kualifikatu gabeko langileen garrantzia (guztizkoaren % 39 izan daiteke). Arduradunen, teknikarien eta zuzendarien garrantzi erlatiboa % 19,8 soilik da, denak batera hartuta.

Intzidentziari dagokionez, landunen banaketan kuantitatiboki nagusi diren bi kolektiboetan intzidentzia handia du esperientziaren eta heziketa-mailaren egoerak. Horrela, langile kualifikatuen % 34 eta kualifikatu gabeen % 31,3 landun mota horretan barne hartzen dira. Hala ere, zuzendarietan (% 34,2) eta erdi-mailako kargudunetan ere (% 33,6) handia da intzidentzia. Kategoría bakarrean murrizten da nabarmen kolektiboaren garrantzia: teknikarietan (% 3,4).

5.20 taula.

Ikasketa kualifikaturik ez, baina lan-esperientzia esanguratsua duten landunak, lanbide-kategoriaren arabera  
(% bertikalak eta intzidentzia-mailak, erreferentziako biztanleria landunari dagokionez, %-etan)

Lanbide-kategoria	% ber.	Intzidentzia		
		2007	2003	2003
Kualifikatu gabea	39,0	31,3	30,8	30,3
Kualifikatua	41,2	34,0	39,0	38,9
Arduradunak, erdi-mailako kargudunak	11,3	33,6	34,1	47,1
Langile teknikariak	2,6	3,4	3,3	2,6
Zuzendaritzako langileak	5,8	34,2	28,9	40,2
<b>GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>26,7</b>	<b>29,7</b>	<b>30,8</b>

1999. eta 2003. urteko egoerari eutsiz, talde horretako landunen erdia baino gehiago zerbitzu-sektorekoa da (% 51,9). Ildo berari jarraiki, industriaren sektorean % 35,1 eta eraikuntzarenean % 9,6 barne hartzen dira; gainerako % 3,5 nekazaritzari dagokio. Industriaren sektorean, metalaren adarrak dira jarduera garrantzizkoenak dituztenak (taldearen guztizkoaren % 23,7) eta bereziki, zerbitzuen sektoreari dagokionez, merkataritzaren adarra (% 16,4). Nolanahi ere, adarraren arabeko kolektiboaren banaketa oso sakabanatua geratzen da prestakuntzan esperientzia handirik ez duen landunen kolektibo horretan.

Intzidentziaren arabera, landun mota horri dagokion intzidentziaren batez bestekoa gainditzen ez duen sektore bakarra zerbitzuetakoa da (% 22,3). Eraikuntzaren sektorean, intzidentzia-maila dezente handiagoa da (% 29,2), baina industriakoak hori ere gainditzen du (% 34,2). Lehenengo sektorean, langileen erdia baino gehiago multzo horretakoa da, lan-esperientzia bai baina ikasketa kualifikaturik eta prestakuntza osagarririk gabeak (% 50,7). Eta ezin dugu aipatu gabe utzi 1999-2003 aldian agerian jarri den errealitatea: sektore guztietan, talde horren intzidentzia-maila egonkortzeko edo jaisteko joera dago, batik bat zerbitzuetakoak ez diren sektoreetan.

Jarduera-adarrari begiratzuz gero, intzidentzia-mailarik txikiena hezkuntza-eremuan topatuko dugu, eremu horretan lan egiten dutenen % 8,5 baino ez baita talde horretakoa. Beste honako hauetan ere, % 20tik behera dago adierazlea (batez bestekotik nabarmen behera): finantza-erakundeetan, enpresentzako zerbitzuetan, osasunean eta gizarte-zerbitzuetan. Zerbitzuetan mailarik altuenak (% 30 inguru edo zertxobait gorago) berriz, honako adar hauetan daude: merkataritzan, ostalaritzan eta, garraio eta komunikazioan.

Zaila da zerbitzuetan izandako maila baxuak gainerako sektoreetan ematea, material elektrikoaren fabrikazioan eta energia-produkzioan baino ez da adierazlearen maila % 20tik jaitsi. Gainerako adarretan zenbatekoak % 30etik % 40ra bitartean daude, metala ez den beste produktuen industrian (% 41) eta nekazaritzan (% 57,2) izan ezik.

Hortaz, zerbitzuetakoak ez diren sektoreetan profesional mota horrek garrantzi handia baldin badu, zerbitzuetako hainbat adarretan hainbestekoa ez duela egiaztatu dugu. Beste hainbat adarretan landunen garrantzi erlatiboa oso txikia da, batez ere, honako hauetan: hezkuntzan, osasunean eta gizarte-zerbitzuetan, finantza-erakundeetan eta enpresentzako zerbitzuetan.

## 5.21 taula.

Ikasketa kualifikaturik ez, baina lan-esperientzia esanguratsua duten landunak, jardueraren arabera

(% bertikalak eta intzidentzia-mailak, erreferentziako biztanleria landunari dagokionez, %-etan)

Jarduera	% ber.	Intzidentzia
Nekazaritza	3,0	57,2
Arrantza	0,4	28,4
<b>Nekazaritza eta arrantza</b>	<b>3,5</b>	<b>50,7</b>
Erauzketa-industria	0,0	
Elikagai-industria	1,8	38,5
Paper-industria	1,7	36,7
Industria petrokimikoa	1,7	33,1
Kautxu-industria	1,5	27,8
Bestelako gai ez-metalikoen industria	1,3	41,0
Metalurgia	11,1	39,0
Makinagintza	7,5	36,3
Material elektrikoa	1,2	16,6
Garraio-materiala	3,9	30,5
Askotariko manufaktura-industriak	3,2	37,3
Energia-produkzioa	0,3	13,7
<b>Industria</b>	<b>35,1</b>	<b>34,2</b>
<b>Eraikuntza</b>	<b>9,6</b>	<b>29,2</b>
Merkataritza	16,4	32,6
Ostalaritza	4,6	30,9
Garraioak eta komunikazioak	6,4	29,6
Finantza-erakundeak	1,0	13,7
Enprestarako zerbitzuak	6,5	15,7
Administrazio Publikoa	5,0	23,9
Hezkuntza	2,1	8,5
Osasuna/Gizarte-zerbitzuak	4,4	16,8
Bestelako merkataritza-zerbitzuak	3,5	24,2
Etxeko zerbitzuak	1,8	18,8
<b>Zerbitzuak</b>	<b>51,9</b>	<b>22,3</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>26,7</b>

Aurretik aztertu ditugun beste bi kolektiboetan bezalaxe, hirugarren honetan ere egonkortasuna azpimarratu behar da, norbere kontura ari direnak edo kontratu mugagabea dutenak % 93,1 izanik.

Zenbateko erlatiboei helduta, kontratu mugagabea dutenen % 29,6 eta norbere kontura ari direnen % 38 osatzen du landunen mota horrek, aldi baterako kontratatuetan % 6,3 eta obra-kontrata dutenetan % 9,4 soilik izanik.

Aldiz, kontraturik gabeko egoeren % 20,3 barne hartzen da kolektibo horretan, eta zenbatekoa handia den arren, kolektiboaren batez besteko intzidentziaren azpikoa da. Azken lau urteetan gora egin duen kolektibo bakarra lan-esperientzia esanguratsua dutenena izan da, 2003. urtean % 16,6 baitzen.



#### 5.22 taula.

Ikasketa kualifikaturik ez, baina lan-esperientzia esanguratsua duen biztanleria landuna, enpresarekiko kontratu bidezko lotura motaren arabera  
(% bertikalak eta intzidentzia-mailak, erreferentziako biztanleria landunari dagokionez, %-etan)

Kontratu bidezko lotura	% ber.	Intzidentzia	
		2007	2003
Mugagabea	67,3	29,6	32,7
Denbora-eremua	2,9	6,3	6,8
Obrakoa	2,0	9,4	10,5
Kontraturik gabe	1,2	20,3	16,6
Bestelako egoeraren bat	0,8	12,1	16,1
Norbere kontura	25,8	38,0	44,4
<b>GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>26,7</b>	<b>29,7</b>

#### 4.- LAN ESPERIENTZIA ESANGURATSURIK EZ, BAINA IKASKETA KUALIFIKATUAK DITUEN BIZTANLERIA

Hurrengo lerroetan, produkzio-sisteman lan-esperientzia esanguratsurik ez dutenen ezaugarriak deskribatuko ditugu. Hasteko, ikasketa kualifikatuak dituztenei erreparatuko diegu, II. mailako bigarren mailako lanbide ikasketak nahiz erdi-mailako edo hirugarren mailako goi-mailako ikasketak izan. Multzo horretan, guztira 164.187 aktibo barne hartzen dira.

Gehienbat, 35 urtetik gorakoek osatzen dute talde hori, % 68,5 adin-tarte horretakoak izanik. Gizonen eta emakumeen artean, banaketa nahikoa orekatua da (gizonak % 48,2 eta emakumeak % 51,8).

Azken aldiko bilakaerari dagokionez, beheranzko joera ikusten da kolektibo horretan, 1995-1999 laurtekoan gertatutakoari kontra eginez: 1995-1999 aldian, % 38,4ko hazkundera izan zen; 1999-2003 aldian ordea, % 12,9 murriztu zen; 2003-2007 aldian, murrizketa areagotu egin zen eta biztanleria bolumena 164.187 lagunetan kokatu zen, 2003. urtean baino % 6,5 gutxiago.

1999-2003 aldian eta 2003-3007 aldian, 35 urtetik beherako gizonei eta emakumeei eragin die jaitsierak; % 15-20 bitarteko beherakada horiekin loturik, talde horretako egonkortasun-mailek gora egin zuten eta horrekin batera, lan-esperientzia esanguratsua duten kolektiboek ere bai. Aldiz, 35 urtetik gorakoetan, egoera horretan dauden aktiboen bolumena gorantz ari da, 35-44 urteko gizonen kasuan izan ezik, talde horretan egonkortu egin baita. Bilakaeraren ondorioa hauxe da: 35 urtetik gorakoen eragina handitu egin da, 2003. urteko % 23,7tik izatetik egungo %31,5era iritsiz.

Orain arte azterturiko kolektiboetan ez bezala, ikasketa kualifikatuak bai baina lan-esperientziarik ez dutenetan, potentzialki aktiboen zenbateko esanguratsua agertzen da: guztira 7.222 lagun.

Prestakuntza kualifikatua baina produkzio-sisteman lan-esperientzia esanguratsurik gabeko kolektiboaren ezaugarriak, ez datoz bat aktiboen ezaugarriekin. Horrela, aktiboetan generoen arteko oreka eta gazteen garrantzi erlatiboa ikusten badira, potentzialki aktiboetan 35 urte eta hortik gorako emakumeen garrantzia nabarmentzen da, taldeko aktibo potentzial guztien % 47 osatzen duen sexuaren eta adinaren arabera multzoa izanik. Hala ere, 35 urtetik beherako emakumeek protagonismo handia dute, aktibo potentzialen % 29,4 izanik. Gizonak, ordea, kolektiboaren % 23,6 besterik ez dira, hala ere, 2003. urteko % 7,1en gainetik.

#### 5.23 taula.

Lan-esperientzia esanguratsurik ez, baina ikasketa kualifikatuak dituen biztanleria aktiboa, sexuaren eta adinaren arabera

(Datu absolutuak, % bertikalak eta biztanleriaren hazkunde-tasak, %-etan)

Sexua eta adina	Datu absolutuak	% bertikalak	% hazkundea 2003/2007	Aktibo	
				potentzialak Abs..	% bertikalak
Gizonak < 35	54.828	33,4	-16,5	1.198	16,6
Gizonak 35-44	16.595	10,1	0,9		
Gizonak >= 45	7.658	4,7	72,1	507	7,0
Gizonak	79.081	48,2	-8,7	1.706	23,6
Emak. < 35	57.665	35,1	-15,4	2.122	29,4
Emak. 35-44	19.187	11,7	14,7	2.466	34,1
Emak. >= 45	8.254	5,0	103,5	928	12,9
Emakumeak	85.106	51,8	-4,4	5.516	76,4
<b>GUZTIRA</b>	<b>164.187</b>	<b>100</b>	<b>-6,5</b>	<b>7.222</b>	<b>100</b>

Lan-esperientzia esanguratsua eta ikasketa kualifikatuak dituztenetan ez bezala, kasu horretan desokupazio-maila bereziki handia da. Tasa 1999. urteko % 23,9tik 2003. urteko % 18,1era murrizten bada ere, 2007. urtean oraindik ere % 11,7an dago. Inolako lanbide-esperientziarik ez dutenen kopurua gutxieneko mailara jaitsi da: biztanleria aktiboaren % 0,7 besterik ez, 2003. urteko % 5en eta 1999. urteko % 6,5en oso azpitik.

Desokupazio-maila handiak gorabehera, datuek adierazten dutenez, 1995-1999 aldian nabarmen igo zen okupazioaren hazkunde-prozesuari (% 58,8tik % 76,1era) eutsi egin zaio. 2003. urtean hazkunde-prozesuak berriz ere gora egin zuen, % 81,9ra helduz. 2003-2007 aldian hazkunde-prozesua sendotu egin da eta 2007. urtean taldearen okupazio maila % 88,3 izan da.

Lan egiten ez dutenen zenbatekoak aztertzean, aktibo potentzialen errealitatea kontuan izan behar da. Ikasketa kualifikatuak baina lan-esperientzia esanguratsurik ez dutenen artean biztanleria potentzialki aktiboa kontuan hartzen badugu, langabezia tasak % 15,4ra arte gora egingo luke, hala ere, 2003. urteko % 21,8ren azpitik.

Aldaketa horrek lan egiten ez duten esperientziadunei eragiten die, batik bat, eta lan egiten ez duten eta alde zurririk inolako lan-esperientziarik ez dutenen eragin erlatiboaren maila bere horretan geratzen da (2008. urteko 5,7ren aldean, % 1,4). Erreferentzia dugun taldean beraz, lan egiten ez duen esperientziadunen proportzioak gutxi egin du behera 2003. urteko datuekin alderatuz: %16 orduan eta % 14 orain.

#### 5.24 taula.

Lan-esperientzia esanguratsurik ez, baina ikasketa kualifikatuak dituen biztanleria aktiboa, jarduerarekiko loturaren arabera  
(Datu absolutuak eta % bertikalak)

Jarduerarekiko lotura	Datu absolutuak	% bertikalak	Pot.aktiboa % ber.
Landuna	144.988	88,3	84,6
Lan egiten ez duena esperientziarekin	18.046	11,0	14,0
Lan egiten ez duena esperientziarik gabe	1.154	0,7	1,4
<b>GUZTIRA</b>	<b>164.187</b>	<b>100</b>	<b>100</b>

Aktiboen talde horretan, 2007. urtean ez-okupazio tasak %10en gainetik daude emakumeetan (% 14,6 orokorrean) eta 35 urtetik beherako gizonetan (% 10,6); 35-44 arteko gizonetan tasa murriztu egiten da % 5,9ra eta 45 urtetik gorakoetan berriz, % 0ra. Gizonetan adinak gora egin ahala desokupazio-tasak behera egiten badu, emakumeetan ez da horrela gertatzen, 45 urtetik gorako emakumeetan langabetuen tasa asko igotzen baita (adin horren azpitik daudenen artean tasa % 12tik %13ra bitartekoa bada, 45 urtez gorakoetan % 35,6 da).

Azken lau urteetako langabezia-tasek okerrera egin dute eta horrek eragina izan du 45 urtez gorako emakumeen egoera txarrean. 1999. urtetik 2003. urtera bitarte % 53,2tik % 22ra jaitsi ondoren, tasak gorantz egiten du 2007. urtean, % 35,6 inguru izanik. Aitzitik, 2003. urtetik 2007. urtera bitarte, adinaren eta sexuaren araberrako gainerako taldeetan, tasek behera egin dute. Hala ere, 35 urtez azpiko emakumeen eta gizonen artean izandako beherakada 4 puntu edo gehiagokoa den arren, 25-44 urtekoetan beherakada txikiagoa da (2003. urtean % 14,9 eta 2007.

urtean % 13,1).1999-2003 aldian eman zen beheranzko joera handia haustez gain (% 36,2tik % 14,9ra), 35 urte edo gehiagoko emakumeen artean egoera ez dela hain aldekoa ikus daiteke.

Baina lan egiten ez dutenen datuetan biztanleria potentzialki aktiboa ere barne hartu behar da; kasu horretan, ez-okupazioak askoz eragin handiagoa du emakumeengan (% 19,8, gizonetan % 10,4 izanik). Aktiboen multzoa eta potentzialki aktiboen multzoa kontuan hartzen baditugu, adinaren arabera langabezia-tasak gora egiten duela ematen badu, egoera hori askoz garbiago ikusten da emakumeen kasuan: 35 urtez azpikoetan langabezia-tasa %15,1 da, 35-44 urtekoetan % 23, eta 45 urtez gorakoetan % 42,1. Gizonekin alderatuz ere, desokupazio-mailetako desfasea ere areagotu egiten da: 35 urtetik beherakoen artean 2,6 puntu, baina 35-44 bitartekoetan % 17,1 eta 45 edo gehiagokoetan % 35,9.

#### 5.25 taula.

Lan-esperientzia esanguratsurik ez, baina ikasketa kualifikatuak izanik, lan egiten ez dutenen tasak, sexuaren eta adinaren arabera.

#### Biztanleria aktiboa (%-etan)

Sexua eta adina	2007	2003	1999	Tasa Pot.aktiboa
Gizonak < 35	10,6	17,8	16,2	12,6
Gizonak 35-44	5,9	10,3	12,4	5,9
Gizonak >= 45	0,0	26,3	17,9	6,2
Gizonak	8,6	16,8	15,7	10,5
Emak. < 35	12,0	20,4	30,3	15,1
Emak. 35-44	13,1	14,9	36,2	23,0
Emak. >= 45	35,6	22,3	53,2	42,1
Emakumeak	14,6	19,4	31,7	19,8
<b>GUZTIRA</b>	<b>11,7</b>	<b>18,1</b>	<b>23,9</b>	<b>15,4</b>

Multzo horretan barne harturiko 144.988 landunek Euskadiko Autonomia Erkidegoko landun guztien % 15,2 osatzen dute (1995. urteko % 12,1 gaindituta, baina 1999. urteko % 18,6 eta 2003. urteko 15,9 baino gutxiago). Lan-esperientzia ez-esanguratsua eta prestakuntza kualifikatua dituztenen kolektiboan, gehienak teknikariak dira, % 39,9. Proporzioa askoz txikiagoa den arren, honako hauen garrantzia ere deigarria da: zerbitzuetako langile kualifikatuena (% 16,8), industriako eta eraikuntzako langile kualifikatuena (% 12), eta makineriako operadoreena (% 10,5).

Aipaturiko zenbatekoen inguruan, honako datu hau interesgarria da: prestakuntza kualifikatua eta lan-esperientzia esanguratsua dutenen % 58,4 zuzendariak edo teknikariak dira, baina, prestakuntza kualifikatua baina lan-esperientzia esanguratsurik ez dutenen proportzioa % 44,7ra jaisten da. Hortaz, ikasketa kualifikatuak bai baina lan-esperientziarik ez izateak, teknikari-edo zuzendaritza postuetatik lanbide maila baxuagoetara mugitzea dakar.

Postu-aldaketa hori gorabehera, intzidentzia-mailarik handiena teknikarietan ikusten da, landun mota horren % 22,3rekin. Zuzendarien artean ordea, intzidentzia % 11,8 da, zerbitzuetako langile kualifikatuen % 17,5en, eta arduradunen edo erdi-mailako arduradunen % 12,8ren azpitik. Zuzendarien intzidentzia beste honako hauen antzekoa da: industriako eta eraikuntzako langile kualifikatuena, makineria operadoreena eta garraio eta zamalanetako kualifikatu gabeko langileena (% 10-11 arteko zenbatekoak kasu guztietan). Zenbateko horien azpitik lehen sektoreko langileak eta kualifikatu gabeko langile gehienak daude, azken kasu horretan % 10en azpitik.

#### 5.26 taula.

Lan-esperientzia esanguratsurik ez, baina ikasketa kualifikatuak dituen biztanleria landuna, lanbidearen arabera

(% bertikalak eta intzidentzia-mailak, erreferentziako biztanleria landunari dagokionez, %-etan)

Lanbidea	% ber.	Intzidentzia
Indar Armatuak	0,1	17,9
Zuzendariak	4,9	11,8
Teknikariak	39,9	22,3
Administrazioko enplegatuak	8,3	12,8
Zerbitzuetako tekn. kualif.	16,8	17,5
Nekazaritzako/arrantzako lang. kualif.	0,8	7,7
Eraikuntzako/industriako lang. kualif.	12,0	11,9
Makineriako operadoreak	10,5	11,5
Zerbitzuetako lang. ez-kualif.	4,5	9,5
Nekazaritzako/arrantzako lang. ez-kualif.	0,0	
Eraikuntzako/industriako lang. ez-kualif.	1,3	7,6
Garraioko/zamalanetako lang. ez-kualif.	0,9	11,3
<b>GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>15,2</b>

Lanbide-kategoriari dagokionean, zuzendariak, teknikariak edo arduradunak dira prestakuntza kualifikatua baina oraindik lan-esperientzia esanguratsua ez dituen biztanleria landunaren % 41,4. Beraz, langileen kolektiboak gehiengoa dira (% 58,6), eta horien artean aipatzekoa da % 29,6 kualifikaziorik gabeko lanbide-kategoria duten langileak direla eta % 28,9 langile kualifikatuak.

Langile kualifikatuen eta kualifikatu gabeen kolektiboak gero eta eragin handiagoa du talde horretan. 1995. urtean guztizkoaren % 53,4 zen, baina 1999. urtean gorakada handia izan eta % 66,3ra heldu zen (kualifikatuak edo kualifikatu gabeak). Data horretatik aurrera ordea, proportzioak beherako joera hartuko du eta 2003. urtean % 63,2ra eta 2007. urtean % 58,6ra murriztuko da.

Biztanleriaren gehiengoa langileek osatzen badute ere, biztanleria landun guztietan kolektiboak duen intzidentziarik handiena teknikarietan atzematen da (% 23,7). Langileen (kualifikatuak edo kualifikatu gabeak) eta arduradun edo erdi-mailako kargudunen artean ematen den % 13,5 baino zenbateko handiagoa da. Intzidentziarik txikiena, berriro ere, zuzendaritzako langileengan izan du, % 4 besterik ez:

Aztertzen ari garen egoerak 1999-2003 aldian eta 2003-2007 aldian ere beheranzko joera izan du. Horrela, arduradunen kasuan ere, 2003-2007 aldian beherakada egon da (1999-2003 laurtekoan gorakada izan zuen). Gainerako lanbide-kategoriatan ez bezala, 2007. urteko arduradun-kolektiboaren adierazlea 1999. urtekoa baino zertxobait handiagoa da.

#### 5.27 taula.

Lan-esperientzia esanguratsurik ez, baina ikasketa kualifikatuak dituen biztanleria landuna, lanbide-kategoriaren arabera (% bertikalak eta intzidentzia-mailak, erreferentziako biztanleria landunari dagokionez, %-etan)

Lanbide-kategoria	% ber.	Intzidentzia		
		2007	2003	1999
Kualifikatu gabea	29,6	13,5	14,1	16,7
Kualifikatua	28,9	13,6	14,1	17,8
Arduradunak, erdi-mailako kargudunak	7,9	13,4	14,9	10,1
Langile teknikariak	32,4	23,7	25,7	31,1
Zuzendaritzako langileak	1,2	4,0	9,9	10,1
<b>GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>15,2</b>	<b>15,9</b>	<b>18,6</b>

Sektoreen arabera, zerbitzu-sektoreko enplegua nabarmentzen da. Prestakuntza kualifikatua baina lan-esperientzia esanguratsurik gabeko langileen % 66,8 zerbitzuetan ari da lanean, % 24,7 industrian, % 7,2 eraikuntzan eta % 1,2 lehen sektorean. Zerbitzu-sektorean, adarrik esanguratsuenak Administrazioarekin eta zerbitzu publikoekin -hezkuntza, osasungintza eta gizarte-zerbitzuak- loturikoak dira (% 22,4). Merkataritza, ostalaritza eta gainerako merkataritza zerbitzuak (% 20) eta enpresetarako zerbitzuak ere (% 15,7) aipatzekoak dira. Zerbitzu sektoretik at, metal-sektoreko adarrek % 17,7 hartzen dute.

Erreferentzia dugun okupazio-taldearekin alderatuta, intzidentziari dagokionez, banaketan dauden aldeak agerian geratzen dira. Horrela, argi eta garbi, zerbitzuetan zenbatekoak handiagoak dira, landunen gutzitzkoaren % 16,4 zerbitzuetan baitago: % 13,7 industrian, % 12,6 eraikuntzan, eta lehen sektorean berriz, gutxieneko % 10,4.

Adarren arabera aztertzen badugu, landun mota horrek zerbitzu-adarretan duela intzidentziarik handiena ikusiko dugu, % 20 inguru edo hortik gora: enpresetarako zerbitzuetan, osasunean eta gizarte-zerbitzuetan eta bestelako merkataritza-zerbitzuetan. Zerbitzu-adarretik at, talde horren intzidentzia elikagai-industrian, industria petrokimikoan, material elektrikoaren industrian eta arrantzan ikus daiteke (hemen gehieneko % 40,6ra iristen da). Batez besteko zenbatekoetan edo handiagokoetan (% 15etik % 20ra) daude honako hauek: erauzketa-industria, metalurgia, ostalaritza, Administrazio Publikoa, hezkuntza eta etxeko zerbitzua.

Bilakaerari begiratuta, datuek intzidentziaren beherakada handia erakusten dute industrian (1999. urtean % 18,3 eta gaur egun % 13,7, halere, 2003. urteko % 12,2 baino hobe); kontrako muturrean, honako hauetan hazkundera izan da: lehenengo sektorean (1999. urtetik 2007. urtera bitarte % 1,4tik % 10,4ra) eta eraikuntzan (% 7,8tik % 11,2ra). Zerbitzuetan ere, intzidentziaren beherakada ikus daiteke, 1999. urtetik 2007. urtera bitarte % 20,8tik % 16,4ra. Beherakada ez da industrian bezain handia izan, baina bai luzeagoa denboran, 1999-2003 aldiko beherako joerak 2003-2007 aldian ere irauten baitu.

## 5.28 taula

Lan-esperientzia esanguratsurik ez, baina ikasketa kualifikatuak dituen biztanleria landuna, jardueraren arabera

(% bertikalak eta intzidentzia-mailak, erreferentziako biztanleria landunari dagokionez, %-etan)

Jarduera	% ber.	Intzidentzia
Nekazaritza	0,2	1,6
Arrantza	1,1	40,6
Nekazaritza eta arrantza	1,2	10,4
Erauzketa-industria	0,1	16,9
Elikagai-industria	1,7	20,3
Paper-industria	0,6	6,9
Industria petrokimikoa	1,8	19,9
Kautxu-industria	1,0	10,5
Bestelako gai ez-metalikoen industria	0,6	11,2
Metalurgia	7,6	15,1
Makinagintza	3,6	9,9
Material elektrikoa	3,4	27,3
Garraio-materiala	3,2	14,1
Askotariko manufaktura-industriak	1,0	6,6
Energia-produkzioa	0,3	9,3
Industria	24,7	13,7
Eraikuntza	7,2	12,6
Merkataritza	10,0	11,3
Ostalaritza	4,5	17,3
Garraioak eta komunikazioak	3,9	10,4
Finantza-erakundeak	1,7	13,3
Enpresetarako zerbitzuak	15,7	21,6
Administrazio Publikoa	6,1	16,5
Hezkuntza	6,5	14,9
Osasuna/Gizarte-zerbitzuak	9,8	21,4
Bestelako merkataritza-zerbitzuak	5,4	21,5
Etxeko zerbitzuak	3,1	17,9
Zerbitzuak	66,8	16,4
GUZTIRA	100	15,2

Prestakuntza kualifikatua baina lan-esperientzia esanguratsurik gabeko landunen ezaugarri garrantzitsu bat hauxe da: kontratazio-baldintza txarrak. Aldi baterako kontratatuak, obrakoak eta kontraturik gabekoak kontuan hartuta, kolektiboaren % 41,1 osatzen dute. Termino erlatiboetan, aldi baterako kontratuen % 33,4 kolektibo horretakoak dira eta obrakoak % 3,2. % 16,9 kontraturik gabe daude. Aldiz, kontratu mugagabeen % 11,9 eta norbere kontura ari direnen % 5,7 soilik dira ezaugarri horiek betetzen dituztenak.



Aldibaterakotasunak eta gainerako baldintza txarrek duten garrantzia gorabehera, azken lau urteotako joera garrantzitsu batzuk aipatu behar dira: Izan ere, kontratu mugagabea duten edo norbere kontura ari direnen intzidentzia-mailak zertxobait behera egin duen bitartean (% 22,2tik % 17,6ra), beherakada nabarmena izan dute aldi baterako kontratuek (% 43,9tik % 33,4ra). Bestalde, obra kontratua duten landunen artean (2003-2007 aldian % 27tik % 33,2ra) eta kontraturik gabeko landunen artean (aztertzen ari garen laurtekoan % 4,4tik % 16,9ra) egoera mota horren eraginak suspertze handia izan du. Azken kasu horretan, kontraturik gabeko langileak 1999. urtean baino gehiago dira.

Datu horiek adierazten dutenez, azken urteotan bezalaxe, gaur egun ere epe luzeko esperientzia-maila sendotzen ari da ikasketa kualifikatuak dituztenetan, eta horrek, kolektibo horretakoak prestakuntza kualifikatua eta lan-esperientzia esanguratsua dutenen kolektibora mugitzea dakar. Era berean, kontraturik gabe edo obra-kontratua duten kolektiboaren eragina handitzeak, baldintza egonkorretan esperientzia-maila egonkortzeko aukera gutxitzea dakar. Norbere kontura ari direnen edo kontratu mugagabea dutenen garrantzi erlatibo ez da oso handia, eta horrek, aipaturiko mugimenduari aurrea har liezaioke (bereziki, lan-merkatuko baldintzek okerrera egingo balute).

#### 5.29 taula

Lan-esperientzia esanguratsurik ez, baina ikasketa kualifikatuak dituen biztanleria landuna, enpresarekiko kontratu bidezko lotura motaren arabera (% bertikalak eta intzidentzia-mailak, erreferentziako biztanleria landunari dagokionez, %-etan)

Kontratu bidezko lotura	% ber.	Intzidentzia		
		2007	2003	1999
Mugagabea	47,5	11,9	11,6	12,5
Denbora-eremua	27,0	33,4	40,1	43,9
Obrakoa	12,2	33,2	27,0	36,6
Kontraturik gabekoa	1,8	16,9	4,4	12,3
Bestelako egoeraren bat	4,6	41,4	45,5	45,5
Norbere kontura	6,8	5,7	9,9	9,7
<b>GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>15,2</b>	<b>15,9</b>	<b>18,6</b>

### **5.- IKASKETARIK ETA LAN-ESPERIENTZIA ESANGURATSURIK EZ, BAINA PRESTAKUNTZA OSAGARRIA DUEN BIZTANLERIA**

Atal honetan ikasketa kualifikaturik ez duten eta gainera inolako lan-esperientzia esanguratsurik izan ez duten aktiboen egoera aztertuko dugu. Hala ere, aztertuko ditugun aktibo horiek lanbidekoak ez diren bigarren mailako ikasketa arautuak edo I. mailako lanbide-ikasketak

egin dituzte, edo enpleguan edo atzerriko hizkuntzaren bat ikasteen eragina izan duen prestakuntza osagarri esanguratsuren bat egin dute. Hortaz, lan-merkatuan lan-esperientzia esanguratsurik eta ikasketa kualifikaturik izan gabe, prestakuntza arautuko maila jakin bat edo arautu gabeko prestakuntza osagarri esanguratsuren bat egin duten aktiboak izango ditugu aztergai.

Aurreko atalean deskribaturiko kolektiboak bezalaxe, 108.864 lagunek osatutako talde hori, gehien bat, 35 urtetik beherakoek osatzen dute, biztanleria aktiboaren % 64,1. Aurreko taldean bezalaxe, generoen arteko oreka erlatiboa dagoela esan daiteke, nahiz eta kasu horretan gizonen eragina zertxobait handiagoa den 2007. urtean (% 54,5 gizonak, % 45,5 emakumeak). 2003. urteko orekaren ondoren beraz, 1999. urteko egoerara itzuli gara, urte horretan gizonak zertxobait gehiago baitziren (% 52,5).

Azken aldian, talde horretako biztanleria aktiboan gainbehera izan da, batez ere emakumeetan (% -24,1, gizonetan % -6,7 izanik). Nolanahi ere, sexuaren eta adin-taldean arabera beherakada talde guztietan gertatzen dela nabarmendu beharra dago.

Lan-esperientziarik ez, baina ikasketa kualifikatuak zituztenetan ikusi dugun moduan, biztanleria potentzialki aktiboa osatzen duten 7.110 lagunen ezaugarriak aztertzea ere garrantzitsua da. Biztanleria mota horretan, 35 urtez azpikoen eragina handitu egin da (2007. urtean, jarduera potentzialean dauden guztizkoaren % 81,3). Kualifikazio-maila handieneko taldean bezalaxe, oraingoan ere emakumeen mesederako aldea atzematen da, lan-esperientziarik ez baina prestakuntza osagarri esanguratsua duten biztanle potentzialki aktiboaren % 71,7 emakumezkoak izanik.

### 5.30 taula

Ikasketa kualifikaturik eta lan-esperientzia esanguratsurik ez, baina prestakuntza osagarria duen biztanleria aktiboa, sexuaren eta adinaren arabera

(Datu absolutuak, % bertikalak eta biztanleriaren hazkunde-tasak, %-etan)

Sexua eta adina	Datu		% hazkundera	Pot. aktiboak	%
	absolutuak	% bertikalak	2003/2007	Abs..	bertikalak
Gizonak < 35	41.041	37,7	-6,3	2.012	28,3
Gizonak 35-44	10.510	9,7	-10,5		
Gizonak >= 45	7.764	7,1	-3,7		
Gizonak	59.315	54,5	-6,7	2.012	28,3
Emak. < 35	28.737	26,4	-26,3	3.770	53,0
Emak. 35-44	12.204	11,2	-25,0	1.111	15,6
Emak. >= 45	8.608	7,9	-14,1	216	3,0
Emakumeak	49.549	45,5	-24,1	5.097	71,7
<b>GUZTIRA</b>	<b>108.864</b>	<b>100</b>	<b>-15,5</b>	<b>7.110</b>	<b>100</b>

Lan egiten ez dutenen kopurua oso handia da kolektibo horretan, 2007. urteko aktiboen % 16,4 barne hartuta. Hala ere, aurreko urteen aldean, hobekuntza nabarmena izan da, 1995. urtean % 45, 1999. urtean % 35,7 eta 2003. urtean % 21,9 baitzen.

Lan egiten ez duten eta inolako lan-esperientziarik ez dutenen proportzioak ere behera egin du, % 2,6raino (2003. urteko % 5,6tik, 1999. urteko % 8,4tik eta 1995. urteko % 13,5etik behera).

Aktibo potentzialen kolektiboa aintzat hartuz gero, aurreko zenbateko horiek handitu egiten dira. Desokupazio-maila % 21,5era igotzen da, aldezturik inolako esperientziarik ez dutenak % 6,3 izanik. Zenbatekoak, ordea, 2003. urtekoak baino askoz txikiagoak dira (% 31,6 eta 10,4 hurrenez hurren).

#### 5.31 taula

Ikasketa kualifikaturik eta lan-esperientzia esanguratsurik ez, baina prestakuntza osagarria duen biztanleria aktiboa, jarduerarekiko loturaren arabera  
(Datu absolutuak eta % bertikalak)

Jarduerarekiko lotura	Datu absolutuak	% bertikalak	Tasa Pot. aktiboak
Landuna	91.046	83,6	78,5
Lan egiten ez duena esperientziarekin	14.976	13,8	15,2
Lan egiten ez duena esperientziarik gabe	2.842	2,6	6,3
<b>GUZTIRA</b>	<b>108.864</b>	<b>100</b>	<b>100</b>

Gaur egun, sexuaren araberako desokupazio-maila antzekoa da, % 16,3 gizonetan eta % 16,4 emakumeetan. Praktikan ordea, adin-talde guztiak kontuan izanda, emakumeei dagozkien tasak handiagoak dira (1999. eta 2003. urteetan ere halaxe gertatzen zen) nahiz eta epe luzera murrizketa egongo den. Joera horrek duen salbuespen bakarra 35-44 urtekoen artean dago, emakumeen desokupazio-maila % 11 baita eta gizonena % 27,2. Egoera hori, emakumeen tasek izandako beherakada handiarekin (1999. urtean % 42,8) eta aldi berean gizonen tasek izandako hazkunde jarraituarekin loturik dagoela esan dezakegu. 1999-2003 aldian hazkunde txikia izan bazen (% 14,4tik % 16,1era), 2003-2007 aldian 35-44 urte bitarteko gizonena askoz handiagoa izan da (% 16,1etik % 27,2ra). Litekeena da joera hori 45 urtetik gorako gizonetan ere ematea, 2003-2007 aldian desokupazio-tasa % 14,2tik % 19,4ra igo baita.

1999-2003 aldian ikusitakoa ez bezala, 2007. urtean desokupazio-mailarik handienak 35 urtez azpikoen artean izateko joera apurtu egiten da. Kontuan izan behar da prestakuntza osagarria dela gazte horiek duten kualifikazio ezaugarri bereizgarri bakarra. Gizonen artean, 35 urtez azpikoen artean dago tasarik txikiena eta emakumeen artean berriz, gazteenen tasa 35-44 urtekoena baino handiagoa da, baina 45 urtez gorakoena baino txikiagoa (% 16,8, % 11ren aurrean). Izan ere, gizonetan gertatzen zen bezalaxe, 1999. urtetik emakume talde horretako desokupazio-tasaren beheranzko joera gelditu egiten da eta 45 urtez gorako emakumeetan gora egiten du (% 18,7tik % 23ra).

Aktibo guztiei dagozkien datuei erreparatuta, argi ikusiko dugu kolektibo horrek duen garrantzi diferentziala, lan egiten ez dutenen tasa igo egiten baita gizonetan % 16,3tik % 19,1era, eta emakumeetan % 16,4tik % 24,2ra. Aktiboek eta potentzialki aktiboek buruzko datuak hartuta, 2003-2007 aldian desokupazio-tasek behera egiten dute emakumeen adin-talde guztietan eta 35 urtetik beherako gizonetan. Gizonezkoen desokupazio-tasak gora egiten du 35-44 urte artekoetan eta 45 urtetik gorakoetan bere horretan jarraitzen du.

Oro har, biztanleria potentzialki aktiboaren testuinguruan, 35 urtetik beherako emakumeen artean, 45 urtetik gorako emakumeen artean eta 35-44 urteko gizonen artean desokupazio-tasak % 25 inguru edo hortik gorakoak direla ikus daiteke. Gainerako kasuetan, zenbatekoak ez dira hain handiak baina beti % 15en gainetik daude, % 17ren eta % 19,5en artean.

Horrela, lanean ez aritzeak eragin handia duela ikusi dugu, prestakuntza-maila mugatua eta inolako lan-esperientzia esanguratsurik ez duten aktiboetan.

5.32 taula.

Ikasketa kualifikaturik eta lan-esperientzia esanguratsurik ez, baina prestakuntza osagarria dutenen ez-okupazio tasak, sexuaren eta adinaren arabera.

Biztanleria aktiboa.

(%-etan)

Sexua eta adina	2007	2003	1999	Pot. Aktiboena tasa
Gizonak < 35	12,9	19,9	34,1	17,0
Gizonak 35-44	27,2	16,1	14,4	27,2
Gizonak >= 45	19,4	14,2	15,0	19,4
Gizonak	16,3	18,5	28,7	19,1
Emak. < 35	16,8	30,2	45,8	26,4
Emak. 35-44	11,0	17,5	42,8	18,4
Emak. >= 45	23,0	18,7	30,0	24,8
Emakumeak	16,4	25,3	43,5	24,2
<b>GUZTIRA</b>	<b>16,4</b>	<b>21,9</b>	<b>35,7</b>	<b>21,5</b>



Talde horretako 91.046 landunek EAeko landun guztien % 9,6 osatzen dute. Honela banatzen dira: zerbitzu-sektoreko langileak, kualifikatuak nahiz kualifikatu gabeak (% 28,5 eta % 11,5), industriako eta eraikuntzako langile kualifikatuak (% 15,2), eta makineriako operadoreak (% 16,5). Oro har, kolektiboaren % 60,8 langile kualifikatuen eta makineriako operadoreen multzoan barne hartuta dago, betiere 2003ko % 67,3ren azpitik.

Zenbateko erlatiboetan, aktibo mota horien intzidentziarik handiena zerbitzu-sektoreko langile kualifikatuei (% 18,6) eta langile ez-kualifikatuen kategoria gehienei dagokie, hain zuzen ere, zerbitzuei (% 15,2), eraikuntzari edo industriari (% 24,1) eta garraioari eta zamalanei loturiko kategoriei (% 19,4). Industriako eta eraikuntzako langile kualifikatuei eta makineriako operadoreei askoz intzidentzia txikiagoa dagokie, hau da, % 9,5-11,5. Proportzioa nahiko antzekoa da administrazioko langileei dagokienez, % 8,2 hain zuzen ere. Aldiz, % 2-3 tartean daude teknikariak eta zuzendaritzako langileak.

### 5.33 taula.

Ikasketa kualifikaturik eta lan-esperientzia esanguratsurik ez, baina prestakuntza osagarria duten landunak, lanbidearen arabera

(% bertikalak eta intzidentzia-maila, biztanleria landun guztia dagokionez, %-etan)

Lanbidea	% ber.	Intzidentzia
Indar Armatuak		
Zuzendariak	1,3	2,1
Teknikariak	8,7	3,1
Administrazioko langileak	8,4	8,2
Zerbitzuetako tekn. kualif.	28,5	18,6
Nekazaritzako/arrantzako lang. kualif.	0,6	3,6
Eraikuntzako/industriako lang. kualif.	15,2	9,5
Makineriako operadoreak	16,5	11,4
Zerbitzuetako lang. ez-kualif.	11,5	15,2
Nekazaritzako/arrantzako lang. ez-kualif.		
Eraikuntzako/industriako lang. ez-kualif.	6,8	24,1
Garraioko/zamalanetako lang. ez-kualif.	2,4	19,4
<b>GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>9,6</b>

Zuzendarietan izan ezik, kategoria profesionalen mailak behera egiten duen heinean aktibo mota horrek biztanleria landun guztian duen garrantzi erlatiboa pixkanaka handitzen ari dela

ikusten da. Horrela, teknikariei % 2ko intzidentzia dagokie, arduradunei eta erdi-mailako kargudunei % 4,1, langile kualifikatuei % 8,1 eta langile ez-kualifikatuei % 17,5. Zuzendarien kolektiboari dagokion intzidentzia % 6,5 da, teknikarien eta erdi-mailako kargudunen adierazlearen gainerik.

Esperientziarik edo kualifikazio esanguratsurik izan gabe ere prestakuntza osagarria jaso duten landunek kualifikazio-maila baxuagoa duen biztanlerian hartzen duten garrantzia deigarria da. Kolektiboaren barne-banaketari erreparatuta, landunen % 61,2 langile ez-kualifikatuen kategorian barne hartzen da, % 27,4 langile kualifikatuenean, eta % 11,4 besterik ez, arduradunen, teknikarien eta zuzendari-gerenteen goi-mailako kategorietan.

5.34 taula

Ikasketa kualifikaturik eta lan-esperientzia esanguratsurik ez, baina prestakuntza osagarria duten landunak, lanbide-kategoriaren arabera

(% bertikalak eta intzidentzia-maila, biztanleria landun guztiari dagokionez, %-etan)

Lanbide-kategoria	% ber.	Intzidentzia	Intzidentzia	Intzidentzia
		2007	2003	1999
Ez kualifikatua	61,2	17,5	19,7	19,7
Kualifikatua	27,4	8,1	9,5	10,4
Arduradunak, erdi-mailako kargudunak	3,9	4,1	8,4	7,4
Teknikariak	4,4	2,0	2,0	0,9
Zuzendaritzako langileak	3,1	6,5	3,0	5,4
<b>GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>9,6</b>	<b>11,1</b>	<b>11,4</b>

Sektorearen arabera, zerbitzu-sektoreak garrantzi handia du okupazioan, okupazio guztiaren % 59,4 sektore horretakoa baita. Merkataritza-ostalaritzaren (% 23,3) eta etxeko zerbitzuaren (% 5,8) garrantzia ere azpimarratzeko modukoa da sektore honetan, enpresatarako zerbitzuen % 11,8 alde batera utzi gabe. Beste sektoreei dagokionez, nabarmentzekoak dira eraikuntzako % 11,9 eta metalaren adarretako % 18,8.

Gutzizko okupazioari dagokionez, aipatutako langile mota gehien dituen sektorea eraikuntza da, okupazioaren % 13. Lehen sektorearen % 8,3ren gainerik dago, baita industrian eta zerbitzuetan ateratzen diren % 9,2-9,4koen gainerik ere.

Adarren arabera eta erreferentziako biztanleriari dagokionez eta zerbitzu-sektorea kanpoan utzita, landun mota horien presentzia erlatibo handiena honako sektore hauetan ematen da: energia-ekoizpenean (% 20,3), arrantzan (% 16,2), paper-industrian (% 15,8), makineriaren eraikuntzan (% 10,6), material elektrikoaren industrian (% 12,2) eta eraikuntzan (% 13). Zerbitzu-eremuan, intzidentzia handiena honako hauek dute: merkataritzak (% 11,5), ostalaritzak (% 16,8),

enpresetarako zerbitzuak (% 10,1), merkataritzako beste zerbitzuek (% 10,2) eta etxeko zerbitzuak (% 21,3).



5.35 taula

Ikasketa kualifikaturik eta lan-esperientzia esanguratsurik ez, baina prestakuntza osagarria duten landunak, jardueraren arabera

(% bertikalak eta intzidentzia-maila, biztanleria landun guztiari dagokionez, %-etan)

Jarduera	% ber.	Intzidentzia
Nekazaritza	0,9	6,0
Arrantza	0,7	16,2
<b>Nekazaritza eta arrantza</b>	<b>1,6</b>	<b>8,3</b>
Erauzketa-industria	0,0	
Elikagai-industria	1,1	8,5
Paper-industria	2,0	15,8
Industria petrokimikoa	0,6	4,4
Kautxu-industria	1,3	8,9
Bestelako gai ez-metalikoen industria	0,1	1,6
Metalurgia	7,2	9,0
Makinagintza	6,1	10,6
Material elektrikoa	2,4	12,2
Garraio-materiala	3,2	8,9
Askotariko manufaktura-industriak	2,0	8,2
Energia-produkzioa	1,0	20,3
<b>Industria</b>	<b>27,1</b>	<b>9,4</b>
<b>Eraikuntza</b>	<b>11,9</b>	<b>13,0</b>
Merkataritza	16,2	11,5
Ostalaritza	7,0	16,8
Garraioak eta komunikazioak	6,0	9,8
Finantza-erakundeak	0,6	3,2
Enpresetarako zerbitzuak	11,8	10,1
Administrazio Publikoa	0,9	1,5
Hezkuntza	1,7	2,5
Osasuna/Gizarte-zerbitzuak	5,1	7,0
Bestelako merkataritza-zerbitzuak	4,1	10,2
Etxeko zerbitzuak	5,8	21,3
<b>Zerbitzuak</b>	<b>59,4</b>	<b>9,2</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>9,6</b>

Bukatzeko, honako hau aipatu behar dugu: lan-esperientzia esanguratsurik eta prestakuntza osagarririk gabeko landun mota horrek izugarriko intzidentzia du mugagabeak ez diren kontratu mota edo enpresarekiko lotura mota guztietan. Landun horien eragina bereziki aipagarria da aldi baterako kontratuetan (% 23,7), obrakoetan (% 20,3) edo kontraturik gabekoetan (% 17,5). Aldiz, batez bestekoaren azpitik geratzen da intzidentzia kontratu mugagabea dutenen kasuan (% 6,1) nahiz norbere kontura ari direnen kasuan (% 7,3).

Eraginpean hartutako landun guztien barne-banaketari begiratuta, ikusiko dugu landun horien % 45,4 aldi baterako edo obrako kontratuarekin ari direla lanean, edo ez dutela kontraturik. Norbere kontura ari direnak % 13,9 soilik dira eta landunen % 40,4 kontratu mugagabearekin daude.

5.36 taula

Ikasketa kualifikaturik eta lan-esperientzia esanguratsurik ez, baina prestakuntza osagarria duten landunak, enpresarekiko kontratu bidezko lotura motaren arabera

(% bertikalak eta intzidentzia-maila, biztanleria landun guztiari dagokionez, %-etan)

Kontratu bidezko lotura	% ber.	Intzidentzia 2007	Intzidentzia 2003	Intzidentzia 1999
Mugagabea	39,0	6,1	7,9	7,4
Aldi baterakoa	30,6	23,7	23,5	21,1
Obrakoa	11,9	20,3	19,6	14,9
Kontraturik gabekoa	3,0	17,5	30,2	28,3
Bestelako egoeraren bat	1,7	9,7	20,1	0,0
Norbere kontura	13,9	7,3	6,1	9,9
<b>GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>9,6</b>	<b>11,1</b>	<b>11,4</b>

## 6.- IKASKETARIK ETA LAN ESPERIENTZIA ESANGURATSURIK GABEKO BIZTANLERIA

Azkenik ikasketa esanguratsurik gabeko pertsonen ezaugarriak azalduko dira. Katgoria honetan gehienez lehen mailako ikasketak dituztenak eta lan-esperientzia esanguratsurik ez dutenak sartzen dira. 108.516 lagunek osatzen zuten talde hori 2007an, EAEko biztanleria aktibo guztiaren % 10,7, alegia.

1999. urtearekin alderatuta, urte horretako aktiboen % 48,6k 35 urte baino gutxiago zituen, eta gaur egun -2003an gertatzen zen moduan- nagusiagoen taldeek garrantzi handiagoa dute: % 33,1, 35-44 urtekoak, % 35,1, 45 urtetik gorakoak, eta 35 urtetik beherakoak, aldiz, % 31,9 (2003an, % 40,3). 1999-2007 aldian ikusten den aldaketaren arrazoia batez ere honako hau da: kalifikazio-kategoria horretan 35 urtetik beherakoen bolumena gutxitzea. Gutxitze hori 1999-2007 aldi guztian zehar mantendu da.

Alabaina, 1999an eta 2003an bezalaxe, gaur egun ere gizonen proportzioa handiagoa da ikasketa eta esperientzia esanguratsurik gabeko katgoria horretan (% 52,6 gizonak, % 47,4 emakumeak), 45 urtetik beherakoetan dagoen aldearen ondorioz batez ere (% 40,9 gizonetan, % 24 emakumeetan). Hori horrela izanik, kolektiboaren % 23,4, 45 urtetik gorako emakumeak dira, eta adin berdineko gizona % 11,7 besterik ez dira.

Dena den, 2003-2007 aldian aktibo-kolektibo horren gainbehera globalari eutsi egin zaio, azken lau urteotan bolumenaren % 22,9 galduta, 1995-1999 aldiko % 15,5eko eta 1999-2003 laurteko % 13,2ko galerarekiko jaitsiera-erritmoa azkartuz.

Kolektibo horren egoeraren azterketa egiteko, aktibo potentzialak ere kontuan hartu behar dira, izan ere, kolektibo guztiaren % 42,1, gutxi gorabehera, kualifikaziorik gabeko egoera horretan baitago, bai hezkuntzari dagokionez, baita lan-esperientziari dagokionez ere. Potentzialki aktiboak direnei dagokienez, daturik deigarriena honako hau da: emakumeak eta 45 urtetik gorakoak (gizon nahiz emakume) dira nagusi (% 82 eta % 61,7, hurrenez hurren). Egia esateko, 45 urtetik gorako emakumeek osatzen dute kualifikaziorik gabeko kolektibo horren ardatz nagusia, kolektibo guztiaren % 52,7 baitira.

### 5.37 taula

Ikasketa kualifikaturik eta lan-esperientzia esanguratsurik ez duen biztanleria aktiboa, sexuaren eta adinaren arabera

(Datu absolutuak, % bertikalak eta biztanleriaren hazkunde-tasak, %-etan)

Sexua eta adina	Datu		% hazkundera 2003/2007	Pot. Aktibo Abs.	Bertikalen %-a
	absolutuak	Bertikalen %-a			
Gizonak < 35	24.592	22,7	-27,5	687	5,8
Gizonak 35-44	19.822	18,3	8,9	393	3,3
Gizonak >= 45	12.681	11,7	-38,7	1.060	8,9
Gizonak	57.095	52,6	-21,6	2.140	18,0
Emak. < 35	9.975	9,2	-56,2	851	7,2
Emak. 35-44	16.087	14,8	-22,7	2.624	22,1
Emak. >= 45	25.359	23,4	4,2	6.268	52,7
Emakumeak	51.420	47,4	-24,3	9.744	82,0
<b>GUZTIRA</b>	<b>108.516</b>	<b>100</b>	<b>-22,9</b>	<b>11.884</b>	<b>100</b>

Desokupazioaren eragina oso handia da kolektibo horretan: 12.920 aktibo desokupatuak dira (EAEko guztien % 21,5). Dena den, kolektibo horren desokupazio-mailak jaitsiera garrantzitsua izan du 2003. urtekoarekin alderatuz gero (% 46,8 1999-2003 aldian izandako % 33,3ko jaitsiera areagotuz). Horren ondorioz, desokupazio-tasa % 10 baino pixka bat handiagoa da, % 11,9 hain zuzen ere. 1999. eta 2003. urteetan bezalaxe, tasa hori txikiagoa da ikasketa-maila berdina baina bestelako kualifikazio erantsiren bat dutenetan, hala nola, LH I, bigarren mailako ikasketak, edo atzerriko hizkuntzaren bat jakitea (% 16,4). Lan-esperientziarik ez izatearekin loturiko langabezia-maila % 1,5 da, azterturiko aktibo guztien artean (2003ko % 1,9ren inguruan baina 1999ko % 6,8 baino askoz txikiagoa).

Alabaina, zenbateko horiek adierazten dutena baino handiagoa da desokupazioaren errealitatea kolektibo horretan. Aktibo potentzialak ere kontuan hartuta, eta zentzu zabalean hartuta, desokupazio-tasa % 20,6ra heltzen da, lan-esperientziarik ez baina prestakuntza osagarriren bat badutenen % 21,5 baino puntu bat baino gutxiago azpitik.

## 5.38 taula

Ikasketa kualifikaturik eta lan-esperientzia esanguratsurik ez duen biztanleria aktiboa, jarduerarekiko loturaren arabera  
(Datu absolutuak eta bertikalen %-a)

Jarduerarekiko lotura	Datu		Pot. Aktiboen tasa
	absolutuak	Bertikalen %-a	
Landuna	95.596	88,1	79,4
Ez-okupatua esperientziarekin	11.280	10,4	17,5
Ez-okupatua esperientziarik gabe	1.640	1,5	3,1
<b>GUZTIRA</b>	<b>108.516</b>	<b>100</b>	<b>100</b>

Sexua eta adinaren arabera desokupazio-tasak orokorrean % 10 baino handiagoak dira, % 10-15ekoak, hain zuzen ere. 35 urtetik beherako emakumeak dira salbuespena, % 6,7ko tasa besterik ez baitagokie.

2007an ikusitako tasen konbergentzia gizonen eta emakumeen bilakaera desberdinaren ondorioa da. Emakumeei dagokienez, emakumeen tasak izandako jaitziera handia eta etengabearen ondorioz sorrarazi da egungo egoera (1999an, % 35tik gorako proportzioa izanik). Gizonei dagokienez, 1999an emakumeenak baino tasa dezente baxuagoak izanda ere -% 25 ingurukoak- jaitziera handiak soilik 1999-2003 aldiari dagozkio. 2003-2007 aldian, desokupazio-tasak berdin gelditu ziren 45 urtetik beherakoetan. Aldiz, 45 urtetik gorakoetan, pixka bat igo ziren, % 12,3tik % 15era.

Izan ere, ez lehen mailako prestakuntzaren ondorengo prestakuntzarik, ezta lan-esperientzia esanguratsurik ere ez duen kolektibo honetan -2003an ikusitakoari oposatuz-, desokupazioaren eragina gaur egun handiagoa da gizonetan: % 13,3ko desokupazioa gizonetan eta % 10,4 emakumeetan. Gizonen tasa handitzen doa 2003ko % 12,7tik abiatuta; emakumeena, aldiz jaisten joan da 2003ko % 22,1etik 2007ko 10,4ra. Gizonen kaltetako desokupazio-diferentziala bereziki deigarria da 35 urtetik beherakoetan (% 12,7 gizonetan, % 6,7 emakumeetan) eta 45 urtetik gorakoetan (% 15 gizonetan % 10,1 emakumeetan). Gizonen eta emakumeen desokupazio-tasak soilik 35-44 adin-tartean daude orekatuta. Baina kasu horretan ere, 1999. urtean eta 2003. urtean desokupazio-tasa gizonengan % 50 baxuagoa izatea deigarria da.

Dena den, aurkeztutako datuak ateratzeko aktibo potentzialen kolektiboa ez da kontuan hartu, beraz datu horiek desitxuratuta daude. Biztanleria potentzialki aktiboa kontuan hartzen bada desokupazioaren eragina emakumeetan handiagoa dela ikus daiteke: % 24,6 gizonetan eta % 16,4 emakumeetan. Aktiboei eta aktibo potentzialei dagokien sexua eta adinaren arabera datu orokorrak kontuan hartuz, 35 urtetik beherako gizonetan nahiz emakumeetan % 14-15eko desokupazioko mailak daude, baita 35-44 adin-tarteko gizonetan ere. Desokupazio-tasa % 21,5eraino igotzen da 45 urtetik gorako gizonetan eta 35 urtetik gorako emakumeetan % 25eko maila gainditzen du.

2003an gizonen eta emakumeen artean zegoen aldea jaitsi egin da emakumeen desokupazio-tasaren 43,2tik 24,6rako jaitziera garrantzitsuen ondorioz. Gizonen tasa, aldiz, handitu egin da % 15,4tik % 16,4ra. 2003an emakumeen langabezia-tasak gizonenak baino askoz handiagoak ziren baina tasa horiek 2007an orekatu egin ziren gazteen artean. Bestalde, diferentziala gutxitzen da 35 urtetik gorakoetan, batez ere 45 urtetik gorakoetan.

## 5.39 taula

Ikasketa kualifikaturik eta lan-esperientzia esanguratsurik ez dutenen ez-okupazio tasak, sexuaren eta adinaren arabera.

Biztanleria aktiboa  
(%-etan)

Sexua eta adina	2007	2003	1999	Tasa
				Pot. aktiboak
Gizonak < 35	12,7	12,7	22,5	15,0
Gizonak 35-44	13,0	13,3	24,7	14,7
Gizonak >= 45	15,0	12,3	26,1	21,5
Gizonak	13,3	12,7	23,8	16,4
Emak. < 35	6,7	16,4	36,4	14,0
Emak. 35-44	13,1	26,1	48,0	25,3
Emak. >= 45	10,1	24,0	48,1	27,9
Emakumeak	10,4	22,1	43,4	24,6
<b>GUZTIRA</b>	<b>11,9</b>	<b>17,3</b>	<b>33,3</b>	<b>20,6</b>

Lehen mailako ikasketen ondorengo ikasketarik eta lan-esperientzia esanguratsurik gabeko biztanleria landunari dagokionez, 95.596 landunetarik (Autonomia Erkidegoko landun guztien % 10) gehienak honako hauetan barne hartzen dira: industriako eta eraikuntzako langile kualifikatuetan (% 22,7), makineriako operadoreetan (% 13,4) eta bereziki, zerbitzuetako langileetan, kualifikatuak ala kualifikatu gabeak (% 22,9 eta % 24, hurrenez hurren).

Biztanleria landun guztiaren barruan, landun talde horren garrantzi erlatiboa handia da langile kualifikatuen hainbat multzotan (% 10-15,5, kasuak kasu). Dena den, talde horrek gehienezko garrantzia hartzen du langile ez kualifikatuen artean, (orokorrean % 25etik gorako zifrak), garraioan eta zamalanean izan ezik.

5.40 taula

Ikasketa kualifikaturik eta lan-esperientzia esanguratsurik ez duen biztanleria landuna, lanbidearen arabera  
(% bertikalak eta intzidentzia-maila, biztanleria landun guztiari dagokionez, %-etan)

Lanbidea	% ber.	Intzidentzia
Indar Armatuak	0,0	0,0
Zuzendariak	2,4	3,9
Teknikariak	1,3	0,5
Administrazioko langileak	2,8	2,8
Zerbitzuetako lang. kualif.	22,9	15,6
Nekazaritzako/arrantzako lang. kualif.	1,7	11,2
Eraikuntzako/industriako lang. kualif.	22,7	14,9
Makineriako operadoreak	13,4	9,7
Zerbitzuetako lang. ez-kualif.	24,0	33,4
Nekazaritzako/arrantzako lang. ez-kualif.	1,1	80,7
Eraikuntzako/industriako lang. ez-kualif.	6,7	24,9
Garraioko/zamalanetako lang. ez-kualif.	0,9	7,9
<b>GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>10,0</b>

Lanbide-kategoriaren araberako datuekin askoz hobeto azter daiteke biztanleria landunaren egitura, eta kasu horretan, biztanle gehienak (% 69,1) ez-kualifikatuak direla adierazten dute, langile kualifikatuen % 25 ongi gaindituta.

Zenbateko erlatiboetan aztertuta, lanpostu ez-kualifikatuetan landunen % 20,8 multzo horretakoak dira; kualifikatuetan % 7,8 soilik, arduradunetan % 4,5, eta teknikarietan edo zuzendarietan % 3 baino gutxiago. Dena den, 2003-2007 aldian, lehen mailako ikasketak soilik dituztenek eta lan-esperientzia esanguratsurik ez dutenek osatutako talde horrek langileen (kualifikatuak edo ez kualifikatuak) kolektiboan duen intzidentzia gutxitu egin da. Langile kualifikatuei dagokienez, 1999ko eta 2003ko % 11tik 2007ko % 7,8ra jaitsi da tasa; langile ez kualifikatuei dagokienez, aldiz, % 25etik % 20,8ra.

5.41 taula

Ikasketa kualifikaturik eta lan-esperientzia esanguratsurik ez duen biztanleria landuna, lanbide-kategoriaren arabera  
(% bertikalak eta intzidentzia-maila, biztanleria landun guztiari dagokionez, %-etan)

Lanbide-kategoria	% ber.	Intzidentzia		
		2007	Intzidentzia 2003	Intzidentzia 1999
Ez kualifikatua	69,1	20,8	25,4	24,7
Kualifikatua	25,0	7,8	11,1	10,9
Arduradunak, erdi-mailako kargudunak	4,0	4,5	4,1	4,0

Teknikariak	0,7	0,3	0,2	0,0
Zuzendaritzako langileak	1,3	2,8	2,2	3,8
<b>GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>10,0</b>	<b>12,9</b>	<b>13,1</b>



Sektoreen arabera azterketa eginez gero, prestakuntzarik eta lan-esperientzia esanguratsurik gabeko pertsona gehienak zerbitzu-sektorekoak dira (% 62,6, 2003ko % 55,7 baino askoz gehiago). Kolektibo hori, gehien bat, sektore horretako honako adar hauetan biltzen da: etxe-zerbitzuak (% 9,6), enpresetarako zerbitzuak (% 12,9) eta merkataritza eta ostalaritza (% 23,1). Sektore horretatik kanpo, eraikuntzari dagokion % 20 eta metalaren adar desberdinei dagokien % 9,3 nabarmen daitezke.

Adar edo sektore bakoitzean biztanleria landun guztiaren gainean duten eraginari dagokionez, nabarmentzekoa da -zerbitzu-sektoretik kanpo- kautxu-industrian (% 14,6), energia ekoizteko industrian (% 15,8) eta eraikuntza-industrian (% 22,9) duen eragina Zerbitzuen eremuan % 10eko maila gainditzen da merkataritzan (% 10,1), ostalaritzan (% 23,8), enpresetarako zerbitzuetan (% 11,7), gainerako merkataritza-zerbitzuetan (% 11,1) eta etxe-zerbitzuan (% 37).

#### 5.42 taula

Ikasketa kualifikaturik eta lan-esperientzia esanguratsurik ez duten landunak, jardueraren arabera (% bertikalak eta intzidentzia-maila, biztanleria landun guztiari dagokionez, %-etan)

Jarduera	% ber.	Intzidentzia
Nekazaritza	1,3	9,5
Arrantza	0,0	
<b>Nekazaritza eta arrantza</b>	<b>1,3</b>	<b>7,4</b>
Erauzketa-industria	0,0	
Elikagai-industria	1,2	9,6
Paper-industria	0,8	6,4
Industria petrokimikoa	0,0	
Kautxu-industria	2,0	14,6
Bestelako gai ez-metalikoen industria	0,3	4,0
Metalurgia	4,5	5,9
Makinagintza	2,4	4,4
Material elektrikoa	1,4	7,6
Garraio-materiala	1,1	3,1
Askotariko manufaktura-industriak	1,6	6,9
Energia-produkzioa	0,8	15,8
<b>Industria</b>	<b>16,1</b>	<b>5,9</b>
<b>Eraikuntza</b>	<b>20,0</b>	<b>22,9</b>
Merkataritza	13,6	10,1
Ostalaritza	9,5	23,8
Garraioak eta komunikazioak	4,5	7,8
Finantza-erakundeak	0,1	0,5
Enpresetarako zerbitzuak	12,9	11,7
Administrazio Publikoa	2,1	3,8
Hezkuntza	2,2	3,4
Osasuna/Gizarte-zerbitzuak	3,8	5,4
Bestelako merkataritza-zerbitzuak	4,2	11,1
Etxe-zerbitzuak	9,6	37,0

Zerbitzuak	62,6	10,1
GUZTIRA	100	10,0

Kontratu motei dagokienez, aldi baterako kontratuak, obrakoak edo inolako kontraturik gabeko egoerak dira nagusi (guztizkoaren % 41,1). Alabaina, kontratu mugagabea dutenak okupazioaren % 43,6 dira eta goranzko joera dago 1999ko % 30,8tik eta 2003ko % 37,4tik abiatuta. Norbere kontura ari dira okupazioaren % 13,3.

Zenbateko erlatiboetan, kontraturik gabeko langileen % 35,5, obrako kontratua duten langileen % 24,1 eta aldi baterako langileen % 17,8 kualifikaziorik gabeko kolektibo horretakoak dira. Kontratu mugagabea dutenen proportzioa % 7,2ra jaisten da eta norbere kontura ari direnena % 7,4ra.

#### 5.43 taula

Ikasketa kualifikaturik eta lan-esperientzia esanguratsurik ez duen biztanleria landuna, enpresarekiko kontratu bidezko lotura motaren arabera  
(% bertikalak eta intzidentzia-mailak)

Kontratu bidezko lotura	% ber.	Intzidentzia	Intzidentzia	Intzidentzia
		2007	2003	1999
Mugagabea	43,6	7,2	8,5	7,6
Aldi baterakoa	21,9	17,8	18,2	19,8
Obrakoa	13,5	24,1	31,6	27,2
Kontraturik gabekoa	5,7	35,5	44,4	40,8
Bestelako egoeraren bat	2,0	12,0	13,8	3,7
Norbere kontura	13,3	7,4	10,6	11,9
<b>GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>10,0</b>	<b>12,9</b>	<b>13,1</b>

**VI.- BIZTANLERIA LANDUNAREN MOTAK, KUALIFIKAZIO  
MAILAREN ARABERA**

## **BIZTANLERIA LANDUNAREN MOTAK, KUALIFIKAZIO MAILAREN ARABERA**

Kapitulu honetan, talde profesionalak eta jarduera-adarrak aztertuko ditugu, multzo horietan barne hartutakoen lanbide-kualifikazioaren mailaren arabera; horretarako, azterlaneko hainbat kapitulutan aztertu ditugun kualifikazio-elementuei erreparatuko diegu: prestakuntza arautua, lan-esperientzia eta hezkuntza osagarria (arautu gabeko prestakuntza eta atzerriko hizkuntzak barne).

### **1. LANBIDE TIPOLOGIA**

BAKlaren aurreko azterketetan, zortzi lanbide mota nagusi bereizi izan ditugu, prestakuntza arautuaren, lan-esperientziaren eta arautu gabeko prestakuntzaren arabera biztanleria landunaren ezaugarriak aintzat hartuta.

Lehenengo motan barne hartzen dira egungo euskal produkzio-sisteman teknikariak edo profesionalak direnak, erdi-mailakoak nahiz goi-mailakoak. Guztira 158.121 lagun dira eta biztanleria landun guztiaren % 16,6 osatzen dute, 1999ko eta 2003ko % 13,7ren gainetik.

Kolektibo horren funtsezko ezaugarria honako hau da: ikasketa kualifikatuak dira nagusi (multzo edo lanbide mota horretako landun guztien % 96,4). Baina baditu beste hainbat ezaugarri berezi: teknologia modernoaz baliatutako enplegetan lan-esperientzia jarraituaren maila handia (% 69, 2003ko % 63,4 eta 1999ko % 56,6 gaindituta) eta prestakuntza osagarri esanguratsuen maila handia (% 50,1, 2003ko % 55,8 gainditu gabe).

Bigarren lanbide motan laguntzako teknikariak barne hartzen dira, betiere ingeniariarekin, hezkuntzarekin, osasungintzarekin edo gizarte-zerbitzuekin loturiko eremuetan ari direnak, baita administratibako eginkizunetan ere. 63.385 lagunek osatzen dute talde hori (guztizkoaren % 6,7), 1999ko % 6,9 gainditu gabe baina 2003ko % 6,3 gaindituta.

Bigarren mota horretan barne harturikoen ezaugarriak aurreko multzokoen oso antzekoak dira, baina prestakuntza-maila txikiagoa dute, bai prestakuntza osagarriari dagokionez (% 38,5), baita hasierako prestakuntzari dagokionez ere, landunen % 70,2k ikasketa kualifikatuak dituztelarik. 2003an ikusitakoa ez-bezala, teknologia modernoetan lan-esperientzia dutenen proportzioa ere baxuagoa da (% 64,5).

Hirugarren lanbide motan honako hauek sartzen dira: zuzendariak (normalean autonomoak), aurreko motan barne hartu gabeko gainerako eremuetako batik bat, merkataritzako eta finantzako eremuetako laguntza-teknikariak, eta bulegoko edo bezeroei arreta emateko zereginetan aritzen diren administrariak. Talde horretan 190.732 pertsona daude, EAEko landun guztien % 20 eta kasu honetan ere 1999ko % 20,7 gainditu gabe baina 2003ko % 17,7 gaindituta. 2007an, hori da biztanleria landunaren kolektiborik ugariena.

Aurreko kolektiboetan baino txikiagoa den arren, multzo horretan ere handia da hasierako prestakuntza-maila altua dutenen proportzioa, % 59,5ek ikasketa kualifikatuak (1999ko % 45,7 eta 2003ko % 55,8 gaindituta) prestakuntza osagarriren bat egin baitituzte (% 41,6k). Teknologia modernoarekin esperientzia jarraituaren maila ere handia da eta 2007an aurreko taldekoena gainditzen du (% 69,8, 2003ko % 58,4 eta 1999ko % 52,4 erraz gaindituta).

Laugarren multzoa honako hauek osatzen dute: 30.230 mekanikari-doitzailek (landun guztien % 3,2, 2003ko % 4,7 eta 1999ko % 3,9 gainditu gabe). 1999ko ezaugarria zen multzo horretan ikasketa kualifikatuak egindakoen proportzioa handia zela eta 2007an ezaugarri hori berreskuratu da. Kolektibo hori 2007an % 47,6 zen eta nahiz eta ez den 1999ko % 50era iristen, 2003ko % 36,9 erraz gainditzen du. Aurreko egoerarekin bukatzen duen azken hobekuntza izan da eremu teknologiko modernoetan esperientzia dutenen zifra igotzea, hau da, % 42,6 2007an, 1999ko eta 2003ko % 28-29ko zifren gainetik. Bestalde, lan-esperientzia esanguratsurik ez duen profesional mota honen proportzioaren jaisteko joera jarraitzen du (1999ko % 51,7tik 2003ko % 38,4ra eta 2007ko % 32,2ra). Aldiz, prestakuntza osagarriak profesional mota horretan duen inpaktu baxua mantendu egiten da (% 13,6, 2003ko % 12,4 pixka bat gaindituta).

Bosgarren lanbide motan honako hauek batzen dira: segurtasuneko langileak, industriako eta eraikuntzako arduradunak eta erdi-mailako kargudunak, doitasun-langileak eta artisauak, eta industria-instalazio finkoetako nahiz makineria finkoko operadoreak. Profesional multzo hori 112.591 lagunek osatzen dute, landun guztien % 11,8 izanik, 1999ko % 11ren eta 2003ko % 10,3ren gainetik.

Profesional mota honetan, teknologia modernoaz baliatutako enpleguetan esperientzia esanguratsu handia dutenen proportzioa handia da (% 47,2), baina ikasketa kualifikatuak dituztenena edo prestakuntza osagarria dutenena, aldiz, txikia (% 36,8 eta % 15,9, hurrenez hurren) 1999. urtearekiko 2003. urtean atzeman zitekeen moduan, industrian eta eraikuntzan arduradun diren langileek 3. motan bildutako kategorietakoen antzeko ezaugarriak hartzen dituzte, bereziki ikasketa kualifikatuak dituzten langileen pisuari dagokionez. Dena den, teknologia modernoaren eremuko esperientziak inpaktu gutxiago du.

Seigarren motan honako hauek barne hartzen dira: zerbitzu pertsonaletako profesionalak, merkataritzako dendariak, eraikuntzako edo erauzketa-industrietako akaberako langileak, soldatzaileak, txapistak eta muntatzaileak. Kasu horretan 163.036 lagun daude (% 17,1) 1999ko % 17,9ren eta 2003ko % 19,8ren azpitik.

Bosgarren taldean gertatzen zen moduan, talde honetan ere hasierako prestakuntza kualifikatua dutenen proportzioa txikia da (% 36) eta antzeko maila dago prestakuntza osagarriaren intzidentzian (% 18,6). Baina aurrekoan ez bezala, kasu horretan nahiko txikia da teknologia modernoarekin esperientzia dutenen proportzioa (% 33,6), izan ere, inolako esperientzia esanguratsurik gabekoak nagusi baitira (% 45,5).

Zazpigarren multzoa garrantzi erlatibo handiagoa duen bigarrena da, oro har, EAEko biztanleria landunaren gainean. Sukaldaritza-sektoreko langileak, eraikuntzako egiturazko zereginekin loturiko langileak eta elikagaien eta manufakturako industriako langile kualifikatuak sartzen dira talde horretan. Eta oro har, langile ez-kualifikatuak ere bai. Guztira 179.594 lagun dira, guztizkoaren % 18,9, 1999ko % 19,7ren eta 2003ko % 21,8ren azpitik.

Mota horretan, hasierako prestakuntzari dagozkion zenbatekoak izugarri murrizten dira, ikasketa kualifikatuak dituztenen proportzio txikiena izanik (% 18,1). Prestakuntza osagarriaren maila ere txikia da (% 17,3). Eta lan-esperientziaren motari dagokionez, % 54,6k ez du inolako lan-esperientzia esanguratsurik, landun mota horien ezaugarri nagusia hori izanik.

Bukatzeko, azkeneko taldean honako hauek sartuko ditugu: nekazaritzako langile kualifikatuak, makineria mugikorreko operadoreak eta gidariak, guztira 54.911 langile izanik. Biztanleria landunaren % 5,8 da, 2003koaren antzekoa nahiz eta 1999ko % 6,2ren azpikoa.

Multzo horretan aurrekoaren prestakuntza-ezaugarri berdintsuak dituzte: ikasketa kualifikatuak dituztenak % 21,7 eta prestakuntza osagarri esanguratsua dutenak % 20,1 soilik dira. Aurreko taldean ez bezala, talde honetan lan-esperientzia esanguratsuak eragin handiagoa du eta esperientziarik gabekoen garrantzi erlatiboa % 30,6ra murrizten da.

6.1 taula  
Lanbideen tipologia  
Biztanleria landuna

(Datu absolutuak eta ikasketei, lan-esperientziari eta prestakuntza osagarriari dagozkien adierazleak, %-etan)

Lanbide motak	Datu							
	absolutuak	IKAS1	IKAS2	IKAS3	ESP1	ESP2	ESP3	AGP
Goi-mailako tituludunak	93.643	97,0	3,0		73,0	6,3	20,7	59,3
Erdi-mailako tituludunak	64.478	95,5	4,5		63,1	6,5	30,3	36,7
<b>1. MOTA</b>	<b>158.121</b>	<b>96,4</b>	<b>3,6</b>		<b>69,0</b>	<b>6,4</b>	<b>24,6</b>	<b>50,1</b>
Ingeniaritzako teknik./zerb. orok.	35.409	71,3	27,7	1,0	57,8	6,9	35,3	36,1
Teknikari Administrariak	27.977	68,7	31,3		72,9	3,7	23,4	41,5
<b>2. MOTA</b>	<b>63.385</b>	<b>70,2</b>	<b>29,3</b>	<b>0,5</b>	<b>64,5</b>	<b>5,5</b>	<b>30,0</b>	<b>38,5</b>
Zuzendariak	59.579	62,8	34,5	2,7	68,5	13,7	17,8	41,2
Teknikari finantz./merkat.	29.075	50,4	47,8	1,8	73,1	6,1	20,8	37,9
Beste zenbait laguntza-teknikari	8.409	62,9	37,1		59,6	4,4	36,0	33,2
Bulegoko administrariak	52.574	58,5	40,8	0,7	77,1	7,4	15,5	47,9
Bezeroaren arretarako administr.	41.095	61,8	38,1	0,1	62,0	3,5	34,4	38,2
<b>3. MOTA</b>	<b>190.732</b>	<b>59,5</b>	<b>39,2</b>	<b>1,3</b>	<b>69,8</b>	<b>8,2</b>	<b>22,0</b>	<b>41,6</b>
Mekanikari doitzailak	30.230	47,6	50,8	1,6	42,6	25,2	32,2	13,6
<b>4. MOTA</b>	<b>30.230</b>	<b>47,6</b>	<b>50,8</b>	<b>1,6</b>	<b>42,6</b>	<b>25,2</b>	<b>32,2</b>	<b>13,6</b>
Segurtasuneko langileak	19.304	33,4	63,9	2,6	40,1	20,9	39,0	15,9
Industr. eta eraikuntzako arduradunak	21.562	53,9	43,2	2,9	56,3	16,8	27,0	26,2
Doitasuneko lang., artisauek	6.365	27,9	69,2	2,9	18,2	60,0	21,7	21,4
Ind. instal. finkoetako lang.	17.746	31,8	60,2	8,0	51,1	27,6	21,3	10,9
Makina finkoetako lang.	47.614	33,4	60,6	6,0	48,4	21,5	30,2	12,3
<b>5. MOTA</b>	<b>112.591</b>	<b>36,8</b>	<b>58,2</b>	<b>5,0</b>	<b>47,2</b>	<b>23,6</b>	<b>29,2</b>	<b>15,9</b>
Zerb. pertsonaletako lang.	35.964	48,4	49,6	2,0	29,9	11,7	58,3	14,0
Merkataritza-saltzaileak	53.055	27,8	66,2	6,0	37,1	16,6	46,2	28,7
Eraikuntzako akaberako lang. kualif.	27.604	36,9	54,4	8,8	29,9	28,9	41,2	13,9
Erauzteko industrien lang. kualif.								
Soldatzaileak/txapistak	29.114	35,9	56,3	7,9	33,9	35,0	31,1	11,7
Muntatzaileak	17.298	34,2	61,6	4,1	35,7	16,6	47,7	16,2
<b>6. MOTA</b>	<b>163.036</b>	<b>36,0</b>	<b>58,3</b>	<b>5,7</b>	<b>33,6</b>	<b>20,9</b>	<b>45,5</b>	<b>18,6</b>
Sukaldaritzako lang.	32.559	29,0	63,7	7,3	25,8	14,5	59,7	18,3
Eraikuntzako egiturako lang. kualif.	30.502	8,2	80,7	11,2	24,6	23,0	52,5	15,6
Elikag./manuf. ind. lang. kualif.	9.530	37,2	59,6	3,2	52,0	18,4	29,6	10,5
Zerbitzuetako lang. ez-kualif.	68.702	17,3	75,6	7,1	20,3	21,6	58,1	18,7
Zerbitz. ez den lang. ez-kualif.	38.300	13,3	77,2	9,5	35,8	12,1	52,1	16,9
<b>7. MOTA</b>	<b>179.594</b>	<b>18,1</b>	<b>73,8</b>	<b>8,1</b>	<b>27,0</b>	<b>18,4</b>	<b>54,6</b>	<b>17,3</b>
Nekazaritzako lang. kualif.	14.494	18,9	72,8	8,3	55,3	22,2	22,5	12,4
Makin. mugikorretako oper./gidariak	40.417	22,7	72,5	4,8	44,5	22,1	33,5	22,8
<b>8. MOTA</b>	<b>54.911</b>	<b>21,7</b>	<b>72,6</b>	<b>5,7</b>	<b>47,3</b>	<b>22,1</b>	<b>30,6</b>	<b>20,1</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>952.600</b>	<b>49,3</b>	<b>47,0</b>	<b>3,8</b>	<b>50,2</b>	<b>15,0</b>	<b>34,8</b>	<b>29,1</b>

IKAS 1: Ikasketa kualifikatuak dituzten landunen proportzioa (LH II edo unibertsitateko ikasketak).

IKAS 2: Bestelako ikasketak dituzten landunen proportzioa (lehen mailakoak, LH I edo lanbidekoak ez diren bigarren mailakoak).

IKAS 3 : Lehen mailako ikasketarik gabeko landunen proportzioa.

ESP 1: Teknologia modernoko enpleguetan lan-esperientzia esanguratsua duten landunen proportzioa (3 urte edo gehiago egungo edo aurreko enpleguan).



ESP 2: Ohiko teknologiako enpleguetan lan-esperientzia esanguratsua duten landunen proportzioa (10 urte edo gehiago egungo enpleguan).

ESP 3: Lan-esperientzia esanguratsurik gabeko landunen proportzioa.

AGP: Prestakuntza osagarria duten landunen proportzioa (atzerriko hizkuntzak ongi edo oso ongi jakitea, edo enpleguan eragina duen arautu gabeko prestakuntza).

Datu horien arabera, talde profesionaletan honako sailkapen hau egin dezakegu, talde horietan okupatutakoen kualifikazio-mailari erreparatuta.

## 6.2 taula

Biztanleria landunaren motak, lanbidearen eta kualifikazioaren, esperientziaren eta prestakuntza osagarriaren mailaren arabera

Esperientzia nagusia: teknologia modernoa		Esperientzia nagusi (moderno edo ohikoa) Esperientziarik eza nagusi	
<b>1. MOTA</b>			
<b>2. MOTA</b>			
Ikasketa kualifikatuak (eta AGP osagarria) nagusi			
Kop: 412.238 (% 43,3)			
<b>5. MOTA</b>		<b>4. MOTA</b>	
<b>6. MOTA</b>			
Ikasketa kualifikatuak (eta AGP osagarria) garrantzi esanguratsua gutxi			
Kop: 112.591 (% 11,8)		Kop: 193.266 (% 20,3)	
<b>8. MOTA</b>		<b>7. MOTA</b>	
Ikasketa kualifikatuak eta AGP osagarriak garrantzi esanguratsurik ez			
Kop: 54.911 (% 5,8)		Kop: 179.594 (% 18,9)	

*Nagusi: >= % 45 inguru*

*Esanguratsua: % 25-44 inguru*

Aurreko motan deigarri egin zaizkigun hainbat datu azpimarratuko ditugu, batik bat, 1999ko eta 2003ko datuekin alderatuta. Lehen-lehenik, kualifikazio handiena eta teknologia modernoarekin esperientzia handiena duten taldeetan (1., 2. eta 3. motak) biztanleria landunaren garrantzi erlatiboa berreskuratu egin dela nabarmendu behar da landun guztien % 43,3 izatera igaro baitira 2007an, nahiz eta 1999-2003 aldian haien parte hartzea % 41,3tik % 37,7ra jaitsi zen. Igoera absolutua bereziki deigarria da, 1999an eta 2003an 340.000 landun inguru izatetik egungo 412.238 landun izatera igarota. Aurreko hiru motekin ezaugarri komun asko (bereziki eremu teknologiko modernoetan esperientzia nagusitzea) dituen 5. mota ere barnean hartuta, ikus daiteke mota horiek egungo biztanleria landunaren % 55,1 ordezkatzeko dutela, 2003ko % 48 eta 1999ko % 52,3 gaindituz. Zenbateko absolutuetan, erreferentziako lau motetan dauden landunen zifra milioi-erdiaren gainetik dago, guztira 524.829 lagun izanik.

Aurrekoari kontra eginez, 2007an kualifikazio txikieneko kolektiboen garrantzi erlatiboa jaitsi egin da, bai prestakuntzari dagokionez, bai esperientziari dagokionez. Horrela, normalean kualifikazio gutxien izan duen taldea, 7. motan biltzen dena, guztizko biztanleria landunaren % 18,9 izatera igaro da, 1999ko % 19,7ren eta 2003ko % 21,8ren azpitik. Oro har, kualifikazio gutxienean lau taldeen (4., 6., 7. eta 8. motak) garrantzi erlatiboaren beherakada gertatu da 2003ko % 52,1etik 2007ko % 44,9ra, 1999ko % 47,7 baino baxuagoa izanik.

Talde kualifikatuenean protagonismoaren igoera 6. motaren birkualifikazio-prozesuarekin lotzen da, talde horretan enpleguan izandako esperientzia esanguratsuaren maila-igoera frogatu baita, bereziki teknologikoki modernoak diren eremuetan. Horrekin batera, lanbide mota horretan areagotu egin da ikasketa kualifikatuak edo AGP osagarria dituztenen proportzioa.

Aurreko urteekin alderatuz, aurkeztutako datuen arabera egungo biztanleria landunarengan kualifikazio-maila handitzen doala ikus daiteke, baita biztanleria hori enplegatzen den lanbide-eremuetan ere.

## **2. JARDUERA ADARREN TIPOLOGIA**

Euskal produkzio sistemaren jarduera-adarrei dagokionez, aurreko idatz-zatian adierazitako prozedura jarraitzen da, BAKIaren aurreko azterketetan berezitako mota desberdinak jasotzen dira adar bakoitzeko biztanleria landunaren prestakuntza arautuaren mailaren, lan-esperientziaren eta arautu gabeko prestakuntza osagarriaren arabera.

Jarduera-adarren lehenengo motan honako adar hauek barne hartzen dira: industriaren adarretatik, industria petrokimikoa eta energia-produkzioa, eta zerbitzuen eremutik, finantza-erakundeak eta Administrazio Publikoa. Guztira 89.761 lagunek biztanleria landun guztiaren % 9,4 osatzen dute (1999an % 9,2 baina 2003an % 8,9).

Kolektibo horretan, ikasketa kualifikatuak dituztenak dira nagusi (% 63,8) eta prestakuntza osagarri esanguratsuak ere intzidentzia handia du (% 35,5). Beste ezaugarri berezi bat honako hau da: teknologia modernoaz baliatutako lan-esperientzien egoerak indar handia dute (taldeko landunen % 69,1 egoera horretan dago).

Bigarren adar motan ere, 1. motan biltzen diren adarretan bezalaxe, prestakuntza-maila eta lan-esperientziaren maila handia atzematen da. Dena den, bigarreanean hasierako heziketa kualifikatuak eta prestakuntza osagarriak intzidentzia handiagoa dute (% 69,4 eta % 37,7, hurrenez hurren), nahiz eta teknologia modernoarekin garatutako lan-esperientziaren intzidentzia txikiagoa den. Hala eta guztiz ere, azkenik aipatutako lan horri loturiko okupazioa da nagusi (erreferentziako adarretako landunen % 55,1).

Mota horretan barne hartzen dira enpresentzako zerbitzuak, hezkuntza, eta osasungintza eta gizarte-zerbitzuak. Egungo talderik handiena da 235.671 lagunekin, guztizkoaren % 24,7, 1999ko eta 2003ko % 21-22ko zifrak gaindituta.

Hirugarren motan barne hartzen dira metalaren adar espezializatuenak (makinagintza, material elektrikoaren produkzioa eta garraioko materialaren fabrikazioa). 102.985 landun biltzen ditu, guztizkoaren % 10,8. Proportzio hori igotzen joan da azken zortzi urteetan (1999an % 8,9 zen eta 2003an % 9,6).

Mota horren beste ezaugarri bat da ikasketa kualifikatuak eta esperientzia esanguratsuak azaltzea da. 1. eta 2. motaren ezaugarrietan teknologia modernoekin izandako lan-esperientzia esanguratsuen intzidentzia-maila baxuagoa nabarmentzen da (% 47,7), baita beste mota horien ezaugarri diren prestakuntza kualifikatuari (% 50,3) eta prestakuntza osagarriari dagokionez ere.

Laugarren motan, industriako hainbat adar barne hartzen dira, hala nola erauzketa-industria, papergintza eta metalurgia. Guztira 85.019 lagun dira, landun guztien % 8,9. Kasu horretan, epe luzerako joera ikus daiteke (1999an guztizko okupazioaren % 11 ziren eta 2003an % 9,7).

Talde horretan, teknologia modernoarekin lan-esperientzia esanguratsuen maila zertxobait handiagoa atzematen da aurreko 3. motakoa baino (% 51,9), alabaina, ezaugarri nabarmenena honako hau da: ikasketa kualifikatuak dituztenen garrantzi txikia (% 41,9). Prestakuntza osagarria jaso dutenak ere gutxiengo dira: % 20,3, EAEko batez besteko adierazle orokorraren azpitik.

2007an, 5. motaren ezaugarriak aurreko taldearen oso antzekoak dira, batez ere, ikasketa kualifikatuak dituztenei dagokionez (% 41,8) eta teknologia modernoaz baliatzen den lanpostuan esperientzia esanguratsua dutenen garrantzi erlatiboari dagokionez (% 50,3). AGP osagarria duten lagunen proportzioa, aldiz, aurreko taldekoarena baino pixka bat handiagoa da, % 1,3.

Adar mota horietan dauden aktiboen kualifikazioaren hobekuntza-prozesua 2003koarekin alderatuz oso garrantzitsua da. 2003an, landunen % 33k soilik aurkezten zuten lan-esperientzia esanguratsua teknologia modernoan oinarritutako okupazioetan. Kualifikazio-prozesua langile kualifikatuei dagokien zatiaren igoerari lotzen zaio (1999ko % 35,8tik egungo % 41,8ra arte etengabeko igoeran) baina baita, neurri handi batean, prestakuntza arautu osagarria duten landunen proportzioaren igoerari ere (1999ko eta 2003ko % 23tik 2007ko % 31,3ra).

Talde horretako jarduerak merkataritzaren eta merkataritzako beste zerbitzuen adarretakoak dira. Adar horietan 164.789 lagun daude lanean, landunen guztizko biztanleriaren % 17,3, hau da, % 17ren zertxobait azpitik zeuden 1999ko eta 2003ko zifrak baino puntu erdi gehiagoko proportzioan.

Adarren 6. motak 2003an hasitako 4. taldeko ezaugarriei (orain 5. taldeak ere badituenak) hurbiltzeko joera nabarmena berresten du. Horrela, ikasketa kualifikatuak dituzten langileen presentzia % 44,3 da, 2003ko % 34,6 eta 1999ko % 27,2 baino askoz gehiago. Arautu gabeko prestakuntzan ere goranzko joera dago (% 31,7, aldiz, 2003an % 21,2 eta 1999an % 18,3). Teknologia modernoarekin lan-esperientzia izan duten landunak % 54,7 dira. Beraz, ikus daitekeen moduan 6. motak 4. motaren eta 5. motaren oso antzeko barne-ezaugarriak ditu.

Mota horretan honako hauek barne hartzen dira: kautxu-industria, produktu ez-metalikoen fabrikazioa eta, zerbitzuei dagokienez, garraioen eta komunikazioen adarra. Talde horrek 76.536 landun hartzen ditu eraginpean, landun guztien % 8. Dena den, kolektibo horrek guztizko okupazioan hartzen duen garrantzi erlatiboa beherantz doa (1999an % 9,2 zen eta 2003an % 8,4).

Zazpigarren motan, hau da, manufaktura-industrian eta ostalaritzan, guztira 60.302 lagun barne hartzen dira. Landun guztien % 6,3 da, 1999ko % 7,1en eta 2003ko % 8,2ren azpitik.

Kasu honetan, ikasketa kualifikatuak dituzten lagunen proportzioa aurreko motetakoa baino dezente txikiagoa da, % 32,6. Hala ere, 2003ko % 18,8 eta 1999ko % 25,5 gainditzen ditu. Prestakuntza osagarria duten landunen proportzioa ere baxua da, % 16,6. Era berean, teknologia modernoaz baliatutako enpleguetan lan-esperientzia esanguratsuaren maila, alderatuta oso txikia da, % 36,8 inguru. Hala ere, biztanleria landunaren gehiengoak izan du esperientzia esanguratsurik bere okupazioan.

Gaur egun, aurreko ezaugarri horiek zortzigarren motakoen berdintsuak dira honako hauei dagokienez: alde batetik, prestakuntzari dagozkion zenbatekoetan (% 29,4k prestakuntza kualifikatua du, eta % 20,8k prestakuntza osagarria, biak ere 1999ko eta 2003ko zenbatekoak baino handiagoak izanik) eta bestalde, esparru teknologikoki modernoetan lan-esperientzia izateari dagokionez (% 39,1).

Multzo horretan barne hartzen dira nekazaritza, arrantza, elikagaien industria eta eraikuntza, guztira 112.603 landunekin. 2007an kolektibo hau landun guztien % 11,8 zen, 1999ko % 12,4ren eta 2003ko % 13ren azpitik.

Bukatzeko, kualifikazio-mailarik txikietan txikiena etxeko zerbitzuan dago, ikasketa kualifikatuak dituztenak % 21,5 besterik ez baitira eta prestakuntza osagarria dutenak % 17,3. Teknologia modernoaz baliatutako zereginetan izandako lan-esperientzia esanguratsua da beste motetatik gehien urruntzen den adierazlea. Kasu horretan, landunen % 9,3k soilik lan egin du baldintza teknologiko horietan.

Jarduera-adar horretan 24.933 landun barne hartzen dira, landun guztien % 2,6 izanik. Kolektibo horrek guztizko okupazioan duen garrantzi erlatiboaren jaitsiera etengabeko joera dago, 1999an % 4,1 eta 2003an % 3,5 izanik.

6.3 taula  
Jarduera-adarren tipologia.  
Biztanleria landuna

(Datu absolutuak eta ikasketei, lan-esperientziari eta prestakuntza osagarriari dagozkien adierazleak, %-etan)

Jarduera-adarrak	Datu							
	absolutuak	IKAS1	IKAS2	IKAS3	ESP1	ESP2	ESP3	AGP
Industria petrokimikoa	13.232	59,8	33,8	6,3	62,0	13,8	24,3	44,4
Energia-produkzioa	4.648	46,5	53,5		54,7		45,3	46,3
Finantza-erakundeak	18.212	67,6	32,4		82,7	0,2	17,1	50,9
Administrazio Publikoa	53.669	65,0	34,3	0,7	67,5	10,7	21,8	27,1
<b>1. MOTA</b>	<b>89.761</b>	<b>63,8</b>	<b>34,9</b>	<b>1,3</b>	<b>69,1</b>	<b>8,5</b>	<b>22,4</b>	<b>35,5</b>
Enpresetarako zerbitzuak	105.830	60,5	36,5	2,9	46,5	10,1	43,4	40,7
Hezkuntza	63.308	84,7	14,0	1,3	66,8	12,4	20,8	40,9
Osasuna/Gizarte-zerbitzuak	66.533	68,9	29,0	2,1	57,5	8,7	33,8	29,8
<b>2. MOTA</b>	<b>235.671</b>	<b>69,4</b>	<b>28,4</b>	<b>2,3</b>	<b>55,1</b>	<b>10,3</b>	<b>34,6</b>	<b>37,7</b>
Makinagintza	52.400	44,0	54,2	1,9	51,6	23,5	24,9	21,3
Material elektrikoa	17.885	61,1	36,0	2,9	36,7	16,2	47,1	42,0
Garraio-materiala	32.701	54,7	42,1	3,2	47,4	26,5	26,0	21,6
<b>3. MOTA</b>	<b>102.985</b>	<b>50,3</b>	<b>47,2</b>	<b>2,5</b>	<b>47,7</b>	<b>23,2</b>	<b>29,1</b>	<b>25,0</b>
Erauzketa-industria	749	75,8	24,2		42,6	40,5	16,9	59,5
Paper-industria	11.652	32,5	62,3	5,2	60,9	10,1	29,1	25,3
Metalurgia	72.618	43,0	51,2	5,8	50,6	19,4	30,0	19,1
<b>4. MOTA</b>	<b>85.019</b>	<b>41,9</b>	<b>52,5</b>	<b>5,6</b>	<b>51,9</b>	<b>18,3</b>	<b>29,7</b>	<b>20,3</b>
Merkataritza	128.496	39,0	57,7	3,3	50,8	16,2	33,0	31,7
Bestelako merkataritza-zerbitzuak	36.293	51,8	41,6	6,6	48,5	8,7	42,8	29,7
<b>5. MOTA</b>	<b>164.789</b>	<b>41,8</b>	<b>54,1</b>	<b>4,0</b>	<b>50,3</b>	<b>14,6</b>	<b>35,1</b>	<b>31,3</b>
Kautxu-industria	13.399	41,2	54,1	4,7	57,9	8,1	34,0	18,5
Bestelako gai ez-metalikoen industria	7.853	50,0	50,0		64,0	19,3	16,8	25,9
Garraioak eta komunikazioak	55.284	44,2	55,5	0,3	52,6	19,5	27,9	35,7
<b>6. MOTA</b>	<b>76.536</b>	<b>44,3</b>	<b>54,7</b>	<b>1,0</b>	<b>54,7</b>	<b>17,5</b>	<b>27,9</b>	<b>31,7</b>
Manufaktura-industria	22.094	41,8	53,6	4,6	46,6	31,7	21,8	12,4
Ostalaritza	38.208	27,3	62,8	9,9	31,1	11,0	57,9	19,1
<b>7. MOTA</b>	<b>60.302</b>	<b>32,6</b>	<b>59,4</b>	<b>8,0</b>	<b>36,8</b>	<b>18,6</b>	<b>44,6</b>	<b>16,6</b>
Nekazaritza	13.490	26,2	67,3	6,5	63,0	19,8	17,2	5,6
Arrantza	3.921	40,6	43,2	16,2	37,6	5,6	56,8	71,6
Elikadura-industria	11.841	37,1	62,9		44,4	17,2	38,4	22,2
Eraikuntza	83.351	28,3	63,5	8,3	34,6	16,9	48,5	20,7
<b>8. MOTA</b>	<b>112.603</b>	<b>29,4</b>	<b>63,2</b>	<b>7,5</b>	<b>39,1</b>	<b>16,9</b>	<b>44,0</b>	<b>20,8</b>
Ettxeko zerbitzuak	24.933	21,5	72,3	6,2	9,3	14,5	76,2	17,3
<b>9. MOTA</b>	<b>24.933</b>	<b>21,5</b>	<b>72,3</b>	<b>6,2</b>	<b>9,3</b>	<b>14,5</b>	<b>76,2</b>	<b>17,3</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>952.600</b>	<b>49,3</b>	<b>47,0</b>	<b>3,8</b>	<b>50,2</b>	<b>15,0</b>	<b>34,8</b>	<b>29,1</b>

- IKAS 1: Ikasketa kualifikatuak dituzten landunen proportzioa (LH II edo unibertsitateko ikasketak).
- IKAS 2: Bestelako ikasketak dituzten landunen proportzioa (lehen mailakoak, LH I edo lanbidekoak ez diren bigarren mailakoak).
- IKAS 3: Lehen mailako ikasketarik gabeko landunen proportzioa.
- ESP 1: Teknologia modernoaz baliatutako enplegetan lan-esperientzia esanguratsua duten landunen proportzioa (3 urte edo gehiago egungo edo aurreko enpleguan).
- ESP 2: Ohiko teknologiaz baliatutako enplegetan lan-esperientzia esanguratsua duten landunen proportzioa (10 urte edo gehiago egungo enpleguan).
- ESP 3: Lan-esperientzia esanguratsurik gabeko landunen proportzioa.

AGP: Prestakuntza osagarria duten landunen proportzioa (atzerriko hizkuntzak ongi edo oso ongi jakitea, edo enpleguan eragina duen arautu gabeko prestakuntza).

Talde profesionalen kasuan garatutako hurbiltze-eredua aplikatuta, talde horietan lan egiten dutenen kualifikazio-mailaren arabera, jarduera-adarren sailkapen hau lortu dugu.

6.4 taula

Biztanleria landunaren motak, kualifikazioaren, esperientziaren eta prestakuntza osagarriaren mailaren eta jarduera-adarren arabera

Esperientzia nagusia:		Esperientzia nagusi (moderno edo ohikoa)		Esperientziarik eza nagusi	
<b>1. MOTA</b>					
<b>2. MOTA</b>					
Ikasketa kualifikatuak (eta AGP osagarria) nagusi					
Kop: 428.418 (% 45,0)					
<b>4. MOTA</b>					
Ikasketa kualifikatuen (eta AGP osagarriaren) esanguratsua					
garrantzi <b>5. MOTA</b> <b>6. MOTA</b>					
Kop: 326.345 (% 34,3)					
		<b>7. MOTA</b>			<b>9. MOTA</b>
Ikasketa kualifikatuek eta AGP osagarriak esanguratsurik ez		<b>8. MOTA</b>			
		Kop: 172.905 (% 18,2)			Kop: 24.933 (% 2,6)
<i>Nagusi: &gt;= % 45 inguru</i>					
<i>Esanguratsua: % 25-44 inguru</i>					

Lanbide-mailan ikusten denaren modura eta 1999-2003 laurtekoan ikusten zen joera sendotuz, adarren arabera emaitzak kualifikazio-mailen bilakaera positiboa adierazten dute. Ezaugarri garrantzitsuenak 5. eta 6. tarteko motetan atzematen diren kualifikazioaren hobekuntza-prozesuak dira, baita kualifikazio gutxiagokoetan atzematen direnak ere, esaterako 7. eta 8. motetan. Prozesu horri, gainera, kualifikazio-adierazle altua izateko joera duten taldeen bolumena handitzea gehitu zaio.



Zentzu horretan eta oro har, bilakaera horren ondorioz, kualifikazio-maila handiena duten motetan (1. 2. eta 3. motetan), okupazioaren garrantzi erlatiboa handitu egin da, 1999an eta 2003an biztanleria landunaren % 39,5 eta % 40,5 hurrenez hurren izatetik, gaur egun % 45 izatera helduta. Aldiz, kualifikazio-maila txikiena duten motetan (7., 8. eta 9. motetan) barne harturiko kolektiboen okupazio-proporzioak behera egin du, 1999ko % 23,6tik eta 2003ko % 24,6tik 2007ko % 20,8ra. Tarteko egoerak ere, (4.,5. eta 6. motei dagozkienak) garrantzi erlatiboa galdu dute, 1999ko % 37tik 2003ko % 35era eta 2007ko 34,3ra igaroz.

Azken batean, datuek adierazten dutenez, kualifikazio-maila handiena duten jarduera-adarren garrantzi erlatiboa handitu egiten da, bereziki, tituludun kualifikatu gehien dituztenena; kualifikazio-maila baxuagoa duten jarduera adarrek, ordea, garrantzi erlatiboa galdu egin dute.

Goranzko prozesu hori areagotu egiten da tarteko adarretan, baita kualifikazio-prozesuei hain lotuta ez dauden adarretan ere, horien ezaugarriak, oro har, gero eta kualifikatuagoak baitira.

Azken finean, lanbideen, jarduera-adarren eta jarduera-sektoreen araberrako kualifikazio-mailetak bilakaera positiboa berresten da, 1999-2003 laurtekoan argi aurreikusitako zitekeena.

**VII.- ENPLEGUA-PRESTAKUNTZA ARAUTUA EGOKITZAPENERAKO  
AZKEN HURBILKETA**

## **ENPLEGUA-PRESTAKUNTZA ARAUTUA EGOKITZAPENERAKO AZKEN HURBILKETA**

Gaur egun, biztanleria landunaren kualifikazio-egituraren (hasierako prestakuntza arautua, alegia) eta produkzio-sistemaren arteko egokitze-maila behar bezalakoa ote den aztertzea oso garrantzitsua da biztanleria aktiboaren kualifikazio-prozesuak aztertzeko.

Txostenean adierazitakoari jarraiki, maila horretan atzemandako desoreka nagusiak honako hauek dira:

1. Unibertsitate-ikasketak izanik, zuzendari-gerente edo laguntzako profesional edo teknikari gisa lan egiten ez dutenak.
2. LH II-ko ikasketak izanik, administrari-laguntzaile gisa edo industriaren edo zerbitzuen sektoreetako kualifikaziorik gabeko lanetan dihardutenak.
3. LH I-eko edo bigarren mailako ikasketak izanik, industriaren eta zerbitzuen sektoreetako kualifikaziorik gabeko enpleguetan dihardutenak.

Oro har, 2007. urtean, 129.619 landunen kasuan atzeman da aurretik aipaturiko desoreka horietakoren bat, hau da, biztanle landun guztien % 13,6ren kasuan. Horrek esan nahi du, 1999. urteko egoerarekin alderatuta, egoerak okerrera egin duela, urte horretan 81.733 lagun baitzeuden horrelako egoeran (% 9,9) eta berdin gertatzen da 2003. urtearekin alderatuta, kasu horretan 109.266 lagun zeudelako egoera horretan.

1995eko % 13,6raino igo da proportzioa, nahiz eta zenbatekoei begiratuta, eraginpean harturikoen bolumena 1995ekoa baino askoz handiagoa den (1995ean 96.177 lagun).

1995. urtean, generoen artean halako oreka bat bazela esan daiteke, baina 1999. urtetik aurrera emakumeei nabarmen gehiago eragiten die problematikak (2007an % 59 da emakumeen proportzioa eta gizonena % 41). Izan ere, emakumeen % 19,1ek horrelako arazoren bat dute, eta intzidentzia gizonetan, aldiz, % 9,6ra murrizten da.

Emakumeei bi aldiz gehiago eragiten die arazoak gizonei baino, 45 urtetik beherakoetan: 35 urtetik beherakoetan, emakumeak % 25,5 eta gizonak % 12,9; 35-44 urtekoetan, emakumeak % 21,9 eta gizonak % 10,4. 45 urtetik gorako emakumeei % 50 gehiago eragiten die arazoak (emakumeak % 9,4 eta gizonak % 6,2).

Bestalde, datuen arabera, gazteek arazo handiagoak izaten dituzte. Horrela, 35 urtetik beherako kaltetuak % 47,5 dira, 35-44 urtekoak % 32,9, eta 45 urtetik gorakoak % 19,6. Desoreken eragin erlatiboa areagotu egiten da adinean behera egin ahala. Prestakuntza eta enpleguaren arteko desorekak dituzten gizonezko landunen proportzioak honako hauek dira: 45 urtetik gorakoetan % 6,2, 35-44 urtekoetan % 10,4 eta 35 urtetik beherakoetan % 12,9. Emakumeetan gizonezkoetan baino deigarriagoak dira desorekak: 35 urtetik beherakoetan % 9,4, 35-44 urtekoetan % 21,9 eta 35 urtetik beherako biztanleria gaztean, % 25,5eko gehienezko proportzioa.

2003-2007 aldian, gizonen egoerak, oro har, okerrera egin du: 35 urtetik beherakoetan nolabaiteko egonkortasuna gertatu da eta adin horretatik gorakoetan intzidentzia-tasen igoera txikiak, azken urteetan. Alabaina, 35 urtetik gorakoetan izandako igoera txiki horiek 1999-2003 aldian gertatutako igoera handiari gehitu zaizkio eta ondorioz 2007. urtean, aztertutako adierazlea gehienezko balioetara heldu da. Aldaketa kuantitatiboki deigarriagoa da 45 urtetik gorakoetan, hau da, 2007an lehen aipatutako arazoetakoren bat zuten landunen proportzioa % 6,2 zen, eta adierazle hori etengabe igo da 1995eko eta 1999ko % 3ren inguruko zifratik abiatuta. Dena den, 2007an eta 35-44 urteko gizonen kasuan, horietako % 10,4k 1999ko eta 2003ko % 9 inguruko zifra gainditzen dute. Aldiz, 35 urtetik beherako gizonetan, 1995eko tasak baino askoz baxuagoak ateratzen dira (% 12,9, 2003ko % 12,7ren parekoa, beraz 1995eko % 20,3ren azpitik baina 1999ko % 9,1ekin alderatuz, goranzko joeran).

2007an emakumezkoen biztanleria landunaren tasak 35 urtetik beherakoetan eta 45 urtetik gorakoetan ez dira asko aldatzen 1995eko datuekin alderatuz (% 25,5etik % 26,9ra lehen kasuan eta % 9,4tik % 9,3ra bigarreanean). Azken talde honetan egoera hori 2003-2007 aldian gertatutako % 11tik 9,4rako jaitsieraren ondorioa da eta horrek 1999ko % 6,1ekiko izandako igoera geldiarazi zuen. Gazteenen kasuan, problematiken gorakada ikus daiteke, 1999an eta 2003an izandako % 22 inguruko zifrekin, 1995eko % 26,9tik jaitsi ondoren.

Bilakaera kontrakoena 35-44 urteko emakumeetan gertatu da, kontuan hartutako problematikaren intzidentziaren igoera etengabea ematen baita talde horretan. Hasierako hazkundera -1995eko % 13,4tik 1999ko eta 2003ko % 15,5-16ko tasetara igoera nahiko mugatua bazen ere, 2003-2007 aldikoa askoz esanguratsuagoa izan da eta azken urtean, % 21,9ra heldu da.

Emakumeen eta gazteenen problematikek intzidentzia handia dute gure testuinguruan eta nabarmena da azken urteetan 35 urtetik gorako biztanleria landunaren egoeran gertatu den okertze erlatiboa, batez ere 35-44 urteko emakumeetan.

## 7.1 taula

Enpleguaren eta prestakuntzaren artean desoreka duen biztanleria landuna, sexuaren eta adinaren arabera

(Datu absolutuak, % bertikalak eta intzidentzia-maila, biztanleria landunari dagokionez)

Sexua eta adina	Datu absolutuak	% ber. 2007	Intzidentzia 2007	Intzidentzia 2003	Intzidentzia 1999	Intzidentzia 1995
Gizonak < 35	23.771	18,3	12,9	12,7	9,1	20,3
Gizonak 35-44	16.319	12,6	10,4	9,0	5,4	9,3
Gizonak >= 45	13.106	10,1	6,2	5,0	3,0	2,8
Gizonak	53.196	41,0	9,6	8,8	6,0	10,9
Emak. < 35	37.799	29,2	25,5	22,1	22,4	26,9
Emak. 35-44	26.366	20,3	21,9	15,9	15,6	13,4
Emak. >= 45	12.258	9,5	9,4	11,0	6,1	9,3
Emakumeak	76.423	59,0	19,1	16,9	16,6	18,6
<b>GUZTIRA</b>	<b>129.619</b>	<b>100</b>	<b>13,6</b>	<b>12,1</b>	<b>9,9</b>	<b>13,6</b>

Orain arte aipatutako gaietan sakontze aldera, EAEko biztanleria landuan atzemandako desorekak aztertuko ditugu jarraian, okupazioaren eta kualifikazio-mailaren arabera.

Kuantitatiboki nagusia den desoreka honako honi dagokio: unibertsitateko edo LH II-ko titulua duten 56.157 landunek administrari-laguntzaileen okupazioan dihardute (atzemandako desoreka guztien % 43,3). % 24,7 laguntzaile postuetan ari diren unibertsitarioei dagokie, eta % 18,6 LH II-ko tituludunek okupaturiko postuei.

Emakumeetan eragin handiagoa du desoreka horrek (% 71,1). Adinaren faktoreak ere garrantzi handia du, 35 urtetik beherakoak % 45,2 eta 35-44 urtekoak % 35,3 izanik. 45 urtetik beherakoak dira gehienak, % 59,7.

Garrantziari dagokionez, prestakuntzaren eta enpleguaren arteko beste desoreka hau dago bigarren postuan: prestakuntza arautuaren gutxieneko maila (gutxienez LH I edo lanbidekoak ez diren bigarren mailako ikasketak) dutenak lanpostu ez-kualifikatuetan aritzea. Bigarren kasu horretan 40.380 landun barnean hartzen dira, desoreka guztien % 37,1. Kasu horretan, LH I-eko edo bigarren mailako ikasketak dituztenek okupaturiko kualifikaziorik gabeko postuen % 18,1eko proportzioa nabarmentzen da, eta horren atzetik, LH II-ko tituludunek okupaturiko lanpostu ez-kualifikatuen % 7,9; azkenik, unibertsitateko tituludunei % 5,1 dagokie.

Ikasketa kualifikatuak dituen biztanleria unibertsitarioaren ezaugarriak bat datoz administraritzaren eremuan azpiokupaturikoen profilarekin, eta nola ez, emakumeak dira nagusi (% 64,9), batez ere 45 urtetik beherakoak (guztikoaren % 52,6); aldiz, LH I-eko, LH II-ko eta lanbidekoa ez den bigarren mailako tituludunen kasuan egoera orekatuagoa dago, gizonen % 48-49.

Beste datu aipagarria adinari dagokiona da. Orokorrean, garrantzi handiena 35 urtetik beherakoak hartzen dute. Alabaina, nahiz eta 35 urtetik beherako garrantzia % 50etik goragokoa den unibertsitateko tituludunetan edo LH I-eko eta lanbidekoa ez den bigarren mailako tituludunetan (% 59,8 eta % 51,2, hurrenez hurren), LH II-ko tituludunen kasuan proportzioa % 41,6ra jaisten da. Egoera hori tituludun mota horretan 35-44 urteko lagunek duten garrantziari, batik bat, loturik dago (% 38,4 LH II-n, aldiz % 30 LH I-ean eta lanbidekoak ez diren bigarren mailako ikasketen kasuan eta % 23,4 unibertsitateko ikasketetan).

Arazo hori duen hirugarren kolektiboa industriako eta zerbitzuetako lanpostuetan –administraritzarekin edo teknikarekin loturirik ez dutenak– ari da, unibertsitarioa izanik. Guztira 33.082 lagun dira, okupazioaren eta kualifikazioaren artean desorekaren bat duten landunen % 25,5.

Talde honetan gizonen (guztizkoaren % 55,6), eta 35 urtetik beherakoek (% 48,2) garrantzi erlatibo gehiago hartzen dute eta era berean, 35-44 urtekoen proportzioa ere deigarria da (% 31,2).

7.2 taula  
Enpleguaren eta prestakuntzaren artean desoreka duen biztanleria landuna, desoreka motaren eta sexuaren eta adinaren arabera

(Datu absolutuak)

Desoreka mota	Gizonak < 35	Gizonak 35-44	Gizonak >= 45	Gizonak Guztira	Emak. < 35	Emak. 35-44	Emak. >= 45	Emak. Guztira	GUZTIRA
Administrari laguntzaile enpleguak									
Unibertsitarioek okupatuak	3.259	4.036	1.807	9.102	11.748	7.699	3.450	22.896	31.999
LH II-ko tituludunek okupatuak	2.937	1.447	2.749	7.133	7.460	6.640	2.926	17.025	24.158
							<b>6375,70</b>		
<b>Enplegu administratiboak, guztira</b>	<b>6.196</b>	<b>5.483</b>	<b>4.557</b>	<b>16.235</b>	<b>19.207</b>	<b>14.339</b>	<b>14</b>	<b>39.922</b>	<b>56.157</b>
Beste enplegu kualifikatuak									
Unibertsitarioek okupatuak	7.395	5.502	5.488	18.384	8.527	4.824	1.347	14.698	33.082
<b>Beste enplegu kual., guztira</b>	<b>7.395</b>	<b>5.502</b>	<b>5.488</b>	<b>18.384</b>	<b>8.527</b>	<b>4.824</b>	<b>1.347</b>	<b>14.698</b>	<b>33.082</b>
Enplegu ez-kualifikatuak									
Unibertsitarioek okupatuak	1.701	342	300	2.343	2.282	1.217	819	4.318	6.660
LH II-ko tituludunek okupatuak	1.832	1.876	1.293	5.001	2.448	2.085	766	5.299	10.301
LH I/Lanb. ez den 2. mail. titulud. okupatuak	6.647	3.117	1.468	11.233	5.335	3.901	2.950	12.186	23.419
<b>Beste enplegu ez-kualifikatuak, guztira</b>	<b>10.180</b>	<b>5.335</b>	<b>3.062</b>	<b>18.576</b>	<b>10.065</b>	<b>7.203</b>	<b>4.535</b>	<b>21.803</b>	<b>40.380</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>23.771</b>	<b>16.319</b>	<b>13.106</b>	<b>53.196</b>	<b>37.799</b>	<b>26.366</b>	<b>12.258</b>	<b>76.423</b>	<b>129.619</b>

7.3 taula

Enpleguaren eta prestakuntzaren artean desoreka duen biztanleria landuna, desoreka motaren eta sexuaren eta adinaren arabera

(% bertikalak)

Desoreka mota	Gizonak < 35	Gizonak 35-44	Gizonak >= 45	Gizonak Guztira	Emak. < 35	Emak. 35-44	Emak. >= 45	Emak. Guztira	GUZTIRA
Administrari laguntzaile enpleguak									
Unibertsitarioek okupatuak	13,7	24,7	13,8	17,1	31,1	29,2	28,1	30	24,7
LH II-ko tituludunek okupatuak	12,4	8,9	21,0	14,0	19,7	25,2	23,9	22,3	18,6
<b>Enplegu administratiboak, guztira</b>	<b>26,1</b>	<b>33,6</b>	<b>34,8</b>	<b>31,1</b>	<b>50,8</b>	<b>54,4</b>	<b>52,0</b>	<b>52,3</b>	<b>43,3</b>
Beste enplegu kualifikatuak									
Unibertsitarioek okupatuak	31,1	33,7	41,9	34,6	22,6	18,3	11,0	19,2	25,5
<b>Beste enplegu kual., guztira</b>	<b>31,1</b>	<b>33,7</b>	<b>41,9</b>	<b>34,6</b>	<b>22,6</b>	<b>18,3</b>	<b>11,0</b>	<b>19,2</b>	<b>25,5</b>
Enplegu ez-kualifikatuak									
Unibertsitarioek okupatuak	7,2	2,1	2,3	4,4	6,0	4,6	6,7	5,6	5,1
LH II-ko tituludunek okupatuak	7,7	11,5	9,9	9,4	6,5	7,9	6,3	6,9	7,9
LH I/Lanb. ez den 2. mail. titulud. okupatuak	28,0	19,1	11,2	21,1	14,1	14,8	24,1	15,9	18,1
<b>Beste enplegu ez-kualifikatuak, guztira</b>	<b>42,9</b>	<b>32,7</b>	<b>23,4</b>	<b>34,9</b>	<b>26,6</b>	<b>27,3</b>	<b>37,1</b>	<b>28,4</b>	<b>31,1</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>

## 7.4 taula

Enpleguaren eta prestakuntzaren artean desoreka duen biztanleria landuna, desoreka motaren eta sexuaren eta adinaren arabera  
(% horizontalak)

Desoreka mota	Gizonak < 35	Gizonak 35-44	Gizonak >= 45	Gizonak Guztira	Emak. < 35	Emak. 35-44	Emak. >= 45	Emak. Guztira	GUZTIRA
Administrari laguntzaile enpleguak									
Unibertsitarioek okupatuak	10,2	12,6	5,6	28,4	36,7	24,1	10,8	71,6	100
LH II-ko tituludunek okupatuak	12,2	6,0	11,4	29,6	30,9	27,5	12,1	70,5	100
<b>Enplegu administratiboak, guztira</b>	<b>11,0</b>	<b>9,8</b>	<b>8,1</b>	<b>28,9</b>	<b>34,2</b>	<b>25,5</b>	<b>11,4</b>	<b>71,1</b>	<b>100</b>
Beste enplegu kualifikatuak									
Unibertsitarioek okupatuak	22,4	16,6	16,6	55,6	25,8	14,6	4,1	44,5	100
<b>Beste enplegu kual., guztira</b>	<b>22,4</b>	<b>16,6</b>	<b>16,6</b>	<b>55,6</b>	<b>25,8</b>	<b>14,6</b>	<b>4,1</b>	<b>44,5</b>	<b>100</b>
Enplegu ez-kualifikatuak									
Unibertsitarioek okupatuak	25,5	5,1	4,5	35,1	34,3	18,3	12,3	64,9	100
LH II-ko tituludunek okupatuak	17,8	18,2	12,6	48,6	23,8	20,2	7,4	51,4	100
LH I/Lanb. ez den 2. mail. titulud. okupatuak	28,4	13,3	6,3	48,0	22,8	16,7	12,6	52,1	100
<b>Beste enplegu ez-kualifikatuak, guztira</b>	<b>25,2</b>	<b>13,2</b>	<b>7,6</b>	<b>46,0</b>	<b>24,9</b>	<b>17,8</b>	<b>11,2</b>	<b>53,9</b>	<b>100</b>
<b>GUZTIRA</b>	<b>18,3</b>	<b>12,6</b>	<b>10,1</b>	<b>41,0</b>	<b>29,2</b>	<b>20,3</b>	<b>9,5</b>	<b>59,0</b>	<b>100</b>

1995ean eta 1999an zenbateko absolutuetan izandako beherakadaren ondoren, 1999. urtetik aurrera problematikak areagotu egin direla erakusten dute datuek.

1999-2007 aldiko problematiken areagotzeko joera azterlanean kontuan hartzen diren prestakuntza-mailaren eta lanbidearen arteko desoreka mota guztietan argi eta garbi ikusten da. Dena den, erreferentzia modura hartutako aldian, gehien igotzen den azpiokupazio mota lan kualifikatuak egiten dituzten unibertsitarioarena da –ez teknikoak ezta administratiboak ere–. Kasu horretan, prestakuntza eta enpleguaren arteko desoreka mota horrek eragindako landunen kopurua 1999-2007 aldian % 101 hazi da. Bereziki deigarria da egoera horien hazkundea 2003-2007 laurtekoan, aldi horretan biltzen baita 1999-2007 aldian gertatutako hazkunde absolutuaren % 64,5.

Bestalde, 1999-2007 aldian % 52,1 igo da honako azpiokupazio mota honetan okupatutako lagun kopurua: administrari laguntzaile postuak LH II-ko edo unibertsitateko ikasketa kualifikatuak dituztenek gauzatutakoa, hain zuzen ere. Aurreko kasuan ez-bezala igoera modu homogeneoan banatzen da laurteko bakoitzean, hau da, 2003-2007 laurtekoan % 50,7 eta 1999-2003 laurtekoan % 49,3.

Enplegu ez kualifikatuetan azpiokupatutako langile tituludunen egoerari dagokionez, bilakaera zertxobait desberdina da, izan ere, 2003-2007 aldian kopuruaren jaitsiera txiki bat ikus daiteke. Kasu horretan, dena den, 1999ko kopuruarekiko % 42,3ko igoera izan da, 1999-2003 aldian gertatutako prestakuntza eta enpleguaren arteko desorekaren igoera handiaren ondorioz.



Baina ezin dugu aipatu gabe utzi honako hau: 1995-1999 aldian, lanpostu ez-kualifikatuei zegokien desorekari dagokionez, asko murriztu zen desoreka horren eraginpeko biztanleria landunaren kopurua. Eta 1999-2007 aldian igo egin den arren, 1995-2007 aldiko balantzea positiboa da orokorrean, horrelako egoeran dauden % 22,6 kasu gutxiagorekin (1995eko datuekin alderatuz). Aldiz, prestakuntza eta enpleguaren arteko gainerako desorekak etengabe eta gero eta lagun kopuru handiagoari eragin diote aipatutako hamabi urteko aldian. Zenbateko erlatiboetan, igoera bereziki handia gertatu da unibertsitarioek langile kualifikatuen enpleguak okupatzeari dagokionez (% 219,6ko igoera 1995koari dagokionez eta % 68,1 administrari laguntzaileko postuak unibertsitarioak edo LH II-ko tituludunak betetzeari dagokionez).

7.5.a taula

Enpleguaren eta prestakuntzaren artean desoreka duen biztanleria landuna, desoreka motaren arabera

(Datu absolutuak eta biztanleriaren hazkunde-tasak, %-etan)

Desoreka mota	2007	2003	1999	1995	Hazkundera	Hazkundera
					% 2007/1999	% 2007/1995
Adm. Lag./Unib. edo LH II	56.157	46.392	36.909	33.399	52,1	68,1
Enp.kualifikatuak/Unibertsitarioak	33.082	22.351	16.457	10.350	101,0	219,6
Enp. ez-kualifikatuak/Tituludunak	40.380	40.522	28.367	52.368	42,3	-22,9
<b>GUZTIRA</b>	<b>129.619</b>	<b>109.266</b>	<b>81.733</b>	<b>96.117</b>	<b>58,6</b>	<b>34,9</b>

Aurretik azaldutako prozesuen ondorioz, lanpostu ez-kualifikatuetako okupazioarekin loturiko desoreken garrantzi erlatiboa murriztu egin da (1995eko guttizkoaren % 54,5tik 2007ko % 31,1era, 2003an izandako gorakada txikiaren ondoren). Alabaina, lanpostu administratiboekin erlazioaturiko desoreken garrantzi erlatiboa handitu egin da (1995-2007 aldian % 34,7tik % 43,3ra) eta batez ere, lan kualifikatuei (ez teknikoak eta ez administratiboak) dagokionez (% 10,8tik % 25,5era erreferentziako aldian).

7.5.b taula

Enpleguaren eta prestakuntzaren artean desoreka duen biztanleria landuna, desoreka motaren arabera (% bertikalak)

Desoreka mota	2007	2003	1999	1995
Adm. Lag./Unib. edo LH II	43,3	42,5	45,2	34,7
Enp.kualifikatuak/Unibertsitarioak	25,5	20,5	20,1	10,8
Enp. ez-kualifikatuak/Tituludunak	31,1	37,1	34,7	54,5
<b>GUZTIRA</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>

Datu horien arabera, titulazio-maila handienak presio egiten ari dira oraindik ere, teoriarik bederen, titulazio-maila txikiagoak bete beharreko lanpostuetan. Gai horrek okupazioari, langabeziari edo desokupazioari dagozkion alderdietan zer intzidentzia duen aztertu behar da, ikasketak-mailaren arabera.

Datuak ikusita, argi geratu da honako hau: batik bat, hirugarren mailako ikasketak dituzten aktiboek presio handia egiten dute kualifikazio-maila txikiagoa eskatzen duten okupazioetan; horren ondorioz langabeziak eta ez-okupazioak kolektibo horretan duten eragin potentziala arindu egiten da. Horrela, unibertsitateko tituludunen kolektiboan dagoen desokupazio potentzialaren maila (hasierako prestakuntza-maila baino txikiagoa eskatzen duten enpleguetara jotzeko aukerarik ez balego, egongo litzatekeen desokupazioa) 5,2 aldiz handiago da egiazko desokupazioaren bolumena baino (88.774 desokupatu potentzial, egiazko desokupatuak 17.033 izanik).

Egoera hori LH II-ko ikasketak dituzten aktiboek artean ere partzialki gertatzen da. 2003an, desokupazio potentzialaren maila egiazko desokupazioaren maila baino 2,1 aldiz handiagoa zen. 2007an, aldiz, alde hori 1,1 alditan murriztu zen (11.192 desokupatu potentzial, egiazko desokupatuak 9.815 izanik).

Aitzitik, lehen eta bigarren mailako ikasketak ez-kualifikatuak dituzten kasuan, egiazko desokupazio-maila handiagoa da desokupazio potentziala baino: 40.380 egiazko desokupatu, potentzialak 32.738 izanik.

Prestakuntza-enplegua oreka erabatekoa izatekotan, lortutako maila goreneko titulazioa baino maila txikiagoa enpleguetara jotzea ezinezkoa izango litzateke, eta okupazio-eraren tasa potentzialki murriztu egingo litzateke, lehen mailako ikasketadun edo ikasketarik gabeko aktiboek % 5,5etik eta lanbidekoak ez diren bigarren mailako ikasketak edo LH I-eko ikasketak dituzten aktiboek 7,7tik zifra nuluetara igarota. LH II-ko tituludunen artean okupazio-eraren tasa pixka bat igoko litzateke (% 4,9tik % 5,6ra). Unibertsitateko tituludunen artean, aldiz, eragina erabakigarria da, okupazio-eraren tasa potentzialki igotzen delako % 5,8tik % 30,1ra.

Zenbateko horiek argi adierazten dute 2007an dagoen benetako eskaerari erantzuteko ez dagoela nahikoa lanpostu-eskaintza, ikasketak-mailaren arabera, desokupazio-tasa potentzialak gora eginez, bigarren mailako tituludunen artean (kualifikatuak nahiz kualifikatu gabek) bereziki, eta are garbiago oraindik, LH II eta unibertsitateko tituludunen artean. Hortaz, oro har, langabezia-tasen homogeneotasun erlatibo horren atzean honako hau ezkututzen da: 2007an, euskal gizartearen gertatzen den okupazioaren eta kualifikazioaren arteko desoreka handia.

1999. urteko egoerarekin alderatuta, ikasketarik gabeko edo lehen mailako ikasketak dituzten aktiboek artean, ez-okupazioaren tasa potentziala nabarmen jaitsi da potentzialki nulua bihurtu arte (% 9,7tik % 0ra 2003an), baita lanbidekoak ez diren bigarren mailako ikasketak eta LH I-eko ikasketak dituzten aktiboek artean ere (% 12,9tik 2003ko % 2,2ra eta 2007ko % 0ra). Hasieran, LH II-ko tituludunen kasuan egonkor mantendu zen (1999an % 17,9 eta 2003an % 15,4), baina 2007an okupazio potentzialaren tasak jaitsiera esanguratsua izan zuen, % 5,6 izanik.

Epe luzera egonkor mantendu den tasa bakarra eta maila oso altuetan, titulu unibertsitarioa duen biztanleria aktiboaren desokupazio potentzialaren tasa izan da, azken zortzi urteetan 1,7 puntu soilik jaitsita honako moduan: 1999an % 31,8, 2003an % 30,8 eta 2007an % 30,1. Hori guztia ikusita, argi geratu da egiturazko arazoak oraindik ere

hortxe daudela eta modu aktiboan jarduten ari direla hirugarren mailako ikasketak dituztenen artean, egiazko langabezia-tasak eta ez-okupazioko tasak murriztearekin loturiko itxurazko hobekuntza gorabehera.

7.6.a taula  
Ez-okupazio potentziala eta egiazkoa, prestakuntza-mailaren arabera  
Biztanleria aktiboa  
(Datu absolutuak eta tasak, %-etan)

Prestakuntza-maila	Ez-okupatu egiazkoak	Ez-okupatu potentzialak	Ez-okupazio tasa, egiazkoa 2007	Ez-okupazio tasa, potentziala 2007	Ez-okupazio tasa, potentziala 2003	Ez-okupazio tasa, potentziala 1999
Ikasketarik gabe-Lehen mailakoak	16.822	-23.557	5,5	-7,8	-3,4	9,7
Bigarren mailako ez-kualifikatuak	16.450	-16.289	7,7	-7,6	2,2	12,9
LH II	9.815	11.192	4,9	5,6	15,4	17,9
Hirugarren mailakoak	17.033	88.774	5,8	30,1	30,8	31,8
<b>GUZTIRA</b>	<b>60.120</b>	<b>60.120</b>	<b>5,9</b>	<b>5,9</b>	<b>9,3</b>	<b>16,8</b>

Ez-okupatu potentzialak = (Egiazko ez-okupatuak + Okupatutako beheragoko mailako postuak – goragoko prestakuntza-maila dutenek okupatutako postu propioak)

Biztanleria potentzialki aktiboa aintzat hartuz gero, diagnosia ez litzateke aldatuko. 2003an, ez-okupazioko tasa potentziala % 4,5 handitu zen ikasketarik gabeko edo lehen mailako ikasketak dituen biztanlerian eta % 8,9 LH I-eko edo lanbidekoak ez diren bigarren mailako ikasketak dituen biztanlerian. 2007an, aldiz, aktiboak eta potentzialki aktiboak kontuan hartuta ere, desokupazio potentzialaren tasa nulua da aipaturiko prestakuntza duen biztanlerian. Alabaina, LH II-ren kasuan tasa % 5,6tik % 8ra handitu da, eta maila hori, batez ere unibertsitateko ikasketak dituztenen artean, mantendu egin da (% 30,6 LH II-n eta % 30,1 unibertsitatekoen kasuan, biztanleria aktiboa soilik kontuan hartuta).

7.6.b taula  
 Ez-okupazio potentziala eta egiazkoa, prestakuntza-mailaren arabera  
 Biztanleria potentzialki aktiboa  
 (Datu absolutuak eta tasak, %-etan)

Prestakuntza-maila	Ez-okupatu egiazkoak	Ez-okupatu potentzialak	Ez-okupazio tasa, egiazkoa	Ez-okupazio tasa, potentziala
Ikasketarik gabe-Lehen mailakoak	28.931	-11.448	9,2	-3,6
Bigarren mailako ez-kualifikatuak	24.894	-7.845	11,2	-3,5
LH II	15.199	16.576	7,4	8,0
Hirugarren mailakoak	19.334	91.075	6,5	30,6
<b>GUZTIRA</b>	<b>88.358</b>	<b>88.358</b>	<b>8,5</b>	<b>8,5</b>

Ez-okupatu potentzialak = (Egiazko ez-okupatuak + Okupatutako beheragoko mailako postuak – goragoko prestakuntza-maila dutenek okupatutako postu propioak)

Aztergai dugun arazoa gehien bat zein ikasketa motatan gertatzen den ikusiko dugu, bereziki, unibertsitateko tituludunen kasuan. Kasu horretan, osasungintzako erdi-mailako lanbideei eta medikuntzari dagokienez, ez-okupazioaren tasa egiazkoa eta potentziala antzekotzat har ditzakegu, betiere 5 puntutik beherako aldeak izanik: osasungintzako lanbide horietan % 0,4 egiazkoa eta % 3,9 potentziala; medikuntzan, % 0 egiazkoa eta % 5,6 potentziala. Gainerako kasuetan, egiazko langabeziaren eta langabezia potentzialaren arteko desoreka 10 puntutik gorakoa izateko joera dago.

Desoreka horrek ikasketa unibertsitarioko adar gehienetan gertatzen diren langabezi edo desokupazio potentzialaren maila altuekin zerikusia du. Egia esan behar bada, medikuntzan eta osasungintzako erdi-mailako titulazioetan izan ezik (horietan ez-okupazio potentzialaren tasa % 5etik beherakoa edo horren ingurukoa baita) eta goi-mailako unibertsitateko ikasketetan izan ezik (% 8,4ko tasarekin), gainerako unibertsitate-ikasketetan, desokupazio potentzialaren tasa beti % 10 baino handiagoa izaten da. Are gehiago, % 13,8ko langabezia potentzialaren tasa duten goi-mailako ingeniartzetan izan ezik, gainerako kasuetan, eraginak % 25eko maila gainditzen du.

Horrela, ingeniartza teknikoetan, Filosofia eta Letretan eta Zuzenbidean % 25-30eko tasak daude. Maila horiek gainditu egiten dira (% 30-35) honako ikasketa mota hauetan: OHoko Irakaskuntzan, Informatikan, Natur Zientzietan eta Zientzia Zehatzetan eta beste goi-mailako ikasketetan. Kopuru horiek Ekonomiketan (% 37,7) eta beste erdi-mailako ikasketa batzuetan (% 57,2) gainditu egiten dira. Beraz, unibertsitateko prestakuntza lan-merkatuaren beharrei egokitzeko arazoa funtsezkoa da oraindik.

Azken aldiko bilakaera ez da berdina izan ikasketa mota guztietan. 1999. urtearekin alderatuz, adar batzuetan ez-okupazio potentzialaren tasaren okertzea ikus daiteke. Horrela gertatu da ingeniartzaren eremuan, (% 18,4tik % 26,5ra ingeniartza teknikoetan; % 9,8tik % 13,8ra goi-mailako ingeniartzetan), nahiz eta 2003ko % 28,5 eta % 19,5ren desokupazio potentzialaren tasekin alderatuz, tasa hori jaitsi egin den. Okertze hori honako hauetan ere ikusi da:

Informatikan eta Natur Zientziak eta Zientzia Zehatzetan. Horren arrazoia 1999-2003 aldian aurki daiteke, 2003an, jadanik % 32,3ko tasa baitzegoen.

Beste hainbat kasutan, 1999ko ez-okupazio potentzialaren maila ez da askorik aldatzen, esaterako, OHOk irakaskuntzan, (1999ko % 31,9tik % 32,1ra), Ekonomian, (% 36,6tik % 37,7ra) edo Zuzenbidean (% 31,4tik % 29,9ra). Alabaina, kasu horiek lan-aurreikuspenen (2003. urtearekiko) okertzea pairatzen ari diren adarrei dagozkie. 2003. urtean, ikasketa mota horietan hobekuntzak, kasu batzuetan esanguratsuak, atzeman ziren.

Alabaina, aurrerapen positiboak beste adar batzuek izan dituzte. Kasu batzuetan, Filosofia eta Letretan esaterako, aurrerapen positibo horrek ez-okupazio potentzialaren maila oso altuak eragiten ditu (% 28,8); hala ere, 1999ko % 37,1eko proportzioarekiko jaitsiera garrantzitsua izan da eta are gehiago 2003ko % 42,9koarekiko. Beste adar batzuetan, aurrerapen positibo horrek desokupazioa ia erabat desagertzea eragin du. Zenbateko potentzialetan, osasungintzako erdi-mailako lanbideetan, OLTan eta antzekoetan tasa jaitsi egin da 1999ko % 14,3tik 2003ko % 4,7ra eta 2007ko % 3,9ra. Berdin gertatzen da medikuntzaren kasuan, hau da, desokupazio potentzialaren mailak 1999ko % 8,6tik 2007ko % 5,6ra jaitsi dira. Dena den, proportzio horrek 2003ko % 3,2tik pixka bat gora egin du.

#### 7.7 taula

Ez-okupazio potentziala eta egiazkoa hirugarren mailako ikasketak dituztenetan, hirugarren mailako ikasketa motaren arabera

#### Biztanleria aktiboa

(Datu absolutuak eta tasak, %-etan)

Hirugarren mailako ikasketa motak	Ez-okupatu egiazkoak	Ez-okupazio	Ez-okupazio	Ez-okupazio	Ez-okupatu potentzialak	Ez-okupazio	Ez-okupazio	Ez-okupazio
		tasa, egiazkoa	tasa, egiazkoa	tasa, egiazkoa		tasa, potentziala	tasa, potentziala	tasa, potentziala
		2007	2003	1999		2007	2003	1999
Ingeniaritza Teknikoa	385	1,4	10,7	7,3	7.097	26,5	28,5	18,4
OHOk irakasleak	897	2,8	2,2	9,9	10.161	32,1	21,8	31,9
Osasungintzako lanb. (OLT)	73	0,4	2,3	9,2	747	3,9	4,7	14,3
Bestelako erdi-mailako 3. mailakoak	933	2,9	12,2	16,8	18.529	57,2	58,3	62,1
Erdi-mailako espezializatuak	0				0		45,0	100
Goi-mailako ingeniariak	1.597	6,2	8,7	6,0	3.566	13,8	19,5	9,8
Informatika, Z..Zehatzak	1.824	8,2	12,2	16,2	7.462	33,3	32,3	23,9
Filosofia eta letrak	2.916	9,9	16,8	18,2	8.472	28,8	42,9	37,1
Ekonomia	3.550	10,6	9,3	11,9	12.666	37,7	34,7	36,6
Zuzenbidea	631	2,9	9,0	17,5	6.509	29,9	24,2	31,4
Medikuntza	0			8,6	431	5,6	3,2	8,6
Bestelako 3. mailako goi-mailakoak	4.227	12,0	11,4	23,3	12.535	35,5	27,6	34,5
Goi-mailako esp.	0		19,6	5,2	600	8,4	35,3	5,2
<b>GUZTIRA</b>	<b>17.033</b>	<b>5,8</b>	<b>9,7</b>	<b>14,0</b>	<b>88.774</b>	<b>30,1</b>	<b>30,8</b>	<b>31,8</b>

Txosteneko azken bi taulak, hasierako prestakuntza arautuaren mailaren arabera egindako laneratze-mailaren azken balantzea egiteko saiakeratzat har daitezke. Horretarako, sistema

produktiboan parte har dezakeen biztanleria guztia hartu da kontuan. Horrela, biztanleria aktiboari eta potentzialki aktiboa den biztanleriari (aktibo potentzialak barnean hartuta) zuzendutako informazioa ematen da.

Datuek adierazten dutenez, biztanleria potentzialki aktiboa aintzat hartuz gero, biztanleria ez-okupatuak kualifikazio-mailari egokitutako enpleguetan duen intzidentzia-maila gutxienez % 8,7 da lehen mailako ikasketak dituztenetan eta % 12,6ra igotzen da lehen mailako ikasketarik gabekoetan. Bigarren mailako ikasketak (lanbidekoak edo ez) dituzten tituludunetan tasa hori asko igotzen da, % 21,5-24an kokatuz. Adierazle horren maila altuena unibertsitateko tituludunei dagokie, % 29,4ko tasa hirugarren mailako goi-mailako ikasketen kasuan eta % 32,7ko tasa hirugarren mailako erdi-mailako ikasketetan.

Baina biztanleria aktiboa soilik kontuan hartzean, tasak pixka bat murrizten dira, batez ere, kualifikazio-maila txikiena dutenetan. Hala ere itxura orokorra antzekoa da. Oinarrizko ondorioa honako hau izan da: prestakuntza-maila hobetzen den neurrian, are eta gehiago handitzen da beren kualifikazioari egokitutako enpleguetan ez dauden lagunen proportzioa ere, bai biztanleria aktiboari bai biztanleria potentzialki aktiboari dagokionez.

Gaur egun, datuei begiratuta, prestakuntza-kualifikazioaren eta produkzio-sistemaren arteko egokitzapenik ez dugu lortu oraindik. Funtsean, bigarren eta hirugarren mailako ikasketak dituztenek eragiten dute arazo hori, baina kualifikazio-maila txikiagoa duten kolektiboetan eragiten du, goragoko mailako kualifikazioa dutenek beheragoko kualifikazioko lanpostuak okupatzean sortzen diren desoreken ondorioz.

7.8.a taula  
Kualifikazioari egokitutako enpleguen okupazio-tasak, prestakuntza-mailaren arabera  
Biztanleria aktiboa  
(%-etan)

Prestakuntza-maila	Egokitutako enpleguetan okupatuak	Beheragoko kualifikazioko enpleguetan okupatuak	
		Ez-okupatuak	Egokitutako enpleguetan ez-okupatuak
Lehen mailako ikasketarik gabe	94,3	5,7	5,7
Lehen mailako ikasketak	94,5	5,5	5,5
LH I	79,4	13,7	20,6
Lanbidekoak ez diren bigarren mailako ikasketak	82,7	9,1	17,3
LH II	78,0	17,1	22,0
Hirugarren mailako erdi-mailako ikasketak	67,3	30,6	32,7

Hirugarren mailako goi-mailako ikasketak	71,5	20,5	8,0	28,5
<b>Guztira</b>	<b>81,3</b>	<b>12,8</b>	<b>5,9</b>	<b>18,7</b>

7.8.b taula

Kualifikazioari egokitutako enpleguen okupazio-tasak, prestakuntza-mailaren arabera  
Biztanleria potentzialki aktiboa  
(%-etan)

Ikasketa-maila	Egokitutako enpleguetan okupatuak	Beheragoko kualifikazioko enpleguetan		Egokitutako enpleguetan ez-okupatuak
		okupatuak	Ez-okupatuak	
Lehen mailako ikasketarik gabe	87,4		12,6	12,6
Lehen mailako ikasketak	91,3		8,7	8,7
LH I	77,9	13,4	8,6	22,1
Lanbidekoak ez diren bigarren mailako ikasketak	78,4	8,6	13,0	21,6
LH II	76,0	16,7	7,4	24,0
Hirugarren mailako erdi-mailako ikasketak	67,3	30,6	2,0	32,7
Hirugarren mailako goi-mailako ikasketak	70,6	20,2	9,2	29,4
<b>Guztira</b>	<b>79,1</b>	<b>12,5</b>	<b>8,5</b>	<b>20,9</b>

## **AURKIBIDEA**

HITZAURREA	2
I.- IKASKETA ARAUTUAK	4
EUSKADIKO BIZTANLERIA AKTIBOAREN IKASKETA ARAUTUAK	5
1.- ALDERDI OROKORRAK	5
1.1.- Lehen mailako ikasketarik gabeko biztanleria aktiboa	11
1.2.- Lehen mailako edo LH I-eko ikasketak dituen biztanleria aktiboa	15
1.3.- Bigarren mailako ikasketak dituen biztanleria aktiboa	17
1.4.- Hirugarren mailako ikasketak dituen biztanleria aktiboa	22
2.- EGITURAZKO JOERAK	26
2.1.- Joerak, adin-taldeen arabera	28
2.2.- Generoaren araberrako joerak	37
II.- PRESTAKUNTZA ETA LAN MERKATUA	44
PRESTAKUNTZA ETA LAN MERKATUA	45
1.-PRESTAKUNTZA ARAUTUA ETA LANGABEZIA TASAK EDO LAN EGITEN EZ DUTENENA	45
1.1.- Lehen mailako edo LH I-eko ikasketak dituen biztanleria aktiboa	53
1.2.- Bigarren mailako ikasketak dituen biztanleria aktiboa	59
1.3.- Hirugarren mailako ikasketak dituen biztanleria aktiboa	67
2.- LANERATZEKO ARAZOAK IKASKETAK AMAITZEAN	75
2.1.- Gutxienez 6 hilabeteko langabezia-egoeraren esperientzia	75
2.2.- Inolako lan-esperientziarik eza	90
3.- PRESTAKUNTZA ARAUTUA ETA ENPLEGUAREN EZAUGARRIAK	106
3.1.- Enplegu egonkorra lortzea	106
3.2.- Enplegu egonkorra eta teknologikoki modernoa lortzea	125
3.3.- Prestakuntza arautua eta enplegu mota, lanbidearen arabera	149
III.- LANBIDE ESPERIENTZIA	169
LANBIDE ESPERIENTZIA	170
1.- EGUNGO OKUPAZIOAN EMANDAKO ESPERIENTZIA URTEAK	176
1.1.- Lan-esperientzia, ezaugarri soziodemografikoen arabera	180
1.2.- Egungo okupazioan lan-esperientzia, okupazio motaren, enpresa motaren eta kontratu bidezko loturaren arabera	183
1.3.- Lan-esperientzia, erabilitako teknologia motaren arabera	197
2.- LAN EGITEN EZ DUEN BIZTANLERIA AKTIBOAREN LAN ESPERIENTZIA	231



IV.- PRESTAKUNTZA OSAGARRIA	255
PRESTAKUNTZA OSAGARRIA	256
1. ARAUTU GABEKO PRESTAKUNTZA GAUR EGUNGO EAEko BIZTANLERIA AKTIBOAN	256
1.1.- Alderdi orokorrak	256
1.2.- Arautu gabeko prestakuntzarekin loturiko laneratze-eremuak	267
1.3.- Arautu gabeko prestakuntza lan egiten ez duen biztanlerian	279
2.- ATZERRIKO HIZKUNTZAK JAKITEA	284
2.1.- Biztanleria aktiboaren hizkuntzen ezagutza-mailari buruzko datu orokorrak	285
2.2.- Hizkuntzak dakizkiten pertsonen laneratzea	287
2.3.- Lan egiten ez duen biztanleriaren hizkuntzen ezagutza-maila	294
V. EAEko BIZTANLERIA AKTIBOAREN TIPOLOGIA, KUALIFIKAZIO MAILAREN ARABERA	296
EAEko BIZTANLERIA AKTIBOAREN TIPOLOGIA, KUALIFIKAZIO MAILAREN ARABERA	297
1.- IKASKETA KUALIFIKATUAK ETA LAN ESPERIENTZIA ESANGURATSUA DITUEN BIZTANLERIA	301
2.- IKASKETA KUALIFIKATURIK EZ, BAINA LAN ESPERIENTZIA ESANGURATSUA ETA PRESTAKUNTZA OSAGARRIA DITUEN BIZTANLERIA	310
3.- IKASKETA KUALIFIKATURIK EZ, BAINA LAN ESPERIENTZIA ESANGURATSUA DUEN BIZTANLERIA	320
4.- LAN ESPERIENTZIA ESANGURATSURIK EZ, BAINA IKASKETA KUALIFIKATUAK DITUEN BIZTANLERIA	329
5.- IKASKETARIK ETA LAN-ESPERIENTZIA ESANGURATSURIK EZ, BAINA PRESTAKUNTZA OSAGARRIA DUEN BIZTANLERIA	337
6.- IKASKETARIK ETA LAN ESPERIENTZIA ESANGURATSURIK GABEKO BIZTANLERIA	347
VI.- BIZTANLERIA LANDUNAREN MOTAK, KUALIFIKAZIO MAILAREN ARABERA	356
BIZTANLERIA LANDUNAREN MOTAK, KUALIFIKAZIO MAILAREN ARABERA	357
1. LANBIDE TIPOLOGIA	357
2. JARDUERA ADARREN TIPOLOGIA	362
VII.- ENPLEGUA-PRESTAKUNTZA ARAUTUA EGOKITZAPENERAKO AZKEN HURBILKETA	370
ENPLEGUA-PRESTAKUNTZA ARAUTUA EGOKITZAPENERAKO AZKEN HURBILKETA	371